

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAN OINARRITUTAKO TOKIKO GARAPENA:

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN KASU
AZTERKETA**



DOKTOREGO TESIA

Egilea:

Pablo Arrillaga Márquez

Zuzendariak:

Enekoitz Etxezarreta Etxarri

Aitor Bengoetxea Alkorta

2021

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAN OINARRITUTAKO TOKIKO GARAPENA:

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN KASU
AZTERKETA**



**GARAPENARI BURUZKO IKASKETAK DOKTORETZA
PROGRAMA**

Egilea:

Pablo Arrillaga Márquez

Zuzendariak:

Enekoitz Etxezarreta Etxarri

Aitor Bengoetxea Alkorta

2021



UPV/EHUko Gizarte
Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institutua

Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU

HITZAURREA:

Tokiko garapenak XX. mendeko azken herenean lurraldeetatik abiatutako garapen estrategia ezberdinak biltzen ditu. Biztanleriaren bizi kalitatea hobetzeko, lurraldean egiturazko aldaketa bat aurrera eramatera bideratuta daudenak. Ekonomia Sozial eta Solidarioak bere aldetik, beharizan ezberdinen gainean eragiteko (lana, kontsumoa, etxebizitza, finantzaketa, hezkuntza, ingurumena, kultura etab.), herri-antolaketa kolektibo ezberdinak biltzen ditu.

Lehen begiratu batean, tokiko garapenak zein Ekonomia Sozial eta Solidarioak partekatzen dituzten hainbat elementu aurkitu ditzakegu. Besteren artean, beharrak asetzeko edo bizi kalitatea hobetzeko esperientzia kolektiboak direla, behetik, hots, lurraldeetatik abiatzen direla edo lurraldeetan oinarrituta daudela eta bere egunerokotasunean eragiten dutela. Hala ere, ikuspegi bakarra dago? Noraino heltzen dira harreman hauek? ESSak birpentsatu dezake tokiko garapena? Praktikan ikusi daiteke teorikoki hain antzemangarria den gerturatze hau? Zertan ari dira zentzu honetan EAEko tokiko garapenerako zein ESSko eragileak?

Esku artean daukagun tesi honen bitartez, galdera hauei erantzuten saiatuko gara. Izan ere, egun erreproduzitzen ari diren diskurtso ugarietan horrelako alternatiba baten beharra somatzen da. Hots, kolapso ekosozialaren ertzero eraman gaituen eredu ekonomikoaren aurrean, bestelako ontologia duen (des)garapen eredu baten inguruan hausnartzen ari duten ikuspegi ezberdinak areagotu dira. Tesi honek, ikuspegi hauetako askotatik edaten du eraldaketa sozioekonomikoa helburu duen Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako tokiko garapen eredu bat proposatzeko. Horretarako, irakurleak, tokiaren eta lurraldearen garrantzia, tokiko garapenaren zein Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ezaugarri nagusienak, hauen arteko harremanak eta garapen eredu eraldatzaile baterako proposamena aurkituko du tesi honetan. Era berean, geure testuinguru hurbileko azterketa enpirikoa ere aurkituko du. Baina batez ere, irakurleak aurkituko duena, gaurkotasanari hertsiki lotuta dagoen ikerlan bat da; datozen garai berrietan nabigatzeko mapa osatzen lagundu dezakeena.

Pablo Arrillaga Márquez, 2021

ESKER ONAK:

Eskerrik asko lan honek argia ikus dezan modu batean edo bestean lagundu didazuen guztioi.

Eskerrik asko Aitor eta Enekoitz ez bakarrik tesi honen garapenerako ezinbestekoak izan diren zuen komentarioak, zuzenketak eta ekarpenak egiteagatik, baizik eta unibertsitatean bidea irekitzen laguntzeagatik, GEZKIko atak irekitzeagatik eta ikerketarako nire lehenengo aukera emateagatik. Egoera hau horren prekarioa izan ez dadin lagundu du.

Juankarri, ekonomia sozial eta solidarioan bidea irekitzeagatik, gradu amaierako lan hura tesi honen arrazoietako bat ere badelako.

Covid-19aren garai zailetan burutu den tesi honen landa lanerako inkesta betetzeko denbora eman duzuen garapen agentzietako ordezkari, eta bereziki, elkarrizketetan parte-hartu duzuen guztioi. Eskerrik asko Ainhoa, Maialen, Andoni, Marisa, Jose, Aritz, Iñaki, Jone, Pablo, Eli, Carlos, Marian, Beñat, Jokin, Rafael eta Jordi. Egoera dela eta pantailaren atzean ikusi behar izan garen arren, espero dut etorkizunean parez-pare topo egitea. Bidean ikusiko dugu elkar.

Jon eta Itxasori ekonomia sozial eta solidarioaren inguruan hausnartzeko eta etengabe galderak egiteko beti prest egoteagatik. Baina batez ere, hain lagun onak izateagatik.

Kuadrillari, hiru urte hauetan zehar, nire gorabehera guztiekin, beti hor egon den euskarria zarete. Eskerrik asko! Mendian dena elkar banatzen dugun taldetxoari elkartasuna, elkarrekotasuna eta beste hainbaten benetako esanahia erakutsi didazuelako.

Eta azkenik, nire familiari. Ama eta aitari hor egoteagatik, zaintzeagatik eta behar izan denean ongi merezitako zigorren bat jartzeagatik. Amona Felipari eredu izateagatik. Eta nire anaiari, Victorri. “Behar bereziak” dituzula esaten dutenek ez dakite benetan zein beharrezkoa eta berezia zaren.

AURKIBIDEA

SARRERA:	19
I. Tesiaren aurkezpena eta gaiaren gaurkotasuna:	19
Tokiko garapenari eta Ekonomia Sozial eta Solidarioari dagokionez:	22
II. Helburuak eta hipotesiak:	26
III. Tesiaren egitura:	27
IV. Ohar metodologikoak:	30
Berrikuspen bibliografikoari buruzko apunteak:	31
Landa lanari dagokionez:	31
1 KAPITULUA: TOKIKOA GLOBALIZAZIOAN	35
1.1 Estatz azpiko eremuei hurbilketa:	35
1.2 Estatu-nazioaren zentralitatea ekonomian:	36
1.2.1 Mendebaldeko ongizate estatu fordista-keynesiarra:	37
1.2.2 Keynesianismo espaziala:	41
1.2.3 Estatz azpiko eremuen hazkunde orekatua lortzeko teoriak:	43
1.2.4 Garapen ekonomikorako politikak hegoaldeko herrialdeetan:	50
1.3 Estatu eta globalizazioa:	52
1.3.1 70ko hamarkadako krisi globala:	53
1.3.2 Lehiakortasunaren estatu neoliberala:	55
1.3.3 Globalizazioaren prozesuak:	58
1.3.4 Estatz azpiko eremuen egituraketa berria:	61
1.3.5 Lehiakortasunaren estatu neoliberalaren eta estatu fordista-keynesiarraren arteko konparaketa:	64
1.4 Eskalen birformulazioa:	65
1.4.1 Estatz gaindiko eskalak:	69
1.4.2 Estatz azpiko eskalak:	71
2. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENA	75
2.1 Lurraldearen agerpena:	75

2.1.1 Tokiko garapenari lehenengo hurbilketa:	78
2.1.2 Lurraldea garapenerako eragile bezala:	81
2.2 Lurraldeak garatzeko politiken izaera:	102
2.2.1 Goitik behera ala behetik gora?.....	102
2.2.2 Bertakoa landuz ala kanpokoa erakarriz? Garapen endogenoa:	107
2.3 Tokiko garapenerako ereduak:	112
2.3.1 Adibideak:	113
2.3.2 Ereduen sintesia:	137
2.4 Egituraketa ereduak eta eragile motak:	141
2.4.1 Enpresa sareak:.....	141
2.4.2 Gobernantza:	142
2.4.3 Tokiko eragileak:	145
2.5 Giza dimentsioa barneratzen: Tokiko giza garapena	148
2.5.1 Tokiko giza garapenari hurbilketa:	150
2.5.2 Ongizatearen erreferentzia normatiboa:.....	154
2.5.3 Gaitasunen ikuspegia:	160
2.5.4 Tokiko garapenaren eta tokiko giza garapenaren alderaketa:	164
3. KAPITULUA: EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA.....	169
3.1 Antzinako elkartegintzatik hirugarren sektore baten eraikuntzara. Bilakaera historiko bat:	170
3.2 Hirugarren sektorearen ikuspegi anglosaxoia: Mozkinez Besteko Sektorea	179
3.2.1 Mozkinez besteko ikuskera:	183
3.2.1 Mozkinez besteko antolakundearen xedea, jabego, eta kudeaketaren inguruko apunteak:.....	185
3.3 Hirugarren sektorearen ikuspegi frankofonoa: Ekonomia Soziala.....	187
3.3.1 Ekonomia sozialaren antolakundeetako barne jokabideei begirakoak:	197

3.3.2 Ekonomia sozialaren antolakundeetako kanpo jokabideei begirakoak:	200
3.4 Ekonomia Solidarioa:	203
3.4.1 Ekonomia solidarioaren oinarriak:	211
3.4.2 Ekonomia solidarioa eta balio katea:	218
3.4.3 Ekonomia solidarioaren sare egituraketa:	226
3.5 Ekonomia Sozial eta Solidarioa:	236
3.6 Ekonomia Sozial eta Solidarioaren inguruko beste eredu eta praktika interesgarriak:	241
4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA	247
4.1 Orain arte egindako hurbilketak. Berrikuspen bibliografiko bat:	248
4.2 Tokiko garapenaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko harremanak:	253
4.2.1 Hurbilketa soziologia ekonomikoaren ikuspuntutik:	254
4.2.2 Tokiko garapenaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren estrategien eta helburuen konbergentzia:	263
4.2.3 Tokiko garapena eta ekonomia sozial eta solidarioa uztartzea ahalbidetzen duten elementu komunak:	269
4.3 Tokiko garapenaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko sinergiak:	280
4.4 Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako tokiko garapenerako eredu eraldatzaile baterako proposamenak:	314
4.4.1 Garapen eraldatzailearen ikuspegia, mugak eta helburua:	315
4.4.2 Tokiko egitura kooperatibo-komunitarioa:	324
4.4.3 Egituratzeko baldintzak: lankidetzaren publiko-kooperatibo-komunitario baterantz.	343

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN:	365
5.1 EAE eskala anitzeko gobernantzan:	367
5.2 Tokiko garapenerako oinarritzko eragileak Euskal Autonomia Erkidegoan:	372
5.3 Ekonomia Sozial eta Solidarioaren oinarritzko eragileak Euskal Autonomia Erkidegoan:.....	380
5.4 Tokiko garapen agentzietatik Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko burututako ekimen ezberdinak EAEn:	388
6. KAPITULUA: LANDA LANAREN EMAITZAK.....	397
6.1 Landa lanaren inguruko ohar metodologikoak:.....	397
6.1.1 Inkesten egituraketa:	399
6.1.2 Sakoneko elkarrizketen egituraketa:	401
6.2 Landa lanaren emaitzak (I): Inkestaren emaitza orokorrak.....	407
6.2.1 0 Blokearen emaitzak. Garapen agentzien inguruko datu orokorrak:	407
6.2.2 1go Blokearen emaitzak. Garapen Agentzien lan ildo estrategikoen ingurukoak:	410
6.2.3 2. Blokearen emaitzak. ESSari buruz duten ezagutzaren ingurukoak;	412
6.2.4 3. Blokearen emaitzak. ESSaren eta tokiko garapenaren ingurukoak:	414
6.2.5 Inkestaren emaitzen inguruko irakurketa:	419
6.3 Landa lanaren emaitzak (II): Elkarrizketen analisia:	424
6.3.1 Garapen agentziek ESSarekiko duten iritziari buruz:	425
6.3.2 Gaur egungo testuinguruari, ESSaren errotzeari eta lurraldeari buruz:	430
6.3.3 Garapen estrategiari eta ESSa sustatzeko politikei buruz:.....	453

6.3.4 ESSan oinarritutako garapen estrategia baten inguruko hausnarketak:	477
6.3.5 Elkarrizketen inguruko irakurketa:	498
7. KAPITULUA: ONDORIOAK	501
7.1 Hasierara bueltatuz, zirkulua itxiz:	501
7.2 Hipotesiaren kontrastea:	502
7.3 Ikerketa balderei erantzuten saiatuz:	506
7.3.1 Lehenengo ikerketa galderari erantzuten: ESSak birpentsatu dezake tokiko garapena?	506
7.3.2 Bigarren ikerketa galderari erantzuten: Zer egiten ari dira EAEko eragileak?	512
7.4 Etorkizunerako ikerketa eta lan ildo interesgarri batzuk:	523
BIBLIOGRAFIA:	527
ERANSKINAK:	567
1. Eranskina: Inkesta	567
2. Eranskina: Sakoneko elkarrizketen gidoiak	575
2.1 Eranskina: Garapen agentziekin erabilitako gidoia	575
2.2 Eranskina: ESSko eragileekin erabilitako gidoia:	577
2.3 Eranskina: Adituekin erabilitako gidoia	579
3. Eranskina: Sakoneko elkarrizketetara heltzeko esteka:	580

TAULEN AURKIBIDEA

1. TAULA: Tesiaren hipotesia, ikerketa galderak eta helburuak	27
2. TAULA: Tesiaren egitura	30
1.1. TAULA: Estatuaren erregulazioaren arkitektura eskalarra kapitalismo fordista-keynesiarrean	42
1.2. TAULA: Estatuaz azpiko gobernu lokalen eta nazionalen zereginaren alderaketa fordismo-keynesiarraren garaian	43
1.3. TAULA: Fordismo atlantikoaren krisia eta estatuaren konfigurazio eskalarraren ezegonkortzea	64
1.4. TAULA: Lehiakortasunaren estatu neoliberalaren eta estatu fordista-keynesiarraren arteko konparaketa	65
1.5. TAULA: Lurraldetasuna ulertzeko hiru ikuspuntuak globalizazioan	67
2.1. TAULA: Tokiko garapenaren inguruko organismo ezberdinen definizioak	80
2.2. TAULA: Esportazioen, atzerriko inbertsio zuzenaren eta nazioarteko merkataritzaren liberalizazioaren onurak eta eragin negatiboak lurraldeetan	109
2.3. TAULA: Kluster eta barruti industrialen arteko konparaketa	124
2.4. TAULA: Tokiko garapen ereduaren sintesia	139
2.5. TAULA: NBGPk ematen duen giza garapenaren definizioaren bilakaera	151
2.6. TAULA: Tokiko giza garapenaren oinarri teorikoak	154
2.7. TAULA: Gaitasun kolektibo zentralak Baser eta Morganen arabera	164
2.8. TAULA: Tokiko garapenaren eta tokiko giza garapenaren arteko alderaketa	167
3.1. TAULA: Kooperatibismoa pentsamendu ekonomiko ezberdinen arabera	172
3.2. TAULA: Mozkinen besteko antolakunde nagusietako barne jokabideen laburpena	187
3.3. TAULA: Ekonomia soziala osatzen duten antolakunde eta enpresak	196
3.4. TAULA: Ekonomia pluralaren printzipioak, poloak eta patrioiak	212
3.5. TAULA: Lanaren dimentsioak	219
3.6. TAULA: : Ekonomia solidarioaren proposamenak prozesu ekonomikoetarako	226
3.7. TAULA: Enpresa sozialak definitzeko irizpideak EMES-en arabera	244
4.1. TAULA: Tokiko garapenaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko konbergentzia puntuak	268

4.2. TAULA: Tokiko garapenaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko sinergiaren sintesi taula.....	310
4.3. TAULA: Gobernantza sareen kalitate demokratikoa neurtzeko aldagaien proposamena	347
4.4. TAULA: Parte-hartzea; antolakundeetatik lurraldeetara	348
4.5. TAULA: ESSa sustatzeko politika publikoen erreferentzia markoa	351
4.6. TAULA: Lurraldeetan eta udalerrietan ESSa sustatzeko proposamenak eta neurriak	352
5.1. TAULA: Garapen-en bilduta dauden garapen agentziak	378
5.2. TAULA: Tokiko erakundeetatik ESSa sustatzeko esperientzia adierazgarriak EAEn.....	389
5.3. TAULA: ESSa sustatzeko esperientzia adierazgarrien sailkapena bere izaeraren arabera	391
6.1. TAULA: Elkarrizketetan jorratutako gai nagusiak.....	403
6.2. TAULA: Elkarrizketatuak eta hauek zehazteko arrazoiak	405
6.3. TAULA: Elkarrizketetan agertu diren ESSak tokiko garapenari egin ahal dizkion ekarpenen laburpena:	457
7.1. TAULA: Tesiaren hipotesia, ikerketa galderak eta helburuak	502

KOADROEN AURKIBIDEA

1. KOADROA: Italiako barruti industrialak.....	116
2. KOADROA: Espazio industrial berriak: Silicon Valley	119
3. KOADROA: Cambridge, berrikuntzarako milieu bat	121
4. KOADROA: Klusterrak Euskal Autonomia Erkidegoan	123
5. KOADROA: Euskal Autonomia Erkidegoko berrikuntza sistema	126
6. KOADROA: Ontario, ikasten duen eskualdea	128
7. KOADROA: Berrikuntza soziala garapen komunitariorako. Brugse Poort auzoaren kasua	134
8. KOADROA: Erribera, Bilboko auzo sortzailea	137
9. KOADROA: Tokiko garapenetik tokiko giza garapenerako trantsizioa Gipuzkoan:	153
10. KOADROA: Laboral Kutxak hezkuntza, formakuntza eta promozio funtsaren bitartez finantzatutako ekimenak	201
11. KOADROA: Merkatu sozialaren inguruko ipuina	230

12. KOADROA: Ekonomia solidarioaren eta administrazio publikoaren arteko lankidetzaren BERZIKLATUREN adibidea	236
---	-----

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. IRUDIA: Lan merkatua, metaketa malguaren baldintzapean.....	60
2. IRUDIA: Hiru sektore ekonomikoak.....	178
3. IRUDIA: ESSa osatzen duten antolakundeak	238
4. IRUDIA: Ekonomia eraldatzaileen ekosistema	246
5. IRUDIA: Tokiko garapenaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko harremanen mailak.....	254
6. IRUDIA: Tokiko Garapenaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ezaugarri eta lanabesak ekintzaitza sustatzeko	290
7. IRUDIA: : Lurraldearen esparru sozioekonomikoan eragiten duen sare egitura	301
8. IRUDIA: EAEko ESSaren enpleguaren banaketa antolakunde, lurralde historiko eta eskualdearen arabera. 2018. urtea.....	381
9. IRUDIA: ESSko enplegu kopurua sektore ekonomikoaren arabera (Industria eta Zerbitzuak). 2018.urtea	382
10. IRUDIA: ESSko establezimendu kopurua eta ESSko fakturazioaren gaineko esportazioak EAEn. 2018. urtea	383
11. IRUDIA: EAEko ESSaren egituraketa	385
12. IRUDIA: ESSarekin harremana duten Eusko Jaurlaritzako departamentuak	387

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. GRAFIKOA: EAEko garapen agentziak bere eragin eremuaren arabera ...	407
2. GRAFIKOA: EAEko garapen agentziak bere izaera juridikoaren arabera .	408
3. GRAFIKOA: EAEko garapen agentziek jorratzen dituzten arlo nagusiak .	408
4. GRAFIKOA: EAEko garapen agentziek eskaintzen dituzten zerbitzuak ...	409
5. GRAFIKOA: EAEko eskualdeetako arazo sozioekonomiko garrantzitsuenak garapen agentzien arabera.....	411
6. GRAFIKOA: EAEko garapen agentzien lehentasunezko lan ildoak	411

7. GRAFIKOA: EAEko garapen agentzien harremanak tokiko beste eragileekin	412
8. GRAFIKOA: ESSaren helburu nagusia EAEko tokiko garapen agentzien arabera.....	413
9. GRAFIKOA: EAEko tokiko garapen agentzien harremanak ESSko sare ezberdinekin	414
10. GRAFIKOA: ESSak tokiko garapenari egiten dizkion ekarpen nagusiak EAEko garapen agentzien arabera	415
11. GRAFIKOA: EAEko garapen agentziek ESSa sustatzeko ezagutzen eta aurrera eramateko prest dauden neurriak.....	417
12. GRAFIKOA: EAEko garapen agentziek ESSa sustatzeko aurkitzen dituzten zailtasun nagusiak	419

SARRERA:

I. Tesiaren aurkezpena eta gaiaren gaurkotasuna:

Ekonomiak, *oîkos* eta *nomós* termino grekoek osatzen duten *oikonomia* hitzean dauka bere jatorri etimologikoa. Etxearen kudeaketa esan nahi duena, hain zuzen ere. Berez, nahi beste joan gintezke atzera historian zehar familien, etxeen, hirien, eskualdeen, herrialdeen, erresumen edo inperioen arrakasta, ongizatea eta oparotasuna lortu edo hobetzeko asmoarekin egondako kudeaketa eredu ezberdinak aztertzeko. Izan ere, gizaki orok bere behar materialak ase behar ditu bizirik iraun ahal izateko, eta aldi berean, jendarte oro antolatu behar da beharrak asetzen dituzten baliabideak modu egokian banatu ahal izateko. Labur esanda, hauxe da, hots, jendarte bakoitzak bere ondasun materialak banatzeko hartzen dituen erabakiak, gaur egun “ekonomia” bezala ulertzen duguna. Ekonomia, beraz, prozesu kolektibo bat da, jendarte bakoitzaren egiturekin eta bertan ematen diren harremanekin lotura zuzena duena, eta baliabide material horien banaketa nola egiten den arabera eragin sozial ezberdinak sortzen dituen.

Kapitalismoaren sorkuntzatik, disparekotasun sozioekonomikoak geroz eta gehiago hazi egin dira, eta ondorioz, munduko biztanleriaren gehiengoaren behar materialak ase gabe gelditzen dira. Izan ere, enpresa kapitalistek mozkinak

maximizatzea helburu bakarra dute, bai barneratuta dauden lehia bizi horretan biziraun ahal izateko modu bakarra bezala ikusten dutelako, eta baita ere, haien jabego egituretan dauden inbertitzaile kapitalisten desirak betetzeko. Hots, metaketa ahalbidetzeko, eta hedaturaz, klaseen arteko disparekotasunak handitzeko. Horregatik, esan dezakegu kapitalismoa kapitalaren zentraltasunaren menpe eta honen erreprodukzioaren zerbitzura eraikitzen den sistema dela. Eta sistema honetan, pertsonak baliabide izatera murriztuak izan direla. Kapitalismoaren sorkuntzatik nagusi den soldatapeko lanaren bitartez, harreman sozialak ekoizpen prozesuaren objektu bilakatzen baitira. Lana, langileriaren biziraupena lortzeko jarduera bat bezala ikusten da, eta ez auto-eraketarako eta jendartean parte-hartzeko modu bat bezala. Izan ere, arrazionaltasun kapitalistaren arabera, baliabideak —materialak, inmaterialak, gizatiarrak— kapitalaren erreprodukzioaren zerbitzuan jartzen dira, ekonomiaren helburua jendartearen behar materialak asetzea izatetik, kapitalaren metaketa ahalbidetzea izatera igaroz.

Alabaina, industria iraultzarekin sortzen hasten den kapitalismo hura, eta gaur egun ezagutzen duguna ez dira guztiz berdinak. Metaketa izaten jarraitzen duela bermatzeko, egokitzapen ezberdinak bilatu izan baititu historian zehar, garai bakoitzetara eta hauetan sortzen diren akordio sozial ezberdinetara egokituz. Modu honetan, XVIII. eta XIX. mendeetako kapitalismoa eta gaur egun ezagutzen duguna berdinak ez diren moduan, XX. mendeko erdialdean emandako kapitalismo fordista-keynesiarra eta mende amaierako kapitalismo posfordista-neoliberalala ere ez dira berdinak.

Fordismoaren zurruntasun eta egonkortasunetik ekoizpen posfordista malgura salto egiterakoan, metaketa gaitasunaren gaineko aldaketa ere eman zen. Gaur egun, kapitalaren metaketa geroz eta zailagoa da, eta horren ondorioak klase herrikoiek jasaten dituzte. Harvey-k (1989a) erakusten duen moduan, lan merkatuan areagotutako malgutasunak enplegu emaileen eta soldatapeko langileen arteko botere harremanak desorekatu ditu lehenengoan alde. Orain, langileen kontratuen malgutasunak maila ezberdineko langileak sortu ditu. Gutxi batzuk, zentroan daude eta printzipioz baldintza onak dituzte, eta besteak, lan merkatuaren periferian daude non prekarietatea, aldi baterakotasuna eta partzialtasuna handiagoa den. Gainera, metaketa mantendu ahal izateko burututako zerbitzu publikoen eta ondasun komunen liberalizazio eta pribatizazioengatik, ekonomiaren finantzarizazioagatik, merkatuen desarauketengatik etab. eratorritako desjabetzeak zaugarritasun egoeran dauden pertsonen kopurua

areagotu egin du geure jendarteetan. Horrek guztiak dakarren giza segurtasun eta kohesio sozialaren gabeziak sortuz.

Gaur egun bizi dugun garapen kapitalistaren fase neoliberal honek, dagoeneko “zibilizaziokoa” edo “egiturazkoa” bezala definitu izan den, eta kolapsora garamatzen dimentsio anitzeko krisi batera eraman gaitu. Izan ere, bizi dugun egiturazko krisia ez da soilik ekonomikoa; soziala, ekologikoa, politikoa, kulturala etab. ere bada. Kapitalismoak hazkunde ekonomiko mugagabearena ez den beste norabiderik ez du onartzen, eta beraz, lurraren muga fisikoekin talka egiten duen sistema ekonomiko baten aurrean geundeke; krisi ekologiko batera garamatzana. Gainera, hazkunde ekonomiko horrek ez ditu disparekotasunak gutxitu, baizik eta areagotu egin ditu. Bestalde, ekonomia feministatik, jendarte erreprodukzioaren eta zaintza lanekin erlazionatutako krisiaz ohartarazten gaituzte. Azkenaldian bizi izan ditugun zerbitzu publikoen pribatizazioak, batez ere bizitza sostengatzeko beharrezkoak direnak, arrisku egoeran dauden pertsonen kopurua handitzen ari dute. Horrez gain, estruktura politiko eta administratiboari eragiten dion beste krisi baten aurrean gaude; eta aldi berean gu geuk subjektu politiko gisa ulertzeko orduan. Kultura kapitalistak eta Polanyik (1944) deritzon merkatuko mentalitateak, goitik behera zeharkatzen ditu gure jendarteak. Agerraldi faxistak geroz eta ugariagoak dira berriz ere, askatasuna zalantzan dago, zuzenean herri klaseen interesen aurka doazen lege eta itunak sinatzen dira, kultur eta ideia politikoen kontrako jazarpenak geroz eta agerikoak dira etab.

Argi geratzen da beraz, geure bizitzen alderdi ezberdinei eragiten dien krisi baten aurrean gaudela, eta ez soilik alderdi ekonomikoari. Eta horregatik hain zuzen ere, krisi multidimentsionalaz sistemikoaz, estrukturalaz, edo are gehiago, zibilizazio krisiaz hitz egiten da begirada kritiko ezberdinetatik (Herrero, 2013 eta 2014; Ezquerria, 2011; Pérez-Orozco, 2017;...). Horregatik ere, kolapsoa ekiditeko, zibilizazioaren paradigmen aldaketa baten beharra defendatzen duten ahotsak geroz eta ugariagoak dira. Eta horretarako, alternatibak planteatzea ezinbestekoa da.

Hala ere, dirudienez, behin baliagarriak izan ziren neurriak dagoeneko ez dira hain eraginkorrak. Estatuaren zentraltasunean oinarritutako eta ikuspegi keynesiarra jarraitzen zituzten *New-Deal*-a edo II Mundu Gerra osteko ongizate estatu (nazionalak) esaterako, ez lukete gaur egun behin izan zituzten emaitzak izango. Horregatik, kapitalismoa berregituratzen den moduan, alternatibak ere egokitu behar dira garai berrietara. Dagoeneko ez baitira baliagarriak estatu eta merkatuaren arteko orekak

bilatzen dituzten analisi sinplista eta dikotomikoak; jendarte zibila, eta bertatik sortzen diren ekimenak barneratu behar dira demokrazia eta ekonomiaren arteko tentsioak gainditzeko. Eta ekimen hauen artean, elkartzean oinarritutako esperientzia kolektiboak kontuan hartzea beharrezkoa da; ekonomia gizatiartzeko eta demokrazia indartzeko. Azken finean, askatasun indibidual eta kolektiboa eta berdintasuna eta justizia soziala uztartzen dituzten alternatibak izan daitezkeelako (Laville, 2013).

Alternatiba berri hauen izaerari begira, Moulaert et. al.-ek (2005) hainbat ezaugarri orokor antzematen dituzte. Hauen artean, dimentsio lokal eta komunitarioaren garrantzi handiagoa, erreproduzio sozialaren esferari eta kontsumoari eskaintzen dioten arreta handiagoa, behetik abiatutako gobernantza eredu demokratiko eta zuzenagoen aldarrikapena, ekonomia sozialaren formen eta elkarlaguntzako tradizioaren berpiztea, estatu zentralaren asistentzialismoari eta izaera autoritarioari kritika egiten dioten ekimen komunitarioagoen aldeko joerak etab.

Tokiko garapenari eta Ekonomia Sozial eta Solidarioari dagokionez:

Tesi hau, alternatiba ekonomiko berritzaileak planteatzearen posizio honetan kokatzen da hain zuzen ere. Horretarako harreman teoriko eta eraldaketarako potentzial handia dituzten bi mundu hurbildu nahi direlarik. Tokiko garapena, lurralde garapena, garapen erregionala, garapen endogenoa, garapen komunitarioa... batetik, eta ekonomia soziala, ekonomia solidarioa, ekonomia sozial eta solidarioa edo ekonomia sozial eraldatzailea... bestetik, alegia.

Huetako batzuk, ekonomia soziala kasu, bilakaera historiko handiagoa dute, eta beste batzuk azkenaldian arreta handia izaten ari duten kontzeptuak dira. Horrez gain, ekonomia sozialaren eta tokiko garapenaren enbor teorikoetatik datozen ekarpenen arteko bateraketa, nahiko errealitate berritzailea osatzen du. Izan ere, bi kontzeptu hauen bistako harremanak aurkitu ditzakegun arren, hauen arteko bateraketak nahiko berriak dira eta ez dute garapen teoriko gehiegirik izan orain arte. Gainera, gure ustez, hauek ez dira beti guztizko onarpen eta berdintasun jarrera batetik heldu. Bietatik bat abiatze posizio gisa hartuta egiten baita hurbilketa.

Dena den, biek partekatzen dute abiapuntu nagusia: Tokikotasunak edo lurraldean oinarrituta egoteak eragiten duen harreman sozialen eta egunerokotasun partekatuen garrantzia. Hots, prozesu ekonomikoak, prozesu sozialak diren heinean, kolektiboak direla ulertzea. Besteekin partekatutako ekimenek guztien onurarako

emaitzak ekarriko dituztela, alegia. Horregatik, lurraldeetatik abiatuta, lurraldeetan oinarritutako tokiko garapenerako prozesuak abian jartzen dira tokiko garapenean; eta horregatik ere, lan-, kontsumo-, finantzaketa- etab. elkartuan oinarritutako enpresa ekimenak burutzen dira Ekonomia Sozial eta Solidarioan (aurrerantzean ESS).

Are gehiago, krisi garaiak izan ohi dira ildo honetako esperientziak areagotzen diren momentuak. Izan ere, tokiko garapenerako eredu asko 80ko hamarkadako krisiaren ondorioz sortzen hasten dira, baita ostean krisi produktiboak izan dituzten lurraldeetan ere. Bestalde, ekonomia sozial klasikoaren bilakaera nahiko paradigmatikoa da zentzu honetan ere. Nahiko ondo antzematen dira ekonomia sozialak izandako garai ezberdinak; bakoitzean egondako krisiak sortutako egoerari egokitua. Horrela, Moulaert eta Ailenei-k (2005: 2041) hiru garai esanguratsu identifikatzen dituzte: Lehenengoa, XIX. mendearen erdian hasi zen, eta geroz eta handiagoa zen lehiakortasunak eta lan-erregulazio berriek eragindako jendarte arriskuei aurre egiteko, langileen auto-babeserako erakunde mutualistak ugaritu ziren. Bigarrena, mende honen amaieran ere, nekazari txikien kooperatibak eta kreditu-kooperatibak sortu eta ugaritu ziren 1873ko krisiaren ondoren bizirik irautea mehatxatzen zuten finantza eskakizun handiei aurre egiteko. Eta, azkenik, 1929ko krisiaren ondoren, langileek eta langabeek gutxieneko beharrak bermatu ahal izateko, kontsumoko eta etxebizitzako kooperatibak nagusitu ziren. Garai horiek bat datoz krisi ekonomikoen une desberdinekin, eta beraz, argi geratzen da krisialdi bakoitzean ekonomia sozialaren formak sistematikoki erabiltzen direla; aldi bakoitzean berariaz sortutako jendarte-eskaerei erantzuteko. Horregatik izaten ditu aldaketak, eta horregatik ekonomia sozialaren emergentzia eta re-emergentzia etengabe ematen da.

Egun bizi dugun egoera sozioekonomikoak bere aldetik, bereziki erakusten ari du jendarte eraldaketa helburu duten esperientzien beharra. Alabaina, ariketa hau ez da erraza. Batetik, erronka konplexua delako. Krisia ez da soilik ekonomikoa, dimentsio anitzak ditu eta dimentsio horiek barneratu eta kudeatu behar dira planteatzen diren alternatibetan. Eta bestetik, ezin zaielako estatuz azpiko eremuetatik abiatzen diren ekimen eta garapen prozesuei arazo guztiei eurek bakarrik erantzungo dietela suposatu. Dagoeneko egonkortuta dauden egiturak eta jokabideak eraldatzeko eta botere harremanak kudeatzeko indarrak, eta, politika ekonomikoa, zerga politika, lan-harremanak etab. bideratzeko eskumenak ez daudelako lurraldeetan. Eta beraz, lurraldeek aukera mugatuak dituzte, soilik beraiei begiratzen bazaie.

Hala ere, tokiko garapenerako prozesuen arrakasta agerikoa izan da lurralde askotan. Halaber, ezin dugu alde batera utzi, ESSaren eta lurraldearen arteko harremana. Eta gaur egun, non lurralde askotako ekoizpen egiturak ahultzeko prozesu garrantzitsuak, enpresa-deslokalizazioak edo enpleguak suntsitzen dituen berregituraketak ematen diren, beharrezkoa da ESSak erakusten duen lanaren defentsa, lurraldearekiko errotzea, komunitatearekiko konpromisoa eta soberakinen inguruko tratamendu bidezkoagoa azpimarratzea.

Dena dela, tesi honetan planteatzen dugun ESSaren eta tokiko garapenaren arteko hurbilketa honek ez du helburu moduan berak bakarrik kapitalismo garaikideak sortzen dituen arazo guztiei erantzuna ematea, baizik eta eskala (auzoetan dihardutenetik nazioartean jarduten dutenetaraino), jatorri (iparra, hegoa, eskualde dinamikoak edo deprimituagoak...), izaera (komunitarioak, publikoak...) eta dimentsio (ekonomiko, sozial, politiko, kultural...) ezberdinetan sortzen diren bestelako mugimendu eraldatzaileekin bat egitea, egungo eredu sozioekonomikoa eraldatzeko gogoeta zabal eta plural horretan barneratuz.

Hortaz, helburua, pertsona guztientzako bizitza bizigarria bermatzen duen eredu planteatzea da. Horrek dakarren dimentsio ugarietara erreferatuta. Horretarako, tokiko garapenetik, lurraldea dimentsio analitiko gisa, behetik gorako ikuspegia, tokiko instituzio sozialen garrantzia, eragileen inplikazioa, administrazio publikoaren paper proaktiboa eta ekoizpena eta berrikuntza lurraldean antolatzeke ereduak bezalako ezagupenak hartuko ditugu; eta ESStik, lan burujabea, haren dimentsio kooperatiboa, interkooperazioa, ekoizpen modu eta logika ez kapitalistak, demokrazia ekonomikoan sakontzeko gaitasuna eta justizia sozialean oinarritutako eredu ekonomikoa sustatzen duela bezalako ezaugarriak izango ditugu kontuan tokiko egitura publiko-kooperatibo-komunitarioak eraikitze aldera.

Berez, lurraldeetan eta haien egunerokotasunean delako, hain zuzen ere, herritarren eskubideak praktikan jartzen diren, ondasun komunak eta zerbitzu publikoak kudeatzen diren eta herritarren bizitzaren gain zuzenean eragiten duten ekimenak aurrera eramaten diren eremuak. Eta beraz, lurraldeetan bertan diseinatu eta gauzatutako garapen estrategiak aukera handiagoa dute biztanleen beharretara egokitzeko eta hobeto kontrolatu eta ebaluatzeke; tokiko jendarteetara aukera emanez bere garapen propioaren protagonista izateko. Hortaz, egitura publiko-kooperatibo-komunitarioetan administrazio publikoaren paper ko-kudeatu bat aurkituko genuke, non herritarren eta

jendarte zibilaren adierazpen ezberdinek parte-hartuko duten garapen strategiaren eraikuntzan.

Izan ere, Subirats-ek (2014) dioen moduan, azken urteotako fenomeno kezkarrienetako bat izan da ekonomia bezalako eraikuntza sozial eta kolektibo bat, kontrol sozialetik at dagoen fenomeno gisa bihurtzeko gaitasuna. Ekonomiaren naturalizazioa onartu dugu, eztabaida politiko eta sozialetatik kanpo kokatu arte. Hortaz, hori aldatzeko, guri dagokigu erabakitzea nola antolatu eta egituratu nahi ditugun truke ekonomikoak, nola ulertu nahi dugun ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena eta banaketa eta hartutako erabakien alde onak eta txarrak baloratzea. Izan ere, ekoizteko eta metatzeko moduei buruzko eztabaida oro politikoa da. Eta beraz, edozein eredu ekonomikoren ustezko neutraltasun politikoa salatu behar dugu. Politikak, jendarteak eta ekonomiak ez dute funtzionatzen eremu bereizietan, elkar erlazionatutako alderdiak dira guztiz. Eta gaur egun ezartzen joan den ekonomia eredu irabazle eta galtzaileen elkartruke lehiakorrean oinarritzen da; klaseen arteko ezberdintasunak geroz eta gehiago areagotuz.

Horregatik, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko hurbilketa honetan, tokiko jendarteak ahaldunduz, bizitza bizigarriak lortzeko beharrezko lanabesak eskaintzen dituelaren ideiatik abiatzen gara. Hau da, bizitzak sostengatzea eta jendartearen beharrak asetzea helburu duten jarduera produktibo zein erreproduktiboak barnebiltzen dituen garapen eredu baterako ekarpena egin nahi dugu, zeinean pertsona guztientzako bizitza duinak eta bizigarriak garatzeko aukera ematen den, eta komunitateek kolektiboki euren bizitzetan eragiten duten elementu ezberdinen inguruan erabakitze eskubidea garatzen duten modu aktiboan; garapen prozesuaren jabe izanik eta kontrol demokratiko eta parte-hartzailea aurrera eramanez.

Horretarako, eta jakinik gaur egun mota honetako esperientziak oraindik ere garapen eskasa dutela gure testuinguruan, tesi honetan Euskal Autonomia Erkidegora (EAE) mugatutako ikerketa enpirikoa aurkezten da, non ESSan oinarritutako tokiko garapen ereduaren inguruko egoera, diskurtsoa eta prestutasuna ikertu nahi izan den. Beraz, EAeko tokiko garapenean ESSaren inguruan duten ezagutza maila, aurrera eramaten duten ekimenak, aurrera eramateko prest leudeken ekimenak eta tokiko garapen eraldatzailearen inguruko diskurtsoa aztertu diren kualitatiboki.

II. Helburuak eta hipotesiak:

Tesi honen helburu orokorra tokiko garapenaren eta ESSaren arteko harreman teoriko zein enpirikoak ikertzea da. Horretarako 4 azpi-helburu zehaztu dira:

- H1: Tokiko garapenaren eta ESSaren marko teoriko sakona burutzea, ondoren elkarren arteko marko teoriko partekatua garatzeko.
- H2: ESSan oinarritutako tokiko garapeneko eredu eraldatzaile baten ezaugarriak, neurriak eta urratsak proposatzea.
- H3: EAEko tokiko garapenerako eta ESSko eragileak identifikatu eta garapen agentzien eta ESSaren arteko harremana eta loturen inguruan EAEk duen egoera orokorra ezagutu.
- H4: Gaian aurreratuen dauden EAEko eragileen diskurtsoa aztertu ESSan oinarritutako tokiko garapen estrategiak aurrera eramateko aukerarik eta prestutasuna ote dagoen ezagutzeko.

Helburu hauek, jarraian planteatzen dugun hipotesi eta ikerketa galderei erantzuteko planteatu dira.

Hipotesia: Ekonomia Sozial eta Solidarioak eta tokiko garapenak oinarri bateragarriak dituzte jendarte lokalaren beharrak asetzeko.

Izan ere, tesi honek jarraipena ematen dio ikertzaile honek aurretik egindako bi ikerketa lanei; Gradu eta Master Amaierako Lanei, hain zuzen ere. Lehena ekonomia solidarioaren baitan antolatzen ari diren merkatu sozialen ingurukoa, eta bigarrena, tokiko garapenaren inguruan. Eta, aurreko lan bien sakontasuna eta garapen akademikoa tesi honek dituenekin alderatu ezin badira ere, lan horiek egiteko orduan, tokiko garapenaren zein ESSaren oinarri teorikoetan dauden elementu komun ugari antzemateko baliagarriak izan dira. Horrenbestez, hasten ari den ikerlan honen bitartez hipotesi hau frogatzen saiatuko gara lan bibliografiko zein enpirikoaren bitartez.

Abiatze hipotesi honetatik, ikerlan hau gidatuko duten hurrengo galderak sortzen zaizkigu:

Ikerketa galdera 1: ESSak birpentsatu dezake tokiko garapena?

Hau da, tokiko garapena ESSan eta bere balioetan oinarritzen bada, bestelako tokiko garapen eredu bat planteatu daiteke? Nolakoa litzateke ESSan oinarritutako tokiko garapen eredu bat?

Ikerketa galdera 2: Zer egiten ari dira EAEko eragileak?

Hots, zertan dabilta EAEko tokiko garapeneko eta ESSko eragileak euren arteko harremanak indartzeko? Ezagutzen dira? Elkarlana aurrera daramate? ESSan oinarritutako garapen ereduak aurrera eramateko prest daude?

Hurrengo taulan hipotesiaren, ikerketa galderen eta tesiaren helburuen arteko harremana ikusi dezakegu.

1. TAULA: Tesiaren hipotesia, ikerketa galderak eta helburuak

Hipotesia	
Ekonomia Sozial eta Solidarioak eta tokiko garapenak oinarri bateragarriak dituzte jendarte lokalaren beharrak asetzeko.	
Ikerketa galerak	Helburuak
ESSak birpentsatu dezake tokiko garapena?	H1: Tokiko garapenaren eta ESSaren marko teoriko sakona burutzea, ondoren elkarren arteko marko teoriko partekatua garatzeko. H2: ESSan oinarritutako tokiko garapeneko eredu eraldatzaile baten ezaugarriak, neurriak eta urratsak proposatzea.
Zer egiten ari dira EAEko eragileak?	H3: EAEko tokiko garapenerako eta ESSko eragileak identifikatu eta garapen agentzien eta ESSaren arteko harremana eta loturen inguruan EAEk duen egoera orokorra ezagutu. H4: Gaian aurreratuen dauden EAEko eragileen diskurtsoa aztertu ESSan oinarritutako tokiko garapen estrategiak aurrera eramateko aukerarik eta prestutasuna ote dagoen ezagutzeko.

Iturria: Egileak egina

III. Tesiaren egitura:

Tesiaren egiturari erreparatuta, hiru atal nagusi aurkituko dira bertan. Lehenengo atalak marko teorikoa jasoko du lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren kapituluetan. Bigarren atalak, landa lana jasotzen du bosgarren eta seigarren kapituluetan. Eta, azkenik, hirugarren atalak ondorioak jasotzen ditu amaierako kapitulu batean.

Lehenengo atalari dagokionez, helburu teorikoei erantzuna emateko garapen logikoa jarraitzen du; bi errealitateak sakonki aztertu, baterako marko teorikoa sortu eta tokiko garapen eraldatzaile baterako proposamenak zehaztu, alegia.

Lehenengo kapituluan, eskualde, erregio, hiri-eskualde, eta, oro har, estatuz azpiko lurraldeen berregituraketa aztertu izan da globalizazioaren testuinguruan. Horretarako, prozesu globalizatzailearen abiadura bizkortzen den XX. mendeko 70-80ko hamarkadak baino lehenagoko eta geroagoko egoera aztertu da. Izan ere, estatu mailako eskala nagusitasuna izatetik, eskala anitzeko erregulazio eredu konplexuago batera jauzi egiten da, non estatuaren esku-hartzea, ekoizpen eta kontsumo ereduak eta ekoizpen prozesuen banaketa espaziala eraldatu egiten diren aldaketa sozio-ekonomiko garaikide garrantzitsuenetarikoa emanez. Eta globalizazioak dakarren eraldaketa guztiak jasotzeko tesi honen helburua gaindituko lukeen arren, esanguratsua kontsideratu dugu, estatuz azpiko eremuetan eragin dituen eraldaketak aztertzea, neurri handi batean hemen aurkitu ditzakegulako tokiko garapenaren eta ESSaren azkenengo hamarkadetako hazkunde eta garapenaren arrazoi garrantzitsu batzuk. Era berean, tesiaren analisi unitate nagusia lurraldea izanik (estatuz azpiko eremu sozial gisa kontsideratuta), komenigarria iruditzen zaigu, globalizazioaren testuinguruan eremu hauen garrantzia aztertzea eta modu egokian justifikatzea.

Bigarren kapituluak tokiko garapenaren marko teorikoa jasotzen du. Kasu honetan, lurraldeek eurek, euren garapen ekonomiko, sozial, kultural etab. lortzeko abiatutako estrategia eta politiken multzoa jasotzen dira bertan. Bigarren kapitulu honetan, tokiko garapenean eragiten duten lurralde ezaugarriak, garapenerako estrategien izaera, eredu konkretuak, egituraketa ereduak eta eragile motak azalduko dira besteak beste. Gainera, giza garapenaren paradigman oinarritutako tokiko giza garapenaren ereduari espazio bereiztua eskaini zaio, eredu honek gure tesiaren gai nagusiarekin duen hurbiltasunagatik eta Euskal Herriko Unibertsitatearen parte den Hegoa institutuak (tesi hau kokatzen den doktorego programa bultzatzaileetako bat) urteetan zehar honen inguruan egindako ekarpen teorikoa azpimarragarriagatik.

Hirugarren kapituluan ESSaren inguruko marko teorikoa biltzen da. Horretarako ESSaren bilakaera historikoa egin da lehendabizi, non aintzinako elkartegintzatik abiatuta, gaur egungo hirugarren sektorearen inguruko eztabaidetara arte helduko garen. Ondoren, hirugarren sektorearen inguruko bi eskola nagusien ezaugarri garrantzitsuenak jaso dira. Mozkinen besteko ikuspegi anglosaxoia eta ekonomia sozialaren ikuspegi

frankofonoa, alegia. Ondoren, XX. mendeko azkenengo hamarkadetan hazi egin den ekonomia solidarioaren ezaugarri nagusienak jaso dira. Azkenik, ekonomia soziala eta ekonomia solidarioaren arteko harremanak ikertu dira, eta azkenaldian esangura handia lortzen ari duen Ekonomia Sozial eta Solidarioaren kontzeptuaren inguruko mugapen kontzeptuala egiten saiatu gara. Izan ere, beti ez da erraza kontzeptu hau mugatzea, nazioartean onarturik dagoen definiziorik ez dagoelako, eta ikuspegi eta korrante ezberdinek euren irakurketa propioa egiten dutelako kontzeptuaren inguruan.

Laugarren kapituluan, aipatutako tokiko garapenaren eta ESSaren marko teoriko bateratua eraikitzen saiatu gara. Horretarako, lehenengo, honen inguruan egin diren beste ahaleginen inguruko berrikuspena egin da. Ondoren, bien arteko harreman teorikoak ikertu dira. Kasu honetan, hurbilketa teorikoa soziologia ekonomikoaren ikuspuntutik egin da nagusiki. Izan ere, bien oinarri teorikoetan aurkitu ditzakegu diziplina honen inguruko aztarna handiak. Jarraian, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko elementu konbergenteak arakatu ditugu. Hots, elementu komunak ez izan arren, bateragarritasun handiko elementuak aztertu dira. Harreman teorikoekin bukatzeko, bien arteko elementu komunak aztertu ditugu. Hau da, bai tokiko garapenak eta baita ere ESSak partekatzen dituzten elementu horiek. Horren ostean, ikertutako harreman horiek guztiak sortu ditzaketan sinergiak aztertu ditugu sakonean.

4. kapituluaren bigarren erdian, ikuspegi ekonomiko heterodoxo ezberdinetatik bultzatzen den *bizitza bizigarri*-aren kontzeptua hartuko da irizpide normatibo gisa, eta berau lortzeko, ESSan oinarritutako tokiko garapen estrategia eraldatzaile baterako proposamena jorratuko da.

Esan bezala, 5. eta 6. kapituluak tesi honen landa lana osatzen dute. 5. kapitulua, landa lanari sarrera ematen dio, marko teorikoan ikusitakoari izen-abizenak jarritz EAEko testuinguruan. Horretarako, marko teorikoan jarraitu den eskema berdina jarraitu da. Hau da, lehenengo, EAE egitura eskalar berriaren markoan kokatu da, ondoren, EAEko tokiko garapenaren eragileen mapeoa burutu da, horren ostean, ESSaren inguruko eragileena, eta, azkenik, tokiko garapen agentzietatik eta ESSko sare ezberdinetatik orain arte elkarren artean aurrera eramandako proiektu eta esperientzia esanguratsuenak jaso dira. Modu honetan, EAEko eragileak kokatu eta hasierako irudi orokor bat lortu dezakegu sakonean aztertu baino lehen.

6. kapituluan landa lanaren funtsa biltzen da. Lehenik, EAEko garapen agentzia guztiek (Garapen-en bilduta daudenak) ESSaren inguruan duten ezagutza, iritzia eta

ESSarekin batera lan egiteko prestutasuna bezalako irizpideen inguruan galdetzen duen inkesta baten emaitzak jasotzen dira. Inkesta hau garapen agentzia bakoitzari igorri zaiolarik. Eta bigarrenik, tesiaren gai nagusian aurreratuen dauden EAEko 11 eragileei egindako sakoneko elkarrizketen azterketa jasotzen da, haien diskurtsoen analisia egiteko helburuarekin. Elkarrizketen analisia gaien adituak diren 3 pertsoneri egindako elkarrizketekin osatzen delarik.

Azkenik, 7. Kapituluaren tesiaren ondorio nagusiak biltzen dira. Horretarako, sarrerara itzuliz eta bertan planteatutako helburuei erantzuna emanaz.

2. TAULA: Tesiaren egitura

1. Atala: Marko Teorikoa	
1. kapitulua: Tokikoa globalizazioan	
2. kapitulua: Tokiko garapena	3. kapitulua: Ekonomia sozial eta solidarioa
4. kapitulua: Tokiko garapenaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko marko teorikoaren eraikuntza	
2. Atala: Landa lana	
5. kapitulua: Tokiko garapenaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren testuingurua euskal autonomia erkidegoan	
6. kapitulua: Landa lanaren emaitzak	
3. Atala: Ondorioak	
7. kapitulua: Ondorioak	

Iturria: Egileak egina

IV. Ohar metodologikoak:

Tesia egiteko jarraitu den metodologiari dagokionez, funtsean ikerketa kualitatiboa izanik, aldagai kualitatiboak biltzen dituzten tresna eta teknika metodologikoak erabili izan dira. Oro har, tesi hau bi zati handietan banatuta dago, berrikuspen bibliografikoari eta landa lanari erreferentzia egiten diotenak, hain zuzen ere.

Berrikuspen bibliografikoari buruzko apunteak:

Irakurleak antzemango duenez, tesi honetan burututako berrikuspen bibliografikoak sakontasun eta zabaltasun nabarmena dauka. Aipatu den moduan, beharrezkoa kontsideratu da horrelako garapen teorikoa burutzea ESSaren zein tokiko garapenaren inguruko zehaztapen eta xehetasunak ondo ezagutzeko, eta ondoren, partekatutako marko teorikoa eraiki ahal izateko. Izan ere, biak garapen teoriko handiko kontzeptuak dira, eta, oro har, literatura asko aurkitu daiteke horien inguruan. Baina aldi berean, irekita dauden marko teorikoak dira, etengabeko eraikuntzan daudenak, euren garapen teoriko-akademikoa errealitate enpirikoari oso lotuta baitago. Eta beraz, ikuspegi eta berrikuntza ezberdinek horien corpus teorikoa aberasten dute, berrikuspen bibliografikoa egiteko beharrezkoa den lana handituz.

Horrez gain, eragile aktibo ugari biltzen dituzten errealitateak dira ESSa zein tokiko garapena. Eta, azkenengo urteetan gainera, eragile hauek hazi egin dira; gaiaren gaurkotasunaren adierazle izanik ere. Ildo honetan, ESSaren inguruan sortu diren sare ezberdinak (REAS, OlatuKoop, XES, merkatu sozialak, ARACOOOP, RIPPSS, RELIESS, INEES, ALOE...) eta akademiarekiko loturak (CIRIEC, GEZKI, Hegoa, Lanki, Academy on SSE...) geroz eta ugariagoak dira. Bestalde, ezin ditugu ahaztu ere gure geografian zehar lan egiten duten tokiko garapenerako agentziak (Goieki, Tolosaldea Garatzen, Lea-Artibaiko Garapen Agentzia, Beterri-Buruntzakoko Garapen Agentzia, Sakana Garatzen...). Eta huetako batzuek publikatutako artikulu, lan-koaderno, informe, infografia eta abarren bitartez, aipatutako corpus teorikoa osatzen lagundu digute beharrezkoa izan denean.

Landa lanari dagokionez:

Landa lanari buruzko xehetasun metodologikoak tesi honen 6. kapituluaren adierazita dauden heinean, orain apunte labur eta orokor batzuk besterik ez ditugu aurreratuko.

Landa lanaren lehenengo kapitulurako (5. kapitulua), non EAEko ESSko zein tokiko garapenerako eragile nagusiak aurkezten diren, eta, batez ere, garapen agentzien partetik ESSa sustatzeko orain arte aurrera eramandako esperientzia esanguratsuak azaltzen diren, GEZKI institutuak aurrera eramandako, eta ikertzaile honek parte hartu duen ikerketa baten txostena izan du oinarri bezala. Txostenak, tokian tokitik ESSko

esperientziak sustatzeko praktika egokien azterketa biltzen du EAE mailan, beraz, abiapuntu egokia bezala kontsideratu dugu tesiaren ikerketa enpirikoari sarrera emateko.

Landa lanaren bigarren kapituluan (6. Kapitulu), EAEko egoera orokorra ezagutzeko, EAEko garapen agentzia guztiei (Garapen elkartean bilduta daudenak) inkesta bana igorri zaie. Eta bestetik, EAEko testuinguruan ESSan oinarritutako tokiko garapen estrategiak aurrera eramatea posiblea ote den aztertzeko, gaian aurreratuen dauden EAEko eragileekin elkarriketa sakona burutu da.

Dena den, esan bezala, atal honen inguruko xehetasun metodologikoak 6. Kapituluan horren hasieran aurkituko dira.

LEHENENGO ZATIA:

**TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA
SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA**

1 KAPITULUA: TOKIKOA GLOBALIZAZIOAN

1.1 Estatuz azpiko eremuei hurbilketa:

Globalizazioaren inguruko eztabaidak agerikoak dira gaur egun, eta horien artean, lurraldeek globalizazioaren testuinguruan daukaten eginkizuna azaltzen saiatzen direnak ere bai. Eztabaida hau da, hain zuzen ere, lehenengo kapitulu honetan jorratuko duguna; horretarako, batez ere, eskala erregional eta lokaletan arreta jarriko dugu. Izan ere, eskala espazial hauetan eragiten duten elementu ezberdinek funtsezkoak agertzen dira tesi honetan azalduko zaizkigun bi ikergaiak ulertzeko orduan. Alde batetik, tokiko garapenerako bistako garrantzia daukate, azken honek, eremu lokal edo erregional horietatik abiatzen diren estrategia multzoa barne biltzen dituelako. Eta bestalde, ESSrako ere garrantzitsuak dira, besteak beste ESSko antolakundeak lurraldean errotuta daudelako eta tokiko jendartearekin lotura estua erakusten dutelako, hots, lurraldeetatik eta bertan dagoen jendearengatik sortzen direlako.

Lurraldeek funtsezko eginkizunak dituzte globalizazioaren testuinguruan. Alde batetik, globalizazioarekin areagotutako fluxu eta dinamika globalek, lurraldeek eskaintzen dizkieten baliabide eta azpiegiturak beharrezkoak dituztelako kapital metaketa ahalbidetzeko, baina bestetik, globalizazio neoliberalaren eraginei aurre egiten dizkieten prozesuak ere bertan gauzatzen direlako. Hau kontutan izanda, lurraldeen,

estatuz azpiko eremuen, erregioen, eskualdeen, tokien eta abarren garrantzia ikertuko dugu gaiari lehenengo hurbilketa teoriko gisa.

Intentzio horrekin, II Mundu Gerra osteko garaian kokatuko gara lehenengo. Izan ere, alde batetik, ekoizpen eta kontsumo eredu fordistak, eta bestetik, eredu ekonomiko keynesiarrak osatzen zuten erregulazio fordista-keynesiarrak, izaera zentralista baina birbanatzailea erakusten zuen estatuz azpiko eskala lokal eta erregionaletan. Eta beraz, kapitulu honetan esku artean daukagun gaiaren aurrekari interesgarria bezala azaltzen zaigu.

Erregulazio fordista-keynesiarraren gainbehera aztertuko dugu ere, eta globalizazio neoliberalaren gailentzearekin batera, eskalen berregituraketan oinarrituko gara. Une honetan garrantzia hartzen baitu globala eta lokalaren arteko eztabaidak. Eta, ikuspuntu globalista zein estatisten aurrean, tesi honetan, besteak beste, Neil Brenner (1999a eta 2004b) ekonomialari estatubatuarrek garatutako bir-lurraldeatzearen ideiarekin bat egingo dugu, zeinean ikuspegi berritzailea eranstean dion globalizazioaren fenomenoari. Izan ere, globalizazioari buruzko interpretazio hegemonikoak estatuz gairako fluxuen eta des-lurraldeatze prozesuen azterketan zentratu dira, globalizazio neoliberalak dakarren lurralde-antolamenduak hainbat eskaletan eragiten duela kontsideratu gabe.

1.2 Estatu-nazioaren zentralitatea ekonomian:

Westfaliako bake ituna¹ XVII. mendean sinatu zenetik, estatuak lurralde itxi gisa kontsideratu ziren. Barrurantz, ordenan bizi den jendartea dago, eta kanporantz, ordenarik gabeko estatuen arteko harremanak. Aldi berean, lurraldetasuna estatuen erregulaziorako berezko elementu estatiko gisa kontsideratzen zen, estatu-nazioak eremu sozio-politiko naturalak balira bezala kontsideratuak izan ziren heinean. Beraz, botere politikoa, ekonomikoa eta militarra ondoz ondoko lurralde itxi horiek kudeatzen zituzten estatuen menpe gelditzen zen; beste estatuen barne arazoetan ez interferitzeko printzipioa agintzen zuelarik (Brenner, 1999b eta 2004a).

¹ Westfaliako bake ituna, 1648an sinatutako itun bikoitza da. Alemaniako hogeita hamar urteetako gerrari eta Espainia eta Herbehereen arteko laurogei urteetako gerrari amaiera ematen die. Ondorioz, estatu-nazio subiranoek gobernatuko duten lurralde itxien sistema berria onartzen da.

Dena den, XVIII. mendera arte, oraindik hirien garrantzia azpimarratu behar da subjektu ekonomiko gisa. Braudel-ek (1984) XV eta XVIII. mendeen analisi geografikoa egiterakoan, hirietan ardaztutako ekonomiez hitz egiten du; batez ere, Anberes, Genova, Venezia edo Amsterdam bezalako hirietan arreta jarritz. Alabaina, XVIII. mendetik aurrera, hiriak estatu-nazioen botere politikoaren aurrean makurtu ziren eta azken hauen metaketa erregimenerako oinarritzko espazioak bezala kontsideratzen hasi ziren. Ordutik, estatuen hazkunde ekonomikoa hirien dinamismo ekonomikoari estuki lotuta egon da (Brenner, 1999a).

Izan ere, Adam Smith edo David Ricardo bezalako ekonomialari klasikoetatik hasita, eta XX. mendeko monetaristetara arte egindako ikasketa makroekonomiko ezberdinek, estatu-nazioaren ekonomia oinarritzko analisi unitate bezala kontsideratu izan dute. Estatuaren eremua, ekoizpenaren, merkataritza harremanen eta kontsumoaren edukiontzia gisa kontsideratua izan den heinean. Eta nahiz eta nazioarteko merkataritzari ere begiratu zaion, estatu itxi eta mugatuaren arteko merkataritza eredu bezala ikusi izan da; Ricardoren abantaila konparatiboan oinarrituta (Brenner, 1999b).

1.2.1 Mendebaldeko ongizate estatu fordista-keynesiarra:

1929ko depresio handia gainditu zenetik eta 70eko hamarkadako erdialdera bitartean, Europako mendebaldeko estatuak birbanaketan oinarritutako politikak bultzatu zituzten estatu mailako kohesioa lortzeko intentzioarekin. Politika hauek, 1929ko depresio handiaren testuinguruan John Maynard Keynes ekonomialari britaniarrak “*The General Theory of Employment, Interest and Money*” 1936ean argitaratu zuenean, eta, betez ere, II mundu gerra bukatu zenean aplikatzen hasten dira.

II Mundu Gerrak sortutako suntsiketa osteko berreraikuntza burutu zenean, politika ekonomiko keynesiarrak eskaria, gastu publikoa, negozioazio kolektiboa eta diru-politika antiziklikoak ezarri zituen; estatu-eskala izanik esku-hartze berri hori aurrera eramango zuen oinarritzko eskala. Nazioarteko ekonomia, Amerikako Estatu Batuen (AEB) hegemonia globalarengatik eta Bretton Woods-etik oinordetutako erregimen monetarioarengatik araututa zegoen. Garai honetan ere, garapenkeriaren ikuspuntua nagusitu zen, non estatuen ardura zen garapena —edo modernizazioa— lortzeko politikak aplikatzea. Horrela, esan bezala, estatu-nazioek lehentasunezko posizioa hartu zuten ekonomia arautzeko orduan (Brenner, 1999b).

Horrez gain, AEBetatik Europako mendebaldera eratorritako masa ekoizpen eta kontsumoan oinarritutako eredu sozio-ekonomikoa indartu zen (Jessop, 2002). Eredu fordista, alegia. Berez, fordismoa lehendik existitzen ziren teknologien arrazionalizazioan eta kate-lanaren bitartez lortzen zen lanaren banaketan datza. Baina Harvey-rentzat (1989a:125-126), Henry Ford bereiztu zuena, eta neurri handi batean fordismoa eta taylorismoa bereizten zuena, “masa ekoizpenak, masa kontsumoa, lan-indarraren sistemaren erreproduzio berria, lanaren kontrol eta gerentzia politika berriak, estetika berria eta psikologia berria ekarriko zuela” ohartaraztea izan zen; “jendarte demokratiko, arrazional, modernista eta populista berri batean” islatuta.

Masa ekoizpena lortzeko, eredu fordistak kate-lanean oinarritu zen. Eta, kate-lanaren bitartez lortutako produktibitatearen hazkundera mantentzeko, Fordek lan jardunaldiak zortzi orduara jaitsi zituen. Izan ere, honen ustez, langileek aisialdirako denbora nahikoa baldin bazuten eta errenta maila altuagoa balitz, enpresek masan ekoiztutako ondasunak, langileek eurek masan kontsumituko zituzten. Beraz, lan orduak murrizteaz gain, Fordek soldatak egunean bost dolarretara ere igo zituen “*five-dollar, eight-hour day*” bezala ezagutu zenari hasiera emanaz (Harvey, 1989a). Jessop-en (2002:56-58) arabera, fordismo atlantikoa —AEB, Kanada, Europako mendebaldea, Australia eta Zelanda Berria—, oinarritzko bost ezaugarri erakusten zituen:

1. Lanaren zatiketa tekniko eta sozialean oinarritutako ekoizpen prozesu bat; zeinean kate-lanean oinarritutako masa ekoizpena inplikatzeko duen.
2. Ekoizpen eta kontsumo kapitalistan oinarritutako metaketa eredu; zeinek hazkunde ekonomiko estrukturala sostengatzen duen. Zirkulu bertutetsu baten bitartez, masa ekoizpenak eta eskala-ekonomiek, produktibitatea areagotzen dute. Produktibitatearen hazkundeak, soldatak igoarazten ditu. Eta hauek, eskari masiboa baimentzen dute; mozkin kapitalistak handiaraziz.
3. Metaketa eredu sostengatu eta bideratzen duten arauen, instituzioen, antolaketa eredu, sare sozialen eta jokabideen erregulazio² eredu. Kasu honetan,

² “Erregulazio ereduaz” ari garenean, erregulazioaren teoriak egiten duen hurbilketa batetik egiten dugu. Erregulazioaren teoria (4. kapituluaren sakonduko da gehiago), ekonomia politikoari buruzko teoria marxista bat da, 1970eko hamarkadan sortu zena estatu frantsesean. Teoria hau, kapitalismoak, ageriko kontraesanak izan arren, erreproduzitzen jarraitzea ahalbidetzen dioten markoen analisisan oinarritzen da. Horretarako, epe luzera kapitala metatzeko marko egonkor eta koherenteak eraikitzen dituzten mekanismo eta praktika instituzionalen azterketan oinarritu ziren (González, 2005). Beraz, erregulazio eredu, kapitalismoa erreproduzitzen uzten duen instituzio, jokabide eta patroizko sozialei erreferentzia egiteko erabiltzen dugu.

erregulazio ekonomikoa beste bost moduen bitartez egingo litzateke. Batetik, enpresa fordisten antolaketa eredu legoke. Enpresa fordista, jabetza eta kontrolaren arteko banaketan eta eskala ekonomietan oinarritutako hazkunde ereduaren gainean oinarritzen da. Bigarrenik, sindikatuei eta negoziazio kolektiboari ematen zitzaizkien zilegitasunagatik, soldata produktibitatearen hazkundera eta prezioen inflaziora indexatuta zegoen. Hirugarrenik, moneta eta kreditu politikak eskari agregatua bermatzera oinarrituta zeuden. Laugarrenik, estatuaren eginkizunari dagokionez, alde batetik fordismoaren zirkulu bertutetsuaren hazkundera eman zedin, eta bestetik, kapital eta lanaren arteko gatazka kudeatzera bideratuta zegoen; ongizate estatuaren bitartez. Azkenik, nazioarteko erregimenetan estatu-ekonomiaren integrazioa legoke.

4. Metaketa eredu eta bere erregulazio erregimenaren onarpen instituzionala (jokabide eta arau sozialen multzo gisa kontsideratua) eta kohesio sozialerako eredu baten eraikuntza. Langileek euren soldatarekiko menpekotasuna dute, geroz eta produktu eta zerbitzu estandarizatuak kontsumitu ahal izateko. Aldi berean, estatuak zerbitzu kolektibo estandarizatuak eskaintzen ditu eta kapitala eta lanaren arteko gatazkak kudeatu behar ditu. Arau sozial hauen onarpenerako, hirietako aldiriak paper garrantzitsua bete zuten bizi eredu fordista deritzona garatzeko (hirietan bizi zen soldatapeko masa industrial ertaina).
5. Aurreko lau ereduak bat egiten dituen jendartearen formazioa.

Hau da, fordismoa, elkar eragiten duten ekoizpen eredu bat, metaketa eredu bat, erregulazio eredu bat, eta jendartearen antolaketarako eredu bat izango litzateke. Eta honen aurrean, estatuak, eginkizun berriak hartu behar izan zituen. Izan ere, fordismoak eskariaren aldetik baldintza egonkorrak behar zituen masa kontsumoa eman zedin, eta beraz, ziklo ekonomikoak arintzeko politika fiskal eta monetarioak ezarri ziren. Estatuaren inbertsioa masa ekoizpena eta kontsumoa erraztuko zuten sektoreetara bideratu zen, horien artean garraioa edo bestelako zerbitzu publikoak zeudelarik. Inbertsioarekiko jarrera hori, enplegu betea edo ia betea lortzeko lagundu zuen ere (Harvey, 1989a). Izan ere, gastu publikoa handitu zen ongizate estatua edo *welfare* bezala ezaguna izan zen antolaketa sozialari bide emanez. Batez ere, azpiegituran, osasunean, hezkuntzan, etxebizitzan eta zerbitzu sozialetan egindako inbertsioen bitartez.

Enplegu betea lortzeko, bi modu landu ziren. Batetik, aipatu ditugun sektoreetan egindako inbertsioen bitartez sortutako lanpostuen bidez; eta bestetik, estatuak

nazionalizatutako enpresen bitartez (Brenner, 2004b). Horrela, herrialde kapitalistetan ordura arte inoiz ez zen ikusi esku-hartze ekonomikorako forma berriak ezarri ziren (Harvey, 1989a).

Ongizatearen estatu keynesiarra beraz, estatu-nazioaren nagusitasunean oinarritu zen esku-hartze ekonomikoa aurrera eramateko. Estatu-eskalan zeuden erakundeek giltzarri lana egin zuten, nazioarteko edo estatuz azpiko agintaritzak esparruen orde. Eta helburu gisa, estatu mailako jendartearen bizi maila hobetzera eta bere kohesioa lortzera zein ekonomia nazionalaren hazkundera bideratuta zegoen. Horrela, estatu-eskala erregulazio politikorako, ekonomikorako eta sozialerako erreferentziazko eskala geografikoa bihurtzen joan zen Europako mendebaldean fordismo-keynesiarraren garaian zehar; 1970eko hamarkadan bere une gorenean kokatu arte (Brenner, 2004b).

Izan ere, eta nahiz eta herrialde hauetako agintariak ideologikoki ezberdinak izan³, eta beraz, gastu publikoa, ongizate sistemen antolaketa eta estatuaren parte-hartzea erabaki ekonomikoetan ezberdina izan herrialde batetik bestera, guztiek hazkunde ekonomiko egonkorra eta materialetan hazkorra zen jendartearen bizi-maila lortu zuten ongizate estatuaren kudeaketa ekonomiko keynesiarraren eta soldaten erlazioen gaineko kontrolaren bitartez (Harvey, 1989a). Laburbilduz, estatuak, merkatuari bermea erakusten zion, biztanlerian sortzen zituen efektu negatiboak arintzera bideratzen zen bitartean (Cox, 1987). Hots, fordismo-keynesiarrak erregulazio eredu duala proposatzen zuen. Alde batetik merkatua egonik eta bestetik estatua. Lehena, aberastasunaren sortzailea zen, eta bigarrena, aberastasun horren birbanaketaz arduratzen zen.

Ongizate estatu-nazio keynesiarrari buruz hitz egin genezake beraz. Izan ere, estatuari agregatzen zaizkion adjektibo hauetako bakoitzak, erregulazio ereduaren ezaugarri garrantzitsu bat erantsi egiten dio. Zentzu honetan, Jessop (2002) dioen moduan, “keynesiarra” izateak, enplegu-betea, eskariaren kudeaketa eta masa ekoizpena laguntzeko azpiegituraren hornidura bezalako politika ekonomikoen multzoari egingo lieke erreferentzia. “Ongizate”-a, politika sozialen multzoari. Eta “nazionala” izateak, eskala nagusiari erreparatzen dio; non politika ekonomikoak eta sozialak planifikatzen ziren.

³ Zentzu honetan interesgarria izan daiteke Esping-Andersen-ek (1990) mendebaldeko ongizate estatuen inguruan egiten duen analisia.

1.2.2 Keynesianismo espaziala:

Fordismo-keynesiarraren garaian, estatuek, barne merkatuan ematen zen masa ekoizpen eta kontsumoan oinarritutako sistematik lortzen zituzten diru-sarrerak bi zentzutan birbanatzen zituzten: Sozialki eta espazialki. Alde batetik, negoziazio kolektiboaren akordioen eta ongizate sozialerako estatu-politikara bideratzen zuten; eta beste aldetik, zentralki planifikatutako estrategia eta politika ezberdinen bitartez, estatuaren eremu politiko-ekonomikoa homogeneizatzen, estandarizatzen eta berdintzen bideratzen zuten. Horrenbestez, estatuz azpiko eremuen gaineko kontrola areagotzen zen. Are gehiago, hasieran, espazio lokalek ekonomian eragiteko gaitasunik ez zeukatela uste zen, eta beraz, hauen zeregina estatuaren hazkunde estrategian integratzea zen (Brenner, 2004b). Estatuz azpiko eremuen oreka lortzeko bideratutako estrategien multzoa keynesianismo espaziala bezala izendatuko dugu aurrerantzean.

Zehatzago, estatuaren zeregina fordismo-keynesiarraren garaian, estatuaren ekonomia zentralizatuaren plangintza egitea zen. Hots, estatu burokratikoaren zabalpena, inbertsioen kudeaketa eta garaiko kapitalaren eta langileen arteko erlazioen artean bitartekotza lana egin (Brenner, 2004b). Garai honetan, estatuen mugen barnean gertatzen zen oro, estatuaren kontrolaren pean geratzen zen. “Estatuek euren espazio guztia estaltzen zuten.” (Lefebvre 1991: 378). Horregatik, badira autore askok II Mundu Gerra osteko garaian estatu-eskalaren garrantzia azpimarratu dutenak; bai kapitalaren metaketa prozesua ahalbidetzeko orduan, eta baita ere estatuaren esku-hartze politiko-ekonomikoaren bitartez, birbanaketa aurrera eramateko orduan.

Ikusi dugunez, Europako mendebaldeko estatu-tako espazio politiko eta ekonomikoa, estatu-eskalak erregulazio eskala bezala zuen nagusitasunagatik baldintzatuta zegoen. Estatuaren esku-hartzea estatuz azpiko eremuetara heltzen zen, non, alde batetik, kapitalaren zirkulazioa bermatzeko azpiegituraren eraikuntzan inbertitzen hasi ziren, eta bestetik, erreproduzio sozialerako laguntza gisa.

Azpiegitura hauek, estatuengatik finantzatuta eta planifikatuta zeuden, eta batez ere, aglomerazio urbanoetan sektore estrategikoak sustatzera bideratu ziren. Hauek, besteak beste garraioa, zerbitzu publiko eta baliabide energetikoen kudeaketa, telekomunikazioak eta garapen urbanoa lortzeko bestelako proiektuak izan ziren. Hain zuzen ere, garai honetan, mendebaldeko Europan, aireportuak, trenbideak, portuak edo errepideak bezalako eskala handiko garraioa sustatzeko azpiegiturak, garraio publikoa, energia nuklearra, etxebizitza publikoa, uraren tratamendurako sistemak eta poligono

industrial ugari eraiki ziren. Gainera, sektore estrategikoen zati handi bat estatuaren jabetzaren pean zegoen, eta zerbitzu publikoen eta bestelako ondasun kolektiboen kudeaketa ere. Izan ere, II Mundu Gerra bukatu zenetik, estatuak kontrolatzen zituzten sektore estrategikoak areagotu ziren. Ildo honetan, ikatza, petrolio, gasa, elektrizitatea edo energia nuklearra bezalako sektore energetikoak, eta, altzairua, itsasontzien eraikuntza, autogintza eta sektore aeroespaziala bezalakoak nazionalizatu ziren (Brenner, 2004b).

Hurrengo taulan, kapitalismo fordista-keynesiarreko erregulazioaren arkitektura eskalarra ikusi dezakegu, non eskala ezberdinen ezaugarri nagusiak eta haien arteko harremanak azaltzen diren:

1.1. TAULA: Estatu erregulazioaren arkitektura eskalarra kapitalismo fordista-keynesiarrean

Erregulazio eskala	Ezaugarri nagusiak eta izaera instituzionala
Globala	Bretton Woods-eko finantza sistemak eta GATT nazioarteko merkataritza sistema eta egonkortasun finantzarioa bermatzen dute. Horrek instituzio fordisten eta erregulazio praktiken nazioarteko difusioa darama.
Global-estatu harremanak	Estatu nazionalak moneta politikaren erantzukizuna hartzen dute AEBren hegemonia globalaren pean.
Estatu-eskala	Ongizate estatu keynesiarrak masa ekoizpena eta kontsumoa eman dadin baldintzak bermatzen ditu; aldi berean, kohesio soziopolitiko eta territoriala sustatzen du.
Estatu-lokal harremanak	Gobernu nazionalak gobernuen arteko erlazioak zentralizatzen dituzte eta estatu barruko disparekotasunak arintzeko lurralde birbanaketa sustatzen dute.
Lokala	Ongizate estatu lokalek estatu mailako politikak transmititzeko baliagarriak dira eta giza erreprodukzioarako elementu anitzak planifikatzeko, diru-laguntzak emateko eta finantzatzeko lan egiten dute.

Iturria: Brenner (2004b:130). Egileak itzulita.

Keynesianismo espazialaren garaian beraz, estatuz azpiko gobernu lokalen zeregina guztiz ezberdina zen. Herri-erakunde erregional eta lokalek, estatu mailan alde aurretik planifikatutako zerbitzu sozialak transmititzeko zeregina zeukaten. Hau da, hazkunde nazionalaren aurrean, birbanaketa errazteko agentziak bezala lan egiten zuten. Hau da, estatu zentralak planifikatutako politikak aplikatzen zituzten, nahiz eta haien diseinuan parte-hartzerik ez izan.

Keynesianismo espazialak estatuz azpiko eremuetan aurrera eramandako eskuhartzea anitza izan zen. Hala ere, esan bezala, estatutik bideratzen ziren goitik beherako politika zentralisten bitartez aplikatzen zen. Eta, politika hauek eraginkorrak izatekotan, estatuetao beste eskualde ezberdinetan errepikatzen ziren, estatuz azpiko espazio guztiak estandarrak edo homogeenak balira bezala (Amin, 1998). Estatuaren eskuhartzea garapenerako behar gehien zituzten eremuetara zuzentzen zen batez ere; estatuen barneko lurraldeetako garapen desorekatua arintzeko eta ahalik eta hazkunde orekatuena lortzeko. Izan ere, ikuspegi keynesiarrentzat garapen desorekatuak hazkunde ekonomiko nazionala eragozten zuen, eta beraz, enplegua birbanatzeko politikak nabarmenak izan ziren. Hurrengo taulan, estatuz azpiko gobernu lokalen eta nazionalen zereginaren alderaketa agertzen da:

1.2. TAULA: Estatuz azpiko gobernu lokalen eta nazionalen zereginaren alderaketa fordismo-keynesiarraren garaian

	Gobernu nazionala	Gobernu lokala
Eginkizuna	Ekoizpen kapitalistaren promozioa eta erregulazioa	Gizarte erreproduzioa eta zerbitzu publikoen promozioa
Politikak	Politika industrialak; lan-erlazioak; desenplegu politikak; politika erregionalen planifikazioa	Garraio publikoa; etxebizitza; osasun zerbitzuak; hezkuntza; ongizate soziala
Oinarri soziala	Klase interesak	Kontsumoa sustatzea
Ideologia	Kapitalista; jabetza pribatuaren eskubideak	Jendartearen eskubideak

Iturria: Brenner (2004b:154). Egileak itzulita.

Keynesianismoak azpigaratuak zeuden eremuekin izandako jarrera honek, eragin positiboa izan zuen barne industria bultzatzeko orduan. Izan ere, XX. mendeko 50eko eta 70eko hamarkada artean kapitalismoaren unerik gorenena izan zen. Lefebvrek (1976:111) dionez “kapitalismoaren ontzia eta bere agintariek motor, lema eta norabide finko batekin aurkitu ziren (...) dena hazkundearen menpe”. Egoera ekonomikoa hain zen ona —jarraitzen du Lefebvrek— zein eredurekiko kritikoak ziren ideologiak edo eragileak kooptatuak zeudela ematen zuen. Hazkundera helburu “logikoa” bihurtu zen, eta honen izaera mugagabea guztiz erroto zen.

1.2.3 Estatuz azpiko eremuen hazkunde orekatua lortzeko teoriak:

Keynesianismo espazialaren ardura nagusienetarikoa estatuetao eremu atzeratuenetan hazkundera lortzea izanik, hazkunde desorekatu hori azaltzeko bi ikuspegi

nabari ziren. Batetik, denborarekin lurralde disparekotasunak desagertzeko joera daukatela defendatzen zutenek, eta beraz, lurraldeen arteko konbergentzia prozesua defendatzen zutenak. Eta bestetik, lurraldeen arteko ezberdintasunak areagotzeko joera daukatela defendatzen zutenak, eta beraz, sortzen diren ezberdintasunak arintzeko estatuaren esku-hartzea beharrezkoa dela diotenak (De la Fuente eta Da Rocha, 1998).

Konbergentziaren aldekoen hipotesi nagusia zera zen: atzeratuagoak dauden eskualdeetako langileek, aurreratuagoak diren eskualdeetara joango dira lan egitera aukera gehiagoren eta soldata handiagoen bila. Aldiz, kapitalak, errentagarritasun gehiago aurkituko du atzeratuagoak dauden eskualde horietan, eta beraz eskualde aurreratuagoetatik atzeratuagoetara mugituko da, hazkundera eskualde horietara eramanez eta oreka orokorra emanez (Zurbano et. al, 2018). Teoria honen oinarria, ekonomia erregionala aztertzeko ekonomialari neoklasikoen saiakera matematiko/formalista batean aurkitu dezakegu, non merkatuen oreken inguruko suposizio teorikoen bitartez, lurralde guztien hazkunde ekonomikoa epe luzera bat egingo duela argudiatzen duten.

Konbergentziaren ikuspegiak, Sollow-ren (1956) ereduan oinarrituta, geroz eta garapen ekonomiko handiagoa izan, kapitalaren produktibitate marjinala txikiagotuko dela suposatzen du. Izan ere, ekoizpen faktoreei errendimendu beherakorrak suposatzen dizkie. Hau da, ekoizpen faktorearen produktibitate marjinala txikituko da (zerorantz), ekoizpen faktore horren kopurua handiagotzen den heinean. Modu honetan, epe luzera eta lehia perfektuko egoera batean, oreka eta enplegu beteko egoera batera heltzen dira ekonomiak, non errenta per capitaren hazkunderik ez den ematen (egoera geldikorra).

Alabaina, garai hartako azterketa enpirikoek erakutsi zuten epe luzean hazkunde tasa positiboak ematen jarraitzen ziren, eta hauek azaltzeko, garapen teknologikoa ereduan barneratzeko beharra ikusi zuten faktore exogeno gisa (aurrerapen teknologikoa ez da ekonomia baten berezko elementua, eta beraz, ekonomia guztiek daukate irisgarritasun berdina horretara). Aurrerapen teknologikoak direlakoan errenta per capita handitu dezaketen bakarrak egoera geldikorrean (Galindo, 2011). Horrenbestez, ikuspegi hauetatik, estatuaren esku-hartzearen zeregina oso txikia zen; ekoizpen egiturak egokitu besterik ez zuen egin behar, ondoren, beste herrialdeekiko konbergentzia helduko baitzen.

Hala ere, eredu neoklasiko hauen hipotesia oso murriztailea zen. Batetik suposatzen zuelako langileek euren jatorrizko lurraldeak hain errez utziko zituztelako

—eta hau gertatu zenean norabide bakarrean eman zen, landa eremutik eremu urbanora; hazkundearen izaera metakorra agerian utziz— (Zurbano et. al, 2018). Eta bestetik eskualde garatuagoak errotuta zeukaten ezagutzak, teknologia edo azpiegiturak, besteak beste, ez zituztelako kontutan hartu. Hots, baliabide endogenoak. Eta hauek, kapitala eskualde atzeratuagoetara mugitzerakoan, jatorrizko eskualde garatuagoenetan finko geratuko ziren baliabide garrantzitsuak ziren.

Konbergentziaren eredu neoklasikoaren aurreikuspen teorikoak, praktikan betetzen ez zirela ikusita, 80ko hamarkadan, konbergentziaren lehenengo teoria honek barneratzen ez zituen baliabide endogenoak eta metakorrak barneratu zituen analisisian. Hala nola, ikaskuntza prozesuak, gastu publikoa, giza kapitala edo I+G-n egindako inbertsioa besteak beste. Ez baitzen erraza elementu hauek epe luzeko hazkunderan eraginik izango ez zutela onartzea (Galindo, 2011). Hazkunde endogenoaren teoria honek konbergentziaren aldekoa izaten jarraitzen bazuen ere, baliabide hauetan egindako inbertsioak hazkunde ekonomikoa baldintzatu zezakeela onartzen zuen (Zurbano et. al, 2018).

Hala ere, ekonomien arteko konbergentziarik ez zen eman; aitzitik, errenta per capitari zegoenez dibergentzia prozesu bat eman zen, non lurralde garatuenean hazkunde tasa altuagoa erakusten zuten. Gainera, konbergentziaren ereduak ez ziren gai izan erakusteko zergatik kapitala lurralde aberatsenetan gelditzen zen, eta ez zen, ereduak erakusten zuen bezala, lurralde behartsuenetara igarotzen. Ildo honetan garrantzitsua da, arestian aipatu dugun 60ko hamarkadan landatik eremu urbanoetara emandako migrazio prozesua, zeinek ez zuen garapena landa eremura eramanez. Aldiz, eremu urbanoetan emandako prozesu metakorra erakutsi zuen.

Beste ikuspegi nagusiak eskualdeen arteko dibergentzia defendatzen du. Batez ere, lurraldeen izaera metakorrari erreparatu ondoren. Ikuspegi honetatik begiratzen zuten autoreek ekonomia keynesiarraren eragin garbia zeukaten eta estatuz azpiko eremuen arteko disparekotasunak ezabatzen saiatu ziren. Izan ere, ikuspuntu keynesiarretik, merkatua guztiz desarautzen bada, eta berez erregulatzen uzten bazaio, disparekotasun espazialak sortuko ditu; eskala ekonomiek eta aglomerazio industrialek sortzen duten metaketa efektua espazialki desorekatutako hazkundera bultzatuko baitute (Martin eta Sunley, 1998). Beraz, lurraldeek dituzten bereizitasunak hazkunde ekonomikoa eragina dutela onartzen dute. Abiapuntu honetatik, lurraldeen arteko disparekotasunak txikitzea helburu duten teoria ezberdinak aurkitu ditzakegu.

Lehenengoa, oinarri esportatzailearen teoria litzateke. Teoria honen arabera, ekonomia baten hazkundera bere industriaren hazkunderarekin lotuta dago, eta azken honen hazkundera, aldiz, kanpo eskariarekin; hots, kanpoan saltzen diren ondasunekin lotuta (Zurbano et. al, 2018). Oinarri esportatzailearen teoria, Douglas North (1955) ekonomialariaren ekarpenetik garatzen den teoria da eta eskualdeen ekoizpenaren espezializazioa bilatzen du, abantaila konparatiboaren teorian oinarrituta dagoelarik. Horrela, ekonomia bat (izan estatua, izan eskualde bat) abantaila gehien lortu dezakeen ekoizpen sektoreetan espezializatu behar dela defendatzen zen. Hau da, kanpo eskariari egokitzeko duen gaitasunaren arabera determinatuko da esportaziora bideratutako sektorearen hazkundera (Pike et. al., 2006). Beraz, estatuaren eginkizuna esportazioak hazteko politikak bultzatzea litzateke. Gainera, ekonomia horretako esportaziora bideratutako industria hazterakoan, beste sektore osagarrietan ere eragina izango du.

Ekonomia keynesiarra bezala, oinarri esportatzailearen teoria ere, hazkunde ekonomikoa eta enplegua lortzera bideratuta dago. Hazkundera eta enplegua, ekoizpena eta kontsumoaren artean dauden interdependentziengatik baldintzatuta daude. Izan ere, ondasun lokalen kanpo eskariaren areagotzeak enplegua eta diru sarrerak handitzen ditu. Eta aldi berean, esportaziorako sektore nagusitik lortzen den hazkundera, sektore osagarrietan islatuta ikusi daiteke (Capello, 2011). Baina aldi berean, kanpo eskaria esportazioen prezioengatik, esportatutako ondasunen kalitateagatik eta beste ekonomien errenta mailagatik baldintzatuta dago. Eta lehengaien, hornikuntzen eta bestelako kostuen prezioa amaierako ondasunaren prezioan eragiten dute. Eta kostu hauek guztiak, ekonomia horren aurrerapen teknologikoekin batera, lurraldeek atzerriko merkatuetan lehiatzeko duten gaitasunean eragina daukate (Pike et. al., 2006).

Dibergentziaren ikuspegitik abiatzen den bigarren teoria bat kausazio metakorrarena litzateke. Bere izena argitzen digun bezala, teoria honen oinarrian lurraldeen izaera metakorra agertzen zaigu. Gunnar Myrdal-ek (1957) landutako teoria honen arabera, ekonomia baten hasierako abantailak izango lirateke ekonomia horren arrakasta baldintzatuko dutenak. Izan ere, hasieran faktore gehien dituzten ekonomiek erraztasun handiagoa izango dute ekoizpen faktore gehiago erakartzeko modu azkarrago batean. Horrela, hasierako abantailak dituzten lurraldeek zirkulu bertutetsu batean sartuko lirateke, non faktoreen metaketa geroz eta handiagoa izango den. Aldiz, ekonomia atzeratuenak, zirkulu kaltegarri batean sartuko lirateke, euren ekoizpen faktoreak beste lurraldeetara mugituko baitira.

Kasu honetan argi ikusten da eredu neoklasiko tradizionalarekiko ezberdintasuna. Eredu neoklasikoan ekoizpen faktoreen errendimenduak beherakorrek direla suposatzen den bitartean, Myrdalek (1957) garatutako teorian, ekoizpen faktoreek errendimendu hazkorrek dituzte, geroz eta metakorragoak kontsideratzen direlako. Beraz, alomerazio- eta eskala-ekonomiak ezartzea lortzen duten lurraldeek inbertsioa erakartzeko aukera handiagoa garatzen dute. Pike et. al. (2006) diotenez, metaketarako gaitasunik ez dituzten eskualdeek eskulan merkeagoa eskaini dezaketen arren, eskualde garatuenean duten indar zentripetuak garrantzitsuagoak dira ekoizpen faktoreak erakartzeko orduan.

Beraz, estatuaren eginbearra erregio politika bultzatzea litzateke zeinean ekoizpen faktoreak atzeratuagoak dauden eskualdeetara helarazteko neurriak aplikatzen diren. Horrela, birbanaketa espazialaren bitartez, merkatuak sortzen dituen disparekotasunak estaliko lirateke, eta honek berriz ere estatuaren garapen ekonomikoa bultzatuko du; etengabeko erlazio zirkularra sortuz. Horrela, politika birbanatzaile horren adierazpen praktikoa interesen itzulketan, zerga onuretan, diru-laguntzetan, eraikin industrialen erosketan eta eraikuntzan, garraio azpiegituraren hobekuntzan eta industriarako lursailen garapenean oinarritu zen (Brenner, 2004b).

Ildo honetan doan hirugarren teoria bat, Perroux-en (1955) hazkunde poloen teoria litzateke. Perrouxek industria baten ikuspuntutik heltzen dio eztabaidari, hots, ikuspuntu mikroekonomiko batetik. Zehazki, industria lider bat izatearen eta bere inguruan ematen den hazkunde dinamikoaren arteko erlazioa ikertzen du. Izan ere, industria liderrak, bere inguruan beste industrien multzo bat sortzen du lehenaren babesean; berritzailea den hazkunde polo bat sortuz.

Estatuaren zeregina kasu honetan, atzeratuago dauden lurraldeetan poloak sustatzea da. Brennerrek (2004b) hazkunde polo hauen kokapen espazialari erreparatzen dio. Fordismoaren metaketa eredu, lanaren banaketa espazialean oinarritzen zen, eta beraz, estatuaren barnean garapen espazial desberdina ematen zen lurraldeen artean. Hazkunde poloak kokatzen ziren lurraldeetan, funtsezko industria fordistak kokatu ziren euren hornitzaileekin eta langileekin batera. Horrenbestez, eskualde hauek hazkunde demografikoa eta hedapen industrial iraunkorrek jaso zituzten. Neurri batean, hazkunde poloak arestian aipatutako nazionalizatutako industrien bitartez sortzen saiatu ziren.

Atzeratuagoak zeuden eskualdeak garatzeko, keynesianismo espazialak, baliabideen transferentzia zuzenaz gain bestelako lanabesak erabiltzen zituen. Kasu

honetan, azpimarratu behar da Nicholas Kaldor-en (1970) ekarpena, zeinek “egonkortzaile automatikoen” logika sintetizatu zuen. Egonkortzaile automatikoak, eskualdeetan esku-hartze politiko zuzenaren bitartez aktibatu ordez, hots, atzeratutako erregioetara baliabideak eraman ordez, zerga zama txikiagotzen zitzairen, eta aldi berean, estatuaren gastu publikoaren zati handiagoa jasotzen zuten. Eta eskualde garatuagoetan aldiz, zerga altuagoak ordaindu zezaten exijitzen zitzairen, laguntza publiko gutxiago jasotzen zuten bitartean. Egonkortzaile automatiko hauen zeregina, birbanaketa lortzeaz gain, eskualde atzeratuagoetan krisi ekonomikoen efektuak arintzea ere bazen (Brenner, 2004b). Kaldorrentzat, Myrdalen teoriak oso eragin handia izan zuen; ekoizpen faktoreen izaera metakorra kontsideratu baitzuen bere proposamenarako (Capello, 2011).

Dibergentzia zein konbergentziaren teoriak eragin zuzena izan zuten gerraosteko politika erregionalean. Azkenean, analisi enpirikoek eskualdeen arteko dibergentziarako joera erakutsi zuten, eta beraz, estatuaren eskualdeen arteko hazkunde desorekatua erakutsi zuten, estatuaren esku-hartzea behartu zuten eredu neoklasiko tradizionalak zioenaren aurrean (Pike et. al., 2006). Hala ere, dibergentziaren ikuspuntua eskualdeen arteko konbergentzia ezagatik indartu bazen ere, bere kritikak jaso zituen. Izan ere, praktikan egiaztatu zen bezala, batetik, lurralde arrakastatsu batean metatzen diren faktoreak atzeratuago dagoen beste lurralde batean errepikatzea oso zaila izan zen. Bestetik, hazkunde poloak gauzatzeko beharrezkoak diren faktoreak bir-produzitzeak ere zailtasunak erakutsi zituen. Oinarri esportatzailearen teoriak ere kritikak jaso zituen sinpleegia izateagatik eta eskualdeetan ematen diren ekintzailetasuna edo politika publikoa bezalako berezko elementuak ez barneratzeagatik. Gainera, esportaziorako sektoreak zeintzuk izan behar diren zehazten ez zituela eta esportaziorako sektore horiek hazkundearen eragile bakarrak zirela suposatzeagatik ere kritikatu zitzaion (Pike et. al., 2006).

Ikusi dezakegunez, II Mundu Gerra osteko garaian, atzeratuago zeuden eskualdeak estatuen garapen espazialerako bide-orrian integratzeko ahalegin nabaria egin zen. Beti ere fordismoaren masa ekoizpen eta kontsumo mugaezinaren logika horretan. Hala ere, estrategia hauen formulazioa, zentralki planifikatua eta estatuz azpiko eremuak eremu homogeneoak balira bezala aurrera eraman zen; espazioaren homogeneizazioa eta estandarizazioa suposatuz (Brenner, 2004b). Ildo honetan Lefebvrek (1976:83) esaten duen moduan, “espazioa, (...) homogeneitatera murriztua,

baina zatituta” zegoela esaten du keynesianismo espazialaren izaera zentralista eta homogeneizatzaileari erreferentzia eginez, baina aldi berean estatuz azpiko espazioen artean zeuden erlazio hierarkikoak salatuz.

Izan ere, eredu fordista-keynesiarrak nazioarteko zentro-periferia eskema hierarkikoa estatuz azpiko espazioetan erreproduzitzen zuela kritikatu zitzaion. Hots, garapen nazionala lortzeko, zentro gisa funtzionatzen zuten eskualdeak zeuden bitartean, periferiako eskualdeak ere bazeuden. Lehenak, berrikuntzan oinarrituta zeuden, eta ekonomia nazionalaren ardatzak ziren. Eta besteak, berrikuntza beharrik ez zituzten industrietarako espezializatu gabeko lan esku gisa funtzionatzen zuten. Horrela, eskualdeen arteko desberdintasunak areagotzen ziren (Zurbano, 2005).

Metaketa fordistaren erregimena beraz, dinamismo ekonomiko handiena zeukaten eskualdetan eman zen gehien. Eskualde hauek, oro har, izaera urbano-industrialak zuten eta hauen arteko elkar-eraginak agerikoak ziren. Esanenezake ekonomia nazionalaren sisteman, eskualde urbano hauek nodo garrantzitsuak zirela. Eta, naiz eta hauek estatuaren botere politikoaren menpe egon, hauen dinamismo ekonomikoaren eta estatuaren hazkunde ekonomikoaren arteko erlazio zuzena erakutsi zuten. Eskualde urbano hauek nazioarte mailan garrantzi geoekonomikoa hartzen zuten heinean, estatuen botere geopolitikoa ere handitzen zen; eta beraz, eskualde hauek geroz eta garrantzi gehiago lortzen zuten bitartean, estatuen lanaren zatiketa espaziala geroz eta gehiago areagotzen zen (Brenner, 2004b).

Esan dezakegu beraz, mendebaldeko Europan, politika erregionala keynesianismo espazialaren mekanismo garrantzitsuenetarikoa izan zela. Hala ere, estatuen eremu guztian zehar birbanaketa lortu nahi bazuen ere, ez zen eskualde periferikoetara guztiz heldu. Izan ere, eskualde urbano edo metropolitarraren biztanleriaren dentsitateagatik, estatutik bideratutako laguntzaren zati handiena hauetara bideratu zen. Eta, periferietara bideratzen zena, errentaren aldetik neurri handi bateko konbergentzia eraman bazuen ere, ez zuten zentro-periferia eskeman oinarritutako metaketa ereduan aldaketa sakonik lortu. Eta beraz, nahiz eta periferiako bizi mailaren igoera eman zen, ekoizpen faktore aurreratuenak zentroetan jarraitzen zuten (Brenner, 2004b).

1.2.4 Garapen ekonomikorako politikak hegoaldeko herrialdeetan:

Hegoaldeko herrialdeetako XX. mendeko bilakaera mendebaldeko Europako bilakaerarekin konparatuta oso ezberdina izan den arren, behintzat, estatu-eskalaren nagusitasunean antzekotasunak aurkitu ditzakegu. II. Mundu Gerra osteko garaiak ere berebiziko garrantzia dauka hegoaldeko herrialdeetan. Izan ere, garai horretan, Asiako, Latinoamerikako, baina batez ere Afrikako herrialde ugari herrialde kolonialekiko independentzia lortzen dute. Hegoaldeko herrialde berri hauen egoeraz kezkatuta, iparraldeko ekonomialari askok azpigarapen egoera gainditzeko moduak ikertzen hasi ziren. Garapenaren ekonomia bezala izendatutako azpidiziplina ekonomikoaren testuinguruan (Guridi, 2017).

Ekonomialari horietatik garrantzia eta ospea lortu zuen lehena, Walt Withman Rostow ekonomialari estatubatuarra izan zen. Rostowren (1959) ustez, garapena, edozein herrialde igaro ditzakeen bost faseen ostean iritsiko zela uste zuen. Fase hauek, jendarte tradizionalako herrialde bat izatetik, masa kontsumoan oinarritutako herrialde bat izaterako bidea azaltzen zuen; trantsizio lineal honen bitartez:

- Jendarte tradizionala: “Jendarte tradizionala, bere estrukturak ekoizpen funtzio mugatuaren barnean garatzen dituen da. Newton-aurreko zientzia eta teknologian oinarrituta, eta mundu fisikoaren aurrean, Newton-aurreko jarrerak erakusten dituen da.” (Rostow, 1959:4). Hau da, ekonomia lehenengo sektorean oinarrituta dago eta ekoizpen batez ere autokontsumorako bideratuta dago.
- Hazkunderako aurrealdintzak sortzeko fasea: Nekazaritza eta industriarako ekoizpena apurka berrikuntza prozesuetan sartzen da. Europako mendebaldean XVII. mendeko amaieran eta XVIII. mendeko hasieran emandako prozesua da hain zuzen ere. Garraiorako lehenengo azpiegiturak eraikitzen dira. Lortutako diru sarrerekin, aurrezkoa eta inbertsioa sustatzen da eta beraz enpresen modernoek sorkuntza dator. Politikoki, zentralizatutako estatu nazionalaren eraikuntza beharrezkoa izango litzateke.
- Hazkunde fasea: Ekonomiaren hazkundera egoera normala bihurtzen da. Enpresa kopurua areagotzen da, eta hauek lortzen duten mozkinekin, ekoizpen instalazio berriak sortzeko berrinbertitzen dira.
- Heldutasunerako bidea: Herrialde bateko ekonomiak ekoiztu nahi duen edozein ondasun ekoizteko gaitasun teknologiko eta enpresariala duela erakusten du.

- Masa kontsumoko aroa: Errenta per kapita igotzen da, eta ondasun basikoak baino gehiago kontsumitu dezakeen jendartea sortzen da. Gainera, ongizate estatua eta segurtasuna heltzen dira.

Hala ere, Rostowren teoria honi kritika ezberdinak egin zitzaizkion. Izan ere, herrialde kapitalistetan bakarrik funtzionatuko zuen eredua proposatzen zuen. Gainera, Rostowek Estatu Batuetatik idazten zuen, eta bere teoria mendebaldeko kulturaren kutsua zeukala kritikatu zitzaion; hegoaldeko herrialdeen kultura propioei erreparatu gabe sortu zuelako. Dena den, kapitulu honetan guri interesatzen zaigun elementua estatu-nazio zentralizatuaren sorkuntzari ematen dion garrantzia litzateke. Izan ere, Rostowek (1959) herrialde garatuek jarraitutako eredua proposatzen zuen hegoaldeko herrialdeentzako, eta beraz, mendebaldeko Europako estatuen izaera zentralista berreskuratzen du bere proposamenerako.

XX. mendeko 50eko hamarkadan ere, Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoa (CEPAL) sortzen da; sortu berria zegoen eskola estrukturalistaren erreferente bezala. Eskola estrukturalista, Latinoamerikako herrialdeek merkatu globalean barneratzeko zailtasunak aztertuta, Raúl Prebisch-ek (1949) lanaren zatiketa internazionaletik eratorrita sortzen duen zentro-periferiaren kontzeptua hartzen du oinarri bezala. Zentro-periferiaren sistemaren arabera, mundu kapitalistan bi herrialde mota egongo liriteke. Batetik, zentro gisa ekoizpen teknika aurreratuak dituzten eta manufakturen ekoizpenean oinarritzen diren herrialdeak daude. Eta bestetik, periferian, lehengaien esportazioan oinarritutako hegoaldeko herrialde ez industrializatuak. Arazoa zera da, zentroen eta periferien arteko merkataritza erlazioetan asimetriak ematen direla, ondasun manufakturatuen prezioak eskariaren areagotzeagatik igotzen diren bitartean, lehengaien ekoizpenean lortutako produktibitatearen hazkundeak, produktu hauen prezioen gutxitzea ekarri duela. Beraz, autore estrukturalistek, periferiako herrialdeen garapena lortzeko, industria hasiberriaren babesa eskatzen dute estatuaren partetik (Erauskin et. al, 2012).

Hamarkada bat geroago, estrukturalisten zentro-periferian oinarrituta ere, mendekotasunaren teoria sortzen da. Paul A. Baran izanik teoria berri honen lehenengo autoreak. Mendekotasunaren teoriak, teoria keynesiarrari ikuspegi neo-marxista eransten dio. Ildo honetan, Guridik (2017) mendekotasunaren teoriaren oinarritzko beste hiru ideia azpimarratzen ditu. Lehena, periferiako herrialdeen azpigarapen egoera ez dela garapenaren aurreko fase bat; baizik eta inperialismoaren ondorioa. Bigarrena,

nazioarteko harreman ekonomikoen izaera dela periferian zentroarekiko mendekotasuna sortzen duena; eta egoera hori kaltegarria dela periferiako herrialdeen garapena emateko. Azkenik, kapitalismoa oztopoa dela periferiako garapena lortzeko. Horrela, mendekotasun teoriak zentroarekiko harremanekin apurtuz, Latinoamerikako herrialdeetan barne eskariaren handiagotzea, industria sektorearen garrantziaren aitorpena —batez ere honek sortzen duen balio erantsiari begira—, langileen sarrerak handitzea —eskari agregatua handitzeko—, eta, gobernuen eginkizunak eraginkortzea eskatzen zuen (Erauskin et al, 2012).

Kasu honetan ere, estatu-eskalaren lehentasuna erakusten duten bi teorien aurrean gaude. Eta nahiz eta urte batzuk geroago CEPALek tokiko garapenaren aldeko jarrera hartuko duen, ikusi dezakegu hegoaldeko herrialdeetan ere estatuaren zentralitatea oinarritzkoa dela garai honetan. Izan ere, garapenaren inguruko teoria ezberdinek ikergai subjektu bezala estatu-nazioa erabili izan dute. Guridik (2017:7) dionez, prozesu ekonomiko eta sozialak aurrera eramaten dituen organismoa bezala ulertuta zegoelako. Eta beraz, “pertsonek ongizatea garapen nazionalaren azpi-produktu gisa” ulertzen zelako.

1.3 Estatua eta globalizazioa:

Globalizazioaren inguruko eztabaida XX. mendeko azken laurdenean emandako irekiera globaleko prozesu anitzei erreferentzia egiten die oro har. Kapital, informazio, teknologia eta abarren nazioarteko fluxuen areagotzeari alegia. Horrela, besteren artean, XX. mendeko azken hamarkadetan eta XXI. mendean zehar, herrialde ezberdinetan eragiten duten enpresa transnazionalak areagotu egin dira. Estatu-nazioaren espazioan oinarritutako merkatuetatik, nazioarteko merkatu baterantz egindako trantsizioaren bitartez.

70eko hamarkadaren erdialdean, erregulazio fordista-keynesiarra metaketa kapitalistarentzako oztopo bihurtu zen, eraginkortasuna galdu eta zaharkitua geratu zen heinean. Beraz, kapitalak berregituraketa prozesu berri bati ekin zion kapitalismoaren garai berri batean sartu arte. Kapitalismo neoliberal globala, alegia. Izan ere, globalizazioarekin batera, merkatuari eta esfera pribatuari lehentasuna ematen dion ideologia neoliberalaren hazkundera eman zen. Eta beraz, keynesianismoaren garaiko birbanaketarekin bukatzen da, estatuaren esku-hartzea ekonomiaren hazkunderako oztopo bezala ikusten delako.

Merkatuen irekiera honen bitartez emandako sistema globalaren eraikuntza eta ahalik eta sektore produktibo gehienak merkaturatzea, kapitalaren berezko ezaugarri bat bezala ulertu dezakegu. Hots, kapitalismoaren historian zehar, kapitalak berregituraketak izan dituen arren, ortzi-mugan merkatu globala eta autorregulatua izan duela esan dezakegu. Eta, garai batzuetan esku-hartzea nabarmenagoa izan den arren, adibidez, protekzionismoa nagusia zen garaietan edo fordismo-keynesiarraren garaian, esan dezakegu merkatuen liberalizazioaren aldeko joera erakutsi duela.

1.3.1 70ko hamarkadako krisi globala:

Gaur egun ezagutzen dugun globalizazioaren hastapenak ikertzeko, XX. mendeko 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera ematen diren aldaketa globaletara joko dugu; non, besteak beste, estatuaren papera guztiz aldatzen den. Izan ere, hamarkada honetan aldaketa politiko-ekonomiko sakonak eragin zuten hainbat gertakizun eman ziren. Hauen artean, 1973ko petroleoaren krisia, Bretton Woods-etik zetorren diru-ordenaren amaiera, masa ekoizpeneko industria fordista tradizionalen gainbehera, masa kontsumoko merkatuen saturazioa, industrializatutako herrialde berrien lehiakortasunaren hazkundera, desenpleguaren hazkundera eta ongizate estatuen krisi fiskala.

70eko eta 80ko hamarkadetan emandako aldaketa hauen erroa zehatzago aztertzeko, Jessopek (2002), aldi berean emandako eta elkarri eragin zioten lau krisi aztertu behar direla dio: Krisi ekonomikoa, krisi fiskala, krisi politikoa eta krisi soziala.

Krisi ekonomikoaren adierazpen argiena, estanflazioa izan zen. 1971. urtean, AEBk, Richard Nixon-en agintaritzaren pean, dolarrak errearekiko zuen bihurtasunarekin apurtzen du. Hots, urre patroiarekin. Izan ere, urre patroia dolarra eta urrearen arteko bihurtasunean oinarritzen zen, baina dolarren hazkundera ez zen urrearen hazkundera islatu; eta beraz, bihurtasuna ezin zen bermatu. Ordutik aurrera, kanbio sistema malgua nagusitu zen. Gainera, petrolioaren prezioen igoera nabarmena eman zen, herrialde petrolio esportatzaileen sarrerak handituz eta iparraldeko herrialde fordistetan estanflazioa (inflazioa eta langabezia) sorraraziz. Izan ere, industria fordistak petrolioarekiko menpekotasun handia zuen, eta Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak (LPEE) petrolioaren prezioa igo zuenean, metaketa eredu fordistaren hazkundera zalantzan jarri zuen (Jessop, 2002).

Herrialde petrolio esportatzaileen dirua iparraldeko bankuetan gordetzen zen, eta aldi berean, banku hauek, gehiegizko likideziaren arazoari aurre egiteko, herrialde Latinoamerikarrei mailegu merkeak emateko erabili zuten. AEBtan inflazioa kudeatzeko neurriak aplikatu ziren eta interes tasak igoaraziz. Interes tasen igoerak eta lehengaien prezioaren jaitsierak, Latinoamerikako herrialdeei zorra ordaintzea eragotzi zien; lehengaiak baitziren Latinoamerikak esportatzen zituen ondasun nagusiak. Ondorioz, herrialde batzuek iparraldeko bankuekiko zeukaten zorra ez ordaintzea erabaki zuten, kanpo zorraren krisia deritzonari bide emanez (Larrañaga, 2010).

Bestetik, produktu estandarizatuen merkatua saturatu zen eta masa ekoizpena igarotzea ahalbidetutako produktibitatearen hazkundera handitzen jarraitzeak zailtasun handiak erakusten zituen. Beraz, eskalako ekonomia handiagoak lortzeko, enpresa fordista askok atzerriko merkatuetara jo behar izan zuten. Gainera, kostu txikiagoak zituzten atzerriko kredituen bila ere joan ziren. Eta, azkenik, zerga gutxiago ordaintzeko, beste herrialdeetara —paradisu fiskalak tarteko— transferitzen hasi ziren euren sarrerak. Horrela, ekonomia nazioartera irekitzen zen bitartean, estatu-eskalak erregulazio ekonomikorako zuten lehentasuna eta gaitasuna ahultzen joan zen.

Aldi berean, ekonomia lokal eta erregionaletan arazo espezifikoak agertzen joan ziren. Eta hauek, ezin ziren ordura arte bezala estatutik planifikatutako politika estandarizatuen bitartez kudeatu. Politika espezifikoak behar zituzten. Eta beraz, eskaria sustatzeko neurri keynesiarrak aurrera eramateko zailtasunak agertu ziren.

Krisi fiskalak bere aldetik, ongizate estatuen sarrerei eta gastuei eragin zien aldi berean. Sarreraren aldetik, gizarte segurantzarako zein mozkinen gaineko zerga-oinarria jaitsi zen langabeziaren mehatxuaren pean. Gainera, barne merkatuen irekiera globalak zerga-ihesa ekarri zuen. Baina aldi berean, gastuak nabarmen hazi ziren, krisi ekonomikoaren eraginez prestazio eta zerbitzu sozial gehiago behar ziren heinean. Gainera, ekoizpen ereduaren aldaketa berriak zekarren berrikuntza teknologikoan egin beharreko inbertsioak batetik, eta kapitalen mugikortasuna bermatzeko kapitalaren gaineko zergen murrizpenak bestetik, gastu publikorako baliabideen mugapena ekarri zuen (Jessop, 2002).

Espazialki baliabideen mugapena jasan zutenek estatuz azpiko gobernuak izan ziren. Gogora dezagun, estatuz azpiko gobernuen zeregina fordismo-keynesiarraren garaian zentralki planifikatutako birbanaketa espaziala aplikatzea zela; eta agenda neoliberalak birbanaketaren aurkako neurriak aplikatzerakoan eta baliabide publikoak

mugatzerakoan, administrazio publiko lokalek, beraiek bildutako zergen bitartez eskuhartzea kudeatzera behartu zituzten (Brenner, 2004a). Horrela, tokian tokiko garapenerako programen aurrebaldintzak finkatzen joan ziren.

Politikoki, ongizate estatutik eratorritako burokraziaren, zentralismoaren, klientelismoaren eta abarren krisia eman zen. Beste alderdi garrantzitsua gasturen gaineko kontrola izan zen. Ongizate estatuaren garaiko gastua ez zeukan kontrol finantzariarik, eta beraz, krisia heldu zenean, gastua gehiago kontrolatzen hasi zen. Horrek agenda neoliberalak aplikatzearen aldeko alderdi politikoei ireki zien bidea (Jessop, 2002).

Azkenik, sozialki ere, egiturazko aldaketa nabarmenak eman ziren 70eko eta 80ko hamarkadetan. Lehena, estatu-nazioaren krisia izan zen. Izan ere, eskala honetan eraikitako estatu-nazioen arteko mugak balioa galtzen hasi ziren. Bigarren aldaketa, eredu keynesiarraren birbanaketaren ereduaren aurrean jendarte zibilaren eskakizun berriak izan ziren. Eskakizun hauek besteak beste, identitate pluralak onartzen zituzten politika berriak; autonomia, eskubide sozialen kudeaketa burokratikoaren aurrean; norbanakoen ahalduzkoaren aldeko aldarria; edo merkatuaren logikatik eta estatu burokratikoetik at jarduten duen hirugarren sektore baten hedapena (ikus 3. kapitulua) izan ziren. Hirugarren aldaketa sozial garrantzitsua krisi demografikoa izan zen. Izan ere, jendarte forditek geroz eta helduagoak ziren; eta beraz, ongizate estatuaren finantzei ere eragin zien erretiroen kopurua handitzen joan zen. Baina kasu honetan, konponbidea —behintzat, partziala— izan zitekeena, hots, inmigrazioa, beste arazo politiko eta sozial batzuk sorrarazten zituen Europako herrialdeetan (Jessop, 2002).

1.3.2 Lehiakortasunaren estatu neoliberalak:

Krisi testuinguru honetan, Txikagoko eskolako⁴ ekonomialariek II Mundu Gerra ostean publikatzen hasitako idazkiak indarra hartzen hasten dira. Hauek izan ziren, hain zuzen ere, 70eko hamarkadaren azken urteetan eta 80ko hamarkadako lehenengo

⁴ Txikagoko eskola, XX. mendeko erdialdean Txikagoko Unibertsitateko Booth negozio-
eskolan sortutako korrante ekonomikoa da. George Stigler eta Milton Friedman direlarik haren
ekonomialari esanguratsuenak. Ekonomia keynesiarraren aurkako eskola da, eta azken honen
gainbeheraz baliatu zen 80ko hamarkadan indarra lortzeko. Bere ideiak, oro har, monetarismoan eta
igurikimen arrazionalen teoriaran oinarrituta daude. Eta politikoki, Margaret Thatcher edo Ronald
Reagan bezalako agintariak eskola honetako ideietan oinarritutako lehenetariko agintariak izan ziren.
Baina baita ere Europako eta nazioarteko erakunde ekonomiko ezberdinak; Washingtoneko
kontsentsutik eratorritako Banku Mundiala (BM) eta Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) kasu.

urteetan indartutako garapen kapitalistaren hurrengo fasea teorizatzen hasitakoak. Kapitalismo neoliberalak alegia. Hauen iritziz, merkatuak irekiak, lehiakorak eta autorregulatuak izan behar ziren. Horrela lortuko omen zirelako hazkunde ekonomikorako baldintza egokienak. Horrela, fordismoaren errentagarritasunaren krisiaren ondoren eta ongizate estatuaren politika sozialen porrotaren ondoren, estatuak ordura arte eraikitako instituzioak deseraikitzen hasi ziren merkatuaren mesedeetan (Brenner eta Theodore, 2002). Alde batetik, lehiakortasuna sustatzen merkatuen desarauketaren bitartez, adibidez estatuak industria fordistarekiko zuen kontrola desarautuz edo enpresa handiei zerga zama murriztuz; eta bestetik, ordura arte estatuak eskaintako zerbitzu sozialak pribatizatuz eta merkaturatuz.

Kapitalismo neoliberalak nazioartera zabalduta zen, eta nahiz eta Margaret Thatcher edo Ronald Reagan bezalako agintariak izan burura lehenago etortzen zaizkigunak, tradizionalki sozialdemokratik ziren beste herrialdeak ere abiatu ziren agenda neoliberalak proposatzen zituen neurriak aplikatzera. Horrez gain, nazioarteko erakundeak —batzuk dagoeneko existitzen zirenak eta beste batzuk garai honetan sortu zirenak— neoliberalismoak proposatzen zuen agendarekin bat egin zuten.

Esku-hartzeari dagokionez aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen neoliberalismoaren gorakadak. Ongizate edo *welfare* estatua izatetik, lanean oinarritutako *workfare* estatua izatera igaro zen. Aldaketarekin estatuak birbanaketaren irizpideak eta helburuak aldatzeaz gain, euren zeregina, hots birbanaketa bera eta esku-hartze publikoa ere aldatu zen (Zurbano, 2005). Estatuak, eskaria sustatzeko politikak alde batera utzi zituzten. Eta hauekin batera, politika makroekonomiko eta ongizate estatu politikak ere bai. Fordismo-keynesiarraren garaian soldatak eskaria handitzeko baliagarriak ziren bitartean, zabaltzen ari zen garai berri honetan, ahalik eta gehien murriztu beharreko gastu bat ziren. Hortaz, estatuak soldatak sustatzeko neurriak aplikatzeari utzi zioten, barne zein kanpo eskari agregatua geldiaraziz (Dunford, 1994). Horrez gain, azaldutako krisi fiskalaren eragina enplegu publikoaren murrizketan islatu zen. Horren ordez, eskaintzaren aldeko politikak eta lehiakortasun estrukturala, berrikuntza teknologikoa eta industriaren nazioarteratzea sustatzeko neurriak abian jarri ziren. Eta, ongizate edo *welfare* politika birbanatzaileen amaierarekin, langileak soldata baxuko lan merkatuetan lan egitera behartzen zituzten politikak nagusitu ziren; aipatu ditugun *workfare* politikari, alegia (Brenner, 2004b).

Jessopek (2002) lehiakortasunean oinarritutako estatu *Schumpeteriano* berriei buruz hitz egiten du. Alde batetik, lehiakortasunean oinarrituta daude, edo estatu lehiakorak dira, euren helburu nagusia beraien mugen barruan hazkunde ekonomikoa lortzea delako, nazioarteko kapitala erakartzen saiatuz, enpresentzako abantaila lehiakorren bitartez. Ildo honetan deslokalizazioaren fenomenoak zeresan handia dauka. Eta nahiz eta estatu lehiakorrek izaera ezberdinak izan ditzaketen, areagotzen dena, izaera Schumpeterianoa duena litzateke. Aldaketa teknologikoan, berrikuntzan eta enpresan oinarritzen dena.

Ikusten dugun moduan, estatu postfordistek, “euren lurralde, biztanleria, eraikitako ingurune, instituzio sozial eta eragile ekonomikoentzako abantaila lehiakorak sortu, berregituratu edo indartzeko estrategiak lehenesten dituzte ekonomikoki eta politikoki bideragarriak diren heinean.” (Jessop, 2002:96).

Hegoaldeko herrialdeetara jotzen badugu, agenda neoliberalaren aztarna argiak ikusi ditzakegu ere. Atzerriko zorraren krisiaren ondorioz, 70 eta 80ko hamarkadetan herrialde hauen hazkundera gelditu zen. Eta beraz, ordura arte erabilitako eredu agortutzat, edo are gehiago baliogabetutzat hartu zen merkatuan oinarritutako eredu baten mesedetan. Eta hor, noski, neoliberalismoak zeresana zuen. Neoliberalentzat, azpigarapena ekonomiaren egoera bat besterik ez da; hazkunderaren geldiunea ematen denean agertzen dena. Hortaz, ekonomia hazi dadin, estatuaren esku-hartzearen kontra egiten dute, merkatuaren funtzionamendu aske baten alde. Estatuaren esku-hartzea ekonomiaren hazkunderako oztopo gisa ikusten dutelako. Horregatik, euren neurrien artean, merkatuen liberalizaziorako politikak, estatuaren tamaina murriztea eta sektore pribatuaren aldeko politikak sustatzea aurkitzen dira (Erauskin et.al., 2012).

80ko hamarkadan, nazioarteko finantza erakundeek kanpo zorrarekiko arazoak zituzten herrialdeei laguntza ekonomikoa ematearen truke, erreforma neoliberalak onartzera behartu zituzten. Erreforma hauek, 1989an Washingtoneko kontsentsuan bat egingo zutenak, hegoaldeko baina baita ekialdeko herrialdeek garapena lortzeko jarraitu behar zituzten hamar neurri adostu zituzten iparraldeko herrialdeen eta nazioarteko erakundearen artean. Neurri hauek —doikuntza programak—, agenda neoliberalarekin bat egiten zuten eta aipatutako liberalizaziorako eta estatuaren eragina txikitzeko neurriak ziren. Horien artean, zorraren desmonetizazioa, sektore publikoaren txikitzea, finantzen eta merkataritzaren liberalizazioa, lehiakortasunaren areagotzea eta eskubide pribatuen defentsa egon ziren.

Brenner eta Theodore-rentzat (2002), neoliberalismoa harreman sozialen gainetik merkatu arauak nagusitzen dituen agintaritza politikoaren markoa da. Eta esaterik ez dago, agenda neoliberalaren aplikatu zen herrialdeetan klase herrikoien bizi baldintzak aski okerrera egin zutela. Disparekotasunak handitu zituen, lan baldintzak okertu zituen eta ongizate estatuak eskaintzen zuen berme sozialarekin bukatu zuen. Aldiz, zerbitzu publikoen pribatizazioak eta nazioartean jarduten duten enpresa multinazionalentzako joko-arau onuragarriak aplikatu zituen; eskubide sozialak murrizten zituen bitartean. Neoliberalismoa beraz, eta klase herrikoiak desjabetzeko eta metaketa kapitalista areagotzeko proiektua litzateke; klase izaera argia duena (Harvey, 2014).

1.3.3 Globalizazioaren prozesuak:

Aldaketa testuinguru honetan, beharrezkoa da azaltzea 70eko hamarkadatik aurrera eman zen berregituraketa ekonomiko-politiko ulertzeko, Brennerrek (2004b) azaltzen dituen lau prozesu garrantzitsuak.

Lehenengo prozesua, masa ekoizpenean oinarritutako enpresen gainbehera litzateke. Industria fordisten oinarrizko sektoreak, ikatza, altzairua, itsasontzien eraikuntza, autogintza eta sektore aeroespaziala etab. ziren. Alabaina, 70eko hamarkadatik aurrera, nazioarteko lehiakortasunaren areagotzeak, masa kontsumoko ereduaren saturazioak eta teknologia berrien garapenak, industria hauen gainbehera ekarri zuten. Horren ondorioz, industria fordistan oinarritutako enpresa askok itxi egin behar izan zuten. Industria fordisten gainbehera, industria hauek jasotzen zituzten eskualde urbanoetan eman zen batez ere; krisi produktibo lokalak sortuz. Beraz, fordismo-keynesiarraren garaian zentroko eskualdeetan lortutako etengabeko hazkunde ekonomikoa, enplegu betea eta hedapen demografikoa zalantzan jarri zen. Egoera honek hurrengo kapituluan aztertuko ditugun tokiko garapenerako prozesu berriak abian jarri zituen; hauek, eskualdeetan bertan planifikatuta daudelarik eta euren berezko arazoei erantzuten saiatzen direlarik.


Bigarren prozesua, ekoizpen eredu malguen areagotzea izan zen. Fordismoaren eredu zurrunaren aurrean, gaitasun anitzeko langileak, ekoizpen prozesuen azpikontratazioak, aldi motz baterako lan kontratuak, espezializazioa, produktuen pertsonalizazioa eta ondasunen desberdintze estrategiak izan ziren eredu malgu berri honen oinarrizko ezaugarriak. Hasiera batean eredu malguak teknologia handiko sektoreetan eta finantza sektorean finkatu baziren ere, laster tradizionalki masa ekoizpenean oinarritutako industrietara zabaldu ziren. Estrategia berri hauek, lanaren

banaketa berriak ekarri zituzten. Izan ere, kudeaketa eta kontrol guneak enpresetako bulego nagusietan zentralizatu zituen, baina aldi berean, kostu txikiko ekoizpenerako instalazioak globalki sakabanatu zituen, bestelako ekoizpena azpikontratatzeko delarik (Brenner, 2004b). Ildo honetan interesgarria izan daiteke Peter Dicken-ek (2011) egindako analisia, zeinek hainbat industrietako ikerketa sektorial baten ondorioz, ekoizpen prozesuen sakabanaketa globala aztertzen dituen.

Irekitzen den ekoizpen eredu berriaren elementu nagusiak modu honetan azaldu ditzakegu: Industria astuna eredu fordistaren oinarritzko elementua bada, aldaketa teknologikoa eta berrikuntza ekoizpen postfordistaren oinarritzko elementuak dira. Bestalde, klase zatiketaren oinarritutako produktu homogeneoak ekoiztetik, kontsumitzaile tipoei oinarritutako produktu dibertsifikatuak ekoiztera igaro zen. Horrela, produktu bateko gama anitzak ikusi daitezke gaur egun edozein salmenta puntuetan. Eta horrenbestez, merkatu-nitxo berriak bilatu behar ziren; eta horretan marketinak, publizitateak eta zaharkitze programatuak paper garrantzitsua jokatu zuten.

Harveyk (1989a) dioten moduan, ekoizpenaren dispersio geografikoa eman zen enpresentzako ekoizpen baldintza probetxugarrien bila; eta, kapitalaren metaketa zikloa azkartzeko, enpresen arteko fusioak areagotu ziren. Oro har —jarraitzen du Harveyk— malgutasuna ekoizpenera, lanera, produktuei eta kontsumoari aplikatu zitzaion. Dena den, arreta berezia merezi du lan merkatuan emandako aldaketa. Izan ere, malgutasuna ere aplikatu da zentzu honetan, eta orain, enplegu emaileek presio handiagoa eragin dezakete langileen gainean. Botere sindikala —erregulazio eredu fordista-keynesiarraren oinarri bat zena— ahultzen joan zen, eta langileen kontratuen malgutasunak maila ezberdineko langileak sortu zituen. Batzuk, zentroan daudenak eta printzipioz baldintza hobegaoak dituztenak; hala nola segurtasuna, promozionatzeko aukera, pentsio duinak, aseguruak etab. Eta beste batzuk, lan merkatuaren periferian daudenak non prekaritatea handiagoa den. Hurrengo irudian lan merkatu malguaren eskema ikusi dezakegu:

1. IRUDIA: Lan merkatua, metaketa malguaren baldintzapean



Iturria: Harvey (1989a:151). Egileak itzulita.

Hirugarren prozesua, globalizazioa eta Europako espazio ekonomikoaren integrazioa litzateke. Izan ere, 80ko hamarkadaren hasieratik, Europako ekonomiek elkartuz joan ziren mugarik gabeko merkatu bateratu bat eraiki arte. Merkatu bateratuari integrazio monetarioa eta sektore finantzarioaren desaruketa gehitzean, Europako merkatuan kapitalen mugikortasuna, transakzio kostuen gutxitzea eta lehiakortasun maila handiagoa suposatu zuen. Hots, enpresek, estatuen barneko merkatuetan eragin ordez, Europako merkatu bateratuan eragitera bideratu ziren. Hala ere, ez da bakarrik Europako merkatuko desaruketa izan. Horren adibide, 1990eko hamarkadan emandako atzerriko inbertsio zuzenaren hazkundera Europan; eta alderantziz ere, Europako inbertsioak AEBtan edo Japonian esate baterako.

Azkenik, laugarren prozesua, ongizate estatu-nazio keynesiarraren gainbehera litzateke. 70eko hamarkadako krisi globalak eragindako desenplegua, zor publikoaren hazkundera, azpiegitura publikoen gainbehera eta estatuen aurrekontuen murrizketak, tradizionalki keynesianismoak izandako helburu makroekonomikoen ez betetzea ekarri

zuen —enplegu betea, eskaria bermatzeko neurriak eta prezioak eta hazkunde ekonomiko egonkorra—; ongizate estatuaren krisia ekarriz. Eta nahiz eta Europako mendebaldeko herrialde bakoitzean ongizate estatuaren gainbehera neurri eta abiadura ezberdinetan eman, azkenean, ongizate estatua gastuetan oinarritutako kudeaketa publiko efiziente bategatik ordezkaturia izan zen; enpresa jokabideak estatuaren jokabideetan islatuz.

1.3.4 Estaturaz azpiko eremuen egituraketa berria:

Erregulazio posfordista honen markoan, estatuaren zeregina aldatu zen. Ildo honetan, Brenner (1999a), kapitalismoaren eraldaketa honek lurralde antolaketan izan duen eragin espaziala ulertzen saiatzen da. Eskala ikuspegi batetik, estatu-eskala erregulaziorako lehentasuna izatetik, edo eskala pribilejiaturia izatetik, lehentasunik gabeko eskala anitzen egitura berria kokatzen da. Dena den, horrek ez du esan nahi estatua ahuldu edo desagertu denik. Baizik eta erregulaziorako ahalmenaren bir-escalatze bat eman dela, non elkarren artean eragiten duten estaturaz gailurik eta azpiko maila ezberdinak indartu diren, estatu-eskalaren kalterako. Eta birkonfigurazio honetan, batez ere, hiriek eta hiri-eskualdeek paper garrantzitsua jokatzen dute kapitala erakartzeko duten gaitasunagatik edo nazioarteko enpresa-nodo bezala duten paperagatik. Izan ere, eremu hauetan dinamika lokalak eta globalak ematen dira aldi berean, eta beraz, hauetan ematen diren eskala anitzeko gobernantza eredu dinamikoak dira hobekien erakusten dutenak lurralderatze prozesu berriak; edo bir-lurralderatze prozesuak.

Keynesianismo espazialak, estatuan zentro-periferia eskema hierarkikoa erreproduzitzen zuen bitartean, ordena berriak estaturaz azpiko ekonomiak zirkuitu globalean barneratu ditu. Hau da, lehen zentro gisa funtzionatzen zuten eskualdeek, periferiako eskualdeetatik geroz eta gehiago aldentzen dira, nazioarteko beste zentroekin harremana indartzen duten bitartean. Modu honetan, estatu-eskalaren ahalmena ahultzerakoan, azaldutako hazkunde orekatua lortzeko teoriak baliogabetzen joan dira. Izan ere, testuinguru berriak estaturaz azpiko eremuen arteko lehiakortasuna areagotzen du, enpresek baldintza hoberenak eskaintzen dizkieten lurraldeak bilatzen dituztelako; lurralde irabazle eta galtzaileak sortuz. Bestalde, enpresek ere antzeko ibilbidea jarraitu dute. Kasu honetan Holland-ek (1976) azpimarratzen du, merkatu globalean diharduten enpresek ez daukatela euren jatorrizko lurraldeetako garapen

prozesuetan zertan kooperatu behar orain; beraien bulego zentralekin tokiko langileekin kontratatzean egiten dutena baino gehiago behintzat.

Estatuz azpiko eremuak beraz, fordismoarentzako oinarritzko baliabideen eta lan eskuaren edukiontzia izatetik, baliabide espezializatuen sorkuntzarako prozesuak jasotzen dituen espazioak izatera igaro ziren, eskualdeen arteko lehiakortasuna areagotu zen heinean. Izan ere, globalizazioarekin eta agenda neoliberalaren indartzearekin, eskualdeak, kostuen aldetik eraginkorrak izatera behartuta ikusi ziren. Ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean kalitatea, azkartasuna eta berrikuntza exijitzen zitzaaien bitartean (Brenner, 2004b). Areagotutako nazioarteko lehia horretan lurraldeen eginkizuna egiturazko aldaketa bat jaso zuen beraz. Fordismoaren garaian kapitala mugiezina zen; behintzat, nazioartean. Globalizazioarekin, kapitala mugitzeko gaitasuna areagotu zen modu nabarmenean; baina aurrerapen teknologikoek, lehiarako oinarritzko faktore bat izanda, geroz eta irisgarritasun gutxiago daukate. Horrela, lurraldeak aipatutako edukiontzia izatera atzean uzten dute eta baliabide espezializatuen, berrikuntzaren, kalitatearen eta efizientziaren sorkuntzan oinarritzera igarotzen dira (Zurbano, 2005). Modu honetan, espazio lokal eta erregionalak, zirkuitu ekonomiko globaletan integratu ziren.

Estatuz azpiko eremuen estrategietara jotzen badugu, keynesianismoak zuen goitik beherako ikuspegiarekin eta espazio estatalaren homogeneotasunaren ikuspegiarekin apurtzen da neurri handi batean. Izan ere, ekoizpen sistema malguak kudeatzeko gaitasuna estatuz azpiko eskaletara heltzen dira, eta esan bezala, lurraldeen bereizitasunak kontutan hartzen dira sistema global berria abantaila lehiakorrak lortzeko. Ezaugarri hauek jasotzen dituen eredu praktikoa bat, hurrengo kapituluaz aztertuko ditugun barruti industrialak edo espazio industrial berriak izan daitezke; espezializazio malguan oinarritutako tokiko garapenerako adierazpen praktikoa diren heinean (Brenner, 2004b).

Hala ere, badira keynesianismo espazialak erabilitako politika erregionaleko mekanismo batzuk ondoren mantendu direnak. Izan ere, 70eko hamarkadaren amaieratik eta betez ere, 80ko hamarkadatik aurrera, estatu neoliberalak eskualde atzeratuenetan atzerriko enpresak erakartzeko politikak aplikatu dituzte; keynesianismoak 60ko hamarkadatik aurrera egin zuen bezala. Bistan da, noski, politika hauen izaera ez dela guztiz berdina, keynesianismoak politika sozial birbanatzaileekin eta estatuaren esku-hartzearekin batera aplikatzen zituen bitartean, estatu neoliberalak

eskaintzaren aldetik jotzen baitu. Hau da, enpresentzako baldintza onuragarriak aplikatzen ditu. Hauek, zerbitzu publikoen pribatizazioa eta merkantilizazioa, merkatuen desarauketa edo langileen kostuak murriztea ahalbidetzen zuten pizgarriak izanik. Baina baita azpiegitura izaera duten pizgarriak ere. Izan ere, atzeratuagoak zeuden eskualdeetan ekintzailera eta, oro har, enpresak suspertzeko, garraio, komunikabide eta teknologia azpiegiturak finantzatu ziren. Hots, keynesianismoaren politika erregionalaren ezaugarri esanguratsuenetariko bat bezala. Are gehiago, erregulazio keynesiarrak estatu-eskalan zituen administraziorako eta metaketarako antzeko mekanismo eta estrategiak aplikatu ziren eskala lokaletan (Amin, 1998 eta Zurbano, 2005).

Berez, hau, Hausner-ek (1995) goitik beherako duten izaeragatik “inperatiboak” deitzen dituen bi eredu hauek, hazkundeari dagokionez logika komuna partekatzen dutelako eman zen. Logika honek, neurri politikoak edozein eskala eta lurraldean aplikatu daitezkeenaren ikusmoldeari erantzuten dio. Hau da, bai ikuspuntu keynesiarrak zein neoliberalak, ekonomia neoklasikoan oinarritzen dira edozein espazio izan ditzakeen elementu komunen bitartez arrakasta ekonomikoa neurtzeko.

Beste modu batera, bi ikuspuntuen logikan, norbanako arrazionala, mozkinen maximizazioa eta enpresa oinarritzko unitate ekonomiko bezala agertzen dira. Eta beraz, lurraldearen eta honen baitan dauden baliabide, aktore, interdependentzia, kultura eta abarren garrantzia ez dute kontutan hartzen. Horrela, eredu keynesiarrak zein neoliberalak ez ziren gai izan lurraldeek eskaintzen zuten baliabideetatik abiatuta, hazkunde auto-sostengatua aurrera eramaten; eskualdeetatik at zeuden baliabide eta enpresetan oinarritu baitziren euren helburua lortzeko (Amin, 1998). Hurrengo taulan, aurreko atalean fordismo-keynesiarrarekin egin dugun moduan, eskala ezberdinen zereginak eta hauen arteko erlazioak erakusten dira:

1.3. TAULA: Fordismo atlantikoaren krisia eta estatuaren konfigurazio eskalarraren ezegonkortzea

Erregulazio eskala	Ezaugarri nagusiak eta izaera instituzionala
Globala	Nazioarteko finantzen ezegonkortasuna areagotzen da 1971n Bretton Woodsekin apurtu eta gero; industrializatutako herrialde berrien lehiakortasuna AEBren hegemonia globala mehatxatzen dute eta lanaren banaketa internazional berria sortzeko laguntzen dute.
Global-estatu harremanak	Kapitalaren nazioarteratzea bizkortzen da eta eskaria kudeatzeko estrategia keynesiarrak eta politika makroekonomikoak ahultzen dira. Herrialdeen arazo makroekonomikoak nazioartera zabaltzen dira.
Estatu-eskala	ekoizpen fordistaren gainbeherarekin, desindustrializazioa areagotzen da eta beraz, desenplegu masiboa ematen da. Ondorioz, gobernu nazionalak krisi fiskalak jasaten dituzte, non hauek kudeatzeko interesen gaineko kontrola geroz eta txikiagoa den eta birbanaketarako barne gatazkak areagotzen diren.
Estatu-lokal harremanak	Garapen nazional eta global desorekatuaren formak antzematen dira. Hauek kudeatzeko birbanaketa espazialaren formak geroz eta ez eraginkorragoak dira; murrizpen fiskalak baliabide lokalak murrizten ditu eta gobernuen arteko gatazkak areagotzen dira.
Lokala	Krisi fiskalak areagotzen diren heinean, ongizate soziala ahultzen da. Bazterketa urbanoa eta polarizazio sozio-espaziala areagotzen dira.

Iturria: Brenner (2004b:163). Egileak itzulita.

1.3.5 Lehiakortasunaren estatu neoliberalaren eta estatu fordista-keynesiarraren arteko konparaketa:

Prozesu globalizatailearekin, II Mundu Gerratik zetorren ordenarekin apurtzen da. Eskarian oinarritutako ongizate edo *welfare* politiketarik, eskaintzan eta lanean oinarritutako *workfare* politiketara igarotzen da; atzetik ideologia neoliberala zegoelarik. Merkatuaren aldeko eta estatuaren esku-hartzearen kontrako apustua egiten da, eta, ondasunen, kapitalen eta informazioaren nazioarteko fluxuak areagotzen dira. Beraz, zaharkitua gelditzen den estatuaren erregulazioaren aurrean, estatuz gairik eskalak garrantzia hartzen dute geroz eta globalagoak diren fluxuak kudeatzeko. Ordura arte funtzionatu zuen erregulaziorako estatu-eskalak bera gairitzen dituen fluxu horiek behar bezala kudeatu ezin dituelarik.

Hala ere, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan estatuz azpiko eskalak ere indartzen dira. Izan ere, lehiakortasunean oinarritutako eredu berriak, espazio lokal eta erregionaletan berezko arazoak sortzen ditu, nazioarteko zirkuituetan barneratzen dituen heinean. Hots, orain, estatuz azpiko eremuak nazioarteko ekonomiaren nodoak dira; eta beraz, zentralki planifikatutako politika fordista-keynesiarrek, bere eraginkortasuna

galtzen dute estandarizatuak eta homogeneousak direlako. Eredu berrian, erantzunak eskala anitzen markoa kontuan izanik eman behar dira, eta beraz, eremu lokaletatik ere. Hurrengo taulak bi ereduaren arteko konparaketa erakusten digu, puntu garrantzitsuenak laburbilduz:

1.4. TAULA: Lehiakortasunaren estatu neoliberalaren eta estatu fordista-keynesiarren arteko konparaketa

	Estatu fordista-keynesiarra	Lehiakortasunaren estatu neoliberalera
Esku-hartzea	<i>Welfare</i>	<i>Workfare</i>
Oinarrizko erregulazio eskala	Estatu-eskala	Ez dago eskala menderatzailerik: - Estatuz gaindiko eskalak - Estatuz azpiko eskalak
Espazio lokal eta erregionalen egoera	Zentro-periferia eskema hierarkikoa estatuaren mugen barnean	Espazio lokal eta erregionalen arteko lehiakortasuna. Zentro ezberdinen arteko harreman komertzialak
Hazkundera eta honen desorekak arintzeko neurriak	Masa ekoizpen eta kontsumoan oinarritutako hazkunde ekonomikoa. Birbanaketa sozial eta espaziala.	Hazkundera lehiakortasunaren eta berrikuntzaren menpe dago. Desorekak merkatuaren esku uzten dira.
Eskaria/eskaintza- rekiko ikuspegia	Eskaria bultzatu. Enplegu, moneta eta politika fiskalen bitartez	Eskaintza bultzatu. Lan merkatuaren malgutasun politikak, komunikazio eta garraio azpiegiturak bultzatu enpresen lehiakortasun globala sustatzeko.
Politika erregionala	Zentralki planifikatua eta homogeneouskoa eskualde guztientzako	Tokian tokiko garapen prozesuak

Iturria: Egileak egina

1.4 Eskalen birformulazioa:

Ikusi dugunez, globalizazioarekin erregulazio ekonomikorako egitura berregituratu egin da. Erregulazio fordista-keynesiarren garaiko erregulazio eredua krisian sartu da eta erregulazio posfordista-neoliberalera nagusitu da, non oinarrizko eskala espazialen birformulazioa eman den. Beraz, garai fordista-keynesiarrean estatu-eskala baldin bazen estatuaren erregulazio ekonomiko, politiko eta soziala gidatzen zuena, globalizazioarekin lehentasun hori neurri batean galdu duela esan dezakegu; estatuz gaindiko eskalen mesedetan, baina baita ere estatuz azpikoen mesedetan. Hala ere, ildo

honetan ez dago ikuspuntu bateraturik. Izan ere, globalizazioarekin estatu-eskalak boterea galdu ez duela defendatzen duten autoreen, eta ikuspuntu globalista batetik, soilik estatuz gaindiko eskalen aldeko des-lurralteratze prozesua eman dela defendatzen duten autoreen arteko eztabaida agerikoa izan da.

Ikuspegi globalista batetik (Ruggie, 1993; Ohmae, 1995; Appadurai, 1996), estatuaren eta nazioarteko ekonomiaren arteko boterearen transmisioa “*suma cero*”-ko ikusmolde bati jarraituko luke. Hau da, estatuak euren mugen barneko jarduera ekonomikoak erregulatzeko duten boterea galtzean, fluxu globalen areagotzea dakar neurri berdinean. Eta, aldi berean, fluxu globalak areagotzen diren heinean, estatuen lurraldetasunaren garrantziaren gutxitzea dakar; eta hedaturaz, estatuaren gaitasuna bere mugen barneko jarduera ekonomikoak erregulatzeko.

Kontrako ikuspuntu batetik, kapitalismo globala garatzeko estatuen garrantzia aldarrikatzen dutenak egongo liriteke (Hirst eta Thompson, 1995). Estatistak, alegia. Ikuspuntu honetatik, estatuaren lurraldetasuna ez da galdu prozesu globalizatzailearekin eta estatu-eskalari lotuta jarraituko luke. Estatuak, erregulaziorako eskala estatikoak liriteke, eta interdependentzia global berrien aurrean politika sozioekonomiko nazional berriak garatu badituzte ere, ekonomia nazionalen gaineko kontrol subiranoa izaten jarraitzen dutela argudiatzen dute.

Ildo honetan, Brennerrek (1999a) hirugarren ikuspuntu bat barneratzen du eztabaidan, bir-lurraltertasunaren kontzeptuaren inguruan. Kasu honetan, ikuspuntu globalistatik erregulazio ekonomikorako estatu-eskalaren deszentralizazioaren ideia berreskuratuko luke, baina ez estatuaren zereginaren guztizko lausotze prozesu baten alde. Horrela, estatistek bezala, estatuen lurraldetasunaren garrantzia aitortzen du. Hala ere, ematen dion garrantzia ez litzateke globalizazio aurreko garaitetan bezalakoa. Ez genuke estatu-eskaleko instituzioetan edo bertatik bideratzen diren politiketan aurkituko, baizik eta eskalen birformulazio prozesuaren bitartez, estatuz azpiko eskaletan ere aurkituko genuke. Brennerrek (2004b) dio globalizazioak dakarren eraldaketa hauek lurraldetasunaren amaiera ez dakartzatela. Baizik eta, erregulazio eskala polimorfikoen aurrean gaudela, non lurraldetasuna eskala anitzetan birdefinitzen den; estatu-eskalaren lehentasunetik askatuta. Hurrengo taulan hiru ikuspuntuen ezaugarri nagusiak bildu dira:

1.5. TAULA: Lurraldetasuna ulertzeko hiru ikuspuntuak globalizazioan

	Globalistak	Estatistak	Bir-lurraldetasuna
Estatuaren lurraldetasuna	Des-lurraldetasuna	Lurraldetasuna	Bir-lurraldeetasuna
Oinarrizko eskala	Globala	Nazionala	Eskala anitzak
Gobernuen boterea	Desagertzen da globalizazioa areagotzen den heinean.	(Ber) Indartuta	Berregituratuta
Ondorioak	Estatuz gairdiko eskaletan ondasunen, kapitalen, informazioen, erlazioen eta abarren fluxuen zirkulazioa, espazio lokaletan deslurraldeeratze prozesuak burutzen dituzte.	Kapitalismo globalean estatuaren boterea beharrezkoa da. Estatuaren arteko bloke ekonomikoen garrantzia aldarrikatzen da.	Erregulazio eskala polimorfikoak. Lurraldetasuna eskala anitzetan birdefinitzen da; estatu-eskalaren lehentasunetik askatuta.

Iturria: Egileak egina.

Laburbiltzeko, lurraldetasuna ikusteko hiru ikuspegiaren aurrean geundeko. Estatistek, estatuak prozesu globalizatzailea hasi baino lehenagoko lurraldetasuna izaten jarraitzen duela defendatzen jarraitzen dute. Globalistek aldiz, globalizazioa deslurraldeeratze prozesu bat bezala ikusten dute, zeinean estatua erregulaziorako zeukan botere gehiena galtzen doan, estatu gairdiko eskalen mesedean. Eta azkenik, bir-lurraldeeratzearen aldeko ikuspegia dago. Ikuspegi honetatik, globalizazioak eragindako erregulazio eskalen birformulazioa defendatzen da. Baina eskala berri horiek, estatu gairdiko zein azpiko eskalak izango liriteke. Tesi honen garapenerako, azken ikuspuntu horretan kokatuko gara, hain zuzen ere, bere garapena abstraktuagoa izan arren, globalizazioaren errealitate konplexua interpretatzeko baliagarriagoa dela uste dugulako.

Ikuspegi honetatik idazten duten autoreek —besteren artean Neil Smith, David Harvey, Eric Swyngedow Neil Brenner etab.—, irakurketa marxista batetik abiatzen dira kapitalismoaren antolakuntzan izandako aldaketa espazialak azaltzen saiatzeko; batez ere, estatu-nazioaren inguruan funtzionatzen zuen erregulazio fordista-keynesiarrarekin hautsi ondoren. Autore hauentzako, kapitalak unibertsalizaziorako joeraren eta leku zehatzetan finkatzeko behararen arteko harreman kontraesankorra dauka. Joera kontraesankor hori, denborarekin, metaketa ahalbidetzen duten prozesuak

ematen diren eskala espazialak (bir)sortuz gauzatzen da. Orokorrean, eskala nagusiak globala, estatu-nazioarena, eskualdearena eta hiriarena direlarik. Izan ere, eskala hauek dira, orokorrean, kapitalak nolabaiteko koherentzia aurkitzen duen esparruak, bertan kokatzen diren eragile nagusien arteko adostasuna aurkitzen duelako bere proiektua gauzatzeko. Hau da, eskala, une jakin batean kapitalaren metaketa prozesuen koherentzia eta finkapena ematen den eremu geografikoa da (González, 2005)

Prozesu globalizatzailea hasi baino lehen, estatuek, diruaren erregulaziorako, merkataritza arautzeko, ongizatea hornitzeko eta espazioa kudeatzeko gaitasuna zuten heinean, kapitala lurralderatzeko gaitasuna zuten. Hala ere, estatuaren lurraldetasunaren izaera ez da beti berdina izan. Brennerrek (1999a) dionez, krisi garai bakoitzean kapitala berrantolatzen da hazkunde kapitalistaren garai berriari egokitzeko, eta beraz, kapitala kokatzen den eskala geografikoak ere berrantolatu behar dira; egitura eskalar berriak sortuz. Hala ere, prozesu globalizatzailea hasi zen arte emandako eskalen berrantolaketa ezberdinak estatuen mugen barnean ematen ziren nagusiki. Alabaina, XX. mendeko 70eko hamarkadatik aurrera emandako berrantolaketa eskalarra estatu-eskala deszentralizatu eta gainditu duten estatuz gaindiko zein azpiko eskalen indartzea ekarri du.

Ildo beretik, Harveyk (2014) bere *spatial fix* edo ainguraketa espazialaren kontzeptua erabiltzen du eraldaketa hauek azaltzeko. Autore britaniarrentzako, kapitalaren metaketa ziklo bakoitzak geografia propio bat eraikitzen du. Kolonialismoak bere geografia eraiki zuen, XX. mendeko hasierako hamarkadetan emandako finantzarizazioak bere geografia eraiki zuen, eta ondoren keynesianismoak eta neoliberalismoak beraien geografia propioak eraiki dituzte ere. Hau da kapitalismoaren fase bakoitzak, metaketa errazteko jarduera produktiboak modu espazial propio batean artikulatzen ditu. Modu honetan, keynesianismoan, metaketa prozesuan parte-hartzen duten parteen artean ematen ziren harremanen sarea estatuaren barne eta estatu-eskala oinarri izanik ematen baziren, neoliberalismoarekin, metaketarako beharrezkoak diren harreman ekonomikoak nazioartera zabaldu dira eta eskala anitzetan ematen dira, globalizazioa deritzon azkenengo ainguraketa espazialean.

Izan ere, egiturazko krisi baten aurrean, kapitalak ez ditu bere kontraesanak ebazten, baizik eta mugiarazten da eta beharrezkoak izango dituen lurralde ainguraketa berriak sortzen ditu. 70 - 80ko krisiaren ostean, kapitalak balio-kateak eta ekoizpenaren antolaketa birmoldatu zituen eta lotura berriak sortu zituen munduko lurraldeen artean.

Izan ere, kapitalismoa kontraesankorra da berez, eta, batetik, hedapenaren eta mugikortasunaren logikaren artean mugitzen da, eta, bestetik, hura metatzea ahalbidetuko duten azpiegiturak eraikitze finkatze-beharraren artean. Beste era batera esanda, nahiz eta kapitala idealki etengabe joango litzatekeen ugaltzea onuragarriagoa izango litzatekeen lekuetara (lan-kostu txikiagoa, banaketa-sareetarako sarbide hobe...); leku zehatzetan finkatu behar da, metatzen jarraitzeko aukera ematen dioten fabrikak, errepideak, portuak eta aireportuak eraikitze (González, 2005); eta lurraldeak berezkoak dituzten baliabide bereizgarriak erabiltzeko.

Horrenbestez, lanaren nazioarteko banaketa berri bat sortu zuen, non lurraldeak baliabide bereizgarrien kontrolean espezializatzen ziren. Batzuk finantza-fluxuen kontrolean espezializatu ziren, beste batzuk izaera ezberdinetako industrietan eta beste batzuk baliabide naturalen eta soberako lan-indarraren hornitzaile gisa gelditu zirelarik (Harvey, 2014); lurralde irabazle eta galtzaileak sorraraziz (Benko eta Lipietz, 2000).

Dena den, estatuz gaindiko eta azpiko eskaletan sartu baino lehen ulertu behar duguna zera da: Globalizazioarekin birformulatutako eskalak ez dira bata bestearen gainean kokatzen diren eskala linealak. Hots ez dira eskala finkoak eta bateraezinak. Izan ere, horrela ulertzekotan ez dugu globalizazioak lurralde eta eskala ezberdinetan duen eragina guztiz antzemango. Adibidez, hirietan edo hiri eskualdeetan, dinamika lokalak zein globalak eman daitezke aldi berean. Gainera, izaera aldakorra duen gertakarien aurrean gaude. Hau da, globalizazioarekin estatuz gaindiko eskalak nabarmendu diren bezala, espazio lokalen garrantzia ere handitu da erregulazio sozioekonomikorako duen garrantziagatik. Hala ere, honek ez du esan nahi betirako izango denik; kapituluan zehar esan dugun moduan, erregulazio eskalarra aldatzen joan delako. Horregatik, autore ezberdinek (Jessop, 2002; Brenner, 2004b eta 2009a) eskala-politika berriaren beharra sumatu dute; non eskalen izaera aldakorra aldarrikatzen duten. Eskalak, (ber)indartzen, ahultzen, sortzen eta desagertzen diren prozesu sozio-espazialak bezala ulertuta.

1.4.1 Estatuz gaindiko eskalak:

Estatuz gaindiko eskalak izango dira seguruenik globalizazioarekin jendartean eztabaida gehien okupatu dutenak. Edo behintzat, globalizazioaren testuinguruan zeresan gehien okupatzen dutenak. Izan ere, azkar lotzen dugu globalizazioa eta nazioarteko erakunde ekonomiko eta finantzarioak. Azpial honetan, hauei buruz hitz

egingo dugu, eta horretarako, lehenengo kapitalaren bir-eskalatzea aztertuko dugu, ondoren estatuak jarraitutako bir-eskalatze prozesua aztertzeko.

70eko hamarkadaren hasieran Bretton Woodsekin apurtzerakoan, kapital finantzario globalaren hazkunde azkarra eman zen. Eta kapitalaren mugikortasuna ere areagotu zen heinean, estatuek ezin izan zuten ordura arte egin zuten moduan behar bezala kudeatu (Brenner, 2004b). Kapitalaren birformulazioaren aurrean, erregulazio eskalak ere birformulatu dira. Eta beraz, hau gertatu bada, kapitalaren metaketa estrategia berri bat bezala ulertu behar da, non kapitalak eredu fordista-keynesiarretik eratorritako erregulazio sozial, ekonomiko eta politikoarekin hautsi duen (Swyngedouw, 1992).

Hau litzateke beraz, globalizazioarekin kapitalaren formulazio berriaren abiapuntua, hain zuzen ere. Estatz gaindiko eskaletan, kapitalaren birformulazioaren eraginez, hainbat forma berri antzeman ditzakegu. Besteak beste merkatu finantzarioen integrazio globala, estatz gaindiko bloke ekonomikoen formakuntza, atzerriko inbertsio zuzenaren hedapena edo enpresa transnazionalen arteko aliantza estrategikoak (Brenner, 2004b).

Kapitalaren birformulazioari jarraika estatua ere birformulatu da. Beraz, ezin da esan estatua —erregulaziorako erakundeen multzo gisa kontsideratua— desagertu denik. Hala ere, nazioarteratzearen bitartez, enpresek estatuen eragin eremua gainditzen dute eta beraz, hauek daukaten erregulaziorako ahalmena ere bai. Beraz, fordismo atlantikoko herrialdeek —Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundekoak (ELGA), hau dagoeneko sortuta baitzegoen— ekonomia keynesiarrak eskaintzen zituen lanabesak berregituratzen edo ordezkutzen hasi ziren. Estatuek beraz, ekonomia nazionalaren kontrola galtzen zuten aldi berean, enpresen internalizazioaren aldeko jarrera hartzen dute, ekonomia nazionalaren autonomia gehiago ahulduz (Jessop, 1993). Izan ere, estatu fordista-keynesiarren ondoren sortutako lehiakortasunaren estatu berriek, atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko politikak abian jarri dituzte; hots, kapital transnazionala erakartzeko (Cerny, 1995).

Estatuz gaindiko eskaletan, gobernu forma berriak sortu behar izan ziren kapital globala arautzeko. Hala ere, gobernu eredu berri honek ez zuen ordura arte ezagutzen zen estatuaren itxura hartu, eragile anitzez osatutako gobernantza ekonomikoarena baizik. Beraz, estatz gaindiko erregulazioa eragile ezberdinen artean aurrera eramaten da gaur egun. Adibidez, eskala kontinentaletan, Europar Batasuna, Ipar Amerikako

Merkataritza Libreko Ituna (NAFTA), Asiako Hego-ekialdeko Herrialdeen Elkarte (ASEAN) edo Mercosur bezalako estatuez osatutako bloke ekonomikoak; edo Nazioarteko Diru Funtza (NDF), Banku Mundiala (BM) edo Munduko Merkataritza Erakundea (MME) bezalako agentzia globalak.

Azken hauen kasuan, bai NDF eta BM, Bretton Woodsen sortutako instituzioak dira, eta beraz 70eko hamarkadan dagoeneko existitzen ziren. MMEk ere Muga Zergei eta Merkataritzari Buruzko Akordio Orokorraren (GATT) oinordeko agentzia izanik, alde zuzenetik existitzen zela ere kontsideratu dezakegu, behintzat merkatuen merkataritzari dagokionez. Hala ere, nabaria izan zen agenda neoliberalak indarra hartu zuenean, eta bere doktrina aplikatzen hasi zenean, agentzia hauen aldaketa ideologikoa.

Brennerrek (2004b:199) dioen moduan, agentzia hauek “Washingtoneko kontsentsuaren agente garrantzitsuak bihurtu ziren, zeinek diziplina fiskala, erregulazio ekonomikoaren narriadura, merkataritzaren liberalizazioa, lan merkatuaren maldatasuna, zerbitzu publikoen pribatizazioa eta mugarik gabeko atzerriko inbertsio zuzenaren sustapena bezalako politika neoliberalak zabaltzen saiatu zen”. Zurbanorentzat (2005), neoliberalismoarekin, geroz eta agerikoa zen ekonomiaren nazioarteratze prozesuaren aurrean erantzun instituzional bat ematea zaildu zen. Beraz, ekimen publikoak guztiz ezabatzen ez diren arren, aipatutako eragileek —eta, enpresa transnazionalak edo presio talde ezberdinak— lehentasuna hartu dute gobernantza ekonomikoko nazioarteko eremuan.

1.4.2 Estaturaz azpiko eskalak:

Estaturaz azpiko eskalaren lehentasuna agortzerakoan, kapitala metaketa ahalbidetuko dioten egitura sozio-espazial berriak eraikitzea behartuta ikusten da. Izan ere, kapitalaren berregituraketaren ondorioz, muga nazionalak gainditzeko erraztasuna areagotzen da. Eta beraz, estaturaz gaindiko egiturak behar zituen. Baina era berean, kapitalismo berria lurraldeetara lotuta egoten jarraitzen du, bertan kokatuta baitago langileek duten lan-indarra, azpiegiturak, bertakotuta dagoen jakintza teknologikoa, ekoizpen bitartekoak, ekoizpenaren antolaketa ereduak etab. Esan dezakegu beraz, kapitala ez dela lurraldeetatik askatu globalizazioarekin, baizik eta eskualde eta tokiko eremuek —orain, estaturaz azpiko eskalatuta nazioarteko fluxuetan barneratuta— eskaini ditzaketen abantaila lehiakorrak lortzeko berrantolatuta dela (Brenner, 2004b). Zentzu honetan, lurraldeen garapenerako eredu ezberdinek —espezializazio malguko barrutiak, berrikuntzan oinarritutako eredu ezberdinak, klusterrak, industria espazio berriak

etab.— kapitalak behar dituen abantaila lehiakorrak lortzeko baldintza espezifikoak eskaintzen dizkiote (Swyngedouw 1992).

Ildo honetan, globalizazioaren testuinguruan indartsu agertzen diren bi subjektu espazialen garrantzia azpimarratu behar da batez ere. Hiriena, eta hauen artean batez ere metropoliena —eta hiri globalena (Sassen, 1991)—; eta bestalde, eskualdeena (Zurbano, 2005). Are gehiago, autore batzuk, bi kategoria hauek bat egiten dute hiri-eskualdea deritzon analisi espazioaren bitartez (Scott, 2001a; Scott, 2001b). Hirien kasua bereziki garrantzitsua da bertan kokatzen direlako lanbide postfordista esanguratsuenak, eta globalizazioaren hedapenerako beharrezkoak direnak. Hala nola lepo zuriko langileak edo *white-collar worker*, zeintzuk batez ere sektore finantzarioetan lan egiten duten edo enpresentzako kudeaketa eta zuzendaritza zerbitzuak eskaintzen dituzten (Sassen, 1991 eta Brenner, 1999a). Ildo honetan, hiriek, hiri-eskualdeek eta batez ere hiri globalek duten aglomerazio izaera abantaila ezberdinak eskaintzen dizkio kapitalari bertan kokatzeko. Garraio kostuen txikitzea, antolaketa industrial malgua eta teknologien garapenerako daukaten erraztasuna besteren artean (Brenner, 1999a).

Estatuen ikuspuntutik, Jessopek (2002) azaltzen duen moduan, 1970eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, eta batez ere 1980ko hamarkadatik aurrera, lehiakortasun globala estatuen helburua bihurtu da. Horretarako, atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko politika erakargarriak aplikatu dituzte euren mugen barnean (Cerny, 1995). Hala ere, honetarako eskumena estatuz azpiko instituzio lokal eta erregionalei transmititu diete; hauek, estatuz azpiko ekonomiaren garapena sustatzeko hobeto kokatuta daudelako (Brenner, 2004b). Ildo honetan Europar Batasuneko eskualdeetan, eskala erregional eta lokaleko erregulaziorako instituzioak sortzen ari dira; neurri handi batean eskualdeek daukaten abantaila propioak garatzeko asmoarekin, eta horrela lehiakortasuna lortzeko merkatu globaletan (Brenner, 1999a). Izan ere, globalizazioarekin enpresen arteko lehia areagotu bada, lurraldeen arteko lehia ere areagotu da. Brenner eta Wachsmuth-rentzat (2012) eskualdeek bizi duten gaur egungo egoera “lehiatu edo hil” leloarekin azaldu daitekelarik. Eta kasu honetan, estatuz gaindiko eskaletan gertatu den moduan, gobernatze eredia eragile anitzetan oinarritutako tokiko gobernantza eredia izatera igaro da neurri handi batean. Orotara maila anitzeko gobernantza eredia emanez.

Geroz eta argiago geratzen da beraz, espazio lokal eta erregionalek gaur egungo testuinguru ekonomikoan daukaten garrantzia. Zurbanok (2005) espazio lokal eta

erregionalek fordismoaren osteko motor ekonomikoak direla dio. Ikusi dugu hala ere nola 80ko hamarkadan estatu neoliberalak espazio lokal eta erregionalak kudeatzeko orduan, keynesianismotik oinordetutako estrategia eta mekanismo batzuk aplikatu zituztela. Hauen arrakasta ezagatik bultzatuta, 80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hamarkadaren hasieran deszentralizazio prozesuak ematen hasi ziren. Ondorioz, agenda neoliberalaren politika desarautzaileak eta lurraldeen arteko lehiakortasunaren hazkundera estatuen garapen desorekatua ekarri dute. Une honetan, hurrengo kapituluan aztertuko ditugun tokiko garapen prozesuetara heltzen gara. Izan ere, eta nahiz eta tokiko garapen eredu bakoitzak ezaugarri ezberdinetan arreta jartzen duen, oro har, tokiko jendartearen bizi kalitatea hobetzera eta integrazio sozioekonomikoa lortzera bideratutako prozesuak dira; lurraldeetatik bertatik abiatuta daudenak.

Bukatzeko, bada beste arrazoi bat estatuz azpiko eremuen garrantzia aitortzeko gaur egun; tesi honen gaiarekin guztiz bat datorrena. Izan ere, gure ustez, kapitalismoak eta globalizazio neoliberalak pertsonen bizitzetan sortzen dituzten arazoan aurrean, eremu hauetan erantzun egingarriak garatzen dituzten eguneroko praktika eraldatzaileak sortu daitezke. Hots, kapitalaren logika jarraitu gabe, lurraldeetan pertsona guztientzako lan eta bizitzeko baldintza duinak ahalbidetu dezaketen praktikak bertan gauzatu daitezkeela, alegia. Pertsonak ez direlako kapitala bezain mugikorrak, eta praktika eraldatzaileak pertsonen inguruan sortzen diren heinean, lurraldeek garrantzi handiagoa hartzen dute. Honek ez du esan nahi dena den, egitasmo eraldatzaileak eskalatu ezin direnik; eskalatu daitezke, eta are gehiago, eskalatu behar dira kapitalaren menpeko eskala anitzeko egitura hori eraldatzeko; eta herri-boterea berreskuratzeko.

2. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENA

2.1 Lurraldearen agerpena:

Globalizazioaren testuinguruan, estatuz azpiko eremu lokal eta erregionalen, eta hauetan ardazten diren prozesu ekonomikoen garrantzia indartu eta aberastu dituzten ekarpenak areagotzen joan dira 80ko hamarkadatik. Izan ere, eredu keynesiarraren bertikaltasunetik eta edozein lurraldean aplikatzen ziren garapenerako politika homogeneoetatik askatuta, eskualdeek eta tokiko eremuek, euren garapen ekonomiko, sozial eta politiko propiorako estrategiak abian jartzen hasten dira. Testuinguru berria da hau, ezin baitira aurretik aurrera eramandako estrategia berdinak erreproduzitu. Estatuaren birbanaketa espazialerako ahalmena murriztu delako, estatu-eskala birkonfiguratu delako, globalizazioaren eraginez enpresek baldintza hoberenak eskaintzen dizkieten lurraldeak bilatzen dituztelako eta estatuz azpiko lurralde bakoitzaren egoera ezberdina delako.

Hau da, hazkundera lurralde konkretuetan polarizatzen da, eskualdeen eta tokiko eremuen arteko disparekotasunak sorraraziz. Keynesianismo espazialak, politika birbanatzaileen bitartez, lurraldeen arteko desoreka hauek desagerrarazteko helburua zuen bitartean, globalizazioaren testuinguruan eta ongizate estatuaren krisiaren ondorioz, tokiko garapenaren ikuspegia nagusitu da, non lurraldeen paper proaktiboago

batetik abiatzen den, lurralde bakoitzak bere egoeraren hobekuntza bilatzeko (Zurbano et. al., 2018).

Gauzak horrela, estatuz azpiko erregulazio eskalek lurraldeetan garapen estrategiak aurrera eramateko duten gaitasuna areagotu duen deszentralizazio prozesu orokorra eman da. Eta, lurraldeetatik abiatzen diren estrategiak izanik, lurralde bakoitzaren behar eta berezitasunei hobeto egokitzeko aukera erakusten dute. Horrenbestez, lurraldeetan sortzen diren garapen ereduen izaera, ezberdina izango da lurralde batetik bestera. Hauen artean, besteak beste, atzerriko inbertsio zuzena erakartzea helburu duten ereduak; edo estatuz azpiko espazioak eskaintzen dituzten abantaila lehiakorrak aktibatzea bilatzen duten ereduak; edo lurraldeetan errotzen den ezagutzaz baliatuz garapena lortzea bilatzen duten ereduak; edo garapena lortzeko tokiko balio historiko eta kulturei zentralitate handiagoa ematen dizkieten beste ereduak; edo globalizazio neoliberalak areagotzen dituen ezberdintasun sozialak gainditu eta bestelako globalizazio bat lurraldeetan ardaztu daitekeela defendatzen duten ereduak etab. egongo lirarteke.

Dena den, kapitulu honen funtsean sartu baino lehen, erabilitako terminologiaren inguruko azalpen bat interesgarria izan daiteke une honetan. Izan ere, tokiko garapenaren literaturari erreparatzen badiogu, erraz konturatuko gara horren inguruan hitz egiten denean, lurralde garapena, garapen erregionala edo tokiko garapena bezalako beste kontzeptuak maiz agertzen direla. Eta nahiz eta kontzeptu bakoitzak bere identitatea aldarrikatzen duen, oro har, hiru termino hauek, lurraldea, erregioa edo eskualdea eta tokikoa edo lokala, garapena begiratzeko edo aztertzeke erabiltzen dugun eskalari egiten diote erreferentzia. Lurralde garapena, aipatutako hiru eskaletatik zabalena litzateke. Bertan, lurralde konkretu batean aurrera eramandako garapen estrategiak barneratuko genituzke. Hortaz, lurralde garapena, eskala geografiko bati — mundua, kontinente bat, herrialde bat, eskualde bat, udalerrri bat eta baita azken hau baino eremu txikiagoei— erreferentzia egin diezaioke (Boisier, 1999a). Nahiz eta, oro har, estatua baino eskala geografiko txikiago bati erreferentzia egiteko erabilpena nagusiagoa den.

Eskualde garapenera edo tokiko garapenera mugitzen bagara, bi eskala hauen arteko eztabaida luzera helduko ginatke zeinean ezberdintasunak ez dauden horren argi. Sena erabiliz, eskualde garapena, tokikoa baino handiagoa den eremu geografiko bati erreferentzia egingo liokela ondorioztatu genezakeen. Baina bestalde, lokala edo

tokikoa izatea, eremu zabalago batekiko erlatiboa da. Hots, tokikoa edo erregionala dena zentzua dauka kanpoko eremu zabalago batetik aztertzen den heinean. Horrela, adibidez, eskualde bat eremu lokala izango da estatuaren ikuspuntutik begiratzen badiogu; baina aldi berean, udalerrri bat lokala izan daiteke eskualdetik begiratzen badiogu. Izaera funtzionalari begiratzen badiogu, eremu lokal batean, lurralde horren kultura, ohitura eta harreman inter-pertsonalak garrantzi eta gertutasun handiagoa izango dute. Aldiz, eskualdea bezalako eskala zabalago batek, eraikuntza administratibo-instituzional garrantzitsuagoa izan dezake, eremu geografiko zabalago batean kokatzen den heinean. Hala ere, modu honetan ere muga ez da guztiz argi gelditzen. Adibidez, identitate kulturala elkarbanatzen duten udalerrien multzo bat espazio lokal bat baino zabalagoa dela ondorioztatu dezakegu, baina aldi berean, eskala horretan komuneko instituzio formalik ez izatea gertatu daiteke.

Tesi honen marko teorikoaren eraikuntzarako beraz, modu esplizituan zehazten ez bada, edo adibide konkretuetara jotzen ez bada, oro har sinonimotzat hartuko ditugu. Hala ere, nahasteak saihesteko, tokiko garapena terminoa hobetsi dugu lurralde garapena, garapen erregionala edo eskualde garapena bezalako terminoen gainetik. Aldi berean, eskualde terminoa hobetsi dugu estatuz azpiko espazio formal konkretuei erreferentzia egiteko; eta batez ere lurraldea erabiliko da estatuz azpiko espazio sozialei erreferentzia egiteko. Ildo honetan, terminologiaren aldetik garrantzitsua den bereizketa bat sortzen da. Izan ere, geografia ekonomikoaren inguruko literaturari erreparatzen badiogu, “espazioa” baliabideen eta metaketarako faktoreen edukiontzi bat baino gehiago kontsideratzen denean, eta bertan ematen diren harreman ekonomikoak, sozialak, politikoak, kulturalak instituzionalak etab. analisisian barneratzen direnean, “lurraldearen” terminoagatik ordezkaturia izan ohi da⁵. Hau da, lurraldea harreman ugarien interkonexio dentsoa ematen den espazioa bezala kontsideratu genezake. Eta harreman hauek ekonomikoak, sozialak, politikoak etab. izan daitezke eta aldi berean eskala anitzetan eman.

⁵ Antzeko zerbait gertatu daiteke hiria eta urbanoa bezala ulertzen dugunaren artean. Henri Lefebvre filosofo, geografo eta soziologo marxistak idatzitako *Le droit à la ville* edo hirirako eskudibea liburuan, hiria bere morfologiagatik definituta dagoen espazioa bezala definitzen du. Hau da, oraindaldian dagoen espazio entitate ukigarri bat bezala. Aldiz, Lefebvrek, urbanoa dena, hiriaren funtza bezala ikusten du; herritarrok eraikitakoa. Hots, urbanoa elementu ukiezin gisa definitzen du, non botere harremanak emateaz gain, botere harreman horiek eraldaketzeko potentzialtasun handia duten esperientziak ematen diren (Lefebvre, 2017).

Bestalde, kapitulu honen edukiaren aldetik, tokiko garapenaren gaineko ikuspegiak, horretan eragiten duten ezaugarriak eta eredu ezberdinak jorratuko ditugu. Zentzu honetan, aipagarria da tokiko garapenaren marko teoriko bat osatzerakoan ohikoak direla teoria, ikuspegi eta elementu ezberdinen arteko harremanak. Eta beraz, atal batean azalduakoa beste atal batean errepikatu daitekeela. Hau, adibidez, eredu ezberdinak aztertzen ditugunean antzemango dugu, non lurraldeak eskaintzen dituen abantaileri bueltatuko garen eredu ezberdinak azaltzeko. Jakina, ez dugula behin azalduakoa bitan errepikatuko, baina garrantzitsua da hau emen azpimarratzea ondoren nahasketak ekiditeko.

2.1.1 Tokiko garapenari lehenengo hurbilketa:

Antzeman dezakegunez, tokiko garapenerako eredu hauek ez dute teoria edo ikuspegi bakarra jarraitzen. Baizik eta autore eta ikuspuntu ezberdinek egindako hurbilketen multzoa osatzen duen corpus teoriko zabal baten parte dira. Eta, ikusiko dugun moduan, ereduaren arteko ezberdintasunak sakonak izan daitezkeen arren, guztiek bat egiten dute espazio ekonomiko lokal eta erregionala lehentasunezko kategoria analitiko bezala kontsideratzerakoan (Zurbano, 2005). Ildo honetan, Boisierrek (2009: 24), tokiko garapena “teoriarik gabeko praktika” dela dio. Hau da, tokiko garapenaren inguruan eraikitako teoria ezberdinak, neurri handi batean, esperientzia ugarietatik eratorritako interpretazio anitzak dira. Eta beraz, ezin dugu tokiko garapena teoria itxi bat bezala kontsideratu, baizik eta esan dugun moduan, esperientzia praktikoetan oinarritzen den, eta beraz, etengabeko eraikuntzan dagoen markoa bezala.

Dena den, bere hastapenetan jatorrizko hiru logika aurkitu daitezke. Lehenengoa, politika erregional tradizionalaren aurrean, erregulazio horizontaleko adierazpen logikoari erreferentzia egiten diona. Honek, goitik inposatutako neurrien aurrean, lurraldeetan planifikatu eta aurrera eramandako prozesuei egiten die erreferentzia. Bigarrena, eta batez ere Europan eman dena, krisi produktibo lokal edo makroekonomikoari eta estatuz gairako doikuntza ezberdinei, lurraldeek emandako erantzuna litzateke. Eta azkenik, globalizazioak dakarren global-tokiko dialektikaren ondorioa den logika egongo litzateke (Boisier, 2009).

Horregatik guztiagatik, tokiko garapenaren inguruan definizio bateratu bat ematea ez da erreza izan. Horretan aritu den Vázquez-Barquerok (1988:129), tokiko garapena lurralde bateko biztanleriaren bizi maila hobetzera bideratuta dagoen egiturazko aldaketa bat bezala definitzen du; non hiru dimentsio identifikatzen dituen.

Lehenengo dimentsioa, dimentsio ekonomikoa litzateke. Bertan, ekintzaile lokalek, tokiko ekoizpen faktoreak antolatzeko duten gaitasuna erabiltzen dute merkatuetan lehiakorrak izateko. Bigarrena, dimentsio sozio-kulturala litzateke, non lurralde batek dituen balio eta instituzio sozialak garapenerako oinarri bihurtzen diren. Eta azkenik, dimentsio politiko-administratiboa egongo litzateke, zeinek tokiko garapenerako politikak aurrera eramateko ingurune egokia sortu behar duen; lurraldea kanpoko interferentzietatik ahalik eta gehien babestuz.

Antzeko hurbilketa egiten dute Pike et. al.-ek (2006). Euren ustez, hasieran bakarrik helburu ekonomikoei begiratzen zitzairen bitartean, geroz eta arduraz gehiago dago tokiko jendarteren bizi kalitatearen inguruan. Hots, garapeneraren ikuspuntu zabalagoarekin. Eta nahiz eta tokiko garapeneraren korrante ezberdinek tokiko enpresa ehunaren inguruko kezka handiagoa edo txikiagoa adierazten duten, lurraldeetan aurkitu ditzakegun beste aldagaiak ere kontutan hartzen dira; Vázquez-Barquerok (1988) aipatzen zuen egiturazko aldaketa eman dadin, soilik ikuspegi ekonomikoan arreta jartzen duten ereduetatik garapeneraren ikuspegi integrala jorratzen duten ereduera igaro behar delako. Hau da, tokiko garapenak tokiko egitura produktiboari begiratzeaz gain, ekintzailetasuna, lehiakortasuna eta enpleguan eraldaketak sustatu eta tokiko jendartea, kultura, instituzioak eta ingurumenaren inguruko kezkak jaso behar ditu ere (Zurbano et. al., 2018).

Tokiko garapena definitzeko gure ahaleginarekin jarraituz, eta gai honen inguruan lan egiten duten nazioarteko eta estatuko organismo ezberdinetara jotzen badugu, hurrengo definizio hauek lortu ditzakegu:

2. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENA

2.1. TAULA: Tokiko garapenaren⁶ inguruko organismo ezberdinen definizioak

Organismoa	Definizioa	Web-orria
Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE)	“Tokiko Garapen Ekonomikoaren” promozioa (TGE; DEL gaztelaniaz) toki baten abantaila konparatiboak eta ezaugarri propioak sustatzea ahalbidetzen du enplegua sortu eta ekonomia lokala indartzeko xedearekin. (...) enplegu duina eta behar lokalak erantzuten ahalbidetuko duten politikak sustatzeko, estrategia parte-hartzaile eta integratuen diseinua beharrezkoa da, maila nazional eta lokaleko instituzioen sendotzearen bitartez.	www.ilo.org
CEPAL	Lurralde garapena inguruaren eraikuntza sozialeko prozesu bat bezala ulertzen da; ezaugarri geofisikoengatik, aktore ezberdinen ekimen indibidual eta kolektiboengatik eta lurraldeen indar ekonomiko, teknologiko, soziopolitiko, kultural eta ingurumenarengatik bultzatuta dagoena.	www.cepal.org
Europar Batasuna	Politika erregionalaren xedea, Europar Batasuneko eskualde eta hirietan hazkunde ekonomikoa sustatzea eta bizi kalitatea hobetzea da, inbertsio estrategikoen bitartez. Gainera, elkartasun mekanismo bat da laguntza garapen maila gutxiagoko eskualdeetara orientatzen duelako.	www.europa.eu
Europako Batzordea	“Tokiko Jendarteen kontura dagoen Tokiko Garapena” (TJTG; DLCL gaztelaniaz) garapen beherrakorrari buelta ematen dion ikuspegia da. TJTGaren markoan tokiko biztanleriak garapen integratuko estrategia diseinatu eta aplikatzen duen elkarte lokal bat sortzen du. Estrategiaren diseinua ez da tokiko arazoak konpontzera mugatzen, baizik eta alderdi sozial, ekonomiko eta ingurumenean oinarritzen da.	www.ec.europa.eu
REDEL (Tokiko garapenaren aldeko entitateen sarea)	Tokiko garapen ekonomikorako politikak 80eko hamarkadaren erdialdean sortzen dira administrazio lokalen partetik garaiko krisiak biztanlerian eta enpresetan sortutako eraginei erantzun moduan. Administrazio eskudunen partetik krisi hauen eragin lokalen berezitasunei erantzuteko ezintasunari lotuta, egitura egonkorretan izandako instituzionalizazioak, gaur egun tokiko garapen ekonomikoa osatzen duten zerbitzuen multzoa aurrera eramateko eskumen lokal espezifikoa barneratuko dituen marko ekarri du.	www.asociacionredel.com
Garapen Agentzien Euskal Elkarteak	Tokiko eta eskualdeko garapen agentziak erakunde publikoak dira. Udalek sortutako tresnak dira enplegua sortzeko, enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko asmoz lurraldean esku-hartzen duten eragileekin lankidetzan.	www.garapen.net

Iturria: Egileak moldatuta organismoen web-orrialdeetatik; European Commission (2014:10); REDEL (2014) eta Garapen (2017).

⁶ Nazioarteko Lan Erakundeak “tokiko garapen ekonomikoa” erabiltzen du. CEPAL-ek “lurralde garapena”. Europar Batasuna “politika erregionala”. Europako Batzordea “tokiko jendarteen kontura dagoen tokiko garapena”. Garapenaren kasuan “tokiko garapen agentzien” definitiotik eratorrita dago.

Ikusi dezakegun moduan, tokiko garapenari ematen zaion definizio bakoitzak, honen alderdi ezberdinak indartzen saiatzen dira. Tesi honetarako, hasten ari garen kapitulu honetan zehar aztertuko ditugun tokiko garapenaren elementuetan oinarrituta, hurrengo definizioa proposatzen dugu: tokiko garapena, ikuspegi eta dimentsio anitzak barneratzen dituen lurraldea garatzeko eredia da; lurraldeetan bertan sortzen diren estrategiak aurrera eramaten dituen, eta lurraldean dauden baliabideez baliatzen dena ahal duen neurrian. Helburu gisa, tokiko jendartearen bizi kalitatea hobetzera bideratuta dauden estrategia horizontalak bultzatzen ditu. Horretarako, tokiko dimentsio ekonomikoan, soziokulturalean eta politiko-administratiboan egiturazko eraldaketa suposatzen duten estrategiak aurrera eramaten dira; lurralde erregional edo lokal bakoitzak bere berezitasunak dituela kontutan hartuz. Eta beraz, estrategia bakoitza, errealitate bakoitzaren beharrei, eskakizunei eta errekurtsioei egokitzen da.

2.1.2 Lurraldea garapenerako eragile bezala:

Lurraldearen inguruko analisi neoklasiko zein keynesiarrek pertsonak, ekoizpen faktoreak eta ondasun eta zerbitzuak biltzen dituen espazio homogeen eta mugatu bati egiten diote erreferentzia. Hau da, ekoizpen faktoreen edukiontzi bati. Eta beraz, lurraldeak bereizten dituen ezaugarri bakarra, hauek dituzten ekoizpen faktoreen kopurua dela onartzen dute. Modu honetan, enpresek, analisi unitate bezala kontsideratuta, abantaila lehiakor gehiago edo gutxiago lortzen dituzte lurralde batetik bestera; eta beraz, euren kokapena irizpide honen arabera erabakitzen dute. Interpretazio hauek, ez dituzte lurraldeetan ematen diren prozesu eta harreman sozialak kontutan hartzen, eta hedaduraz, lurraldeetan ematen diren interakzio ezberdinak, antolaketa ekonomiko eta sozialak, berrikuntza sistemak, eztabaidak, gatazkak, sorkuntza prozesuak, tradizio industrialak etab. ezta ere. Nahiz eta hauek alboratzeak, eta beraz ekonomian eragina ez dutela suposatzeak, jarrera ausartegia ematen duen.

Neoklasiko eta keynesiarren ikuspegia gaindituz, espazioaren irakurketa marxistek, erlazio sozialak barneratzen dituzte euren azterketetan. Hala ere, hauen analisisien zentralitatea kapitalaren dinamika espazialean kokatzen dute. Eta beraz, espazioa, kapitala eta lanaren arteko dialektikaren ondorioz definitzen da. Ildo honetan, Lipietzek (1979), kapitalaren nazioarteratze prozesuak duen metaketa efektuak lurraldeetan eraldaketak sortu dituela dio, hauek garapenerako duten gaitasuna aldaraziz. Izan ere, kapitala eta lanaren arteko harremanek lurraldeen antolaketa baldintzatzen dute; lurraldeetan ematen diren harreman sozialak baldintzatuz. Hau da,

nazioarteko eskalan dauden enpresa transnazionalak, estatu mailan dauden oligopolioak eta eskualde eta hiri mailan dauden talde ekonomiko erregional eta urbanoak dira lurralde antolaketa, eta hedaduraz, harreman sozialak baldintzatzen dituztenak; eta hauek botere harreman asimetrikoak dituzte.

80ko hamarkadatik hedatzen joan den garapen endogenoaren ikuspegiak aldiz, lurraldea eraldaketa sozialerako elementu bat bezala ikusten du. Garapen endogenoaren ildoan gehien lan egin duen autoreetako batek, Vazquez-Barquerok (2007) esaten duen moduan, berezko kultura eta instituzioak dituen lurralde batek, merkatuen integrazioak sortzen dituen arazo eta erronkei tokiko eragileen aldetik erantzuna emateko aukera dauka; aurrezkia eta inbertsioa kudeatzeko duen gaitasunari esker. Izan ere, garapen endogenoa, bertoko baliabideak eta indarrak aktibatuz, lurraldea produktiboki, teknologikoki, sozialki, kulturalki eta politikoki eraldatzeko prozesua bezala kontsideratzen du.

Ikusi dezakegun moduan, lurraldeari ematen zaion garrantzia, garapena bera ikusteko modu ezberdinekin bat egiten du. Horrela, tokiko garapenak edaten duen iturri teoriko bakoitzetik, lurraldeak ulertzeko ikuspuntu bat eransten dio. Lehenengo atal honetan, iturri horien gainetik hegan egingo dugu, ikuspegi bakoitzak lurraldeari ematen dion garrantzia ulertu ahal izateko.

2.1.2.1 Lurraldea eta kanpo-eragin ekonomikoak:

Garapenaren ikuspegi ekonomiko batetik, lurralde batek bertan kokatzen diren enpresei abantailak eskaini diezaieke, hauek enpresa txiki edo ertainak izanik ere. Zentzu honetan, Alfred Marshall (1920) ekonomialari britaniarrak, unitate produktibo batean —enpresa bakar batean— kontzentraturiko ekoizpen handiaren bitartez lortu daitezkeen eskalako abantailak, eskualde batean kontzentraturiko enpresa txikiek ere lortu dezaketela frogatu zuen. Enpresa bakoitza ekoizpen prozesuaren fase batean espezializatuta baldin badago, eta euren hornikuntzak merkatu lokal horretatik eskuratzen baditu, enpresa handiek lortzen dituzten eskala ekonomiak lortu ditzaketelako hain zuzen ere (Becattini, 1991 eta 2002; Gatto eta Quintar, 1992 eta Amin, 2000). Gainera, esan dugun moduan, hornikuntzak merkatu lokaletatik lortzen badira, ekonomia lokala eta bere egitura produktiboa hazi egingo dira bere osotasunean horren ondorioz (Zurbano et. al., 2018).

Marshallek ildo honetan garatutako ideiak, aurrerago ikusiko ditugun barruti industrialen ereduari aplikatu ziren batez ere. Izan ere, Becattinik (1979), 70eko hamarkadan arrakasta lortu zuten Italiako eskualde batzuen ekoizpen egituraren analisia egin ostean, Marshallen industria barrutiaren kontzeptua berreskuratu zuen. Analisi honetan, Becattinik lurralde hauetan kontzentratutako enpresa txiki eta ertainek osatzen zuten eredu industrialari begiratuta, hazkunderako zuten gaitasunari eragiten ziela ondorioztatu zuen. Lurralde batean kontzentratutako enpresek, euren hurbiltasun geografikoagatik, enpresa-abantailak edo kanpo-eragin ekonomikoak lortu dezaketela hain zuzen ere. Hau da, enpresak berak sortzen ez dituen, eta beraz enpresetatik kanpokoak diren, baina enpresen kontzentrazio horretan egoteagatik lortzen diren abantaila ekonomikoak sortu daitezke. Enpresen kontzentrazio hauei, aglomerazio ekonomiak deritzogu.

Gaur egun, aglomerazio ekonomiak batez ere hiri handietan, metropolietan eta hiri-eskualdeetan kokatzen dira. Lurralde hauek dira gainera, metaketarako duten gaitasunagatik, atzerriko inbertsio zuzenaren zatirik handiena erakartzen dutenak. Hala ere, bi azpitalde antzemango ditugu aglomerazioen izaera zentripetua azaltzeko. Hauek, lokalizazio ekonomiak eta urbanizazio ekonomiak dira hain zuzen ere.

Lokalizazio ekonomiek, geografia ekonomikoaren ildoan azterketa enpiriko ezberdinak egindakoan aurkitutako joera konkretu bati erreferentzia egiten diote. Ikerketa ezberdinek, dispertsiorantz baino, jarduera industrialak kontzentrazio geografikorantz jotzen duela erakusten dute. Gainera, lurraldeek jarduera kopuru mugatuetan espezializatzen direla erakusten dute. Hau da, jarduera industrial batean, edo gutxi batzuetan espezializatzen direla (Callejón eta Costa, 1996). Horrela lurraldeak sektore ekonomiko lider baten edo gutxi batzuen babespean garatzen dira.

Lokalizazio ekonomietatik kanpo-eraginak lortzen dira. Hauek, hasiera batean Marshallek (1920) egindako analisisan garatzen dira, non lokalizazio ekonomietatik eratorritako hiru oinarritzko kanpo-eragin antzematen ditu:

- Batetik, lurraldean sektore ekonomiko berdinean jarduten duten enpresek eskuragarri duten lan merkatu espezializatuaren garapena legoke. Horrela lurraldean lider den sektorean espezializatutako lan eskuaren eskaintza zabala dagoen bitartean, langileek ere segurtasun handiagoa daukate ez daudelako sektorean espezializatua dagoen enpresa bakar baten menpe, baizik eta tokiko ehun produktiboaren zatirik handiena sektore horretan espezializatuta dago.

- Bestetik, jarduera nagusiarekin lotutako ezagutzaren fluxuak errazago hedatzen dira enpresa batetik bestera. Ezagutzak, izaera metakorra dauka, eta denboraren poderioz lurraldean *know-how* propioa sortzeko aukera eskaintzen du.
- Azkenik, sektore liderrarekiko osagarriak diren beste jardueren zabalpena emango litzateke. Hauek, jarduera nagusiari hornikuntzak edo zerbitzuak eskainiko dizkiote; eta, gertutasunagatik, eta enpresen artean eman daitezkeen elkarlanagatik, hauetako kostu batzuk murriztu daitezke.

Marshallen ekarpena aglomerazioak eskaini ditzakeen kanpo-eraginaren inguruko abiapuntua kontsideratzen bada ere, ez da gaur egun arte garatu den ikuspuntu bakarra. Marshallen kanpo-eraginei, lurraldeak berak berezkoak dituen ezaugarriak (baliabide naturalak, garapen instituzionala, kultura, irisgarritasuna etab.) edo kapital fisiko eta mugiezina gehitu behar zaizkio (Callejón eta Costa, 1996). Horrez gain kanpo-eraginaren esparruan garatu diren beste ikuspuntu batzuk kontutan hartu behar dira. Glaeser et. al.-ek (1992) kanpo-eraginaren inguruan hiru multzo bereizten dituzte. Lehenengoa, Marshall bera garatzen hasi zena, eta gerora Kenneth Arrow eta Paul Romer ekonomialariek osatu zuten MAR (Marshall, Arrow, Romer) eredua litzateke. Hauek, oro har, industria barneko kanpo-eraginak aztertu zituzten. Hots, lokalizazioarekin zerikusia zutenak.

Antzematen duten bigarren kanpo-eragin mota, Michael Porter-ek garatutakoa litzateke. Honek industria barneko kanpo-eraginak aztertzen ditu merkatu lehiakorretan. Izan ere, Porterrentzat, merkatu lokala geroz eta lehiakorragoa izan, sektorearen hazkundera gehiago estimulatuko da (Muñiz, 1998).

Azkenik, Jane Jacobs ekonomialari estatubatuarraren ekarpena bereizi zuten. Kasu honetan, Jacobsek, industriaren arteko kanpo-eraginetan arreta jarri zuen. Hots, lurralde bateko egitura produktiboa sektore batean espezializatu ordez, ekoizpen jarduera dibertsifikatuak garatzean sortzen diren kanpo-eraginei erreparatu zion. Eta hauek dira, hain zuzen ere, aglomerazioaren inguruko bigarren multzo handia. Urbanizazio ekonomia, alegia.

Urbanizazio ekonomiek, jarduera ezberdinetatik eratorritako informazio fluxuek enpresen efizientziaren gaineko efektu positiboak egiten diete erreferentzia (Callejón eta Costa, 1996). Izan ere, sektore dibertsifikatuen aglomerazioak —orokorrean hirietan edo hiri-eskualdeetan produktibitatearen hazkunde baten ondorioz ematen dena— sortzen duen ezagutza, sektore ezberdinen arteko gurutzaketaren ondorioz ematen da. Hau da, Jacobsen iritziz, dibertsifikazioak hazkundera estimulatzen du. Hala ere, zaila da

Jacobsek proposatzen dituen kanpo-eraginak antzematea, ez baita erreza sektore ekonomikoen aniztasunagatik sortzen diren abantailak bakantzea analisi egokia egiteko.

Aldi berean, lurraldeetan kokatzeagatik lortzen diren abantailak, dinamikoak edo estatikoak izan daitezke (Glaeser et. al., 1992). Ildo honetan iritzi bateratua ez egon arren, oro har, kanpo-eragin dinamikoek izaera metakorra daukate tokiko enpresetan. Hau da, enpresa batek, adibidez, ezagutza teknologikoak metatuko ditu jarduera produktibo jarraitu baten ondorioz. Eta, nahiz eta enpresa hori lekuz aldatu, ezagutza horiek dagoeneko barneratuta dituenek, ez lituzke galduko. Bestalde, kanpo-eragin estatikoak amaiera izan dezakete. Dinamikoak bezala, lurraldearen bereiztasunetatik sortzen dira, baina ez dira metakorrak. Kasu honetan, enpresa berdinak lurraldea utziko balu, hornitzaile espezializatuak edo merkatu lokalean zeukan kuota galduko luke adibidez. Alabaina, ez da beharrezkoa lurraldetik ateratzea kanpo-eragin estatikoak galtzeko. Izan ere, lurraldetik hornitzaile espezializatu batek alde agiten badu, enpresek lurralde horretan egoteagatik zeukaten hornitzaile espezializatuaren kanpo-eragina galtzen dute. Muñizentzat (1998), lurraldeek eskaintzen dituzten kanpo-eraginen inguruko ikasketetan hazkundearen eredu neoklasikoa gainditzen da; eta lurraldeetan eskala ekonomiak sortzera, eta aldaketa teknologiko endogenoa sustatzera bideratzen dira nagusiki.

Marshallek ekonomia lokal eta erregionalari egindako beste ekarpenetako bat, “atmosfera industrial”-ren kontzeptuaren sorkuntza izan zen. Enpresa txikiek, oro har, lurraldearekiko eta bere ezaugarri propioekiko errotze handiagoa erakusten dute. Atmosfera industrial egokia sortzen bada, lanaren zatiketa horizontalean oinarrituta, eta ez erlazio hierarkikoetan, enpresa hauen arteko konfiantza handituko da. Eta azkenean, konfiantza horrek sortzen duen diferentzial positiboa, barruti industrial horretan ematen den ekoizpen globalean barneratuko da, konfiantza maila handituz eta ekoizpenaren kostua murriztuz.

2.1.2.2 Lurraldea eta ezagutza – ikuspegi eboluzionista

Fordismoaren garaiko ekonomia industrial eraldatuz joan da. Lehen, sektore industrialak baldin baziren lurralde edo herrialde bateko ekonomian pisu gehien zutenak, ekoizpen eredu malguk, eta oro har, ekoizpen posfordistari atxikitako ezaugarri ezberdinak, ezagutzan oinarritutako ekonomia baterako trantsizio bat abian jarri zuten. Ezagutzaren ekonomiara, alegia. Izan ere, aipatutako malgutasunari,

lehiakortasun globala eta aldaketa teknikoaren abiadura, hots, etengabe aldatzen ari den errealitatearen abiadura gehitzen badiogu, ezagutza, garapen ekonomikorako beharrezko elementua bezala agertzen da. Ezagutzatik eratortzen baita lehiakortasuna lortzeko beharrezkoak diren berrikuntzak eta prozesu berritzaileak (Lundvall, 1992).

Berrikuntzaren inguruko arduraz hazten ari zen testuinguru honetan, prozesu berritzaileen inguruko berrikusketa ezberdinek, kontzeptua aberasten joan ziren. Izan ere, 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetan ohikoa zen berrikuntzaz aritzean, zentro teknologikoek edo ezagutza sortzera bideratutako erakunde ezberdinek ikerketa eta garapenera (I+G) bideratutako baliabideak bakarrik kontuan izatea. Eta, are gehiago, hauek, amaierako produktuetan, edo, gehienez ere, ekoizpen prozesuetan eragiten zituzten aldaketa linealak soilik kontsideratzen ziren berrikuntza bezala. Hortaz, berrikuntza aztertzeko bideratutako analisietan, I+G sailetan egiten ziren gastuen edo *input*-en, eta produktu eta prozesu berritzaileen edo *output*-en arteko korrelazioa aztertzen zen (Uranga eta Cooke, 1998).

Hala ere, 80ko, eta batez ere, 90eko hamarkadetatik aurrera, arestian aipatutako berrikuntzarekiko arduragatik bultzatuta, eta aldaketa teknikoan oinarrituta, berrikuntza sistema nazionalaren inguruko ikerketa teoriko zein enpiriko garrantzitsuak aurrera eramaten ziren. Hauek, batez ere, Lundvall (1992), Nelson (1993), edo Edquist (1997) bezalako autoreen lanetan oinarrituta zegoelarik. Lundvallek (1992), herrialde txikiak berrikuntzan inbertitzeko duten arazoak gainditzeko esperientziei erreparatzen die. Nelsonek (1993), berrikuntza sistema nazionalen konplexutasuna eta aniztasunean zentratzen da. Eta Edquistek (1997), hazkunde ekonomikoan eta enpleguan duten efektuen inguruko analisia egin zuen (denak, Cooke, Uranga eta Etxeberria-n (1997:475)).

Berrikuntzaren analisi berri hauek, berrikuntzan eragiten duten faktore guztiak kontutan hartzen dituzte *input* gisa. Eta *output*-ak ere ikuspuntu sistemiko eta holistiko batetik begiratzen dira. Horrela, berrikuntzak ez die bakarrik prozesuetan eta produktuetan ematen diren aldaketei erreferentzia egiten; baizik eta, antolakuntzan, beste eragileekiko harremanetan edo instituzionalki ematen diren aldaketak ere barneratzen ditu (Uranga eta Cooke, 1998). Beraz, berrikuntzaz hitz egin ordez, berrikuntza sistemez hitz egiten hasi zen.

Berrikuntza sistemek berrikuntzaren esanahi tradizionala zabaltzen dute. Ikerketa zientifikoaren edo teknologikoaren bitartez hasten den eta ondasun berrituen sorkuntzan

bukatzen den ikuspuntu lineal tradizionala gainditu, eta *feedback*-en bitartez ikaskuntza interaktiboan oinarritzen den berrikuntza sistema baterantz joanez. Izan ere, esan dugun moduan, tradizionalki, berrikuntza eredu lineala eta norabide bakarrekoa zela kontsideratzen zen. Non zentro teknologikoetan eta bestelako erakunde teknologikoetan I+Garen bitartez lortutako berrikuntzak enpresei igarotzen ziren, eta azkenean, biztanleriara iristen ziren enpresen bitartez. Berrikuntza sistemen ikuspegiaren ekarpena *learning by interacting* ereduaren ezarpena izan zen. Hau da, enpresek zentro teknologikoei egindako gomendioak edo bezeroek enpresei egiten dizkietenak, eta ekoizpen prozesuan bertan sortzen diren berrikuntzak ere barneratzen dituen eredia da. Hots, ekoizpen prozesuetan parte hartzen duten eragilearen arteko interakzioen bitartez sortzen diren berrikuntza oro barneratzen da.

Esan genezake *learning by interacting* dela *learning by searching*, *learning by doing* eta *learning by using* ereduaren baterakuntza. Modu laburrago batean, berrikuntza sistema bat, sistema sozial bat da, non ingurune konkretu batean, eta honetan dauden eragile sozioekonomiko ezberdinen artean ematen diren interakzioaren bitartez berrikuntzak sortzen diren (Cooke, 2001).

Horrez gain, berrikuntza sistemek beste ezaugarri batzuk erantsi zizkioten berrikuntzaren ikuspegi tradizionalari. Autore ezberdinek, berrikuntza sistemen izaera kolektiboa aldarrikatu izan dute agente ezberdinak barneratzen dituelako; eta beraz, berrikuntza, prozesu kolektiboa den heinean, prozesu hauen ingurune kultural, sozial, politiko, ekonomiko eta instituzionala kontutan hartu behar ditu bere garapenerako (Lundvall, 2010). Ildo honetan ere, Uranga eta Cooke (1998) ingurune horretan diharduten alderdi finantzario, administratibo eta legegileak berrikuntzaren prozesuan barneratu behar direla diote. Hau da, modu batean edo bestean ikaskuntza prozesuan eragiten duten aldagaiak barneratzen dira. Zentro teknologikoez, I+G sailez eta unibertsitatez gain, tokiko egitura produktiboa, finantza sistema, marko instituzionala, marketing-a edo ikerketa bezalakoak barneratuz (Lundvall, 2010).

Garapen ekonomikoa berrikuntzen eta ezagutzaren zabalkuntzaren menpe dago neurri handi batean; hauek kanpora begira lortzen dituzten abantaila lehiakorrez gain, sistema produktibo beraren berrikuntza bultzatzen duten heinean (Vázquez-Barquero, 2000). Berrikuntzen eta ezagutzaren zabalkuntza, enpresen arteko erlazioen bitartez posible egiten da. Eta, erlazio hauek izaera ezberdinak izan ditzakete. Adibidez, ekoizle-

bezero erlazioak, enpresen arteko kooperazio erlazioak edo enpresen eta lurraldeko beste eragileen arteko erlazioak ere (Gainza eta Unceta, 2011).

Ildo honetan, lurraldeak eskaintzen duen hurbiltasun geografikoagatik eta aipatutako enpresen arteko erlazioengatik sortzen den konfiantza giroak ere beste abantaila batzuk sortu ditzake. Batetik, aurreko atalean azaldu ditugun kanpo-eragin ekonomikoak; eta bestetik, ezagutza tazitua, hots, kodifikatu ezin dena, transmititzeko erraztasun handiagoa (Uranga eta Cooke, 1998). Ezagutza kodifikatua, transmisiorako errazagoa den ezagutza litzateke, informazioa euskarri ezberdinetan kodifikatu —idatzi, grabatu etab.— daitekeelako. Aldiz, ezagutza tazituak hurbiltasun geografikoa eta parteen arteko konfiantzazko erlazioak behar ditu transmitituta izateko. Hau da, lurraldeari eta bertan emandako bilakaera historikoaren eraginez atxikita dagoen ezagutza litzateke; egiteko moduak edo tokiko *know-how*-a, ohiturak, jokabideak edo pentsaera komunak barneratzen dituena.

Ezagutza zabaltzeko beharrezkoa den konfiantza horrek gainera, enpresen arteko interakzioa eta kooperazioa gehiago errazten du; hauen arteko erlazio komertzialak erraztuz. Baina ez hori bakarrik, izan ere, berrikuntza, eragileen arteko interakzioaren bitartez ematen denez, enpresen arteko egunerokotasuneko interakzioetan antzematen diren hutsuneak gainditzeko, ondasun berriak sortzeko, prozesuak hobetzeko, teknologia berriak garatzeko etab. beharrezkoa da. Ildo honetan Alburquerque (2004a) berrikuntza teknologikoak emateko, lurraldean eragiten duten eragile sozioekonomikoen baterako lana beharrezkoa dela dio. Bere ustez, aldaketa teknologikoa, aurretiaz emandako beste aldaketen ondorioa litzateke. Hauek, enpresa eta lurralde antolakuntzan emandako aldaketak, aldaketa instituzionalak edo bestelako transformazio sozialak izanik.

Berrikuntza beraz, politika erregionalaren helburua bihurtu da ezagutzaren ekonomia eta lehiakortasun globalaren eraginez. Gainera, eskualdeek eta tokiko eremuek ezagutza sortu eta metatzeko duten gaitasunagatik, berrikuntzak edo prozesu berritzaileak sortzeko maila egokiena bezala kokatu dira lau arrazoi nagusiengatik: Ezagutza zabalpenerako eskaintzen duten erraztasunengatik, *spin-off* bezala eragile berriak sortzeko aukeragatik, eskualdeetan dagoen lan mugikortasunagatik eta sortu daitezkeen sareak berrikuntza sortzeko lagungarriak izan daitezkeelako (Hassink eta Klaerding, 2011).

Kasu honetan, berrikuntza prozesuak eta aldaketa teknikoak geografia ekonomikoarekin hobekien batu dituen ikuspegiak, ikuspegi eboluzionista litzateke. Geografia ekonomikoaren ikuspegi eboluzionistak, ekoizpenaren antolaketa espazialean, banaketan, kontsumoan, eta oro har, denboraren eraginez ekonomian ematen diren prozesu eraldatzaileak azaltzen saiatzen da. Horretarako, lurraldeen historia eta bereiztasunak kontutan hartzen dituzte (Hassink eta Klaerding, 2011). Ildo honetan, prozesuen eraldaketak aztertzeko, *path dependency* edo ibilbidearekiko mendekotasuna kontzeptua erabiltzen dute. Martin eta Sunleyk (2006) dioten moduan, ibilbidearekiko edo joerarekiko mendekotasuna duen sistema bat bere historiaren arabera eboluzionatzen dena litzateke.

Oro har, ikuspegi eboluzionistak tokiko garapenari bi ekarpen nagusi egiten dizkiola esan dezakegu. Alde batetik, eboluzio prozesuak baldintzatzen duten elementuak aztertzeko lanabesak proposatzea (Hassink eta Klaerding, 2011). Eta beste aldetik, globalizazioaren eraginez eraiki den ezagutzaren jendarte globalaren testuinguru batean (Boisier, 2005a), aurrerago ikusiko ditugun erregio berrikuntza sistemak, ikasten duten erregioak, eta neurri batean ere, klusterrak bezalako ekoizpen eta berrikuntzaren antolaketa ereduak dira.

2.1.2.3 Tokiko instituzioak – ikuspegi instituzionalista:

Ikuspegi instituzionalistek —eta eboluzionistek neurri batean—, harreman sozialen garrantzia azpimarratzen dute ekonomiaren garapenerako. Hots, edozein jardura ekonomiko sozialki errotuta dagoela eta arau formal eta informalak jarraitzen duen prozesu bat bezala kontsideratzen duen ekonomiaren ikuspegi soziologikoa jarraitzen dute. Eta beraz, jardura ekonomiko horren testuingurua eta honen bilakaera ulertzea beharrezkoa da jardura bera ulertzeko. Horrela, ikuspegi ortodoxoetatik urrunduz (banakoetan oinarrituta dagoen eta orekarako joera duen ekonomia neoklasikoa), desorekara jotzen duen ekonomia inperfektua egonkortzen duten instituzionalizazio prozesuak aztertzen dituzte. Beste modu batera, garapena, instituzioen⁷ bitartez azaltzen saiatzen dira. Ikuspegi honetatik, ekonomia zentzu

⁷ “Instituzio publiko” bezala izendatzen ohi diren entitate publikoak ez dute hemen instituzioen esanahi osoa hartzen. Hau da, hemen instituzioek, erakunde edo administrazio publikoa baino esanahi zabalagoa hartzen dute; tokiko legeak, arauak, balioak, jokabideak, tradizioak etab. ere barneratzen dituzten heinean. Beraz, soilik lehenengoei erreferentzia egiteko, “herri-erakunde” edo bere kasuan “administrazio publiko” bezala izendatuko dira.

zabalean ulertzea beharrezkoa da, enpresa eta bezero harremanak gaindituz, eta prozesu ekonomikoan eragiten duten eragileen jokabideak eta oinordekotza kultural eta sozio-instituzionalak kontutan hartuz (Amin, 1998). Ondorioz, prozesu ekonomikoak, lurralde bakoitzak epe luzean metatutako kultura, ohitura, jokabide eta akordio sozialen ondorio bezala kontsideratzen dira; eta ez, arrazionaltasun berekoian oinarrituta arautzen diren enpresa eta bezeroen erlazioak bezala.

Tokiko instituzioak beraz, prozesu kolektiboak, bertan jarduten duten eragileak eta euren arteko harremanak egituratzen eta gidatzen dituzten arau, lege, estandar, praktika, jokabide eta balio formal zein informalak lirateke (North, 1993; Amin, 2001). Eta beraz, lurralde baten marko instituzionalak, garapen prozesuaren arrakasta edo porrota determinatu dezake, lurralde horren ohiturak, balioak, jokabideak etab. prozesu ekonomikoaren norabidea edo mugak ezartzen dituztelako (Amin, 2001).

Horrela ere, garapenaren inguruko neurketak aldatu egin dira. Hazkundearen inguruko datu agregatuak erabili ordez, ikuspegi instituzionalistak, garapena lortzeko lurralde bakoitzaren berezko ezaugarriak azaltzen saiatzen dira; hauek garapenaren oinarria kontsideratzen direlako. Esan dugun moduan, instituzioak direlako garapen prozesu baten arrakasta edo porrota baldintzatzen dutenak. Modu honetan, legeak, antolakundeak eta administrazio publikoa bezalako instituzio formalak edo balioak, jokabideak, tradizioak eta ohiturak bezalako instituzio informalak garapen prozesuetan ematen diren erlazioetan ziurgabetasuna murrizteko eta konfiantza maila handitzeko baliagarriak dira (Pike et. al., 2006).

Ikuspegi instituzionalistak beraz, ekonomia ulertzeko beste ikuspegi bat planteatzen du. Hazkundearen analisi neoklasikoa alde batera utzita, non merkatuak autorregulaziorako gaitasuna duten elementu isolatuak bezala kontsideratzen diren; eta, hauek marko instituzional konkretuetan erreproduzitzen diren jendarte-eraikuntzak bezala kontsideratuta (Sunley, 2000). Izan ere, teoria neoklasikoak, merkatua errekurtsuak banatzeko modu eraginkorrena dela erakusten saiatzen den arren, merkatuen porrota agerikoa izan da banaketa espazialari dagokionez. Izan ere, teoria honek oinarri bezala hartzen duen banako arrazional eta berekoia jokabidea, kolektiboki irrazionala eta ez eraginkorra izan da (Pike et. al., 2006). Beraz, geografia

ekonomiko instituzionalistak⁸, modu labur batean, lurraldeen garapen prozesuak ulertzeko, garapen prozesu horietan parte hartzen duten eragile guztien interakzioak arautzen dituzten baldintzetan oinarritutako marko analitikoa eskaintzen du (Gainza, 2008).

Ekonomikoki, instituzioek lurraldeen eskaintza osatzen dute. Eskaria aldiz, nazioarteko merkatuetan barneratzean lortzen da (Sunley, 2000). Oro har, garapen estrategiak enpresa txiki eta ertainen aglomerazioak sortzera bideratzen dira eskaintzaren aldeko politiken bitartez. Hala ere, ikuspegi honek baditu mugak. Hemen bi antzemango ditugu: Batetik, konfiantzan oinarritutako harreman sozialak beharrezkoak direla eta beraz garapena honen menpe dagoela neurri batean. Eta bestetik, testuinguru instituzionalaren eta garapen ekonomikoaren arteko loturak ahulegiak izan daitezkeela. Izan daitezkeela diogu eraikuntzan dagoen ikuspegia delako eta beraz, oraindik lotura horiek garatu/sendotu behar direlako. Hau da, instituzioak beharrezkoak izan daitezke garapen ekonomikorako, baina aldi berean, garapena lortzeko, soilik testuinguru instituzional egokia eta egonkorra garatzearekin nahikoa ez izatea izan liteke (Pike et. al., 2006). Ildo honetan, Sunleyk (2000) merkatu-akatsak zuzentzeko baliagarriak izan daitezkeela argudiatzen du.

Instituzioak lurraldeek jarraitzen duten ibilbide edo joera historikoengatik aldatzen edo eboluzionatzen joaten dira. Ideia hau azaltzeko, *path dependency*-ren kontzeptua erabili ohi da ere. *Path dependency*, lurralde batek historikoki jorratu dituen harreman, jokabide, ezagutza sistemak edo antolakuntza erduei begiratuta, egungo marko instituzionala azaltzeko erabili dezakegu. Hala ere, eta eboluzioa ulertzeko, Gainzak (2008) esaten duena kontutan izan behar dugu: Metaketarako lagungarria den marko instituzional batek, baldintza teknologikoak edo merkatua aldatzen denean garapenerako galga izan daitekeela, edo lurralde batean errotutako instituzioak beste lurralde baten garapenerako ez eraginkorrak izan daitezkeela, alegia. Lurraldeen ibilbideek gainera, ez dute prozesu lineala jarraitu beharrik, aurrera eta atzera egin

⁸ Hala ere, ezinbestekoa da eskola instituzionalista zaharraren eta berriaren arteko alderaketa egitea. Honi buruz, 4. kapituluari gehiago sakonduko den arren, aurreratu dezakegu eskola instituzionalista zaharraren oinarrietan ekonomia neoklasikoarekiko kritika analitiko eta metodologiko sakona aurkitu dezakegula. Aldiz, 80ko hamarkadatik aurrera berrindartzen den ikuspegi berriak, instituzio sozialen paperari garrantzia ematen jarraitzen dien arren, ekonomia neoklasikoarekiko harreman puntuak aurkitu ditu; antzinako izaera kritikoa lausotuz.

dezakete edo estatikoak mantendu. Edo, Pike et. al.-ek (2006) dioten moduan, “Asiako tigreak” adibide gisa jarritz, ibilbideak guztiz aldatu daitezke ere.

2.1.2.4 Kapital soziala:

Tokiko instituzioei egindako hurbilketatik azkeneko kezka hau gelditzen zaigu: Tokiko instituzioak lurraldeen garapenerako beharrezkoak diren arren, hauek ez dute lurralde guztietan modu berdinean eragiten, eta are gehiago, garatutako instituzio berdinek ez dute zertan beste lurralde bateko garapen prozesurako mesedegarriak izan beharrik. Beraz, instituzionalismoak, lehen aipatu dugun marko analitikoa eskaintzen digun arren, honek, ez digu esaten zeintzuk izango diren tokiko garapenerako onuragarriak edo mesedegarriak diren baldintza instituzionalak. Ildo honetan, kapital sozialaren kontzeptua sortzen da, garapenean eragina duten lurraldeen ezaugarri sozial eta instituzionalak batzen dituen.

Kapital soziala, ezer baino lehenago, kapital mota bat da. Eta beraz, metagarria. Bordieu-k (1986) proposatutako definizioan, kapital soziala, talde batekoa —kasu honetan tokiko jendartea— izateagatik biltzen diren baliabide erreal edo potentzialak lirateke. Eta beraz, talde horren partaide bakoitzak kapital honen babeseta eta “kreditu eskubidea” dauka; kapital sozialaren jabetza, giza kapitalarena edo kapital finantzarioarena ez bezala, kolektiboa delako.

Ildo honetan Putnam-ek (2001) dioten moduan, kapital fisikoa edo giza kapitala bezalako kapitalek emankortasun indibiduala handitzeko lanabesei erreferentzia egiten dieten bitartean, kapital sozialak sare sozialei eta hauek sortzen duten balioari begiratzen die. Hots, “kapital fisikoak, objektu fisikoei dagokien bitartean eta giza kapitala bakoitzaren ezaugarriari erreferentzia egiten dien bitartean, kapital soziala jendarteetako sareen konexioei eta hauetan sortzen diren elkarrekotasun eta konfiantza arauari erreferentzia egiten die” (Putnam, 2001:19). Putnamek (1993) ere, kapital sozialaren inguruan aipatzen den definiziorik erabilitakoenetarikoa, elkarren onura xede izanik, ekintza kolektiboa eta kooperazioa errazten dituzten sareak, arauak edo konfiantza bezalako antolakuntza kolektiboko adierazpenak bezala definitzen du.

Antzeko definizioa proposatzen du Coleman-ek (1990). Autore honentzat, kapital soziala, aktibo bat da, zeinek estruktura edo talde batean dauden banakoen ekintzak errazten dituzten baliabide sozio-egiturazkoek osatuta dagoen. Horrez gain —jarraitzen du Colemanek—, bestelako kapital motak bezala, kapital soziala, kapital produktiboa

da, eta beraz, bera gabe lortzeko ezinezkoak liratekeen helburuak lortzeko aukera eskaintzen du.

Ikusi dezakegun moduan, kapital sozialaren inguruan teorizatzen duten autoreek oro har ikuspuntu instituzionalista batetik idazten dute. Izan ere, kapital sozialaren marko teorikoa, edo behintzat bere oinarriak, Douglas North autore neoinstituzionalistaren idazkietan aurkitu daitezke neurri batean (Durston, 2000). Hala ere, kapital sozialaren kontzeptua harago doa, egitura sozial horietatik eratortzen diren onurak eta kalteak azaltzen dituelako.

Kapital sozialak, dena den, izaera ezberdinak hartu ditzake lurraldeen arabera. Izan ere, lurralde bakoitzak jarraitutako ibilbide historikoaren arabera edo *path dependency*-ren arabera sortzen da. Ildo honetan, garapen ereduaren izaera edo kontzepzio ezberdinek, kapital soziala modu ezberdinean ulertzea dakar. Kapital soziala, merkatu globaletan lehiakortasuna lortzeko lanabesa bezala ulertu daiteke alde batetik; edo giza harreman, balio kolektiboetara eta hauen garapenari garrantzi handiagoa ematen dioten beste interpretazioak egon daitezke. Lurraldearen arabera ere, kapital soziala, azaldu dugun lehenengo kontzepzioari edo bigarrenari gehiago hurbildu daiteke. Adibidez, lehenengo kontzepzioa, aurrerago azalduko dugun klusterraren ideiarekin hurbilago legoke, eta bigarrena barruti industrialetatik hurbilago. Lehenengoak lehiakortasuna lortzeko elkarte territorialak direlako, eta bigarrenkoa, jendartearen balio kolektiboetan oinarritzen den garapen eredu delako.

Ekonomikoki beraz, kapital soziala eragileen arteko konfiantza areagotzen du, eta beraz, mesfidantza egoera batetik sorrarazi daitezkeen kostuak murrizten dira; bai transakzio sinpleetan, eta baita ere ezagutzaren zabalpena bezalako transakzio konplexuagoetan. Bestalde, Alburquerquek (2003) tokiko lan merkatuak kapital sozialaren eraikuntzan izan ditzakeen inplikazioak aztertuz, tokiko ekintzaitza-kultura sustatzea beharrezkoa dela dio. Honek, eragileen arteko kooperazioa eta mobilizazioa areagotzen duelako, eta ondorioz, kapital soziala indartzen delako. Baina horretarako, lurraldea subsidiario edo zerbitzu emaile gisa ulertu ordez, sustapen produktiborako eta enpleguak sortzeko espazioa bezala ikusi behar da. Eta horretan, besteak beste, tokiko herri-erakundeek zeregin handia daukate. Eta ikuspuntu sozial batetik, kapital sozialaren garapena jendarte zibilaren indartzea dakar (Durston, 2000); eta honek aldi berean, tokiko garapen prozesuetan parte-hartzea sustatzen du.

Eztabaida honetatik, kohesio sozialaren ideia eratorri daiteke. Kohesio soziala, bi zentzutan ulertu dezakegu: Alde batetik, birbanaketarekin erlazionatuta dago, eta bestetik, pertenezkiarekin edo identitatearekin (André eta Rego, 2003). Hau da, arlo ekonomikoak eta sozialak barneratzen ditu aldi berean. Tokiko garapenaren helburu edo zeregin inplizituetakoa bat, lurraldeetan kohesio soziala bermatzea da. Horretarako garrantzitsua da garapen ekonomikoa lortzerakoan, hau ekitate terminoetan banatzen dela bermatzea. Bestalde, kohesio sozialaren alderdi sozialak, komunitatean ematen diren harremanekin, parte-hartze politikoarekin, sarezearekin, zerbitzu publikoetara dagoen irisgarritasunarekin eta ahalduntze indibidual eta kolektiboarekin zer ikusia dauka. Oro har, esan genezake, komunitate batean eman daitezkeen bazterkeriaren alderdi ezberdinak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, politikoak, heziketa mailagatik ematen direnak etab.) ahalik eta gehien murriztean datza.

Ikusi dezakegun moduan, kohesio soziala lortzea, garapen estrategiaren helburuetako bat izateaz gain, kapital sozialaren osagaietako bat ere bada; kohesio sozialik gabe instituzio sozialak ahultzen direlako eta garapen prozesu bateratu bat aurrera eramateko zailtasunak agerikoak egiten direlako. Azken finean, tokiko garapen prozesu bat, prozesu kolektiboa delako, eta kohesiorik gabeko jendarte batean, nekez lortuko direlako eragileen helburuen arteko bat egiterik eta koordinaziorik. Hortaz ezinbestekoa da tokiko garapenerako edozein prozesuarentzako kohesio soziala lortzera bideratua egotea.

2.1.2.5 Lurralde lehiakortasuna:

Lehenengo kapituluan zehar argi geratu da, globalizazioaren hedapenarekin eta ekoizpen eredu postfordistaren ezarpenarekin lehiakortasun globala areagotu dela. Ondorioz, Europar Batasuna eta nazioarteko beste erakunde ezberdinek lehiakortasuna sustatzeko neurriak euren agendetan lehentasunezko toki batean ezartzea ekarri du. Lurraldeetara aplikatuta ere, 80ko hamarkadatik aurrera lurraldeen lehiakortasunaren inguruko kezkak zabaldu izan dira. Hala ere, 90eko hamarkadara arte itxaron egin behar izan zen, lurralde lehiakortasunaren inguruan Porterren (1990) ekarpenekin inflexio puntu bat eman arte.

Izan ere lurraldeak, kapital mugikorra eta lana erakartzeko lasterbide batean sartu dira non lehiakideak munduko beste lurraldeak diren. Garrantzitsua da kontutan izatea estatuz azpiko eskalak ez dutela estatu nazionalak dituzten lanabes politikoak, eta beraz,

politika publikoen bitartez ekonomikoki eragiteko gaitasuna murriztuta dutela lurralde hauek. Hortaz, lehiakortasunaren ikuspegia, enpresak unitate analitiko bezala hartuta jorratzeko joera garrantzitsua izan da. Zentzu honetan, Porterrek zeresan handia dauka, enpresen kudeaketa estrategikoa baitu jatorriko diziplina gisa.

Porterrentzat (1990), lurraldeen lehiakortasuna, merkatu globaletan duten parte-hartzea mantendu edo handitzeko gaitasunaren arabera neurtzen da, tokiko jendartearen bizi mailaren hazkundera ematen den bitartean. Ildo honetan, autore Estatubatuarrak tokiko jendartearen bizi maila barneratzen duenean, produktibitatearekin lotzen du. Izan ere, honen iritziz, lehiakortasuna lortzeko bide bakarra, produktibitatea handitzea da; eta aldi berean, produktibitateak, bizi mailarekin harreman zuzena dauka. Hau da, Porterrek dionez, geroz eta produktibitate handiagoa izan, jarduera produktiboetatik lortzen diren etekinak handiagoak izango dira, eta beraz soldatak ere bai. Hortaz, bizi maila haziko da. Aldi berean, geroz eta bizi maila altuagoa izan, produktibitateak handitzen jarraituko du (Suñol, 2006).

Hala ere, Porterrentzat lehiakortasuna enpresen kontua da, ez lurraldeena. Horrela, lurraldeak ez lirateke lehiakorrak edo ez lehiakorrak izango, lurraldeetan kokatzen diren enpresak baizik. Seguru aski, lehiakortasunaren inguruan Porterrek (1980) egindako ekarpenik garrantzitsuena, merkatuen lehian eragiten duten bost indarren azalpena izan zen (lehiakide berriak merkatuan sartzeko mehatxua, hornitzaileen negoziatorako boterea, kontsumitzaileen negoziatorako boterea eta produktu ordezkarrien mehatxua).

Bestetik, Paul Krugman-ek ere lehiakortasunaren ikuspegia landu du. Kasu honetan, ekonomia nazionalen inguruan ari izan denean, herrialdeek geroz eta lehiakorragoak izan, orduan eta bizimaila altuagoa izango dutela baieztatzen du. Eta horrela justifikatzen dela estatuetatik sektore batzuetara edo besteetara bideratutako babesak (Krugman, 1995). Estatuz azpiko espazioei buruz, Krugmanek (1994), hauek lehiakorrak izateko garrantzia azpimarratzen du bereziki. Izan ere, eskalen berregituraketarekin eta birlurralderatze prozesuekin, lurralde hauek nazioarteko merkataritzara gehiago ireki direlako.

Krugmanek, eredu matematikoen bitartez jarduera ekonomikoen aglomerazioaren zergatia azaltzen saiatu da. Horretarako, aglomerazioetan ematen diren indar zentripetu eta zentrifugoak ikertzen ditu. Indar zentripetuek kanpo-eragin ekonomikoekin lotura daukate (errendimendu hazkorrak); aldiz, indar zentrifugoei

aglomerazioaren eraginez lurraren, baliabide naturalen, eta oro har faktore mugiezinaren prezioen igoerarekin (errendimendu beherakorrak). Krugmanentzat, errendimendu hazkorrek errendimendu beherakorrak baino indar handiagoa daukate; eta, errendimendu hazkor horiek baimentzen dituzten kanpo-eragin ekonomikoak bakarrik maila erregionalean edo lokalean ematen diren aglomerazioen ondorioak dira (Moncayo, 2001).

Hala ere, Krugmanen eredu honek kritika ezberdinak jaso ditu. Hauek, batez ere, Ron Martin Cambridgeko Unibertsitateko irakasle eta ikertzailearen partetik datozelarik (Martin, 1999 eta Martin eta Sunley, 2000). Martinentzat, Krugmanek ordezkutzen duen geografia ekonomiko berria “ez da ez geografia, ezta berria”⁹. Martinen kritika hiru norabideetan bideratzen da betez ere. Batetik, eredu matematikoeziak direla dio, eta beraz, teorikoeziak eta abstraktueziak. Bestetik, lurralde baten ibilbide historiko eta kulturala, instituzioak edo kapital soziala bezalako tokiko ezaugarriak ez dituela kontutan hartzen. Eta hirugarrenik, Martinek dionez, geografo ekonomikoek nahita baztertu dituztela aplikazio matematiko horiek, bestelako diskurtso baten bila, enpirikoagoa dena eta positibismo logikotik aldentuta dagoena; harreman sozial eta kultural konplexuetan arreta jartzen dutenen alde (Moncayo, 2001). Martinek jorratzen duen ikuspegi hau, lurraldeek berezkoak dituzten ezaugarrien azterketan oinarritzen da, eta lurraldeen lehiakortasuna aztertzeke ere erabilia izan da. Ildo honetan, ezagutza eta berrikuntzarako gaitasuna, tokiko egitura produktiboa, balio instituzionalak etab. batez ere ekonomiaren korrante eboluzionistek eta instituzionalistek erabili izan dutenak dira.

Bestalde, CEPALetik ere garatutako gaia izan da lurralde lehiakortasuna, eurek garatutako tokiko garapen ekonomikoa (TGE; DEL, gaztelaniaz) deritzon ikuspegiaren barneratuta. Kasu honetan, ez da, Porterren ereduaren bezala, enpresa unitate analitiko gisa kontutan hartzen; baizik eta analisi unitatea lurraldera igarotzen da, tokiko bereiztasunetan arreta jarritz. Hau da, aurreko atalean azaldutako kanpo-eragin ekonomikoetan oinarritzen dira lurraldeen lehiakortasuna aztertzeke (Albuquerque,

⁹ “Over the past few years, a new “geographical” economics has emerged, focused on the spatial agglomeration of industry and the long-run convergence of regional incomes. Several leading names are associated with this ‘geographical turn’, including Paul Krugman, Michael Porter, Robert Barro and W. Brian Arthur. This ‘new economic geography’, it is argued here, is neither that new, nor is it geography. Instead, it is a reworking (or re-invention) —using recent developments in formal (mathematical) mainstream economics— of traditional location theory and regional science. As such it is quite opposed to, and difficult to reconcile with, the work on regional development and industrial agglomeration being carried out in economic geography proper” (Martin, 1999:65).

2004b). Tokiko garapen ekonomikoaren ikuspegitik, lehiakortasuna hiru faktoreen menpe dago: Enpresen produktibitate eta kalitatearen menpe, enpresak osatzen duten hornitzaile eta bezeroen sarearen —balio katearen— menpe, eta enpresa ezarrita dagoen lurraldearen menpe (Albuquerque, 2004a). Horrela, Albuquerquek (2004a eta 2004b) bera edo Vázquez-Barquero (2000) esaten duten moduan, enpresek merkatuetara isolatuta ateratzeari utzi diote, lurraldeko ingurune produktibo, instituzional eta kulturalarekin batera ateratzeko.

Hortaz, lurraldeak lehen mailako espazio ekonomiko bezala suspertu dira; plangintza zein erregulazio ekonomikorako espazio garrantzitsuak bihurtuz. Izan ere, lurraldearen metaketa prozesua, lurralde bakoitzak eskaintzen dituen baldintzen arabera ematen da (Gainza eta Unceta, 2011).

2.1.2.6 Lurralde metaketa:

Merkatuen lehiakortasun global hazkorraren aurrean, kapitalak lurralde ezberdinek eskaintzen dituzten abantailei arreta handiagoa jartzea eragin du. Prozesu globalizataileak enpresen jatorrizko lurraldeetan lehiakortasuna areagotu duen moduan, nazioarteko beste lurraldeek eskaintzen dituzten abantailak miatzeko erraztasunak ere eskaini die enpresei, orain mugikortasun handiagoa dutelako. Horrek, lurraldeen arteko ezberdintasunak, nahiz eta txikiak izan, indartu egin ditu; eta beraz, lurraldeek dituzten lan eskaintza, baliabideak edo azpiegiturak bezalako elementuak garrantzi handiagoa hartu izan dute nazioarteko kapitala kokatzeko orduan (Harvey, 1989a).

Tokiko garapenak, bere kontzepzio ugariekin, logika hau eraldatu nahi du. Hots, maila globalean sortzen diren dinamikak jasotzen duten espazio pasiboak izatetik; lurraldeek, garapen estrategiak burutzen dituzte prozesu global hauek dakartzaten erronka berriei erantzuteko, tokiko jendartearen inplikazioarekin eta behetik gorako dinamikak sortuz (Vázquez-Barquero, 2007). Hau da, globalizazioaren eta bere dinamikaren aurrean, aktore lokalen erantzuna da tokiko garapena (Vázquez-Barquero, 2000).

Horregatik, tokiko garapenak egiturazko eraldaketa bat suposatzen du lurraldeetan (Vázquez-Barquero, 2007). Hots, lurraldeen arteko lehia global horretan, metaketa lokalerako faktoreak eta dinamikak aktibatzen saiatzen da, epe luzerako garapena lortzeko. Izan ere, tokiko garapenerako, metaketa lokala ahalbidetzen duten

lurraldeen baldintzak aurkitzea helburu garrantzitsua bihurtu da, ondoren horren gainean eragiteko eta garapenerako egitasmo konkretuak proposatzeko. Azken finean, hazkunde ekonomiko lokala ahalbidetzeko, lurraldeak dituen baldintza instituzionalak eragina dutela ulertzean datza, hauek zehazten dutelako metaketarako gaitasuna. Eta aldi berean, lurraldeek duten metaketa gaitasunaren arabera eraikiko delako garapena.

Eta aktibatu beharreko faktore horien artean, Vázquez-Barquerok (2000: 5-10), ezagutzaren zabalkuntza eta berrikuntza, ekoizpenaren antolakuntza malgua, lurraldearen garapen urbanoa eta dentsitate instituzionalaren garapena aurkitzen direla dio. Faktore hauek ekoizpen eredu posfordistara igarotzerakoan tokiko egitura produktiboak jasandako aldaketatik eratortzen dira; hots, fordismoaren antolaketa ekonomikoarekin apurtzerakoan, eredu berriak metaketarako eskatzen zituen aldagai berriak dira.

Garapen ekonomikoa eta tokiko ekoizpenaren dinamika berrikuntzen eta ezagutzaren zabalkuntzaren menpe daude. Eta beraz, lurralde metaketa ahalbidetzeko beharrezkoa den egiturazko aldaketa, tokiko ekoizpen sisteman berrikuntzak barneratzerakoan garatzen da. Arestian esan bezala, berrikuntzak, zentzu zabalean ulertuta, prozesu kolektibo baten ondorioa dira, hortaz, bere inguruneagatik baldintzatuta daude. Izan ere, fordismoan zabaldua zegoen eredu linealarekin apurtzerakoan, ezagutzaren sorkuntza eta zabalkuntza prozesuaren izaera kolektiboan arreta handiagoa jarri zen. Eta beraz, lurraldeek aberastasuna erakartzeko duten faktore garrantzitsu bat bezala ezarri da gaur egun. Berrikuntzak dena den, ez dira amaierako produktuetan soilik ematen, eta tokiko garapenak ekoizpenaren lurralde antolaketan ematen direnei begiratuko die bereziki.

Hemendik, bigarren faktorea eratortzen da. Enpresa fordistaren zurruntasunarekin apurtzerakoan eta eredu malguago batera trantsizioa egiterakoan, enpresen barne zein kanpo antolaketaren eraldaketa bat ekarri zuen. Tokiko garapenak sistema produktibo lokalen antolaketan arreta jartzen du. Hots, enpresen, hornitzaileen, bezeroen eta garapenerako beste eragileen arteko harremanak ezartzen diren ingurunearen antolaketan; honek, tokiko ekonomien produktibitatea eta lehiakortasuna baldintzatzen baititu.

Bestalde, espazio urbanoek, garapen ekonomikorako lehentasuna hartu dute; bertan merkatuko erlazio gehienak ematen direlako. Espazio urbanoek, besteak beste, euren izaeragatik, zerbitzuen inguruko jardueren hedapenagatik, inbertsioaren inguruan

erabakitzeko ahalmena duten aktoreen kokalekua izateagatik, ezagutza eta berrikuntza zabaltzeko duten gaitasunagatik, bertan eragileen arteko harremantze prozesuak errazagoak direlako eta baliabide propioak antolatzeko duten gaitasunagatik, globalizazioaren testuinguruan lehiakortasun handiagoa eskaintzen duten espazioak bezala kokatu dira.

Azkenik, dentsitate instituzionala ere ulertu dezakegu tokiko egitura produktiboari metaketa errazten dion faktore bat bezala. Izan ere, garapen ekonomikoa ez da hutsean gertatzen; balio instituzional eta kultural konkretuak dituzten lurraldeetan baizik. Hau da, enpresak lurraldeetan integratuta daude eta bertan dauden instituzio formal eta informalekin nahasten dira. Beraz, balio hauei erreparatu behar diegu garapen prozesuaren norabidea hobeto ulertu nahi badugu.

2.1.2.7 Lurraldea, tokiko identitatea eta eraldaketa:

Lurraldeak ere tokiko identitatearen sortzaileak dira. Eta identitate horiek, tokiko garapen ekonomikorako aplikazioa izan dezakete. Hala ere, gai honi heltzeko ikuspegi ezberdinak aurkitu ditzakegu ere. Alburquerquezentzat (2003), identitatea ez da lurralde bateko faktore geografiko eta historikoengatik sortutako aktibo bat; baizik eta aktoreen arteko kontzentrazio eta konfiantzaren bitartez, erronka komunei aurre egiteko lurraldean eraiki daitekeen aktibo ukiezina. Eta zentzu horretan, arazo lokalen aurrean, aktore lokalen parte-hartzea eta elkarrekintza izango litzateke identitatea sortzen duena. Hau da, tokiko identitatea, komunitateek testuinguru ekonomiko ezegonkor eta aldakorrei aurre egiteko baliagarria duten aktibo ukiezina bezala kontsideratzen du.

Ildo honetan, azkeneko urteetan erresilientziaren ikuspegia indartu da. Erresilientziaren terminoa, diziplina anitzetan erabilitako kontzeptua da. Bere esanahirik erabilitakoena psikologian erabiltzen dena izan daiteke, non pertsona batek egoera traumatiko bat gainditzeko duen gaitasuna bezala ulertzen den. Baina ekologian adibidez, ekosistemek perturbazioak asimilatzekeo duten gaitasunari erreferentzia egiten dio. Eta gure kasuan, sistema sozial batek kanpotik datozen talkei jasateko duen gaitasunari buruz ari gara.

Erresilientziaren ikuspegia, esaten dugun moduan azken urteetako gauza da; izan ere, XXI. mendeko bigarren hamarkadan emandako krisi finantzario eta ekonomiko globalaren ondorioen aurrean, lurralde batzuk beste batzuk baino hobeto iraun dute. Hau da, ikuspegi honetatik ez zaio hainbeste begiratzen arrakasta ekonomikoari, testuinguru

ezeonkor eta aldakor batean lurraldeek irauteko edo/eta egoera horretatik aukerak lortzeko gaitasunari baizik (Zurbano et. al., 2018). Simmie eta Martin-ek (2010) esaten duten moduan, kanpo talka edo *shock* batek eragin gutxi baldin badu ekonomia batean, ekonomia horrek suspertzeko aukera eta erraztasun gehiago izango ditu beste ekonomia batzuen aurrean. Erresilientzia gradua ezberdina izango da lurralde batetik bestera, lurralde bakoitzaren antolaketa erduei, harreman motei eta ikaskuntza prozesu historiko bati lotuta egongo baita.

Ikuspegi ekonomikotik aldenduta, identitateari zentzu kultural eta tradizional handiagoa eman diezaiokegu. Lurraldea, identitatea sortzen duen eremua bezala kontsideratu dezakegu, non identitatea, prozesu historiko jarraitu batengatik, belaunaldiz belaunaldiko transmisioengatik, edo komunitate baten kide izateagatik sortzen den. Zentzu honetan, Zurbano et. al.-ek (2018:13) Dubois-en (2014) oinarrituta, lurraldea, denboran eta espazio konkretu batean kokatuta dagoen eremu esanguratsu eta kultural bat bezala definitzen dute; non, harreman ezberdinek zein prozesu historikoen, identitate komun bat eraiki duten. Identitate hori, aktore ezberdinek, euren artean eta jendartearekin zein naturarekin izandako erlazioen bitartez sortu dute. Eta beraz, identitatea zer den ulertzeko, lurraldearen historiari, kulturari, gizarte lokalari eta eman diren erlazio ezberdinei erreparatu beharko zaie.

Autoreek, lurraldea prozesu sozialak, ekonomikoak, teknologikoak, kulturalak, eta hauek aurrera eramateko beharrezkoak diren aktore, estrategia eta politikekin lotzen dituzte. Izan ere, lurralde bakoitzak izandako prozesu historikoa, kokapen geografikoa eta garatutako elementu kulturek, besteak beste berezko lan merkatua (sektore ekonomiko batean edo bestean oinarritutakoa, sartzeko kultura, ekoizpen antolaketa, kultura ekintzailea etab.), ezagutza teknologikoa (arlotu teknologiko batean edo bestean espezializatua egotea, berrikuntzarako gaitasuna, berrikuntza sareen garapena etab.), harreman motak (pertsonek artekoa, pertsonak eta eragileek artekoa, eragileek artekoa, enpresekin, erakundeekin, ingurunearekin etab.) eta inplikazio politikoa (parte-hartzea, ekimen sozio-politikoaren sorkuntza etab.) garatzea dakar. Eta hauek dudarik gabe garapen prozesurako elementu garrantzitsuak dira (Zurbano et. al., 2018).

Hala ere, tokiko garapenaren ikuspuntu ezberdinetatik ohartarazten den moduan, lurraldeari garrantzia emateak ez du esan nahi inola ez hauek kokatuta dauden ingurune zabalgotik isolatuta kontsideratu behar direnik. Hau da, lurraldeak ez dira espazio isolatuak, baizik eta bere ingurunearekin, beste lurralde batzuekin eta maila altuagoko

—eta baxuagoko— erregulaziorako ahalmena duten eskalekin harremanak koordinatzea beharrezkoa da (Albuquerque, 2003; Pike et. al., 2006; Dubois et. al., 2011; Zurbano et. al., 2014a).

Eta zentzu honetan, hots, lurraldeek euren ingurunearekin erlazionatzeko orduan jarraitu beharreko portaeren inguruan, ikuspuntu ezberdinak aurkitu ditzakegu (Coraggio, 2000). Marko mental bat osatzen errazteko, lurraldek euren ingurunearekin eta munduarekin erlazionatzeko moduak hiru eredu edo ikuspegi orokorren arabera kokatzen direla kontsideratuko dugu. Nahiz eta bakoitzak bere xehetasunak izango dituen, eta ikuspegi bakoitzetik beste hainbat ikuspegi konkretu atera ahalko litezke. Gainera, kasu askotan, ikuspegi hauek ez dira modu bakartuan agertzen lurraldeetan, baizik eta aldi berean hauetako bik edo hirurek osatutako egitasmoak aurkitu daitezkeen.

Alde batetik, atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko asmoarekin, lurraldeek eskaintzen dituzten abantailak ahalik eta gehien mobilizatzen saiatzen diren ereduak leudeke. Eredu hauek, ikusiko dugun moduan, enpresak erakartzeko mota ezberdinetako pizgarriak, azpiegiturak eta, oro har, baldintza mesedegarriak eraikitzen saiatzen dira euren lurraldeetan. Beste ikuspegi batetik, lurraldeko enpresek nazioarteko zirkuitu ekonomikoetan integratzeko asmoz, eta hauen lehiakortasuna handitzeko asmoz, lurraldean dauden indar eta baliabideak mobilizatzen saiatzen diren ereduak leudeke. Eta azkenik, hirugarren eredua, tokiko beharrianak asetzea ardatz izanik, lehenik hauek asetzerantz bideratuta dagoen eredu autozentratua litzateke.

Azkenengo ikuspegi honek, aurrerago aztertuko dugun tokiko giza garapenetik hurbilago dagoena, lurraldea, “bidezkoagoa eta gizatiarragoa den bestelako globalizazio bat eraikitzeko tokia” bezala kontsideratzen du (Dubois, 2014:123). Kasu honetan, — jarraitzen du Duboisek— tokiko biztanleriak, garapen proiektu bateratua bizitzeko aukera dauka lurraldean. Jendarte hori, garapen prozesuaren agente kolektiboa eta aktiboa baita.

Tokiko giza garapenetik proposatzen den bestelako globalizazio horretan, merkatu askearen eta fluxu ekonomiko globalen unibertsalizazioaren aurrean, giza eskubideak, eskubide sozial eta politikoak eta hauek praktikan jartzeko beharrezkoak diren baldintzak finkatu nahi dira (Zurbano, et. al., 2014a). Lurraldeetan ematen diren harremanak beharrianak asetzeko antolatu daitezkeelako; eta honek, jendartearen beharrak asetzerantz bideratuta ez dauden, eta egun hegemonikoak diren sistema ekonomiko, sozial eta politikoaren aurka egitea ekartzen du. Hau da, ikuspegia

lurraldean jartzen badugu, eta lurraldea harreman anitzen euskarria bezala ulertzen badugu, sistema kapitalista, patriarkala eta korrante liberalen oinordekotzan oinarritutako demokrazia ereduari bestelako erantzuna emateko gaitasuna dute lurraldeek, pertsonen egunerokotasunean eragiten duten praktika eraldatzaileak bertan gauzatzen direlako.

2.2 Lurraldeak garatzeko politiken izaera:

Tokiko garapenaren ikuspuntutik lurraldearen ezaugarri esanguratsuenak aztertu ondoren, tokiko garapenerako prozesu bat abian jartzeko orduan jarraitzen diren politiken izaerari helduko diogu atal honetan.

2.2.1 Goitik behera ala behetik gora?

Lurraldea garatzeko politikak bi multzo zabaletan sailkatu ditzakegu. Alde batetik goitik beherako politikak edo *top-down* politikak; eta bestetik, behetik gorakoak edo *bottom-up*. Gainbegiratu azkar batean antzeman dezakegunez, lehenengo kapituluan ikusi ditugun espazio azpinazionalak garatzeko politikak, orain azalduko ditugun lehenengo multzoan kokatuko lirateke. Izan ere, politika erregional keynesiar zein neoliberalek estatuz azpiko espazio guztietan politika berdinak aplikatu daitezkeela kontsideratzen dute. Hots, espazio azpinazionalaren homogeneotasuna oinarri hartzen dute euren politiketarako. Horregatik, bi ikuspegi horietatik zentralki bideratuta zeuden politika beherakorrak edo *top-down* aplikatzen zirela esaten dugu. Aldiz, 80ko hamarkadatik aurrera lurraldeetan bertan planifikatu eta aurrera eramaten hasten diren politika gorakorrak edo *bottom-up*, tokiko garapenarekin lotzen ditugu. Lurraldetik eta bertan dauden eragile ezberdinen erabakietatik aurrera eramaten direnak diren heinean.

2.2.1.1 Goitik beherako “top-down” politikak:

Goitik beherako *top-down* erregio politika keynesiar eta neoliberalek, hazkunde ekonomikoa bilatzera bideratuta egon dira estatu-ekonomia hazteko helburuarekin. Eta, hauetako bakoitzak, aberastasunaren birbanaketan arreta handiagoa edo gutxiagoa jarri izan duten arren, bat egiten dute estatu zentraletatik eskualde ezberdinetara bideratu dituzten politikak planteatu dituztelako. Hauek, oro har, azpiegitura eraikitza eta enpresa handiak zein kanpo inbertsio zuzena erakartzera bideratuta egon direlarik. Alabaina ez dira kezkatu aktore lokalen ehun dinamiko bat sortzera.

Ekonomia globalak, ekoizpen prozesuak aldarazi ditu; eta hauek, globalizazio neoliberalak dakarren erronka eta baldintza horiei egokitu behar dira. Ildo honetan, Pike et. al.-en (2006) ustez, tokiko jendarteek, tokiko egitura produktiboek eta baita lurraldeek eurek ere dira egokitze prozesu horretan parte hartu behar dutenak. Autore hauentzat, lurraldeetatik hasten diren prozesuak izan daitezkeelako, hain zuzen ere, globalizazioak dakarren aldaketei erantzuteko modu bat.

Hala ere, globalizazioak dakarren erronka hauek gainditzeko ez dago modu sinplerik; eta are gutxiago modu unibertsalik. Hortaz, ezinezkoa da eskualde guztietan estrategia berdinak aplikatzea; bakoitzaren baldintza ekonomiko, politiko, sozial, kultural etab. kontutan hartu gabe. Zentzu honetan Storper-ek (1997) dio, lurralde batean aurrera eramandako politika eraginkor bat beste lurralde batean erreproduzitzean, kasu gutxietan izan duela epe luzeko eragin positiborik bigarren lurralde horretan. Alabaina, estatuek, nazioarteko erakundeen eta akademia beraren onespenearekin, mundu osoan zehar goitik behera bideratutako garapen politiketan estrategiak errepikatzeari ekin diote behin eta berriz (Pike et. al., 2006). Hots, Storperrek (1997) aipatzen zuen politika eraginkorren erreprodukzio akastuna behin eta berriro eman da. Hau, estatuek daukaten eskualdeetako ikuspuntu homogeneotik eratortzen da. Non estatuz azpiko eremuen agregazioaren bitartez, guztiak berdinak diren ikuspuntua daukate; eta beraz, lurralde batean eraginkorra izan den politika bat, beste batean ere eraginkorra izango delakoan daude.

Oro har, dagoeneko aipatu ditugun bi izaera hartu zituzten *top-down* politikek. Alde batetik, azpiegitura behar gehien edo gabezia handienak zituzten eskualdeetan inbertitzea izan zen; gabezia horiek estaltzean, garapena helduko zelakoan. Horregatik, azaldu dugun moduan, II Mundu Gerratik eta 70eko hamarkadaren erdialdera bitartean, estatuetatik eremu atzeratuenetan errepideak, azpiegitura elektrikoa, poligono industrialak etab. eraiki ziren. Beste aldetik, industria ehun ahula zuten eskualdeak garatzeko, atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko politikak abian jarri ziren. Ideia hau, ikusitako hazkunde poloen teoriari jarraitzen dion adierazpen praktikoa izanik. Hala ere, estrategia hauek, efektu biderkatzailea sortu baino, desorekak eraman zituzten lurraldeetara. Izan ere, atzerriko enpresa handiei lehentasuna emanez, batetik, ekintzailetasun lokala murrizten zen, eta bestetik, pizgarrien bitartez erakarritako enpresek, hori, pizgarrien bila joan ziren eskualde hauetara. Ondorioz, ez zuten tokiko

ekonomia dinamizatu, baizik eta kanpo eragile ekonomikoekiko dependentzia areagotzerako joera izan zuten lurraldeetan (Pike et. al., 2006).

Politika hauek, lurraldeen baliabideen proportzio txiki bat bakarrik mobilizatzen zuten; hauek, baliabide naturalak, eremu turistikoak, eta lan esku merkea zirelarik. Aldiz, lan esku kualifikatua edo jarduera espezifikoagoak baztertu ziren. Izan ere, mobilizatutako enpresen goi mailako jarduerak, ikerketa eta garapen (I+G) sailak edo berrikuntzarekin lotutako bestelako esparruak ez ziren lekuz aldatu atzerriko inbertsioaren lurralde hartzaileetara. Horrek, lurraldeen berrikuntzarako gaitasuna ez garatzeko lagundu zuen (Tödtling, 2011).

Beste desoreka batzuk enpresen lehiakortasunean eman ziren. Enpresa lokalak —txikiak oro har—, ezin zuten lehiatu erakarrirako atzerriko enpresa handiekin; eta merkatutik kanporatuak ikusi ziren. Estatuetatik bidalitako pizgarriak azpiegitura bultzatzeko soilik izan zirelako, eta beraz, tokiko enpresen, giza baliabideen edo teknologiaren zabalkuntzan laguntzarik eman ez zirelako (Pike et. al., 2006). Gainera, ingurune naturalarekiko ere desorekak sortu zituzten; estrategia hauek ez baitzuten garapen jasangarriaren inguruko ardurarik (Tödtling, 2011). Eta naturarekiko arreta gutxi bazuten ere, are gutxiago zuten biztanleen bizimoduari edo giza garapenari zegokionean. Eskualdeko bizimoduari erreparatu gabe, goitik —estatuetatik— eratorritako politikak ziren heinean. Azkenik, Vázquez Barquerok (1999a, 2003) dionez, eta Pike et. al. (2006:16) jasotzen duten moduan, goitik beherako politika hauek beste eragin negatibo garrantzitsu bat eramán zuten lurraldeetara. Izan ere, politika hauen derrigorrezko izaerak tokiko biztanleriaren gain ere eragina izan zuen; jendarteak alienatu, eta euren lurraldeen garapen ekonomikorako estrategien eraikuntzan ez zutelako parte hartu.

Estatuz azpiko lurraldeak garatzeko *top-down* politikek beraz, ez zuten orokorrean emaitza positiborik izan. Hauen hutsegitea hala ere, ez zen izan faktore bakar batengatik. Modu ezberdinetan azaldu daiteke zergatik goitik beherako garapen politika hauek ez ziren eraginkorrak izan. Batzuk, ez zuten zuzenean zentralki planifikatutako politiken diseinuarekin zer ikusirik izan, lurraldeen gaitasunekin baizik. Izan ere, lurralde batzuen hezkuntza falta, kohesio sozial eza edo instituzioen ahulezia politiken funtzionamendu egokirako oztopo izan ziren. Beste batzuk, politiken planifikazioarekin zerikusia izan zuten, eta dagoeneko azaldu ditugun arrazoiengatik porrot egin zuten. Hauen artean adibidez, garapen estrategiak soilik behar gehien zuten esparrura

bideratzeagatik —normalean azpiegiturara— eta garapenerako beharrezkoak diren beste faktoreez ahazteagatik, edo tokiko ekonomian dinamismoa sorrarazten ez zuten atzerriko enpresak erakartzeko politikak bideratzeagatik ez zuten arrakastarik lortu.

Zentzu honetan, tokiko garapenaren ikuspegi Marshalliano batetik idazten duen Sforzi-k (1999), ekarpen interesgarria egiten du, garapen politika hauek izandako arrakasta eza azaltzeko. Bere ustez, geografia ekonomikoak izandako bilakaeragatik izan da. Izan ere, ikuspegi ortodoxoei jarraika, espazioa alde batera geratu da analisi unitate gisa, enpresaren mesedetan. Hau da, modu bertikalean antolatuta dagoen eta barne eskala ekonomiak lortu ditzakeen enpresa industrial handiaren mesedetan. Sforzirentzat, enpresek, edo gehienez jota sektore ekonomikoek, isolatuta kontsideratu dira, euren inguruneetatik aldentuta. Horrela, enpresen kokalekua erabakitzeko, enpresaren ikuspuntutik egin dela dio, enpresa beraren helburua mozkinen maximizazioa dela kontsideratuz, eta kontutan hartu gabe honek lurraldean dituen inplikazio ezberdinak. Enpresa, hazkundera —eta garapena— sortu dezakeen unitate bakar eta isolatua bezala kontsideratua izan delako.

Ildo honetan, ikuspegi honen bi ondorio antzeman ditu: Lehen, enpresak garapenerako eragile zentralizat hartzea litzateke, interakzionatzen duten ingurunea kontutan hartu gabe. Bigarrena, barne eskala ekonomiak sortzen dituen enpresa industrial handia eta bertikalki antolatutakoaren ideiarene aurrean, bestelako ereduak ez onartzea litzateke. Modu honetan, lurraldean oinarritzen diren eta kooperazioaren bitartez eskala ekonomiak lortu dezaketzen espezializazio malguko barruti industrialak ez dira garapenerako eredu baliagarritzat hartzen. Gainera, enpresek, lurraldeetako lokalizazio ekonomietatik lortutako abantailak ezkututzen dira analisisetan. Horrela, lurraldeek eskaintzen dituzten bereiztasunetan eta abantailetan arreta jarri gabe, atzerriko inbertsio zuzena erakartzen saiatu dira hazkunde ekonomikoaren teoria ortodoxoei jarraituz.

2.2.1.2 Behetik gorako “bottom-up” politikak:

Nahiz eta kasu batzuetan lehenago hasi, oro har, 80ko eta 90eko hamarkadetan, ordura arte nagusia zen *top-down* ikuspegi tradizionala aldarazten hasi zen; eta alderantzizko logika duten behetik gorako estrategia berriak garatzen hasi ziren munduko eskualde batzuetan (Amin, 2000).

Garapen estrategiak behetik abiatzeak, estatu zentraletik zetozen politiken aurrean desberdintasun handiak ekarri zituen. White eta Gasser-ek (2001), *bottom-up* politiken inguruan lau ezaugarri esanguratsu identifikatzen dituzte. Bistakoena, lurraldean oinarritzen direla litzateke. Ikusi dugunez, *top-down* politikak ez dituzte tokiko agenteak eta baliabideak kontutan hartzen, baina behetik gorako politikek hauek barneratzeko joera handiagoa erakusten dute. Ildo honetan aipatutako beste hiru ezaugarriak agertzen zaizkigu. Batetik, behetik gora doan politika bat aurrera ermateko, ohikoagoa dela baliabide lokalen mobilizazioan oinarritzea. Bestetik, politiken diseinua eragile lokal ezberdinen arteko parte-hartze eta eztabaida prozesuen bitartez egiten dela. Eta azkenik, politika horiek lokalki bideratzen direla; eta beraz, hauen diseinua tokiko beharretara hobeto egokitu daitezkeela. Horregatik, lurraldeetan sortu eta abian jartzen direlako, eta tokiko baliabideak eta eragileak mobilizatzeko erraztasun handiagoa erakusten dutelako, behetik gorako prozesu hauek tokiko garapenaren paradigma osatzen dute; praktikara jotzerakoan kasu batetik bestera egon daitezkeen ezberdintasunak handiak izan daitezkeen arren.

Eragin eremuari, baliabideen jatorriari, eragileen parte-hartzeari eta estrategien diseinuari lotutako desberdintasun hauetaz gain, beste batzuk ere antzeman ditzakegu *top-down* politikekiko. Ildo honetan Pike et. al., (2006) praktikan ematen diren beste bost ezberdintasun antzeman dituzte. Lehena, garapena nora bideratu nahi den azaltzen du. Garapen politikak estatu zentraletatik planifikatzen eta ezartzen badira, soilik estatu zentralak erabakitzen duen eskualde horietan aplikatuko dira. Eta hauek, lehenengo kapituluan ikusi dugun moduan, eskualde atzeratuenetan garapena lortzeko politikak izan ziren. Tokiko garapenak aldiz, lurraldeetatik abiatzen denez, edozein lurraldean aplikatu daitezkeen estrategien multzoa osatzen du. Ondorioz, tokiko garapen estrategien diseinuan tokiko eragileak parte hartzen dute, hauen arteko harremana horizontalagoa izanik. Hauxe da, hain zuzen ere, bigarren ezberdintasuna. Hirugarrena, politiken eragin eremuaren inguruan emango litzateke. Estatu zentralek, sektore ekonomiko industrial konkretuen sustapenean oinarritu ohi dira beti. Aldiz, behetik gorako politikak, lurraldearen diagnostiko baten ostean erabakitzen dira; eta oro har, lurraldearen sektore guztiei zeharka eragiten diete. Izan ere, tokiko garapenerako estrategiek, tokiko bereiztasunen —tradizio industrialak, kohesio soziala edo ezaugarri instituzionalak— eta beharrezanaren inguruko analisi holistikoa egiten dute, ondoren, plan estrategiko bat abian jartzeko. Hortik ere eratortzen da laugarren ezberdintasuna. Estatuek zuzendutako garapen estrategiak egiten duten bezala azpiegituraren

eraikuntzan, enpresa handien edo atzerriko inbertsio zuzena erakartzean oinarritu ordez, behetik gorako politikek, lurraldean dagoen potentziala aktibatzen saiatzen dira sistema ekonomiko lokalera hobekien atxikitzen diren neurriak ezartzeko. Azkenik, garapenerako baldintzak egokitzeko orduan, goitik beherako politikek, laguntza finantzarioak, subentzioak etab. eskaintzen dituzte enpresa handiak erakartzeko. Aldiz, behetik gorako estrategiek, eskaintza handitzearen aldeko baldintzak ezartzean oinarritzen dira, tokiko enpresa ehuna egoera kaltegarri batean ez uzteko kanpotik etorri daitezkeen enpresen aurrean.

Ikuspegi aldaketa honek, garapen estrategien berregituraketa ekarri du. Estrategiak sortzeko eta aurrera eramateko orduan, hauek nolakoak izan behar diren erabakitzeko eskubidea laga zaio jendarte lokalari. Horrek, erabakiak aberastu ditu, erabaki hartze prozesu demokratikoagoak ezarri baitira. Horrela ere, jendarte lokalean harremanak areagotzen dira; eragileen artekoak eta erakunde (publiko) ezberdinekin. Eta, azken hauekiko erlazioen areagotzearen ondorioz, gardenagoak eta irekiagoak izatera bultzatu dituzte erakundeak; jendarteak hauekiko duen kontrola handitu den heinean. Horrez gain, erabakitzeko eskubidea jendarte lokalean egoteak, garapen estrategien norabidea aldatzea eragin du. Jendarte lokalak garapen jasangarriago baterantz bideratu ohi dituelako garapen estrategiak.

Hala ere, muga batzuk ere antzeman ditzakegu. Garrantzitsuena agian, denboraren kontua izan daiteke. Izan ere, asko luzatu daitezke prozesu hauek eragile ezberdinen inplikazioa lortu eta hauen arteko adostasunetara heldu behar delako, eta hauek interes kontrajarriak izan ditzaketelako. Gainera, estrategia hauek, denboran diluitu egin daitezke berehalako emaitzak erakusten ez dituztelako. Eta ildo honetan, emaitzak azkarrago erakusten dituzten epe motzeko politikak hartzeko joera eman daiteke; azpiegituretan eta atzerriko inbertsio zuzena erakartzean oinarrituta daudenak, alegia (Pike, et. al., 2006).

2.2.2 Bertakoa landuz ala kanpokoak erakarriz? Garapen endogenoa:

Garapen endogenoa —edo tokiko garapen endogenoa—, 80ko hamarkadan lurraldeen garapenari begiratzeko sortzen den ikuspegi bat da. Ikuspegi sistemikoa jorratzen du, garapena azaltzeko aldagai ekonomikoez gain lurraldean ematen diren bestelako dinamika instituzionalak ere barneratzen dituelako. Ohikoa da hala ere, tokiko garapenaren inguruko literaturan nabigatzen badugu, tokiko garapena eta garapen endogenoa sinonimotzat tratatzen dituzten autoreak aurkitzea. Eta, elementu komun

asko dituztela egia bada ere, tesi honetan, bi ikuspegi hauek bereizten dituzten elementuetan arreta jarriko dugu. Izan ere, teorikoki tokiko garapena eta garapen endogenoa kasu askotan bata besteagatik ordezkatuak izan diren arren, praktikara jotzen badugu, garapen endogenoak ekarpen garrantzitsua egiten dio tokiko garapenari: lurraldeek berezkoa duten potentziala —endogenoa— mobilizatuz lortzen den garapenarena alegia.

Berez, aurreko atalean ikusi dugun behetik gorako ikuspegia barneratzearekin bakarrik ez dago ziurtatua berezko baliabideetan —baliabide endogenoetan— oinarritutako garapen estrategia bat aurrera eramango denik. Izan ere, badira behetik gora planifikatutako estrategiak, goitik beherakoak bezala, azpiegitura handien eraikuntzan eta pizgarri ekonomikoetan oinarrituta daudenak atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko. Hortaz, garapen endogenoa, baliabide, faktore eta indar endogenoetan oinarrituta, behetik, lurraldeetatik, aurrera eramaten den garapen prozesua litzateke (Vázquez-Barquero, 1997a eta 2003; Tödtling, 2011). Ildo honetan ere, Boisierrek (2009:28) Vázquez-Barqueron (1997b) oinarrituta dionez, garapen endogenoa prozesu berritzaile bat litzateke non lurraldea ez den enpresa handien hartzaile pasibo bat, baizik eta estrategia propioa duen, eta ekonomian eragiteko gai den elementu aktibo bat. Hau da, interpretazioa erraztuko duen eskema mentala eginez, garapen endogenoa behetik gorako garapen eredu bat litzateke; baina behetik gorako garapen eredu guztiek ez dira baliabide endogenoetan oinarritzen.

Hemen garrantzitsua da ñabardura bat egitea. Geroz eta liberalizatuago dagoen nazioarteko merkataritzak, ondasun, zerbitzu eta inbertsio globalak eskura jartzen ditu. Honek, lurraldeak nazioarteko merkatuetan integratzea erraztu du, eta beraz, tokiko egitura produktiboak esportazioetara bideratu ohi izan dira. Horrela, ekonomia lokalen espezializazioa areagotu egin da. Eta hedaturaz, nazioarteko merkatu-transakzioak. Lurraldeek, esan dugunez, nazioarteko merkatuetan daukaten kuota handitzea bilatzen dute. Horretarako, lurraldeek berezkoak dituzten abantaila konparatiboak (baliabide propioak, inbertsio gaitasuna, lan-indarra...) eta garatu ditzaketen abantaila lehiakorak (marko instituzional onuragarria, zientzia eta teknologia sistema...) erabiltzen dituzte. Argi dago, abantaila hauek mobilizatu ditzaketen lurraldeentzako errazagoa izango dela merkatu globaletan lehiakortasunez integratzea; baina argi dago ere, lurralde guztiek ezin izango dutela, egoera txarragoan daudelako, geroz eta lehiakorragoak diren merkatuetan barneratzea. Honekin lotuta, atzerriko inbertsio zuzenaren auzia areagotu

egin delarik. Hau da, lurraldeek, atzerriko enpresen hartzaile zuzena izatearena. Garapen endogenoaren ikuspegitik, egoera honen guztiaren irakurketa kritikoa egiten da (Zurbano et. al, 2014a). Hurrengo taulan, nazioarteko merkataritzaren liberalizazioarekin lotutako onurak eta eragin negatibo batzuk biltzen dira:

2.2. TAULA: Esportazioen, atzerriko inbertsio zuzenaren eta nazioarteko merkataritzaren liberalizazioaren onurak eta eragin negatiboak lurraldeetan

	Onurak	Eragin negatiboak
Esportazioetan oinarritutako egitura produktiboa	<ul style="list-style-type: none"> - Sarrera gehiago - Enplegu gehiago - Lehiakortasuna - Dibertsifikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Lanaren banaketa internazionala: <ul style="list-style-type: none"> o Tokiko sektore ez lehiakorren suntsiketa (nahiz eta balio erantsi handia izan dezaketen) o Dibertsifikazioa balio erantsi txikiagoko sektoreetan eman daiteke
Atzerriko inbertsio zuzena erakartzea	<ul style="list-style-type: none"> - Trickle-down effect: <ul style="list-style-type: none"> o Hazkundera o Errenta mailaren igoera o Sarrera fiskalak - Transferentzia teknologikoa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Disparekotasuna. - Enpresa lokalak merkatuetatik baztertzea. - Sarrera fiskalak ez lortzea (zerga-ihesa). - Transferentzia teknologikoa ez da automatikoa. - Atzerriko enpresei erraztasunak eman (tokiko enpresek lehiazteko ezintasuna).
Nazioarteko merkatuaren liberalizazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Ondasun, zerbitzu eta inbertsio gehiagoetara iristea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ondasun, zerbitzu eta inbertsioetara irisgarritasun gutxiago izatea (adibidez, pribatizazioen bitartez). - Lurralde galtzaileak eta irabazleak

Iturria: Zurbano et. al. (2014a). Egileak moldatuta

Dena den, garapen endogenoak ez ditu nahitaez lurraldetik kanpo dauden baliabideak baztertzen. Hau da, garapen endogenoa bada ere, ez da lurralde bateko garapena modu autarkikoan bilatzen duen eredu. Batetik, dagoeneko esan den moduan, erabaki ahalmena duten maila altuagoko eskalekin harremanak koordinatzea beharrezkoa delako. Hauek, udalerriak, eskualdeak, estatua edo estatuz gaindiko erregulazio eskalak badira ere. Eta beraz, harreman horietatik etor daitezkeen inbertsioa laguntzeko pizgarriak onartu daitezke, noski. Eta bestetik, garrantzitsua da ere, kanpotik etorri ahal diren baliabideak endogenizatzea (Albuquerque, 2003 eta Boisier, 2004 eta 2005a). Hots, lokalki erabakita, baliabide edo kapital exogenoak eta lurraldearen epe luzerako garapen autosostengatuta, uztartzen duten estrategiak aurrera eramatea. Hau da, garapen endogenoak dependentziarik sortzen ez duten baliabide eta kapital exogenoak onartu ditzake; garapen strategiaren parte bihurtuz. Horrela, lurraldean

errotu edo endogenizatuko dira; eta, azken finean, garapen prozesuaren parte egingo dira (Zurbano et. al., 2018).

Beraz, baliabide endogenoek edo baliabide exogenoen endogenizazioaz ari garenean, azken finean, garapen prozesuaren endogenitateaz ari gara. Hau da, lurraldea eta tokiko jendarteek garapen prozesuaren kontrola edo jabegoa zein puntura arte daukaten aztertzen ari gara. Baliabide endogenoak mobilizatu dituzten edo ez, eta hau nola egin duten alde batetik; eta baliabide exogenoak zein puntura arte garapen prozesuaren parte bihurtu dituzten bestetik. Horrela, lurraldea eta tokiko jendartea, garapen prozesuaren protagonistak izango dira; eta beraz, tokiko sistema sozio-ekonomikoa eraldatzeko aukera eurek izango dute.

Boisierrek (2005a), endogenitatea elkar gurutzatzen diren lau mailatan eragiten duela aipatzen du. Lehenengo maila, maila politikoa litzateke. Tokiko jendartearen ahalduztze prozesu baten bitartez agertzen da; non garapen estrategiaren negoziazio eta erabakitze prozesuetan parte-hartzen duen. Ondoren, epe luzean mantentzeko gai den ekonomia dibertsifikatua lortzea litzateke bigarren maila. Hirugarrena, lurraldeak berak zientifikoki eta teknologikoki hazteko duen gaitasuna litzateke. Eta azkenik, laugarren maila, maila kulturala litzateke. Azken hau, identitate lokalaren sortzailea izanik.

Praktikara etorruta, Vázquez-Barquerok (2009) garapen endogenoan oinarritutako prozesuek, ahalik eta arrakastatsuenak izateko ondorengo bi ezaugarri beharrezkoak dituztela dio: Lurralde bakoitzak duen garapenerako potentziala eta aktore lokalen antolakuntza eta koordinazio gaitasuna.

Vázquez-Barquerorentzat (1997a), garapen endogenoko prozesuak lurralde bakoitzak berezkoak dituen instituzioek eta erregulazio-mekanismoek ahalbidetzen duten garapenerako potentzial espezifikoa erabiltzeari esker gertatzen dira. Autorearentzat, lurralde bakoitzak garapenerako potentziala dauka, bertan dagoen baliabideen multzoa, egitura produktiboaren antolaketa, lan merkatua, ezagutza teknikoak, baliabide naturalak, egitura sozial eta politikoa edo tradizioa eta kultura bezalako elementuen gain garapenerako ekimen lokalak artikulatzen baitira. Eta beraz, hauek guztiak tokiko garapen prozesuak baldintzatzen dituzte, dinamika ekonomikoa errazten edo mugatzen dute, eta, azken batean, garapen endogenoaren bide espezifikoa zehazten dute.

Bigarren faktoreak, aktore lokalen antolakuntza eta koordinazio gaitasunari egiten dio erreferentzia; izaera anitzeko aktore lokalen koordinazioa beharrezkoa baita tokiko garapen politikak aurrera eramateko. Izan ere, garapen endogenoa tokiko enpresei, antolakunde ezberdinei, herri-erakundeei, eragile sozialei, eta, azken finean, jendarte zibilarri garapenaren eta aldaketa estrukturalaren diseinuan lehentasunezko paper aktibo bat eskaintzen dizkie. Eta honek beraz, tokiko eragileei (aurreko guztiak barne) arazo sozialak erantzuteko beharrezkoak diren ekimen ekonomikoen gaineko kontrola izatea eskaintzen die (Vázquez-Barquero, 2009).

Horregatik, bi ezaugarri hauek duten espezifikotasunagatik, ulertu behar da tokiko garapen endogenoko estrategiak lurralde bakoitzerako ezberdinak izan behar direla. Izan ere, eskualde bakoitzeko beharrak edo eskakizunak ezberdinak dira; lurralde bakoitzaren potentziala ezaugarri ezberdinen gainean eraikita dagoen heinean.

Laburbiltzearen, Tödtlingek (2011: 335-336) garapen endogenoaren inguruko literaturan bat egiten duten zazpi ezaugarri bereizten ditu:

- Helburu ekonomiko, sozial eta ingurumenaren ingurukoak uztartu; epe luzeko ikuspegia duten tokiko garapen politiken bitartez. Hortaz, garapena adierazle ekonomikoen begirada gaitzen du; eta errenta per capita eta tokiko ekoizpena begiratzea baino, pertsonen bizi baldintzak zein ingurumenaren egoera hobetzera bideratzen da.
- Kanpoko baliabideak erabiltzea baino, baliabide eta indar endogenoak mobilizatzea bideratuta dauden estrategiak dira.
- Garapen estrategia zabalak dira, zeinetan industriaz gain beste sektore ekonomiko ezberdinak barneratu behar diren.
- Garapen estrategien ikuspuntu zabal hori, sektore ezberdinetan ekintzailtza bultzatzen dute. Sektore berritzailetako enpresa hauek, estatu zentralek aurrera eramaten dituzten goitik beherako politiketatik ere onurak lortu dezakete.
- Berrikuntza, garrantzi handiagoa hartzen du garapen endogenoko estrategietan. Izan ere, berrikuntza teknologikoaz gain, enpresa-berrikuntza eta berrikuntza soziala bultzatzen da.
- Kultura eta bestelako egitura sozio-ekonomikoa propioa ere garrantzi handiko faktore gisa kontsideratzen dira; lurraldearen bereiztasunak hauetan kontzentratzen direlako. Beraz, ekonomikoki begiratuta, hauek kopiatzeko

zailtasun handiak dituzte lehiakideek; hortaz, abantaila lehiakorra bihurtu daitezke. Sozialki gainera identitatea sortzen duten faktoreak dira.

- Faktore ekonomikoez gain, indar sozial eta politikoak garrantzi handia hartzen dute. Horrela, agente sozialek, mugimendu sozialek eta jendarte zibilak berebizikoak dira garapen estrategiak diseinatu eta aurrera eramateko; erabaki hartze prozesu deszentralizatuen bitartez.

2.3 Tokiko garapenerako ereduak:

Tokiko garapena beraz, behetik gorako ikuspegia lantzen duten lurraldeen garapenerako ikuspegiari jarraitzen dio. Boisierrek (2009) esaten duen moduan, tokikoa edo lokala izateak, garapen ereduaren inguruan zerbait azaldu baino, adjektibo bat da; lurraldeetatik abiatuta ematen den garapena esan nahi duena. Izan ere, dagoeneko esan dugun moduan, ez dago garapenari, eta hedaturaz tokiko garapenari begiratzeko ikuspegi teoriko bakarra; eta are gutxiago eredu enpiriko bakarra. Atal honetan, Moulaert eta Sekia-k (2003) *territorial innovation models* bezala izendatutako ereduak erreparatuko diegu. Hauek, lurraldeen egitura produktiboaren antolaketaren arabera berrikuntza eta garapen ekonomikoa sustatzeko sistema edo eredu ezberdinak direlarik.

Hauetako bakoitzak, garapenaren elementu batzuei edo besteei zentralitatea ematen die, bakoitzak oinarri teorikoak eta garapenari begiratzeko ikuspegi propioak dituen heinean. Horrela, adibidez, barruti industrialetatik begiratuta, tokiko instituzioei garrantzi handiagoa ematen zaie; espazio industrial berriek enpresen aglomerazioen ondorioz lortzen den malgutasunari eta kostuen txikitzeari; milieux berritzaileak eragile ekonomikoen arteko harreman dinamikoen ondorioz sortzen diren berrikuntzei; klusterrek enpresen lehiakortasunari; erregio berrikuntza sistemek berrikuntzarako prozesu kolektiboak; ikasten duten erregioek ikaskuntza kolektiboaren prozesuei; sozialki berritzailea den erregioa berrikuntza sozialeko prozesuei; eta klase sortzaileak, sektore sortzaileetan lan egiten duten langileen berrikuntzarako gaitasunari.

Hauek, esan dugun moduan, geografia ekonomikoaren eta honen barnean batez ere lurralde garapenaren inguruko literaturan garrantzi esanguratsua lortu duten ereduak dira; baina ez dira bakarrak. Are gehiago, badira garatuko ditugun eredu bakar batekin identifikatzen ez diren tokiko garapenerako esperientziak. Adibidez, soilik “tokiko garapen” edo “garapen endogeno” bezala izendatzen direnak. Hau, tokiko garapena etengabeko eraikuntzan eta aldaketan dagoen diziplina delako ematen da. Gainera,

definituta dauden eredu bakoitzaren arteko mugak ez dira beti oso argiak, eta nondik idazten den begiratu beharko da. Egon badaudelako kasuak non esperientzia berdinari modu ezberdinean izendatzen zaion. Beraz, atal honetan eredu bakoitzaren berezko ezaugarri garrantzitsuenei arreta jarriko diegu, nahiz eta eredu batzuk beste ereduakin elementuak partekatzen dituzten.

Are gehiago, badira azalduko ditugun eredu guztiek partekatzen dituzten elementu komunak. Hauek, besteak beste, ekoizpenaren antolaketa malgua, berrikuntzaren ikuspegi kolektiboa, eta, nola ez, garapen eredu lurralderatuak direla (Gainza, 2008). Oro har, eredu hauek, ekonomia lokalaren dinamismoa sustatzeko, inbertsioarekin, berrikuntzarekin eta ezagutzarekin erlazionatutako agente ezberdinak harremanetan jartzen dituzte (Moulaert eta Nussbaumer, 2005a).

2.3.1 Adibideak:

Ereduaren azalpenaren ordenari dagokionez, kronologikoa izango da. Lehenengo hirurak batez ere 80ko hamarkadan tokiko ekoizpen egitura antolatzeko ereduaren inguruko eztabaidan protagonistak izan ziren. Batez ere enpresa handiek sortzen zituzten eskala ekonomiei aurre egiteko izan zuten gaitasunagatik. Eta, ondorengoak, 90ko hamarkadan eztabaida ezagutza eta berrikuntzaren prozesu kolektiboen inguruan ezarri zenean nagusitu ziren. Hauek, prozesu berritzaileak sistema bat bezala ulertzen hasten delako indartzen dira; non enpresa berrikuntzarako unitate analitikoa izatetik lurraldea izatera igarotzen den. Azkenik, hirietan eta auzoetan batez ere, garatutako eredu komunitario eta kulturalak aztertuko dira.

2.3.1.1 Barruti industrialak:

Azterketa honetarako Italiara joango gara lehenengo, bertan sortu baitzen barruti industrialak bezala ezagutzen dugun ereduak. Ekoizpen eredu fordistak egonkortasuna eta masa ekoizpena eta kontsumoa behar zuen bere garapen egokirako; ondorioz, enpresa handiek fordismoaren antolaketa industrial esanguratsuen bihurtu ziren. Enpresa handiak, barne eskala ekonomiak sortzeko gaitasun handia zuten antolaketa bertikalak ziren; eta beraz, masa ekoizpenerako egokienak omen ziren. Krisi fordistarekin, agerian gelditu ziren, Sforzic (1999) esaten duen moduan, dagoeneko existitzen ziren baina akademikoki baztertuta zeuden integrazio horizontalean oinarritutako industrializazio ereduak; batez ere Bagnasco-k (1977) “*tre Italie*” edo “hirugarren Italia” bezala izendatutako eremuaren arrakasta agerikoa egin zenean.

Hala ere, antolaketa industrial bertikalaren aurrean bestelako eredu bat antzeman zuten lehenak, historian atzerago bilatu behar dugu. XIX. mendeko bigarren erdialdean, Alfred Marshallek, garaiko industrian bi motatako ekoizpen prozesu eraginkor elkarbizitzen zutela ikusi zuen. Enpresa handi eta bertikalena alde batetik, eta eskualde bateko herri batean edo gehiagotan kontzentratutako enpresa txiki eta espezializatuen bitartez aurrera eramaten ziren ekoizpen prozesurena bestetik. Azken honetaz konturatzea izan zen hain zuzen ere ildo honetan egin zuen ekarpenik nagusia. Izan ere, beste ekonomialariek antolaketa-logikarik gabeko aglomerazioak ikusten zituzten eremuetan, Marshallek barruti industrialak ikusi zituen. Barruti hauetan, enpresa bakoitza ekoizpen prozesu komun bateko fase ezberdinetan espezializatzen zen; eta, integrazio horizontal baten bitartez lan egiten zuten. Eta azken hauek, Marshallen iritziz, ez zuten zertan eraginkortasun txikiagoa izan beharrik (Becattini, 2002).

Izan ere, barrutian enpresen dentsitatea nahikoa baldin bada, eta hauek ekoizpen prozesu berdineran bideratuta baldin badaude, ekoizpen kopuru handia dagoenean, komenigarria izan daiteke ekoizpen prozesuaren fase bakoitza enpresa txikiei igortzea. Horrela ere, industria osagarriak sortuko dira. Hala ere, barrutia garatzeko, beharrezkoa da enpresa sare horiek eskualdeko ezaugarri sozial eta kulturalekin bat egitea (Becattini, 2002).

Industria barrutia beraz, nolabaiteko ehun konplexu bat bezala definitu daiteke, non kanpo-eragin ekonomikoak, kostuen banaketa eta gutxitzea, arrasto historiko-kulturalak eta enpresa zein pertsonen arteko ikasketak eta erlazioak ematen diren; Marshallek definitutako “atmosfera industrial” sortuz (Gatto eta Quintar, 1992). Beste era batera, Becattinik (1979), barruti industrialak ekoizpenerako eta bizitoki den entitate sozio-territoriala bezala kontzeptualizatzen du; non jarduera ekonomikoaren eta eguneroko bizitzaren arteko sinergiak ematen diren. Horrela, egitura produktiboa tokiko balio historikoez, sozialez, kulturez etab. bustitzen da. Marshallentzat (1919), industria barrutia, industria berdinean emandako enpresa txikien kontzentrazioa baino gehiago zen; tokiko sistema industrial horren eta bertako jendarte lokalaren arteko erlazio banaezina zegoelako.

Marshallen garaiko ikuspegi ekonomiko ortodoxoak kapitala eta lanaren mugikortasun askea suposatzen zuen. Marshall, hala ere, konturatu zen praktikan hau ez zela ematen. Izan ere, biztanleria kulturalki, sozialki edo sektorialki banatuta dago. Ildo honetan Marshallek, “nazio ekonomikoaz” hitz egiten zuenean, berdin dio

kontzeptuaren lehenengo edo bigarren bertsioan¹⁰, interes ekonomiko partekatuak izateagatik kohesio sozialaren areagotzea ematen dela ondorioztatu zuen. Becattinirentzat (2002), Marshallek ideia hau garatzerakoan, estatu-nazioa oinarrizko analisi unitate gisa errefusatzeko zuelako izan zen; historikoki, geografikoki, kulturalki, sozialki, lanagatik etab. interkonektatuagoak dauden banako anitzez osatutako komunitate baten aurrean. Hau, barruti industrialak antzeman eta azaltzeko baliagarria izan zen.

70eko hamarkadaren erdialdean, lehen aipatu dugun “hirugarren Italiako” hiri eta eskualdeetan arrakasta ekonomikoa lortu zen, espezializatutako jarduera industrial ezberdinen bitartez. Becattinik (1979), hiri eta eskualde horietan emandako ekoizpen sistemei erreferentzia egiteko, “barruti industrialak” termino Marshallianoa berreskuratu zuen. Terminoarekin batera, ikusi dugunez, lurralde konkretu bateko enpresen arteko konexioa zetorren; eta beraz, analisi unitatea enpresa bat izatetik, enpresa multzo bat izatera igaro zen (Brusco, 1990).

Barruti industrial hauek ez zegoen enpresen estruktura hierarkikorik, eta beraz, koordinazio lana baldin badago, horretaz arduratzen ziren agentzien bitartez egiten zen. Enpresen artean, aldi bereko lehia eta kooperazioa nagusi zen, bertatik eratorritako abantaila ezberdinak ematen zirelarik. Batetik, behar adina enpresa badaude, eta hauek txikiak eta espezializatuak badira, oso merkatu lehiakorra osatuko da barrutian; enpresak berrikuntzara zein errekurtsioak eraginkortzera bultzatuz. Enpresek ekoizpen prozesuko fase edo zerbitzuak eskatu eta eskainiko dituzte; horrela enpresa bakoitzak hornitzaile eta bezero kopuru handia izango ditu. Bestetik, lehiaren bitartez barrutiaren kohesioa arriskuan ez jartzeko, elkarrekotasun tradizioa beharrezkoa da (Gatto eta Quintar, 1992). Izan ere, elkarrekiko kooperaziorik gabeko lehia batek enpresak merkatutik kanporatu ditzake barrutia ahulduz. Hortaz, barrutiak bermatu behar du egoera konkretu baten ondorioz galtzaile ateratzen den enpresa batek etorkizunean lehian jarraitzeko aukera izango duela (Becattini, 1991).

¹⁰ Lehenengo bertsioak ikuspegi geografikoagoa dauka. Izan ere, kultura berdina partekatzen duen toki bati buruz hitz egiten du. Tokia, kasu honetan ez du zertan erregulaziorako unitate politikoarekin, hots estatu-nazioarekin, bat egin beharrik; bai hori baino espazio txikiagoa osatzen duelako edo baita estatu ezberdinen artekoak izan daitezkeelako. Bigarrena, berdina bezala kontsideratzen diren pertsonen multzo bati egiten dio erreferentzia. Hau klaseagatik edo lan egiten duten sektoreagatik mugatuta egon daiteke.

Laburbilduz, industria barrutiei hiru jatorri teoriko antzematen zaizkie. Lehenengoa, Marshallen lokalizazio ekonomien ingurukoa. Bigarrena, espezializazio malguan oinarritutako antolaketa industrialaren ingurukoa. Eta azkenik, hirugarren Italian egindako ikerketa enpirikotik eratorritakoa.

1. KOADROA: Italiako barruti industrialak

60ko hamarkadaren amaieran, fordismoaren gailurrean, Italiako erdialdeko eskualde batzuetan enpresa txikiez —kasu gehienetan familiarrak— osatutako manufaktura-industria artisaua sortzen hasten da. Garaian indarrean zegoen garapenaren ikuspuntuaren kontra, hauek, azpiegitura eta irisgarritasun maila mugatua zituzten eskualdeetan ezarri ziren; hirugarren Italian. Hirugarren Italia, Emilia-Romagna, Marche, Toscana, Umbria eta Veneto-ko eskualdeek osatzen dute. Italiako erdialdean kokatuta daude; iparraldeko eskualdeen garaiko garapen eredu fordistaren eta hegoaldeko eskualdeen azpigarapenaren artean. Lehen begiratu batean, euren kokapenagatik, iparraldeko eskualdeen aurrean lokalizazio ekonomiak lortzeko zailtasun handiagoak izango zituzten lurraldeetan.

Hala ere, enpresa publiko eta pribatu handien gainbeheraren aurrean, sortu berriak ziren enpresa hauen jardueragatik, tokiko errenta, enplegua eta esportazioak hazten hasi ziren. Enpresa hauen kokapenagatik (ez ziren kokatu Italiako eskualde garatuenetan ezta hirietan), ekoizpen sektorengatik (ehungintza, arropagintza, zapatagintza, larrugintza edo altzarigintza) edo izaeragatik (enpresa txikiak), akademikoki eta politikoki, eskualde hauen porrota aurreikusten zen. Alabaina, enpresa hauek merkatu globaletan lehiatzeko gaitasuna erakutsi zuten. Herrialde garatuen azpiegituren, ezagueren eta kapitalean intentsiboak diren jardueren aurrean eta ekoizpen azpigaratuagoa duten herrialdeen lan kostuen baxuen aurrean. Industria hauen arrakasta, eskualde horietan zegoen manufakturen tradizioaren bitartez azaldu daiteke neurri batean. Izan ere, oinordetutako jakintza industrial eta teknologia berriek eskaintzen zuten eskariari egokitzeko malgutasuna, nazioartean lehiatzeko aukera eman zien.

Antolaketaren aldetik, enpresa hauek geografikoki kontzentratuta zeuden eta bakoitzak ekoizpen prozesuaren zati batean espezializatuta zegoen. Hau da, ekoizpen prozesua, barrutia osatzen zuten enpresen artean banatuta zegoen; bakoitza fase batean espezializatuta zegoelarik. Horrela, prozesuen azpikontratazioaren bitartez, enpresa txikien sare bat sortu zen kooperazioan oinarrituta zegoelarik. Enpresa handiek lortzen dituzten eskalako barne ekonomiak, aglomerazioak eskaintzen dituen kanpo ekonomiengatik ordezkatu zituzten.

Barrutiak egonkortzeko berme kolektiboko sistema ezberdinak sortu ziren. Batetik, enpresen izaeragatik, konfiantzan eta elkarrekikotasunean oinarritutako erlazioak sortzera lagundu zuten. Hauek, besteak beste ikaskuntza kolektiboa eta ezagutza teknikoen zabalpenerako ezinbestekoak izanik. Gainera, ekimen kolektiboko entitateak ere sortu ziren; hauen adibide esanguratsuen eskualdeetan sortutako kreditu kooperatibena izanik. Bestetik lurraldearen historia, kultura eta erlazio sozialak, komunak ziren balio eta jardunbideak sortzen zituen. Barrutien hedapenak, bestelako zerbitzu publiko, sozial, kultural, politiko eta abarren garapena ere eraman zuen eskualdeetara.

Iturria: Helmsing (1999); Becattini (2002).

2.3.1.2 *Espazio industrial berriak:*

Ekoizpen malguan oinarrituta ere, espazio industrial berriak edo *new industrial spaces* esangura handia izan zuten AEBetako Kaliforniako eskualdean batez ere. Izan

ere, ikuspegi hau, bertan sortutako geografia ekonomikoko Kaliforniako eskolako autoreek garatu zuten Storper eta Scott-en (1988) ekarpenean oinarrituta.

Espazio industrial berriek, ekoizpen malguan oinarritzeagatik eta aglomerazioengatik lortutako abantailak aprobetxatzeagatik barruti industrialekiko antzekotasunak izan arren, jatorri teorikoetan ezberdintasun nabariak aurkitu ditzakegu. Gainera, espazio industrial berrien kasuan, espezializazioa ez zen manufakturretan eman, baizik eta posfordismoarekin hedatzen ari ziren lan berrietan. Hau da, teknologia handiko industria, finantza zerbitzuetan edo diseinuaren aldetik intentsiboak ziren sektoreetan espezializatutako industrietan. Scottek (1998) dionez, sektore hauetako askok ez ziren tradizio fordista zituzten lurraldeetan kokatu, azken hauetan langileria oso politizatuta zegoelako eta ibilbide sindikala oso garrantzitsua zelako, eta beraz lan erlazioak zurrunegiak zirelako irekitzen ari zen ekoizpen eredu aldakor eta malgu posfordistara egokitzeko.

Kaliforniako eskolatik, ekoizpen malgua merkatuen izaera aldakorrari egokitzeko ekoizpen eredu egokiena zela pentsatzen zen. Espazio industrial hauetan, ekoizpen malgutasuna espazio industrial osoatzen zuten enpresen artean lana banatzetik lortzen zen. Izan ere, enpresa hauek jarduten zuten sektore ekonomikoetan, merkatuak oso aldakorra ziren; eta beraz, arriskua enpresa ezberdinen artean banatzen zuten. Espazio industrial berrietan maila ezberdinetako ekoizpen prozesu hierarkikoa funtzionatzen du, non konplexutasun handiko diseinu eta produktu teknologikoak ekoizten dituzten enpresak, produktu osagarriak ekoizten dituztenak eta muntaketa egiten dituzten enpresa espezializatuak elkarbizitzen duten (Scott, 1993). Eta beraz, antolaketa eredu honek, merkatuen aldaketei egokitzeko orduan baliagarria zen. Izan ere, ekoizpen prozesu edo produktu batetik bestera igartzeko, eta *output*-en kantitateak egokitzeko gaitasuna oso epe laburrean eman zitekeen; industriaren efizientzia mailan kalterik suposatu gabe (Storper eta Scott, 1988).

Era berean, ekoizpen eredu fordistaren zurruntasunaren aurrean, ekoizpen malguak *just in time* eredu ahalbidetzen zuen. Eredu honen arabera, ekoizpena sorta txikietan egiten zen bitartean, produktu-gama areagotzen zen etengabeko formakuntza eskatzen zuen lan ereduaren bitartez (Pike et. al., 2006).

Hala ere, prozesuen azpikontratazioak, enpresen arteko transakzioak areagotzen zituen, eta hauek berriz, transakzio horietatik eratorritako kostuak. Beraz, Williamson-en (1981) transakzio kostuen teorian oinarrituta, aglomerazioek eskaintzen zituzten

hurbiltasunaz baliatzen ziren kostu hauek murrizteko. Izan ere, barruti industrialetan bezala, Kaliforniako eskolako autoreek aglomerazioak eskaintzen dituzten abantailak jorratu zituzten, baina ez ziren hauetara Marshallen kanpo-eraginen bidetik heldu, baizik eta Williamsonen transakzio kostuen teoriaren bidetik. Hau da, praktikan, ez zen barruti industrialetan bezala tokiko jardunbideei edo instituzio historiko eta kulturei begiratzen, baizik eta hurbil egoteagatik, salerosketen transakzio kostuetan lor zitezkeen abantailei. Hots, enpresen kontzentrazioaren zergatia, hurbiltasunak eskaintzen zuen kostuen murrizketan eta zerbitzuak partekatzeagatik murrizten ziren kostuetan aurkitzen zituzten. Esan genezake beraz, kooperazioa baino, enpresen arteko osagarritasunean oinarritzen zirela.

Gainera, espazio industrial hauek tradizio industrialarik gabeko eskualdeetan kokatu ohi ziren; eta beraz, ez zuten barruti industrialen kasuan bezala lurraldeen ibilbide industrialak jarraitzen. Hala ere, Storper eta Scottek (1988), behin komunitateak egonkortu zirenean sortutako instituzio sozial eta kulturalak, ezagutza eta informazioa zabaltzeko orduan izandako garantiza hiru zentzutan aldarrikatzen dute. Batetik, enpresen koordinazioaren inguruan. Bestetik merkatu lokalen antolakuntzan eta langileen erreproduzio sozialean. Eta azkenik, komunitatearen formakuntzari dagokionez.

Azkenik, Kaliforniako eskolako hirugarren oinarri teorikoa Boyer-ek (1986) garatutako erregulazioaren teoria edo *Théorie de la Régulation* litzateke. Honi buruz laugarren kapituluan gehiago sakonduko dugun arren, aurreratu dezakegu labur, erregulazioaren teoriak, kapitalismoa, bere kontraesanak izanik ere, egonkortzeko duen gaitasuna aztertzen duela. Hots, izatez, besteak beste krisirantz eta disparekotasunerantz jotzen duen sistema kapitalistaren egonkortasunaren zergatia. Edo beste modu batean, kapitalismoaren kontraesanak arindu eta erreproduzio soziala baimentzen dituzten prozesuak aztertzen ditu. Prozesu hauek guztiak, lurralde eta momentu konkretu batean elkar eragiten duten elementu kultural, politiko, sozial eta instituzionalak lirateke.

Laburbilduz, espazio industrial berriei oinarritzko hiru jatorri teoriko aurkitu diezaiekegu. Batetik, espazio industrialak osatzen zuten enpresen artean lana banatzetik lortzen zen ekoizpen malgua. Bestetik, aglomerazioek eskaintzen dituen transakzio kostuen. Eta azkenik erregulazioaren teoriatik eratorritakoa (Moulaert eta Sekia, 2003).

2. KOADROA: Espazio industrial berriak: Silicon Valley

Silicon Valley —silizioaren harana— informazio eta komunikazio teknologien nukleoa da gaur egun. Hala ere, bere historiari begiratu behar zaio arretaz, mitoak eragindako “merkatu askearen ideologia aldarrikatzen duen argitutako hesi publizitario” soil batera ez murrizteko (Castells eta Hall, 1994:14).

Santa Clara, Silicon Valley kokatzen den eskualdea, nekazaritzan oinarritutako lurraldea zen 1950ean. 70eko hamarkadan, tokiko ekintzaletasuna areagotu egin zen, eta bi astero enpresa bat sortzen hasi ziren. Hauek gainera, erresilientzia maila altua erakusten zutelarik. Orduan Kalifornian errenta familiar altuena erakusten zuen lurraldea Silicon Valley izan zen. 80ko hamarkadan zehar, enplegua %35a hazi egin zen 8000 enpresetan banatuta zegoelarik.

Horietatik, 2000 teknologia maila altuko jardueretan lan egiten zuten; 3000, hornikuntza elektronikoa ekoizten zituzten eta beste 3000 enpresak zerbitzu ezberdinak eskaintzen zituzten espazio industrialari. San Frantzisko eta San Jose bezalako hiri handien artean kokatu arren, Silicon Valleyk ez du horietatik tradizio industrialik jaso. Beraz, hain denbora laburrean hainbesteko espezializazio maila eta berrikuntzarako gaitasuna erakusteak mundu osotik begiratzen diotenak harritu ditu.

Bertan sortutako edo kanpotik etorritako, eta mundu mailan ezagunak diren enpresa handiez gain, Silicon Valleyn kokatuta dauden enpresen gehiengoa enpresa txiki eta ertainak dira. Hauek, Silicon Valleyko barne merkataritzako dinamismoa eragiten dutenak izanik. Izan ere, Silicon Valleyn elkar lehiatzen duten, baina aldi berean elkarlanean dabilten enpresen sareak nabariak dira. Horrez gain, tokiko administrazioarekiko eta unibertsitatearekiko elkarlana ere ematen da. Enpresen eta eragile ezberdinen sare hauek, kostuak murriztu eta informazioa edo ezagutza zabaltzen laguntzen duten lanabesak bezala ikusten dira. Ondorioz, Silicon Valleyk duen hazkunde iraunkorrerako, berrikuntzarako eta ikaskuntza kolektiborako gaitasuna ulertzea, tokiko garapenaren inguruko ikerketa ezberdinen helburua izan da. Hala ere, gaur egun dituen ezberdintasun sozial eta espazialak kezka sorrarazi ditu autore batzuen artean; eta zentzu honetan aurkitzen dira etorkizunerako erronka garrantzitsuenak.

Iturria: Castells eta Hall (1994) eta Pike et. al. (2006).

2.3.1.3 Milieux berritzaileak:

80ko hamarkadan zehar garatutako beste ikuspegi bat, *Groupe de Recherche Européen sur les Milieux Innovateurs*-ek (GREMI) milieux berritzaileen edo *milieux innovateurs*-en inguruan egindako ekarpenean biltzen da (Aydalot, 1986). Eredu honetarako, berrikuntza teknologikoa paper zentrala izango du lurraldeen garapenean. Horregatik ikuspegi honetatik ikertzen duten autoreek, berrikuntza eman dadin lurraldeek eskaintzen dituzten baldintzei begiratuko diete.

Milieux berritzaileen teoriak, enpresak agente berritzaileak bezala ikusten ditu. Baina hauek, ez dira agente isolatuak, berrikuntzarako ahalmena duen ingurune —*milieu*— batean kokatuta dagoen agentea baizik. Eta bertan dauden beste enpresa eta eragileen artean ematen diren harremanen ondorioz, berrikuntza sustatzen da. GREMItik enpresen ingurunea aztertzeke aurrera eramandako ikerketa enpirikoan ondorioz, enpresek hiru esparruetan kokatzen direla antzeman zuten: ekoizpen esparrua,

merkatua eta babes espazioa. Azken honetan da, hain zuzen ere, ziurgabetasunaren aurrean enpresa ahalduz duena; berrikuntza bertan ematen delako. Izan ere, babes espazioan harreman ezberdinak sortzen dira. Ekoizpen faktoreen antolaketarekiko, hornitzaileekiko, bezeroekiko eta enpresaren ingurunearekiko. Eta, harreman hauek ematerakoan, berrikuntza ezberdinak sortzen dira, eta azken finean, lehiakortasuna areagotzen da (Moulaert eta Sekia, 2003). *Milieu*-aren terminoak beraz, tokiko eragileen arteko harreman sozialengatik ematen den ikaskuntza kolektiboaren bitartez berrikuntzarako ahalmena garatzen duen lurraldeari egingo lioke erreferentzia (Camagni, 1991).

Ildo honetan, ohikoa da *Milieux* berritzaileen inguruko literaturan zehar, garapen endogenoari erreferentzia egitea. Are gehiago. Moulaert eta Sekiak (2003:295) aurkezten duten eskeman, harreman zuzena antzematen dute garapen endogenoaren ikuspegi teoriko eta *milieux* berritzailearen ereduaren artean¹¹. Izan ere, eredu honetatik idazten duten autoreentzat, garrantzi handia daukate eragileen artean ematen diren interakzioak berrikuntza emateko baldintzak sortzeko orduan. Esan dugun moduan, arrakasta ekonomikoa berrikuntzaren menpe dagoelako, eta berrikuntza aldiz, babes espazioan ematen diren erlazioen menpe dagoelako. Beste modu batera esanda, baliabide eta agente endogenoak mobilizatzea beharrezkoa da *milieu* berritzaile batean berrikuntzarako baldintza egokiak finkatzeko. Hau da, tokiko instituzioek edo transakzio kostuen teoriak eskaintzen dituzten abantaila estatikoak gainditzen ditu eta eragileen arteko harreman dinamikoaren arabera oinarritzen du garapena. *Milieux* berritzaileen inguruko ikasketek, lurraldeen garapenaren arrakasta ikertzen saiatzen dira. Hau da, zergatik lurralde batzuk beste batzuek baino arrakastatsiagoak diren azaltzen saiatzen dira. Eta ikuspegi honetatik berrikuntza —baliabide endogenoen mobilizazioaren bitartez lortzen dena— garrantzi handia dauka lurralde baten arrakastarako.

Laburbilduz, berrikuntza tokiko garapenerako ardatz hartuta, tokiko eragileen arteko harremanak —zentzu zabalean ulertuta, ez bakarrik ekonomikoak— sustatzen saiatzen den eredu da; eta harreman horiengatik ematen den ikaskuntza kolektiboaren

¹¹ Honek ez du esan nahi beste ereduetan baliabide endogenoak erabiltzen ez direnik edo lehentasuna ematen ez zaienik. Baizik eta *milieux* berritzaileen inguruko marko teorikoan, endogenitatea esplizituago lantzen dela; berrikuntza eman dadin, tokiko enpresa ingurunearen eta eragileen arteko harremanen dinamizazioa oinarritzeko den heinean.

bitartez berrikuntza sortzen da lurraldeetan. Eta berrikuntza da, azken finean, merkatuetan lehiatzeko aukera ematen diena enpresei. Horretarako, harremanak erraztu eta berrikuntza sustatu egiten da.

3. KOADROA: Cambridge, berrikuntzarako milieu bat

Cambridge, Londreseko iparraldean kokatzen den hiria da. 1996an Cambridge eta bere ingurunean, teknologikoki intentsiboak ziren 715 enpresa txiki eta ertain zeuden; sektore anitzetan jarduten zutelarik. Horrela, manufakturan oinarritutako enpresetatik teknologia altuko industrietara barneratzen zituen milieu bat osatzen zuen. Gainera, Cambridgeko Unibertsitatearen eragina argia zen teknologiaren zabalkuntzarako. Egoera hau, 90eko hamarkadan ingurune honek izandako hazkunde ekonomikoaren arrazoi nagusia izan zen.

Milieu berritzaile batean beharrezkoa da eragileen arteko harreman sendoak izatea; horregatik ere balio instituzionalei garrantzia handia ematen zaie. Cambridgeko kasuan, oinarritzko hiru eragileen arteko harremanak azpimarratu behar dira. Lehenik, maiztasun handiarekin ematen ziren enpresen arteko harremanak leudeke. Bigarrenik, Cambridgeko Unibertsitatea. Batez ere, industriarekiko duen harremanetatik eta historikoki aurrera eraman duen elkarlanetatik. Eta hirugarrenik, I+Gan oinarritutako aholkularitza handien talde txiki bat. Hauek, tokiko industria garatzen eta nazioartera zabaltzen lagundu dutelarik. Oro har, hiru eragile hauen ibilbide historikoak, konfiantza areagotu du eskualdean. Eta beraz, enpresen etengabeko berrikuntzarako ingurune egokia sortu dute.

Behin ingurunea egokia zenean, enpresak areagotzen hasi ziren. Enpresa berrien gehiengoa dagoeneko existitzen ziren beste enpresen eszizioak ziren eta beste askok Cambridgeko Unibertsitateatik eratorritakoak. Hemen aipatu beharra dago ere, enpresen kopuru handi batek, ikertzaile graduatu berriak kontratatzen zituztela. Beraz, hauen arteko interakzioak errazak eta ugariak izateaz gain, ezagutza eskualdean atxikitua gelditzen zen. Gainera, azaldutako ibilbidea izanik, eskualdean zeuden ikertzaileen maila oso altua zen.

Eragileen arteko harremanak ere ugaritu eta sendotu ziren. Enpresa hauentzako zerbitzuak eskaintzen zituzten beste enpresekin geroz eta hitzarmen gehiago sinatzen baitzituzten. Eta hauez gain, eragileen arteko harreman informalak ere areagotu ziren; hauek garapen instituzionalerako garrantzitsuak izanik.

Iturria: Keeble, Lawson, Moore eta Wilkinson (1999).

2.3.1.4 Klusterrak:

Porterren (1990) ekarpen teorikotik eratorrita, klusterren eredua agertzen zaigu. Hau, mundu mailan abantaila lehiakorrak lortzen dituzten enpresen kontzentrazioen inguruko analisisia egin ostean, 90eko hamarkadan sortzen den kontzeptua da. Klusterrak, lehiatzen eta kooperatzen duten, eta oro har, elkar konektatuta dauden enpresen, hornitzaile espezializatuen, zerbitzuen entitateen eta instituzioen kontzentrazio geografiko bati egiten diote erreferentzia (Porter, 2000). Horrela, enpresen lokalizazioa erabilita, abantaila lehiakorrak bilatzen dituzte.

Ikuspuntu honetatik, produktibitatea, ez dago bakarrik ekoizpen faktoreen menpe. Hots, lana, baliabide naturalak, kapitala eta teknologiaz gain, hauek nola

antolatzen diren menpe ere badago. Lurralde ezberdinetan, ekoizpen faktoreak antolatzeko modu ezberdinak daude, lurralde bakoitzeko errealitate sozio-territorialaren arabera. Hau da, lurraldea errekurtsio estrategiko bat litzateke non abantaila lehiakorrek dauden. Eta abantaila lehiakor horiek bilatzea da enpresen lokalizaziorako arrazoia. Hortaz, lurraldeetako egitura sozio-ekonomikoak ekoizpen prozesuen efizientzia handitu edo txikitu dezake (Alburquerque, 2006). Eta beraz, ekonomia eta jendartearen arteko mugak gainditu behar dira; hau da, enpresen eta lurraldearen artekoak.

Izan ere lurraldea, enpresa-proiektua, teknologia edo merkatuak bezala, enpresen kudeaketa estrategikoan kontutan hartzeko beste aldagai bat da. Merkatuak hedatu eta lehiakortasun globala areagotu den une honetan, enpresek erakarpen-espazioak bilatzen baitituzte; haiek eskaini diezaizketen abantaila lehiakorrek enpresen biziraupenerako edo enpresa ekimenak garatzeko estrategikoak direlako. Hots, produktuaren, merkatuaren eta teknologiaren ostean, espazioa, jarduera enpresariala garatzeko laugarren aldagai estrategikoa bihurtzen da (Lazzeretti, 2006).

Klusterrak beraz, elkar konektatuta dauden enpresen kontzentrazio espazialek lortzen diren abantaila lehiakorrek bilatzen saiatzen dira. Eta enpresen konexio horretan sektoreko beste enpresak, hornitzaileak, bezeroak, herri-erakundeak, unibertsitateak, zentro teknologikoak etab. egon daitezke. Porterrentzat (1998) kluster batean dagoen enpresa batek hiru zentzutan hobetu dezake bere kokapen lehiakorra.

Batetik emankortasuna handitzen duelako. Kluster baten presentziak, enpresen emankortasuna handitzen du hornikuntzak lortzeko, informaziora eta teknologiara heltzeko, beste enpresekin koordinatzeko eta instituzioekin harremanetan jartzeko erraztasunak eskaintzen duelako. Gainera, langile espezializatuen “*pool*” batez baliatu daitezke langileak kontratatuzko. Horrek, langileen bilaketa kostuak eta formakuntza kostuak murrizteaz gain, beste tokietako langile espezializatuak erakartzeko baliagarria da. Langileez gain, hornitzaile espezializatuak ere sortzen ditu. Honek, hornikuntzak kanpotik ekartzeko kostuak murrizten ditu. Klusterrak ere merkatuaren, lehiakortasunaren eta teknikaren inguruko informazioa metatzeko gaitasuna eskaintzen die enpresei. Azkenik, Porterrentzat, kluster batek enpresen emankortasuna handitu dezake ere tokiko lehiakortasuna handia bada; horrek enpresak motibatzen dituelako.

Lehiakortasuna handitu dezakeen bigarren zentzua, berrikuntzaren inguruan emango litzateke. Aipatu dugun informazioaren metaketa, berrikuntza emateko ezaugarri garrantzitsua da. Gainera, enpresa bati berrikuntza prozesuak aurrera eramatea behartzen duen hornitzaileak klusterraren kideak dira kasu askotan. Eta berrikuntza

ahalbidetzen duen azken ezaugarria, tokiko herri-erakundeekiko harremanaren arabera izango da. Izan ere, harremana egokia bada, berrikuntza sustatzeko neurri politikoak itundu daitezke klusterrarekin.

Hirugarrenik, klusterrak enpresen lehiakortasuna areagotu dezakeen azken zentzua, enpresa eta negozio berrien sorkuntzaren inguruan izango litzateke. Kasu honetan, hornitzaile edo bezero gehiago sortzeko aukera ahalbidetzen du klusterrak. Izan ere, klusterrak metatzen duen informazioa, eta oro har, azaldu ditugun abantaila guztiak merkatu-aukerak antzemateko oso baliagarriak dira, eta beraz, enpresa sortu berrien arriskuak murriztu daitezke horrela.

Klusterren inguruko literatura hedapen garrantzitsua izan du Porterretik (1990). Horrek, kontzeptua aberastea ekarri badu ere, klusterraren inguruko irakurketa ezberdinek, klusterrak beste ereduak dituen mugak lausotzea eragin du ere. Ildo honetan, badira batez ere klusterrak eta barruti industrialen arteko nahasmena sortu duten ekarpenak; barruti industrialak kluster bezala izendatuak izan direlako edo alderantziz. Nahasmen hau, batez ere Amerikatik edo Europatik idazten bada ematen da gehien; barruti industrialak Europan erabili direlako gehien, eta klusterrak Amerikan (Gainza, 2008). Beraz, ez da arraroa izan klusterrak eta barruti industrialak konparatzen dituzten ikerlanak aurkitzea (Larrea, 2003; Lazzaretti, 2006; Albuquerque, 2006). Gure kasuan, klusterraren eta barruti industrialen inguruko ezberdintasun argiak antzematen ditugu. Horregatik, klusterraen adibidearen ostean, bi eredu mugak nabarmentzeko hurrengo taula eraiki dugu:

4. KOADROA: Klusterrak Euskal Autonomia Erkidegoan

90eko hamarkadatik aurrera, Eusko Jaurlaritzak bere lehiakortasun plana abian jarri zuen. Orduetik, euskal ekonomiako sektore industrial ezberdinek elkartzen joan izan dira, antolakunde sektorialak sortu arte. Antolakunde hauek, sektorearen enpresen arteko eta hirugarrenekin, lankidetzaren teknika sustatzeaz gain, nazioarteko foro eta batzarretan sektorea batera joateko aukera eskaintzen die; enpresa modu isolatuan joan ordez.

Eusko Jaurlaritzak lehentasunezko 11 kluster kontsideratzen ditu. Horien artean, besteak beste, autogintza klusterra, manufaktura aurreraturako teknologien klusterra, energia klusterra, Bilboko portuko enpresen klusterra edo itsasoko industrien klusterra daudelarik.

Eusko Jaurlaritzaren kluster politika, Porterren ideietan oso oinarrituta dago. Izan ere, Porter berak EAEn lan egin izan du aholkulari gisa. Oro har, euskal enpresen internazionalizazio eta transferentzia teknologikoko prozesuak bultzatzera bideratuta dago. Dena den, nahiz eta klusterrak gorpuzten dituzten antolakundeak enpresek osatu dituzten, oro har gailendu den ikuspegia goitik behar izan da Eusko Jaurlaritzatik planifikatu eta aurrera eramanean.

Iturria: www.industria.ejgv.euskadi.eus eta Larrea (2003).

2.3. TAULA: Kluster eta barruti industrialen arteko konparaketa

	Kluster	Barruti Industrialak
Jatorrizko ekarpenak	Porter (1990 eta 1998); Marshallen (1920) lokalizazio abantailak neurri batean.	Marshall (1920); Becattini (1979).
Definizioa	Klusterrak, interkonektatuta dauden enpresen eta instituzioen kontzentrazio geografikoak dira. Hornitzaileak, bezeroak eta bestelako instituzioak barneratzen dituztenak (gobernua, unibertsitateak, agentziak, elkarte komertzialak...)	Barruti industrialak, lurralde konkretu batean ematen den enpresen ehun konplexuak lirateke, non enpresa bakoitzak ekoizpen prozesu komun bateko fase ezberdinetan espezializaten diren.
Sorkuntza	Kluster bat arrazoi historikoengatik, behar industrialengatik edo erakunde publikoek aurrera eramandako politika industrial konkretu batengatik sortu daiteke.	Enpresen arteko kooperazioa eman dadin, baldintza historiko, kultural eta instituzional konkretuak beharrezkoak dira. Hau da, historikoki garatutako instituzioak dira kooperaziorako beharrezkoa den konfiantza sortzen dutenak
Lurraldea	Abantaila lehiakorrak dituen errekurtsio estrategikoa	Barruti industrialak, entitate sozio-territorialak dira, zeinek ikuspuntu natural eta historiko batengatik mugatuta dagoen lurralde batean, elkar erlazionatzeko joera duten pertsonen eta enpresen komunitate aktibo bat izateagatik bereizten diren.
Abantailak	- Lehiakortasuna handitu: <ul style="list-style-type: none"> o Emankortasuna handituz o Berrikuntza sustatuz o Enpresa eta negozio berrien sorkuntza sustatuz 	- Marshallen (1920) kanpo-eraginak: <ul style="list-style-type: none"> o Lan merkatu espezializatua o Jarduera nagusiaren inguruko ezagutza fluxuak o Industria osagarrien zabalpena
Enpresen arteko harremana	- Lehiatu eta kooperatu	- Lehiatu eta kooperatu - Elkarrekikotasunean oinarritutako harremanak

Iturria: Egileak egina

2.3.1.5 Eskualde berrikuntza sistemak:

Eskualde berrikuntza sistemak, 80ko, eta batez ere, 90eko hamarkadetan berrikuntzaren inguruan ematen den eztabaidaren emaitza dira; berrikuntza I+G sailetan ematen den prozesu lineala bezala ulertzetik, eragile ezberdinen arteko interakzioa behar duen sistema bat bezala ulertzera igarotzen denean. Hala ere, berrikuntza sistemei egindako lehenengo hurbilketek aurrera eramandako analisiak eskala nazionalean oinarritzen ziren. Beraz, berrikuntza sistema nazionalez (Lundvall, 2010) hitz egiten zen.

Alabaina, posfordismoan eskualdeek erregulazio ekonomiko eta sozialerako daukaten koherentziagatik, eta hauen hurbiltasunak eta tokiko eragileen arteko konfiantza mailak sortu dezakeen ezagutza tazituaren zabalpenagatik, berrikuntza sistemak erreproduzitzeko unitate egokiak bihurtu dira. Izan ere, espazio kohesionatu batean, berrikuntzarako aukera handiagoak daude, eta eskualde baten instituzio historikoak, sozialak, kulturalak, politikoak eta bertan ematen diren jokabide komunak kohesio soziala areagotzen dute (Uranga eta Cooke, 1998); eta beraz, berrikuntza sistemak sortzeko koherentzia eskaintzen dute. Gainera, eskualde berrikuntza sistemak, tokiko beharrei egokitzeko aproposagoak dira, eskualde bakoitzak bere ekoizpen egiturari egokitutako berrikuntza bultzatu dezakeen heinean.

Hala ere, eskualde berrikuntza sistemei begiratzeko bi ikuspegi nabarmentzen dira. Batetik, berrikuntza sistema nazionalaren azpisistema bat bezala ikusten dutenak, eta bestetik, dinamika propioak dituen berrikuntza sistema bat bezala ikusten dutenak. Azken hau, tamainaren aldetik, sistema nazionala baino txikiagoa dena, baina dinamika propioak sortzeko gaitasuna duena litzateke (Moulaert eta Sekia, 2003). Lehenengoaren logikaren atzean, hurbiltasunak eskaintzen dituen berrikuntzarako aukerak aztertuko lirateke. Bigarren ikuspuntutik aldiz, prozesu territorial bat bezala ikusten da, non lurraldean dauden eragileen arteko elkarrekintzaren bitartez ematen berrikuntza den. Hots, bigarren ikuspuntu honek lehenago azaltzen genuen ikuspuntutik gertuago legoke, zeinean berrikuntza sistemak lurraldean errotutako prozesu kolektiboak bezala azaldu ditugun.

Bestalde, eskualde berrikuntza sistemak sailkatzeko orduan, Asheim-ek (2009) hauek berrikuntzarekiko duten jarreraren arabera bi eskualde mota bereizten ditu. DUI sisteman oinarritutakoak (*Doing, Using and Interacting*) eta STI sisteman oinarritutakoak (*Science, Technology and Innovation*). DUI sistema, ikaskuntza informalean —tazituan— oinarritzen da eta I+Gan gutxi inbertitzen duten eskualdeek erabiliko lukete. Izan ere, esperientzian oinarritutako sistema litzateke, eta berrikuntza inkrementalak lortzera bideratuta dago ekoizpenaren antolaketaren aldetik. Bestalde, STI sistemak, berrikuntza I+Gan oinarritzen duten eskualdeek erabiliko lukete. Ikaskuntza prozesu kodifikatu eta formalagoen bitartez lortuko litzateke, eta berrikuntza erradikalak lortzeko gaitasuna eskaintzen du. Aurreko atalekin lotuz, DUI sistemak klusterretan aurrera eramango litzateke gehiago; eta aldiz STI, espezializazio malguetako barrutietan.

Eskualde berrikuntza sistemak laburbilduz, berrikuntzaren ikuspegi sistemiko eta holistikoa batetik, berrikuntzaren eta lurraldearen —eta honetan dauden eragileen— arteko sinergiak baliatzen dituen prozesu berritzaileak lirarteke.

5. KOADROA: Euskal Autonomia Erkidegoko berrikuntza sistema

80ko hamarkadaren hasieran, I+Garen egituraren garapen prozesua hasten da EAEn. Hau 70eko hamarkadaren amaiera eta 80koaren hasieran emandako estatu mailako trantsizio politikoagatik, krisi ekonomikoagatik eta Euskal Autonomia Erkidegoko estatutuagatik markatua egon zen. Estatutuak, zientzia eta teknologiaren eskuduntza onartzen zuen, eta ondorioz, I+Gan inbertsio handirik gabeko herri batean, hau garatzeko lehenengo neurriak abiarazi ziren.

Eragile ezberdinen (laboratorio txikiak, eskola teknikoak, enpresa-elkarteak eta Mondragoneko talde kooperatiboa) eta gobernu autonomikoaren artean, Ikerketa eta Garapen Teknologikorako Aholku Batzordea (CAIDT) sortu zuten. CAIDTk lehenengo politika zientifiko-teknologikoak sustatzeko orduan paper garrantzitsua jokatu zuen.

EAEko berrikuntza sistema bi faseetan banatu dezakegu. Lehena, 1981 eta 1990 bitartean eman zena, I+Gko azpiegitura egokia sortzera bideratu zen zentro teknologiko pribatuen bitartez. Ildo honetan bost zentro nagusitzen dira: Ikerlan (www.ikerlan.es), Labein (2002tik Teknalia www.tecnalia.com), Inasmet (2002tik Teknalia www.tecnalia.com), CEIT (www.ceit.es) eta Tekniker (www.tekniker.es). I+G politika beraz, eragile ezberdinen arteko interakzioaren bitartez, zentro teknologikoak indartzera bideratu zen; hauek enpresa txiki eta ertainekin harreman handiagoa zutelako. Izan ere, garai hartan ez zen unibertsitatea transferentzia teknologikoa egiteko gai ikusten; besteak beste, irakaskuntzan oso zentratuta zegoelako. Lehenengo fase honetan, zentro teknologikoei babes finantzarioa emateaz gain, enpresa txiki eta ertainek aurrera eramaten zituzten I+Gko jarduerak finantzatu ziren. Gainera, Industria Sustapenerako eta Birmoldaketarako Sozietate publikoa (SPRI) sortu zuen Eusko Jurlaritzak, euskal enpresek teknologia berriei irisgarritasuna izan zezaten.

Bigarren fasea, 1991 eta 1996 artean eman zen. Lehenengo fasean zehar eraikitako azpiegitura egonkortzera eta eskariaren aldeko politikak sustatzera bideratu zen. Eskariaren aldeko neurrien artean, garrantzitsuenak Eusko Jurlaritzak hasitako kluster politika izan zen. Oro har, sortutako klusterrak (aurreko koadroan aurkitu daitezke) bitartekotza lana egiten zuten eta lehenengo teknologikoak ezartzeko gaitasuna zuten. Esan beharra dago, hasieran, klusterrak ez zirela behar bezala egonkortsu euskal enpresa berritzaileen artean ez zegoelako, adibidez hirugarren Italian aurkitzen zen koordinaziorako eta kooperaziorako azpiegitura eta instituzio egokirik. Eta beraz, politika hau goitik beherako izaera hartu zuen Eusko Jurlaritzatik bideratuta.

Oro har, EAEko berrikuntza sistemaren lorpen nagusienak garai honetan (1981-1996), I+Gerako azpiegitura sortzea eta egonkortzea, I+Gera bideratutako baliabideen kopurua handitu izan zela estatuarekin konparatuta (baina oraindik Europako herrialderena baino txikiagoa zen), zentro teknologikoen garapena eta hauek enpresekin duten harremanen sendotzea.

Iturria: Moso eta Olazarán (2001).

2.3.1.6 Ikasten duten eskualdeak:

80ko eta batez ere, 90eko hamarkadetatik aurrera, geografia ekonomikoak oinarritzeko bi ildo nagusi jarraitu izan ditu. Alde batetik, estatuz azpiko eremuak aglomeraziorako espazioak bezala ulertzea; eta bestetik, ezagutza, lurraldeen lehiakortasuna handitzeko beharrezko elementua bezala kontsideratzea (Hauser,

Tappenier eta Walde, 2007). Aurretik esan dugun moduan, ezagutzatik, berrikuntza eta prozesu berritzaileak eratortzen direlako; eta berrikuntzarako gaitasuna da, hain zuzen ere, lehiakortasunerako oinarritzko ezaugarria. Horregatik, eskualdeak eta hiriak, ideiak, ezagutza, ikaskuntza, eta azken finean berrikuntza sortzeko baliabidez eta ingurune egokiaz hornitzen duten espazioetan bihurtzen joan dira. Nazioarteko ekonomian, ezagutzaren metaketarako espazio egokienak bihurtu arte. Izan ere, eskualdeak eta hiriak, ezagutzaren etengabeko sorkuntzan eta hobekuntzan, ideien garapenean eta berrikuntzaren sustapenean oinarritzen diren lurraldeak dira; eta horretarako, etengabeko ikaskuntza prozesuan egon behar dira (Florida, 1995).

Autore ezberdinek, ikasten duten eskualdeak edo *learning region*, lurraldeen garapenerako ereduen sintesi bat bezala ikusten dute (Florida, 1995; Asheim, 1996; Morgan, 1997; Cooke, 1998; Moulert eta Sekia, 2003 ...). Floridak (1995) dionez, ikasten duten eskualdeak, ezagutza eta ideiak biltzen dituzten eskualdeak lirateke. Horretarako, ideiak, ezagutza eta ikaskuntza fluxuak errazten duten azpiegituren ingurune batez hornitzen duten eskualdeak dira. Arretaz begiratzen badiogu definizioari, aipatzen dugun sintesia ikusi dezakegu. Izan ere, berrikuntza sistemetik ikasi dugun moduan, berrikuntza, lurraldean errotzen den prozesu kolektibo bat litzateke. Hau da, ezagutza eta ideiak lurraldeetan biltzen dira. Ideiak, ezagutza eta ikaskuntza fluxuak errazten duten azpiegiturak bezala, unibertsitateak edo zentro teknologikoez gain, harremanak errazten dituzten antolaketa produktibo lokala (barruti industrialak, milieu, klusterra...), ezaugarri instituzionalak, kooperatzeko kultura etab. kontutan hartzen dira. Moulert eta Sekiak (2003) esaten duten moduan, ikasten duten eskualdeek berrikuntza sistemen literatura, ekonomiaren ikuspuntu instituzionalista eta eboluzionista eta dinamika instituzional erregionalak barneratzen dituzte. Eta horiez gain, kapital soziala edo sareak bezalako elementuak ere barneratzen dira ereduan. Hau da, ikuspegi instituzionalistetaik eta eboluzionistetatik eratorritako ekarpenak bildu, eta horietatik ikasten du garapenerako ingurune egokiena sortzeko.

Asheimentzat (1996), ikasten duten eskualdeen erronka nagusia, enpresa txiki eta ertainetan oinarritutako aglomerazioek berrikuntzarako duten gaitasuna handitzea litzateke. Izan ere, globalizazioarekin eta ekoizpen eredu posfordistarekin emandako kapitalismoaren berregituraketan, industria fordista tradizionalan oinarritutako ekonomia batetik, ezagutzan oinarritutako ekonomia edo *learning economy* batera igaro

gara. Eta ezagutza, aldi berean, berrikuntzan oinarritzen da. Hots, ikaskuntza eta ideia berrien sorkuntza prozesuetan.

Ikasten duten eskualdeek beraz, ezagutzaren ekonomia honetan, ikasteko duten gaitasunagatik, nazioarteko merkatuetan lehiatzeko ahalmena erakusten dute. Boisierrentzat (2005b), lurralde batek ikasteko duen gaitasuna bost faktoreen menpe dago: Arazo sistemikoak ebazteko gaitasuna, ikuspegi berriak esperimintatzeko gaitasuna, esperientzia propioetatik ikasteko gaitasuna, besteren esperientzietatik ikasteko gaitasuna eta azkenik, metatu duen ezagutza hori bere egitura osoari transmititzeko gaitasuna. Hau da, ikasten duen eskualdea, bere ingurunetik ikasteko duen ahalmenagatik definitzen den lurralde inteligentea da; iraganeko akatsak errepikatzen ez dituen eta etorkizunari begira, berrikuntzarako prest dagoena.

6. KOADROA: Ontario, ikasten duen eskualdea

Ontario, industrializazio goiztiarra izan zuen Kanadako probintzietako bat da. 90eko hamarkadan, ikasten duen eskualde batean bihurtzeko prozesua hasi zuen, ipar Amerikan integrazio ekonomiko handiagoa izateko helburuarekin.

Kanada eta AEBko merkataritza-itunarekin bat eginez (NEFTAren aurreko ituna), Ontario 1929ko depresio handitik izan zuen krisirik handiena jasan zuen. Krisi hau, betez ere manufakturen sektorean eragin zuen; Ontarioko sektorerik garrantzitsuenean, alegia.

Ontarion, ideologia ezberdineko gobernuak izan arren, hiru erronka nagusi antzeman izan dira XX. mendeko azken laurdenean zehar: Lehenik, goi mailako hezkuntzaren indartzea eta honek sektore pribatuarekiko dituen harremanak gehiago sustatzea. Bigarrena, sektore pribatuak I+Gan gehiago inbertitzeko politikak sustatzea. Eta azkenik, ezagutzan intentsiboagoak diren sektoreen aldeko politikak sustatzea. Erronka hauen emaitza esanguratsuenak, unibertsitateen eta goi mailako ikasketa zentroen ugaritzea eta 80ko eta 90eko hamarkadetan ikerketara bideratutako funtsak sortzea izan ziren. Ildo honetan, 1986an eskualdearen ekonomian garrantzi handiena zuten sektoreetan oinarritutako bikaintasunezko zazpi zentro unibertsitarioen sorkuntza eman zen *Premier's Council Technology Fund* deritzon funtsaren aterkipean.

90eko hamarkadan, gobernu aldatetarekin, sareen teoriarik eta kooperazioan oinarrituta, politika industrial berria abian jartzen du alderdi sozialdemokratak. Politika industrial berri honen helburua, balio erantsi handiagoa eta soldata altuagoak sortu zezaketen sektoreetan oinarritzea izan zen. Hau lortzeko hiru zentzutan ekin zitzaion: Batetik, tokiko gobernuaren inbertsiorako jarrera aldatu, bikaintasun zentroen bitartez azpiegitura fisiko eta teknologikoa sustatzeko. Bigarrena, administrazio lokala enprekin, eta enpresak beste enprekin kooperazioa sustatzeko politikak abian jartzea izan zen. Azkenik, enpresek etorkizunari hobeto egokitzeko, gobernu lokaletik, industria berdeak sortzeko eta enpresa barne antolaketa berritzeko politikak aurrera eramane ziren. Horrez gain, 1992an *Sector Partnership Fund (SPF)* sortu zen. Hau, sektore bakoitzean eragiten zuten eragile ezberdinak harremanetan jartzeko erabili zen; horrela, ikaskuntza kolektiboa sustatuz.

SPFa, lau oinarri zituen: malgutasuna, sektore ezberdinen beharrei erantzuteko; apalankamendua, ekimen ezberdinak finantzaketa publiko eta pribatua izan zezaten, administrazio publikoak ezin ziolako inbertsio guztiari aurre egin; lehia eta kooperazioa sustatzea; eta azkenik, finantziario lortzeko irisgarritasuna sustatzea, sektoreen barneko eragile guztiek eskuragarri izan zezaten. Garai honetan ere, tokiko eragile ezberdinen parte-hartzea bultzatu zen eta horren emaitza 15 sektoreetan aprobaturako estrategia ezberdinak izan ziren.

90eko hamarkadaren bigarren erdialdean, alderdi kontserbadorearen agintepean, ordura arte berrikuntza sustatzeko sortutako funtsa ezberdinak desegin ziren; gastu publikoa murrizteko politiken logikapean. Izan ere, garai honetan AEBren kontrako desaruketen ildoko lasterketa batean barneratu zen Ontario. Hala ere, 1997an berrikuntza berriz ere agenda politikoan sartu zen, ildo honetan galtzen ari zen lidergoagatik. Funtsa berriak sortu eta hezkuntzarekiko hitzarmen berriak sinatu ziren arren, gobernuak gastu publikoa murrizteko zuen ikuspegia ez zen guztiz aldatu. Gainera, aurreko agintean gobernantzaren inguruan lortutako aurrerapenak galdu ziren. Horrela, “osagarriak ez diren, baizik eta kontraesankorrak diren” politikak egon dira Ontariok ikasten duen eskualde bat bihurtzeko jarraitu duen bidean.

Iturria: Wolfe eta Gertler (2001) eta Pike et. al. (2006).

2.3.1.7 Sozialki berritzailea den eskualdea:

Tokiko garapenaren eredu ezberdinek, berrikuntzaren garrantzia azpimarratzen dute lurraldeen lehiakortasuna sustatzeko. Izan ere, behetik gorako garapen ikuspegia garatzen hasi zenetik, berrikuntza, lurraldeen berregituraketa ekonomikorako oinarrizko elementua kontsideratua izan da. Eta, ikusi dezakegunez, eredu bakoitzak arreta garapenaren elementu ezberdinetan jartzen duen arren, oro har, berrikuntza eta dinamika instituzionalak bezalako kontzeptuak partekatzen dituzte (Moulaert eta Sekia, 2003). Ekonomia instituzionalista eta eboluzionalistaren arteko hurbiltasunak, berrikuntza eta dinamika instituzionalen arteko harremanak indartu baititu, politika estatal homogeneo zaharren aurrean.

Hala ere, orain arte berrikuntzaz mintzatu izan garenean, oro har berrikuntza teknologikoaz, edo, gehienez ere, antolaketa industrialean ematen diren berrikuntzei buruz ari izan gara. Eta beraz, berrikuntzaren ikuspegi hau estuegia izateagatik kritikatu izan daiteke. Ildo honetan, Moulaert eta Nussbaumer-ek (2005a), eredu hauek berregituraketa ekonomikorako eta lurralde lehiakortasuna areagotzeko asmoz, instituzioen eta berrikuntzaren erabilgarritasun instrumentalaz baliatzen direla diote. Hortaz, ez dute ekonomikoak ez diren garapenaren alderdietan arreta jartzen; hauek lurralde lehiakortasuna areagotzeko baliagarriak ez badira.

Ondorioztatu dezakegu beraz, eredu hauek kutsu ekonomizistegia daukatela, bztanleriaren bizi kalitatea hazkunde ekonomikoarekin lotzen dutelako bakarrik. Horregatik, inbertsio errentagarriak eta errendimendu finantzario hazkorrak bilatzera bideratuta daude gehienbat. Izan ere, berrikuntza eta ezagutza bezalako aldagaiak, enpresen, sektore ekonomikoen eta ekonomia lokalen lehiakortasuna handitzeko beharrezko elementuak bezala kontsideratuak izan dira. Eta ondorioz, hazkunde

ekonomikoaren ideiarene gainean eraikitzen dute garapena; hazkunde ekonomikoa garapena lortzeko bide bakarra eta egokiena balitz bezala.

Honek ez du esan nahi nahitaez garapen soziala, kulturala edo politikoa alboratzen direnik, baizik eta lehenesten diren aldagaiak efizientzia, emankortasuna, berrikuntza, eta, azken finean, hazkunde ekonomikoa lortzera bideratuta daudenak direla. Hots, tokiko instituzioak, kultura, tradizioa, eragileak edo pertsonak eta hauen arteko harremanak garapenerako elementu garrantzitsuak bezala aipatzen dituzten arren, ez dute aldagai ez ekonomiko hauen garapenean arreta jartzen, lehiakortasuna handitzeko edo berrikuntza sustatzeko ez bada. Moulaert eta Nussbaumerrek (2005a:101) esaten duten moduan, “nahiz eta dinamika instituzionalekiko lotura duten, tokiko garapenerako ereduak (*territorial innovation models*), merkatuaren legeetan oinarritutako ontologia ekonomiko batera eta garapenaren ikuspegi teknologiko batera leial izaten jarraitzen dute”.

Ildo horretan ere, Zurbanok (2008) dionez, korrante liberalek ekonomiaz eta berrikuntzaz jabetu dira. Eta hauek, berrikuntzaren, eta hau sustatzeko beharrezkoak diren politika zientifiko eta teknologikoen ikuspegi mugatua daukate. Izan ere, ekonomiaren aniztasuna ez dute kontutan hartzen. Kontutan hartzen ez duten bezala garapenaren arlo ez ekonomikoak. Ohiko tokiko garapenerako eruedetan, kapitala, errentagarritasun irizpideak jarraitzen ditu soilik. Eta, zentzu honetan kapitalaren inguruan ari garenean, ez gata soilik kapital fisikoari edo finantzarioari buruz ari; kapital soziala, kulturala, ekologikoari eta abarri erreferentzia egiten diegu. Eta beraz, kapital mota hauek guztiak merkatuaren logikan lan egiteko mobilizatzen dituzte. Horrela, merkatuan eraginkorrak ez diren jarduerak baztertzen dira garapenetik.

Horregatik, Moulaert eta Nussbaumerrek (2005a) merkatuan oinarritutako ontologia batetik, komunitatean oinarritutako beste batera igarotzeko emergentzia aldarrikatzen dute; garapenaren ikuspegi zabalago bat barneratuz, non arlo sozialek, kulturek, ingurumenaren ingurukoek etab. balioa hartzen duten. Hau da, autore hauen iritziz, ekonomiari begiratzeko beste ikuspegi bat barneratzea beharrezkoa litzateke, non etxeetako bizitza pribatuan, komunitatean, kontsumo eremuan edo lan eredu eta harremanen bitartez sortzen diren instituzio eta praktika sozialak, ekonomian eragiteko duten gaitasuna aitortzen den. Azken finean, ekonomia ortodoxoaren esleipen arrazionalaren suposizioa gainditzen duen ikuspegi bat barneratuz, eta elementu isolatu

bat bezala kontsideratu ordez, garapena, bizitza sozialaren kontrolpean dauden praktika sozialak bezala kontsideratuta (Maccallum et. al., 2009).

Abiapuntu honetatik, orain arte ikusi ditugun berrikuntzaren ikuspuntuekiko kritikoa den beste ikuspegi bat aurkezten zaigu. Berrikuntza sozialarena, alegia. Hala ere, zehaztu behar da lehenengo, berrikuntza soziala aztertzen duten autoreek ez dituztela berrikuntza teknologikoak baztertzen, baizik eta berrikuntza sozialekiko maila berdinean jartzen dituztela (Zurbano, 2008). Alabaina, zer da berrikuntza soziala? Berez, berrikuntza sozialak ez dauka adostutako definiziorik, ikuspuntu desberdinetatik interpretazio ezberdinak egiten baitira. Hala ere, berrikuntza sozialari begiratzeko bi ikuspegi nagusi antzeman ditzakegu. Alde batetik, kapitalismoak eta ideologia neoliberalak komunitateetan sortzen dituzten arazo sozialak edo beharrezanen asetze falta estaltzera bideratutako neurri berritzaileak lirake. Eta beste aldetik aldiz, komunitate bateko banakoen eta talde sozialen arteko harreman sozialetan sortzen diren berrikuntzak lirake. Hots, arazo eta behar horiek konpondu edo estaltzeko botere harremanak eraldatzea helburu duten praktika, dinamika edo gobernantza eredu berritzaileak lirake; komunitatearen ahalduntzea dakarrenak (Moulaert eta Nussbaumer, 2005a; Moulaert et. al., 2005; Zurbano, 2008; MacCallum et. al., 2009; Etxezarreta et al, 2015; Zurbano et. al., 2018).

Etxezarreta, et. al.,-entzat (2015), lehenengo ikuspegia soilik aintzat hartzeak, berrikuntza sozialaren izaera utilitarista dauka, eta beraz, logika neoliberalaren aldeko lanabesa funtzional bat bezala kontsideratzen dute; aldaketa sozialik ekartzen ez duen heinean. Aldiz, bigarren ikuspegia, jendartean harremantzeko orduan ematen diren aldaketetan oinarritzen da. Azken ikuspegi honetatik ez gara erlazioez modu abstraktu batean ari, komunitate batean ematen diren talde sozialen arteko botere harremanak, erlazio sozialak, lan-harremanak, merkatu harremanak edo gobernantza ereduari buruz ari gara (Moulaert eta Nussbaumer, 2005a). Berrikuntza soziala, harremanak eraldatzeko baliagarria den ikuspegi honetatik, “elkartasuna eta ekitatea adierazten dituen ideia-motorra da, eta gizarte inklusiboa eraikitzearen aldeko ikerkuntza eta ekintza sustatzen ditu” (Etxezarreta et. al., 2015:9). Horrenbestez, berrikuntza sozialaren ahalmen eraldatzailea ulertzeko, bere bi kontzepzioak batzea beharrezkoa da: beharrezanen asetzea eta harremanen eraldaketa.

Aldi berean, berrikuntza soziala, diziplina ezberdinetatik ikertua izan den kontzeptua da. Ildo honetan, Moulaertek (2008) berrikuntza soziala landu duten lau

esfera bereizten ditu: Antolakundearen kudeaketaren inguruan, artearen eta sormenaren inguruan, zientzia politiko eta administrazio publikoaren inguruan eta tokiko garapenaren inguruan. Azken honi dagokionez, bereizi behar dugu lurraldeetatik aurrera eramaten den garapenaren ikuspegi, teoria eta ereduaren artean, komunitateen garapena lehenesten duen garapen komunitarioaren¹² ikuspegia.

Ikuspegi honetatik begiratuta, Moulaert eta Nussbaumerrek (2005a), aipatu ditugun definizioetatik, bigarrenean arreta jartzen dute, non lurralde batean —eskualdea, hiria, herria, auzoa...— harreman mota ezberdinak daudela dioten, eta bertan dauden pertsona eta eragile ezberdinen arteko harremanak, profesionalen artekoak, enpresa eta langileen artekoak, hornitzaile edo bezeroen artekoak eta gobernua eta jendartearen artekoak eraldatzeko berrikuntza eredu bezala ikusten duten. Horrela, sozialki berritzailea den eskualdearen kontzeptua sortzen da.

Autore hauek, ontologia komunitario batetik, esfera pribatua eta publikoaz gain, analisisian esfera komunitarioa barneratu behar dela diote. Izan ere gaur egun, esparru pribatu eta publikoaren arteko analisi dikotomikoek ez dira nahikoak, izaera mistoa izan dezaketen errealitateak geroz eta ageriagoak direlako. Gainera, esparru publikoa kapital pribatuaren mesedera lan egin behar duen ikuspegi instrumentala gaitzetea beharrezkoa da, eta komunitatearen beharrak asetzera bideratu behar dira hiru esparruek. Merkatuaren bidetik, estatuaren birbanaketaren bitartez, elkarrekikotasunean oinarritutako tokiko trukeen bitartez eta autosufizientziaren bitartez. Horrela, sozialki berritzailea den eskualde batek, tokiko kulturaren, eragilearen sare eta harremanetan, tokiko ezagutzan (teknologikoa baino zentzu zabalago batean, zeinek kapital mota guztiei — giza kapitala, kapital soziala, kapital ekologikoa...— aplikatzen zaion) eta gobernantzan eraldaketak suposatzen ditu.

Moulaert eta Nussbaumer (2005a) eta Moulaert eta Mehmood (2011) dioten moduan, berrikuntza sozialaren ikuspegia barneratzerakoan, bestelako garapen eredu baterako perspektiba irekitzen zaio tokiko garapenari. Ildo honetan, Moulaertek (2000,

¹² Garapen komunitarioa aipatzen da hemen, komunitatean ematen diren dinamikak eta garapenaren aldagai ez ekonomikoak indartzeko; merkatuaren ikuspegi indibidualistaren aurrean. Hau da, geografikoki, sozialki edo politikoki definitutako pertsonen arteko harremanei erreferentzia egiten die, non pertenezaren kontzeptua zentzua hartzen duen (Moulaert eta Nussbaumer, 2005a). Ez dugu hala ere, berrikuntza soziala arlo ekonomikoa baztertzen duela ulertzea nahi. Izan ere, bestelako harremanak sortzea bilatzen duen berrikuntza sozialaren ikuspegiarentzako ezinbestekoa da, besteren artean, harreman ekonomikoak eraldatzea.

2008) lurralde garapen integratua edo *integrated area development*-aren ereduak proposatzen du. Berrikuntza sozialean oinarrituta dagoen eredu hau, tokiko jendartearen beharrianak tokian tokiko baliabideekin asetzera, harreman moten eraldaketa ematera eta gobernantza parte-hartzailearen bidetik ahalduz sozio-politikoak sustatzera bideratuta dago. Horretarako beharrezkoa ikusten du tokiko garapenaren demokratizazioa, herri-mugimenduei eta jendarte zibilari hitza emanez. Hau da, lurralde gobernantzaren demokratizazioaren bitartez eta jendarte, antolakunde, mugimendu eta bestelako eragile politiko, sozial, ekonomiko ezberdinen kooperazioaren bitartez, garapen estrategia komun bat eraikitzean datza.

Oro har, *integrated area development*-aren inguruko idazkietan gailentzen diren eskalak hiria eta, batez ere, auzoarena dira. Eta beraz, sozialki berritzailea den eskualdearekiko ezberdintasun nagusia eskala kontua dela kontsideratu dezakegu. Hala ere, eskala kontua ez da kontu makala; garapen ekonomikorako eta promozio ekonomikorako eskumenak maila goragoko administrazioek daukatelako. Eta beraz, hiri, udalerrri, eta betez ere, auzo mailan sortzen den garapen komunitarioko ekimenek hau izan behar dute kontutan; eta maila altuagoko erregulazio eskalekin harremanak lantzea beharrezkoa izango dute.

Herrialde post-industrialetako hirietako auzoek desindustrializazio eta berregituraketa prozesuak jasan dituzte. Horrek tokiko lan merkatuari modu negatiboan eragin diolarik (Moulaert, 2008). Auzoetan ematen diren herri klaseen kontzentrazioagatik, sozialki berritzaileak diren prozesuak emateko erraztasuna areagotzen da. Harremanetan intentsiboak diren espazio hauetan, erlazio sozial berritzaileak eta agenda alternatiboak sortzeko eskala egokia direlako. Gainera — jarraitzen du autoreak—, sistemaren arrakalak bertan aurkitzen direlako; maila lokalenetan.

Moulaert eta Sekiak (2003:295) lurralde garapen integratuaren ereduari hainbat oinarri teoriko antzematen dizkiote. Alde batetik, garapen endogenotik datozen ekarpenak leudeke, izan ere, beharrianak asetzeko, tokian tokiko baliabideez baliatzeaz gain, tokiko eragileen mobilizazioa azpimarratzen dute. Hortik eratorrita, komunitatearen ahalduz garrantzia ere azpimarratzen dute. Bestetik, ekonomia sozialaren papera nabarmentzen dute, zeinek, hurrengo kapituluan ikusiko dugunez, harreman ekonomikoak eraldatzeko baliagarria izan daitekeen. Horrez gain, barruti

industrialekin, eta aurrerago azalduko dugun sareen teoriarekin lotzen dute. Eta azkenik, erregulazioaren teoriarekin.

7. KOADROA: Berrikuntza soziala garapen komunitarioarako. Brugse Poort auzoaren kasua

Gante, Ekialdeko Flandriako hiriburua da; Mendebaldeko Flandria eta Anberesen artean eta Bruselas hego-ekialdean uzten duelarik. Adibide honetarako, hala ere, Ganteko erdiguneko ipar-mendebaldeko auzo batean eramandako garapen komunitarioa azalduko dugu; *integrated area development* bezala kalifikatu genezakeena. Brugse Poort deritzon auzo post-industrial honetan, aniztasun etniko, kultural eta sozioekonomiko ugari batzen da. Kasu hau berezi egiten duena batez ere, behar lokalak nola identifikatu eta garapen estrategian barneratu dituzten ikustea da.

Brugse Poort auzoaren bilakaera, hiri askotan ezaguna den prozesua jarraitu du. Zabalkunde azkarra izan zuen XX. mendean, bertan kokatutako industria ezberdinengatik. Dentsitate handiko auzo kaotiko bat bihurtu zen; industria haietan lan egin behar zuten langileak bertaratzerakoan planifikatu gabeko zabalkundea eman zelako. Sare komunitario ezberdinak ehundu ziren lantegi, eliza, taberna eta elkarte ezberdinen inguruan. 60ko hamarkadan, auzoa desindustrializatzen da, eta klase ertaineko populazioa auzo periferikoetara mugitzen da. Ondorioz, 70eko hamarkadan jatorria ezberdinetako migranteak bertaratzen joaten dira. Ondoren, 90eko bigarren erdialdean, alokairuen kostu txikiagatik, ikasleak batez ere erakarriak izaten dira. Brugse Poort bezalako auzo post-industrialetan, kapitalismoaren kontraesanak ageriagoak egiten dira, eta gatazka sozial, kultural eta ekonomikoei aurre egin behar diete komunitateetan oinarritutako estrategien bitartez; estatuan edo merkatuan oinarritutako irtenbideak ez baitira hain eraginkorrak hemen. Komunitate lokala ahalduntzeko, esperientzia honetan, planifikazio fisikoa gainditu, eta harremanak eta komunitatearen dinamikak eraldatzea lortu duen berritze-urbanorako plan bat aurrera eraman dute. Izan ere, Brugse Poort bezala, XIX. mendean eraikitako auzoetan, eskusio soziala, pobrezia, desenplegua, espazio berdeen eta irekien falta, etxebizitzaren kalitate eskasa, jatorrizko langile klasearen eta migranteen arteko tentsioak eta dentsitate handia bezalako arazo sozioekonomikoak nabariak dira.

1999an Ganteko udaletik (*city council*) arazo espazialak aztertzeko ikerketa bat eskatu zen bi enpresei, zeinek beharrezko 25 interbentzio antzeman zituzten. 2001ean plana aurkeztu zen. Hala ere plan honek bakarrik espazio berdeak, etxebizitzak eta errepedeak eraikitzea edo berritzera bideratua zegoen. Ikuspegi teknokratiko honek, pixkanaka, populazio lokalaren partehartzea bideratuta zegoen ikuspegi komunitario bategatik aldatzen joan zen; batez ere, auzo elkarte (*neighbourhood council*) hitza hartu zuenetik. Auzo elkartearentzat, plana motz gelditzen zen, eta batez ere, biztanle berriak erakartzeko bideratua zegoen eta ez dagoeneko bizi zirenen bizi kalitatea hobetzeko. Auzo elkarteak, egoera desabantailatsuenetan zeuden pertsonetan oinarritutako prozesu partehartzailearen beharra aldarrikatzen zuen. Hiriko udalak, zailtasunak zituen planerako babesa lortzeko auzoan; batez ere etxebizitza zaharrak bota nahi zituelako. Beraz, auzotik udalaren konpromisoa ikus zezaten, planean auzoaren eskakizun historiko bat barneratu zuen: lur sail batean auzokideek inprobisatutako parkea, benetako parke bat bihurtzea. Izan ere, aurreko udal gobernuek beti mehatxatu zuten espekulazioa sustatuko zuten eraikin altuak eraikitzearekin. Azkenean, parkea auzoko eragileen partehartzearekin diseinatu eta eraiki zen; eta udalaren eta auzoaren arteko harremanak kooperazioan oinarritu ziren. Planak jarraitu zuen eta parkearen inguruan, eragile ezberdinak elkartzeko zentro bat eta teatro bat ezarri ziren. Teatroa aurretik existitzen bazen ere, lokalizazio berria bilatu zioten zentro komunitarioa sortzeko. Horrela, esan bezala, eragile ezberdinen arteko harremanak sendotu ziren eta hauen arteko sare bat sortu zen ekimen berritzaileak aurrera eramateko.

Iturria: Oosterlynck eta Debruyne (2013).

2.3.1.8 Klase sortzailea:

Dударик ez dago, gaur egungo ekonomian hiriek duten garrantzia geroz eta handiagoa dela. Hiriak, estatu-ekonomiaren hazkundearen menpe garatzen ziren zentro ekonomikoak bezala zuten zeregina aldatu egin da, eta orain, prozesu sozioespazial lokalak eta globalak elkarbizitzen duten nodoak dira. Gaur egun beraz, nodo hauen arteko harreman komertzialak areagotu egin dira; aldi berean, eskualde periferikoen beharra gutxituz. Horrenbestez, hiriak eragile global garrantzitsuak bezala agertzen dira nazioartean, non enpresa lehiakor gisa ikustea sustatzen den; gaur egungo narrazio geopolitiko eta geo-ekonomiko batzuekin konektatuz, hala nola globalizazioa, estatu-nazioaren amaiera edo ikasten duten eskualdeak (González, 2005).

Floridak (2003) dionez, hirietan hezkuntza maila handia duten eta sortzaileak diren gaitasun handiko pertsonak daude. Eta hauek dira, hain zuzen ere, enpresen berrikuntzaren indar nagusia. Autore honen arabera, hazkunde ekonomikoaren ikerketa ezberdinek, populazioaren hezkuntza mailaren eta arrakasta ekonomikoaren arteko erlazio zuzena antzematen dute. Hau da, giza kapitalaren eta hazkunde ekonomikoaren artekoa. Eta beraz, enpresak aglomeratzeko arrazoi nagusiena, kualifikazio maila altuko tokiko lan merkatua edo langileen kontzentrazioa dela.

Klase sortzailea edo *creative class*, oro har, jarduera sortzaileetan lan egiten duten pertsonak osatzen dute. Hauen artean, nukleo bat legoke, zein Floridaren (2003:8) arabera, langile “super-sortzaileak” osatuko lukete. Nukleo honetan, zientifikoak, ingeniariak, unibertsitateko irakasleak, poeta eta eleberrigileak, artistak, diseinugileak, arkitektoak eta pentsamendu-lider ezberdinak (idazleak, editoreak, figura kulturalak edo iritzi-liderrak) daude. Eta hauen inguruan, beste “profesional sortzaileak” daude zeinek teknologia altuko sektoreetan, finantza sektorean, osasunaren sektorean edo enpresen kudeaketan lan egiten dutenak diren.

Klase sortzailea, argi dago, ez da hiri guztietan berdin azalarazten. Floridak (2003) hirien aniztasuna edo kultura bohemiarra bezalako aldagaien eta klase sortzailearen arteko harremana antzeman du. Horretarako, *gay index*¹³ eta *bohemian*

¹³ *Gay index*: Teknologia altuko industrien kopurua eta gay komunitatearen arteko harremana ikertzen du. Honen emaitzen arabera, gay komunitatearen tamaina eta industria teknologikoen arteko harremana zuzena da (Florida, 2003).

*index*¹⁴ proposatzen ditu adierazle moduan. Ohikoa da gainera, klase sortzailea agerikoa den hirietan industria kultural zabal bat garatzea. Langile “super-sortzaile” horietarako ingurune mesedegarria osatzen baitu. Ildo honetan, hirien lehiakortasuna handitzeko, klase sortzailea erakartzen saiatzen diren politikak ageriagoak egiten ari dira. Eta beraz, politika hauek industria kulturala sendotzera bideratuak izaten dira; azpiegitura sozio-kulturalen bitartez edo auzoen berregituraketan bitartez, kluster kulturak sortzeko. Hala ere, Gainzak (2018) esaten duen moduan, politika hauek tokira, prozesura edo produktura bideratuta dauden arren, ez dira artistak laguntzeko edo babesteko bideratzen, baizik eta klase sortzailearen kontsumo lehentasunak asetzeko intentzioarekin aurrera eramaten dira. Hau da, klase sortzailea erakartzeko lehia global batean leudeke hiriek, eta beraz, hauek eroso sentitu daitezten politika ezberdinak diseinatzen dira.

Ildo honetan, azpimarragarriak dira hiriek azken hamarkadetan izan dituzten azpiegitura kulturalen eraldaketa prozesuak. Hiriak mundura zabaldu dira eta hiri handi askok politika kulturalki ekintzaile bat jarraitu dute non kultura-azpiegitura handietan inbertitu duten. Estatu mailan adibidez, ezagunak dira Bilboko Guggenheim Museoa, Valentziako Zientzien Hiria, Olinpiar jokoak erakartzeko saiakerak, Sevilla-ko Expo-a, Madril 2012, Valentziako Amerika Kopa, Europako kulturaren hiriburu diren hiriak etab. (González, 2005). Hala ere, beti ez dira horren azpiegitura handirik behar klase sortzailea erakartzeko eta egonkortzeko; auzo edo gunen degradatuen eraberritzeko ekimenak ere aurrera eramane ohi dira horretarako. Beharrezkoa dena da, sortzen diren espazio kulturalak auzo edo hirietan instituzionalizatzea. Hots, auzokideek espazio hauek aldaketa sozial eta kulturalerako duten potentziala ikusi eta onartzea. Garrantzitsua izan daiteke zentzu honetan, proiektu sortzaileen sortzaileak auzoen bizitza kulturalarekiko konpromisoa hartzea (Gainza, 2018).

Laburbilduz, klase sortzailea, jarduera sortzaileetan lan egiten duten langileek osatuko lukete. Gaitasun handiko pertsona hauek dira berrikuntza aurrera eramaten dutenak, eta beraz, hirien garapen ekonomikorako eragile garrantzitsuenak. Klase sortzailea erakartzeko, eta euren jarduerak modu egokian aurrera eramane ahal izateko, aniztasun kulturala beharrezkoa dela frogatu dute ikerketa ezberdinek. Eta, aniztasun

¹⁴ *Bohemian index*: Idazleak, diseinugileak, musikariak, aktoreak, zuzendariak, margolariak, eskultoreak, argazkigileak eta dantzariak batzen ditu. Adierazle honen arabera ere, komunitate honen eta teknologia altuko industrien kopuruaren arteko harremana zuzena da (Florida, 2003).

kultural honetan, bereziki kultura bohemiarra beharrezkoa dela antzeman da. Horregatik, azkenaldian, hirietako politika ekonomikoak, industria kulturala sustatzera bideratu izan dira neurri handi batean.

8. KOADROA: Erribera, Bilboko auzo sortzailea

Deustuko eta Zorrotzaurreko erriberak, Bilboko itsasadarrean altxatzen den Erribera izeneko penintsularen bi auzo dira. Lehenengoan biztanleria gehiena bizi da eta bigarrena aldiz izaera industrialagoa izan du beti. Hala ere, gaur egun, ez dira ia enpresarik gelditzen eta eraikin eta biltegi hutsez beteta dago. Udal politikek gainera, ez dira egoera honetaz kezkatu azkenengo urteetan.

1998an, hACERIA deritzon elkarte kultural batek lantegi bat birmoldatu, eta diziplina anitzetarako lan espazio bat eta erakusketetarako espazio bat sortu zuen. Hamar urte geroago, hACERIAk, ZAWP proiektua aurrera eramane zuen ekoizpen kulturala sustatzeko. Proiektu honekin, beste bederatzi eraikin birmoldatu ziren. Finantzaketa mistoa duen arren (publikoa eta euren jardueretatik lortzen dutena), hACERIA elkarteak da proiektua kudeatzen duena.

Hurrengo urteetan beste 30 enpresa kultural inguru kokatu dira auzoan; eta ondorioz, sortzaile ezberdinen arteko erlazioak areagotu dira. Auzoa, Bilboko Guggenheim museotik, alde zaharretik eta erdigunetik urrun ez egon arren, auzo periferikoa dela esan daiteke. Hala ere, auzo periferikoaren izaera lagungarria izan da kluster kulturala sortzeko; horrelako eraikinak jarduera kulturalak aurrera eramateko egokiagoak izan direlako eta sortzaileen arteko komunitatea indartzen lagundu duelako. Gainera, aipatzekoa da enpresari kultural hauek proiektua auzoan errotzeko egin duten lana. Izan ere, auzoaren berpizte ekonomiko, soziala eta kulturala euren proiektuaren hanka garrantzitsua izan da.

Horrelako prozesu batek hala ere, arazo ezberdinak kudeatu behar ditu. Izan ere, horrelako aldaketa kultural batek auzoaren ezaugarriak eraldatzen ditu, eta hau ez da beti auzokide guztien onarpena izaten. Gainera, gentrifikazioa bezalako beste arazo batzuk kudeatu behar dira. Horrez gain, kasu konkretu honetarako, auzokideek gaitzesten duten, baina udalak aurrera eramane nahi duen proiektu urbanistiko baterako pauso bat bezala ikusia izan da auzokide batzuen partetik.

Iturria: Gainza (2018:799-808).

2.3.2 Ereduen sintesia:

Ikusi ditugun lurralde berrikuntzarako ereduetan antzekotasun eta desberdintasunak antzeman daitezke. Oro har, dinamika hauek azaltzen dituzten familia ezberdinak daude. Lehenengoan, barruti industrialak eta milieux berritzaileak egongo lirateke. Hauek, batez ere, balio instituzionalei eta lurraldeen potentzial endogenoari erreparatzen diote. Nahiz eta barruti industrialen kasuan, berrikuntza eragileen kooperaziorako ahalmenaren menpe egon, eta *milieux* berritzaileen kasuan, lurraldea, enpresek berrikuntzarako babes espazioa bezala agertzen den. Beste ikuspegi batetatik, erregio berrikuntza sistemek, ezagutzaren ikuspegi eboluzionista bat lantzen dute; non berrikuntza, lurraldean dauden eragileen arteko erlazioen bitartez metatzen den. Hirugarren familia bat, espazio industrial berriek eta, neurri baten, klusterrak osatzen dute. Lokalizazioagatik enpresei abantailak lortzean oinarritzen baitira (Moulaert eta

Nussbaumer, 2005a). Ikasten duen erregioa, aurrekoetatik ikasten duen lurraldea da; eta beraz, aurrekoen sintesi gisa kontsideratu dezakegu.

Bestalde, sozialki berritzailea den eskualdea, aurrekikoei kritikoa den ikuspegi batetik abiatzen da. Ikuspegi honetatik, tokiko garapenerako ereduak modu instrumental batean erabiltzen dituzte tokiko baliabide eta instituzioak; lurraldeen hazkunde ekonomikoa eta lehiakortasuna lortzeko, antolaketa produktiboaren berregituraketa baterako elementua bezala ikusten dutelako. Gainera, aurreko ereduak, soilik berrikuntza teknologikoan jartzen dute arreta. Beraz, beharrianak asetzeko edo/eta bestelako harreman ekonomiko, sozial eta politikoetarako oinarriak jartzen ditu sozialki berritzailea den eskualdeak. Azkenik, hirietan bereziki sortu den klase sortzailearen ikuspegia ikusi dugu. Hirietan kontzentratzen diren langile sortzaileek sortzen duten dinamismo ekonomikoan oinarritzen dena. Hurrengo taulan, eredu hauen guztien sintesi bat ikusi daiteke:

2. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENA

2.4. TAULA: Tokiko garapen ereduaren sintesia

	Barruti industrialak	Espazio industrial berriak	Milieux berritzaileak	Klusterrak	Eskualde berrikuntza sistemak	Ikasten duen eskualdea	Sozialki berritzaileen eskualdea	Klase kreatiboa
Oinarrizko erreferentziak	Marshall (1920) eta Becattini (1979)	Storper eta Scott (1988)	Aydalot (1986) eta GREMI	Porter (1990 eta 1998)	Cooke, Heidenreich eta Braczc (1998) eta Uranga eta Olazaran (2001)	Florida (1995) eta Morgan (1997)	Moulaert eta Nussbaumer (2005a) eta MacCallum et. al. (2009)	Florida (2003)
Definizioa	Enpresen ehunak dira, non ekoizpen komuna enpresen artean banatzen den.	Espezializatutako industria lokalizatuak; zeintzuk lanaren banaketan, ekoizpen malguan eta aurrezten diren transakzio kostuetan oinarritzen diren.	Ingurune bateko enpresen berrikuntza sustatzen duten enpresa eta eragileen arteko erlazioak.	Interkonektatuta dauden enpresen eta instituzioen kontzentrazio geografikoak.	Lurraldean dauden eragileen arteko elkarrekintzaren bitartez berrikuntza ematen da.	Ezagutza eta ideiak biltzen dituzte. Eta hauek errazten dituzten azpiegituren ingurune batez hornitzen diren erregioak dira.	Merkatuaren izaera indibidualistaren aurrean, ontologia komunitario batetik, sozialki berritzaileak diren prozesuetan oinarrituta dago.	Jarduera sortzaileetan lan egiten duten langileen kontzentrazioak. Hauek dira berrikuntza aurrera eramaten dutenak.
Berrikuntza	Balio instituzionaletan oinarrituta dauden aktoreen arabera.	I+Garen arabera lehenengo eta berrikuntza zabaltzeko gaitasunaren arabera ondoren.	Enpresa eta bere ingurunean dauden eragileen arteko harremanen arabera.	Hurbiltasunak errazten duen informazioaren zabalkuntzaren arabera.	Berrikuntza prozesu kolektiboa da. Eragileen arteko interakzioen arabera.	Berrikuntza prozesu kolektiboa da. Eragileen arteko interakzioen arabera. Balio instituzionalek eragina daukate eragileen portaera zehazteko.	Beharrak asetzera edo/eta harremanak eraldatzera bideratutako berrikuntzetan oinarritutako garapena.	Pertsona sortzaileak erakartzeko duen gaitasunaren arabera.

2. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENA

Balio eta harremanak	Konfiantzan eta elkarrekikotasunean oinarrituta. Balio instituzional komunak. Sareen bitartez kooperazioa eta lehiakortasuna existitzen dira aldi berean.	Elkarlana eta interakzio soziala. Kostuak murrizteko enpresen arteko harremanak	Konfiantzan eta elkarrekikotasunean oinarrituta. Babes espazioan enpresen eta bere hornitzaile eta bezeroekin harremanak areagotzen dira.	Lehiakortasun eta elkarlanerako enpresen arteko harremanak. Porterren diamantean oinarritutako erlazioak.	Ezagutza eragileen arteko interakzioan oinarrituta dago. Horregatik erlazioak sare egitura hartzen dute.	Ezagutza eragileen arteko interakzioan eta balio tokiko instituzionaletan oinarrituta dago. Sareetan oinarritutako antolakuntza	Komunitatearen indartzea merkatuko balio indibidualisten aurrean. Gobernantza eredu berritzaileak garapen prozesu kolektiboa aurrera eramateko.	Tokiko ingurunea sortzaileentzako egokia izan behar du. Sortzaileen arteko harremanak egon daitezke kluster kulturalen bitartez.
-----------------------------	---	---	---	---	--	---	---	--

Iturria: Egileak egina

2.4 Egituraketa ereduak eta eragile motak:

2.4.1 Enpresa sareak:

Lurralde batean lokalizatutako industria batetik, lan merkatu espezializatua, ezagutza fluxuen hedapena, sektore osagarriak (Marshall, 1920), transakzio kostuen murriztea (Williamson 1981), bertikalki edo horizontalki integratutako hornitzaile, bezero eta erakunde ezberdinen arteko klusterrak (Porter, 1990), eta tokiko eragileek osatzen duten prozesu kolektiboaren bitartez ezagutza eta berrikuntzaren zabalpena (Lundvall, 1992) lortu daitezke. Hau da, enpresen kontzentrazio geografikoetatik, tokiko edo barne merkatu ezberdinak sortzen dira. Hauek, produktuetaoak, zerbitzuetakoak, ezagutzakoak edo lan merkatuak direlarik.

Izan ere, enpresen kontzentrazio espazialetan ematen den gertutasunagatik, tokiko instituzioez bustita dauden harreman eta kooperaziorako egiturak areagotzen dira. Hortik eratortzen da, hain zuzen ere, sarearen kontzeptua. Izan ere, sareetan antolatuta dauden enpresak, egonkortasuna erakusten dute merkatuaren desoreken aurrean, akordio formalen edo ekoizpen funtzioen integrazioa bezalako mekanismoen beharrik gabe (Gainza, 2008). Hau da, enpresen sareak, merkatuaren desorekei erantzuteko sortzen dira, lurraldeak eskaintzen dituen lokalizazio abantaila horietan oinarrituta. Horregatik, ikusi ditugun eredu ezberdinetako oinarrietan aurkitu ditzakegu. Batez ere, barruti industrialetan, milieux berritzaileetan edo espazio industrial berrietan (Moulaert eta Sekia, 2003).

Enpresen sareak egitura ezberdinak izan dezaketen arren, Grabher-ek (1993:8-12) lau ezaugarri komun bereizten ditu: elkarrekikotasuna, interdependentzia, lotura ahula eta boterea. Sareetan ematen diren transakzioak ez dira ekibalentzian oinarritutako truke arruntak bezala (merkatua) edo ekoizpen faseak integratuta dauden enpresa handi batean (hierarkian) bezala ematen; elkarrekikotasunean oinarritutako erlazioen bitartez baizik. Hortaz, lehenik, enpresen arteko korrespondentzia ematea beharrezkoa da, ez transakzio bakoitzean baina bai modu orokorrean. Hau da, sareetan enpresen arteko transakzioak ematen dira, besteen aldetik korrespondentzia egongo den itzaropena dagoelako. Bigarrenik, merkatuetako transakzio arruntetan enpresen arteko erlazioak independentzia gradu altua behar duten bitartean, enpresa hierarkiko handi batean ematen diren erlazioak dependentziantz jotzen dute. Aldiz, sare baten aktoreen arteko erlazioak interdependentzian oinarrituta daude. Hau da, aktore bakoitzak besteen

beharra dauka eta alderantziz. Izan ere, epe luzean ematen diren interakzioek sareko aktoreen egokitzea ekartzen du, eta beraz hauen arteko interdependentzia; sarean jokabide, arau, ikuspegi, filosofia teknikoa, eta oro har, orientazio komuna sortu delako. Hala ere, sareetako aktoreen arteko loturak, ahulak dira (*loose coupling*), autonomia eta transakzio erlazioen inguruan malgutasuna ahalbidetzeko. Hots, ez dira epe luzara obligazio formalak sortzen, baina harreman eta interakzio egonkorak baimentzen dituen marko bat sortzen dute. Azkenik, sareetan elkarrekikotasuna egonagatik ere, ez du esan nahi botere harremanik ez dagoenik. Izan ere, eragileen arteko botere asimetrikoak egon daitezke, eta hauek transakzio edo kontratu bakoitzean kudeatu beharreko gatazkak sortu ditzakete.

Enpresa sareak, ekoizpen posfordistaren ezaugarrietako bat dira. Enpresa fordista handiak ez baitzen gai izango, bere zurruntasunagatik, egungo merkatuaren aldaketei eta ezegonkortasunari aurre egiteko. Horregatik, enpresen arteko harreman malguagoak bilatzen dira orain. Sareak beraz, lanaren banaketa baimentzen dute enpresen artean, horrela, aldaketa teknologikoei egokitzeko malgutasun handiagoa eskaintzen dute eta arriskua murrizten da. Gainera, kostu finkoak murrizten dira eta espezializazioa ahalbidetzen da.

Labur esanda, malgutasuna beharrezkoa den testuinguru honetan, ekoizpenaren koordinazio modu berriak beharrezkoak dira, eta sareek, malgutasun horri eta aldaketa teknologikoari enpresen erantzun egokiagoa ahalbidetzen dute. Besteak beste, sarean informazio eta ezagutza fluxuak areagotzen direlako edo ekoizpen prozesu batetik bestera egokitzeko erraztasun handiagoa erakusten dutelako eredu zurrunen aurrean. Horrez gain, lana sarean dauden enpresa ezberdinen artean banatzen denez, kostu finkoak murrizten dira. Gainera, enpresen sare batek, isolatuta dagoen enpresa bat baino presentzia eta indar handiagoa dauka merkatu globaletan. Azkenik, lurraldeko enpresen sare dentso bat sortzen bada, eta beraz, sarearen arteko enpresen artean hornitzaile eta bezero harremanak areagotzen badira, ekonomia lokala indartzeko eraginkortasun handia izango du, jarduera ekonomikoa hazi egingo delako, horren balio erantsiaren zati handi bat bertan geldituko delako eta industria eta zerbitzu osagarriak sortuko direlako.

2.4.2 Gobernantza:

Prozesu globalizatzailearen ondorioz, eta estatuak jasandako erregulaziorako boterearen higaduraren eraginez eratorritako eskalen berregituraketarekin batera,

governatzeko eredia beraren aldaketa bat eman da, eta esparru publikoa gainditzen duen governatzeko eredu berri batek indarra hartu du. Gobernantza, alegia.

Historiari begiratzen badiogu, demokrazia liberal burgesen ezarpenarekin, antzinako gobernuek euren izaera autoritario eta totalitarioagatik zuten zilegitasun eza lortzen dute neurri handi batean. Hortaz, gobernuari lotutako arazoen izaera aldatzen da. Lehen, zilegitasun falta horregatik gobernua bera zalantzan jartzen baldin bazen, ondoren, gobernuaren ekintza zen zalantzan jartzen zena. Hots, arazo sozialak kudeatzeko eta konpontzeko zuen gaitasuna eta efikazia. II Mundu Gerra osteko estatu keynesiarren gainbeherari, eta honek prozesu globalizatzaileari egokitzeko erakutsitako ezintasunari lotuta, estatuen gobernabilitateari buruzko lehenengo kezkek ernatu ziren. Gainera, agenda neoliberalaren aplikaziotik eratorritako estatuen boterearen ahultzea gehitu behar zaio. Zentzu honetan, gobernu ekintzaren inguruko analisi ezberdinen ostean, politika publikoen sorkuntzan geroz eta eragile gehiago parte hartzen zutela ondorioztatu zen. Egoera berri honekin, izaera bertikaleko gobernuetatik, eragile ezberdinen arteko kooperazioan oinarritutako gobernatze eredu multilateral batera igaro zen (Aguilar, 2010).

Gobernantza beraz, kolektiboki aurrera eramaten den gobernatze eredia da; gobernu ekintzarako esparru publikoaren eta pribatuaren mugak gainditzen dituena. Horrela, erakunde eta eragile ezberdinen bitartez aurrera eramaten den gobernatze eredia litzateke (Estensoro, Larrea eta Zurbano, 2011). Paz-ek (2005:20), gobernantza “lema deszentralizatuta duen ontzi bat” bezala kontsideratzen du, non gobernu burokratikoaren ideia, eredu zabalago eta kooperatiboago batengatik gailentzen den. Era berean, eragile gehiago barneratzerakoan, ikuspuntu eta ekarpen ezberdinak barneratzen dira, baina, aldi berean, gobernuaren ekintza zailtzen du interes eta botere harreman ezberdinak kudeatu behar direlako.

Horrez gain, egungo eskala aniztasuna kudeatu behar duen gobernatzeko eredu bat beharrezkoa zen. Hau da, ez da soilik aktore ezberdinak barneratzen dituen gobernatzeko eredu berri bat; baizik eta maila ezberdinetan dauden gobernuak kontutan hartzen dituena, eta hauekin koordinatuta dagoena. Ildo honetan, “eskala anitzeko gobernantza” bezala izendatu den eredia sortu da. Hots, maila globaletik, maila lokaleraino dauden tarteko mailetan agertzen diren interesei eta prozedurei egokitzen den ereduari erreferentzia egiten dion terminoa, alegia (Zurbano, et. al, 2014a).

Eskala anitzeko gobernantzaren kontzeptuaren hastapenak Europar Batasunak jarraitutako prozesuarekin lotu daitezke. Izan ere, Europar Batasunean, tokiko gobernuetatik europar erakundeetaraino erregulazio sozial, ekonomiko eta politikorako gaitasuna duten maila anitzak daude. Eta huez gain, *lobby*-ak, interes taldeak eta GKE-ak edo herri-mugimenduak bezalako jendarte zibil antolatuen adierazpen ezberdinek maila anitzeko gobernantzan parte hartzen dute ere (Zurbano et. al., 2018). Europar Batasunak eskala anitzeko gobernantzari buruz esaten duena begiratzen badugu, honakoa bezalako definizioak aurkitu ditzakegu: Erregioen batzordeak “eskala anitzeko gobernantza, Europar Batasuneko politikak sortu eta aplikatzeko xedez, elkartzean oinarrituta dagoen Europar Batasunaren, estatu kideen eta erakunde erregional eta lokalen arteko ekintza koordinatua” bezala kontsideratzen du (European Union, 2009:1).

Maila lokal eta erregionalera jauzi egiten badugu, tokiko gobernantza sistema garatu ahal izateko, oinarrizko bi elementu beharrezkoak dira. Batetik lurraldeen autogobernu ahalik eta indartsuena, eta bestetik, eragile ezberdinen arteko sareak.

Oro har, 80ko hamarkadatik deszentralizazio prozesu orokor bat eman da. Eta deszentralizazio gradua berdina izan ez den arren, eskalen birformulaketarekin erabakiak hartzeko ahalmena, gehiago edo gutxiago, espazio lokal eta erregionalera igaro da. Boisierrek (2004) dioten moduan, deszentralizazioa, sektore publikoaren funtzionamenduaren edo antolakuntzaren erreforma bat baino gehiago da. Kontratu sozial baten bitartez, lurralde baten aktore guztiak —publikoak, pribatuak eta jendarte zibila— barneratzen dituen egiturazko aldaketa bat baizik.

Bestalde, gobernantzan parte hartzen duten eragile horiek oso anitzak izan daitezke. Horien artean, gobernu erregionalak eta administrazio publiko lokalez gain, garapen agentziak, enpresen elkarteak, herri-mugimenduak, GKE-ak edo sindikatuak bezalako eragile sozialak, eta zentro teknologikoak, unibertsitateak, goi mailako hezkuntza ikastegiak etab. egon daitezke. Guztiek euren interesekin, baina guztiek garapen estrategia baten inguruan (Zurbano, 2005).

Ildo honetan, eragile lokalen parte hartzea ezinbestekoa da, batetik hauek direlako “lurraldearen inguruko jakintza atxikita” daramatenak eta bestetik “tokiko demokraziaren aberastasuna” sortuko dutelako (Estensoro et. al., 2011:31-32). Gobernantzan oinarritutako eredu batean, eragile hauen arteko kooperazioa beharrezkoa da, hortaz, eragileen arteko interakzio jarraituak beharrezkoak dira errekurtsuak

elkarbanatzerakoan eta helburu komunak negoziatzerakoan. Bistan da, eragileen aniztasuna ikusita, batzuetan negoziazioa ez dela izango erraza. Horretarako, eragileen arteko konfiantza beharrezkoa izateaz gain, joko arauak aldez aurretik hitzartuta egon behar dira (Paz, 2005).

Bestetik, gobernantza, aurretik ikusitako berrikuntza sozialaren kontzeptuarekin lotura handia dauka. Izan ere, esan dugun moduan, berrikuntza sozialak, harreman sozialen berrikuntzan oinarritzen da; eta gobernantza, erregulazioari dagokionez, eragile ezberdinen harremanetan oinarritutako gobernatze eredu berritzailea osatzen du. Aldi berean, Estensoro eta Zurbanok (2010) dioten moduan, kalitatezko gobernantza lokal inklusiboa guztiz beharrezkoa da eskualde sozialki berritzaileak sortzeko.

2.4.3 Tokiko eragileak:

Tokiko garapena prozesu kolektiboa da, eta beraz, tokiko eragileen arteko koordinazioa beharrezkoa da. Jendarte kohesionatuetan, eragileen arteko harremanak eta koordinazioa errazago lortzen da; interes partikularrak bat egiten dutelako eta eragile guztiak garapen prozesu baten inguruan antolatzeke erraztasuna handiagoa den heinean. Atal honetan, garapen prozesuetan eragiteko gaitasuna izan dezaketen eragileak identifikatzen saiatuko gara.

Tokiko garapenean eragiten duten eragileei buruz hitz egiteko, lehenik, garapen agentzien inguruan hitz egin behar dugu. Tokiko garapen agentziak, gobernantza ekonomiko lokala errazten duten agente lokalak dira. Horretarako, garapen ekonomikoan eragiten duten eragile ezberdinak koordinatzen dituzte. Hau da, enpresen, enpresen elkarleen, sindikatuen, administrazio publikoaren, hezkuntza zentroen, zentro teknologikoen eta tokiko aktibitate ekonomikoan zer esana duten bestelako agenteen inplikazioa bilatzen, koordinatzen, dinamizatzen eta harremanak bideratzen dituzte; epe luzera begira garapen auto-erregulatuta eta auto-kudeatuta eman ahal izateko (Estensoro eta Zurbano, 2010).

Alburquerquezentzat (1997) garapen agentzia bat hazkunde ekonomiko lokala eta enplegua haztea bilatzen duen errekurtsio endogenoa litzateke. Hau da, promozio ekonomikorako eta garapen produktiboa sustatzeko, sortutako ekimen publiko-pribatuak lirateke. Beraz, tokiko eragile bezala kontsideratu behar dira, lurraldeetan sortzen diren eta tokiko garapenerako prozesuetan parte-hartzen duten entitateak

direlako. Baina aldi berean, beste eragileak garapen estrategiara batzeko eta koordinatzeko giltzarri lana egiten dute.

Tokiko garapen agentziak dena den, ez dira denak berdinak. Eta are gehiago, ez dute denak alderdi berdinak jorratzen. Oro har promozio ekonomikoa sustatzera bideratuta daude, baina batzuk beste alderdi batzuk barneratzen dituzte; hala nola, arlo sozialak edo ingurumen sailak bezalakoak. Arlo ekonomikoa kudeatzeko duten ereduari dagokionez ere, ezberdintasunak aurkitu ditzakegu agentzia batetik bestera. Izan ere, agentzia batek aurrera eraman ditzakeen egitasmoen artean, ekintzailtza lokala sustatzeko ekimenak, tokiko enpresa ehuna sartzeko ekimenak, sektore konkretu bat indartzeko ekimenak, tokiko ekonomia nazioarteratzeko ekimenak, garapen iraunkorra sustatzeko ekimenak etab. egon daitezke. Eta agerikoa da agentzia guztiek ez dituztela ekimen berdinak aurrera eramaten, lurraldeen beharrei gehien egokitzen direnak baizik. Garapen agentzia bat sortzeko prozesuari begiratuta ere ezberdintasunak aurkitzen dira kasu bakoitzerako. Besteak beste lurraldeetatik abiatutako prozesu parte-hartzaile batetik sortuta egon daitezkeelako; eskualde bateko udal ezberdinek sortutako egitura bat bezala sortu daitezkeelako; edo, goiko maila batetik, eta beraz goitik beherako ikuspegi batetik, lurralde konkretu bateko garapena sustatzeko nahiarekin sortutakoak izan daitezkeelako (EAEko garapen agentzien kasu konkretuari 5. kapituluan begiratuko diogu).

Garapen ekonomikorako beharrezkoa den beste eragilea, edo eragileen multzoa, tokiko enpresa ehuna edo tokiko ehun produktiboa litzateke. Bere izena azaltzen digun moduan, tokiko enpresei —eta enpresen arteko elkarteei eta sindikatuiei— egiten dio erreferentzia, eta hauek dira, lurraldeetan aberastasuna sortzeaz arduratzen direnak. Hala ere, garrantzitsua da, tokiko egitura produktiboa, lurralde batean kokatuta dauden enpresa indibidualen agregazioa baino gehiago esan nahi duela ulertzea. Tokiko egitura produktiboa, enpresen sistema lurralderatua bezala ulertu behar da non euren arteko loturak eta harremanak garatzen diren. Eta harreman hauek nola garatzen diren arabera, garapen ekonomikoa ere baldintzatuko dute.

Eragile ekonomiko esanguratsuenekin amaitzearren, beharrezkoa da esatea tokiko garapenaren paradigmantik begiratzen duten autore batzuek ekonomia soziala aipatzen dutela garapen prozesuetan bultzatu beharreko elementu bat bezala. Hala ere, ideia hau agertzen denean ez da gehiegi zehazten. Hau da, lurraldeen garapenerako interesgarria izan daitezkeen esperientzien multzoa bezala kontsideratzen dute, baina

kasu gehienetan, ez da lotura horien inguruan hausnartzen edo eztabaida sakonagoak jorratzen. Eskuartean daukagun gure ikerlan honetan, ekonomia soziala (eta solidarioa) tokiko garapenerako oinarri bezala planteatu nahi da, eta beraz, tokiko garapenaren eta ekonomia sozialaren arteko zehaztugabeko lotura hauek zehaztea izango da hurrengo kapituluetan izango dugun lana. Hortaz, geroago sakonean aztertuko dugunez, oraindik ez dugu gehiegirik aurreratuko. Hala ere, ekonomia sozialean dauden eragile ezberdinek (enpresa, elkarte, fundazio, sareak...) bere tradizio demokratikoagatik eta jatorrizko lurraldeekiko erakusten duten errotze mailagatik, tokiko garapenerako eragile interesgarriak bezala kontsideratu ditugu hemen.

Bestetik, eragile ekonomikoak ez diren, baina oro har, tokiko garapenaren inguruko literaturak beti enpresen ondoan kokatzen dituen beste eragile multzoa agertzen zaigu; ezagutzaren zabalpenerako zentroak, alegia. Hauek, hezkuntzarekin lotura daukatenak izan daitezke, unibertsitateak eta heziketa zentroak bezala, edo berrikuntzaren zabalpena bideratuta dauden zentro teknologikoak.

Eragile politikoaren artean, tokiko herri-erakundeak agertzen zaizkigu lehenengo. Hauek analisirako hartu dugun eskalaren araberakoa izango dira (udala, mankomunitatea, aldundia...). Baina kapituluan zehar ikusi dugun moduan, eskalen arteko koordinazioa beharrezkoa da, nahiz eta garapen estrategia maila lokalean planifikatu eta aurrera eramaten den. Izan ere, estatuz azpiko gobernuek duten eragiteko gaitasuna areagotu egin den arren, eskala guztietako gobernuek ez daukate, besteren artean, promozio ekonomikorako eskumenik. Eta beraz, aipatzen dugun eskalen arteko koordinazioa beharrezkoa egiten da.

Tokiko edo eskualde gobernuei begiratuta, Alburquerquek (2004b) jarrera proaktiboa erakutsi behar dutela dio. Eta beraz, hirigintzaren inguruko zerbitzuak edo zerbitzu sozialen emaile baino gehiago izan behar dira. Tokiko garapenerako beharrezkoak diren kapital soziala, gobernantza edo enpresen arteko konfiantza bezalako elementuak zainduz eta sendotuz.

Tokiko garapenean eta lurraldeen gobernantzan eragiten duten beste eragile multzo bat, herri-mugimenduak edo mugimendu sozialak dira. Ibarra-k (2000) dionez, mugimendu sozial bat, hasteko, jendartearen errotik sortzen den ekintza kolektibo bat da; aurretik existitzen den gatazka batekin bukatzeko, ikusgaitasuna emateko, dimentsioak emateko etab. sortzen dena. Alabaina, aipatzekoa da, edozein gatazketatik ez dela mugimendu sozial bat eratortzen. Ildo honetan, bat egiten dugu Martinez eta

Casado-k (2013) egiten duten bi xehetasunekin. Alde batetik, ekintza kolektiboak izan daitezkeen alderdi politikoak, sindikatuak edo GKEak ez lirakeela mugimendu sozial gisa kontsideratuko. Nahiz eta herri-mugimenduen eta beste eragile lokal hauen arteko harremanak argiak izan. Bestalde, mugimendu feministek, ekologistek, LGTBI+, pobreziaren kontrakoak etab. lortutako errebindikazioen aurkako mugimendu erreazionarioak ere ez direla mugimendu sozialak bezala kontsideratuko. Izan ere, azken hauek, bere pribilegioak arriskuan ikusten dutenen erreazioak dira, pribilegio horiek bermatzen dien ordenamendua arriskuan ikusten dutelako.

Herri-mugimenduak tokiko gobernantza eta garapen estrategien diseinurako kontutan hartu beharreko eragileak dira. Eta, hauekin batera, GKEak eta sindikatuak bezalako tokiko beste eragile garrantzitsuak.

Eta azkenik, nola ez, jendarte zibila barneratu behar dugu tokiko garapenerako eragile garrantzitsu bezala. Jendarte zibila egunerokotasunean ematen diren harremanetatik hasita eta koordinatutako edo antolatutako biztanleriara zabaldu daiteke. Eta beraz, esparru publikoaren eta pribatuaren arteko harremanak hurbiltzeko baliagarria da; gobernuaren esanahi tradizionalaren aurrean, gobernantza eredu berrietan zeresan handia erakutsiz (Boisier, 1997).

2.5 Giza dimentsioa barneratzen: Tokiko giza garapena

José Luis Coraggio ekonomialari argentinarrak 1998an tokiko garapenaren inguruko teoriaren eta praktikaren artean bat etortzerik ez zegoela zioen. Hots, teorikoki landutakoa eta tokian tokiko esperientzia praktikoak ez zutela guztiz bat egiten orduko errealitatea eraldatzerakoan. 1998an, euren egunerokotasuna “traumatikoki” aldarazten ari zituen iraultza teknologiko eta ekonomikoaz hitz egiten zuen. Tokiko garapenaren inguruan eraikitako corpus teorikoak aldaketa hauei aurre egiteko gaitasuna erakusten zuen arren, praktikan, tokiko jendarte bizi kalitatea hobetu ordez, lurraldeen arteko lehiakortasuna oinarri izanik metaketa prozesuen menpeko eta merkatu globalaren eraikuntzaren aldeko prozesuak bezala ezarri ote ez diren galdetzen zion bere buruari (Coraggio, 1998).

Egun, Coraggiok planteatzen zuen hausnarketa berdina planteatzen jarraitu dezakegu. Globalizazioak eta kapitalismo neoliberalak dakartzaten erronkak gainditzeko baliagarriak al dira tokiko garapenetik proposatzen diren erantzun

ezberdinak? Zer jartzen da garapenaren erdigunean pertsonen ongizatea ala hazkunde ekonomikoa? Pertsonen gaitasun indibidual eta kolektiboak garatzen laguntzen duten prozesuak dira benetan? Edo, nola integratzen dira praktikan garapenaren alderdi ez ekonomikoak tokiko garapen prozesuetan?

Garapena helburu izan duten ikuspegi ezberdinek, hau, hazkundearen menpe jarri izan ohi dute. Hots, hazkunde ekonomikoa behin lortuta, ongizatearen inguruko helburuak lortuko zirela pentsatu izan da. Eta beraz, garapen estrategien lehenengo helburua hazkunde ekonomikoa izan da; nahiz eta hau lortzeko politikak ezberdinak izan ahal diren. Azkenaldian hala ere, ikuspegi honi egiten zaizkion kritikak areagotu izan dira. Izan ere, egiturazko krisi baten testuinguru batean, hazkunde ekonomikoaren gaineko mitifikazioa eta honek garapena lortzeko bidea izateagatik zuen zilegitasun soziala galtzen ari du (Dubois, 2014). Pertsonen beharrak eta ongizatea asetzeko gai izan ez den heinean. Ondorioz, zentzuduna dirudi garapena eta ongizatea lortzeko justizia sozialean eta giza eskubideetan oinarritutako bestelako eredu bat proposatzea.

Tokiko garapenaren testuinguruan, honi heltzeko teoria eta eredu ezberdinak daude. Eta beraz, bakoitzak garapena ulertzeko modu propioa erakusten du. Hala ere, orokorrean, lehenagoko garapen teoriak baino ikuspegi zabalagoa erakusten duten arren, eta beraz, garapenaren alderdi sozialak barneratu dezaketen, hazkunde ekonomikoa eta lurraldeen integrazioa merkatu globaletan lehenesten da; bide hau izango omen delako garapen soziala eta ongizatea lurraldeetara eramango duena. Horrela, ikusi dugun moduan esfortzu gehienak lurraldeen garapen ekonomikoa lortzeko bideratzen dira.

Bestalde, dirudienez, lurraldeak unitate analitiko gisa kontsideratzean asmatu egin da. Izan ere, garapenaren alderdi kolektiboak indartzea eta garapen prozesuaren jabegoa jendarteek izatea, edo behintzat honen kontrola hurbiltzea ahalbidetu du. Horrek ere esan nahi du, jendarte bakoitzak garapenaren interpretazio propioa izango duela, jendarte bakoitzak izaera, ikuspegi, kultura eta behar propioak dituelako. Hau da, analisi unitatea tokiko dimentsioan jartzeak, garapen prozesua lurraldeen behar propioei egokitzea ahalbidetzen du.

Ildo honetan, giza garapena eta gaitasunen ikuspegia erreferentzia normatibotzat hartuta, eta tokiko dimentsioa unitate analitiko bezala kontsideratuta, tokiko giza garapenaren ikuspegi heterodoxoa garatuz joan da azkenaldian. Eta ikuspegi honen

corpus teorikoaren garapenean, zalantzarik gabe Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa Institutuak¹⁵ zeresan handia dauka.

2.5.1 Tokiko giza garapenari hurbilketa:

Tokiko giza garapenaren ikuspegia, 90eko hamarkadan Nazio Batuen Garapenerako Programek (NBGP) giza garapenaren inguruan argitaratutako lehenengo txostenen ondorioz kontutan hartzen hasten da. Ordutik asko izan dira kontzeptua aberastu duten autoreak. Izan ere, hazkunde ekonomikoa garapenerako oinarritzko elementua kontsideratzen zutenen aurrean, garapenaren ikuspegi zabalagoa defendatzen zuten ahots kritikoez lehenengoan gabeziak azalarazi zituzten ongizatea, giza beharrak eta gaitasun pertsonal eta kolektiboetan arreta ez jartzeagatik. Giza garapenak, eta ondoren sortuko zen tokiko giza garapenak, garapenaren ikuspegi ortodoxoen kontraesanei erantzuteko proposamen egokiagoak eskaintzen dituzte (Dubois, Guridi eta López, 2011).

Nahiz eta NBGPk argitaratutako txosten haietan giza garapenaren oinarriak ezarri ziren, hau ez da giza garapenaren inguruan lan egin duen erreferente teoriko bakarra. 90eko hamarkadatik autore eta erakunde ezberdinek jorratu eta aberastu izan baitute giza garapenaren kontzeptua. Horren seinale, lehenengo definizioa formulatu zenetik eta gaur egun bitartean, giza garapena eraldaketa ezberdinak jasan izan dituela delarik. Ildo honetan nahiko agerikoa izan da NBGPk berak kontzeptuarekiko izan duen ikuspegi aldaketa. Hurrengo orrialdeko 2.5. taulan, aldaketa hauek agertzen dira.

Taulan ikusi dezakegun moduan, NBGPk giza garapenarekiko duen kontzeptzioa aldatzen joan da. 2010ean egindako berrikusketan, giza garapenaren helburu orokorra baliagarritasuna izaten jarraitzen duen arren, egindako lana nahikoa ez dela izan aitortzen du. Beraz, momentu honetan, alderdi instituzionalak eta kolektiboak barneratzen hasten ditu giza garapenaren parte garrantzitsu bezala.

¹⁵ Hegoa Institutuak tokiko giza garapenaren inguruan egindako garapen teorikoa urteetako lana da eta horrenbestez, zabaltasun handikoa da; gai zentraletik hedatzen diren beste hainbat gai biltzen baitira ere. Tesi honetan, tokiko giza garapenaren inguruko ezaugarri nagusienak bilduko ditugu, eta horretarako, batez ere, Hegoako kide den Alfonso Dubois-ek (2014) idatzitako tokiko giza garapenaren marko teoriko eta metodologikoa erabiliko dugu oinarri moduan.

2.5. TAULA: NBGPk ematen duen giza garapenaren definizioaren bilakaera

Giza garapenaren txostena	Definizioa
1990eko txostena (1go txostena)	Giza garapena banakoen aukerak handitzeko prozesu bat da, hauetako garrantzitsuenak bizitza luze eta osasungarria, hezkuntzarako sarbidea eta bizi maila egokia izatea izanik.
2000ko txostena	Giza garapena jendearen aukerak handitzen duen prozesua da, eginkizunak eta giza gaitasunak handituz. Modu honetan, giza garapenak gainera, eginkizun eta gaitasun horien emaitzak islatzen ditu gizakiekin erlazionatzen direnean. Aldi berean prozesu bat eta helburu bat irudikatzen du.
2010eko txostena (20. urteurrenaren ber-definizioa)	Giza garapena, pertsonak bizitza luzea, osasungarria eta sortzailea bizitzeko; eurek baliogarriak bezala kontsideratzen duten helburuak jarraitzeko; eta hauek elkar banatzen duten planetaren garapen iraunkorraren eta ekitatiboaren eraikuntzan aktiboki parte-hartzeko askatasun adierazpena da. Pertsonak giza garapenaren onuradunak eta sustatzaileak dira aldi berean, banako edo talde bezala.
2018ko txostena (laburpena)	Giza garapena, giza askatasunekin zer ikusia dauka. Giza gaitasunak garatzean datza, ez gutxi batzuenak edo gehiengo batenak, baizik eta pertsona guztienak.

Iturria: NBGP (1990:33, 2000:17, 2010:24 eta 2018:1). Egileak itzulita eta moldatuta

Tokiko giza garapenari bi oinarri teoriko aitortzen zaizkio. Giza garapena eta tokiko dimentsioa. Giza garapenetik, gaitasunen ikuspegia berreskuratzen da. Gaitasunen ikuspegia, pertsonen, instituzioen eta jendartearen gaitasunen garapenean jartzen du arreta. Eta beraz ez ditu elementu hauek hazkunderako baliabideak bezala kontsideratzen, baizik eta hauen gaitasunen garapena garapen estrategiaren helburu bihurtzen ditu (Dubois, 2014 eta Zulaika, 2017). Aldiz, tokiko dimentsioa, garapen estrategiek pertsonen gain duten efektuak neurtzeko eskalarik egokiena dela kontsideratzen da. Gainera, garapen prozesu kolektibo bat aurrera eramatea ahalbidetzen duen jendartearen kokatzen den esparrua da. Eta are gehiago, kapitalaren logikaz aparte, pertsonetan oinarritutako bestelako globalizazio bat pentsatzeko eskalarik proposena izan daitekeelako (Dubois, 2014).

Esan beharra dago, tokiko garapenaren inguruan ere esan dugun moduan, tokiko arazo eta beharrei erantzuteko orduan, eskala eraginkorrena hauetatik hurbilen dagoen eskala izan daitekeen arren, lurraldea ez dela agente isolatua, eta maila anitzeko gobernantzaren parte bezala kontsideratu behar dela; eta beraz, eskala ezberdinekin eta bertan jarduten duten eragile politiko, ekonomiko eta sozialekin harremanak izatea beharrezkoa dela. Baina ez baldintzatuta. Ildo honetan, Zulaikak (2017:82), gorago

dauden maila eskalarrek sortu dezaketen baldintzapena gainditu, eta subsidiariorotasunaren printzipioa¹⁶ ezartzea beharrezkoa dela dio. Horretarako, gakoa hauen arteko “etengabeko harreman dialektikoan” dagoelarik.

Ikusi dezakegunez, tokiko dimentsioa barneratzerakoan kapitulu honetan zehar aztertu ditugun elementu askorekin harreman estua erakusten du. Izan ere, tokiko giza garapenak, tokiko garapenetik elementu ugari berreskuratzen ditu. Zentzu honetan, Duboisk (2014) tokiko giza garapenaren eta, alde batetik, esparru ekonomikotik haratago ikuspegi integrala jorratzen duten, eta bestetik, tokiko eragile eta baliabideei protagonismoa ematen dioten eredu endogenoekiko hurbiltasuna aitortzen du.

Horrez gain, tokiko garapenaren inguruko marko teoriko zabal batek barneratu dezakeen elementu ugari aurkitu ditzakegu tokiko giza garapenaren inguruko literaturan. Hala nola gobernantza eta parte-hartzea, berrikuntza soziala, tokiko instituzioen garrantzia, prozesu berari ematen zaion garrantzia etab.

Dena den, garrantzitsua da gogoratzea tokiko garapenak zein tokiko giza garapenak ez dutela marko teoriko itxiak osatzen. Eta beraz, alde batetik, hauetan ematen den etengabeko eraikuntzak eta berreraikuntzak hauen inguruko corpus teorikoa aberasten duela, eta bestetik, bien arteko harremanak sendotzeak ezagutzak partekatzea eta koordinazioa ahalbidetzen duten espazioak sortzeko aukera ematen duela. Zentzu honetan, tokiko giza garapenak, tokiko garapena aberasten duen ikuspegia bezala ere ikusi daiteke; eta beraz, tokiko garapen prozesu batetik tokiko giza garapenerako batera trantsizioa egitea posiblea da. Hurrengo koadroan, Gipuzkoan emandako trantsizioa edo, behintzat, trantsizio baterako emandako pausoak ikusi daitezke.

Hala ere, tokiko giza garapenak egiten duen ekarpena ezin dugu aintzat hartu gabe utzi. Duboisk (2014) esaten duen moduan, tokiko giza garapenaren erroetan, giza garapenaren dimentsio normatiboa agertzen da; ongizatea alegia. Eta tokiko garapena jorratzen duten ikuspegi batzuek ongizateari erreferentzia egiten dioten arren, honek ez du estrategiak diseinatzeko orduan paper zentrala hartzen.

¹⁶ Subsidiariorotasun printzipioa, arazo bat sortzen denean, arazo horretatik gertuen dagoen agintaritzak hau konpontzeko beharra duela adierazten du.

9. KOADROA: Tokiko garapenetik tokiko giza garapenerako trantsizioa Gipuzkoan:

Gipuzkoa Sarean, Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) 2009. eta 2015. urteren artean mamitutako tokiko garapenerako proiektua da. Gipuzkoan gobernantza sozioekonomiko berri baten oinarriak ezartzeko helburuarekin, lurraldeko eragileen parte-hartzea sustatzean oinarritu dena.

Proiektuaren lehenengo aldian (2009-2011), lurraldearen lehiakortasuna eta tokiko jendartearen ongizatea hobetzeko xedez, kapital soziala metatzeko asmoa hartu zen. 2011. urtean hala ere, gobernu aldatetarekin, proiektuari aldaketa batzuk egin zitzaizkion. Elkarrizketa espazioak areagotu ziren eta eskualdeetako eragileak erdigunean ipinita gobernantza eredu berri baterako trantsizioa egin zen. Lehiakortasunaren eta kapital sozialaren kontzeptuetatik aldenduta, garapenaren ikuspegi zabalago baterantz. Horrela, “zubigintza”-ren terminoa hobetsi zen.

Trantsizio honetarako, lau epe edo urrats nabaritu ziren. Lehena, konfiantzazko giroa sortzeko komunikazio prozesu ezberdinak abian jarri ziren. Ondoren, garapen agenda gidatuko zuten mugarren edukiak zehaztu ziren. Hauen artean garapen orekatua eta parte-hartzea nabarmentzen direlarik. Hirugarren pausoa, gobernantza eredu berria sendotzea izan zen. Horretarako, batez ere Gipuzkoako garapen agentzia ezberdinen elkarlana beharrezkoa izan zen. Lankidetzaz, elkarrizketa eta gogoeta sustatu zen hemen. Eta azkenik, eredu berriari politika publikoen egokitzea etorri zen. Hauek batez ere, garapen agentziei eragiteko botere handiagoa eman zizkieten.

Ikusi daitekeenez, tokiko giza garapenaren elementu batzuk barneratzen dituen trantsizioa da. Hala nola prozesuak bera duen garrantzia, eragileen eta botere publikoaren arteko lotura ez hierarkikoa, gobernantza parte-hartzailea erdigunean jartzea, aldaketa sozioekonomiko eta politikoaren beharra gaitasun indibidualak eta kolektiboak hobetzeko, etab. Tokiko giza garapen prozesu bat dela esatea gehiegi iragartzea bada ere, Gipuzkoa Sarean amaierarik gabeko prozesua da oraindik, azkeneko urteetan Etorkizuna Eraikiz programari esker jarraipena ematen ari zaiolako. Eta beraz, guztizko eraldaketa ematen den jakiteko itxaron beharko da.

Iturria: Zurbarán et. al. (2018:16-17)

Laburbiltzeko, Duboisk (2014:129) tokiko giza garapenaren inguruan hurrengo definizioa proposatzen du:

“Prozesu integrala edo prozesuen multzoa izango da, eta, horren bidez, gizarte bakoitzak autonomiaz erabakiko du nolako etorkizuna izan nahi eta ahal duen, hau da, beretzat baliotsua den ongizatea. Ongizate hori, gainera, lurralde berean eskala txiki zein ertainean antolatutako gizabanako, talde sozial eta erkidegoentzako aukeren zabalkuntza izango da, baita euren gaitasun nahiz baliabideen mobilizazioa ere. Horrela, bada, genero-berdintasuna kontuan hartzen duen berdintasuneko onura bateratua lortu ahal izango dute giza garapenaren ikuspegitik ebaluatutako termino ekonomiko, sozial eta politikoetan.”

Ikusi dezakegunez, tokiko giza garapena denboran eta espazioan definitutako lurralde batean ongizatea lortzeko prozesuei egiten die erreferentzia. Eta beraz, dagoeneko esan dugunez, tokiko garapenetik, tokiko dimentsioa unitate analitiko gisa hartzen da, eta giza garapenetik, ongizatearen erreferentzia normatiboa gaitasunen

ikuspegitik begiratuta. Hurrengo taulan, tokiko giza garapenaren oinarri teorikoak laburbiltzen ditugu:

2.6. TAULA: Tokiko giza garapenaren oinarri teorikoak

	Dimentsio analitiko / normatiboa	Ikuspegia	Ekarpenak
Tokiko dimentsioa	- Lurraldearen dimentsio analitikoa; jendartearen protagonismoa handitzen du	- Behetik gorako garapena (batez ere garapen endogenoa)	- Tokiko instituzioak - Endogenitatea - Antolaketa industrialak - Sareak ...
Giza garapena	- Ongizatearen erreferentzia normatiboa	- Gaitasun indibidual eta kolektiboak	- Justizia soziala - Giza segurtasuna - Garapenaren ikuspegi integrala - Genero ikuspegia ...

Iturria: Egileak egina.

2.5.2 Ongizatearen erreferentzia normatiboa:

Ongizatea¹⁷ garapenaren erreferente normatibo gisa hartzea da, hain zuzen ere, tokiko giza garapenaren ekarpenik garrantzitsuenetarikoa. Honek, garapenaren lehenengo helburuen birformulazioa dakar; hazkunde ekonomikoan oinarritutako garapen eredu batetik, esan dugun moduan, ongizatean oinarritutako bestelako eredu batera trantsizioa eginez (Dubois et. al., 2011). Hala ere, beste eztabaida bat sortzen da hemen; ongizatearen kontzeptualizazioaren ingurukoa, alegia. Izan ere, ongizatea definitzeko edo neurtzeko orduan, ikuspegi ezberdinetatik ekarpen ezberdinak egin dira. Horregatik, atal honetan, eztabaida honi erantzuna ematen saiatuko gara.

2.5.2.1 Ongizatea garapenaren ikuspegi ortodoxoetatik:

Garapenaren ikuspuntu gehienek oinarrizko elementu komunak partekatzen dituzte. Izan ere, garapenaren ikasketa ortodoxoek, garapena neurtzeko, hazkundera neurtzeko erabiltzen diren adierazle berdinak erabiltzen dituzte. Hots, lehen esan dugun moduan, garapena hazkunderaren menpe jarri izan dute. Eta adierazle hauen artean

¹⁷ Tokiko giza garapenaren ikuspuntutik, ongizateaz hitz egiten dugunean ez gara ongizate estatuaz eta honek barneratzen dituen kontzeptuei buruz ari, “ondo egotea” eta bizitzera merezi duen bizitzaz ari gara. Bai modu indibidualean, non pertsona batek bere bizitzarako ezartzen dituen helburuak betetzeko gaitasuna barneratzen den; eta baita ere modu kolektiboan, non jendartearen bere garapenerako helburu kolektiboak betetzeko gaitasuna barneratzen den (Dubois, 2014).

arrakasta gehien izan duena, dudarik gabe, barne produktu gordina (BPG) izan da. Hortaz, garapena, BPGaren hazkundearen arabera neurtu izan da; eta ongizatea beraz, BPG per-capitaren arabera. Hau da, herrialde bateko BPGaren zein zati dagokion herrialde horretako biztanle bakoitzari. Eta beraz, geroz eta BPG handiagoa izan, geroz eta garapen handiagoa dagoela kontsideratzen da; eta hedaturaz, ongizate maila altuagoa. Horrenbestez, herrialdeen helburu bakarra hazkunde ekonomikoa bihurtzen da, hau izango omen delako herrialde horretako biztanleen ongizatea bermatuko duena.

Hala ere, ekonomiaren ikuspegi heterodoxo ezberdinetatik BPGari egiten zaizkion kritikak ugariak dira. Bai naturaren suntsiketa ekarriko lukeen hazkunde etengabearen logika erreproduzitzen laguntzen duelako, eta baita ere, adierazlea nola eraikita dagoen ikusita, ekonomiaren arlo ezberdinak ezkututzen dituelako. Izan ere, BPGak soilik balio ekonomikoa sortzen duten merkatuko jarduera produktiboak kontsideratzen ditu aberastasun gisa (Herrero, 2013). Eta beraz, paradoxikoa dirudien arren, armagintza bezala, bizitzaren kontra doazen jarduera ekonomikoak aberastasun moduan kontsideratzen ditu, eta ez, adibidez, naturaren kontserbazioa edo bakea. Ildo honetan ere, ekonomia feministaren begiradatik, Carrascok (2001) dionez, historian zehar denbora gehien okupatu izan duen lana, zaintza lana izan da. Hala ere, hau merkatuan eman ohi ez denez, ez da kontabilizatzen; bizitza sostengatzeko beharrezkoa den arren.

Izan ere, industrializaziotik “lanaren” kontzeptua ideologia produktibistaren menpe geratu da. Enplegua eta lanaren kontzeptuak berdinduz. BPGak ideologia produktibistaren eredu jarraitzen du; soilik merkatuan ekoiztutako ondasun eta zerbitzuak bakarrik barneratzen dituen heinean. Beraz, ordaintzen ez den etxeko zein zaintza lana ez da kontutan hartzen hau kalkulatzeko, nahiz eta, esan dugun moduan, bizitzaren sostengurako ezinbestekoak diren. Horrela, Carrascok (2014:30) aipatzen duen “ekonomiaren itsutasun historikoa” eman da. Horrez gain, BPGa ez du generoaren arabera datuak desagregatzen, eta beraz, lanaren banaketa sexuala ez du agerian uzten.

Oro har, garapena, hazkunde ekonomikoaren terminoetan neurtzeak kutsu ekonomizista ematen dio ongizateari. Pertsonen ongizatea lurralde baten hazkunde mailaren arabera jartzen duelako. Gainera, BPG per-capitak ez digu adierazten hazkunde ekonomiko horrek sortu dezakeen aberastasun materiala nola banatuta dagoen lurralde horretako biztanleriaren artean. Edo ekoizpen baliabideen jabegoa nola banatuta dagoen. Eta beraz, hazkunde ekonomiko tasa altua duen lurralde edo herrialde batek,

aldi berean errenta disparekotasunak sortzen dituen desberdintasun sozial handiak izan ditzake ere. Argi geratzen da beraz, ikuspegi ortodoxoek garapena neurtzeko erabiltzen duten adierazle nagusia, ez duela behar bezala pertsonen egoera azaltzen. Horregatik, Dubois et. al. (2011) esaten duten moduan, garapena adierazle makroekonomikoen menpe gelditu da, eta beraz, garapena, ongizatearen terminoagatik ordezkatzeko beharrezkoa da neurri batean. Edo behintzat, garapena neurtzerako orduan, ongizatea, lehentasunezko kategoria analitiko gisa kontsideratzearen beharra azpimarratzen da. Azken honek izaera multidimentsionalagoa duelako batetik, eta pertsonen garrantzi handiagoa ematen dion terminoa delako bestetik.

2.5.2.1 Ongizatea giza garapenetik begiratuta:

Beharrezkoa da, ongizateari garapenaren ikuspegi alternatibo batetik begiratzen badiogu, mundua bizigarriagoa bihurtuko duen garapenaren ikusmolde berri bat planteatzea; justizia sozialean oinarrituta eta pertsonen duintasuna zaintzen duena. Horregatik da, hain zuzen ere, dimentsio normatiboaren barneraketa hain garrantzitsua. Izan ere, aurretik planteatu diren garapenaren ikuspegi ezberdinek, ez dute justizia soziala bermatuko duen dimentsio normatiborik barneratu; eta beraz, garapena ez dute pertsonen ongizatea lortzera baldintzatzen (Dubois, 2014). Eta justizia sozialaren inguruko ardurak barneratu izan dutenean, modu anbiguoan barneratu izan dituzte. Izan ere, Alberdik (2014) dioen moduan, teoria liberalek, berdintasun politikoari berdintasun soziala eta ekonomikoa lortzeko eginkizuna lagatzen diote. Hau da, pertsonen arteko berdintasuna (ekonomikoa, soziala...), eskubideen berdintasunaren bitartez lortuko dela uste dute, eta ez eskubide horiek praktikan jartzeko gaitasunen bitartez. Beraz — jarraitzen du Alberdik—, justiziaren inguruko teoria berriak garatzen ari dira ongizatearen ikuspegi alternatiboetatik; hauek besteak beste, ingurumena, feminismoa, kultur aniztasuna eta gaitasun indibidual eta kolektiboak jorratzen dituztelarik.

Tokiko giza garapenaren ikuspegiak, garapenaren eredu tradizionalen aurrean —merkatuei baliabideen eta errekurtsioen banaketaren eginkizuna lagatzen dutenak—, modu etikoan eraikitako ongizatearen erreferentzia normatiboa proposatzen du. Horretarako, beharrezkoa delarik ongizatearen terminoaren eta honek barneratzen duenaren berrikusketa bat egitea.

Duboisek (2014) esaten duen moduan, honek ez du esan nahi marko finalista eta itxia garatu behar denik, baina bai etorkizunari begiratzen dion, eta desiragarria den

erreferente bat garatu behar dela. Giza garapenetik proposatzen den ongizatearen ikuskeran, ongizate materiala gainditzen da, eta lehenago esan dugun moduan, “ondo egotearen” inguruko gogoeta eskatzen du; eredu ekonomiko eta soziala, helburu hori lortzeko lanean jartzeko. Horrela, ongizatearen inguruan definitutako helburu horiek garapen estrategien erreferentzia normatiboa bihurtzen dira; estrategia horiek ongizatea lortzera bideratu behar diren heinean. Ildo honetan, garrantzitsua da esatea, ongizatea, ez diola soilik amaierako emaitzei begiratzen, baizik eta prozesuei ere; edozein prozedura ez baita giza garapena lortzeko baliagarria. Horrela, prozesua gidatzeko aukera bermatzen da, ikuspegi liberalek proposatzen duten izaera finalista aurrean.

Bestalde, ongizatearen inguruan hausnartzeko, harremanetan dauden hiru elementu kontutan hartu behar dira. Lehena, ongizatea edo ondo egotea zer den definitu behar dela. Bigarrena, ongizatearen definizio hori jendarte bakoitzaren ikuspegiaren arabera definitu behar dela. Jendarte bakoitzak baliotsua kontsideratzen duen horretan oinarrituta euren etorkizuna eraikitzeko. Eta hirugarrena, nahiz eta ongizatea jendarte bakoitzaren definizioaren menpe egon, erreferentzia unibertsal minimoak egon behar direla. Hauek, edozein kulturaren gainetik dauden giza eskubide eta duintasunari lotuta daudelarik (Dubois, 2014).

Horrez gain, ongizatea denboran zehar irauteko ahalmena izan behar du. Modu honetan, ongizatea lortzeko neurriak etorkizunari begiratu behar diote nahitaez, eta beraz, prozesuaren emaitzak ez dira emaitza konkretuak bezala kontsideratu behar, baizik eta epe luzera diseinatuta dagoen prozesu baten parte bezala.

Era berean, ongizateak pertsoneri modu indibidualean eta jendarteei modu kolektiboan eragiten die. Horregatik ongizatearen dimentsio indibidualaz eta kolektiboaz hitz egin dezakegu.

Ongizate indibidualaz hitz egiten dugunean, pertsona batek lortu nahi dituen helburuak lortzeko dituen aukera eta baldintzei buruz ari gara. Hau da, pertsona orok bere bizitzaren gainean erabakitzeko gaitasuna izatea; azken finean, ongizate indibidualak, pertsona batek bere potentziala garatzeko duen gaitasunari egiten baitio erreferentzia (Dubois, 2006). Hortaz, ongizatean ez dago ikuspuntu finalistarik baizik eta gaitasun indibidual eta kolektiboen garapenarekin eraikiz eta eraldatuz joaten den ortzi-muga bat.

Laburbilduz, ongizate indibiduala lorpen materialez, eskubideez eta askatasunez osatuta dago. Eta beraz, ongizatea, termino hauetan definituta, jarduera ekonomikoari galdagarria den elementu da guztiz (Dubois, 2006). Beraz, tokiko giza garapenetik nazioarteko merkataritzaren eta atzerriko inbertsio zuzenaren berrikusketa egitea beharrezkoa dela aldarrikatzen da; pertsonen ongizatea asetzea lortu ez duten heinean. Ildo honetan, Zurbano et. al. (2014a) merkataritza eta atzerriko inbertsio zuzena gaitasun indibidual eta kolektiboetan duten intzidentzia aztertzea beharrezkoa dela diote, hazkunde ekonomikoa, esportazioa edo inbertsioa bigarren planoan utzita eta gaitasunak garatzeko lagungarriak diren alderdiei lehentasuna emanez.

Ongizate indibiduala neurtzeko, Duboisek (2014) pertsonen gaitasun objektiboak, psikologikoak eta harreman sozialekin zerikusia dutenak bereiztea proposatzen du. Gaitasunen lehenengo multzoan, besteak beste osasuna, hezkuntza eta etxebizitza bezala objektiboki neurgarriak diren ongizatearen alderdiak barneratuko lirateke. Psikologikoen artean aldiz, modu subjektibo batean pertsona bakoitzak bere egoera pertsonalari buruzko gaitasunak egongo lirateke. Eta azkenik, erlazio sozialekin harremana duten gaitasunak, pertsona bakoitzak beste pertsonekin, komunitatearekin eta ingurumenarekin erlazionatzeko gaitasunei erreferentzia egiten diete. Ez dira zehazten, hala ere, adierazle konkretuak ongizate indibiduala neurtzeko. Izan ere, oinarri gisa, hurrengo atalean aztertuko ditugun Martha Nussbaum-en gaitasun zentralen proposamena hartu delako. Eta proposamen hau oso zabala den arren eta erlazio sozialak modu egokian barneratzen dituen arren, giza garapena neurtuko duten indikatzaile konkretuak zehaztea zailtasun handia erakusten du.

Ongizatearen dimentsio kolektiboa edo soziala bi zentzuetan ulertu daiteke. Batetik, ongizate indibiduala lortzeko lanabesa sozialen multzoa bezala, eta bestetik, garapenaren helburu bezala. Lehenengo ikuspuntutik begiratzen badiogu, ongizatearen dimentsio kolektiboan kokatzen diren elementuak ongizate indibiduala lortzeko xedez euskarri edo beharrezko ekimen kolektiboak lirateke. Beste ikuspegiak aldiz, ongizate kolektiboa garapen estrategiaren helburu bezala kontsideratzen du. Ongizate kolektiboaren bigarren adiera horretan arreta jarritz, beharrezkoa da helburu komunak planteatzea; eta beraz, norabide berdinean lan egitea ahalbidetzen duten estimuluak edo ardura komunak bilatu behar dira (Dubois, 2014).

Duboisek (2014: 48-53) ongizate kolektiboaren eraikuntzari eragiten dioten lau elementu bereizten ditu. Hauek, hurrengo atalean aztertuko ditugun jendartearen gaitasun kolektiboez gain, giza segurtasuna, ondasun publikoak eta kapital soziala dira.

Giza segurtasuna, ikuspegi teorikoago bati jarraitzen dio. Batez ere, jendarte behartsuenetatik jorratutako ikuspegia da, izan ere, ongizatea iragartzeko arduran oinarritzen da. Hots, segurtasunak gatazka posible batengatik sortzen den kezka ohiko esanahia gainditzen du eta egungo eredu sozioekonomikoaren lurrunkortasun eta ziurgabetasun egoerei denboran zehar aurre egiteko gaitasunari erreferitzeko erabiltzen da hemen. Giza segurtasunaren ikuspegia barneratzen dugunean, besteak beste ingurune instituzionalaren egonkortasuna, parte-hartze politikoa, ekimen kolektiboak eta garapenaren inguruko irakurketa integrala barneratu behar dugu analisisian.

Ondasun publikoei buruz hitz egiten dugunean, ongizatea lortzeko oinarritzako edo zentralak diren ondasun kolektiboez ari gara. Hala ere, hauek zeintzuk diren zehazteko lana jendarte bakoitzari dagokio, hauen balio eta beharren arabera determinatuta daudelako. Hortaz, autoreak dioen moduan ez dago aurre ezarritako ondasun publikorik, baizik eta jendarteek egindako eraikuntzak. Hauen biztanleriaren ongizatea sustatzeko beharrezko elementuak izanik. Eta beraz, giza garapenaren helburua, ez da hainbeste ondasun publikoak determinatzea, hauen eskaintza pertsona guztientzako irisgarria egitea baizik.

Kapital sozialari buruz lehenago hitz egin dugun arren, giza garapena eta ongizatearen erreferentzia normatiboa atxikitzerakoan, zehaztu behar diren ezberdintasunak ematen dira. Kapital sozialaren kontzeptua azken hamarkadetan indartu bada garapenaren eta ekonomiaren korrante ortodoxoek dimentsio sozial eta instituzionalekiko duten interesaren suspertzearekin lotura dauka. Hala ere, autoreak dioen moduan, hauek, kapital sozialaren ikuspuntu utilitarista eta instrumentala jarraitu izan dute aktibitate ekonomiko kapitalista hobetzeko bideratuta dagoen lanabesa bezala ulertzen dutelako. Ikuspegi honetatik, kapital sozialaren garapena lurralde bateko enpresen arteko transakzio kostuak murrizteko, agente ekonomiko ezberdinak erakartzeko eta lurraldeak merkatuetan hobeto integratzeko tresna gisa ulertzen da, eta ez ongizatea lortzeko garatu beharreko harreman kolektibo gisa.

Giza garapenetik aldiz, kapital sozialak, garapenaren analisirako ikuspegi integrala barneratzen du. Hots, ez soilik ikuspegi ekonomikoa. Ikuspuntu honetatik, giza erlazioak ez lirateke hazkunde ekonomikoaren zerbitzura dauden lanabesa bat, baizik

eta garapenaren helburuetako bat. Horrenbestez, kapital sozialari giza garapenetik begiratzen badiogu, garapenerako beharrezko lanabesa den bitartean, garapenaren helburua da aldi berean. Ikuspegi ortodoxoen interpretazioaren aurrean, kapital soziala, harreman sozialetan dagoen, eta hauen kalitate eta kantitatearen arabera garatzen den kapitala da. Hau da, jendarteetan dagoen eta erreproduzitzen den kapital mota bati buruz ari gara; jendarteek, balio eta konpromisoak partekatzen dituzten erlazioen multzoak diren heinean (Van-Staveren, 2000).

Ongizate kolektiboaren neurketa egiteko orduan, hutsune teorikoa aurkitzen dugu. Duboisk (2014) esaten duen moduan, soilik gaitasun kolektiboak, demokrazia edo gobernantza bezalako elementu kolektiboak aztertzen duten ekarpenak aurkitu daitezke. Beraz, justiziaren erreferentzia erabiltzea eskatzen du. Justiziarik gabe ezin izango dugulako esan ongizate kolektiboa lortu denik. Eta hau neurtzeko, Duboisk (2014), Fraser-en (2009) hiru aldarrikapenak erabiltzen ditu: birbanaketa, aitorpena eta ordezkartza hain zuzen ere. Horrela, justua den jendarte batek hiru aldarrikapen horiei erantzun beharko lieke. Eta giza garapenak ere, hiru aldarrikapen hauei erantzun behar die. Birbanaketa, errenta, osasuna, hezkuntza etab. bezalako aldagaiak barneratu behar ditu. Aitorpenak, talde sozial ezberdinen arteko elkarbizitza, antolaketa kolektiborako aukera edo giza eskubideak bezalako aldagaiak barneratzen ditu. Eta azkenik ordezkartzak, jendarte baten sistema demokratikoan eragiten duten gobernantza eredia, parte-hartze politikoa eta, oro har, erabaki hartzearekin erlazionatuta dauden aldagaiak barneratzen ditu (Dubois, 2014).

2.5.3 Gaitasunen ikuspegia:

Dagoeneko aipatu dugunez, giza garapenari heltzeko, gaitasunen ikuspegia erabiltzen du tokiko giza garapenak. Hau izan baita giza garapenaren oinarri teoriko garrantzitsuenetarikoa 1990an NBGPk giza garapenaren lehenengo definizioa publikatu zuenetik.

Ikuspegi honen aitzindaria Amartya Sen ekonomian Nobel sariduna kontsideratzen da. Hala ere, ondoren etorri diren, eta eztabaida aberastu duten autoreen ekarpenak ere kontuan izan behar ditugu gaitasunen ikuspegia azaltzeko. Giza garapenerako, gaitasun pertsonalak eta kolektiboak lirarteke jendarte baten garapen maila determinatuko dutenak, eta ez, jendarte horrek dituen baliabide materialak. Izan ere, garapena errentaren arabera neurtu denean ez dira normalean baliabideen eta aberastasunaren banaketan arreta jarri; eta arreta jarri denean, ez da kontutan hartu

pertsona ezberdinek baliabide kopuru berdinarekin hauei probetxu maila ezberdina ateratzeko gaitasuna dutela. Hau da, baliabide berdina erabiltzeko gaitasuna ezberdina izan daitekeela pertsona batetik bestera (Nussbaum, 1999). Beraz, gaitasunen ikuspegiak, pertsonen eta kolektiboen bizi kalitatea hauek lortu dezaketarekin lotzen du.

Baliabideei bakarrik begiratzen badiegu, ez dira kontutan hartzen balio kulturek, adina, osasuna, edo kapital soziala bezalako alderdiek baliabide horiek erabiltzeko moduan duten eragina. Senek (1992) eta Nussbaumek (2002) erabili ohi duten adibideei jarraikita, adineko pertsona batek gazte batek baino baliabide gehiago behar izango ditu osasuntsu egoteko, ume batek pertsona heldu bat baino proteina gehiago behar ditu, edo, mugitzeko zailtasunak dituen pertsona batek baliabide gehiago behar izango ditu hirian zehar mugitzeko. Hortaz, ikuspegi honetatik ez zaio hainbeste begiratzen baliabideei, baizik eta hauek erabiltzeko dagoen gaitasunari. Honek ez du esan nahi gaitasunen ikuspegiarako baliabideek garrantzirik ez daukaten. Are gehiago, baliabideen garrantzia aitortuta dago guztiz, gaitasunak garatzeko beharrezko instrumentuak diren heinean. Baina ikusi dezakegun moduan, baliabideek izaera instrumentala daukate gaitasunen ikuspegian. Hau da, ez da bakarrik baliabideei dagoen irisgarritasuna kontutan hartzen, baizik eta horiek funtzionamenduan jartzeko gaitasuna. Azken finean, pertsonak modu askean bere bizitza eraikitzeke gaitasunari buruz ari gara (Nussbaum, 1999). Hots, pertsona batek zer bizitza aurrera eramane nahi duen erabakitzeke duen gaitasuna. Hor aurkitzen baita ongizatea giza garapenerako.

Gaitasunen ikuspegiak garapen alternatibo baterako oinarriak ezartzen ditu. Izan ere, pertsonen baliabideak erabiltzeko duten gaitasunak aztertzen ditu, eta beraz, eskubideen logika gainditzen du. Hots, ez du aztertzen pertsona batek eskubideak dituen edo ez, eskubide horiek betetzen diren baizik. Ikuspegi honetatik, pertsonak askeak lirakeke gaixotasunaz, ignorantziaz, beldurraz etab. askatzen direnean. Hau da, hauek gainditzeke gaitasunak dituztenean.

Dena den, gaitasunen ikuspegia ez da, lehenago esan dugun moduan, Senen ekarpenetan soilik oinarritzen. Are gehiago, Senen ikuspegia ere aldatzen joan da bere obran zehar. Horrela, gaitasunen ikuspegia aberastu dituzten eta Senen ikuspegiarekiko kritikoak izan diren autoreak aurkitu ditzakegu, batez ere, Duboisen (2008) azaltzen duen moduan, Senek (2000) “Garapena eta askatasuna” liburua publikatu zuenean, askatasunari ematen dion tratamenduagatik alde batetik, eta Senen ikuspegiaren izaera

indibidualistagatik bestetik. Lehenengo eztabaida hau tesi honetatik kanpo geldituko den arren, hurrengo lerroetan gaitasunen ikuspegia aberastu duten beste ikuspegi batzuk ikusi, eta, batez ere, tokiko giza garapenaren marko teoriko honetarako interesatzen zaigun dimentsio soziala edo kolektiboa nola barneratu duten aztertuko dugu.

Hortaz, giza garapenaren, eta hedaturaz guri interesatzen zaigun tokiko giza garapenaren marko normatiboa eraikitzen jarraitzeko, Martha Nussbaumen ekarpenari arreta jarriko diogu orain. Izan ere, Nussbaumek (2001), “Emakumea eta Giza Garapena” liburuan, analisia erraztu dezakeen aurretiaz zehaztutako oinarrizko gaitasunen zerrenda bat aurkezten du, eta beraz, Senena baino tresna zehatzagoa planteatzen du garapenaren analisirako. Gainera, Nussbaumek, pertsonak, animalia sozial eta politikoak bezala kontsideratzen ditu, eta beraz, hauen arteko harremanak kontutan hartzen ditu gaitasunak proposatzerakoan. Nussbaumek politika publikoen diseinurako —baita herrialdeen konstituzioetan barneratzeko ere—, kulturen gainetik dauden eta pertsonen duintasuna bermatuko dituzten hamar gaitasun zentralen (oinarrizkoak eta indibidualak) zerrenda proposatzen du (Nussbaum 1999:263 eta 2001:78-80). Honakoak lirateke: Bizitza; Osasuna; Osotasun fisikoa; Zentzumenak, imaginazioa eta pentsamendua; Emozioak; Arrazoi praktikoa; Afiliazioa; Beste espezieekiko harremana; Jokoa; eta bakoitzaren ingurunearekiko kontrola.

Proposatzen duen zerrenda honetan agertzen diren gaitasunetako bakoitzak, “bereizitako osagarri bat” da, eta beraz, denak ematea beharrezkoa da bizitza duina eta ongizatea lortzeko. Hau da, ezin dugu gaitasun baten falta asebate, beste bati aparteko kopurua emanaz (Nussbaum, 2001).

Dena den, esan behar da Nussbaumek ez duela zuzenean ongizatea lortzeko beharrezko gaitasunen zerrenda itxia bezala proposatzen. Ongizatea lortzeko gutxieneko gaitasunak bezala definitzen dituelako. Hots, ongizatea lortzeko bidea hasterakoan beharrezko gaitasun minimoak proposatzen ditu. Eta beraz, ongizatea lortzeko beste gaitasun ezberdinak lortzen joan beharko dira (Dubois, 2014).

Nussbaumen (1999 eta 2001) gaitasunen zerrendak, pertsonen alderdi sozialak edo kolektiboak barneratzen ditu. Hala nola afiliazioa, ingurunearekiko harremana edo aisialdia. Hala ere, ezin ditugu hauek gaitasun kolektibotzat onartu, pertsonen arteko erlazioei eta hauek euren inguruarekiko erlazioei erreferentzia egiten dien arren, ez dituelako kolektiboki garatu beharreko gaitasunak aipatzen. Azken finean, une oro gaitasun zentral edo pertsonalei buruz ari da, eta beraz, Senek bezala, pertsona guztiek

baina banaka erabakitzeko duten gaitasunari erreferentzia egiten dietelako (Jubeto eta Larrañaga, 2014a).

Seguruenik, gaitasun sozial edo kolektiboen inguruan egin den mugapen kontzeptuala, gaitasun zentral edo indibidualena baino eskasagoa izan da. Behintzat giza garapenaz hitz egiten hasi zenean. Seguru asko, hauen inguruko zerrenda bat formulatzea zailtasun metodologiko handiagoa dakarrelako. Hala ere, guri une honetan interesatzen zaiguna aztertzeko, tokiko giza garapena, beharrezkoa dugu dimentsio honi zentralitatea ematea. Izan ere, lehenago esan dugun moduan, tokiko giza garapen prozesuak prozesu kolektiboak dira, ongizate pertsonala eta kolektiboa bilatzen dituztenak.

Gaitasun kolektiboak ongizate kolektiboa lortzeko garatu beharreko aldagaia dira (Dubois, 2014). Garrantzitsua da azpimarratzea, ongizate eta gaitasun kolektiboez ari garenean, ez garela jendarte konkretu bat osatzen duten pertsonen agregatu bat egiten ari. Hots, ez da ongizate eta gaitasun indibidualen bateraketa bat. Jendarte hori, talde bezala garatu beharreko gaitasunei eta lortu beharreko ongizateari buruz ari gara (Fukuda-Parr et. al., 2002). Eta honek beraz, gaitasunak eta ongizatea definitzeko orduan parametro ezberdinak behar ditu. Izan ere, banakoen gaitasunak baino konplexuagoa den ariketa bat beharrezkoa da gaitasun kolektiboak definitzeko orduan. Jendarteetan pertsonen arteko harremanak, pertsonak eta ingurunearen arteko harremanak, instituzioak, sareak, kulturak etab. eragiten dute, eta hauek guztiak kontutan hartuta definitu beharko dira desiragarria den ongizatea lortzeko beharrezkoak diren gaitasun kolektiboak.

Gaitasun kolektiboen inguruan landu duten autoreen artean, Baser eta Morgan (2008) aipatuko ditugu. Autore hauek, gaitasun kolektiboak barneratzen dituen zerrenda bat proposatzen dute. Zerrenda honetan, jendarte baten —sistema euren esanetan— gaitasun kolektibo osoa, *capacity*, bost gaitasun kolektibo zentraletan, *core capability*, banatzen dute¹⁸.

¹⁸ Gaitasun kolektibo osoa edo *capacity*: Antolakunde edo sistema batek balio publikoa sortzeko gaitasun orokorra da. Gaitasun kolektibo zentralak edo *core capability*, antolakunde edo sistema batek funtzio edo prozesu bat aurrera eramateko trebetasun eta abilezia kolektiboak dira. Gaitasun kolektibo zentralek, funtzioak edo prozesuak aurrera eramateaz gain, antolakundea edo sistema bera sostengatzen dute.

2.7. TAULA: Gaitasun kolektibo zentralak Baser eta Morganen arabera

Gaitasun kolektiboa:	Azalpena:
Konpromisoa	Garapenerako beharrezkoak diren jardueretan parte-hartzeko eta konprometitzeko gaitasuna. Antolakunde edo jendarte ezberdinek erabakitze, ahalduntzeko eta espazioak sortzeko gaitasuna ere bada. Oro har, auto-antolatze gaitasunari egiten dio erreferentzia.
Zeregin teknikoak, zerbitzu emateak eta logistika	Garapenerako erakunde edo antolakundeek zerbitzuak ematerakoan, politika publikoak formulatzerakoan, jarduerak erregulatzerakoan etab. beharrezkoak diren zeregin tekniko edo logistikoak egiteko gaitasun instrumentalari erreferentzia egiten dio.
Harremantzeko eta baliabideak eta laguntza erakartzea	Garapenerako beste eragileekiko harremanak sortu, kudeatu eta mantentzeko gaitasuna beharrezkoa da bizirauteko. Hauetatik, irakaspenak, laguntzak eta baliabideak lortu daitezkeelako.
Egokitzea eta (auto)berrikuntza Aniztasuna eta koherentzia orekatzea	Testuinguru aldakor eta ezegonkorrari egokitzeko gaitasuna. Aldaketa azkarrak eta berrikuntza eskatzen du. Jendartean egon daitezkeen interes, pentsaera, identitate, ikuspuntu eta gaitasun ezberdinak, alde batetik, garapen prozesua aberasten duten bitartean, bestetik, sortu dezaketen zatiketa edo hausturak ekidin behar dira. Konplexutasun honen aurrean, beharrezkoa da aniztasunaren eta koherentziaren arteko oreka mantenduko duen gaitasuna garatzea; hots, jendarte anizteta zatiketa edo haustura ekiditeko gaitasuna garatzea.

Iturria: Baser eta Morgan (2008: 26-33). Egileak moldatuta

Argi dago, ikuspegi kolektiboa barneratu gabe, ongizatea xede duen garapen eredu batek oso mugatuta gelditzen dela benetako alternatiba bat bezala ezarri nahi bada (Dubois, 2014). Hala ere, aldi berean, beharrezkoa izango da gaitasun indibidualen garapena. Baser eta Morganen (2008) arabera, jendarte baten gaitasun kolektibo osoa garatzeko, azaldutako gaitasun kolektibo zentralak garatzeaz gain, gaitasun indibidualak garatzea beharrezkoa izango da ere. Bi multzo hauek elkar eragiten dutenean lortuko da gaitasun anitzagoak garatzea, eraginkorragoak izatea, instituzionalizatzea eta, azken finean, balio publikoa sortzen duen gaitasun kolektibo osoa garatzea.

2.5.4 Tokiko garapenaren eta tokiko giza garapenaren alderaketa:

Kapitulu honetako azken atal gisa, tokiko garapenaren eta tokiko giza garapenaren arteko alderaketa jaso dugu. Hau egiterakoan, gure asmoa ez da hain beste bi ikuspegiaren arteko ezberdintasunetan sakontzea, baizik eta bakoitzak bere ikuspegitik egin ditzakeen ekarpenetan harremanak identifikatzea, elkarriketarako espazioak ezartzea, elkarren arteko ikaskuntza sustatzea eta elkarlanerako oinarriak finkatzea. Hala ere, alderaketa honetarako, bien arteko ezaugarri nagusienak hartu ditugu bakarrik;

teoria eta eredu anitzak barneratzen dituztelako eta ikuspegi bakoitzaren alderaketa egiteak tesi honen mugak gaindituko lituzkelako.

Biek, lurraldeetako garapena eta tokiko jendartearen bizi kalitatea hobetzea dute helburu. Horretarako, gaur egungo eredu ekonomikoak sortzen dituen arazoei erantzuna emateko, tokiko dimentsioa unitate analitiko egokiena dela defendatzen dute bi ereduak. Izan ere, arazo ezberdinek, izaera ezberdina erakusten dute lurralde batetik bestera eta momentu historiko batetik bestera. Eta aldi berean, erantzunak proposatzeko orduan, lurraldearen historiaren, kulturaren, tradizio industrialaren eta instituzioen arabera zehaztuta dago neurri handi batean.

Endogenitatea edo baliabide endogenoen erabilpena bada beste lotura-puntua. Hau da, garapena lortzeko bide horretan, tokiko baliabideak erabiltzea, tokiko eragileak mobilizatzea eta koordinatzea eta estrategia propioa sortzea aldarrikatzen dute biek. Horrek ere, garapen estrategien izaera kolektiboa erakusten digu.

Horrez gain, emaitzetan baino, prozesuetan arreta jartzen duten marko irekiak dira biak. Hau da, ez dira teoria itxiak bezala kontsideratu behar, baizik eta etengabe garatzen eta aberasten diren markoak bezala. Gainera, biek garapen iraunkorra sortzeko helburua dute. Kasu honetan ez gara hainbeste ingurune naturalaren terminoetan ari, baizik eta garapen prozesuek etorkizunean irauteko duten gaitasunari begiratuta.

Politikoki, bi ikuspegi hauetatik idazten duten autore askok, lurraldeen kudeaketa politikoa aurrera eramateko orduan paper zentrala ematen diote tokiko gobernantzari. Hala ere, arretaz begiratzen badugu, tokiko garapenetik, gobernantza ekonomikoari garrantzi handiagoa eskaintzen diote. Ikuspegi honetatik, garapen agentziak —tokiko gobernantzarako eragile garrantzitsu gisa kontsideratuta— garapen ekonomikoa bultzatzera —enplegua sortzera, enpresen arteko sareak eraikitzea, tokiko egitura produktiboa kudeatzera, tokiko lehiakortasuna sustatzera etab.— bideratzen dira.

Baina oro har, tokiko garapena eta tokiko giza garapena ezberdintzen duen elementu nagusia, bigarrenak, ongizatea erreferentzia normatibo gisa hartzen duela litzateke. Hau da, giza garapenaz ari garenez, ongizatea garapenaren helburu bihurtzen da, eta ez hazkunde ekonomikoa. Beraz, ongizatea, garapenaren emaitzak zein prozesuak ebaluatzeko erreferentzia normatibo bezala hartzen da. Hala ere, beharrezkoa da giza garapena eman dadin, ongizatea ber-definitzea ez baliabide ekonomikoen terminoetan, baizik eta pertsonen eta jendartearen gaitasunen ikuspegitik.

Dena den, esan dugun moduan tokiko garapenaren eta tokiko giza garapenaren ikuspegiak ez dira bata bestearekiko baztertzailerak. Izan ere, tokiko garapenetik egindako ekarpen teoriko eta metodologiko ezberdinek irakaspen baliagarriak izan daitezke tokiko giza garapenerako (Dubois et. al., 2011). Hauek adibidez, metaketa baldintzatzen duten indarrei, lurraldeen egitura produktiboaren antolaketari, ezagutzari eta berrikuntzari dagozkionak, edo tokiko instituzioen eta baliabide endogenoen mobilizazioaren ingurukoak izan daitezke. Izan ere, tokiko giza garapenaren inguruko ekarpenek karga filosofiko handia dute, eta pobrezia gainditzeko eredu interesgarria osatu dezakeen arren, horrelako prozesuak lurraldeetan lurreratzeko orduan izaera abstraktuegia izan dezake.

Dena den, tokiko garapenerako eredu batzuk tokiko giza garapenetik oso hurbil daudela antzeman dezakegu. Hemen bereiziki, garapen endogenotik datozen irakaspenak edo sozialki berritzailea den eskualdea eta *integrated area development* izan daitezke hurbilenak hain zuzen ere. Azken finean, tokiko giza garapenetik ez da tokiko garapenaren inguruan teorikoki eta praktikoki landu dena deuseztatu nahi, baizik eta ongizate indibidual eta kolektiboa ardatz izanik, bestelako eredu baten logikan lan egitera jarri.

2. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENA

2.8. TAULA: Tokiko garapenaren eta tokiko giza garapenaren arteko alderaketa

	Tokiko garapena	Tokiko giza garapena
Definizioa	Tokiko garapena, ikuspegi eta dimentsio anitzak barneratzen dituen lurraldea garatzeko eredia da; lurralde lokalean bertan sortzen diren estrategiak aurrera eramaten dituen, eta lurraldean dauden errekurtoez baliatzen dena ahal duen neurrian. Helburu gisa, tokiko jendartearen beharrak asetzera, eta oro har, bizi kalitatea hobetzera bideratuta dauden estrategia horizontalak eta demokratikoak bultzatzen ditu; horrela, kohesio soziala bermatuz. Horretarako, tokiko dimentsio ekonomikoan, soziokulturean eta politiko-administratiboan eraldaketa estrukturala suposatzen duten estrategiak aurrera eramaten dira; lurralde erregional edo lokal bakoitzak bere berezitasunak dituela kontutan hartuz. Eta beraz, estrategia bakoitzak, errealitate bakoitzaren beharrei, eskakizunei eta errekurtoei egokitzen dira.	Prozesu integrala edo prozesuen multzoa izango da, eta, horren bidez, gizarte bakoitzak autonomiaz erabakiko du nolako etorkizuna izan nahi eta ahal duen, hau da, beretzat baliotsua den ongizatea. Ongizate hori, gainera, lurralde berean eskala txiki zein ertainean antolatutako gizabanako, talde sozial eta erkidegoentzako aukeren zabalkuntza izango da, baita euren gaitasun nahiz baliabideen mobilizazioa ere. Horrela, bada, genero-berdintasuna kontuan hartzen duen berdintasunezko onura bateratua lortu ahal izango dute giza garapenaren ikuspegitik ebaluatutako termino ekonomiko, sozial eta politikoetan (Dubois, 2014:129).
Erreferentzia normatiboa	Garapena (Gaur egun ikuspegi makroekonomikoek garapenaren terminoaz jabetu dira; eta hauek ez diote pertsonen egoerari erreparatzen. Garapena eta hazkunde ekonomikoa berdintzen dira, baina honek ez dio begiratzen aberastasunaren banaketari, eta beraz pertsonen eta taldeen ongizateari.)	Ongizatea, gaitasunen ikuspegiaren bitartez. (Ongizatearen erreferentzia barneratzerakoan, ze garapen eredu nahi dugun zehazten laguntzen digu. Gaitasunen ikuspegiak ongizatearen terminoa edukiz betetzen du.)
Garapenaren ikuspegia	Ikuspegi zabala, garapenaren alderdi sozialak barneratzen duen heinean. Hala ere, hazkunde ekonomikoa eta lurraldeen integrazioa merkatu globaletan lehenesten da; bide hau izango omen delako garapen soziala eta ongizatea lurraldeetara eramango duena. Beraz, esfortzu gehienak lurraldeen garapen ekonomikoa lortzeko bideratzen dira; lehiakortasuna handitzeko lurraldeak eskaintzen dituen abantaila baliatuz eta berrikuntza teknologikoa sustatuz besteak beste.	Gaitasun indibidual eta kolektiboak bermatzera bideratuta. Hauek dimentsio ekonomikoan, politikoan, sozialean, kulturean etab. (garapenaren ikuspegi integrala) bermatzen dira. Genero ikuspegia eta iraunkortasun ekologikoa dimentsio hauetan zeharka lantzen dira.
Lurraldearen ikuspegia	Lurraldea, enpresak abantaila ekonomikoez hornitzen dituen edukiontzi gisa interpretatzen duten ikuspegietatik, lurraldea eta bertan dauden eragile, baliabide eta jendartearen garapen prozesu bat aurrera eramateko orduan duten garrantzia onartzen duten beste interpretazioetara.	Lurraldearen ikuspegi kolektiboa, non lurraldea eta bertan dauden eragile, baliabide eta jendartearen garapen prozesu bat aurrera eramateko orduan duten garrantzia azpimarratzen den.

Iturria: Egileak egina.

3. KAPITULUA: EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

Mozkinak maximizatzea helburu duten enpresa pribatu kapitalisten eta birbanaketaren logikan lan egiten duten enpresa publikoen artean, elkarren arteko laguntzan eta babesean oinarritutako antolakundeak bizi izan dira historian zehar. Hauek, antolakunde edo enpresa¹⁹ pribatuak diren arren —jabego publikoa ez duten heinean—, bestelako logika bat(zuk) jarraitzen dute. Mozkinak maximizatzea bilatzen dutenen aurrean eta jabetza publikoko entitateen aurrean, ekonomian eragiten duten antolakundeen hirugarren multzo hau, besteak beste, mozkinak banatu ezin dituzten edo banatzeko orduan mugak dituzten antolakundeez osatuta dago. Hala ere, bertan kokatzen ditugun antolakundeak euren arteko ageriko elementu komunak dituzten arren, kapitulu honetan zehar ikusiko dugu errealitate honi nondik begiratzen zaion arabera, errealitate honen izaera aldatu daitekeela.

Berez, errealitate ekonomiko hauek sailkatzeko orduan, hamaika dira proposatu izan diren izendapenak. Ildo honetan Sajardo eta Chaves-ek (2006) ondorengoak bildu

¹⁹ Hemen, enpresa terminoa jarduera ekonomikoa duten eta baliabideen gehiengoa merkatutik lortzen duten antolakunde mikroekonomikoei erreferentzia egiteko erabiliko da. Hauek, lehenengo sektorekoak, bigarren sektorekoak eta hirugarren sektoreko antolakunde batzuk lirateke. Irakurleak antzemango du kapitulu honetan zehar “antolakunde” terminoa gehiago erabiltzen dela. Azken hau hobetsi dugu enpresak eta bestelako antolakunde ekonomiko batzuk hobeto biltzen dituelako. Kapitulu honetan azalduko ditugun esperientzia ekonomiko guztiak ez baitira merkatuan kokatzen.

dituzte: Hirugarren sektorea, sektore boluntarioa, mozkin asmorik gabeko sektorea, sektore filantropikoa, karitatezko sektorea, gobernuz kanpoko erakundeen sektorea, sektore independentea, bitarteko sektorea, zergaz salbuetsitako sektorea eta ekonomia soziala. Izendapen hauetako bakoitzak, errealitate honi begiratzeko modu ezberdin bati jarraitzen dio, eta beraz, hauetako bakoitzetik begiratuta, antolakunde hauen ezaugarri batzuetan edo besteetan arreta gehiago jarriko da. Autore hauek esaten duten moduan, izendapen bakoitzaren atzean oinarri politiko eta ideologikoa dagoelako, eta beraz, ez dira izendapen neutroak bezala kontsideratu behar.

Jarraian, antolakunde hauen bilakaera historikoari errepaso bat emango diogu, ondoren hauei begiratzeko existitzen diren ikuspegiak aztertzeko. Kapituluari aurrera egin ahala, ekonomia sozialaren ikuspegiarekin, eta bere enborretik sortu den ekonomia solidarioaren ikuspegiarekin bat egingo dugu. Hauek osatzen duten Ekonomia Sozial eta Solidarioa geure ikerketaren ardatz izango baita.

3.1 Antzinako elkartegintzatik hirugarren sektore baten eraikuntzara. Bilakaera historiko bat:

Bizi eta lan baldintzak hobetzeko asmoz, langile, eta, oro har, herri klasean, emandako lehenengo elkarteak²⁰ ikertu nahi baditugu, historian oso atzera egin beharko genuke. Izan ere, faraoien garaiko Egipton, erdi aroko Grezian, VII eta VIII. mendeko Txinan, IX. mendeko eskualde germaniko zein anglosaxoietan, erdi aroaren osteko mundu musulmanean, Afrika aurre-kolonialean edo Kolonurreko Amerikan elkartegintzaren hastapenak aurkitzen dira (Defourny eta Develtere, 1999 eta Moulart eta Ailenei, 2005). Hauek, oro har, garaiko biztanleriaren bizi baldintzak hobetzeko, elkarren laguntzan oinarritutako pertsonen elkarte ezberdinak ziren. Eta egun ekonomia soziala bezala ezagutzen dugunaren sustraiak dira. Hala ere, aipamen berezia egin behar zaie XVIII. mendeko azken herenean, Ingalaterran industria iraultza hasi zenean, garaiko langileek jasaten zituzten bizi baldintza latzei erantzun kolektibo bat bezala agertu ziren kooperatibei (Monzón, 2003).

²⁰ Elkarateak hemen, jendarte zibilaren antolaketa eredu ezberdinei erreferentzia egiten diete. Eta beraz, izaera ezberdinak dituzten antolakundeak barneratzen dira. Adibidez, elkarren arteko laguntzan oinarritutakoak, ermandadeak, gremioak, karitatezko elkarteak, merkataritza-elkarateak etab. Testuan aurrera egin ahala, elkarteak gaur egun duen esanahia hartuko du; elkaratearen izaera juridikoagatik definituta dagoena.

Kooperatiba hauen artean ezagunena bihurtu zena, eta kooperatibismo modernoaren jatorria kontsideratu daitekeena (Monzón, 1995 eta 2003), Rochdale-ko kooperatiba²¹ izan zen. Rochdalen, garaiko beste kooperatibetan nagusiak ziren jardunbideen sintesia burutu zuten; gerora, nazioarteko mugimendu kooperatibistan onartuko ziren printzipio kooperatiboak sortuz (Monzón, 1995). Are gehiago, printzipio haiek izango ziren Kooperatiben Nazioarteko Aliantzaren edo *International Co-operative Alliance-ren (ICA)*²² sortze-printzipioen oinarria; gaur egun mantentzen direnak.

Oraingoz printzipio kooperatiboei gehiegi erreparatu gabe, esan beharra dago Rochdaleko kooperatibaren sorkuntzan William King-ek antikapitalista ricardaiarra parte hartu zuela, eta aldi berean, jatorrizko 28 langileetatik, 6, Robert Owen sozialista utopikoaren jarraitzaileak zirela (Monzón eta Chaves, 2012). Orduetik, korrante ekonomiko hauetaz gain, beste askok ardura erakutsi dute kooperatibismoagatik; hauen artean, neoklasikoak, keynesiarrak, eta nola ez, garaiko ekonomista klasiko eta marxistak daudelarik (Defourny eta Develtere, 1999; Monzón, 2003; Monzón eta Chaves, 2012). Ikusi daitekeenez, kooperatibismo modernoaren inguruko ikerketen jatorrian aniztasun ideologiko eta analitiko handia egon zen. Hurrengo taulak korrante bakoitzak kooperatibismoarekiko zuen ikuspegiaren ezaugarri nagusienak biltzen ditu:

²¹ Rochdaleko kooperatiba, Manchestertik hurbil dagoen Rochdale hirian 1884an sortutako kooperatiba da. Berez, “Rochdaleko Aitzindarien Elkarte Ekitatiboa” edo “*Rochdale Equitable Pioneers Society*” bezala izendatu zen eta kontsumo kooperatiba baten izaera hartu zuen.

²² Kooperatiben Nazioarteko Aliantza 1895 sortzen da, nazioarte mailan kooperatibak batu eta ordezkatzeko organoa bezala. Gainera, ezagutza, irakaspenak eta esperientziak partekatzeko, eta ekimen koordinatuak aurrera eramateko foroa ere bada (www.ica.coop).

3.1. TAULA: Kooperatibismoa pentsamendu ekonomiko ezberdinen arabera

Pentsamendu ekonomikoa	Autore esanguratsuenak	Ekarpen nagusienak
Sozialismo utopikoa	Robert Owen, Ingalaterran eta Henri Saint-Simongoa, Frantzia	XIX. mendeko lehen erdialdean garatzen hasten den pentsamendua da. Owenek ordena sozial eta ekonomikoaren eraldaketa osoa proposatzen zuen kooperatibismoa oinarri izanik. Horrela, lehiakortasuna lankidetzagatik ordezkatu nahi zuen.
Antikapitalismo ricardiarra	William Thompson eta William King	David Ricardoren “ <i>On the Principles of Political Economy and Taxation</i> ” garatutako irakurketa antikapitalistan oinarrituta, kooperatibismoa kapitalismotik urruntzen zen sistema bat bezala definitzen zuten.
Ekonomia klasiko liberala	John Stuart Mill	Sistema kapitalista bestelako sistema kooperatibo batengatik ordezkatzeko proposamenak guztiz baztertzen dituzte ekonomialari klasiko ortodoxoek. Hala ere, Stuart Mill bezalako autoreek, era kooperatiboan antolatutako lanaren onurak aitortzen dituzte, emankortasuna handitu eta lana eta kapitalaren arteko gatazka lasaitu dezakeelako. Gainera, enpresa mota hauek justizia soziala eta antolaketa industrial onuragarriagoa dakartzate. Eta beraz, jabeen eta langileen arteko harremanak eraldatu dezakeen eredia izan daiteke. Alabaina, enpresen kudeaketaren inguruko kezkak, arriskuaren inguruko arazoak eta inbertsioa eta aurrezkiaren joera txikiagoa izateak desabantailak sortzen dituzte. Horrez gain, erakunde ez parte-hartzaileak bihurtzeko arazoa badago ere.
Ekonomia sozialista	Karl Marx eta Eduard Bernstein	Marxek hasieran kooperatibak kapitalismoa gainditzeko eskala txikiegia bezala ikusten zituen arren, lehenengo internazionalen kooperatiben balioa aitortu zuen. Bere ustez, soldatapeko lana lan kooperatiboagatik ordezkatzeko joango litzatekeelako. Beraz, jendarte sozialista baterako trantsizioan indar garrantzitsua bezala ikusten zuen kooperatibismoa. Marxista ortodoxoek, ekoizpen kooperatibei erreferentzia egiten zieten batez ere, hauek soldaten brontzeko legea ²³ apurtzeko modu bakarra zirelako. Hala ere, Eduard Bernstein autore errebisionistak kontsumo kooperatibak lehenesten zituen herri klaseek aberastasunaren zati bat lortzeko erraztasun handiagoak eskaintzen zituelako.

²³ Brontzeko legea, hainbat ekonomiari klasikoek landutako teoria bat da. Honen arabera, soldatak igotzerakoan, langileek kontsumorako duten ahalmena handitzen da ere. Horrek langileak seme alaba gehiago izatera bultzatuko ditu; jaiotza-tasa handituz. Langileen seme alabak lanerako adina dutenean, lan bat izateko lehiakortasuna handia izango da langile gehiago daudelako. Eta lehiakortasun horrek soldaten prezioa bizirauteko mailara berriz ere jaitea ekarriko luke.

3. KAPITULUA: EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

Ekonomia marginalista	Emilio Nazzani, Leone Wollenborg eta Ugo Rabbeno	Marginalismorantz egindako trantsizioan, hainbat ekonomialari liberalek kooperatibismoaren inguruan ekarpen ezberdinak egin zituzten. Hauek, batez ere kooperatibismoak desenpleguari aurre egiteko duen gaitasunaren inguruan izan ziren. Izan ere, laguntza publikoen aurrean, askatasuna eta lehiakortasuna errespetatzen duten enpresak dira kooperatibak. Horrez gain, ekonomialari hauek kooperatiben hedapenerako merkatuen baldintzak ikertu zituzten.
Ekonomia neoklasikoa	Alfred Marshall, Leon Walras, Vilfredo Pareto eta Maffeo Pantaleoni	Herri klaseen enplegu eta aurrezki baldintzak hobetzeko eredu bezala ikusten da. Hortaz, autore batzuk sistema kapitalistarentzako eredu osagarritzat ikusten dute kooperatibismoa; baina ez eredu alternatibo bat bezala. Autore hauentzat beraz, kooperatibek enpresa kapitalistak bezala, euren bazkideentzako ahalik eta mozkin gehien lortzea daukate helburu bezala.
Ekonomia keynesiarra	Claude Vimey eta Benjamin Ward	Enpresen autokudeaketan arreta jartzen da (langileek hartutako erabakiak pertsona bat, bozka bat printzipioa oinarri izanik; eta langileen artean mozkinak banatzea). Ekoizpen eta kontsumo kooperatiben dikotomia klasikoaren aurrean, beste eredu kooperatiboak sortzen dira: ekoizpena, kontsumoa, enpresarien elkarrekin eta aurrezki eta kreditua. Ekonomialari neoklasikoek kooperatiben jokaera mozkin globala handitzeko asmoz hazkundera lortzea zela zioten bitartean, ikuspegi honetatik, helburua hazkundera izaten jarraitzen zen, baina langile bakoitzaren errenta maila pertsonala handitzeko helburuarekin.

Iturria: Monzon (2003). Egileak moldatuta

Egun, ICAk ematen duen definizioaren arabera, kooperatibak pertsonetan oinarrituta dauden enpresak dira. Hauek osatzen dituzten bazkideek euren jabetza daukate, eta beraz, hauengatik kontrolatzen eta kudeatzen dira, behar eta helburu komunak erantzuteko xedearekin. Horrez gain, kooperatibek oinarrizko zazpi printzipio jarraitzen dituzte (www.ica.coop):

1. Borondatezko atxikimendu irekia: Kooperatibak antolakunde irekiak dira euren zerbitzuak erabili nahi dituen, eta erantzukizuna onartzen duen edonorentzako.
2. Bazkideen kontrol demokratikoa: Kooperatibak euren bazkideengatik kontrolatuta dauden antolakunde demokratikoak dira. Pertsona bat, bozka bat printzipioa jarraitzen dutelarik.
3. Bazkideen parte-hartze ekonomikoa: Bazkideek era ekitatiboan parte-hartzen dute kooperatibaren kapital sozialean. Eta hau modu demokratikoan kontrolatzen dute.
4. Autonomia eta independentzia: Kooperatibak antolakunde autonomoak dira, euren kontrola bazkideen esku dagoelarik. Gainera, botere publikoekiko independenteak dira.
5. Hezkuntza, formakuntza eta informazioa: Kooperatibek euren bazkideei hezkuntza, formakuntza eta informazioa eskaintzen dizkiete kooperazioaren inguruan.
6. Kooperatiben arteko lankidetzak: Kooperatibek, mugimendu kooperatibista indartzen dute euren arteko elkarlanaren bitartez.
7. Komunitatearekiko konpromisoa: Kooperatibek komunitateen garapen iraunkorraren alde lan egiten dute.

Hala ere, egun ekonomia soziala bezala ezagutzen duguna ez da soilik kooperatibez osatzen. Jatorrizko hiru familia aurkitu ditzakegu ekonomia sozialaren erroetan. Lehenik, azaldu ditugun kooperatibak egongo lirateke, bigarrenik elkarteak eta hirugarrenik mutualitateak. Hirurek, XVIII eta XIX. mendeetan garatzen ari zen jendarte industrialaren bizi baldintza latzei erantzuteko, herri klaseek sortutako elkarrekotasunean eta elkarren arteko babesean oinarritutako antolakundeak osatzen zituzten (Monzón eta Chaves, 2012); eta sindikatu eta langile-alderdiekin batera, langile mugimenduaren adierazpen esanguratsuenak bihurtu ziren (Laville eta García-Jané, 2009).

Gehiegi aurreratu gabe, esan dezakegu, mutualitateak XIX. mendeko erdialdean areagotzen direla, eta ekoizpen artisauan oinarritutako erregulazio batetik, industria iraultzaren eraginez lehiakortasun handiagoko erregulazio batera igarotzearen ondorioa direla. Izan ere, lan-arriskuen, istripuen, gaixotasunen edo greben aurrean langileen babes bermatzen zuten antolakundeak bezala agertu ziren (Moulaert eta Ailenei, 2005). Hau da, mozkin asmorik gabeko entitate demokratikoak dira, borondatezko aseguru jardura betetzen dutenak, esan dugun moduan, bazkide mutualistak babesteko xedearekin. Arrisku indibidualak, arrisku kolektibo eta solidarioak bihurtuz. Mutualitateak, Erdi Aroko langileek sortutako sokorru antolakundeetatik eratortzen dira; non langile hauen soldataren zati bat gaixotasunak estaltzeko bideratzen zuten. Elkartek bestalde, modu egonkorrean ekimen bat aurrera eramateko asmoz sortzen diren pertsonen elkarteak lirake. Demokratikoki kudeatzen direnak eta mozkin asmorik ez dutenak (Laville eta García-Jané, 2009).

Elkartegintzaren eta estatuaren arteko harremanak hala ere, ez dira beti harmonikoak izan. Elkartze-askatasuna estatuaren subiranotasunerako mehatxu bat bezala ikusten baitzen. Gainera, elite politikoarentzako kezkarriak izan zitezkeen elkarteak sortzen zirenean, estatuak zapaldu eta debekatu zituen. Ildo honetan, beharrezkoa agertzen da *Le Chapelier* lege Frantsesa aipatzea. *Le Chapelier* legea, iraultza liberal-burgesen testuinguruan sortzen da Frantzian. Enpresa-askatasunaren ideiarekin, antzinako erregimenetik zetozen zama feudalak kendu zizkieten ordura arte pribilegiarik gabeko taldea izan zenari (nekazariak, artisauak, merkatariak etab.). Alabaina, liberalismo ekonomikoaren aldeko aldarri horretan, ustez enpresa-askatasunaren aurka zihoazen gremioak eta langileen elkarteak ere debekatuak izan ziren konspirazio zigorra zela medio.

Izan ere, burgesiak uste zuen, langileen arteko elkarteak baimentzen baldin baziren, hauek soldata hobeagoak lortzeko presioa egiteko aukera izango zutela, enpresaria eta langilearen arteko lan-harreman indibidualizatuak egiten ziren garai batean. Hala ere, ezagunena *Le Chapelier* lege Frantsesa izan daitekeen arren, Europako beste herrialde batzuetan antzeko neurriak aplikatu ziren XVIII. mendean zehar. Horregatik, XIX. eta, batez ere, XX. mendera arte itxaron beharko da errealitate hau arautuko duen marko legegilea osatzen joaten hasteko (Defourny eta Develtere, 1999).

Herrialdeen arabera, Britania Handian *friendly societies* deritzonek elkarren babesarako elkarteek garrantzi handia hartu zuten 1790eko hamarkadan; eta Europa

kontinentalean ere, mutualitateen kopurua areagotu zen garai honetan. Zehatzago, Alemanian adibidez, eremu urbanoetan sortutako lan-kooperatibez gain, garrantzi handia izan zituzten kreditu mutualitateak edo *Darlehenskassenvereine*-ak eta nekazarien mutualitateak. Italian, elkarren babeserako sozietateei lotuta, lehenengo kooperatibak sortu ziren XIX. mendeko erdialdean. Frantzian, ekonomia sozialaren eta herri-mugimenduen arteko lotura handiagoa da Europako beste herrialdeekin konparatuta. Izan ere, Saint-Simonen ideietan oinarrituta, langileen elkarrekin ezberdinak sortu ziren. Eta nahiz eta “kooperazioaren” terminoa beranduago barneratuko den, langileek osatzen zituzten ekoizpen-elkarrekin esangura handia izan zuten XIX. mendeko Frantzian. Ezin da azaldu beraz, kooperatiben eta mutualitateen hazkundera herri klaseen emandako elkartegintza mugimendua azaldu gabe. Eta honen barnean batez ere, Saint-Simonen ekarpenetan oinarrituta zegoen elkartegintza industrialari paper zentrala eman behar diogu. Herrialdeen bidezko errepaso hau bukatzeko, Espainiako estatuan elkartegintza, mutualismoa eta mugimendu kooperatiboa elkarren arteko lotura handia izan zuten. Horren adibide, Bartzelonan 1842an sortutako ehuleen kooperatiba izan daiteke. Kooperatiba hau, estatuko lehen lan-kooperatiba bezala kontsideratzen dena, Bartzelonako ehuleen mutualitateari oso lotuta zegoen; eta azken hau, aldi berean, 1840an sortutako Bartzelonako ehuleen sindikatuari (Monzón eta Chaves, 2012).

Langile eta herri klaseen antolaketa eredu hauen jatorri eta izaera anitz hauetan oinarrituta, gaur egun, ekonomia sozialaren inguruan egiten diren ikerketetan kooperatibena baino eredu zabalagoa erabiltzen da. Gaur egungo ikerketa hauek, oro har, sektorearen mugapen kontzeptuala egitera, sektorea kuantifikatzera, entitateetako barne egiturak ikertzera eta arazo sozialei erantzuteko duen gaitasuna aztertzerantz bideratzen dira (Monzón, 2003).

Izan ere, azken hamarkadetan ekonomia sozialaren inguruko arduraz hazi egin da. Hau ez da arraroa izan, alde batetik, XX. mendeko 70eko hamarkadaren amaieratik fordismoaren gainbeheraren eta ongizate estatuaren krisiaren testuinguruan, eta ondoren etorriko ziren merkatuen desarauketen eraginez, ekonomia sozialaren inguruko ekimenak areagotu direlako (Moulaert eta Ailenei, 2005). Eta beste aldetik, garai honetan ere, ekonomia sozialaren inguruko garapen akademikoa areagotu zelako; hau literatura frantsesari oso lotuta dagoelarik.


Hala ere, 70eko hamarkadan ekonomia sozialaren inguruko ekarpenak literatura frantsesera lotzen hasten diren bezala, mundu anglosaxoian, errealitate honi begiratzeko

beste ikuspegi bat garatzen hasten da. Mozkinen besteko edo *non-profit* ikuspegia, alegia. Diogunez, honek tradizio anglosaxoiari lotutako ikuspegia jorratzen du, eta beraz, ikusiko dugun moduan, ekonomia sozialaren ikuspegi frankofonoarekiko ezberdintasun garrantzitsuak erakusten ditu, nahiz eta, esan bezala, biek publikoak ez diren baina sektore pribatu kapitalistaren logikan funtzionatzen ez duten antolakundeei erreferentzia egiten dieten.

Tradizio anglosaxoian adibidez, klase altuko populazioaren artean sortutako mugimendu altruista edo filantropiko bati lotuta garatuko da. Eta, karitatean oinarritutako elkarten bitartez, estatuaren eta jendartearen arteko bitartekaritza erakundeak bezala sortuko dira. Bestalde, tradizio frankofonoa elkartasunean oinarritutako kulturari lotuta garatzen da, eta elkarren arteko laguntzan oinarritutako elkarten bitartez garatu zen (Laville, 2003; Etxezarreta, 2012). Horrenbestez, lehenengoek goitik beherako eta kanporanzko elkartasunean oinarritu ziren; nobleziaren elkarte karitatiboak ziren heinean eta laguntza elkarreetatik kanpoko pertsonetara bideratzen zutelako. Eta bigarrenengoek, horizontaltasunean eta barne elkartasunean oinarritu ziren; ekimen kooperatiboagoak ziren heinean.

Hala ere, Monzónek (2006) dionez, publikoak ez diren baina sektore pribatu kapitalistaren logikan funtzionatzen ez duten antolakunde hauei erreferentzia egiteko, berdin erabili ohi da beste kontzeptu bat: hirugarren sektorea edo sistema. Hirugarrena izateko, logikoki, beste bi sektore egon behar dira lehenengo. Hauek, aipatu ditugun sektore pribatu kapitalista eta sektore publikoa dira. Lehenengo sektorean —pribatu kapitalista— logika kapitalista jarraitzen duten enpresa pribatuak leudeke. Hau da, mozkinak maximizatzea bilatzen duten enpresez osatuta legoke. Bigarren sektorean —sektore publikoa— entitate publikoak daude. Hemen, entitatearen jabe goaren aldetik ez dago zalantzarik, denak publikoak dira eta birbanaketaren logikan lan egiten dute. Azkenik, hirugarren sektorean, mozkinen besteko logika jarraitzen duten eta jabe go pribatu-soziala edo komunitarioa duten entitateak leudeke. Hots, elkarren arteko laguntzan eta izaera mutualistan oinarritutako entitateak liriateke (Pérez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi, 2009; Etxezarreta eta Pérez de Mendiguren, 2018). Hurrengo irudian hiru sektoreen banaketa ikusteko aukera daukagu modu argi batean:

2. IRUDIA: Hiru sektore ekonomikoak



Iturria: Etxezarreta eta Pérez de Mendiguren (2018:7). Pearce-n (2003) oinarrituta.

Berez, hirugarren sektorearen izendapena erabili zuen lehenetarikoa Theodore Levitt (1973) autore estatubatuarra izan zen, mozkinenez besteko entitateen sektoreari oso lotuta zegoena. European, ekonomia sozialarekiko lotuta handiagoarekin Defourny eta Monzón (1992) eta CIRIEC²⁴ (2000) ere erabiltzen hasi ziren (Monzón, 2006). Hortaz, lehen esan dugun moduan, ekonomia sozialari edo mozkinenez besteko sektoreari erreferentzia egiteko berdin erabili izan da hirugarren sektorearen terminoa. Hots,

²⁴ CIRIEC (Centro Internacional de Investigación e Información sobre la Economía Pública, Social y Cooperativa), 1947an sortutako nazioarteko erakunde zientifikoa da. Bere helburua, interes orokorrarentzako onuragarriak diren sektore eta jardueren inguruko ikerketa zientifikoa bultzatzea da. Horretarako, zerbitzu publikoetan, enpresa publikoetan eta ekonomia sozialeko entitateetan jartzen dute arreta. Espainiako estatuan, 1986an sortzen da eta bere egoitza nagusia Valentiako Unibertsitatean dago (<http://ciriec.es/>)

errealitate berdinari —hirugarren sektorea— begiratzeko, tradizio ezberdinetan oinarritutako bi ikuspegi daude, eta hauetako bakoitzak entitate batzuk barneratzen ditu besteak barneratzen ez dituenak. Honek, argi dago, zailtasun metodologikoak ekarri ditu. Gainera, aurreko irudian ikusi dezakegun moduan, hirugarren sektoreak pribatu kapitalista eta publikoa ez den guztia barneratzen du. Eta beraz, nahasmena eragin dezake, oso entitate anitzak barneratzen dituelako; batzuk, merkatura bideratuta daudelarik eta beste batzuk ez.

Horrez gain, Etxezarreta eta Pérez de Mendigurenek (2018) zehazten duten moduan, sailkapena zailtzen duten gutxienez bi tentsio eremu antzematen dira. Batez ere, ekonomia sozialaren ikuspegitik begiratzen badiogu. Bata, ekonomia sozialaren eta merkatuaren artekoa, eta bestea, ekonomia sozialaren eta estatuaren artekoa. Edo beste modura esanda, posibleak maximizatzea bilatzen duen lehenengo sektorearen eta hirugarren sektorearen artean, batez ere kooperatiben kasuan; eta bigarrenik, birbanaketa eta antolaketa demokratikoan oinarritutako bigarren sektore publiko eta ekonomia sozialaren artekoa ere.

Izan ere, lehenengo tentsioari begira, egun kooperatiba askok merkatuen arauak jarraitzen dituzten arren, ohiko enpresa pribatu kapitalistek ez dituzten helburu sozialak dituzte. Eta bigarrenari begira, badira azken urteetan ekonomia sozialaren eta estatuaren artean areagotu diren lankidetzak edo ituntze politikak, eta hauek, bi sektoreen arteko mugak lausotu ditu neurri batean. Bigarren eta hirugarren sektoreen artean izaera hibridoa duten entitateak sortu direlako eta hauek zerbitzu publikoak estaltzera bideratzen direlako. Beraz, hirugarren sektorekoak diren, baina estatuaren presentzia agerikoa duten entitateak sortzen ari dira; ekonomia sozialaren autonomia eta independentzia printzipioei bistan dauden tentsioak eraginez.

Dena den, sektoreen bidezko sailkapen hau kapitulu honetan ikerketa objektu gisa dugun ekonomia sozial eta solidarioari lehenengo hurbilketa bat egiteko proposa da; nahiz eta hurrengo ataletan sektorearen mugak gehiago finduko ditugun.

3.2 Hirugarren sektorearen ikuspegi anglosaxoia: Mozkinen Besteko Sektorea

Hirugarren sektorearen ikuspegi anglosaxoia, XX. mendeko 70eko hamarkadan garatzen hasten da, batez ere Estatu Batuetatik datozen ekarpenekin. Ikuspegi honen

erroetan, XIX. mendean Britainia Handian eta honen influentziaren pean zeuden herrialdeetan errotzen diren entitate karitatibo eta filantropikoak leudeke. Hauen artean Britainia Handiko *charity*-ak edo Estatu Batuetako *philanthropic foundations*-ak esangura handia izanik. Hauetatik, hedatzen baitira mozkinen besteko sektore honi erreferentzia egiteko ere erabiltzen diren karitatezko sektorea eta sektore boluntarioa adibidez (Monzón eta Chaves, 2012).

70eko hamarkadan Salamon eta Anheier-ek (1997) izendatutako “elkartegintzaren eztanda” ematen ari zelako areagotzen dira hirugarren sektorearen ikuspegi honen inguruko ekarpen akademikoak. Fenomeno hau, politika neoliberalen ondorio zuzena kontsideratu daitekeena, laster, ekonomialari neoklasikoen arreta deitu zuen. Izan ere, ekonomia ortodoxoak defendatzen duen merkatuaren ikuspegia, hots, baliabideen esleipen optimoa lortzen duena, akatsak erakusten zituenean, hirugarren sektoreak akats hauek zuzentzeko errealitate egokia osatzen zuela defendatzen zuten (Etxezarreta eta Pérez de Mendiguren, 2018).

Horrela, autore neoklasiko ezberdinek, eskariaren zein eskaintzaren aldeko teoriak garatu zituzten hirugarren sektorearen izatea azaltzeko. Hau da, azaldu nahi zuten zergatik egiten zen hirugarren sektorearen alde bai kontsumitzaileen zein ekintzaileen ikuspegitik. Eskariaren aldetik, esan dugun moduan, lehenengo eta bigarren sektoreetan ematen ziren akatsak konpontzeko sektore gisa ulertzen zuten. Horrela, batetik, estatuak eskaintzen zituen zerbitzu publikoen esleipen ez eraginkorraren aurrean²⁵ eta bestetik, eskariaren heterogeneotasunagatik²⁶ gutxiengo etniko eta erlijiosoen beharren asebetetze ezaren aurrean, hirugarren sektoreak estatuaren akatsak zuzentzen zituen. Bestalde, merkatuen esleipen desegokiagatik²⁷, merkatuko zerbitzu eta ondasunen kalitatearen galeragatik²⁸, edo, zerbitzuen hornikuntzan sorturiko kostuengatik²⁹ eman daitezkeen merkatu akatsak ere hirugarren sektoreak zuzendu ditzakeela argudiatzen zuten.

Aldiz, eskaintzaren aldetik, “*If not for profit, for what?*” galderari erantzuten saiatu ziren. Hots, zergatik emango ote ziren enpresa ekimenak mozkinen besteko

²⁵ Estatuko akatsen teoria (Weisbord, 1988).

²⁶ Eskariaren heterogeneotasunaren teoria (James, 1987)

²⁷ Kontratu akatsen teoria (Hansman, 1980)

²⁸ Kontsumitzaileen kontrolaren teoria (Ben-Ner eta Gui, 1993)

²⁹ Transakzio kostuen teoria (Krashinsky, 1986)

sektore batean? Bi ikuspegi nagusitu ziren hemen, enpresa-ikuspegia eta herri-mugimendua. Enpresa-ikuspegi batetik begiratzen zutenek, mozkinen besteko antolakundeak eta enpresa tradizionalen arteko harremanak³⁰ ikertu zituzten batetik; eta bestetik, enpresa tradizionaletan aurkitzen ez ziren, baina hirugarren sektorean agerikoak ziren motibazio konkretuak³¹ aurkitu zituzten. Herri-mugimenduen ikuspegitik³², hauek zuten espazioa handitzeko modu egokia ikusten zuten hirugarren sektorea (Etxezarreta, 2012 eta Etxezarreta eta Pérez de Mendiguren, 2018).

Mozkinen besteko sektorearen mugapen kontzeptuala egiteko, Salamon eta Anheierek (1992:135-136) proposatzen duten bost ezaugarri edo baldintzak hartzen ohi dira irizpide nagusi gisa. Hau da, mozkinen besteko antolakunde izateko, eta hedaturaz hirugarren sektorearen parte izateko, beharrezkoak diren bost ezaugarri proposatzen dituzte:

1. Formalki sortuak dira: Nolabaiteko instituzionalizazioa duten antolakundeak dira; bai konstituzio legala egon delako, edo, bilera erregularrak, barne jokabideen arauak eta antolakunde egitura dutelako. Eta beraz, adibidez, une konkretu batean sortzen diren aldi baterako bilera informalak ez dira barneratzen.
2. Pribatuak dira: Sektore publikotik at daude. Hau da, ez dira gobernuaren parte eta ez daude funtzionario publikoek osatutako batzar nagusiengatik gobernatuta. Honek ez du esan nahi babes publikorik izan ez dezaketarik; baizik eta egitura pribatua duten antolakundeak direla.
3. Ez daukate lukuru asmorik: Ez dira mozkinak banatzen antolakundearen jabe edo zuzendariei. Mozkinen besteko antolakundeak ez daude mozkinak lortzera bideratuta; eta ekitaldi batean lortu dezaketarik mozkinak, antolakundearen xedea bultzatzera bideratu behar dituzte. Printzipio honek, lehenengo sektoreko entitateez bereizten ditu.
4. Autonomoak dira: Euren jarduerak autokudeatzeko gaitasuna dute. Mozkinen besteko antolakundeek berezko prozedurak dituzte euren gobernu

³⁰ Young (1983)

³¹ Steinberg (2006)

³² James (1987)

ekintzarako; eta ez dituzte behar hauek kontrolatuko dituzten kanpo entitaterik.

5. Izaera boluntarioa dute: Parte-hartze boluntarioa dute neurri adierazgarri batean. Honek ez du esan nahi ekarpen monetario guztiak edo gehienak boluntarioak direnik edo bertan lan egiten duten guztiak edo gehiengoak boluntarioak direnik.

Bost printzipio hauen bidezko definizioa, sektorea mugatzeko definizio operatibogisa kontsideratua izan da, eta beraz, antolakunde bakoitzak printzipio bakoitza gradu ezberdin batean beteko duen arren, Salamon eta Anheieren (1992) arabera, antolakunde batek bost printzipio hauek betetzen dituenaren frogapen dezente bat egitearekin nahiko izango litzateke mozkinenez besteko sektorean barneratua izateko. Bestetik, definizio operatiboa dela esaten dugu, 90eko hamarkadaren hasieran Johns Hopkins Unibertsitateak munduko 36 herrialdeetan hirugarren sektorea kuantifikatzeko eta aztertzeko asmoz aurrera eramandako ikerketa egiteko erabilitako irizpideak izan baitziren.

Erabili ohi den beste definizio bat nahi badugu, Nazio Batuek publikatutako *Non-Profit Institutions Handbook* (United Nations, 2003) gidaliburuan aurkitu dezakegu. Salamon eta Anheieren (1992) definiziotik abiatuta, izaera juridiko anitzak izan dezaketen —gehiengoa elkarteak eta fundazioak dira— eta helburu ezberdinetara bideratuta dauden antolakundeak bezala definitzen dira. Hauek pertsoneri edo enpresei zerbitzuak emateko, jarduera filantropikoak aurrera eramateko, hezkuntza osasuna edo aisialdia bezalako zerbitzuak emateko, presio taldeen interesak defendatzeko etab. izan daitezkeelarik (Monzón, 2006).

Printzipio hauetatik une honetan garrantzia gehien emango diogunari lukuru edo mozkin asmorik gabeko printzipioari izango da. Izan ere, beste laurak ondoren ikusiko dugun ekonomia sozialaren ikuspegiak jarraitzen duen printzipioekin bat egiten dute neurri batean. Baina mozkin asmorik gabeko printzipio horrek aldiz, hirugarren sektorearen ikuspegi anglosaxoiaren eta frankofonoaren ezberdintasun nagusienetarikobat osatzen du. Eta beraz, gure arreta eskatzen du bi ikuspegien arteko ezberdintasun nagusienak argi geratu daitezen.

3.2.1 Mozkinez besteko ikuskera:

Mozkinez besteko ikuskerak, hasteko, bere esanahiaren inguruko azalpen bat merezi du. Izan ere, hemen nahastu daitezke antzeko adiera daukaten bi termino. Bata mozkin asmorik gabeko antolakundeena edo *not for profit organization*, eta bestea, mozkin bezalako antolakundeena edo *non-profit organization*. Chaves eta Monzón (2001) argitzen duten moduan, mozkin asmorik gabeko antolakundeak izateak, izaera finalista dauka, antolakundearen asmoa delako garrantzia hartzen duena. Eta beraz, antolakundearen helburua mozkinak maximizatzea izan ordez, helburu sozialak dira aurretik jartzen direnak. Hau da, antolakundearen bazkideen beharrak asetzera edo jendartean baliagarritasun soziala duten zerbitzuak ematera bideratuta daude; eta ez, mozkinak maximizatzen. Zentzu honetan, aurrerago ikusiko dugunez, ekonomia sozialaren adiera tradizionalan, mozkin asmorik gabeko izaera erakusten du; bere bazkideen edo/eta jendartearen beharrak mozkinen aurretik jartzen baititu. Aldiz, mozkin bezalako ikuskerak, izaera normatiboa dauka. Hemen ez da antolakundearen asmoari begiratzen, mozkinen banaketaren inguruan dauden arauak baizik. Eta arau hauek, mozkinen banaezintasunari erreferentzia egiten diete. Hots, antolakundearen jardueratik mozkinak lortuko balira, hauek ezingo liriteke jabeen, zuzendarien, bazkideen eta abarren artean banatu; eta, izatekotan, antolakundearen jardura nagusian berrinbertitu beharko liriteke.

Mozkinez besteko antolakundeak beraz, aurreko bi ikuskerak barneratzen dituztela esan genezake. Batetik, mozkinak banatzea ezinezkoa duten izaera juridikoak erabiltzen dituztelako (oro har, elkarte eta fundazioak), eta bestetik, Salamon eta Anheier-ek (1992:135) esaten duten moduan, “mozkinez besteko antolakundeak antolakunde pribatuak dira, ez direnak existitzen mozkinak sortzeko”.

Honekin guztiarekin, esan dezakegu, mozkin bezalako antolakunde gisa kontsideratzeko, bi irizpide jarraitu behar dituela antolakunde batek lukuruaren inguruan. Batetik, asmoaren inguruan, helburu sozialak nagusitu behar direla, eta bestetik, ezin izango dituela mozkinak banatu. Dena den, mozkin bezalako antolakundeen literaturari erreparatzen badiogu, orokorrean, garrantzi handiagoa bigarren ikuskera horrek hartzen du. Hots, mozkinen banaezintasunarekin lotuta dagoena (Chaves eta Monzón, 2001).

Ildo honetan, hemen zalantza bat sortu daiteke. Esan dugu mozkin bezalako sektorean dauden antolakundeak sailkatzeko orduan dagoen irizpiderik bereizgarriena

—eta aldi berean nahasmen handiena sortu dezakeena— mozkinen banaketari dagokiona dela. Bereizgarriena da, soilik mozkinak banatzen ez dituzten entitateak barneratzen dituelako. Eta beraz, logikoa da mozkinen besteko sektorean elkarteak eta fundazioak nagusi izatea; ezinezkoa baitute mozkinak banatzea. Baina aldi berean nahasmen handiena sortzen duena dela esaten dugu, mozkinen besteko literaturan barna oraindik mozkin asmoaren inguruko irizpide batzuk guztiz argi gelditzen ez direlako. Mozkin asmoa, merkatuko jarduerekin lotzen da neurri batean, eta honelako baieztapenak aurkitu ditzakegu: “Mozkin asmorik ez izateak, mozkin asmorik gabeko entitateak ez direla nagusiki mozkinak sortzeko existitzen esan nahi du, bai modu zuzenean edo zeharkakoan, eta ez direla gidatzen merkataritza-helburuengatik” (United Nations, 2003:18). Baina, zer dira zehazki helburu komertzialak? Monzónek (2006) esaten duen moduan, mozkinen besteko ikuspegiak ekonomia sozialaren nukleoa diren kooperatibak edo mutualitateak bezalako entitateak baztertzen ditu; ikuspegi honetatik begiratzen duten autoreek, hauek mozkinak lortzera bideratuta daudela argudiatzen baitute.

Izan ere, antolakunde hauek XX. mendean izan duten hazkundeagatik eta merkatuko indarregatik erakarrita, mozkinen besteko antolakundeen jokabideetatik aldendu direla argudiatzen dute (Defourny eta Pestoff, 2008). Alabaina, aldi berean, Weisbrod-ek (1998) esaten duenez, mozkinen besteko sektorea mugatzeko orduan, merkantilizazioaren aldeko joera ematen ari da. Horrela, aurrezki kutxa batzuk, museo batzuk edo medikuntza edo hezkuntza sektoretan kokatuta dauden fundazio handiak mozkinen besteko sektorearen parte bezala hartzen dira. Hauek argi eta garbi merkatura bideratuta daudelarik. Izan ere, merkatuko jarduerak aurrera eramaten dituzten arren, mozkinen banaezintasunagatik, mozkinen besteko antolakundeak bezala kontsideratzen dira. Modu honetan, mozkinen besteko sektoreak merkatuko jarduera duten eta ez duten antolakundeak barneratzen ditu (Chaves eta Monzón, 2001).

Beraz, ez da hain argi gelditzen mozkin asmorik gabeko ikuskera hori, mozkinen besteko ikuskera lehenesten delako. Eta hasiera batean, bigarren ikuskera hau murriztaileagoa iruditu daitekeen arren, mozkinen banaezintasuna ezartzen duelako, ikusiko dugun moduan, asmoari bigarren paper bat emateak antolakunde hauen xedean eta funtzionamenduan aldaketa garrantzitsuak eragiten ditu. Sozialak ez diren jarduerak garapen handiagoa izan dezaketelako, eta mozkinen besteko sektorean hain

esanguratsua den lan boluntarioa gutxitzen delako antolakundeek merkatura bideratzen diren heinean.

3.2.1 Mozkinen besteko antolakundearen xedea, jabetza, eta kudeaketaren inguruko apunteak:

Mozkinen besteko antolakundearen xedea, zalantzarik gabe, oso ezberdina izan daiteke entitate batetik bestera³³. Are gehiago, ez dago xedea baldintzatzen duen irizpiderik. Izan ere, mozkinen besteko sektorean, ez dago pertsonen emandako zerbitzuak lehentasunezko helburu gisa jartzen duen irizpide edo printzipiorik. Hau da, aurrerago ikusiko dugun moduan, ekonomia sozialaren helburu nagusia bazkideentzako, komunitatearentzako edo ekonomia sozialeko beste entitateentzako zerbitzuak eskaintzea da; baina mozkinen besteko sektorea mugatzen duten irizpideei begiratzen badiegu ez dugu holakorik aurkitzen. Eta beraz, pertsonentzako zerbitzuak eskaintzeko sortu daitezkeen moduan, antolakunde hauek finantzatzen dituzten enpresentzako zerbitzuak eskaintzera bideratu daitezke (Monzón, 2006 eta Pérez de Mendiguren et. al., 2009). Honek, mozkinen besteko sektorearen ikuskeraren horrekin ere talka egin dezake, ez baitago ziurtatua, nahiz eta mozkinak banatu ezin diren, entitate hauen xedea “soziala” izango denik.

Xedearen arabera ere beste zalantza bat sortzen da entitate hauek hirugarren sektorean barneratzerakoan. Izan ere, esan ditugun xede edo helburu aniztasun horretan, mozkinen besteko entitate guztiek ez dute jardura ekonomikorik aurrera eramaten. Elkarrekin artean hiru multzo bereizi ditzakegu: elkarte politiko, sindikal eta profesionalak, elkarte eta jendarte elkarteak (kirol elkarteak, elkarte erlijiosoak etab.) eta jendarte-ekimenekoak (Laville eta García-Jané, 2009). Edo, beste modura esanda, ordezkari eta influentzia elkarteak, elkarte edo topaketarako elkarteak eta ondasun edo zerbitzuak eskaintzen dituztenak. Ikusi dezakegunez, elkarte guztiek ez dute produktu edo zerbitzuak eskaintzen, eta beraz, hauek hirugarren sektorearen barruan sartzeko orduan zalantzak sorrarazten dituzte. Azken finean, hiru sektoreen bidezko sailkapena, ekonomia sailkatzeko irizpide bat da; eta, adibidez, ordezkarietarako edo elkarterako bezalako elkarteak ez dute jardura ekonomikorik aurrera eramaten. Hala

³³ Pertsonentzako edo enpresentzako zerbitzuak eskaintzea, jardura benefiko edo filantropikoak aurrera eramatea, mozkinen besteko sektoreko zerbitzuak aurrera eramatea (osasuna, hezkuntza, aisialdia etab.), presio taldeen edo alderdi politikoaren interesak defendatzea etab. (Monzón eta Chaves, 2012).

ere, mozkinen besteko ikuspegiak, ekonomia soziala ez bezala, hirugarren sektorearen parte bezala ulertzen ditu elkarte hauek (Chaves eta Monzón, 2001).

Fundazioen kasuan, mozkinen besteko sektorearen parte garrantzitsua osatzen dute³⁴. Euren egituragatik, ezin dituzte mozkinak banatu, interes orokorrera bideratutako funtsak diren heinean. Beraz, mozkinen besteko ikuskera dute. Hala ere, asmoaren irizpidea ez da beti hain garbi ikusten, eta, azaldu dugun moduan, zalantzak sortzen ditu. Argi dago, merkatuaren logikatik at dauden fundazioak mozkinen besteko sektorean barneratuko direla, eta aldiz, enpresa baten edo administrazio publikoaren menpe daudenak sektoretik kanpo kontsideratzen direla autonomia eta autogobernuaren printzipioak betetzen ez dituztelako (Salamon eta Anheier, 1992 eta Chaves eta Monzón, 2001). Baina, merkaturan jarduten duten fundazioek, aipatzen genituen zalantzak sor dezakete. Izan ere, merkaturan ondasun edo zerbitzuen salmentagatik baliabideen zatirik handiena lortzen duten fundazioak sektorearen parte kontsideratu behar dira edo ez? Dagoeneko ikusi dugunez, ez dago honen inguruan guztizko adostasunik, eta asmoaren edo helburuaren adostasun eza honen aurrean, esan dugun moduan, mozkinen banaezintasunaren printzipioa nagusitzen da.

Jabegoaren aldetik, elkarteak, antolakunde demokratikoak dira eta euren bazkideengatik kontrolatuta daude. Eta fundazioak, esan dugun moduan, xede batera bideratzen diren funtsak dira. Hots, helburu sozial batera bideratutako ondareak dira. Fundazioek ez dituzte bazkiderik, eta beraz, ondarearen kudeaketa patronatua deritzon zuzendaritza-organoak aurrera eramaten du. Bazkiderik edo jaberik ez dutenez, fundazioen ondarea edo aurrera eraman dezaketen jardura ekonomikoetatik lortutako mozkinak ezin izango dira banatu, eta, esan dugun moduan, helburu sozial horretara bideratu beharko dira. Ikusten dugunez, bai elkarteek zein fundazioek duten jabego egitura eta kudeaketa eredu ezberdina den arren, biek mozkinen besteko sektorearen parte izango dira baldin eta euren jardura autokudeatzeko gaitasuna badute. Hots, autonomia baldin badute. Izan ere, mozkinen besteko ikuspegi honetatik ez zaio erreparatzen antolakundeetako barne demokraziari.

Mozkinen besteko sektorean diharduten antolakundeetako barne jokabideen laburpen bat burutu dugu hurrengo taulan:

³⁴ Chaves eta Monzónen (2001) arabera, mozkinen besteko ikuspegitik, ohikoa da fundazioak honen baitan dauden antolakunde adierazgarrienak bezala kontsideratzea.

3.2. TAULA: Mozkinez besteko antolakunde nagusietako barne jokabideen laburpena

	Jabegoa	Kudeaketa	Xedea	Jarduera
Elkartek	- Bazkideak.	- Demokratikoa. - Bazkideek pertsonek bat bozka bat printzipioa jarraitzen dute.	- Ordezkaritza - Elkartze edo topaketarakoak - Ondasun edo zerbitzuak eskaini	- Merkatukoa - Ez merkatukoa.
Fundazioak	- Ez dago jaberik. - Ondarea fundazioaren xedea lortzera bideratzen da.	- Ez da demokratikoa. - Patronatuak erabakitzen du ondarearen kudeaketaren inguruan.	-Jarduera benefiko edo filantropikoak - Mozkin asmorik gabeko merkatuko zerbitzuak - Presio taldeen edo alderdi politikoen interesak defendatu	- Merkatukoa - Ez merkatukoa.

Iturria: Egileak egina.

Barne jokabide hauei begira, eta irizpide baztertzailea mozkinen banaezintasuna dela kontutan izanik, antzeman dezakegu mozkinen besteko sektorean jarduten duten antolakundeak oso ezberdinak izan daitezkeela bata bestearengatik. Lehenik, elkarte edo fundazio txikiek fundazio filantropiko handiekin elkarbizitzen dutelako. Izan ere, nahiz eta fundazio filantropiko handi horiek enpresa kapitalista batengatik finantzatuta egon daitezkeen, fundazioa bera mozkinen besteko sektorearen parte izango da mozkinak banatu ezin dituelako. Aldi berean, antolakunde demokratikoak edo pertsonentzako zerbitzuak lehenesten duten antolakundeak egongo dira, baina horietako irizpiderik betetzen ez dituztenak ere egon daitezke, esan bezala, mozkinak banatu ezin badituzte.

Ez dugu honekin aniztasuna zalantzan jarri nahi, baina definizio operatiboaren gabeziak eta kontraesanak erakusten ditu. Izan ere, paradoxikoa izan daitekeen arren, mozkinen besteko antolakundeetan, mozkinen banaezintasuna printzipio baztertzailea den arren, ez dago praktikan mozkinak maximizatzea bilatzen duten estrategiak debekatzen duen printzipio normatiborik azaltzen (Borzaga eta Defourny, 2001).

3.3 Hirugarren sektorearen ikuspegi frankofonoa: Ekonomia Soziala

Ekonomia sozialaren inguruko lan teorikoa Europa kontinentalean gauzatu da nagusiki; bere oinarria, lehenago esan dugun moduan, literatura frantsesean dagoelarik. Terminoari dagokionez, ekonomia soziala erabili zuen lehenengo autorea, Charles Dunoyer izan zen; 1830ean argitaratutako *Nouveau traité d'économie sociale* liburuan.

Ondoren, Auguste Ott, eta batez ere, Frédéric Le Play frantziar autoreek lagundu zuten ekonomia sozialaren terminoa nazioarteratzen (Moulaert eta Ailenei, 2005).

Bestetik, John Stuart Mill edo Leon Walras bezalako autoreek ere laster ekin zioten ekonomia sozialaren inguruko ikerketak burutzeari. Euren ustez, batetik, ekonomia sozialaren inguruko antolakundeak eraikitzen ari zen jendarte kapitalista berriak sortzen zituen arazo sozialei erantzun moduan egituratutako berrikuntzak bezala ikusten zituzten; eta bestetik, batez ere Walras, justizia soziala lortzeko ekonomiaren jakintza arloetako bat bezala ere kontsideratzen zuen (Moulaert eta Ailenei, 2005; Pérez de Mendiguren et. al., 2009). Izan ere, azken honen iritziz, analisi ekonomikoak hiru maila ditu: Lehena ekonomia politikoa, aberastasunaren sorkuntzaz arduratzen da. Bigarrena, ekonomia aplikatua, baliabideen analisi ekonomikoa egiteaz arduratzen da, lege naturalei lotuta. Eta azkenik, ekonomia soziala, aberastasunaren banaketaz eta justizia soziala lortzeaz arduratzen da (Bidet, 1997).

Esan dezakegu, ekonomia soziala ikertu duten autoreen ikuspegia aldatuz joan dela historian zehar. XIX. mendean ikuspegi makroekonomiko bati jarraitzen baldin bazuten, eta, ekonomia soziala ekonomia politikoaren adar bat bezala kontsideratzen baldin bazen; XX. mendean, ikuspegi aldaketa bat ematen da, eta pribatua edo publikoa ez den bestelako sektore baten inguruan teorizatuko da. Ikuspegi sektorial honetatik, hirugarren sektore honetan diharduten antolakundeek beste sektoreetan kokatzen direnekiko ezberdintasunetan jarriko da arreta; eta sektorea mugatu eta arautuko duen corpora sortzen joango da (Etxezarreta eta Pérez de Mendiguren, 2018).

Lehenengo kapituluan zehar ikusi dugunez, II Mundu Gerra osteko Europan, oro har, sektore publikoaren eta enpresa fordista handiaren artean banatzen zen ekonomia. 70eko hamarkadara arte izandako oparotasun ekonomikoak ez zuen lekurik uzten bestelako enpresa-egiturentzako. Hala ere, fordismoaren gainbeherarekin, eta globalizazio neoliberalaren eraginez ongizate estatuek hornitzen zituzten zerbitzu publiko eta babes sozialerako sistemak desegiten joan zirenean, Europako herrialde batzuetan ekonomia sozialaren aldeko interesa berpiztu zen. Ekonomia soziala, bere garaian egin zuen bezala, arazo sozial berriei erantzuteko alternatiba bezala agertu zen. Eta neoliberalismoaren eraginez sortutako iraupen luzeko desenpleguaz, jendarte-bazterketaz, osasuna eta hezkuntza sistemen egoeraz, landa eremuetako ongizateaz, garapen jasangarriaz eta abarrez kezkatuta, ekonomia sozialaren aldeko jarrera eman zen (Monzón eta Chaves, 2012).

XX. mendeko azken herenean beraz, lehen aipatutako elkartegintzaren eztanda Europara heldu zen ere. Hala ere, hemen ez zitzaion gaiari ikuspegi neoklasiko batetik heldu, soziologiatik eta zientzia politikoaren ikuspuntutik heldu baitzitzaion. Hortaz, hirugarren sektorearen inguruko ikerketa Europarrek ez zuten hau merkatuaren edo estatuaren akatsak zuzentzera bideratutako sektorea bezala ikusten; baizik eta ongizate estatuaren eraikuntzan, estatuaren zereginetan laguntzaile edo ordezkatzailerak bezala. Hots, hirugarren sektorearen aldeko hautaketa azaltzeko, individualismo metodologikoan eta hautaketa arrazionalen oinarritutako teoria ekonomiko neoklasikoak alboratzen ziren, eta, ko-ekoizpena, jendarte inklusiboak, subsidiarotasuna eta lankidetzaren publiko-pribatua bezalako terminologia erabiltzen hasi zen (Evers eta Laville, 2004). Ikusten dugun moduan, mundu anglosaxoitik zetozen irakurketa neoklasikoek ekonomizistegiak ziren, hautu arrazionalen oinarrituta zeudelarik, eta beraz, ez zuten, Europatik egiten zen bezala, diziplina soziopolitikoekin osatzen analisia. Eta ondorioz, ez zituzten, batetik, ekonomia sozialaren baitan dauden eragileen eginkizun soziopolitikoak kontutan hartzen, eta bestetik, herrialde bakoitzaren errealitateak dituen berezitasunak (Etxezarreta, 2012).

Ezberdintasun teoriko eta metodologiko hauek praktikan islatzen ziren ere. Adibidez, European kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak izango dira garapen gehiena izango dutenak; karitatezko eta izaera filantropikoa duten fundazio eta elkarte anglosaxoien aurrean. Gainera, Europako hirugarren sektoreko antolakundeek, euren jardura ekonomikoari loturiko mozkinak izaten ohi zituzten, eta hauek euren bazkideen artean banatzen ziren modu demokratikoan (Evers eta Laville, 2004). Ageriko ezberdintasun hauengatik, European ekonomia sozialaren terminoa hobetsi zen.

Ekonomia sozialaren inguruko ekoizpen akademikoa mozkinak besteko sektorearena baino bilakaera luzeagoa dauka; eta, ikusiko dugun moduan, bere historian zehar egin diren mugapen kontzeptual ezberdinak ez dira kanpotik etorritakoak izan, baizik eta sektorea osatzen duten entitateak biltzen eta ordezkatzeko dituzten antolakundeak egindakoak izan dira. Hots, sektorea osatzen duten antolakundeak euren definizioa bilatzen joan dira historian zehar (Monzón, 2006; Pérez de Mendiguren et al., 2009).

1980. urtean, Frantzia, ekonomia soziala osatzen zuten hiru familiek, *Comité national de liaison des activités coopératives, mutuelles et associatives*-ean bilduta, ekonomia sozialaren gutuna edo *Charte de l'économie sociale* aurkeztu zuten (Monzón,

2006; Pérez de Mendiguren, et. al., 2009). Bertan, sektore publikoaren parte ez diren entitateen multzo bati egiten diote erreferentzia. Entitate hauek, batetik, funtzionamendu eta kudeaketa demokratikoa izanik, eta bestetik, bazkideen eskubide eta betebeharretan berdintasuna emanik, jabego eta mozkinen banaketaren gaineko erregimen berezia daukate, hauek egotekotan entitatearen hazkundera eta bazkideen eta jendartearen zerbitzuak hobetzera bideratzen dituztelako (Monzón, 2006). Modu honetan beraz, ekonomia sozialeko entitateek euren burua definitu zuten.

1990an, Belgikako *Conseil Wallon de l'Économie sociale*-an, ekonomia soziala, lau ezaugarri partekatzen dituzten entitate pribatuen multzoa bezala definitu zen. Lau ezaugarri hauek, mozkinak bilatu baino lehen entitateek euren bazkideei eta komunitateari zerbitzuak eskaintzea helburu daukatela, kudeaketarako autonomia dutela, erabaki-hartze prozesuak demokratikoak direla eta pertsonak eta lana kapitalaren gainetik daudela errentak banatzerakoan (Defourny eta Develtere, 1999; Chaves eta Monzón, 2001).

Dena den, ekonomia soziala osatzen duten antolakundeek euren burua definitzeko egin duten azkenengo ahalegina 2002an egin zen. *Europako Kooperatiba, Mutualitate, Elkarte eta Fundazioen Konferentzia Iraunkorra*-k ekonomia sozialaren printzipioen gutuna bultzatu zuenean. Gutun honetan, ekonomia sozialaren sektorea kontzeptualki mugatzeko hurrengo zazpi printzipioak proposatu ziren (Chaves eta Monzón, 2001; Monzón, 2006; Pérez de Mendiguren, et. al., 2009...):

1. Pertsonen eta helburu sozialaren lehentasuna kapitalaren gainetik
2. Borondatezko atxikimendu irekia
3. Bazkideen kontrol demokratikoa (fundazioak izan ezik, bazkideak ez dituztelako)
4. Bazkideen interesen eta interes orokorraren bategitea
5. Elkartasun eta erantzukizun printzipioen defentsa eta aplikazioa
6. Kudeaketarako autonomia eta botere publikoekiko independentzia
7. Mozkinen gehiengoa garapen iraunkorraren, bazkideen interesen eta interes orokorraren aldeko helburuetara bideratzea

Ikusi dezakegunez, *Charte de l'économie sociale*-k, *Conseil Wallon de l'Économie sociale*-k eta ekonomia sozialaren printzipioen gutunak antzeko irizpideak erabiltzen dituzte ekonomia soziala definitzeko. Hala ere, garrantzitsua da hemen esatea, ekonomia sozialaren printzipioen gutunak fundazioak barneratzen dituela; eta hauek

bazkideak ez dituztenez, ekonomia sozialaren jatorrizko familiek jorratzen duten printzipio demokratikoarekiko ñabardura bat suposatzen duela (Monzón, 2006).

Geroz eta ageriagoa zen errealitate honen aurrean, ekonomia sozialaren definizio zientifiko-akademiko bat emateko, eta hau herrialde guztietan homologatua izateko, hainbat ahalegin egin dira. Batez ere, 70eko hamarkadaren erdialdetik, eta are gehiago 80ko hamarkadatik aurrera. Zentzu honetan, Monzónek (2006) gutxienez hiru urrats garrantzitsu antzematen ditu: Lehen, CIRIECen barnean 10 herrialdeetako 20 ikertzaileek 1987 eta 1991 artean aurrera eramandako ikerketa litzateke. Ikerketa honetatik, printzipio kooperatiboetan eta kontabilitate nazionalaren metodologian oinarritutako lehenengo definizio bat proposatu zen. Bertan, ekonomia sozialaren bi azpisektoreak banatzen zirelarik (Barea, 1990):

- Merkatuko azpisektorea: Merkatuan jarduten duten, kudeaketa demokratikoa duten eta mozkinen banaketa kapital ekarpenei lotuta ez daukaten enpresak lirateke.
- Ez-merkatuko azpisektorea: Mozkinez besteko antolakunde pribatuez osatuta legoke. Hauek ez dituzte eurek ekoiztutako produktu edo zerbitzuak salmentara bideratzen, baizik eta etxeetarako zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Definizio honetatik abiatuta, Benedetto Gui-k (1991) ekonomia soziala antolakunde eta eragile anitzez osatua egon arren, bi kategoria zentral antzematen ditu: nagusigoa eta onuradunak. Lehenek, antolakundean erabakiak hartzeko boterea daukate. Eta bigarrenek, antolakundearen jardueraren onuradunak dira. Eta sailkapen honetatik abiatuta ere, bi antolakunde mota bereizten ditu. Lehen, “interes orokorreko” antolakundea litzateke, eta bertan, nagusigoa eta onuradunak ez lirateke pertsona multzo berdina. Bigarren mota aldiz, “interes mutualekoa” litzateke. Honetan, jardueraren onuradunak, jarduera bera kontrolatzen dutenak lirateke. Modu honetan, ekonomia sozialeko antolakundeak batzen dituen irizpide bat legoke. Onuradunen kategoria ezin da inoiz inbertitzaile kapitalistaz osatuta egon. Izan ere, interes mutualeko antolakundeetan, talde onuraduna, aldi berean, antolakundearen zerbitzuak erabiltzeko bazkideak egin direnak direlako, eta interes orokorreko antolakundeetan, talde onuraduna antolakundearen erabiltzaileak izango direlako.

Ekonomia sozialaren definizio homologatua lortzeko Monzonek (2006) antzematen duen bigarren urratsa, Barea eta Monzónek (2006) argitaratutako Ekonomia Sozialeko enpresen Kontu Sateliteen Gidaliburu Europarra litzateke. Izan ere, ordura

arte, herrialde ezberdinetako jarduera ekonomikoaren inguruko informazio konparagarria lortzeko, kontabilitate sistema nazionalak³⁵ eskaintzen duten bateragarritasun terminologiko eta kontzeptuala beharrezkoa zen. Hauek, herrialde ezberdinen jarduera ekonomikoa kontabilizatzeko arau bateragarriak eskaintzen duten heinean. Horretarako, herrialde batean jarduera produktiboren bat aurrera eramaten duten antolakunde edo enpresa bakoitzak hurrengo bost irizpideen arabera sailkatzen da:

- Enpresa ez finantzarioak (S11)
- Enpresa finantzarioak (S12)
- Administrazio publikoa (S13)
- Etxeak; kontsumitzaile edo enpresari gisa (S14)
- Etxeen zerbitzura jarduten duten mozkin asmorik gabeko entitateak (S15)

Modu honetan, esan dugun moduan, edozein herrialdeetan jarduera ekonomikoa aurrera eramaten duen edozein antolakunde edo enpresa sailkatu dezakegu. Alabaina, sailkapen honek ez du ekonomia sozialeko entitateak modu bereizi batean sailkatzen, eta beraz, errealitate hau osatzen duten enpresek bost multzo hauetan zehar sakabanatuta daude. Ondorioz, ekonomia sozialaren analisi bakartua egiteko zailtasun metodologikoak aurkitzen ziren (Monzón eta Chaves, 2012).

Hortaz, Barea eta Monzónnek (2006) argitaratutako lana, Europako Batzordeak eskatutako ikerketa batean kokatzen dena, ekonomia sozialaren estatistikak eta kontu sateliteak lantzeko beharrezko lanabesa bat bihurtzen da. Hala ere, ikerketa hau, merkatuko azpisektorean zentratzen da bakarrik. Hots, kooperatibak, mutualitateak eta antzeko enpresek osatzen dutena. Bildutako datuak, Europako Kontu Nazional eta Erregionalen Sistema-ren (SEC-1995) irizpide metodologikoak jarraitzen zuten, esan dugun moduan, Europako ekonomia sozialeko datu homologatu, zehatzak eta fidagarriak eskuratzeko. Lan honetan, hurrengo definizioa proposatu zen (Barea eta Monzón, 2006:38):

“Conjunto de empresas privadas organizadas formalmente, con autonomía de decisión y libertad de adhesión, creadas para satisfacer las

³⁵ Kontabilitate Sistema Nazionala (SCN-1993) munduko herrialde guztientzako; eta, Europako Kontu Nazionalen eta Erregionalen Sistema (SEC-1995) Europako herrialdeentzako.

necesidades de sus socios a través del mercado, produciendo bienes y servicios, asegurando o financiando y en las que la eventual distribución entre los socios de beneficios o excedentes así como la toma de decisiones, no están ligados directamente con el capital o cotizaciones aportados por cada socio, correspondiendo un voto a cada uno de ellos”

Definizio honek, ekonomia sozialeko enpresek eta antolakundeek partekatzen dituzten ezaugarriak argitzeaz gain, hauek berariazkoak dituzten ezaugarriak islatzea ere lortzen du. Hots, soilik ekonomia sozialeko antolakunde eta enpresetan aurkitu ditzakegunak (Monzón, 2006).

Honek, Guik (1991) esaten zuenarekin lotura handia dauka. Izan ere, ekonomia sozialeko enpresek, bestelako enpresa guztiek bezala, euren ekoizpen prozesu eraginkorrek behar dituzte, horietatik balioa sortzeko. Eta beraz, gainbegiratu batean ez litzateke hemen desberdintasun handirik antzemango. Baina, enpresen helburu-funtzioan bai aurkituko genukeela ezberdintasun garrantzitsu bat. Edozein enpresako helburu-funtzioa, enpresa horren nagusigoa eta talde onuraduna erabakitzen du. Eta enpresa kapitalistetan nagusigoa eta talde onuraduna inbertitzaile kapitalistaz osatuta dauden bitartean ekonomia sozialeko enpresetan ez da hori gertatzen. Inbertitzaile kapitalistarentzat, enpresa batek balioa sortzen du bere inbertsioetatik lortzen duen plusbalioak errentagarritasun handiena duen heinean. Aldiz, ekonomia sozialeko enpresetan, talde onuraduna ez dago inbertitzaile kapitalistaz osatuta eta izaera asko izan dezakete. Langileak, ondasun eta zerbitzuen kontsumitzaileak, ekoizle txikiak etab. izan daitezkeelako. Eta beraz, balioaren sorkuntza ez dago inbertitzaile kapitalisten plusbalioaren lorpenaren menpe. Kasu honetan, ekonomia sozialeko enpresek sortzen duten balioa bazkideen, etxeen, familien edo komunitateen beharrak merkatuaren bidetik asetzetik lortzen da (Monzón, 2006).

Ekonomia sozialaren definizio homologatua lortzeko hirugarren urrats nagusia, Monzón eta Chavesek (2012) Europako Batzorde Ekonomiko eta Soziala-ren aginduz egindako txostenean aurkitu dezakegu. Txosten honetan ematen den definizioan, ekonomia sozialaren ez-merkatuko jarduerak barneratzen dira merkatuko jarduerekin batera. Eta beraz, aurretik eman dugun definizioari hurrengo gehitu behar zaio Monzón eta Chavesek (2012:23):

“(…) La economía social también agrupa a aquellas organizaciones privadas organizadas formalmente con autonomía de

decisión y libertad de adhesión que producen servicios no de mercado a favor de las familias, cuyos excedentes, si los hubiera, no pueden apropiarse los agentes económicos que los crean, los controlan o los financian.”

Pérez de Mendiguren et. al.-ek (2009:10)³⁶ definizio osoa euskaraz ematen dute:

“Enpresa pribatuen multzoa da, era formalean daude eratuta, erabakitzeko autonomia eta atxikitze askatasuna dute eta bertako bazkideen premiei merkatuaren bitartez erantzuteko sortu dira. Horretarako, ondasunak nahiz zerbitzuak ekoizten dituzte eta aseguru edo finantzatu egiten dute. Bertan, gainera, bazkideen artean egindako mozkin edo soberakinen behin-behineko banaketak eta erabakiek ez dute lotura zuzenik boto bana duten bazkideen kotizazioekin edo kapitalarekin. Ekonomia sozialean bertan, erabakitzeko autonomia eta atxikitze askatasunaz modu formalean sortutako eta familien aldeko ez-merkatuko zerbitzuak ekoizten dituzten erakunde pribatuak ere badaude, eta erakundeok sortu, kontrolatu edo finantzatzen dituzten eragileak ezin dira euren soberakinez jabetu, egon baleude.”

Definizio honetan bat egiten duten ekonomia sozialaren bi azpisektoreak —merkatukoa eta ez-merkatukoa— osatzen dituzten entitateek zazpi ezaugarri komun partekatzen dituzte beraz. Honakoak dira (Monzón eta Chaves, 2012):

- Pribatuak dira, hau da, ez dira sektore publikoaren parte eta ez daude horren kontrolpean
- Modu formalean egituratuta daude, hau da, izaera juridikoa daukate
- Erabakitzeko autonomia osoa dute, eta beraz, euren gobernu organoak aukeratzeko eta kargugabetzeko, eta, euren jarduera kontrolatzeko eta antolatze ahalmena daukate
- Atxikipen librea daukate, hau da, ez da derrigorrezkoa hauetara afiliatzea
- Mozkinen banaketa baldin badago, hau ez da kapital-ekarpenaren arabera egiten, baizik eta bazkideek antolakundean bete dituzten eginkizunen arabera.

³⁶Artikuluaren bertsioa euskaraz hemen:

https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/reaslibrary/attachments/paperak_ES_1_ReasEuskadi.pdf

- Jarduera ekonomikoa aurrera eramaten dute pertsonen, etxeen edo familien beharrak asetzeko. Horregatik esaten da ekonomia sozialeko enpresa eta antolakundeak pertsonen entitateak direla, eta ez kapitalekoak. Kapitalarekin eta beste errekurtsioekin lan egiten dute, baina ez kapital gehiago metatzeko.
- Antolakunde demokratikoak dira. Etxeei zerbitzuak eskaintzen dizkieten ez-merkatuko antolakunde batzuk izan ezik, oro har, ekonomia sozialeko antolakunde guztiek “pertsona bat, bozka bat” printzipioa jarraitzen dute erabakiak hartzeko; egindako kapital-ekarpenarekiko independentziarekin. Erabaki hartze prozesuetan, prozesu demokratiko eta parte-hartzaileak aurrera eramaten dira. Bazkideek, antolakundea kontrolatzeko ahalmen gehiena edo guztia daukate.

Mozkinez besteko sektorea ikertzen duten autoreek, nagusiki ikuspegi ekonomiko neoklasikoa jarraitzen baldin badute, ekonomia sozialaren terminoa hirugarren sektorea izendatzeko proposatzen dutenek, nagusiki ikuspegi juridikoa erabiltzen dute gaur egun. Ikuspegi juridiko honetatik abiatuta, errazago egiten da ekonomia soziala mugatzea, enpresa eta antolakundeen izaera juridikoari begiratu behar zaiolako bakarrik. Hortaz, ekonomia sozialaren printzipioek osatzen duten mugapen normatiboari, ikuspegi juridiko hori gehitu beharko zaio (Etxezarreta eta Pérez de Mendiguren, 2018). Hurrengo taulan, Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiak³⁷ (OVES/GEEB) ekonomia soziala osatzen duten enpresa eta antolakundeak biltzen ditu, bere izaera juridikoaren arabera. Hauek, EAEko errealitatera eta estatu mailan onartutako ekonomia sozialaren 5/2011 Legea³⁸ egokituta daudelarik³⁹.

³⁷ OVES/GEEB: www.oves-geeb.eus

³⁸ 5/2011 Legea, martxoak 29koa, Gizarte Ekonomiari buruzkoa

³⁹ Izan ere, Monzón eta Chavesek (2012) emandako ekonomia sozialaren definizioan, herrialde bakoitzean izaera juridikoaren aldetik egon daitezkeen bereizitasunak sar daitezke.

3.3. TAULA: Ekonomia soziala osatzen duten antolakunde eta enpresak

Azpisektorea	Sektorea	Antolakunde / enpresaren izaera juridikoa
Enpresa azpisektorea edo merkatuko azpisektorea	Enpresa ez finantzarioak	- Kooperatibak - Lan-sozietateak - Enplegu-zentro bereziak - Laneratzeko enpresak - Arrantzale kofradiak - Nekazaritzako eraldakuntza baltzuak - Merkatuko beste ekoizle pribatuak (elkarreak, fundazioak eta sozietateak)
	Enpresa finantzarioak	- Kreditu kooperatibak - Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak - Gizarte-ekonomiako enpresen elkarrekiko berme-sozietateak
Merkatukoak ez diren ekoizleen azpisektorea		- Gizarte-ekintzako elkarreak - Gizarte-ekintzako fundazioak - Etxeen zerbitzura dauden beste irabazi-asmorik gabeko erakunde batzuk

Iturria: www.oves-geeb.eus

Ekonomia sozialaren 5/2011 Legeak Espainiako estatuan identifikatzen dituen figura juridikoak hurrengoak lirateke: Kooperatibak, mutualitateak, jarduera ekonomikoa duten elkarte eta fundazioak, lan-sozietateak, laneratzeko enpresak, enplegu zentro bereziak, arrantzaleen kofradiak, nekazaritzako eraldaketa baltzuak eta erakunde singularrak⁴⁰. Lege honen bitartez, errealitate honentzako marko juridiko bat eskaintzeaz gain, sektorearen mugak modu argi batean ezartzen ditu; antolakundeak bere izaera juridikoaren arabera barneratzen dituenaz, argi uzten du zer den eta zer ez den ekonomia soziala. Lege honen garapenera heltzeko, batez ere CIRIECen partez egindako lan teoriko eta akademikoa aipatu beharra dago. Izan ere, legean antzematen dira, aurretiaz garatutako ikuspegi eta eztabaida teorikoak. Eta 90eko hamarkadatik administrazio publikoaren partez ekonomia sozialari aitortza emateko ekimen ezberdinak egon diren arren —batez ere kooperatiben eta lan-sozietateen kasuan—, lege honekin, ekonomia soziala osatzen duten entitate guztientzako marko juridikoa eraiki da (Etxezarreta eta Morandeira, 2012).

Garrantzitsua da esatea, dena den, lege honen bitartez ez dela sektorea bera erregulatu nahi. Ildo honetan ekonomia soziala osatzen duten entitate bakoitzak bere estatus propioa baitu. Eta beraz, kooperatibak, lan-sozietateak, mutualitateak, elkarreak

⁴⁰ Legeak Organización Nacional de Ciegos Españoles (ONCE) barneratzen du ekonomia sozial gisa eta erakunde singularraren kategoria ematen dio.

etab. euren jarduera arautzen duten lege propioak dituzte. Ekonomia sozialaren legea, sektorea mugatu eta sistema ekonomikoaren baitan duen protagonismoa aitortzeko baliagarria da. Gainera, esan dugun moduan, ikuspegi batzuetatik egin den ekonomia sozialaren kontzeptualizazio estuaren aurrean non soilik kooperatibak eta lan-sozietateak barneratzen ziren, beste entitate mota batzuk barneratu ditu legeak (Fajardo, 2009; Etxezarreta eta Morandeira, 2012).

Argi dago beraz, legearen eta, oro har, ekonomia sozialaren inguruan egindako ekarpenen garrantzia sektorea mugatzeko eta ikusgarritasuna emateko. Lavillek (2015) esaten duen moduan, ekonomia sozialaren ikuspegia Europako errealitateari mozkin bezeko ikuspegia baino hobeto egokitu da. Horrez gain, errealitate anitza osatzen du, non jabego kolektiboa eta barne demokrazia elementu zentralak diren.

Hala ere —jarraitzen du Lavillek—, ekonomia sozialaren analisirako nagusiki erabilitako ikuspegi juridikoak bere ahulguneak erakusten ditu. Alde batetik, ekonomia sozialari teorikoki suposatzen zaionaren eta bere praktiken arteko tartea geroz eta handiagoa da hainbat alderdietan. Adibidez, enpresa ikuspegia gailendu dela elkartegintzarenari, eta horrenbestez, entitateak kontrolatzeko teknoegituren ezarpena, parte-hartze arazoak edo deskooperatibizatze eta desmutualizatze prozesuak agerikoak izan dira nazioarteko ekonomia sozialean. Eta beste aldetik, ekonomia sozialaren dimentsio politikoa ere diluituta ikusten da, antolakundetako barne egituraketan zein kanpo ingurunearekiko harremanetan ahulgune garrantzitsuak adieraziz. Izan ere, jabegoaren, demokraziaren, parte-hartzearen, berdintasunaren eta abarren aldetik, eskubide formalak dauden —ikuspegi juridikoan jasotzen dira— arren, ez daude, edo oso ahulak dira, praktikan hauek beteko direla ziurtatuko duten mekanismo edo kontrol neurriak (Etxezarreta eta Pérez de Mendiguren, 2018). Gainera, analisirako ikuspegi juridiko horrek, behar berriei erantzuna emateko molde hauetatik at sortzen diren esperientzia berritzaileak barneratzeko orduan zailtasunak aurkitu ditzake (Pérez de Mendiguren et. al., 2009).

3.3.1 Ekonomia sozialaren antolakundeetako barne jokabideei begirakoak:

Mozkin asmorik gabeko sektorearen ikuspegitik irizpide baztertzailerik ez diren banezintasuna baldin bazen, ekonomia sozialaren ikuspegitik jabego kolektiboa eta kudeaketa demokratikoa liraterik. Gainera, antolakunde hauek mozkinen banaketa mugatua daukate, eta, beharrezkoa dute ere, ekonomia sozialaren parte izateko, jarduera ekonomikoa aurrera eramatea. Atal honetan, ekonomia sozialak elementu hauen gainean

duen tratamenduari begiratuko diogu, eta, dagoeneko aipatu dugun moduan, ekonomia sozialaren teoria eta praktikaren arteko “desakople” (Heras, 2014) prozesuak nola eragiten dien aztertuko dugu.

Jabego kolektiboari dagokionez, elkartegintzaren tradiziotik eta ondoren XVIII eta XIX. mendeetako kooperatiben eta mutualitateen tradiziotik garatutako errealitatea da gaur egungo ekonomia soziala. Aurreko hauek guztiak, lehenago esan dugunez, batez ere garaiko langileen baldintzak hobetzeko sortzen ziren ekimen kolektiboak ziren. Egun, ekonomia sozialeko antolakundeen izaerak ugaritu egin izan diren arren, logika kolektibo hura izaten jarraitzen dute. Horrenbestez, bazkideak dira antolakunde hauen jabegoa dutenek, eta ez dago, enpresa kapitalistetan bezala, inbertitzaile kapitalistarik. Hau, argi ikusten da aipatutako ikuspegi juridikoan, zeinean soilik jabego kolektiboa duten antolakundeak barneratzen diren ekonomia sozial gisa (salbuespen konkretu batzuekin 2002an ekonomia sozialaren printzipioen gutuna idatzi zenetik; adibidez, fundazioen kasuan. Hala ere fundazioen kasuan, jabegorik ez dagoenez, ez dago inbertitzaile kapitalistarik).

Kapital-ekarpenak bazkideek modu kolektiboan egiten dituzten heinean, eta plusbaliorik lortzen duen inbertitzaile kapitalistarik ez dagoen heinean, kapitala eta lanaren arteko gatazka apurtzen da; langileak ekoizpen baliabideen jabeak direlako (Schmidt eta Perius, 2004). Hala ere, hau soilik gertatzen da bazkideen kasuan, soldatapeko langileak, bestelako enpresa kapitalistetan bezala, ez direlako ekoizpen baliabideen jabeak eta ez dute erabakietan parte-hartzen. Eta, adibidez, EA Eren kasurako, kooperatibetan lan egiten dutenen artean, soilik %60a inguru da bazkide kooperatibista (Soto eta Morandeira, 2017). Hortaz, aipatutako desakoplearen lehenengo aztarna aurkitu dezakegu hemen.

Jabego kolektiboarekin lotura zuzena duen hurrengo puntua, antolakundeen kudeaketa demokratikoa litzake. Kasu honetan, influentzia handia daukate printzipio kooperatiboek. Parte-hartze demokratikoa oinarrian duten antolakundeak dira, “pertsonek bat, bozka bat” printzipioa jarraitzen dutelarik. Horrela, bazkideek antolakundetan parte-hartzen dute hauek jarraituko dituzten erabakiak hartzeko orduan. Kooperatiben kasu konkretuan, Chavesek (2004) antzematen dituen bost ezaugarri betetzen dira:

- Bazkideek demokratikoki kudeatzen eta erabakitzen dute, batzar orokorrean.
- Batzar orokorrean eta ordezkarien hautaketan parte hartzen dute.

- Errektore-kontseiluan barneratzen diren ordezkatzailleak, ordezkatu eta kudeatzen dute.
- Ordezkatzailleak, bazkideen aurrean erantzun behar dute.
- Kooperatiba handietan, zuzendariak, administratzaileak edo soldatapeko bestelako pertsonala egon daiteke bazkideen erabakiak betetzeko, eta funtzionamendu ekonomiko egokia izan dezaten

Hala ere, kudeaketa demokratikoaren inguruan, ageriko argiez gain, ilunak ere aurkitu ditzakegu. Herasek (2014), Arrasateko talde kooperatiboaren inguruan egindako ikerketan, antolakundearen kudeaketan gabeziak antzematen ditu barne demokraziari dagokionez. Izan ere, nahiz eta demokrazia formala existitzen den, autore honen ikerketaren arabera, erabaki garrantzitsuenak organo gorenetan hartzen dira soilik, oinarrian dauden langileak kontuan hartu gabe.

Mozkinen aferari dagokionez, ekonomia soziala osatzen duten figura juridikoei begiratu beharko diegu. Baina, oro har, esan genezake mozkinen banaketa mugatua edo debekatua dutela. Adibidez, kooperatibek izan dezaketen mozkinak ez dituzte bazkideak egindako kapital-ekarpenaren arabera banatzen, baizik eta, bazkideek antolakundean bete dituzten eginkizunen arabera izango da (Laville eta García-Jané, 2009; Monzón eta Chaves, 2012). Elkarteen kasurako aldiz ezin dira mozkinak banatu. Gainera, ekonomia sozialaren lehenengo printzipioari jarraika, ekonomia sozialeko enpresa eta antolakundeak pertsonen entitateak dira, eta ez kapitalean oinarritutakoak⁴¹. Kapitalarekin eta beste errekurtsuekin lan egiten dute, baina ez kapital gehiago metatzeko helburuarekin. Horregatik aipatu dugu mozkinen besteko ikuspegia landu dugunean, ekonomia sozialak mozkin asmorik gabeko ikuspegiarekin bat egiten duela. Helburua ez delako mozkinak lortzea, baizik eta kapitala —eta beste baliabideak— erabilia, bazkideen, komunitatearen, etxeen edo familien beharrak asetzea; nahiz eta mozkinak lortzen direnean, hauek banatu daitezkeen.

⁴¹ Salbuespen bakarrarekin: Lan-sozietateak. Lan-sozietateak, Espainiar estatuan existitzen den enpresak dira. Baltzu anonimo edo mugatuen ezaugarriak partekatzen dituzte, baina bi ñabardura garrantzitsuekin: Batetik, langileek kapital sozialaren %51 izan behar dute gutxienez. Eta bestetik, bazkide langile bakoitzak ezin du kapital sozialaren 1/3 baino gehiago izan. Modu honetan, kapitalaren gehiengoa, eta beraz, enpresaren jabegoa, langileek izatea bermatzen da. Gainera, bazkideak ez diren langileen kopurua mugatuta daukate.

Ildo honetan ere, ekonomia sozialaren printzipioen eta praktiken inguruko urruntzea somatu dezakegu. Izan ere, formalki ezaugarri hauek betetzen jarraitzen diren bitartean, ekonomia sozialeko enpresa askok bestelako enpresa pribatu-kapitalisten jokabideak jarraitu dituzte. Horien artean, hazkunde etengabea bilatzeko helburua; hots, kapitala metatzeko helburua.

Azkenik, esan dugun moduan, antolakunde bat ekonomia sozialaren parte bezala kontsideratua izateko, jarduera ekonomiko bat burutu behar du. Kooperatiben edo mutualitateen kasuan dudarik ez badago, elkarteen kasuan, soilik produktu edo zerbitzuak ekoizten dutenak barneratuko lirake ekonomia sozialean. Hauek, lehen egindako sailkapenaren arabera, jendarte-ekimenekoak direlarik (Laville eta García-Jané, 2009).

3.3.2 Ekonomia sozialaren antolakundeetako kanpo jokabideei begirakoak:

Ekonomia soziala osatzen duten antolakundeak euren ingurunearekiko jokabide onuragarria suposatzen zaie, batez ere, ekonomia sozialaren gutunaren edo kooperatiben zazpigarren printzipioan arreta jartzen badugu. Are gehiago, ekonomia sozialaren legean, 4. artikuluan ekonomia sozialaren printzipio orientatzaileak azaltzen direnean, hirugarrenak honakoa dio:

“Tokiko garapenarekiko, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunarekiko, kohesio sozialarekiko, jendarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen jendarteratzearekiko, enplegu egonkorrarekiko, bizitza pertsonala, familiarra eta laborala bateratzearekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoa erraztuko duen barne eta jendartearekiko elkartasunaren promozioa” (5/2011 Legearen 4.c artikulua. Itzulpen propioa).

Kooperatibei espresuki begiratzen badiegu, kooperatiben legearen arabera⁴², aurreko ekitaldietako galerak behin estalita eta sozietateen gaineko zerga baino lehen, gutxienez, mozkinen %20a derrigorrezko erreserbetara bideratuko da, eta %10a hezkuntza, formakuntza eta promozio funtsera⁴³. Chaves eta Soler (2005) dioten

⁴² EAEko kooperatiben legea: 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatiben Legea.

⁴³ Jarduera extrakooperatiboetatik lortutako mozkinen %50a derrigorrezko erreserbetara bideratu beharra dago

moduan, azkenengo funtsa honek, bazkideen artean banaezina dena, hiru zentzutan banatu daiteke. Batetik, kooperatiben bazkideen, ordezkarien, zuzendarien eta soldatapeko langileen formakuntza eta hezkuntzara bideratu daiteke. Honen helburua, kooperatiben funtzionamendu egokirako formakuntza eta balio kooperatiboan zabalkuntza lirateke. Bigarren zentzu batean, kooperatibismoa sustatzeko eta kooperatiben arteko erlazioak promozionatzeko bideratu ohi da. Kasu honetan, merkatuetara hobeto egokitzeko, kooperatiben arteko egitura federalak edo konfederalak sortu izan dira. Azkenik, eta kooperatiben ingurunearekin harreman gehiena duena, promozio kulturala eta profesionala sustatzeko, tokiko biztanleriaren bizi maila hobetzeko, garapen komunitarioa sustatzeko edo ingurumenaren aldeko ekimenetara erabili izan dira baliabide hauek.

10. KOADROA: Laboral Kutxak hezkuntza, formakuntza eta promozio funtsaren bitartez finantzatutako ekimenak

Laboral Kutxa 2012an sortutako kreditu kooperatiba da. Aurretik existitzen ziren beste bi kreditu kooperatiben (Caja Laboral/Euskadiko Kutxa eta Ipar Kutxa) fusioaren ondorioz sortu zena. Arrasateko talde kooperatiboaren parte da, eta Euskal Herriko kreditu kooperatiba handiena ere bada.

Laboral kutxak bere jarduera ekonomikotik lortzen dituen mozkinak modu honetan banatzen ditu: %50a erreserbetara, %25a itzulkin kooperatibora, %15a funtsa sozial interkooperatibora eta %10a hezkuntza, formakuntza eta promozio funtsara. Azken honen zati handi bat (%43) MONDRAGON CORPORACION-eko hezkuntza, formakuntza eta promozio funtsara bidaltzen duen arren, Laboral Kutxak jendarte ekimen ezberdinetara bideratzen du gainerakoa. Ekimen hauen artean, 2007an hasitako EMEKIN programa dago, zein negozio ideia bat duten emakumeei zuzendutako programa bat den. Laguntza integrala ematen diete negozio ideia hori garatu dezaten eta Gipuzkoako lurralde historikoan enplegua sortzea helburua dauka, emakumeek sustatutako enpresa proiektuen bitartez. 2007an ere, landa eremuko garapena garatzeko sustatzeko konpromisoa hartu zuen. 2014an 17.000 dokumentuko dohaintza egin zion Mondragon Unibertsitateari. Ildo honetan, bereiziki azpimarragarriak dira euskara sustatzera bideratutako ekimenak. 2011n Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Urnietako udaletxeekin euskara sustatzeko hitzarmena sinatu zuen. 2015ean Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmen bat sinatu zuen hezkuntza eskubideak zaintzeko. Edo, 2016an Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean bilduta dauden 38 udalerriekin euskara sustatzeko ituna ere sinatu zuen.

Iturria: Laboral Kutxa (2016 eta 2017).

Ikusten da beraz, antolakunde hauek ekonomia sozialaren lehenengo printzipioa betetzeaz gain, non pertsonak eta helburu soziala erdigunean jartzen den, badute hauek kokatuta dauden lurraldeekiko edo komunitateekiko beste ardura batzuk. Hau da, jarduera ekonomiko nagusia pertsonak erdigunean jartzeaz gain, eta beraz, pertsonen, familiei, etxeei eta komunitatearen beharrak asetzerara bideratzeaz gain, badituzte mekanismoak jarduera horretatik lortu daitezkeen mozkinak antolakunde hauek kokatuta dauden lurralde edo komunitateari itzultzeko. Modu honetan, lan-kooperatibek eta -sozietateak enpleguaren inguruko beharrak asetzeaz gain; edo kreditu kooperatibek,

kredituaren inguruko beharrak asetzeaz gain; edo laneratze enpresak eta enplegu zentro bereziak sistema kapitalistak merkatutik baztertzen dituen pertsonak lanaren bitartez integratu eta kohesio sozial handiagoa lortzeaz gain, garapen komunitarioa sustatzeko mekanismoak dituzte.

Alabaina, hemen ere, argi hauek guztien artean, ilunak aurkitu ditzakegu. Beharrezkoa da hemen, ekonomia sozialaren baitan jarduten duten antolakunde askok —batez ere kooperatibak— jarraitu duten nazioarteratze prozesuak arretaz aztertzea.

Prozesu globalizatailearekin, kooperatibek nazioarteratze prozesuak hasi dituzte. Hala ere, horretarako, merkatu kapitalistari egokitu behar izan dira historikoki (Errasti et. al., 2002). Egokitze horretan, merkatu kapitalistaren logika eta praktikak onartzea eta aplikatzea ekarri du neurri batean. Eta beraz, merkatuan beraiekin lehiatzen duten bestelako enpresa kapitalisten edo estatu-enpresen logikan barneratzean prozesu isomorfoa jarraitu izan dute (Etxezarreta eta Pérez de Mendiguren, 2018). Logika horretan, kooperatibek hazteko beharra izan dute nazioartean lehiatzeko, eta horretarako, aldi berean, nazioarteratze prozesuak beharrezkoak izan dira neurri batean. Kooperatiba batek esportatzeko duen aukera, printzipioz ez du bestelako enpresa batek dituen arazoak baino gehiago erakusten. Kontua da, ekoizpena nazioarteratzen denean, orduan bai arazoak sortu daitezkeela.

Errasti et. al.,-ek (2002) kooperatiben nazioarteratze prozesuetan hiru arazo nagusi antzeman dituzte: Lurraldeari bideratutako jarduerak nagusi direla, tamainagatik eratorritako arazo finantzarioak eta barne antolakuntzan sortu daitezkeen arazoak. Lehenengo biek ez dira berariaz kooperatibei soilik eragiten dieten arazoak; nazioarteratze prozesu bat hasi nahi duen bestelako enpresa batek izan ditzakeen arazoak direlako. Baina hirugarrena, arazo eta dilema garrantzitsua sortu dezake kooperatibetan. Kapitalaren mugikortasunaren aurrean, pertsonak ez direlako hain mugikorak, eta beraz zailtasun handiagoa dauka kooperatiba transnazional bat sortzeak enpresa kapitalista transnazionala sortzea baino. Enpresa kapitalista batean, kapitalaren gehiengoa baldintzak ezartzen dituelako, baina kooperatiba batean, erabakiak demokratikoki hartu behar direlako. Beraz, erabaki beharko litzateke zein formula erabiltzen den: nazioarteko talde kooperatibo bat sortu edo kapitalezko filial bat sortu atzerrian (Errasti et. al., 2002).

Hau da, kooperatiba bat nazioartera zabaltzerakoan, langile berriak kooperatibizatu edo ez erabaki beharko da. Baiezko kasuan, erabakien zentroa mugitu

daiteke nazioarteko bazkideak gehiengoa badira. Ildo honetan, Normark-ek (1996) identifikatzen dituen arazoak sortu daitezke: Nola antolatzen da erabaki hartze prozesu demokratikoa herrialde ezberdinetako bazkideen artean? Nola zabaltzen da batasuna herrialde ezberdinetako bazkideak batzen duen antolakunde batean? Edo, nola banatzen dira mozkinak kasu hauetan? Gainera, herrialde ezberdinetako kooperatiben izaera eta legea ez dira beti konbergenteak, eta ildo horretako arazoak ere sortu daitezke. Aldiz, ezezko kasuan, kooperatiben legearen kontra joan daiteke, zeinean hurrengoa azaltzen den:

“Soldatapeko langileek egindako lan orduak ezin dira izan bazkide-langileak urtean egindako ordu guztien ehuneko 30 baino gehiago.”
(27/1999 Legearen 80.7 artikulua. Itzulpen propioa).

Ezezko kasu honetan, jatorrizko herrialdean kokatuta dagoen zentro kooperatiboak, nazioartean zehar zabaldua dauden filialak kontrolatzen ditu. Kasu honetan, antolakundearen kudeaketa demokratikoaren eta autogestioaren printzipioen kontra doan erabakia litzateke. Modu honetan ere, pertsonen lehentasuna galtzen dute kapitalaren aurrean. Izan ere, “pertsona bat, bozka bat” printzipioa baliogabetzeaz gain, filialetan kapitala da lana kontrolatzen duena, eta beraz, langileek ez dute kapitalaren gineko inolako kontrolirik (Errasti et. al., 2002).

3.4 Ekonomia Solidarioa:

XX. mendeko azken laurdenean, hegemonia lortzen ari zuen ideologia neoliberallean oinarritutako ekonomia kapitalistarekiko kritikoak ziren, eta ekonomiaren eta prozesu ekonomikoen papera beste modu batean ulertzen zuten ikuspegi teoriko, errealitate sozioekonomiko eta praktika enpresarialak areagotzen hasten dira. Hauek izendatzeko, ekonomia solidarioaren terminoa erabiltzen hasten da. Horrenbestez, lehenik esan behar da atal honetan aztertuko dugun fenomeno —ekonomia solidarioa, alegia— ikuspegi teoriko ezberdinez eta jatorri ezberdinetatik eratorritako praktika heterogeneo, anitz eta zabalez osatuta dagoela (Pérez de Mendiguren et. al., 2009). Eta beraz, nahiz eta ikuspegi guztiek ekonomiaren eta prozesu ekonomikoen papera beste modu batean ulertzen duten eta elementu teoriko eta estrategia analitiko asko partekatzen dituzten, badirela euren testuinguru historiko eta instituzionalengatik ekonomia solidarioaren terminoari kontzeptzio ezberdinak eman dizkietenak nazioartean.

Hala ere, hurbilketa gisa, esan genezake ekonomia solidarioak kapitalaren eta horren maximizatzearen logikaren aurrean eta bizitzaren merkantilizazioaren aurrean, prozesu ekonomikoaren fase ezberdinetan (ekoizpena, banaketa, kontsumoa eta finantzaketa) ematen diren harremanak justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkar-laguntzan oinarritzea duela helburua (Pérez de Mendiguren et. al., 2009). Ekonomia pertsona guztien ongizaterako lanabesa bat bezala ulertuta, eta ez helburu bezala.

Definizio bateratua edo nazioartean onartuta dagoen definizio bakarrik ez egon arren, autore ezberdinek terminoari dimentsio desberdinak aitortzen dizkiote (Guerra, 2010; Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015a). Gutxienez hiru dira: Lehena, teorikoa dena eta gaur egungo sistemaren kritikatik abiatuta, sistema alternatibo baterako oinarri epistemologiko berriak bilatu nahi dituen da. Bigarrena, politikoa dena, ekonomia solidarioa, harreman ekonomiko ez kapitalisten bitartez eraldaketa sozioekonomikorako lanabesa bezala ulertzen du. Azkenik, hirugarrena, demokrazian, auto-kudeaketan eta kolektibitatean oinarritutako enpresa egiteko ereduari erreferentzia egingo lioke. Dimentsio hauek, Guerrak (2010) dioen moduan, akademiak, herri-mugimenduek eta enpresek ekonomia solidarioari begiratzeko duten moduari jarraitzen diote.

Terminoaren jatorriari dagokionez, Luis Razeto (1984) autore Txiletarra da, hain zuzen ere, bere *Economía de la Solidaridad y Mercado Democrático*⁴⁴ lanagatik, horren jatorria aitortzen zaion autorea. Dena den, esan dugun moduan, korronte teoriko ezberdinek, testuinguru historiko eta instituzional ezberdinetatik begiratuta, terminoari kontzepzio ezberdinak eman dizkiote. Eta egun, bi ikuspegi edo korronte teoriko nagusi antzeman ditzakegu: Korronte Latinoamerikarra eta korronte Europarra; bakoitzak bere aldaerak dituelarik (Da Ros, 2007).

Latinoamerikan, ekonomia solidarioaren jaiotza sektore ekonomiko informalei zein herri-ekonomiatik abiatutako ekimenei oso lotuta egon da. Izan ere, Washingtoneko Kontsentsuaren bitartez ezarritako agenda neoliberalaren ondorioz, eta honek klase herrikoientzako bizi-baldintza duinak sortzeko porrotaren ondorioz, ekonomia kapitalistarekin eta estatuarekin batera existitzen den azpisistema ekonomiko gisa

⁴⁴ *Economía de la Solidaridad y Mercado Democrático* obra, 1984 eta 2000 artean Luis Razetok ekonomialari Txiletarra idatzitako bilduma da, lau liburukiz osatuta dagoena.

agertzen da herri-ekonomia. Azpistema horren helburua, Coraggiok (2011:295) dioenez, “ekonomia osatzen duten etxeko unitateetako, taldeetako eta komunitate partikularretako kideen bizitzaren erreprodukzio hedatua” izanik.

Herri-ekonomiak hainbat jarduera ekonomiko anitz eta ugari biltzen ditu etxeko unitateen biziraupenerako, merkatuko edo ez merkatuko lanetan eta ekoizpen edo erreprodukzio lanetan oinarrituak egon daitezkeelarik. Etxeko unitate horiek, beraien kideen familia loturekin bat egin dezakete edo elkarrekikotasunean oinarritutako egunerokotasunean elkartutako etxe edo pertsona-talde ezberdinak bateratu dezakete ere. Betiere erantzukizunak partekatzen dituzten kide guztientzako mantenua lortzeko eta banatzeko helburuarekin (Coraggio, 2007a).

Beraz, etxe unitatea hartzen da herri-ekonomiaren oinarritzko egituraketa elementutzat. Hortik abiatuta, merkatuko mikro-ekintzailtzak, etxeko unitateen sareak edo banakoen elkarteak zabaldu daitezke, desenpleguari, banaketa-, kontsumo- edo kreditu-sarbidearen arazoari erantzun hobea emateko. Hala ere, nabarmendu behar da herri-ekonomia ez datorrela bat, nolabait ikusarazi ahal izan den bezala, ekonomia informalaen parte diren lan prekarioen eta erregistratu gabekoekin. Eta Coraggiok (2011) dioenez, ez dira ulertu behar enpresa kapitalisten logikatik, baizik eta lan hori egiten duen etxeko unitateko kideen bizitzaren erreprodukzio hedatuaren zerbitzura dagoen elkarrekikotasunaren logikaren parte dira. Hala, elkartze herrikoia da, Núñezen hitzetan (1996, Sarria eta Tiribia-n (2004:184) bilduta), “ekoizle/langile herrikoiek, kapitalistak bihurtu gabe, merkatu-estrategia batekin ekin ahal izateko eta kapitalismoarekin eta haren eskala-ekonomiarekin lehiatzen saiatzeko duten modu bakarra”.

Bai herri-ekonomiaren antolakuntza multzoa oinarri hartuta eta haren barruan ekoizpen-forma berriak berrantolatuz (Lisboa, 2001; Gaiger, 2008), bai lan-indar hori guztia beste arrazionaltasun batetik abiatzen den proiektu politiko-kultural batean oinarrituz (Coraggio, 2011), zenbait autore beste ekonomia baterako germena ikusten hasten dira herri-ekonomian. Izan ere, herri-ekonomiaren barruan, garapen kapitalistatik baztertutako talde sozial ezberdinak biltzen dira; horietako batzuk, autogestioan eta demokrazia ekonomikoan oinarritutako ekimenen bitartez, arrazionaltasun kapitalistatik urrun dagoen beste ekonomia bat eraiki nahi dutelarik. Beraz, jendarte-emantzipazioa oinarri hartuta, ekimen horiek garapenaren biktima izatetik, kapitalismoaren aurkako edo ondorengo proposamen bat egitera igarotzen dira. Hots, bizirauteko gutxieneko

baldintzak sortzetik haratago doaz, eta proiektu politiko baten inguruan antolatzen dira. Horrela, esperientzia horiek ekonomia solidarioaren kontzeptuaren aterkipean biltzen hasten dira.

Berez, ekonomia solidarioaren korrante Latinoamerikarra, nagusiki Txilen, Argentinan eta Brasilen garatu dena, Razetoren idazkietatik abiatuta garatzen hasten da. Hala ere, Guerra-k (2004) ekonomia solidarioak Latinoamerikan izandako hedapenagatik hiru iturri nagusi antzematen ditu. Lehen, Razetok bera ordezkatzeko duena; beste bat Langileen Kooperatiben Konfederazio Latinoamerikarraren (COLACOT) idazkietatik garatzen dena; eta azkenik, Brasiletik datorren ikuspegia legoke. Dena den, Guerrak iturri gisa jasotzen ez dituen baina ekarpen teoriko garrantzitsuak egin dituzten eta Latinoamerikako beste herrialdeetatik idazten duten autoreen lana azpimarratu beharra dago ere. Adibidez, Venezuelatik, Ekuadorretik edo Uruguaitik idazten dutenak (Pérez de Mendiguren et. al., 2009).

Lehenengo iturriari jarraituz, Razetok (1999) bestelako arrazionaltasun ekonomiko bat sortzeko, ekonomian elkartasun gehiago egon beharko litzatekeela dio, eta horrek, ziklo ekonomikoaren prozesu guztietan harreman solidarioak eskatzen ditu. Hortaz, egitura ekonomiko garaikideekiko ikuspegi kritiko eta eraldatzaile batetik abiatzen da, zeinean elkartasun, kooperazio eta elkarrekikotasun harremanak nagusi diren. Horretarako, antolakundearen antolakuntzan “C faktorea” elementu zentral gisa antzematen du. “C faktorea”, ekonomia, eta hau antolatzeko eredua, solidarioagoa egiten duten kontzeptuei erreferentzia egiteko erabiltzen du. Izan ere, gaztelaniaz, kooperazioa, komunitatea, komunikazioa, partekatzea, kolektiboa, laguntasuna, lankidetzeta eta horrelakoak “C” hizkiak hasten dira. Razetorentzat, “C faktore” hori barneratzean, ekonomia solidarioko entitateak bestelako faktore espezializatuetan izan dezaketen gabezia lehiakorrak estaltzen ditu, elkartasunetik eratorritako abantailak lortzen dituztelako. Oro har, Razetok, disparekotasun sozialak eta menpekotasuna sortzen duen garapenaren proposamen kapitalista-neoliberalaren aurrean, jendartearen emantzipaziorako alternatiba gisa ulertzen du ekonomia solidarioa.

Guerrak (2004) antzematen duen ekonomia solidarioaren bigarren iturri Latinoamerikarra, COLACOTetik aurrera eramandako lanetik hedatzen da. Izan ere, COLACOTek ekonomia solidarioaren dibulgazioa ingurune kooperatibistetara eraman izan du 80ko hamarkadatik. Eta ondorioz, Latinoamerikako Langileen Zentralak (CLAT), zeinen parte den COLACOT, bere garapen estrategian barneratu du. Beraz,

eraikuntza teorikoan egindako ekarpena hain garrantzitsua izan ez den arren, ekonomia solidarioaren zabalpenerako egindako lana indartzen du autoreak.

Azkenik, Brasiletik garatu den iturria legoke. Beranduago hasten den arren, GKEak, sindikatuak, bestelako antolakunde herrikoiak eta unibertsitateak barneratzen dituen sare dentsoa eraikitzea lortu da bertan. Unibertsitateen kasuan gainera, *Unitrabalho* deritzon sare bat sortu zen ekonomia solidarioaren inguruan ikertzeko. Hala ere, ezin dugu esan Brasiletik ekonomia solidarioaren inguruko eskola propioa garatu denik; oinarri ezberdinak dituzten ikuspegiak baizik. Eta hauek, orokorrean ekonomia solidarioaren inguruan ikertzen duten hiru poloetatik datoz: Batetik *Río Grande* estatuko bi unibertsitateetatik; bata Jesuita eta bestea Federala (publikoa). Bestetik, Paul Singer ekonomia solidarioan aditua den autorea idazten duen *São Pauloko* unibertsitatetik. Eta azkenik, Marcos Arruda, idazten duen Hego Konorako Politika Alternatiboen Institututik (PACS), *Río de Janeiron* kokatuta dagoena. Azkenengo iturri hau da beharbada ikuspegi erradikalena jorratzen duena eta diskurtso politikoagoa aurrera eramaten duena. Izan ere, ekonomia solidarioa, jendarte eraldaketan oinarritzen da bestelako ekonomia eredu bat sortzeko; egungo egitura ekonomikoen, neoliberalismoaren, edo, are gehiago sistema kapitalistaren aurkako diskurtso eta praktika ekonomikoak aurrera eramanez (Guerra, 2004; Pérez de Mendiguren et. al., 2009).

Europatik datorren korrontearen hedapena bestalde, ekonomia sozialaren garapenari lotuta egon da. Zentzu honetan, ekonomia solidarioa ekonomia sozialaren enborretik sortzen dela esan genezake (Pérez de Mendiguren et. al., 2009; Guridi et. al., 2011; Monzón eta Chaves, 2012). Are gehiago, Europako ekonomia solidarioaren hastapenetan, hainbat autoreek “ekonomia sozial berria” bezala izendatutako antolakundeei erreferentzia egiten diete (Defourny, Favreau eta Laville, 1998; Monzón eta Chaves, 2012).

Izan ere, II. Mundu Gerratik aurrera, ekonomia sozialaren zati bat Europako estatuen ongizate-sistemetan integratzen da. Hala ere, Tomás-ek (1997) dioen moduan, egoera horrek nolabait ekonomia sozialaren ekintza eremua estutzen du, eta ez du erabat garatzen uzten. Gainera, geroz eta gehiago bereizten da langile-mugimenduarekiko eta enpresa antolaketaren inguruko gaiekiko ardura handiagoa hartzen hasten du. Hori dela eta, Herasek (2014) aipatzen duen ekonomia sozialaren teoriaren eta balioen eta haren praktiken arteko “desakoplea” sortzen hasten da. Izan ere, ikusi dugun moduan,

hazkundean eta lehiakortasunean oinarritutako merkatu arrazionaltasunera soilik bideratutako enpresa kudeaketaz gehiago kezkatzeak, ekonomia sozialeko antolakunde batzuek merkatu-isomorfismo prozesuak jasan izana ekarri du.

Alabaina, XX. mendearen azken laurdenean erregulazio eredu fordistaren krisiagatik eta ongizate-estatu Keynesiarrak lehiakortasunean oinarritutako estatu Schumpeterianoan izandako eraldaketagatik, ekonomia sozialaren garapen berri baterako haztegi aproposa eragin zuen. Izan ere, ekonomia sozialeko zenbait sektoreek mugimendu sozial berriekin lotura berritua izateak, hain hierarkizatuta ez dauden egiturak onartzeak, eta jendartearen eta ingurumenaren aldetik konpromiso handiagoa duten sektoreei lotutako eskaera berriek, ekonomia sozial berri horri atea ireki zioten. Gainera, ekonomiaren tertziarizazioak eta malgutasunak enpresa txikiagoak eta finantza-gaitasun txikiagoa dutenak ekoizpen-kate dinamikoetan integratzeko aukera ematen du, azpikontratazio-maila handiagoari esker. Eta, azkenik, sektore publikoaren berregituraketak zerbitzu publikoen hornidura pribatizatzea eta esternalizatzea ekarri du, aldi berean arazo sozial berriak sortuz. Hala nola jendarte-bazterketa, iraupen luzeko langabezia masiboa, enpleguaren prekarietatea, ingurumen kaltea etab. Egoera horren ondorioz, beste behin ere, klase herrikoiek beste aukera bat bilatu behar izan dute estatutik eta merkatu kapitalistatik kanpo, eta ekonomia sozialean aliatu on bat aurkitu dute beharizan horiek asetzeko (Tomás, 1997).

Ekonomia sozial berri hori, ekonomia sozial tradizionalaren antolaketa ereduak eusten diena, aldi berean, aurrekotik bereizten da, funtzionamendu eta motibazio logika berrien pean sektore berrietan jarduten baitu. Ildo honetan, Monzonek eta Chavesek (2012: 34) hiru ezberdintasun nagusi zehazten dituzte: Batetik, XX. mendeko 70eko hamarkadan ongizate estatua ahuldu edo/eta desagiterakoan eta merkatuen desarauketa eta pribatizazioaren norabidea hartzerakoan sortzen ari ziren behar sozial berriei erantzuteko sektore ekonomikoetan presentzia handiagoa izaten hasi ziren. Hots, lehen biztanleriaren bizitza duina bermatzeko ongizate estatuak hornitzen zituen oinarritzko ondasun eta zerbitzu unibertsalak estaltzeko, eta garai berriarekin sortzen ziren behar berriak estaltzeko, ekonomia sozialetik erantzuna ematen hasi zitzairen. Bestetik, ekimen hauen guztien atzetik dauden eragileak ere ezberdintasun azpimarragarria osatzen dute ekonomia sozial klasikoarekiko. Izaera mutualista duen ohiko elkartzeen aurrean, zeinetan bazkideek partekatzen duten interes materiala bilatzen den, ekimen berri hauetan elkartasunean oinarritutako harremanen bitartez, demokrazia ekonomikoan

sakontzeko helburua bilatzen da mozkinak lortzeko asmoaren gainetik. Eta azkenik, aurrekoarekin lotuta, ekonomia sozial berri honek erakusten duen jendarte eraldaketarako borondatea aurkituko genuke (Monzón eta Chaves, 2012).

Hortaz, ekonomia soziala izaten jarraitzen duten arren —erabiltzen dituen antolaketa ereduak ekonomia sozial klasikoarenak direlako—, “berria” adjektiboak bestelako ezaugarriak eranstean dizkie antolakunde hauei. Sajardo eta Chavesen (2006) hitzetan, ezberdintasun nagusia ikuspegi berriaren izaera politikoagoan aurkituko genuke. Lavillarentzat (2013) aldiz, ekonomia sozialaren kontraesanak gainditzeko bidea litzateke. Orduetik, ekonomia sozial berriaren terminoa ekonomia solidarioarengatik ordezkatuta joan izan da, eta horrela ere Latinoamerikatik datozen eztabaidekin konbergentzia emanez (Pérez de Mendiguren et. al., 2009).

Oro har, esan dezakegu ekonomia solidarioak gaur egungo ekonomia kapitalista beste ekonomia justuago, demokratikoago eta iraunkorrago batean bihurtu nahi duela. Eta horretarako, pertsonak, garapen komunitarioa eta hauek aurrera ateratzen dituzten jarduerak sistema ekonomikoaren erdigunean jartzea du helburu. Beraz, lehen esan dugun moduan, ekonomia eta bertan diharduten bitartekoak, ekoizpena, banaketa, finantzaketa eta kontsumoa justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkarlaguntzan oinarritzen ditu (Guridi et al., 2011; Askunze, 2013). Izan ere, kapitalismoa, ez litzateke gai izango pertsona guztien beharrak asetzeko eta aldi berean planetaren biziraupenerako beharrezkoak diren baldintza biofisikoak mantentzeko. Horregatik, dagoeneko aipatu ditugun justizia, demokrazia eta iraunkortasun terminoek garrantzia hartzen dute ekonomia solidarioan. Hots, ekonomia ez kapitalista garatzea, pertsona guztientzako —eta etorkizuneko belaunaldientzako— ongizatea bermatzen du.

Alabaina, ekonomia solidarioak nahiko ikuspegi berria gorpuzten du, eta jatorri, oinarri teoriko, ikuspegi eta esperientzia ezberdinak biltzen dituen heinean, haren mugapen kontzeptuala egiteak zailtasun handiak sortu ditzake. Ildo honetan, Laville eta García-Janék (2009: 131-132) hurrengo bost irizpideak proposatzen dituzte:

- Jabetza kolektiboa duten antolakundeak dira.
- Barne kudeaketa demokratikoa da. Non bazkide bat, bozka bat printzipioa nagusitzen den.
- Antolakundearen objektu soziala bazkideen beharrak asetzera bideratuta dago. Beraz, antolakundeak burutzen duen zerbitzua lukuruaren gainetik dago. Eta mozkinak banatzekotan, hau jarduera kolektiboan aurrera

eramandako parte-hartzearen arabera izango da, eta ez kapital ekarpenaren arabera.

- Antolakundearen objektu soziala, jardura ekonomiko baten bitartez burutzen da.
- Antolakundeak erabakitze ahalmen osoa dauka. Ez dago bestelako enpresa kapitalista edo administrazio publikoen menpe.

Hauetatik, autoreentzat, bi izango lirateke nagusienak: Kudeaketa demokratikoa izatea eta lukuruaren desagerpena edo mugapena. Bi hitzetan, demokratikoa eta soziala izatea. Izan ere, autore hauek dioten moduan, ekonomia demokratizatzeko eta hau jendartearen eskuetan jartzeko potentzialtasun handiena duten elementuak dira; eta beraz, aipatu ditugun ekonomia solidarioaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren irizpideak dira.

Sektorearen mugatzen duten irizpide hauetaz gain, ekonomia solidarioaren antolakundeek, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak⁴⁵ (REAS) garatutako ekonomia solidarioaren gutunean⁴⁶ biltzen diren sei printzipio jarraitzen dituzte. Hemen laburpen bat (REAS, 2011):

- Ekitate printzipioa edo berdintasunean txertatutako justizia. Menderatze-harremanen kontrako printzipioa da, berdintasuna funtsezko helburu soziala izanik.
- Lanaren printzipioa ekonomian eta komunitatean parte-hartzeko modu gisa.
- Ingurumen iraunkortasunaren printzipioa. Gizakiaren aztarna ekologikoa murriztu kontsumo arduratsuen, elikadura-burujabetzaren, ekoizpen garbiaren, desazkundearen etab. bitartez.

⁴⁵ REAS (*Red de Economía Alternativa y Solidaria*): estatuko ekonomia solidarioko erreferentziatzeko antolakundea da. 1995. urtean sortu zen eta ekonomia solidarioko enpresek osatzen dituzten sareen sarea da. Egun, 18 sare ezberdin saretzen ditu; non 14 estatuko lurralde ezberdinei egiten die erreferentzia eta 4 sektore ekonomiko ezberdinei egiten die erreferentzia. REAS, gizarte justu eta solidarioago bat lortzeko; lanabesa den, ekonomia solidarioa bultzatzea du helburu. Garapen jasangarriantz bideratuta eta ekonomia, gizarte, ingurumena eta kultura aintzat hartuta. Ekonomia egiteko beste modu bat alegia. Non elkarte, enpresa, ekonomia eta finantza ekimen ezberdinek, onartutako ekonomia solidarioaren gutunarekin bat egin behar duten (www.reasred.org).

⁴⁶ Ekonomia solidarioaren printzipioen gutuna 2011n estatuko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS) garatutako dokumentua da. Bertan ekonomia solidarioaren printzipioak biltzen direlarik. Egungo ekonomia solidarioaren printzipioen gutunak 2000 eta 2011 urteren artean iraun zuen lehenengo gutun baten berrikuspena litzateke. Hona hemen gutuna ikusgai:

https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/2011%20EKONOMIA_SOLIDARIOAREN_GUTUNA_REAS.pdf

- Lankidetzaren printzipioa lehiaren orde. Sareen bitarteko kooperazioa sinergiak lortzeko.
- Irabazi asmorik gabekoa izatearen printzipioa. Non lor litezkeen irabaziak proiektuaren xede soziala hobetzeko edo zabaltzera bideratuak izango litzateke.
- Inguruarekiko konpromisoaren printzipioa tokian tokiko garapen iraunkorra eta komunitarioa bultzatuz.

Dena den, printzipio hauek ezartzen dituzten barne jokabideei begira, antolakunde hauek izan ditzaketen arazoengatik inguruko apunte labur bat egitea komenigarria da une honetan. Izan ere, hazkunde, lidergo, parte-hartze edo zilegitasun krisi ezberdinak izan ditzakete. Hazkunde krisia, hazkunde azkarra duten antolakundeetan ematen da. Kontrolik gabeko hazkunde azkar batek, antolakundearen izaera eraldatu edo bazkideen parte-hartzea mugatu dezakeelako (Guridi et. al., 2011). Lidergoaren aldetik, ohikoa da karisma handiko pertsonak antolakundearen lidergoa eramatea. Hauek, askotan antolakundearen sortzaileak ere izanik. Pérez de Mendigurenek (2014) dioen moduan, honek bi aurpegi izan ditzake. Batetik, horrelako lider baten presentziak, barne kohesiorako indargune bat izan daiteke. Gainera, barne zilegitasun handia duten pertsonak dira eta gatazka sortu dezaketen arazoak konpontzeko gaitasun handia daukate. Baina beste aldetik, ikaskuntza kolektiborako edo beste bazkideek erantzukizunak hartzeko orduan galga izan daitezke aldi berean.

3.4.1 Ekonomia solidarioaren oinarriak:

Ekonomia solidarioaren lehenengo mugapen kontzeptual honen ostean, esan genezake, mozkinen besteko ikuspegia ekonomia neoklasikoa oinarritzen baldin bada; eta ekonomia sozialak ikuspegi juridikoa jarraitzen badu; ekonomia solidarioaren oinarri teorikoei begiratzen badiegu, eragin handienetarikoa duena soziologia ekonomikoa dela (Etxezarreta eta Pérez de Mendiguren, 2018), nahiz eta beste ikuspegi kritikoetatik datozen ekarpenetatik ere edaten den. Hala nola, ekonomia ekologikoa, ekonomia feminista edo ekonomia instituzional zaharra (Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014). Eta ekarpen hauetan oinarrituta, ekonomia neoklasikoak, sistema kapitalistak eta ideologia neoliberalak osatzen duten trinomioarekiko kritikoa den ikuspegia gorpuzten du ekonomia solidarioak.

Soziologia ekonomikotik, batez ere, Karl Polanyi antropologo eta ekonomialari hungariarraren eta Marcel Mauss antropologo eta soziologo frantziarraren ekarpenak

berreskuratzen ditu bere oinarri teorikoak garatzeko. Hauen ekarpenak ekonomiaren ikusmolde plural eta substantiboa garatzeko erabiliak izan direlarik.

Ekonomia izaera plurala dauka, integrazio eta antolaketa ekonomikoa, ekonomia neoklasikoak aitortzen duena baino forma gehiagotan ematen delako. Polanyiaren (1944) *The Great Transformation* lan handian, integrazio ekonomikorako ereduaren inguruko ikerketa antropologikoa aurrera eramaten du besteak beste. Polanyik, jarduera ekonomikoaren instituzionalizazioaren inguruan toki eta garai ezberdinetan ikertzean, ekonomia lau printzipioen arabera antolatzen dela ondorioztatzen du: Elkartrukearen bitartez, birbanaketaren bitartez, elkarrekikotasun erlazioen bitartez eta biziraupenerako etxeko kudeaketaren bitartez. Eta era beran, printzipio hauek polo ekonomiko batean edo bestean nagusi dira eta jokabideen patroia ezberdinen bitartez arautzen dira.

3.4. TAULA: Ekonomia pluralaren printzipioak, poloak eta patroiak

Printzipio ekonomikoa	Polo ekonomikoa	Patroia
Elkartrukea	Merkatu ekonomia	Salerosketak
Birbanaketa	Ez merkatuko ekonomia	Estatua
Elkarrekikotasuna	Ez diruzko ekonomia	Simetriaren patroia soziala

Iturria: Polanyi (1944). Egileak moldatuta.

Taulan Polanyik (1944) identifikatutako printzipio ekonomikoak ikusi ahal ditugu bakoitzak nagusitasuna duen polo ekonomikoarekin eta jokabideen patroia nagusiarekin lotuta. Hala ere, printzipio hauek ez dute taulan lotuta agertzen diren polo ekonomiko horretan bakarrik eragiten; polo guztietan eragina baitute, neurri handiagoan edo txikiagoan. Hots, merkatu ekonomian birbanaketan edo elkarrekikotasunean oinarritutako jokabideak aurkitu ditzakegu, nahiz nagusienak ez izan.

Ildo honetan ere, ekonomia neoklasikoak “*homo economicus*”-aren inguruan sortutako jokabide ekonomikoen paradigmatikoki kritika egiten zaio ekonomia solidariotik. Hau da, ekonomia neoklasikoaren suposizioak betetzeko, jokabide ekonomiko kalkulatzailerekin, berekoietan, lehiakorretan eta utilitaristetan oinarritutako arrazionaltasuna duen subjektu unibertsala eraiki izan da. Eta beraz, bestelako arrazionaltasunik ez balego bezala, pertsona guztiek jokabide ekonomiko hauek jarraitzen duten ideia deseraiki nahi da ekonomia solidariotik (Coraggio, 2009; Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2014 eta 2015a; Arrillaga, 2021a); jokabideen pluraltasuna aldarrikatuz.

Ekonomiaren integrazio ereduaren ikuspegi plural honetatik abiatuta, ekonomiaren ikuspegi formala gainditzen da. Hots, ekonomia ortodoxoaren diskurtsotik aldentuta, zeinean integrazio ekonomikoa soilik merkatuan ematen dela argudiatzen den, Polanyiaren ikerketa antropologikoak erakusten du historikoki ekonomia printzipio horien bitartez integratu izan dela. Are gehiago, autoreak dionez, ez da kapitalismoaren sorkuntzara arte izango non merkatuak integrazio ekonomikorako lehentasunezko polo ekonomikoak bihurtuko diren. Aurretiazko jendarteetan, birbanaketa, elkarrekikotasuna eta biziraupeneko ekonomia nagusiak ziren. Hauek, merkatutik kanpo edo/eta ez-diruzko ekonomiaren bitartez ematen direlarik. Polanyiaren ekarpen honi, askotan gehitu zaio Marcel Mauss antropologoarena, zeinek ekonomia antolatzeke modu naturalik ez dagoela argudiatzen duen. Horren ordean, jendarte bakoitzean elkarbizitzen duten ekoizpen modu ezberdinak daudela defendatzen du; eta jendarte bakoitza dela hauek artikulatzen eta hierarkizatzen dituen testuinguru edo une historiko konkretu bakoitzean (Laville, 2009b; Pérez de Mendiguren, 2014).

Praktikan, ekonomia solidarioak ekonomiaren pluraltasun honen aldeko aldarrikapena bere egiten du, eta merkatuan ematen diren jarduera ekonomikoez gain, merkatutik kanpo ematen direnak kontuan hartzen ditu. Hala nola, etxeko eta zaintza lan ez ordainduak, denbora bankuak, moneta sozialak, truke sareak, elkarlanean oinarritutako kontsumo taldeak, lan boluntarioa, auzolana etab. Ildo honetan ere, garrantzitsua da aipatzea ekonomia solidarioak polo hauetako bakoitzetik baliabideak “hibridatzeko” erakusten duen gaitasuna. Hau da, lehenago azaldu dugun ekonomiaren pluraltasun horretatik abiatuta, merkatu ekonomiatik, ez-merkatuko ekonomiatik eta ez-diruzko ekonomiatik baliabideak lortzeko gaitasuna daukate ekonomia solidarioko egitasmoek. Hibridazioak, borondatezko lanetik, baliabide publikoetatik eta merkatutik lortzen diren sarreraren arteko konpentsazioa ahalbidetzen du. Modu honetan, hauetako bakoitzetik modu isolatuan baliabideak lortzeagatik eratorri daitezkeen akatsak orekatzen dira; eta zerbitzuak egonkortzeko eta bideragarritasun ekonomikoa lortzeko erraztasun handiagoa eskaintzen die antolakundeei (Laville eta Nyssens, 2000; Laville, 2009a; Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2016).

Pluraltasun hau antolakunde hauen kudeaketa ereduaren antzeman daiteke. Izan ere, ohikoa da ekonomia solidarioa osatzen duten antolakundeen artean kudeaketa eredu “ko-eraikiak” aurkitzea. Ko-eraikuntza, ordaindutako lana eta borondatezko lana aldi berean existitzen direla onartzetik abiatzen da. Horrela, antolakundeek harremana duten

bestelako agenteetatik —inplikazio maila ezberdinekin— datozen eskakizunetarako elkargune bezala ulertzen duten erabakitze prozesuak ezartzen dira. Hau da, antolakundeak eta hauetan ematen diren erabakitze prozesuak erabiltzaileetara, boluntarioetara, beste antolakundeetako ordezkarietara, familiarrei, agintari publikoei etab. irekitzean datza. Hots, antolakundeen gobernua, gobernantza prozesu parte-hartzaileago bat bihurtzen da zeinean eskaria eta eskaintzaren inguruko erabakiak eta ekintzaitzaren arriskua eragile hauen guztien artean partekatzen den (Laville eta Nyssens, 2000; Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2014 eta 2016). Gobernantza eredu hauek irizpide demokratikoak jarraitzen dituzte, eta beraz, ez daude kapital ekarpenaren menpe; ekonomia antolatzekeko modu ezberdinak daudela erakutsiz.

Polanyiren (1944) bigarren ekarpen garrantzitsuena, ekonomia aztertzeke hartutako ikuspegi substantiboa litzateke. Kasu honetan, autorea ikuspegi instituzionalistan oinarritzen da neurri batean prozesu ekonomikoa jendarte egituretan txertatuta dagoela esateko. Hau da, autorearentzat, ekonomia, ez litzateke ekonomia neoklasikoak argudiatzen duen esfera isolatu bat. Baizik eta jendartean instituzionalizatuta dagoen eraikuntza sozial bat, politikari, erlijiori, kulturari, harreman sozialei etab. txertatuta edo *embedded* dagoena. Eta beraz, aldaketa sozialek ekonomian dute eragina eta alderantziz. Horrenbestez, ekonomia neoklasikoaren helburua den merkatu autorregulatua lortzea ezinezkoa dela ondorioztatzen du; ekonomia, jendarte instituzioetan errotuta dagoelako eta instituzio (formalak zein informalak) hauek direlako, azken batean ekonomia arautzen dutenak. Beste modu batera, kapitalismo guztiak berdinak izango lirateke, eta Esping-Andersenek (1990) antzematen dituen ereduak adibidez, ez lirateke emango; denak berdinak izango liratekeelako. Gainera, ekonomian merkatu autoerregulatuaren aldeko joera ematen denean, eta beraz, ekonomia jendarte egitura horietatik askatu nahi izaten denean, jendarteek, hori saihesteko autodefentsarako mekanismoak martxan jartzen dituzte.

Horrez gain, Polanyik (1944) lan-indarraren salerosketaren inguruan egiten duen azalpena garrantzitsua da ere. Ekonomia kapitalistak, ideologia produktibistari jarraika eta bere merkatu autorregulatuaren bitartez, lana merkantzia bat bezala kontsideratzen du. Eta beraz, honen balioa eskaintza eta eskariaren erlazioen bitartez ezartzen du merkatuan. Hala ere, hau ere ezinezkoa dela erakusten digu autore hungariarrak. Polanyik, lana, fikziozko merkantzia dela dio. Hau da, lurra eta dirua bezala, lana ezin da bere ingurune instituzionaletik askatu, eta beraz, hauek ezin dira guztiz askeak diren

merkatuetan salerosi; ez baitute jarraitzen merkantzia errealak dituzten portaerak. Fikziozko merkantzia hauek ez direlako salerosketarako sortuak izan. Lurra, naturaren azpitalde bat osatzen du; dirua, elkartrukea errazteko eraikuntza sozial bat da estatuek eta bestelako egitura finantzarioek bere eskaintza kontrolatzen dute; eta lana, pertsonen berezko ezaugarri bat da, eta ezin da modu askean salerosi, pertsonak eta haien duintasuna merkatuaren menpe guztiz jartzea izango litzatekeelako.

Laburbilduz, Polanyi eta Maussen lanetan oinarrituz, ekonomia solidarioak ekonomiaren izaera substantiboa eta integrazio, jokabide eta antolaketa ekonomikoaren izaera plurala aldarrikatzen du; ekonomia neoklasikoari kritika eginez. Ekonomiaren ikuspegi plural eta substantibo honetatik abiatuta, ekonomiaren ikuspegi formala gainditzen da. Hau da, ekonomia jendarte egituretatik askatuta dagoen esfera isolatu bat bezala kontsideratzen duena eta integrazio ekonomikorako mekanismo bakarra merkatua dela zehazten duena. Autoreen eta ekonomia solidarioaren ikuspegitik, merkatua ez da integrazio ekonomikorako polo bakarra; merkatutik at eta moneta sistematik at ere ekonomia dagoelako. Ekonomia ez da esfera isolatu bat; jendartean errotuta baitago, eta ekonomian gertatzen dena jendarteari eragiten dio eta alderantziz. Merkatua ez da autoerregulatua; jendarte instituzioek arautzen dute. Eta enpresa eredu bakarra ez da enpresa kapitalista; jabegoa eta kudeaketa kapitalaren menpe ez dagoen enpresak baitaude ere (Laville, 2004).

Ekonomia neoklasikoaren inguruko irakurketa kritiko hauez gain, ekonomia solidarioak pertsonen inguruan eraikitzen diren antolakunde demokratiko eta autogetionatuak gorpuzten ditu ekonomia kapitalistari aurre egiteko.

Enpresa kapitalista batean, jabegoa kapital ekarpenari lotuta dago; eta beraz, erabakitze prozesuetan parte-hartzeko eskubidea aurretik egindako kapital ekarpenaren arabera izango da. Jabegoa, eta beraz partaidetza, enpresetan salerosi daiteke. Horrenbestez, ez dago zertan egon beharrik jabeak eta enpresak lotzen dituen erlaziorik, kapitalak sortzen dituen mozkin edo interesak izan ezik. Hots, kapital metaketarako beharrezkoak diren harremanak soilik. Ekoizpen ziklo bakoitzean metaketa lortu ahal izateko, etengabeko hazkundera behar du enpresa kapitalistak. Hortaz, helburu bakarra hori bihurtzen da: mozkinak maximizatzea. Enpresa kapitalista batean, ekoizpen prozesuan ematen diren harreman sozialak hazkunderaren zerbitzuan jartzen dira, eta beraz, baliabide guztiak, pertsonak barne, helburu hori lortzeko lanean jartzen dira. Logika honetan, harreman pertsonalak despertsonalatuak daude, objektu gisa

konsideratuak; eta enpresa kapitalisten ingurunea, baliabide hutsen edukiontzi gisa kontsideratua dago. Hots, ingurune naturala lehengai naturalen hornitzailea da, ingurune soziala langileen hornitzailea, ingurune politikoa laguntza ekonomikoak eta abantaila lehiakorak eskaintzen dituen hornitzailea etab. Eta, onuragarriak ez diren ingurunearen elementuak aldiz, hazkundearen oztopo gisa kontsideratzen dira (Coraggio, 2004; Ruiz de Galarreta eta Arrillaga, 2020).

Ekonomia eta enpresa kapitalistaren jabegoa, kudeaketa eta helburua kapitalak zehazten ditu. Gainera, honen arrazionaltasuna baliabideak (langileak baliabide gisa kontsideratuta) kapitalaren erreprodukzioaren zerbitzuan jartzea litzateke; ekoizpenerako baliagarria dena baliabide gisa kontsideratuz. Horregatik, enpresa kapitalista kapitalaren eta honen erreprodukzioaren inguruan eraikitzen den enpresa dela esan dezakegu, mozkinak maximizatzea helburu duena, eta soldatapeko lanaren bitartez harreman sozialak ekoizpena prozesuaren objektu bilakatzen dituena.

Marxetik (1975) ohartu ginen kapitala eta lanaren (enplegua) arteko gatazka existitzen zela. Kapitalistak, ekoizpen baliabideen jabea dena, langilea (soldatapekoa) esplotatzen du, hortik langilearen lan-indarraren balioaren eta bere lanagatik sortutako balioaren aldea lortuz; edo errazago, plusbalioa lortuz. Hala ere, ekonomia feministatik erakusten diguten moduan, gatazka hau haratago doa; kapitalaren eta bizitzaren arteko egiturazko gatazka da. Kapitalak ez du soilik soldatapeko langilea esplotatzen; kapitalaren ziklorako beharrezkoa den lan erreproduktibo eta ordaindugabeaz ere jabe egiten da (Pérez-Orozco, 2014). Merkatutik at egiten den lan erreproduktibo guztia beharrezkoa duen heinean bere funtzionamendurako. Bizitzaz hitz egiten dugunean, ez dugu zerbait abstraktu bati buruz ari; bizitza, bizirik dagoen guztiaren multzoa da. Pertsonak eta planeta, alegia. Gatazka soilik kapitala eta soldatapeko lanaren artekoa izango balitz, soilik soldatapeko lana duten pertsonak egongo liriateke tartean sartuta. Aldiz, Pérez-Orozco (2017) esaten duen moduan, gatazka zabaltzen bada, eta bizirik dagoena barne hartzen badu, kapitalaren aurkako gatazkan desjabetutako pertsona guztiak tartean egongo dira.

Ekonomia solidarioak, enpresa kapitalista zuzentzen duten printzipioak eraldatzen ditu. Kapitala eta bere erreprodukzioa helburu izatetik, eta *homo economicus*-aren arrazionaltasuna izatetik, bizitza eta honen erreprodukzioa helburu duen beste arrazionaltasun bat planteatzen du. Helburu hori lortzeko beharrezkoak diren jarduera produktibo zein erreproduktibo guztiak aintzat hartuz. Eta eredu horretan, langileak,

kapitalistak antolatzen duen eta salerosi daitekeen ekoizpenerako baliagarria den lan-indarraren hornitzaileak izatetik, ekoizpen prozesuan subjektu aktiboak izatera igarotzen dira (Coraggio, 2009a).

Ekonomia kapitalistan, merkantzien hazkunde kuantitatiboa ekonomiaren efizientziaren neurgailu fidagarriena da. Aldiz ekonomia solidarioak bizi kalitatea, ongi bizitze kolektiboa eta langileen potentzialaren errealizazioa bilatzen du; kapitala soilik bitarteko bat delarik (Coraggio, 2009a). Ekonomia solidarioko antolakundeek jabegoa kolektiboa da; eta partaidetza modu demokratikoan aurrera eramaten da, eta ez kapital ekarpenari lotuta. Horrez gain, jokabide kooperatiboak eta autogestioa nagusi dira antolakundeek kudeaketan.

Autogestioa, Defournyk (1988) dioen moduan, historikoki, langile mugimenduari lotutako esperientzien ezaugarri garrantzitsua izan da; eta beraz, gaur egun ekonomia solidarioko antolakundeek oinarrizko ezaugarria da. Alabaina, kontzeptua nola ulertzen dugunaren arabera honen definizioa aldatu daiteke, eta ez dago gaur egun adostutako definiziorik. Modu sinple batean, kolektibo baten autonomiarako mesedegarriak diren, eta izaera demokratikoa duten jokabide sozialak bezala definitu genezakeen (Peixoto de Albuquerque, 2004). Gure kasuan, enpresa baten gerentzia langileek dutenean ematen da (Mance, 2008).

Hala ere, gehiago sakonduta, kudeaketa edo gerentzia soila baino kontzeptu zabalagoa dela antzematen dugu, eta gutxienez lau dimentsio aitortu behar dizkiogu: Soziala, ekonomikoa, politikoa eta teknikoa. Dimentsio soziala, autogestioa eraikuntza sozial bat delako ematen da. Dimentsio honen helburua, ekimen autogestionario baten esku dauden banako eta talde guztientzako emaitza onargarriak lortzen dituzten ekintzak sortzea da. Dimentsio ekonomikoa, ekoizpen harremanetan aurkitzen da. Honen bitartez, lanari lehenetsua ematen zaio kapitalaren gaintik. Dimentsio politikoa ordezkari sistema eragiten du. Hartutako erabakiak kolektiboki eraikita egon behar dira; eta horretarako, antolakundeek boterea banatuta egon behar da. Beraz, dimentsio politikoen helburua, indarren oreka mantentzea izango da. Azkenik, dimentsio teknikoak, lanaren banaketa eta antolaketa eredu ezberdinaren ideia iradokitzen du (Peixoto de Albuquerque, 2004).

3.4.2 Ekonomia solidarioa eta balio katea:

Esan dugunez, ekonomia solidarioak ekonomia eta bertan diharduten prozesuak eraldatu nahi dituela pertsonak erdigunean jartzen dituen bestelako printzipio eta balioetara egokituz. Baina, hori nola egiten da? Hau da, nola lortzen da printzipio hauek prozesu ekonomikoaren fase bakoitzera eramatea? Ikus ditzagun orain ekonomia solidarioak proposatzen dituen ereduak prozesu ekonomikoaren fase bakoitzerako.

Ekoizpenaren alorrean, ekonomia solidarioak zentralitate handia ematen dio lanari. Bai merkatuan ematen den lan produktiboari, baina baita ere merkatutik kanpo ematen den lan erreproduktiboari. Ekonomia kapitalistetan, lanaren monetarizazioa lortzeko, kapitalistak lanaren esplotazio globalean parte hartzen du. Honela, lana sorkuntza aktibitatea izatetik, lan-indarraren salmenta izatera igarotzen da. Soldata termino hauetan ulertzen denean, beste aktibitate forma batzuk lana bezala ez kontsideratzea ekartzen du. Ildo honetan, ekonomia solidarioaren parte den lan boluntarioa, auzolana edo pertsonen bizitzarako hain garrantzitsuak diren etxeko eta zaintza lanak ikusezin bihurtzen dira; eta azken hauek, batez ere emakumeak aurrera eramaten dituztenak dira (Carrasco, 2014). Ekonomia solidarioak zentzu honetan, lan guztien aitortza eta banaketa erantzunkidea aldarrikatzen du.

Ekonomia solidarioaren gutunean, lana pertsonen bizi kalitatearen oinarrizko elementua bezala kontsideratzen da. Lanaren bitartez pertsonen eta komunitateen benetako beharrak asetzea ahalbidetzen da, aldi berean langileen gaitasunen garapena lantzen den bitartean (REAS, 2011). Lana sorkuntza, berrikuntza eta langileen gaitasunak garatzea ahalbidetzen duen jarduera da. Hala ere, Razetok (2017) dioen moduan, jendarte kapitalistaren baitan ematen den soldatapeko lanak ez du aurreko ezaugarriak betetzen. Izan ere, soldatapeko lana kapitalaren edo estatuaren menpekoa da; eta langileak beraz, beraien enplegu-emaileena. Horrela, lana, soilik enplegua izatera murriztu da; eta beraz, langilea subjektu instrumentala izatera igaro da. Honen aurrean, ekonomia solidarioak lanaren dimentsio ezberdinak berreskuratzen ahalegintzen da. Hemen laburtuta (REAS, 2011):

3.5. TAULA: Lanaren dimentsioak

Lanaren dimentsioak:	
Pertsonala	- Pertsonak erdigunean jarritz, hauen gaitasunak garatu (pentsatu, sortu, taldean lan egin...).
Soziala	- Lana komunitatearen beharren mesedeetan jarri.
Politikoa	- Pertsona guztiek lana aurrera eramateko baliabideak lortzeko aukera izateko eta lanaren oinarritzko eskubideak izateko eskubidea. - Ekoiztu behar denaren planifikazioan parte-hartzeko eskubidea. - Langileen eta jendarte zibilaren parte-hartzea ekoizpen baliabideen jabegoan eta funtsezko erabakietan.
Ekonomikoa	- Behar ekonomikoak asetzen dituzten baldintza duinak eta kalitatezko lana. - Lan eta truke erlazio justuak. Lankidetzan oinarrituta eta ez lehian.
Kulturala	- Lanaren aurreko dimentsioak barneratuko dira lanaren izaera juridikoa edo administratiboa edozein izanda ere. Enplegua lan mota bat besterik ez da.
Ingurumenekoa	- Ondasun eta zerbitzuak, ingurunearekiko era arduratsuan ekoiztuko dira.

Iturria: Iturria: Arrillaga (2021a:16), REAS (2011)-etik abiatuta.

Coraggio (2004, 2009a, 2011...) haratago doa. Berak lanaren ekonomiaz hitz egiten baitu. Lanaren ekonomia, kapitalaren ekonomiari eta bere kontraesantara kontrajartzen da. Horrela, kapitalaren eta bere metaketaren logikan diharduen ekonomia batetik, lana eta bere erreprodukzioari zentralitatea ematen dion beste ekonomia batera igarotzea eskatzen du; non langileriaren —zentzu zabalean— interesak lehenesten diren. Beraz, kapitalaren ekonomian lan emankorra balioa eta plusbalioa sortzen duena baldin bada, lanaren ekonomian, lana emankorra izango da baldin eta erbiltze-balioa sortzen badu.

Laburbiltzearen, lan duina eta emantzipatzailea aldarrikatzen da ekonomia solidariotik. Eta horretarako beharrezkoa da langileek lan horren jabe izatea. Horregatik, Corragiok (2011) dioen moduan, langileek ezagutza eta ekoizpen baliabideak eskura izan behar dituzte. Beharrezkoa da beraz, jabego kolektiboa duten ekimenak sustatzea edo enpresa kapitalistak berreskuratzea; eta hauetan, lana eta ekoizpena kooperazioaren bitartez integratzea. Azkenik, ekoizpena, pertsonen beharrak asetzera eta ingurumena zaintzen dituzten esparru edo sektoreetara bideratuko da.

Banakuntzari dagokionez, ekonomia solidarioak bidezko merkataritza eta banakuntza zirkuitu laburrak bezalako proposamenak aldarrikatzen ditu. Bidezko merkataritzaren nazioarteko antolakundearen⁴⁷ (WFTO) arabera, “bidezko merkataritza,

⁴⁷ Bidezko merkataritzaren nazioarteko antolakundea edo *World Fair Trade Organization* (WFTO) 1989an sortutako elkarte global bat da. Bertan, bidezko merkataritza jorratzen duten 70 herrialde baino gehiagoko enpresak bilduta daudelarik (www.wfto.com)

merkataritza-elkarte bat da, elkarrizketan, gardentasunean eta errespetuan oinarritzen dena nazioarteko merkataritzan ekitate gehiago ezartzeko. Garapen jasagarria lor dadin laguntzen du baldintza komertzial hobeagoak eskaini eta baztertutako ekoizle eta langileen eskubideak bermatzen dituelako, batez ere hegoan” (www.wfto.com).

Bidezko merkataritza beraz, iparralde eta hegoaren arteko eta hegoa hegoarekin banakuntza harreman justuagoak ezarri nahi ditu. Horretarako, estatuko bidezko merkataritzaren koordinakundeak⁴⁸ aipatzen dituen lau ildo nagusietan arreta jartzen du (www.comerciojusto.org):

- Lan-baldintza eta soldata egokiak hegoaldeko ekoizleentzat: Duintasunez bizitzeko aukera izan dezaten.
- Haurrak ez esplotatzea: Produktuak ez dituzte hurrek egin.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna: Biek bidezko tratua eta ordainsari ekonomikoa jasotzen dute.
- Ingurumena errespetatzea: Ekoizpen prozesuan, ingurumena errespetatzen da.

Operatiboki, bidezko merkataritzak eragile eta antolakunde ezberdinak harremanetan jartzen dituen sare egitura hartzen du. Hauek, ekoizleak eta hauek sortutako antolakundeak, kontsumitzaileak eta kontsumitzaileen elkarteak, bidezko merkataritzaren logikan lan egiten duten enpresak, bidezko merkataritzari ekarpen ekonomiko edo teknikoak egiten dituzten kooperazio antolakundeak, bidezko merkataritza bultzatzen laguntzen duten administrazio publikoak, produktuak bidezko merkataritzako merkaturan integratzeko baldintzak betetzen dutela bermatzen duten zertifikazio agentziak, bidezko merkataritzaren inportatzaileak eta kontsumitzaileari zuzenean saltzen dioten dendak izanik (Cotera eta Ortiz, 2004 eta 2009).

Laburbilduz, hegoaldeko ekoizleen eta iparraldeko (edo hegoaldeko beste herrialdeetako) inportatzaileen artean, produktuen banakuntzan ematen diren merkataritza harremanak kooperazioan, elkarkidetzan, berdintasunean eta elkarren arteko errespetuan oinarritzea eskatzen duen eredu litzateke (Cotera eta Ortiz, 2009).

Horrez gain, botere asimetrikoak eraiki ez daitezten, nazioarteko merkatuetan esku-hartzearen aldekoa da ekonomia solidarioa (Coraggio, 2011 eta Pérez de

⁴⁸ Estatuko bidezko merkataritzaren koordinakundea edo *Coordinadora Estatal de Comercio Justo* (CECJ), WFTOren baitan kokatzen den plataforma da. Estatu mailan eragina du eta 25 erakunde biltzen ditu (www.comerciojusto.org).

Mendiguren, 2014). Izan ere, gaur egun, nazioarteko merkataritzan, enpresa transnazionalen eskubideak babesten dituzten arau, lege eta akordioen multzoa dagoen bitartean, enpresa hauen betebeharrak juridikoki hauskorak, borondatezkoak, aldebakarrekoak eta galdagarritasun juridikorik gabekoak dira. Eta enpresa transnazionalen eskubideen eta betebeharren “balantza” honek bien arteko asimetria edo desberdintasun juridikoa agerian uzten du. Hau, gutxiengo baten onura pribatua jendartearen gehiengoaren interes orokorraren aurrean jartzen duen zigorgabetasun arkitektura juridiko⁴⁹ baten bitartez babesten da (Hernández eta Ramiro, 2015). Izan ere, 90eko hamarkadaz geroztik, iparraldeko ekonomiek merkataritza askerako akordioak bultzatu izan dituzte batez ere hegoaldeko herrialdeekin, baina ez bakarrik. Hitzarmen hauen logika, enpresa transnazionalentzat, finantza entitateentzako eta bestelako inbertitzaileentzako onuragarria den joko eremua eraikitzea izanik; eta ondorioz nazioarteko merkataritza harremanak desorekatuz.

Bestalde, banakuntza zirkuitu laburrak tokiko nekazari eta ekoizle txikiak sustatzeko banakuntza zirkuituak dira. Hots, eremu hurbilean ekoiztutako produktuak zuzenean saltzean oinarritutako merkataritza-modu bat dira, ekoizleen eta kontsumitzaileen artean bitartekaritzarik gabe —edo bitartekaritza ahalik eta gehien murriztuta—. Zirkuitu laburrek nekazari edo ekoizleak eta kontsumitzaileak hurbiltzen dituzte, harreman pertsonalak sustatzen dituzte eta logika honetan ekoiztutako produktuek, distantzia luzeak garraiatu ez dutenez, ingurumenean eragin txikiagoa sortzen dute. Zirkuitu hauek, nahiz eta sektore ugarietan antzeko esperientziak sortu daitezkeen, oso lotuta daude ekoizpen agroekologikoarekin eta adierazpen ezberdinen bitartez aurkitu ditzakegu. Hala nola, zuzeneko salmenta, merkatu tradizionalak, kontsumo taldeak, kontsumo-elkartuko antolakundeak, hurbiltasunezko dendak etab. (CEPAL, 2014).

Kontsumoaren esparruan proposatzen den eredua bidezko merkataritza eta banakuntza zirkuitu ekonomiko laburrekin lotura estua dauka, baina kontsumoaren ikuspegira egokituta. Kasu honetan, ekonomia solidarioak kontsumo arduratsua

⁴⁹ Zigorgabetasun arkitektura juridikoa edo *arquitectura jurídica de la impunidad* Hernandez eta Ramirok (2015) landutako kontzeptua da. Batez ere MME-aren eta merkataritza eta inbertsio askerako itunen bitartez enpresa transnazionalen eskubideen babeserako eraiki den sistema juridiko global inperatibo, hertsia eta betearazle bati buruz ari dira. Autore hauek *lex mercatoria* edo merkatarien lege berri bati buruz hitz egiten dute, zeinean, enpresa hauen interesak inposatzeko, euren botere korporatiboa (ekonomiko, politiko, kulturala eta juridikoa) erabiltzen dute, merkataritzaren joko arauak euren alde jartzeko.

proposatzen du kontsumo eredu bezala. Gaur egun nagusi den kontsumo eredia Mancek (2008 eta 2009) deritzon kontsumo alienatuarekin bat dator. Kontsumo alienatua, publizitatearen eraginpean burututako kontsumoa litzateke. Kapitalismoak, hazkunde ekonomikoa beharrezkoa du bere hedapenerako. Eta beraz, kontsumoa areagotzeko nahiarekin, publizitatea integratzen da. Publizitateak produktu bat berez ez dituen propietateak eranstean dizkio, pertsonak gustukoak dituzten egoerak edo identitateak sorraraziz. Horrela behar faltsuak sorrarazten ditu. Kontsumo alienatua beraz, behar biologiko, kultural edo egoera batek sortutako beharrak asetzera bideratzen ez den kontsumoa litzateke. Eredu honek, lukuru kapitalista bermatzen du, ekoizpen zirkuitu kapitalista itxiz. Honetaz gain, ondasunen kopurua maximizatzea edo soilik ongizate pertsonala bilatzen duten ereduak leudeke. Aldiz, ongizate pertsonala zein kolektiboa bilatzen duen eredia, kontsumo solidarioa (Mance, 2004, 2008 eta 2009) edo kontsumo arduratsua (Webster jr., 1975; Roberts, 1993 eta Mohr, Webb eta Harris, 2001) litzateke.

Kontsumo arduratsuz hitz egiten dugunean beraz, oro har, kontsumitzaileek aurrera eramaten duten kontsumo pribatuaren ondorio publikoak kontutan hartzerakoan ematen da (Webster jr., 1975). Horrela, kontsumitzaileek ingurumenean eta jendartean efektu positiboa (edo ez hain negatiboa) eragiten duten produktu edo zerbitzuak lehenesten dituzte, efektu kaltegarriak saihesteko eta onuragarriak ahalik eta gehien handitzeko (Roberts, 1993 eta Mohr et. al., 2001). Hau da, esan dugun moduan, ez du soilik ongizate pertsonala bilatzen, baizik eta produktu edo zerbitzu horiek ekoizten eta merkaturatzen dituzten langileen ongizatea zein ekosistemen oreka zaintzen duen ongizate kolektiboa bilatzen duen eredia da (Mance, 2009).

Hala ere, kontsumo arduratsuaren terminoa izan duen tratamenduagatik, bere esanahia guztiz lausotu dela uste dugu. Izan ere, enpresa handiek euren gizarte erantzukizunerako sailen bitartez, kontsumitzaileen aurrean enpresa arduratsuak bezala aurkeztu ohi dira. Hala ere, askotan enpresa hauen aurpegia garbitzeko sailak baino ez dira. Izan ere, mota hauetako sailetan gehien inbertitzen duten enpresak antolakunde sozialen partetik salaketa gehien jasotzen dituzten enpresak dira. Eta beraz, marketin hutsera murrizten dira ekintza hauek guztiak (Peña, 2012). Horrela, ustez arduratsua den erosketa bat, erosketa alienatu bat bihurtu daiteke. Horrenbestez, kontsumo arduratsuaren terminoak duen irizpide normatiboen faltagatik, eta, enpresa handiek egin duten terminoaren erabileragatik, bere esanahia edukirik gabe geratu da neurri batean.

Hortaz, kontsumoa benetan arduratsua izateko, kontsumoaren izaera politikoa berreskuratzea beharrezkoa dela uste dugu. Kontsumoa, ekonomia kapitalistari sostengua ematen dion hanketako bat da; eta egun indarrean dagoen kontsumo praktikek beraz, eredu kapitalista erreproduzitzen dute. Logika horretatik ateratzea, eta ekonomia solidarioaren —edo bestelako— logikan dauden ondasun eta zerbitzuak kontsumitzea beraz, ekintza ekonomiko bat baino gehiago da; ekintza politikoa da. Ildo honetan, kontsumoaren ekintza, boterea ematen dio kontsumitzaileari, eta horren bitartez, langileen esplotazioa, ekosistemen suntsiketa, aberastasunaren kontzentrazioa edo bazterketa soziala bezalakoak babestea edo ez erabaki dezake (Mance, 2009). Aurrekoen aurrean, kontsumo arduratsu eta kontzienteak kontsumo ekologikoa, solidarioa, lokala, justua eta kooperatiboa barneratzen du (Lema, García eta Muñoz, 2015).

Balio katearekin bukatzeko, finantzen esparruan ere badu zeresana ekonomia solidarioak. Izan ere, aurrekoen sostengurako beharrezkoa da finantza sistema bat. Horrenbestez, ekonomia solidarioaren ikuspegitik finantza etikoak sortzen dira. Antzeman dezakegun moduan, finantza etikoek ohiko finantza kapitalisten jokabideetatik aldentzen dira.

Tradizionalki, dirua, salerosketak egiteko edo etorkizunak sortzen duen ziurgabetasunari aurre egiteko erabili ohi zen. Alabaina, gaur egun diruaren eginkizun horiek eraldatu egin dira, eta dirua salerosketak egiteko lanabesa bat izatetik, salerosketaren objektu gisa izatera igaro da. Hots, erosi eta saltzen dena dirua bera da (Torres, 2010). Finantza etikoek, diruaren lehenengo eginkizuna betetzen dute, hots, bitartekotza lanabesa dira. Baina, are gehiago, finantza etikoez hitz egiten dugunean, erlazio ekonomikoen demokratizazioa baimentzen duen baliabide bati buruz ere hitz egiten ari gara. Lurralde bakoitzeko komunitatearen oinarritzko beharrak asetzerantz bideratuta daudenak, giza garapenerako baldintzak sortuz; eta, pertsonen, eta batez ere, banku sistema tradizionalak baztertutako pertsonen zerbitzura jarriz (Franklin, 2004).

Finantza etikoen jatorria, finantza solidarioen⁵⁰ irakaspen ezberdinetatik abiatuta eta, 60ko hamarkadan AEBtako bankuek Vietnameko guda finantzatzen ari zirela

⁵⁰ Finantza solidarioen terminoak, finantzak demokratizatzea helburu duten finantza ekimen ezberdinak biltzen ditu. Muñoz-ek (2009) hauen parte diren hiru modalitate antzematen ditu: Finantza kooperatiboak, mikrofinantzak eta finantza etikoak. Finantza kooperatiboak, mugimendu kooperatiboari lotutako aurrezki eta kreditu kooperatibak barneratzen ditu bereziki. Mikrofinantzak, herri-ekonomian

ikusita, herri-mugimendu ezberdinetatik aurrera eramandako ekimenetan aurkitzen da (Teis, 2011). Hala ere, euren hedapena 80ko hamarkadan ematen da, batez ere iparraldeko herrialdeetan.

Esperientzia berri hauek, izaera anitzak dituzte. Batzuk banku arrunt edo komertzialetatik hurbilago eta beste batzuk urrunago. Ezagunenak banku etikoak lirateke, baina hauek ez dira esperientzia bakarrak. Banku etikoak, banku lizentzia dute eta herrialde bakoitzeko banku zentralengandik erregulatuta daude; eta beraz, aurrezkoa gordetzeaz gain, inbertsio funtsak, bonu etikoak etab. eskaini ditzakete. Hots, banku komertzialek eskaintzen dituzten zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna daukate; bankuak diren heinean. Hala ere, banku komertzialek eman dezaketen interes tasa altuen edo beste onuren gaintik, praktika etikoak gehiago baloratzen duten pertsonen zuzenduta daude. Izan ere, banku etikoak ez ditu praktika espekulatiboak aurrera eramaten; ekonomia errealean soilik inbertitzen duen heinean. Bai onura sozial duten aktibitateetan, bai ingurumenari begira onuragarriak direnetan. Hau da, jendartearekiko eta ingurumenerako inbertsio arduratsuak egiten ditu. Eta hauek ebaluatzeko, irizpide positibo (onargarriak) eta negatiboetan (baztertzailak) sailkatzen dituzte (Sacroisky eta Urturi, 2014).

Banku etikoak dena den, oso ezberdinak izan daitezke euren artean. Horrela, izaera juridiko ezberdinak izan dezakete (kooperatibak, fundazioak, elkarteak, baltzu laboralak edo baltzu kapitalistak), eta beraz jabego eta zuzendaritza egitura ezberdinak izan. Gainera, eragin eremua (lokala, estatu mailakoa, nazioartekoa) eta finantzazio eremua (garapenerako lankidetzak, bidezko merkataritza, enplegua, ingurumena, tokiko garapea, kooperatibismoa edo ekonomia solidarioaren parte diren enpresa ekimenak sustatzea) ere ezberdina izan daitezke (Sasia, 2010). Izatez, ez baitira banku etiko guztiak ekonomia solidarioaren parte. Ekonomia solidarioaren parte direnak, euren aurrezkiaren bidez finantzatzen dituzten proiektuak ekonomia solidarioaren logikan dauden proiektu eraldatzaileak lirateke. Izan ere, banku hauek ekonomia solidarioaren sareetan murgilduta daude eta ekonomia solidarioaren balioekin, printzipioekin eta egiturekin bat egiten dute.

dute jatorria eta hurbiltasunean oinarritutako erlazioak erabiltzen dituzte finantza sistema tradizionalak baztertutako unitate sozioekonomiko txikiei kredituak, aseguruak, *leasing*-ak, pentsioak etab. eskaintzeko. Azkenik, finantza etikoak leudeke.

Dudarik gabe, ekonomia kapitalistaren sektorerik esanguratsuenetarikoan barneratzeak ekonomia solidarioarentzako aurrera pauso handia suposatu du. Baina esan dugun moduan, banku etikoak ez dira finantza etikoen barruan kokatzen diren esperientzia bakarrak. Jarduera parabankarioa aurrera eramaten dutenak, mikroredituak eskaintzen dituztenak edo aseguru etikoak bezalako beste esperientzia batzuk barneratzen dira ere. Kasu honetan, jarduera parabankarioa aurrera eramaten dituztenak, ez dira bankuak eta beraz, ez baitute banku lizentziarik. Orokorrean pertsona eta antolakunde ezberdinek euren aurrezkoa funtsa batean sartzen dute, horrekin ekonomia solidarioaren logikan dauden, kalitatezko lana sortzen duten eta izaera kolektiboa duten beste proiektu autogestionarioak garatzen laguntzeko (Teis, 2011).

Mikroredituak, banku sistemara sartu ezin diren pertsona eta enpresentzako alternatiba bezala sortu ziren. Izan ere, finantzen ikuspuntu funtzional tradizionalak, diruaren kostuan, errendimenduan eta kontrolean oinarritzen da; pertsona eta enpresa batzuen kreditu eskubidea urratuz. Horrela, mikroredituak, diruaren demokratizazioaren ideiepean sortzen dira. Eta gehienbat, banku sistema tradizionaletik baztertuta zeuden aktoreen kapital zirkulatzailerari zuzendutako mikroredituen sistema batean bihurtu ziren (Franklin, 2004). Hegoaldean, herri-ekonomiara lotuta dauden bitartean, iparraldean, batez ere, garapenerako lankidetzara lotuta daude oro har. Aseguru etikoak, izaera mutualista duten antolakundeak dira. Finantza etikoen parte dira aseguruak produktu finantzarioak diren heinean. Antolakunde hauek, pertsona guztien aseguratzeke eskubidea defendatzen dute; eta beraz, pertsona guztien eskura jartzen dituzte aseguruak.

Kasu honetan ere, finantza etikoen izaera politikoa aldarrikatu behar dugu. Izan ere, finantza etikoek, pertsona guztientzako kreditu (eta aseguru) eskubidea defendatzen dute. Horrela kredituaren ikuspegi inklusibo batetik abiatzen dira, sistema kapitalistak baztertutako pertsona eta antolakundeei eskubide hori bermatuz. Kreditu eskubidea politikoa da, giza eskubide bat bezala ikusten delako; bizitza duina lortzeko lanabesa bat baita (Sasia, 2010).

Horrenbestez, eta laburtzeko, praktikan ekonomia solidarioak prozesu ekonomikoaren fase hauetako bakoitzean hurrengo taulan bildu ditugun alternatibak proposatzen ditu:

3.6. TAULA: Ekonomia solidarioaren proposamenak prozesu ekonomikoetarako

Prozesu ekonomikoa	Proposamen alternatiboa	Ezaugarri nagusienak
ekoizpena	- Lanean oinarritutako ekonomia	- Lanaren dimentsioak aitortu: lana enplegua baino gehiago da eta dimentsio pertsonala, soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala, ingurumenekoa dauka. - Lanari zentralitatea eman: lana pertsonen funtsezko elementutzat kontsideratzen da eta ekonomian eta gizartean parte hartzeko bidea da. - Lan kolektibo eta burujabea: langileak eurak dira euren lanaren jabeak.
Banaketa	- Bidezko merkataritza - Banakuntza zirkuitu laburrak	- Bidezkoagoak diren nazioarteko merkataritza-harremanak: bidezko merkataritzaren bitartez Hegoaldeko herrialdeetako langileen baldintzak bermatu nahi dira. - Tokiko ekonomiaren indartu: zirkuitu ekonomiko laburrek, ingurumenaren aldetik iraunkorrak izateaz gain, tokiko ekonomien eta komunitateen indartzea dakarte.
Kontsumoa	- Kontsumo arduratsua	- Ongizate pertsonala zein kolektiboa bilatu: behar propioak asetzen diren bitartean, besteren ongizatea bermatzen duen eredia da. - Kontsumoaren izaera politikoa aldarrikatu: kontsumoaren indar eraldatzailea aitortuz, gure kontsumoaren ondorio publikoak kontuan hartzen dituen kontsumitzeko eredia sustatzen da.
Finantzaketa	- Finantza etikoak	- Ez dira espekulatiboak: «ekonomia erreala» sustatzen duten bitartekotza finantzariorako antolakundeak dira. - Kreditu-eskubidea bermatzen dute: finantza-sistema tradizionaletik kanpo dauden sektore herrikoiek jarduera produktibo bat aurrera eramateko, kreditu-eskubidea bermatzen da. - Finantzaketarako irizpideak: armagintza, kontaminazio handiko industriak eta abarreko sektoreetan ez dute inbertitzen. Aldiz, eragin positiboa duten sektoreak lehenesten dituzten antolakundeak dira.

Iturria: Arrillaga (2021a:21).

3.4.3 Ekonomia solidarioaren sare egituraketa:

Ekonomia solidarioaren antolakundeez kanpoko egituraketari dagokionez, sare egituradun antolaketa jarraitu ohi du, antolakunde ezberdinekin, herri-mugimenduekin zein beste eragile politiko eta sozialekin eta jendarte zibilarekin ehuntzen dituen sareen bitartez. Gainera, ohikoa da ekonomia solidarioko antolakundeak eskala ezberdinetan dauden erreferentziazko antolakundeetan saretuta aurkitzea. Honen arrazoiak adibidez, indarrak batzea, ikusgarritasun handiagoa izatea, jendartearen aurrean eraldaketarako eragilea bezala aurkeztea, eragin politiko handiagoa lortzea, elkar ezagutzeko aukera izatea etab. direlarik.

Zentzu honetan, gaur egun, modu honetan antolatzen da ekonomia solidarioa: Nazioartean, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Promoziorako Kontinentarteko Sarea⁵¹ (RIPESS) legoke. Sare honek, Afrika eta Ekialde Ertaineko, Ipar Amerikako, Latinoamerika eta Karibeko, Europako, Ozeaniako eta Asiako sareak biltzen ditu. *RIPESS Europe*⁵²-ren barruan, herrialde ezberdinetako sare ezberdinak zein Europa maila dauden ekonomia solidarioa akademikoki promozionatzeko antolakundeak barneratzen dira. Estatu mailan, REAS sareen sarea legoke. REAS estatu mailan ekonomia solidarioko antolakundeak biltzen dituzten sareen sarea da. REAS-en barruan beraz, estatuko lurralde ezberdinetako sareak barneratzen dira (14 guztira); baina baita ere, sektoreka antolatutako 4 sare ere. Azkenik, hego Euskal Herrian, hiru sare aurkituko genituzke: REAS Euskadi⁵³ eta REAS Nafarroa⁵⁴, REAS-en parte direnak; eta bestetik Olatukoop⁵⁵.

Sare hauen parte izateko, antolakunde batek arestian aipatutako ekonomia solidarioaren printzipioak betetzera bideratu behar du bere enpresa-egitura. Hau da, ez dira irizpide baztertzailak, baizik eta enpresaren norabidea zehazteko erabiltzen dira. Horrela, gutuna sinatzen duen edozein antolakundek printzipio hauek betetzeko norabidea jarraituko duenaren konpromisoa hartzen du. Modu honetan, printzipioak betetzea prozesu bat bihurtzen da, geroz eta gradu handiagoan betetzera eramaten duena. Prozesu honi aldi berean, ekonomia solidarioko sare bakoitzak eskura jar dezakeen lanabesa⁵⁶ ezberdinekin jarraipena egin daiteke.

Printzipio hauetatik hedatzen dira beraz, ondoren antolakundeek aurrera eramango dituzten praktikak eta antolaketa ereduak. Askunzerentzat (2013), jokabide hauek, bestelako enpresa ekimenak bezala, errentagarritasuna, eraginkortasuna eta jasangarritasun tekniko eta finantzarioa behar badute ere, pertsonak —langileak edo interes orokorra— jarduera ekonomikoaren erdigunean jartzen dituzte. Horrela, merkatu

⁵¹ RIPESS: www.ripess.org

⁵² RIPESS Europe www.ripess.eu

⁵³ REAS Euskadi: www.economiasolidaria.org/reas-euskadi

⁵⁴ REAS Nafarroa: www.economiasolidaria.org/reas-navarra

⁵⁵ Olatukoop: www.olatukoop.eus Olatukoop-ek Ekonomia Sozial Eraldatzailea (ESE) terminoa erabiltzen du.

⁵⁶ Lanabesa hauek balantze edo ikuskaritza soziala izan daitezke. Hauek, antolakundeak ekonomia solidarioaren printzipioak betetzeko prozesu horren ebaluazioa eta egoera ezagutzea baimentzen duten tresnak dira. Adibidez, Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS Euskadi), modu honetan definitzen du: “*Auditoretza soziala erakunde baten eraginkortasun soziala eta helburuekiko jarrera etikoa ebaluatzeko prozesu bat da. Honekin gainera bere helburu sozialak eta solidarioak hobetzea eta elkartearen jarduerarengan interesa daukaten pertsonengana zabaltzea lortzen da*” (<http://www.auditoriasocial.net>)

kapitalistan agintzen duen mozkinen maximizatzearen ideia gainditzen da, bestelako helburu eta balioei lehentasuna emanez. Ildo honetan —jarritzen du Askunzek—, antolakunde hauek lehenetsiko lituzketen balioak hurrengoak lirateke:

- Ongizate soziala, bizi kalitatea eta garapen pertsonala lortzera bideratutako enpresa ikuspegia daukate.
- Pertsonentzako eta ingurumenerako onuragarriak diren ondasun eta zerbitzuak ekoiztera bideratutako enpresak dira.
- Antolakundeek kudeaketan autonomia, parte-hartzea, erantzunkidetasuna eta kooperazioa sustatzen duten antolakundeak dira.
- Langileen arteko aukera berdintasuna bermatzen dituzten praktika eta politikak aplikatzen dituzten antolakundeak dira.
- Soldatek erlazio justua eta proportzionala daukate.
- Ingurumen-iraunkortasunaren sustapena egiten dute.
- Mozkin asmorik gabeko enpresa ekimenak burutzen dituzte. Mozkinak egotekotan, hauek enplegu berriak sortzera, antolakundeek egitura hobetzera edo beste proiektu sozialetara bideratzen dituzte.
- Lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen laneratzea sustatzen dute.

Arestian aipatutako erreferentziazko sare hauetaz gain, ekonomia solidarioak geroz eta gehiago garatzen ari ditu ekoizpen eta kontsumo mugimenduen bitartez konektatutako sareak. Adibidez, ekoizpen-eremuko sare solidarioak, lankidetzaren sare solidarioak, kultur arteko zirkuitu ekonomiko solidarioak, merkatu sozialak etab.

Ildo honetan gehien teorizatu duen autoreetako batek, Euclides Mance (2004, 2008 eta 2009) filosofo eta ekonomialari brasildarra da. Mancek (2008) bere teoria lankidetzaren sare solidario edo *redes de colaboración solidarias*-en terminoaren inguruan garatzen du. Zentzu analitiko batean, sare hauek, ekonomia solidarioko antolakundeek arteko konexioak lirateke, non informazioa, balioak eta materialak zabaltzen diren lankidetzaren harremanen bitartez. Sare baten oinarritzko eragileak, autoreak deritzen unitateak, zelulak edo nodoak dira. Gure kasuan, ekonomia solidarioko antolakundeak, kontsumitzaile individual eta kolektiboak etab.

Zentzu estrategiko batean aldiz, sareetan eraldaketa ekonomiko, politiko eta sozialerako ekimenak berrelikatzen dira kapitalismoaren patroia eta prozesu

hegemonikoak iraultzeko asmoarekin. Hau da, ezberdinen arteko lankidetzan oinarritutako erlazioak beharrezkoak dira, sare hauetan, ekoizpen, banakuntza, kontsumo, finantzaketa zelulez gain, herri-mugimenduak, GKEak, sindikatuak, unibertsitateak eta logika horretan dauden bestelako antolakundeak ere daudelako (Mance, 2008).

Mance-k (1999; 2004; 2008), garrantzi handia ematen dio sare barneko kontsumoari; edo berak deritzon kontsumo produktiboari. Izan ere, kontsumo produktiboak sarea indartzen du, azken hau berrelikatzen duen heinean, eta, modu honetan, ziklo berriak sortzen ditu eskarian. Izan ere, amaierako kontsumorako behar dena ekoizteko sare osoa indartzen da hornitzaile, banatzaile eta/edo finantzatzaile gisa sareko beste antolakunde bat erabili bada. Hau da, sareko elementu bakoitzak kontsumo-zelula edo -nodo gisa jarduten du lehenik, bai bere beharrak asetzeko, bai ekoizpen-ziklo berri bati ekiteko (Arrillaga, 2021b). Ekoizpen katea logika honetan berregituratzen bada, azken kontsumitzaileen eskakizunak bermatzeko, sare guztiaren ekoizpen prozesua hobetzera bultzatzen du; bidean zelularik galdu barik. Izan ere, zelularen bat bidean eroriko balitz, sare osoa ahulduko luke; sarearen barne eskaria murriztu eta ekoizpenerako gaitasuna txikituko lukeelako (Mance, 2008).

Gure testuinguruan, logika honetatik hurbil dauden merkatu sozialen esperientzia azpimarratu genezake. Kasu honetan, merkatu sozialak integrazio eredu horizontalago batetik abiatzen dira, non hainbat antolakunde, kontsumitzaile eta beste eragile harremantzen diren eta elkarlanean aritzen diren herritarren beharrei erantzun integrala emateko (aurreko atalean azaldutako balio katean osoan); ekonomia solidarioko ekoizpen sareak bertikalizatzeko proposamen gisa baino gehiago (Arrillaga, 2021b).

Orokorrean, merkatu soziala, ekonomia solidarioak bidezko merkatu berri, demokratiko eta solidario bat bultzatzeko duen lanabesa da. Praktika ezberdinak batzen dituena eta ekoizle eta kontsumitzaileak harremanetan jartzen dituena, enpresa eta kontsumitzaile indibidual eta kolektiboen sare bat sortuz. Bertan, ekonomia solidarioaren printzipioak praktikan jartzen dira, esperientzia ezberdinak elkarren artean lotu eta ezagutzen diren bitartean (Askunze, 2013).

Arnold eta Galán-entzat (2014), merkatu soziala, ekonomia solidariotik aurrera eramaten diren ekimenetatik eraldaketarako gaitasun handienetakoa duena izan daiteke. Izan ere, merkatuaren azken helburua mozkin indibidualak maximizatzea ez dela erakusten du; baizik eta, ongizate kolektiboa bilatzea konfiantzan, hurbiltasunean eta

elkarrekikotasunean oinarrituta dagoelarik. Eta beraz, merkatuaren eta erlazio pertsonalen desmerkantilizazioa dakar. Hala ere, autore hauentzat, merkatu soziala garatu eta zabaldu ahal izateko, gutxienez hiru baldintza ematea beharrezkoa izango da: Lehenik, herri-mugimendu zabal eta trinkoa beharrezkoa da. Ekonomia eta merkatua bizi baldintza hobekoak, aberastasunaren banaketa eta iraunkortasuna lortzeko funtsezko espazio bat ulertzen duena eta horren alde lan egingo duena. Bigarrenik, ekoizpen, komertzializazio, finantzazio eta kontsumo ekimen ezberdinak artikulatuko dituzten lanabesak teorikoki deskribatu eta praktikoki bultzatuko dituen lurraldeko antolakunde baten ezarpena. Gaur egun, estatu Espainolean dauden merkatu sozialetan⁵⁷, modu ezberdinetan heldu zaio baldintza honi; kasu batzuetan merkatu soziala artikulatzeko antolakunde bat sortu da, eta beste batzuetan lurralde bakoitzeko REAS-en sareak artikulatzen du. Azkenik, eraldaketaren protagonista aktibo sentitzen diren kontsumitzaileen masa kritikoa beharrezkoa da.

Hurrengo koadroan, merkatu sozialaren inguruko ipuin labur bat irakurri dezakegu; kontzeptu hau hobeto ulertzen lagunduko diguna.

11. KOADROA: Merkatu sozialaren inguruko ipuina

Te despiertas a golpe de alarma de tu iPhone, siete y diez, suena la SER desde la aplicación que te proporciona el explorador privativo, vale, va, diez minutos más, con bastante PRISA, enciendes la luz que te suministra Unión Fenosa, abres el grifo de la ducha que te calienta Gas Natural. Con la toalla por turbante aún, prendes la kettle para hacerte un Hornimans (el sabor de una taza de té...), te comes unas galletas Fontaneda McVities, un Actimel bebido y unas uvas que vienen de Chile. Te metes en un tupper unos restos de una pasta preparada que hiciste anoche: Gallina Blanca, grupo Alimen. Mientras suenan las señales horarias de las ocho y se te enfría el té, te da por leer la cajita donde vienen las bolsitas de la infusión: ME FUNCIONA, se llama. Bajas a la carrera a por el Hyundai, ingeniería japonesa; conduces sola hasta el trabajo, te metes en las oficinas. Bien. El día acaba de comenzar. (...).

Al día siguiente. Te despiertas a golpe de alarma de tu iPhone, siete y diez, suena la SER, vale, va, diez minutos más..., hasta que el sonido del timbre te saca del segundo sueño. ¿Quién leches será? Con el albornoz del Primark mal abrochado y el pelo tieso como la mojama gracias a unos productos sionistas Garnier, vas a abrir la puerta pensando que será tu vecina, que otra vez dice que tu coche no le deja sacar la bici. (...) Al abrir la puerta, un hombre vestido de verde y tan pequeño que parece un duende, te pregunta si te has cambiado ya. ¿Cómo? La verdad es que te sale bastante borde, pero el hombre no parece mal tipo. “Sí, que si te has cambiado ya”. Te das cuenta de que estás en pijama. “No, no me he cambiado”. “Entonces es el momento. Te invito a un té”. Estás tan dormida y tan sorprendida que le dejas pasar. El hombre lleva un pequeño termo (todo es pequeño en él) con una bebida que sirve en dos pequeños vasitos. “Bebe”, te dice. Sigue sonando la canción de *Atrapado en el tiempo* y ya piensas que aún no te has despertado. Apuras el vasito y, ¡voilà! Desde el navegador Firefox de tu nueva red conectada a un nodo de guifi.net de la radio ha dejado de sonar el soniquete

⁵⁷ Estatu mailan dauden merkatu sozialak: Aragoi, Euskadi, Nafarroa, Katalunia, Madril, Balear Uharteak eta Valentzia. Informazio gehiago: www.mercadosocial.net

de la SER (...). El pequeño señor vestido de verde sigue en medio de tu cocina y está transformando a golpe de baile un montón de cosas: unas ricas rebanadas de pan de centeno hecho en un pueblo cercano a tu ciudad salen de tu tostador enchufado, según él, a la red de Som Energía, cooperativa de consumo energético. El duende te propone echarle a las tostadas miel de cantueso, también producida en la sierra de tu ciudad por un apicultor tradicional. Y unos albaricoques de unos frutales tampoco muy lejanos han aparecido en el cesto de la fruta. ¡Qué jugosos! Con una pirueta, el hombrecillo transforma tu albornoz raído “Hecho en Pakistán” por un mono verde fluorescente directamente reciclado de los 90, ¡wow!

Al bajar a la calle, te percatas de que estás en un edificio de viviendas comunitarias, no sabes si subir a tu bici que hace años que no tocas o apuntarte a ese coche compartido en tu barrio. Y en tu vieja tartrera han aparecido unos boniatos al horno que huelen a gloria. (...). “Pero, a ver, ¿tú quién demonios eres?”, le preguntas al tipo bajito. “Soy MES, el genio del Mercado Social. Tú misma me invocaste al vivir 365 días atrapada infelizmente en todos estos hábitos de consumo”, dice el hombre señalando tu cocina y tu casa. “¿Mercado Social? Eso parece un juego de palabras imposible”. “Jeje, sí, pero no: somos algo real, una red de producción, distribución y consumo de bienes, como el pan y la miel que te acabas de comer, o de servicios, como tu nueva conexión a internet... Nuestra red funciona de otra manera, más allá de todo el enganche capitalista”.

La verdad es que nunca te había dado por pensar que había “otra manera”. El duende verde y pequeño te sigue contando más acerca de criterios éticos, democráticos, ecológicos y solidarios con los que funciona el mercado del que viene; te habla de las empresas, las entidades, así como de las consumidoras individuales y colectivos. “Vaya, suena muy bien, MES... Pero lo de “quitarse” de la economía capitalista no debe ser tan fácil, ¿no? (...) “Ajá, es verdad, nadie dijo que esto fuera fácil: tendrás que dedicar algo más de tiempo a tus compras, y a veces los precios de los productos son más altos, pero porque están en consonancia con su valor real. Ya lo decían las abuelas: lo barato sale caro”. (...).

Iturria: Silvia Nanclares (2016ko maiatzak 29). Diagonal egunkaria. Laburpena egileak egina. Berreskuratuta: <https://www.diagonalperiodico.net/global/30519-atrapada-la-economia-capitalista.html>

Merkatu sozialaren eta REAS-en lurralde sareen erakusleho nagusia, ekonomia solidarioaren feriak lirateke. Feriek, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko espazioa izateaz gain, proiektu ezberdinak eta proiektu horietan diharduten pertsonak ezagutzeko aukera ematen dute. Proiektu, pertsonak eta ideiak bat egiten duten espazioak dira, eta parte-hartzaileen ahalduntzea, elkar ezagutzea eta berrespena bilatzen duten topagune jendetsuak izanik; kolektiboaren indarra sentitzeko baliagarriak dira ere (Arnold eta Galán, 2014).

Ekonomia solidarioak bere ingurunearen garapenean eragiteko sare egituradun beste lanabesa bat moneta sozialak dira. Moneta soziala, legezkoa den monetatik paraleloan garatzen den moneta lokal bat da. Lurralde bateko ekonomia modu berdinzaleago batean dinamizatzeko erabiltzen dena. Monetaren erabiltzaileak dira hau kudeatzen dutenak elkarren arteko laguntza eta konfiantzazko erlazioen bitartez. Esan dugunez tokiko ekonomia dinamizatzeko erabiltzen da, moneta sozialak ez baitu interesik sortzen, eta beraz, honen metaketak ez du zentzurik. Modu honetan,

espekulazioa ekiditen da, eta monetaren sarearen barnean dauden ekoizle eta kontsumitzaileen arteko truke erlazioak areagotzen dira; monetaren errotazioa handia delako (Askunze, 2013).

Moneta sozialaren eta lurralde bateko moneta legalaren arteko erlazioa ez da zertan baztertua izan behar, eta beraz, moneta alternatiboa bezala edo osagarria bezala ikusi daiteke. Dena den, tokiko ekonomia dinamizatzen duen eta elkarren arteko laguntzaren logikan jarduten duten ekimen eta kontsumitzaileak saretzen dituen komunitatea litzateke, zeinean truke erlazioak komunitate horretan baliagarria den moneta propio batekin ematen diren. Eta erabiltzaile horiek dira monetaren kudeaketa aurrera eramaten dutenak, horrela demokrazia ekonomikoan sakonduz. Gehiegi sakondu gabe, esan dezakegu moneta sozial baten ezaugarri nagusienak hurrengoak liratekeela (Bisaggio, 2009):

- Demokratikoki kudeatzen den moneta da.
- Ekonomia lokala dinamizatzen du.
- Erabiltzaileek ematen dioten konfiantza da monetaren balioa babesten duena.
- Zirkulazioa areagotzen du. Ezin dira jarduera espekulatiboak aurrera eramanez.
- Ongizate kolektiboa bilatzen du mozkinen gaitetik. Metaketak ez baitu zentzurik.

Bestetik, tokiko mailan trukea areagotzeko bestelako sare egituradun ekimenak proposatzen dira ekonomia solidariotik. Hala nola denbora bankuak, trukean oinarritutako sareak edo elkarlanean oinarritutako kontsumo taldeak. Oro har, ondasun eta zerbitzuen trukaketa sistemak direnak, baina ez dutenak inolako monetarik erabiltzen horretarako. Hauek guztiak, maila lokalean elkarlanean aritzeko eta elkarbanatzeko proposamen komunitarioak dira, elkarren arteko konfiantza erlazioak indartzen dutenak eta elkarlaguntzan oinarritzen direnak, ekimen pribatu kapitalisten logikatik at (Askunze, 2013).

Azkenik, ekonomia solidarioaren eta administrazio publikoaren inguruko harremani dagokienez, azken honen garrantzia azpimarratu beharra dago lehenengoaren hedapenerako. Alabaina, ekonomia solidarioa, ekonomia sozialarekin alderatuta instituzionalki ez dago hain egonkortuta. Batetik, agerikoa denez, ibilbide historiko laburragoa jorratu duelako, eta bestetik, influentzia eta ikuspegi teoriko ezberdinetatik eratorritako errealitate sozioekonomiko ezberdin asko termino

bakarraren aterkiaren pean teorizatzeak errealitatea egonkortzeko orduan zailtasunak sortu ditzakeelako (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2014 eta 2015a). Gainera, ekonomia solidarioak ez du ekonomia sozialak egiten duen mugapena egiten izaera juridikoari dagokionez, eta beraz, horrek ekonomia solidarioaren teorizaziorako eta instituzionalizaziorako arazoa izan daiteke. Ekonomia solidarioaren mugapena egiteko zailtasun metodologiko handiagoak aurkitzen baitira multzo heterogeneoagoa osatzen duen heinean. Horregatik, ekonomia solidarioaren inguruko legedi propioa ez da, oro har, hainbeste garatu⁵⁸, eta ekonomia solidarioak, ekonomia sozialaren legediaren menpe geratzen da; esperientzia batzuk horren kanpo geldituz.

Horrez gain, ekonomia merkatura eta esparru soziala estatura mugatzen duen ikuspuntu sinplistik eragin zuzena dauka ekonomia solidarioaren hedapenean. Hots, arlo ekonomikoak merkatuaren eskura utzi, eta arlo sozialak aldiz, estatuaren eskura uzten dituen moldeak, ekonomia solidarioaren inguruko politika iraunkorrak garatzea zaildu du; eta beraz, babes instituzionala lortzea ere. Bestalde, babes politikoak ematen direnean, beste arazo batzuk antzematen dira ekonomia solidarioaren barnean. Izan ere, askotan babes eta laguntza horiek kooperatiba eta mutualitate handi eta formalki instituzionalizatuagoak direnak pilatzen dituzte, sortzaileagoak izan ohi diren elkarte txikiak baino. Ikusten dugun moduan, ekonomia solidarioak oraindik zailtasun handiak erakusten ditu politika publikoetan agertzeko; batez ere, estatu-eskalan (Laville, 2016).

Dena dela, azken urteetan ekonomia solidariotik lan ildo garrantzitsu bat abian jarri da administrazio publikoarekiko harremanetan sakontzeko. Modu honetan, sektorearen inguruko legediaren bitartez, kontratazio publiko arduratsuen bitartez edo ekonomia solidarioa eta administrazio publikoaren arteko lankidetzaren bitartez ekonomia solidarioa sustatu daiteke esparru publikotik. Hau da, administrazio publikoa ekonomia solidarioaren sare egitura horretan barneratu daiteke ere.

Kontratazio publiko arduratsua, Europar Komisioak definitzen duen moduan hurrengo litzateke:

“Las Contrataciones Públicas Socialmente Responsables «CPSR» se refieren a las operaciones de contratación que tienen en cuenta uno o más

⁵⁸ Oro har, garapen juridiko handiagoa dauka ekonomia sozialak. Hala ere, azken urteetan, ekonomia solidarioa barneratzen duten Ekonomia Sozial eta Solidarioaren legeak onartzen joan dira herrialde batzuetan (Frantzia eta Grezia kasu)

de los siguientes aspectos sociales: oportunidades de empleo, trabajo digno, cumplimiento con los derechos sociales y laborales, inclusión social (incluidas las personas con discapacidad), igualdad de oportunidades, diseño de accesibilidad para todos, consideración de los criterios de sostenibilidad, incluidas las cuestiones de comercio ético y un cumplimiento voluntario más amplio de la responsabilidad social de las empresas (RSE), a la vez que se respetan los principios consagrados en el Tratado de la Unión Europea (TUE) y las Directivas de contratación. Las CPSR pueden ser una herramienta muy eficaz para avanzar en el desarrollo sostenible y para alcanzar los objetivos sociales de la UE (y los Estados miembros). Las CPSR cubren una amplia escala de aspectos sociales, los cuales pueden tener en cuenta las entidades adjudicadoras en la etapa apropiada del procedimiento de contratación. Los aspectos sociales pueden combinarse con los aspectos ecológicos en un enfoque integrado hacia la sostenibilidad en las contrataciones públicas.” (European Commission, 2011).

Lesmes eta Álvarez de Eulate-k (2014) esaten duten moduan, kontratazio publiko arduratsuen atzean dagoen logika erraza da ulertzen: Ez du zentzu handirik aurrekontu publikoen zati handi bat kontaminatzen duten edo pertsonen eskubideak errespetatzen ez dituzten enpresei esleitzea. Aldiz, kontratazio publiko arduratsuak, irizpide sozial, etiko eta ingurumenaren aldekoak barneratzea proposatzen du; bai kontratu publikoetan, eta baita ere enpresa lizitatzaileretan edo kontratistetan. Modu honetan, administrazio publikoek jendarteratzea eta laneratzea, bidezko merkataritza edo kalitatezko enplegua lehenetsi dezakete euren kontratu edo lizitazioetan. Izan ere, administrazio publikoa, bere osotasunean, estatuko kontsumitzaile eta enplegu sortzaile handiena da. Eta beraz, botere handia izateaz gain, erantzukizun handia dauka ere. Bere esku gelditzen baita klausula sozialak barneratzea kontratu publikoetan edo ez.

Bestalde, geroz eta garrantzia handiagoa hartzen ari du lankidetzaren publiko-pribatua. Adibidez, garapenerako lankidetzaren inguruan edo tokiko garapeneraren testuinguruan. Modu honetan, sektore pribatua, garapenerako politiketan eragile garrantzitsu bezala ikusten da. Alabaina, lankidetzaren eredu honetaz etekina ateratzen duten enpresak, enpresa kapitalista handiak izaten ari dira. Izan ere, Ramiro eta Pérez (2011) dioten moduan, enpresa pribatuentzako, sektore publikoarentzako eta garapenerako GKEentzako onuragarriak izango diren etekinak lortuko direla

argudiatuz, “kapitalismo inklusibo” honen praktikak areagotzen ari dira. Honen atzean, enpresa multinazional handien gizarte erantzukizunerako sailak leudeke, eta benetako helburua piramidearen oinarrian⁵⁹ negozio egitea litzateke.

Hala ere, ekonomia solidarioa ere miatzen hasi da sektore publikoarekiko lankidetzaren eredu hauek. Etxezarreta et. al. (2015) esaten duten moduan, adostasun eta lankidetzaren eredu hauetan, ekonomia solidarioak finantzaketa publikoa lortzen du proiektu ezberdinak bultzatzeko, baina kudeaketa ekonomia solidarioak mantentzen du, hauen autonomia bermatuz. Honela, jendarte antolatua ekonomia solidarioaren forman bultzatutako ekimenen bitartez administrazio publikoaren babesa lortzen dute finantzaketa publikoaren bitartez; baina ekonomia solidarioaren balio eta printzipioak kolokan jarri gabe. Interesgarria izan daiteke, Quebec-en egin den moduan, lankidetzaren praktika hauek, lurralde bateko garapen estrategian estrategikoak diren sektoreetan areagotzea. Ildo honetan, lehen agertu zaigun kontzeptu bat berreskuratzen dugu orain; ko-erikuntzaren, alegia. Izan ere, lehen ekonomia solidarioaren antolakundearen kudeaketa eredu zabalarik erreferentzia egiten genion moduan, orain, politika publikoak diseinatzeko orduan sektore publikoaren eta ekonomia solidarioaren arteko eraikuntza partekatuei erreferentzia egingo diogu.

Aldi berean, ko-ekoizpena politika publikoaren aplikazioan ematen diren lankidetzaren prozesuei erreferentzia egiten die (Vaillancourt, 2009). Aurreko kapituluetan ikusi dugun moduan, ko-erikuntza eta ko-ekoizpen prozesu hauek, gobernantza ereduaren markoan kokatzen dira. Hala ere, gobernantza ereduak ez dute beti bermatzen jendarte zibilaren parte-hartzea politika publikoaren diseinuan eta aplikazioan; merkatuko eragileak bakarrik kontutan hartu ditzaketelako lan honetarako. Ekonomia solidarioa lankidetzaren eredu hauek jendarte zibilera hurbiltzeko baliagarria izateaz gain, sektore pribatu kapitalistaren eta administrazio publikoaren arteko harremanen bitartez hedatu daitezkeen zerbitzuen pribatizazioa ekidin eta logika komunitario batean jarri ditzake.

⁵⁹ Piramidearen oinarriaren teoriak (Prahalad, 2005), pobrezia egoeraren egoteagatik merkatutik kanpo dauden pertsonak merkaturatzea du helburu. Beste modura esanda, munduko biztanleriaren bi heren, merkatutik kanpo daude, eta teoria honen helburua egoera honetan dauden pertsonak kontsumitzaileak bihurtzea du helburu; horrela, sektore pribatu kapitalistak hazkunderako aukera berriak izango ditu.

12. KOADROA: Ekonomia solidarioaren eta administrazio publikoaren arteko lankidetzaren BERZIKLATUREN adibidea

BERZIKLATU, Ortuellako udalerrian dagoen enpresa da, eta hondakin handientzako soluzioa eskaintzen du. Hondakin handiak (altzariak, lastariak, etxetresna elektronikoak etab.) biltzen dituzte, ondoren aztertzeko eta merkatura zer objektu itzuli daitezkeen erabakitzeko. Itzuli daitezkeenak konpontzen dituzte eta merkaturako zirkuitura itzultzen dira bigarren eskuko denden bitartez. Konpondu ezin dituztenak aldiz, kategoria ezberdinetan sailkatzen dituzte, ondoren birziklatzeko.

Ortuella, Trapagako haranaren iparraldean kokatzen da, mendi artean baina Santurtzi edo Barakaldo bezalako udalerririk handiekin muga eginez eta Bilbotik 10 kilometrotara. Eta beraz, BERZIKLATUra heltzen diren hondakinen kopurua, handia da. Enpresaren kokalekuari dagokionez, ingurumenaren ikuspuntutik berreskuratutako ingurune batean kokatzen da. Izan ere, tradizionalki meatzaritzara lotutako eskualde batean kokatzen da, eta meategietan sortzen ziren hondakinak isurtzen ziren tokian eraiki da.

Europar aitzindaria den ekimena da, lankidetzaren publiko-pribatuari dagokionez. Izan ere, sektore publikoaren (Bizkaiko Foru Aldundia (BFA) eta GARBIKER enpresa publikoa) eta bi erakunde sozialen (Emaús eta koopera) arteko lankidetzaren bitartez aurrera eman den ekimena da. BERZIKLATU, ingurumenagatik egiten duen lanaz gain, laneratze enpresa bat da, non jendarte bazterketa egoeran edo honen arriskuan dauden pertsonak lan-munduan txertatzea bilatzen den; laneratze enpleguaren bitartez.

BERZIKLATU Bizkaiko 2005-2016 Hiri Hondakinen Kudeaketako II. Plan Integralaren barruan sartzen den ekimena da. Plana, BFAk diseinatu du eta jarduera aipatutako bi erakunde sozialak aurrera eramaten dute. Hortaz ezin dugu hitz egin ko-erakuntza prozesu batez, baina bai ko-ekoizpen prozesu batez.

BERZIKLATU, izatez baltzu mugatua da. Hots, egituraren aldetik enpresa kapitalista. Hala ere, honen jabetzaren %50 publikoa da eta beste %50 erakunde sozialak dute. Gainera, REAS Euskadi eta Gizateako⁶⁰ sareetako kidea da; eta beraz, ekonomia solidarioko printzipioekin bat egiten du.

Iturria: www.berziklatu.eus Egileak moldatuta.

3.5 Ekonomia Sozial eta Solidarioa:

Orain arte egindako analisisian ekonomia soziala eta ekonomia solidarioa bananduta aztertu ditugu. Eta ikusi dugun moduan, bakoitzak jorratzen duen papera ez da berdina. Batetik, ekonomia sozialak ibilbide historiko luzea izateaz gain, garapen instituzional garrantzitsua lortu du herrialde ezberdinetan. Eta horrenbestez, nahiko egonkortua dago nazioarteko ekonomian zein mundu akademikoari dagokionez (ikusi dugunez, ez dago arazo gehiegirik ikuspuntu honetatik sektorea mugatzeko edo definizio bat emateko). Eta bestetik, ekonomia solidarioa kontrako egoeran dagoela esan dezakegu. Ez du ibilbide historiko luzeagirik, eta ikusi dugun moduan,

⁶⁰ Gizatea, Euskadiko laneratze enpresa gehienak biltzen dituen elkarte da. Jendarte justuago baten mesedera dagoen ekonomia solidario baten (REASekin oso harreman estua dauka) garapenean parte-hartzea du xede gisa. Laneratze enpresak lanabesa lirake gizarte bazterketa egoera dauden pertsonak enplegatzeko (www.gizatea.net).

instituzionalizatzeko arazoak ditu (behintzat, esparru formalean eta politika publikoei dagokionez; izan ere herri-mugimenduekiko duen hurbiltasunagatik, jendarte-egitura informaletan errotzeko duen gaitasuna handiagoa izan dezake). Dena den, kontzeptu eta errealitate ezberdinak diren arren, gertutasun handiko kontzeptuak dira ere. Horrela, azkenengo urteetan, geroz eta onarpen handiagoa duen beste kontzeptu bat indartu da: Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS).

ESSaren terminoa, argi dagoenez, ekonomia sozialaren eta ekonomia solidarioaren arteko gerturatze baten ondorioa da. Alabaina, kontzeptuaren sorkuntza indarrak batzeko asmoz egin den arren, eta beraz, elkarren arteko onarpenean oinarrituta egon den arren, bere egokitasunaren eta beharraren inguruko eztabaida piztu da, batez ere esparru akademikoan.

Esan genezake eztabaida honi heltzeko bi ikuspuntu kontrajarriak daudela. Pérez de Mendiguren eta Etxezarretak (2015a) diotenez, alde batetik, ekonomia sozialaren aldeko jarrera batzuetatik, ekonomia sozialari “eta solidarioa” abizena jartzeak ez diola teoriko zein metodologikoki gehiegirik gehitzen defendatzen dute. Gogora dezagun ekonomia sozialak ikuspegi juridiko bat jarraitzen duela sektorearen mugapena egiteko, eta normatiboki, ekonomia sozialaren printzipioen bitartez zehaztuta dagoela. Beraz, onartuta eta egonkortua dagoen kontzeptu baten inguruan nahasmena sorraraziko duen kontzeptua bezala ikusten dute ESSa. Gainera, ekonomia solidarioaren izaera politikoagoagatik eta bere jarrera nabariki antikapitalistagatik, sektorea joera utopikoegia hartu dezakeela argudiatzen dute; ekonomia sozialaren erronka estrategikoetatik eta antolaketaren inguruko erronketatik urrunduz.

Kontrako aldetik, ESSa erabiltzeak ekonomia solidarioaren izaera eraldatzailea diluitzen duela argudiatzen da. Eta gogoratzen da ere, ekonomia solidarioaren sorkuntza, neurri handi batean ekonomia sozialak XX. mendean jarraitutako ibilbidearekiko kritikoa zen jarrera batetik sortzen dela. Hauen iritziz, ekonomia sozialak hasieran eraldaketa sozialerako zuen potentziala galtzen joan da merkatuetan arrakasta lortzen zuen heinean; jatorrizko izaera eta printzipioak alde batera utziz. Horrenbestez, ekonomia solidarioa eraldaketa soziala helburu duen ikuspegi ekonomiko alternatibo bat bezala sortu zen, diskurtso politikoago batekin eta ekonomiaren izaera substantiboa eta plurala aldarrikatuz. (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015a).


Esan bezala, ESSa gerturatze baten ondorioa izan da, eta beraz, bakoitzaren jatorrizko kokapenetik zenbait pauso mugitu direla esan dezakegu. Adibidez, ekonomia

3. KAPITULUA: EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

sozialaren mugapena egiteko orduan, zenbait kasuetan (adibidez, 5/2011 legean), irizpide juridiko tradizionalen bitartez egindako mugapena zabaldu da. Eta, zabalpen horrekin sektorea neurtzeko zailtasun gehiago aurkitu daitezkeen arren, eta beraz, erronka metodologiko berriak sortu daitezkeen arren, orain, ekonomia sozialaren antzeko logikan lan egiten duten beste esperientzia batzuk barneratzen dira. Lehen euren izaera juridikoagatik kanpoan geldituko lirakeenak. Kasu honetan, ekonomia sozialaren hiru familia tradizionalaz gain, laneratze enpresak, enplegu zentro bereziak, jarduera ekonomikoa duten fundazioak etab. barneratzen dira ekonomia sozialaren barnean; lehen, kanpoan geldituko lirakeenak kooperatiba, elkarte edo mutualitate ez izateagatik (Etxezarreta eta Morandeira, 2012; Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2014).

Beste aldetik, ekonomia solidarioa aterki teoriko zabalago batetik abiatzen den arren, denborarekin ekonomia sozialaren irizpide metodologikoak eta egiturak erabiltzen joan da geroz eta gehiago bere ekimen solidarioetan. Hain da horrela, ze ekonomia solidarioaren mugapena egiteko, askotan erabiltzen dira ekonomia sozialaren irizpide juridikoak ekonomia solidarioaren printzipioei gehituta (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2014 eta 2015a). Esan behar da gainera, gerturatze teoriko eta metodologiko hauetaz gain, azkenaldian geroz eta elkarlan handiagoa ematen ari dela hauen barnean jarduten duten eragileen artean. Hurrengo irudian, ESSa osatzen duten antolakundeak biltzen dira:

3. IRUDIA: ESSa osatzen duten antolakundeak



Iturria: Laville eta García-Jané (2009:135). Egileak itzulita.

Nazioartean ere, onarpen handia lortzen ari duen kontzeptua da. Nazio Batuen testuinguruan bi ekimen izan daitezke garrantzitsuenak. Alde batetik LANE-k urtero antolatzen duen Ekonomia Sozial eta Solidarioaren inguruko Akademia⁶¹, eta bestetik Gizarte Garapenerako Nazio Batuen Ikerkuntza Institutuak ESSaren inguruan sortutako lantaldea⁶² legoke. Esparru akademikoago batean, RELIESS aipatu beharra dago. RELIESS, ESSa eta politika publikoen arteko loturak aztertzen dituen erreferentziazko erakundea da. Gure artean, Euska Herriko Unibertsitateko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren institutua (GEZKI)⁶³ eta ESSaren inguruan aurrera eramaten duen graduondokoa edo Mondragon Unibertsitateko Lanki⁶⁴ ikertegia aipatu genitzake.

Dena den ESSaren terminoaren inguruko eztabaida ez da bukatu, eta gutxienez hiru jarrera ezberdin aurkitzen ditugu: Batetik, terminoa ukatzen dutenak, bestetik ekonomia soziala, ekonomia solidarioa eta ESS sinonimotzat hartzen dituztenak, eta azkenik, ekonomia sozialaren eta ekonomia solidarioaren identitateak errespetatzea eskatzen dutenak, bertatik ESSaren inguruan aliantza teoriko-politikoak eraikitzeke (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015a).

Terminoa ukatzen dutenen artean, CIRIECen inguruan lan egiten duten autore ezberdinak leudeke. Ikuspegi honetan, ekonomiaren izaera plurala onartzen bada ere, ekonomia sozialaren aterkipean sartzten dituzte ekonomia plural horren eragile eta esperientzia guztiak. Hau da, bere gertutasunagatik, ekonomia solidarioa, ekonomia sozial berria, herri-ekonomia etab. ekonomia sozialaren aterkipean sartzten dituzte. Horrela, Monzón eta Chaves (2012) esaten duten moduan, sektore hauek guztiak nukleo komuna lukete; ekonomia soziala. Modu honetan, ekonomia solidarioa ekonomia sozialaren azpisektore bat bezala gelditzen da.

Bigarren jarreratik, ESSa oso bateragarriak diren bi kontzeptu biltzen dituen ez da terminoaren inguruko eztabaidetan erori nahi. Ikuspegi hau batez ere Latinoamerikan ematen da, eta Coraggio (2011) bezalako autoreak jarraitzen dute. Hauen iritziz debatea kapitalismoari alternatiboa den beste ekonomia baten proiektu eta ekintzetan eman

⁶¹ Ekonomia Sozial eta Solidarioaren inguruko Akademia: www.socialeconomy.itcilo.org

⁶² Lantalde honetan, Nazio Batuen Erakundearen barne erakunde ezberdinak parte hartzen dute. Hala nola LANE, UNESCO, NBGP, NB Emakumeak, FAO eta beste 15.

⁶³ GEZKI: www.gezki.eus

⁶⁴ Lanki: www.mukom.mondragon.edu/lanki/

behar da, eta ez hauek deitzeko moduan. Bestetik, Quebec-en ere ikuspegi hau jarraitzen da neurri handi batean. Izan ere, bertako ekonomia sozialaren kontzepzioa ekonomia sozial berritik gertuago dago, eta beraz, ekonomia sozialaren hiru familia tradizionalak baino gehiago onartzen duen ikuspegia jarraitzen dute bertan (Lévesque, 2003), beharrezkoa izanik ekonomia sozialaren adiera tradizionala gainditzen duen beste termino bat erabiltzea.

Azkenen ikuspegitik aldiz, ekonomia soziala eta ekonomia solidarioaren arteko ezberdintasunak onartzen dira, elkarren arteko aitortpena ematen den bitartean. Kasu honetan, indarrak batzearren elkartzen dira ESSaren kontzeptuan. Hau da, ESSa elkarren arteko lankidetzarako espazio bat litzateke, non eraikuntzarako tokia dagoen, baina baita ere bakoitzaren jokabideen inguruan eztabaidatzeko. Izan ere, lehenago azaldu dugun ekonomia sozialaren antolakunde batzuen isomorfismo prozesuak kritikatu daitezkeen moduan, ekonomia sozialak, ekonomia solidarioak izan ditzakeen beste arrisku batzuetaz ohartarazten du. Hala nola, estatuarengatik kooptatuak izatea (batez ere elkarteen kasuan), eta beraz, autonomia galtzea; merkantilizaziorantz eman daitezkeen joera; edo, elkartasuna asistentzialismo bihurtzeko arriskua, ekonomia sozialaren egiturak erabili ezean. Horrenbestez, jarrera honetatik ez da mendekotasun erlazorik ematen bien artean, eta are gehiago, elkarren arteko beharra onartzen da bakoitzaren bizioak ekiditeko (Draperi, 2013).

ESSaren inguruko eztabaida aztertu eta gero, kontzeptua hobeto ulertu dezakegu; nahiz eta zaila izango den definizio bateratua ematea. Izan ere, aztertu ditugun jarrera bakoitzetik definizio ezberdina proposatuko litzateke seguru asko. Hala ere, biak partekatzen dituzten ezaugarrietan arreta jarritz, mugapen bat egin dezakegu.

Laburbilduz, beste ekonomia baten eraikuntzarako proiektu bateratu bat bezala ulertu dezakegu ESSa. Hots, ekonomia kapitalistarekiko, eta bertan diharduten enpresa kapitalistekiko bestelako logika batean dagoen proiektua bezala. Izan ere, ekonomia sozialak eta ekonomia solidarioak egiturazko ezaugarri ugari partekatu dezakete: Jarduera ekonomikoa aurrera eramaten duten antolakundeen multzo bat dira, enpresa kapitalista edo publikoekiko jabetza kolektibo eta independentea dutenak. Demokratikoki kudeatzen dira, eta zenbait alderdi, hala nola, erabakitze ahalmena edo irabazien banaketa, ez dira kapitalaren arabera zehazten; are gehiago, kasu batzuetan, azken horien banaketa mugatuta dago. Beraz, pertsonen inguruan —eta ez kapitalaren inguruan— eraikitzen den sektore batez ari gara; non ekitea erabakitzen

duten pertsonak beren patuaren jabe eta arduradun izanik egiten duten (Chaves eta Monzón, 2012:9). Izan ere, antolakunde ez-kapitalistak edo a-kapitalistak dira, non, Guik (1991) dionez, onuradun kategoria ez duten inoiz inbertitzaile kapitalistek osatuko. Hala, ESSko erakundeetan, balioaren sorkuntza ez da lotzen plusbalioa sortzearekin, baizik eta bazkideen beharrak asetzearekin eta/edo interes orokorrarekin (Monzón, 2006; Arrillaga, 2021b).

Horregatik esan daiteke ESSak pertsonak jarduera ekonomikoaren erdigunean jartzen dituzten ekimen kolektiboak osatzen dutela. Arrillaga-k (2021a:12-13) egiten dituen xehetasun batzuekin: i) pertsonak diogunean, pertsona indibidualak, erabiltzaileak, komunitatea, ingurumena etab. esaten ari gara. ii) Erdigunean jartzeak eredu ez kapitalista bat jarraitzea esan nahi du. Ez dira kapitalak kontrolatzen, kudeatzen eta gidatzen dituen antolakundeak izango, hau ez delako helburu bat bezala ikusten, baizik eta bitarteko bat bezala. Helburua aldiz, pertsonen ongizatea izango da. iii) Jarduera ekonomikoa, merkatukoa, ez merkatukoa eta ez diruzkoa izan daiteke. iv) Eta, kolektiboak dira eta demokrazia ekonomikoan sakontzen dute.

3.6 Ekonomia Sozial eta Solidarioaren inguruko beste eredu eta praktika interesgarriak:

ESSa ez da dena den sistema kapitalistari edo/eta ideologia neoliberalari alternatibak planteatzen duen eredu bakarra. Beste batzuk ere existitzen dira eta ESStik hurbilago edo urrunago egonik, eredu eta praktika interesgarriak planteatzen dituzte. Ildo honetan, asko dira azkenaldian ekonomia eraldatzaile berriei buruz, eredu ekonomiko berriei buruz edo ESSarekiko afinitatea duten enpresa ereduari buruz idazten duten autoreak (Pérez de Mendiguren et. al., 2009; Arin, 2017; Chaves eta Monzón, 2018).

Chaves eta Monzón (2018) diotenez, 2007ko krisi handiarekin, garai neoliberalaren enpresa eredu esanguratsuaren zilegitasun krisi bat ematen da. Enpresa hauek aurrera eramaten dituzten praktika bidegabeak eta jendartearen zein ingurumenaren kontra doazenak, eredu hau zalantzan jartzea ekarri du. Izan ere, ekonomiak geroz eta behar gutxiago asetzeaz gain desparekotasun sozialak handitzen ditu. Egoera honen aurrean, ikuspegi eta helburu ezberdinekin paradigma ekonomikoa zalantzan jartzen dituzten proposamen eta eredu berriak sortzen ari dira.

Ez ditugu denak azalduko gure gai zentraletik gehiegi urruntzea izango zelako eta lan honen helburu eta mugak gainditzea izango zelako. Horregatik, ESStik gertu dauden Guztien Ongizaterako Ekonomia, enpresa sozialak eta ekintzailtza soziala dira azalduko ditugunak.

Enpresa soziala XX. mendeko azken hamarkadan sortzen den kontzeptua da. Bere hedapena nagusiki Europan eta Amerikako Estatu Batuetan eman da, eta batez ere ezaguna da *social enterprise* bere termino ingelesagatik; hizkuntza honetan egin baitira ekarpen akademiko nagusienak. Terminoarengatik dena den, oraindik nahasmen handia dago; batez ere mozkinen besteko tradizio anglosaxoiak eta ekonomia sozialaren tradizio frankofonoak terminoa ulertzeko moduan eragina izaten jarraitzen baitute. Bestalde, ohikoa da enpresa soziala ekonomia sozialaren parte diren enpresei erreferentzia egiteko erabiltzea, eta zehatzago, honen parte diren laneratze enpresak izendatzeko (Pérez de Mendiguren et. al., 2009). Bere hedapen akademikoari dagokionez, bi korrante nagusi aurkitu ditzakegu: Lehena, Amerikatik datorrena, eta ekintzaile sozialaren figuran garrantzi handiagoa jartzen duena, eta bigarrena, Europarra, EMES⁶⁵ sareak bultzatzen duena (Defourny eta Nyssens, 2012).

Ikuspegi Estatubatuarra Harvard-eko Unibertsitateko *Social Enterprise Initiative* negozio eskolatik lehenengo, eta Comlumbia, Standfor eta Yaleko unibertsitateetatik geroago, babesa akademikoa ematen zaio. Enpresa sozialaren ikuspegi honen hastapenak —terminoa ondoren sortu den arren— aurreko mendeko 80ko hamarkadan daude. Izan ere, mozkinen besteko antolakunde askoren finantzaketa publikoa murrizten zen testuinguru batean, euren biziraupena antolakunde hauek finantzatzeko zituzten enpresa berrien sorkuntzan aurkitu zuten. Horrela enpresa sozial asko merkatuan jarduten dute euren mozkinen bitartez mozkinen besteko antolakundearen xede soziala finantzatzeko (Pérez de Mendiguren et. al., 2009 eta Chaves eta Monzón, 2018).

Esan bezala, ikuspegi Estatubatuarrek —eta geroz eta gehiago Europan— ekintzaile sozialaren figurari garrantzia handia ematen dio. Kasu honetan, antolaketa ereduari baino, ekintzailtza berari ematen diote garrantzia gehiena. Ekintzailtza soziala, xede soziala duten ekimen enpresarialeak izendatzeko erabiltzen da, eta ekintzaile soziala, ekimen hori burutzen duen pertsona litzateke. Nazioartean ekintzaile sozialei

⁶⁵ EMES sarea, 1996. urtean sortzen den sarea da eta enpresa sozialaren inguruko Europako ikertzaileek osatzen dute (www.emes.net).

laguntza emateko fundazio ezberdinak sortu dira, hauen artean *Ashoka*⁶⁶ eta *Schwab*⁶⁷ ezagunenak izanik. Ikuspegi honen ezaugarri nagusienak Pérez de Mendiguren et. al (2009) antzematen dituzten honako lau hauek izango lirateke: i) Indibidualki ekimen bat hasten duen pertsona ameslari eta liderraren figurari lehentasuna ematen dio. ii) Ekintzaile soziala arazo sozialentzako irtenbide berritzaileak bilatzen dituen pertsona litzateke. iii) Berrikuntza horiek beste testuinguruetan aplikatzeko gaitasuna bilatzen dute, eragina eskala handikoa izan dadin. iv) Ekintzailetza soziala edozein sektoretan eta edozein egitura juridikoen bitartez aurrera eraman daitezkeenaren ideia.

EMES sareari lotuta dagoen ikuspegi Europarrari dagokionez, enpresa sozialen izaera kolektiboan, demokratikoan eta sozialean jartzen da arreta. Europako enpresa sozialek 90eko hamarkadan Italian sortutako kooperatiba sozialean aurkitzen dute euren hastapenak. Eredu hau, desenpleguan eta jendarte bazterketa egoeran zeuden pertsonen egoera jardura ekonomiko baten bitartez konpontzen laguntzeko sortu zen. Eta ez merkatuaren bidez mozkinen besteko antolakundeak finantzatzeko xedearekin. Esan genezake, zerbitzu publiko batzuen hornidura ulertzeko bestelako modu bati jarraitzen diotela ongizate estatuaren ahultze garai batean (Pérez de Mendiguren et. al., 2009). EMES sareak egiten duen mugapenari begiratuta, esan dezakegu, enpresa sozialen ikuspegi europarra komunitateari on egiten dion xede sozial bat duten enpresak direla, erabaki-hartze prozesuaren gehiengoa demokratikoa dela, eta, mozkinen banaketa mugatua dutenak (Chaves eta Monzón, 2018). Zehatzago, bi irizpide multzo erabiltzen ditu: ekonomikoak eta sozialak (Defourny, 2001; Defourny eta Nyssens, 2012):

⁶⁶ *Ashoka* (www.ashoka.org) 1980an sortutako fundazioa da. Bill Draytonek sortu zuen, Mc Kinsey and Companyko aholkularia izandakoa. Nazioartean ekintzaile sozialentzako laguntza-programak aurrera eramaten ditu (Pérez de Mendiguren et. al., 2009).

⁶⁷ *Schwab Foundation for Social Entrepreneurship* (www.schwabfound.org) 1998an sortutako fundazioa da. Klaus eta Hilde Schwab-ek sortu zuten. Klaus eta Hilde Schwab dira hain zuzen 1971. urtean Munduko Foro Ekonomikoa sortu zutenak. Foro honetan, urtero munduko lider politiko eta enpresari nagusienak biltzen ditu. Schwab Foundation Goldman Sachs, Microsoft, Boston Consulting Group eta Ernst & Young bezalako enpresen bazkidea ere bada (Pérez de Mendiguren et. al., 2009).

3.7. TAULA: Enpresa sozialak definitzeko irizpideak EMES-en arabera

Irizpide ekonomikoak	Irizpide sozialak
- Ondasunak eta / edo zerbitzuak ekoizten dituen jarduera jarraitua aurrera eramatea	- Komunitateari mesede egitea enpresa hauen helburu esplizitua izan behar du
- Autonomia maila altua izatea	- Herritar talde batek abian jarritako ekimena izatea
- Arrisku ekonomiko maila esanguratsua izatea	- Kapitalaren jabe goan oinarrituta ez dagoen erabakitze prozesuak izatea
- Ordaindutako lan minimo bat izatea	- Izaera parte-hartzailea dute, ekimena bultzatzen duten pertsonak biltzen dituenak
	- Irabazien banaketa mugatua

Iturria: Defourny (2001) eta Defourny eta Nyssens (2012). Egileak moldatuta.

Azkenik, enpresa sozialaren beste ikuspegi bat legoke. Ikuspegi honetatik, enpresa sozial bat, helburu soziala duen negozio bat aurrera eramaten duena izango litzateke. Ikuspegi berriagoa litzateke eta ikusi dugun lehenengo ikuspegiaren eboluzio gisa kontsideratu dezakegu. Lehen mozkinen besteko antolakunde batek abian jartzen zuen negozioa baldin bazen, orain, nagusiki izaera soziala duen negozioa litzateke. Ikuspegi honek, enpresa handien gizarte erantzukizunaren antzeko logika jarraitzen du. Eta beraz, edozein egitura juridiko izan dezaketen enpresak dira —irabazi asmoa izan dezaketenak— baina xede sozial bat helburu bezala dutenak (Chaves eta Monzón, 2018). Ikuspegi honen erreferentziazko antolakundeak B-korporazioak⁶⁸ lirateke.

Guztien Ongizaterako Ekonomia edo *economía del bien común* Christian Felber (2012) ekonomialari Austriarrak sortutako eredu da. Lehenengoz 2010ean publikatutako liburuan jasotzen ditu eredu honetarako ekarpen teoriko nagusienak. Bertan, merkatuko ekonomiari eta ekonomia planifikatuari alternatiba eman nahi dio autoreak. Izan ere, autoreak, ekonomiaren azkenengo helburua ongizate komunaren zerbitzura jartzea dela kontsideratzen du. Eta hortik abiatuta, egungo eredu ekonomikotik kanpo gelditzen diren arlo sozial eta ingurumenarekin erlacionatutakoak barneratu nahi ditu, eredu ekonomikoaren lehentasunak aldatuz (Arin, 2017). Ongizate komuna lortzeko beharrezkoak diren aldaketa sozial horiek teorikoki zein praktikoki barneratzea eskatzen du ereduak; balio ekonomiko berriak sortuz.

⁶⁸ *B-corporations*, “B” egiaztapena duten enpresak sozialki eta ingurumenaren aldetik estandar altuenak betetzen dituztela egiaztatuta dauden enpresak dira. B-korporazioek negozioen kultura aldatu nahi dute negozio arrakastatsuak ber-definituz, ekonomia sostengarriagoa egiteko (www.bcorporation.net).

Ongizate komunaren ekonomiak, hiru lan ildo proposatzen ditu: Ekonomikoa, politikoa eta soziala. Ekonomikoki, edozein tamaina eta izaera duen enpresa, antolakunde, herri-erakunde, udalerrri eta abarrentzako alternatiba ekonomiko aplikagarriak garatzen ditu. Politikoki, pertsonentzako eta planetarentzako bizitza ekitatiboa aurrera eramatea ahalbidetzen duten aldaketa legalak bultzatu nahi dira. Eta sozialki, sistemaren aldaketa beterako kontzientziazioa bilatzen du (www.economiadelbiencomun.org).


Horretarako, aipatu ditugun antolakunde ezberdinak eskura dituzte ongizate kolektiboari egiten dioten ekarpena neurtzeko lanabesak. Lau faseetan banatuta dagoen eredu bat proposatzen da (Chaves eta Monzón, 2018):

1. Ongizate komunerako balantzea: Enpresaren urteko emaitzak neurtzen ditu, ongizate komunaren balioak zein gradutan defendatu dituen aztertzeko.
2. Ongizate komunerako matrizea: Enpresa batek jarraitzen dituen balioak definitu eta kuantifikatzen ditu.
3. Ongizate komunerako txostena: Enpresa batek ongizate komunerako aurrera eramaten dituen ekimenak barneratzen dituen txostena da.
4. Ongizate komunerako kanpo ikuskaritza: Kanpoko ikuskatzaileek aurrera eramaten duten prozesua da. Enpresari 0 eta 1.000 puntu arteko balorazioa egiten diote, ongizate komunerako indikatzaileen arabera.

Aipatutako balioak, ongizate kolektiboa lortzeko ordena ekonomiko berriaren oinarriak bezala kontsideratzen dira. Lau multzoetan sailkatzen direlarik: Giza duintasuna, elkartasuna eta justizia, ingurumen iraunkortasuna, eta azkenik, gardentasuna eta parte-hartze demokratikoa (www.economiadelbiencomun.org). Esan genezake, Guztien Ongizaterako Ekonomia, ohiko enpresei beste eredu baterako trantsizioa proposatzen diela, eskaintzen dituen lanabesen bitartez. Ikuspegi batzuetatik enpresentzako gizarte erantzukizun korporatibo konprometituagoa bilatzen duela ulertzen da; beste batzuetatik aldiz, ohiko enpresa sisteman barneratu daitekeen eredu eraldatzaile bat bezala ikusten da.

Hurrengo irudian, Álvaro Porro-k ekonomia eraldatzaileen inguruan egindako eskema ikusi ahal dugu. Bertan, orain arte ikusitako eredu asko agertzen dira euren konpromiso ekosoziala eta funtzionamentu demokratikoagatik sailkatuta:

4. IRUDIA: Ekonomia eraldatzaileen ekosistema



Iturria: Álvaro Porro (2017/05/29) ¿Que son las economías transformadoras?
Hainbat aldizkarietan publikatuta⁶⁹.

Aurretik esan dugun moduan, ez daukagu lekurik lan honetan eskeman agertzen diren eredu guztiak azaltzeko, baina ideia bat egiteko baliagarria zaigu eskema honek. Ikusten dugun moduan, laneratzera bideratutako ekonomia soziala, non enpresa sozialak aurkitu genitzakeen, nahiko gorara arte iristen da; eta beraz, boterea hierarkizatua izan dezakeela ikusten dugu. Izan ere, laneratzeko enpresetako batzuk ez dira izaera demokratikoa duten antolakundeen bitartez sortzen, baina ikusi dugunez, euren balio sozialagatik ekonomia sozialaren kontzeptio berri eta zabalaren parte dira.

Bestalde, kooperatibak bananduta aztertzen ditu. Nahiko kudeaketa demokratikoa aitortzen die, baina aldi berean euren konpromiso ekosoziala zalantzan jartzen du kasu batzuetan. Izan ere, dagoeneko azaldu dugun isomorfismo prozesuak eragina izan dezake kooperatiba batzuek konpromiso hori alde batera uzterakoan. ESSa aldiz, horizontaltasunean eta konpromiso ekosozial altuan kokatzen du autoreak. Azkenik, Guztien Ongizaterako Ekonomiari konpromiso ekosozial altua aitortzen dion bitartean, nahiko hierarkizatua dagoela ere antzematen du. Izan ere, eredu honetan, kapitalaren inguruan eraikitako enpresa asko aurkitzen baitira.

⁶⁹ Berreskuratuta: <http://opcions.org/es/nos-gusta/las-economias-transformadoras/>

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Tokiko garapenak eta ESSak⁷⁰ elkarren artean dituzten elementu komun eta bateragarrien bitartez, lurralde baten garapenean sinergia ezberdinak sortu ditzakete. Abiapuntu honetatik, hasten ari garen laugarren kapitulu honetan, aurreko kapituluak lantzerakoan antzeman ditugun harremanetan eta elkarri egin diezaioketen irakaspenetan arreta jarriko dugu. Hau da, lurraldeak gaur egun agintzen duen testuinguru globalizatu baten parte direla kontuan izanik, baina aldi berean, paper berindartua dutela jakinik, bertan eman daitezkeen garapen prozesuak ESSan oinarritzeko duten arrazoietan, eta ESSan oinarrituta egotegatik lor ditzaketen onurak aztertuko ditugu. Ondoren, kapituluaren bigarren zatian, irakaspen hauetatik abiatuta, tokiko garapen eredu eraldatzaile baterako ezaugarriak proposatzen dira.

⁷⁰ Irakurleak antzemango du kapitulu honetan zehar ekonomia sozial eta solidarioa (ESS) terminoa hobetsi dela ekonomia sozial edo ekonomia solidarioaren aurretik. Arrazoi ezberdinengatik: Batetik, ESSaren terminoak pluraltasun eta zabaltasun handiagoa eskaintzen digulako, bi errealitateak hurbiltzen dituen heinean. Bestetik, bakoitzak dituen indar eta ahulguneak konpentsatzen direlako. Gainera, ekimen hauek agenda partekatu baten markoan kokatu daitezkeela uste dugu. Eta beraz, ikerlan honen azken asmoa praktikoki erreplikagarria izatea denez, eta ekonomia sozialean eta ekonomia solidarioan jarduten duten eragileen artean geroz eta elkarlan handiagoa ematen ari denez, praktikoagoa dela iruditzen zaigu. Hala ere, bakoitzari bere berezitasunak aitortzen dizkiogu, eta kasu konkretuetan behar izanez gero, ekonomia soziala edo ekonomia solidarioa erabiliko ditugu.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Izan ere, ageriko elementu komunak daude tokiko garapena eta ESSaren artean. Alabaina, hauek ez dute garapen teoriko gehiegirik izan. Gainera, ez da, gure ustez, azterketa honetara elkarren arteko guztizko onarpen eta berdintasun jarrera batetik heldu. Hau da, bietatik bat abiatze posizio gisa hartuta egiten da hurbilketa. Eta beraz, egiten den azterketa partziala da. Hots, tokiko garapenaren abiatze jarrera batetik, ESSa honetarako lanabesa osagarri bat bezala ikusten da; lurraldeek duten baliabide endogeno onuragarri bat bezala, adibidez. Aldiz, ESSaren abiatze jarrera batetik ikertu izan denean, honek tokiko ekonomia batean eragiten dituen onurak azpimarratzen dira, baina ez da ESSa lurralde edo komunitate horren garapen estrategian barneratzen. Hau da, komunitate batean enplegua sortu edo kohesio soziala areagotzen duten antolakundeak bezala azaltzen dira, baina ez dute epe luzeko garapen estrategia batean jokatu dezaketen papera aztertzen.

Kapitulu honen bitartez beraz, tesiaren bi helburu orokorrei erantzungo zaie. Batetik, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko marko teoriko partekatua osatuko delako, eta bestetik, ESSan oinarritutako tokiko garapeneko eredu eraldatzaile baterako ezaugarriak proposatuko direlako.

4.1 Orain arte egindako hurbilketak. Berrikuspen bibliografiko bat:

Badira, esan dugun moduan, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko harremanak aztertu izan dituzten lan ezberdinak. Hauek, gutxienez lau multzo ezberdinetan sailkatu daitezkeelarik. Alde batetik, badaude tokiko garapen endogenoa eta ekonomia sozialaren arteko harremanak aztertzen dituztenak (Fernandez, 1999; Mozas eta Bernal, 2006; Gallego, 2008; Vázquez-Barquero, 2018). Badaude ere, ekonomia soziala landa garapenerako tresna bezala ikertu dituztenak (García, 1997; Buendía eta Lins, 2000; Igual eta Martí, 2008; Juste, Gómez eta Fernández, 2001; Eversole, Barraket eta Luke, 2013). Azpimarragarria da, bi kasu hauetan, baina batez ere landa garapenaren ikuspegitik idazten duten autoreek, kooperatibismoari ematen dioten paper zentrala. Nahiz eta badiren ere, nekazaritzako eraldakuntza baltzuen, lan-sozietateen, elkarteen eta fundazioen garrantzia azpimarratzen duten lanak ere (Rodríguez eta Mozas, 2000). Hirugarren multzo bat, berrikuntza sozialaren eta garapen komunitarioaren inguruko ikasketetatik hedatzen dena litzateke (Bouchard eta Levesque, 2010; Klein et. al., 2012).

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Eta honetan, bereziki azpimarragarria da Quebec-eko *CRISES*⁷¹ institutuak aurrera eramaten duen ikerketa lana. Baina baita ere hirien eta auzoen garapen komunitariorako esperientziak (Fabreau, 1997; Moulaert eta Nussbaumer, 2005b). Azkenik, ekonomia solidarioa eta tokiko giza garapena edo tokiko garapenaren ikuspegi eraldatzaileenak biltzen dituzten ekarpenak leudeke (Coraggio, 2004 eta 2007b; Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014; Zulaika, 2017). Edo, are gehiago, posgarapenaren ikuspegi ezberdinetatik egindako hurbilketak ere barneratu genitzakeen hemen (Villalba eta Pérez de Mendiguren, 2019).

Antzeman ditzakegu ere, eta bi corpus teoriko hauen arteko gertutasunaren seinalea da, bietan aditu diren autoreak. Hau da, nahiz eta tokiko garapenaren eta ESSaren arteko harremanetan ez sakondu, biak aztertu izan dituzten autoreak. Hemen, interesgarriak izan daitezke Moulaertek (2003) eta Moulaert eta Aileneik (2005) egin dituzten sintesiak; edo Ash Aminen (1998 eta 2013) lanak. Ildo honetan ere, Coraggioren bilakaera interesgarria izan daiteke, zeinek hasieran tokiko garapenarekiko lotura handiagoa erakusten zuen (adibidez, Coraggio (1972)), eta ondoren, ESSaren inguruko aditu garrantzitsuenetarikoa bihurtu den Latinoamerikan (Bere obrarik ezagunena: Coraggio (2011)).

Aipatutako lehenengo multzoan, nahiko esanguratsua da garapen ekonomikoari, eta honi lotutako ezaugarriei jartzen zaion arreta. Ekonomia sozialak enplegu egonkorra sortzeko, aktibitate ekonomikoak sortzeko eta berrikuntza teknologiko-zientifikoa lortzeko duen gaitasunari erreparatzen diote oro har (Mozas eta Bernal, 2006; Gallego, 2008; Gómez eta Fernández, 2008). Izan ere, ekonomia sozialeko antolakundeak kapital sozialean intentsiboak direnez (Spear, 2001), tokiko garapen ekonomikorako eta tokiko berrikuntza sistemak garatzeko beharrezkoak diren interakzioak eta konfiantza harremanak sortu eta sendotzeko orduan, erabilgarritasun handia dutela diote autoreek.

Ildo honetan, Gallegok (2008) egiten duen sailkapena interesgarria izan daiteke. Autore honentzat, merkatuko ekonomia soziala tokiko konfiantza ekonomikoa

⁷¹ *Centre de recherche sur les innovations sociales* edo *CRISES* institutua, 1986an sortutako unibertsitate institutua da. *Université du Québec à Montréal*-en (UQAM) sortu arren, unibertsitate eta diziplina ezberdinetako 48 ikertzaile biltzen ditu. Institutuak, berrikuntza eta eraldaketa sozialaren inguruan lan egiten du; lau lan ildoetan: i) Berrikuntza sozialak eta eraldaketak politika eta praktika sozialean. ii) Berrikuntza sozialak eta eraldaketak lurraldean eta kolektibitate lokaletan. iii) Berrikuntza sozialak eta eraldaketak enpresa kolektiboetan. iv) Berrikuntza sozialak eta eraldaketak lan eta enpleguan (www.crisis.uqam.ca).

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

areagotzeko lagungarria da, epe luzean enpresen arteko enpresa-estrategia komunak aurrera eramatea erraztuz. Gainera, sor daitezkeen konfiantza handiko sare dentsoen bitartez, egitura produktiboaren antolaketan eta berrikuntza sistemen garapenean abantaila ekonomiko ezberdinak ahalbidetzen ditu. Eta beste aldetik, ez merkatuko ekonomia sozialak, tokiko konfiantza soziokulturala areagotuko luke; eta beraz, garapen instituzionala.

Horrez gain, nahiko orokorra da ekonomia sozialak baliabide endogenoen aktibaziorako eta dinamizaziorako, enpresa- eta ekintzaitza-kultura sustatzeko eta bere jarduera ekonomikoa tokiko beharrei egokitzeko duen gaitasunaren ideia (Gómez eta Fernández, 2008; Juste, Gómez eta Fernández, 2011).

Landa garapenaren eta ekonomia sozialaren arteko harremanak aztertzen dituzten autoreek, azaldu berri dugun autoreen multzoarekiko estrategia analitikoak partekatzen dituzte. Are gehiago, kasu batzuetan berdin erabiltzen da tokikoa eta landakoa; edo lurralde garapenaren terminoaren bitartez gainditzen dute ezberdintasun horiek (Fernandez, 1999; Mozas eta Bernal, 2006; Juste, Gómez eta Fernández, 2011). Hala ere, hemen abiatze egoera ez da berdina. Izan ere, landa eremuetan eremu industrial edo/eta urbanoetan ematen ez diren despopulatzeko prozesuez gain, balio sozial eta ekologiko handia dituzten espazioen eta baliabideen narriadura arriskua handiagoa dago (Tomás eta Monzón, 1998).

Aurretik aipatu ditugun onura orokorrez gain, ekonomia sozialak, landa eremuan berrikuntza laguntzeko duen gaitasuna azpimarratzen da ikuspegi honetatik. Izan ere, ekimen indibidual batek berrikuntza erakartzeko eta hau lurraldean zabaltzeko izan ez dezakeen gaitasuna erakusten du ekonomia sozialak. Adibidez, nekazarien kooperatiben edo nekazaritzako eraldakuntza baltzuen bitartez, lurralde bateko nekazariei berrikuntza teknologikoa transferitzen zaie, beste modura zailago izango zuten ongarriak, haziak, makineria, azpiegitura, energia etab. nekazarien artean zabaltzeko aukera eskaintzen duen heinean (García, 1997). Horrez gain, ekonomia sozialak landa eremuan beharrezkoak diren enpresentzako zerbitzuak eskaintzeko, turismoa⁷² sustatzeko edo

⁷² Komunitatean oinarritutako turismoa eta ekonomia sozialaren arteko harremanak ikertu dituzten autore ezberdinak aurkitzen ditugu. Izan ere, ekonomia sozialeko antolakundearen bitartez, lurralde batean turismoaren gaineko erabaki parte-hartzaileagoak hartzea ahalbidetzen du. Eta landa eremuetan espresuki, garapen ekonomiko, sozial eta kultural jasangarriagoa lortu dezake (Johnson, 2010; Iorgulescu, eta Răvar, 2015).

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

garapen industrialak lortzeko duen potentziala azpimarratzen da ere. Izan ere, soilik nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritutako landa ekonomiaren ikuspegia gainditu egin da, eta jarduera dibertsifikatuagoak ezartzen ari dira landa ekonomietan (Tomás eta Monzón, 1998; Mozas eta Bernal, 2006).

Badira bestalde, landa eremuetako gobernantza eredu berrietan ekonomia sozialaren garrantzia nabarmentzen duten autoreak ere. Nekazarien eta administrazio publikoaren arteko harreman berriak sortu, konfiantzan oinarritutako sareak indartu eta nekazaritza jarduerak lurraldean ber-errotu dezaketelako (Wiskerke, Bock, Stuver eta Renting, 2003). Adibidez, enpresa inkubategien bitartez (De Pablo eta Uribe, 2009).

Lehenengo bi ikuspegi hauek antzekotasun ugari partekatzen dituzte. Batez ere, ekonomia sozialak tokiko zein landa garapenari eskaintzen dizkien abantailak antzekoak direla antzematen dutelako. Laburbiltzearen, hauek liriateke aipatuenak (García, 1997; Mozas eta Bernal, 2006; Juste, Gómez eta Fernández, 2011):

- Ekonomia sozialeko antolakundeak, lurraldeari gehiago errotzen dira; eta, enpresen lekualdaketarako edo itxiera selektibo baterako arriskua gutxiago da.
- Ekonomia sozialak errentaren eta aberastasunaren banaketa berdinzaleagoa aurrera eramaten du.
- Krisien aurrean egonkortasun ekonomikoa sustatzen du.
- Ekonomia sozialak enplegu duin eta egonkorragoak lortzen ditu lurraldeetan.
- Formakuntza sustatzen du.
- Berrikuntza eta haren zabalpena ahalbidetzen du lurraldeetan.
- Kohesio sozial eta ekonomikoa sustatzen dute.
- Ongizate soziala sustatzen dituzten ondasun eta zerbitzuak ekoizten ditu.
- Garapen jasangarriago baterako oinarriak ezartzen ditu.
- Parte-hartzea eta demokrazia ekonomikoa sustatzen du lurraldeetan.
- Landa eremuetako berezko arazoak erantzuteko gaitasuna du.
- ...

Hala ere, hauek, ekonomia sozialak tokiko ekonomiari edo lurraldeari eragiten dizkien onura ekonomiko eta sozialak liriateke. Eta garrantzitsuak diren arren, ez da zehazten ekonomia sozialaren sustapena norabide estrategiko gisa duen garapen prozesu baten ondorioa diren, edo ekonomia sozialeko antolakundeen agerpen espontaneo baten ondorioa diren.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Gaiari berrikuntza sozialaren ikuspegitik heltzen dioten autoreak asko dira. Izan ere, berrikuntza soziala tokiko garapenerako eredu bat edo enpresa egiteko modu bat berez ez den arren, dudarik gabe lotura handia dauka tokiko garapenarekin eta ESSarekin. Batetik, adibidez sozialki berritzaileak diren eskualdeak (Moulaert eta Nussbaumer, 2005a eta b; Moulaert, 2008; MacCallum et. al., 2009; Zurbano, et. al., 2014b) edo lurraldeetako gobernantza sistemak (Zurbano, 2008; Estensoro eta Zurbano, 2010; Estensoro et. al., 2011; Lévesque, 2013a) berrikuntza soziala oinarri izanik garatzen direlako. Eta bestetik, ESSaren baitan garatzen diren ekimen ugari berrikuntza sozial gisa kontsideratu daitezkeelako (Moulaert eta Ailenei, 2005; Bouchard eta Lévesque, 2010; Defourny eta Nyssens, 2013).

Moulaertek (2008) planteatzen duen sozialki berritzailea den eskualdearen ikuspegian, eskualde sozial bat, opresioa edo alienazioa erreproduzitzen ez dituzten egitura parte-hartzaile berriak garatzen dituen eskualdea da; behar sozialak asetzeko beharrezkoak diren baliabideetara irisgarritasuna bermatzen dituena.

Bestalde, testuinguru batzuetan, berrikuntza soziala azkenaldian ESSaren, eta, batez ere, enpresa sozialaren inguruko literaturaren ugaritzearen atzetik dagoela antzeman daiteke (Defourny eta Nyssens, 2013). Alabaina, kasu honetan, enpresa sozialaren zein kontzepzioetatik heltzen diogunaren arabera, berrikuntza sozialaren ikuskera batetik edo besteatik hurbilago egongo gara. Hau da, enpresa sozialaren ikuspegi Estatubatuarretik, behar sozialak asetzera bideratutako enpresa ekimenak barneratzen diren arren, ez dute demokrazia ekonomikoan edo/eta jabego kolektiboa bezalako elementuetan arreta jartzen; eta beraz, kapitalismoaren hedapenerako erabilgarria den berrikuntza sozialaren ikuskeratik hurbilago egongo ginateke. CRISES institutuak egiten duen hurbilketa aldiz, Polanyiaren (1944) *embeddedness*-aren ideian oinarrituta dago, non enpresa sozialak, ESSa⁷³ bezala, esfera ekonomikoa eta soziala konektatzeko eredu bezala ikusten duten. Eta beraz, ESSak sortzen dituen berrikuntza sozialak eraldaketa sozialaren ikuskeran kokatzen dituzte normatiboki. Hauek, ekoizpen, lan eta kontsumo harreman berrientzako, bizi baldintzen hobekuntzarako, enpresen arteko harremanentzako edo lurralde garapenerako direlarik (Bouchard eta Lévesque, 2010; Bouchard, 2013).

⁷³ Gogora ekarri aurreko kapituluan Quebec-eko ekonomia sozialaren kontzepzioa ekonomia sozial berritik gertu dagoela esan dugula. Eta CRISES dela, hain zuzen ere, Quebec-en ESSaren inguruan jarduten duen institutu nagusienetarikoa.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Azkenengo multzoa heterogeneoagoa da, izan ere, ikerketa objektu ezberdinak izan dituzten lanak aurkitu ditzakegu bertan. Horien artean, tokiko giza garapenaren gaitasunei ESStik nola erantzuten zaien aztertu izan dutenak daude (Pérez de Mendiguren, 2014; Zulaika, 2017); edo, herri-ekonomiak lurralde txiroen garapenean edo sektore herrikoietan duen garrantzia aztertu dutenak (Nyssens, 1997; Sarria, 2002); edo, lanaren ekonomia tokiko garapenerako oinarri gisa planteatzen dutenak (Coraggio, 2004); edo, lurraldeak metaketarako erabilera-balioa duten espazioak bezala ikustetik, non ekoizpen eta lan baliabideak dauden eta eskaria kokatzen den, bizitzaren erreprodukzio hedaturako proposamen eraldatzaileak aurrera eramateko kolektibitateak bezala ikusten dutenak (Coraggio, 2010; Díaz, 2015) eta abar.

Oro har, ikuspegi honetatik, merkatu pribatu kapitalistaren logika jarraituz, soilik hazkunde ekonomikoa lortzera bideratzen diren tokiko garapenerako ereduak kritika egiten zaie (Coraggio, 2007b; Zulaika, 2017); nahiz eta ikusi dugun moduan, kritika hau berrikuntza sozialen ikuspegi batzuetatik ere egiten den (Moulaert eta Nussbaumer, 2005a; Moulaert, 2008). Hala ere, azkenengo multzo honetan kokatu ditzakegun ekarpenak lanean eta sistema ekonomiko kontrahegemoniko baten eraikuntzan arreta handiagoa jartzen dute, berrikuntza sozialaren inguruko ekarpenek gobernantza eredu berritzaileetan arreta handiagoa jartzen duten bitartean.

4.2 Tokiko garapenaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko harremanak:


Tokiko garapena eta ESSa uztartzen dituzten ikerketa askok, modu induktiboa jarraitzen dute. Hots, lurralde ezberdinetako esperientziak behatuz eta ikertuz, ondorioak ateratzen dituztenak. Hau ez da arraroa tokiko garapena zein ESSa etengabeko eraikuntzan dauden marko irekiak direlako. Biek, jendartetik sortutako esperientzietatik abiatuta, marko teorikoak osatzen joan direlako alegia. Horrenbestez, ez bata eta ez bestea dira bukatutako teoria perfektuak, euren kontraesanekin borrokan garatu izan diren corpusak baizik. Atal honetan, ESSaren eta tokiko garapenaren oinarrietan arakatuko dugu. Bakoitza zein korrante sozioekonomikoen gainetik eraikitzen den ikusita, oinarrian dauden elementu komunak alderatuz.

Horretarako, lau mailetan egituratzen den azterketa burutu dugu. Hasteko, soziologia ekonomikoan barneratuko gara, tokiko garapenak zein ESSak diziplina akademiko honetan duten oinarri teoriko partekatuak aztertzeko. Ondoren, elementu

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

konbergenteetan zentratuko gara. Hots, bien arteko hurbilketa bat ahalbidetzen duten gertuko elementuetan; batez ere, biek aurrera eramandako estrategiei eta bilatzen dituzten helburuei begiratuta. Hirugarrenik, biak partekatzen dituzten elementu komunetan arreta jarriko dugu. Eta azkenik, harremantze horretatik sortu daitezken sinergiak aztertuko ditugu. Hala ere, azkenengo hau atal honetatik atera dugu, bere garapen teorikoagatik eta bere hedaduragatik atal propioa behar zuela uste baikenuen. Hurrengo irudian egituraketa honen eskema azaltzen da:

5. IRUDIA: Tokiko garapenaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko harremanen mailak



Iturria: Egileak egina.

4.2.1 Hurbilketa soziologia ekonomikoaren⁷⁴ ikuspuntutik:

Soziologia ekonomikoak garrantzi handia hartzen du bai tokiko garapenaren zein ESSaren corpus teorikoetan. Izan ere, bietan antzeman daitezke prozesu eta instituzio

⁷⁴ Ez dugu soziologia ekonomikoaren zelai zabalaren berrikuspenik egingo tesi honen mugak aski gaudituko lituzkeelako. Gure gaian zentratuz, tokiko garapenean eta ESSan influentzia gehien izan dituzten korrante eta autoreetan arreta jarriko dugu bakarrik. Irakurleak beraz, ez du atal honetan aurkituko soziologia ekonomikoaren inguruko marko teorikorik, baizik eta, esan bezala, tokiko garapenari eta ESSari aplikatutako hurbilketa bat soziologia ekonomikoaren ikuspegitik. Aldi berean, ohartarazi behar dugu atal honetan agertzen diren oinarri teorikoak ez direla bakarrak, ez ESSari dagokionez, ezta tokiko garapenari dagokionez. Garapen akademiko eta oinarri teoriko handiagoa

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

sozialen inguruko arreta; eta beraz, analisi ekonomikoa aurrera eramateko, ekonomia, jendartetik eta jendartean ematen diren prozesu eta harreman sozialetatik askatzea ezinezkoa den ideia bi corpus teorikoetan oinarritzkoa bezala azaltzen da. Hala ere, ekonomiari begiratzeko ikuskera honen barnean, badira ikuspegi ortodoxoagoak eta ikuspegi heterodoxoagoak.

Tokiko garapenaren analisi eta proposamen ugarietan teoria instituzionalistaren eragina argi gelditzen da. Izan ere, XX. mendeko 80ko hamarkadatik aurrera, birbanaketa keynesiarraren logikarekin apurtzen denean, lurraldeen inguruko ikasketa ekonomikoak tokiko instituzioen inguruko garrantzia azpimarratzera itzultzen dira; neurri handi batean indarra hartzen ari zuen eskola instituzional berriaren influentziagatik. Eta beraz, prozesu sozialak ulertzeko, eta hauen barnean lurralde garapena ulertzeko faktore nagusiak, neurri batean instituzioetan aurkitu daitezkeela defendatzen da; instituzionalismoaren aldeko “biraketa” bat emanez (Jessop, 2001; MacLeod, 2001). Horrela, esan bezala, lurraldeen garapena azaltzeko, elementu sozial eta kulturaletan arreta jartzen da. Hauek tokiko ekonomiak arautzen baitituzte, bertako eragile sozioekonomikoen arteko harremanetan, ikaskuntza prozesuetan eta berrikuntzan eragiten dutelako besteak beste.

Hala ere, ekonomia instituzional berriak (80ko hamarkadatik aurrera), ez du ekonomia instituzional zaharrak (XX. mendeko hasieran AEB-tan) egiten zuen kritika analitiko eta metodologikoa egiten. Are gehiago, autore batzuk ekonomia neoklasikoaren moldapen bat bezala ikusten dute, zeinean instituzioen sorkuntzaren azalpena jokabide indibidualen bitartez azaltzen saiatzen diren. Eta ez, alderantziz, ekonomia instituzional zaharrak bezala (Etxezarreta, 2015). Hain zuzen, Douglas North-ek (1986) autore neo-instituzionalistak azaltzen duenez, ekonomia instituzional berriaren markoak ekonomia neoklasikoa barneratzeko gai izan beharko luke, instituzioek pertsonak eskura ditzaketan aukeren multzoa, momentu eta toki bakoitzean nola aldatzen diren inguruko azterketa egiteko. Hau da, marko analitiko neoklasiko bati buruz ari da, zeinean errealitate aldakorra aitortzen duen, eta beraz, neurri unibertsal eta ahistorikoak ezinezkoak diren. Hortaz, ekonomia neoklasikoaren oinarritzko premisa bat, merkatu askea edo autoerregulatua, edozein errealitaterako erantzun ekonomiko hoberena dela baztertzen du. Baina aldi berean, ekonomia neoklasikoaren

daukate; 2. eta 3. kapituluetan azaldu ditugunak, hain zuzen ere. Hemen, hurbilketa bat ahalbidetzen dituzten korrante horiek soilik azalduko ditugu.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

indibidualismo metodologikoa ez du baztertzeko; ekonomia instituzional zaharrak egiten zuen bezala. Hots, instituzioak erabaki mikroekonomiko indibidualen —eta bere kasuan, indibiduen agregazio baten— emaitzak dira; eta beraz, instituzio sozialen sorkuntza azaltzen saiatzen dira, jokabide kolektiboen elementu azaltzaile gisa kontsideratu beharrean.

Ekonomia instituzional berriak, ekonomia neoklasikoaren periferia gisa, marginalismoarekin hasitako, eta ondoren ekonomia neoklasikoak berak hartutako izaera matematiko/formalista⁷⁵ bere egiten du neurri batean. Are gehiago, indibidualismo metodologikoaren eta jokabide indibidualen inguruko suposizioetan oinarritutako analisi deduktiboak erabiltzen dituzte, instituzioen inguruko azterketak egiteko. Horrela, instituzioak, banakoek harreman ekonomikoetan beti efizientzia handiena bilatzen dutelako aldatuko lirake.

Dena den, aitortu behar zaizkio ekonomia esfera isolatu gisa aztertzen duen, eta merkatu askea eta autorregulatua aldarrikatzen duen ekonomia neoklasikoari, kontrako norabidean egindako ekarpenak; eta baita ere, instituzioak definitzeko orduan egindako ekarpenak. Aminek (1998) esaten duen moduan, jokabide ekonomikoak influentzia kolektiboen bitartez arautzen dira eta oinordetutako influentzia kultural eta sozioekonomikoak sortzen duten ibilbide historikoari jarraitzen diote. Horrenbestez, ekintza ekonomikoa emaitza kolektiboa da, lurralde batean onartuak dauden akordio sozialen eta ibilbide kultural eta historiko espezifikoak bezalako instituzioek bitartekotza lana egiten dutelarik (North, 1993).

⁷⁵ Autore ugarietzako, eskola marginalistatik eratorritako eredu formalista, ekonomiaren interpretazio matematikoan oinarritzen dena, sistema kapitalistarekiko kritika garrantzitsua egin zezakeen ekonomia politikoa baliogabetzeko erabiltzen hasten da. Modu honetan, oinarri sozialik ez duen, baina elite ekonomikoen zerbitzura dagoen analisi ekonomikorako eredu matematikoei zilegitasun guztia ematen zaio; nahiz eta honek jarraitzen dituen abiatze hipotesiak, gutxienez, zalantzarriak diren. Adibidez, ekonomia jendarte egituretatik askatuta dagoen esfera kontsideratzen duena edo ekonomian botere harremanik ez dardela argudiatzen duena. Orduan, matematiketan oinarritzen ez diren analisiak erabiltzen ez dituzten ereduak baztertzeko dira, nahiz eta osagarri empirikoagoak, eta beraz, errealitate hurbilago daudenak izan ditzaketen. Horrela, ekonomia herri klaseetatik urruntzen da, eta eredu konplexu horiek ulertu dezaketen ekonomialarien eskura gelditzen da politika ekonomikoa eta honen diseinua. Eredu hauek, elite ekonomikoen jokabideak legitimatzen dituztenak, ekonomia ortodoxoaren eta eliteen botere harremanaz baliatzen dira bestelako eredu kritikoak baztertzeko. Eredu formalistak dira bestalde, instituzio, prozesu, harreman eta botere erlazio sozialek ekonomian eraginik ez dutela argudiatzen dutelako; eta ekonomia, soilik merkatuan eta lehiakortasun perfektuaren bitartez baliabide urrien esleipen hobereana lortzera bideratzen dela argudiatzen dutelako. Hau da, ekonomia berez erregulatzen den esfera isolatu bat dela kontsideratzen dutelako (Etxezarreta, 2015).

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

ESSaren oinarri teorikoetan aldiz, Karl Polanyiaren analisiari garrantzi handia ematen zaio. Polanyi (1944) *embeddedness*-en —errotze, txertatze— kontzeptuaren bitartez, ekonomia jendartean errotuta dagoela adierazi nahi du autoreak; edo, beste modura, instituzio sozialen menpe. Esanenez, Polanyi ekonomia instituzional zaharraren influentziak dituen autorearen dela; haren parte izan gabe, instituzionalismo zaharrak hasitako ikerketa ildo batzuk bereganatu baitzituen. Polanyi-k modu honetan, ekonomia substantibo baten alde egiten du, ekonomia neoklasikoaren ikuspegi formalistaren aurrean. Ez dugu berriz, honen inguruko azalpen teorikorik egingo —3. kapituluaren dagoeneko eginda baitago—, baina bai gogoratu nahi dugula ikuspegi substantibo hau ekonomia pertsonen arteko eta hauek naturarekin dituzten harremanetan oinarritzen dela. Eta prozesu sozial horietatik abiatuta, jendarte oro antolatzen dela kide guztien beharrak asetzeko beharrezkoak diren baldintza materialak banatzeko. Prozesu hori jendarte bakoitzean antolatzen eta egonkortzen da, pertsonen eta taldeen portaera ekonomikoak gidatzen dituzten printzipio eta instituzioen bitartez (Coraggio, 2009b).

Arestian azaldu dugun moduan, ESSaren inguruko ikerketa soziologikoetan aipatu ohi den beste autore garrantzitsu bat Marcel Mauss litzateke. Ekonomia ortodoxoaren erredukzionismo ekonomikoarekiko kritikatik abiatuta, antolaketa ekonomikoan existitzen diren jabetza egituren pluraltasuna aldarrikatu zuen; Polanyiaren printzipio ekonomiko pluralen ideiarekin konbergentzia handiko teoria izanik (Laville, 2009b). Izan ere, Mauss-ek (1971) dioenez, soilik jokabide kapitalisten bitartez araututako jendarteak ez dira existitzen; jendarteetan antolaketa ekonomikoaren jabetza egitura ezberdinak batera existitzen direlako. Autore frantziarraren garapen teorikoan, instituzioek paper garrantzitsua betetzen dute. Hauek baitira, jabetza egitura plural, eta batzuetan kontrajari horiek moldatzen dituztenak (Laville, 2009b).

Soziologia ekonomikotik datozen ikuspuntu hauetatik beraz, jarduera ekonomikoa, eta batez ere merkaturak, ez da erabilgarritasuna eta mozkinak maximizatzea bilatzen duten aktoreen elkargune bat. Baizik eta alde aurretik ezarritako lege, arau, jokabide edo akordio sozial ezberdinen gainean kokatzen den eraikuntza bat; hauengatik erregulatuta eta mugatuta dagoena, eta beraz, berez erregulatu ezin dena.

Instituzio sozialek dena den, ezin dituzte jokabide ekonomiko guztiak azaldu. Izan ere, ikerketa instituzionalistek, batetik, erregulazio ereduaren aldaketaren garrantzia eta metaketa bermatzen duten kapitalaren geografia aldakorrak ulertzeko, eta bestetik, lurralde gobernantza sistemak inguratzen duten botere asimetriak aztertzeko

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

ahultasun kontzeptuala erakusten dute. Instituzionalismo “bigun” honek, instituzio ahul batzuei edo kapital sozialaren garapen eskasari egozten die garapen desorekatua; eta ez botere harreman desorekatuei. Horregatik, ikuspegi kritiko batzuetatik beharrezkotzat jotzen da ekonomia politikoaren ikuspegitik lurralde irakurketa egitea (MacLeod, 2001). Hortik abiatzen da adibidez, erregulazioaren teoria.

Erregulazioaren teoria (Boyer, 1992), ikuspegi instituzionalista batetik garatzen da, baina lurralde bateko garapenean eragiten duten botere harremanak azaltzen saiatzen da. Horrela, soldaten erlazioetan, enpresen arteko lehia harremanetan, diru eta finantzen erregulazioan, gobernantzan eta tokiko ekonomiek nazioarteko merkataritzan integratzeko ereduak arreta jartzen du. Hau da, ikuspegi instituzionalistaren ahulezia agerian uzten dute, lurraldeetan dauden elementu estrukturalak, botere harremanak eta eskala ezberdinetatik lurralde-prozesuetan eragiten duten hartutako erabakiei garrantzia ematen ez dietelako (MacLeod, 2001).

Erregulazioaren teoriaren elementu batzuk, Polanyiren (1944) ideietatik hurbilago egon daitezke. Jessopek (1995) dioenez, erregulazioaren teoria ekonomialari neoklasikoek aktore ekonomikoen arteko truke ekonomikotik oreka orokorrerantz doan ideiarekin zuten obsesioaren kontra sortu zen; aurre-erakitako arrazionaltasuna duten aktoreen arteko trukaketa ekonomikotik sortzen dena. Izan ere, erregulazioaren ikuspegiaren aldeko teoriko marxisten artean, funtsezkotzat jo zuten klase borrokak kapital metaketaren dinamikan duen garrantzia aztertzea. Ondoren etorritako ekarpenek, ekonomia neoklasikoak ekonomikoa denaren eta ekonomiatik kanpo dagoenaren egindako bereizketaren ideiarik kritika egingo diote; ekonomia substantibora, edo ekonomiaren ikuspegi integral batera hurbilduz. Ikusi dezakegunez, erregulazioaren teoriak, ekonomia instituzionalak baino kritika handiagoa egiten dio ekonomia ortodoxoari; nahiz eta, haren oinarri teorikoetan ekonomia instituzional zaharra aurkitu dezakegun. Alabaina, beste influentzia batzuk aurkitu daitezke erregulazioaren teorian, hala nola, ekonomia eboluzionista, marxista eta, aipatu moduan, Polanyiren (1944) elementu ezberdinak (Jessop, 1995).

Erregulazioaren teoria, Boyerrek (1992) planteatzen duen moduan, epe luzera kapitalismoaren metaketa ahalbidetzen duten marko egonkor eta koherenteak garatzea ahalbidetzen duten mekanismo eta praktika instituzionalen azterketan oinarritzen da. Hau da, kapitalaren eta jendartearen arteko botere harremanak arautzen dituzten nolabaiteko itun sozialen azterketan oinarritzen da. Izan ere, kapitalismoak, erregulazio

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

eredu ezberdinak konektatuko lituzke denboran zehar, bere metaketa gaitasuna bermatzeko. Izan ere, kapitalismoa etengabeko eraldaketan dago, eta beraz, haren aldaketak aztertu beharra daude, eta ez bere egoera estatikoa (Etxezarreta, 2015). Eta aldaketa horietatik, bere egonkortasunagatik, erregulazioaren autoreei arreta gehien deitu ziena, garai fordista eta posfordismorako trantsizioa izan zen. Fordismoaren krisiak erregulazio praktika batzuen bir-eskalatze nabarmena ekarri zuen. Swyngedouw-
k (1997) esaten duen moduan, kode erregulatorioak, arauak eta instituzioak espazioan aldatu ziren estatu-eskalatik, eskala anitzeko marko batera; eta horien artean, eskala lokal eta erregionalek erregulaziorako eremuak bezala paper garrantzitsuagoa lortu dutela defendatzen da ikuspegi batzuetatik (González, 2005).

Hala ere, azterketa sinplista egin beharrean, autore erregulazionistak arduratu ziren jendarte bakoitzeko berezko egitura instituzional edo estruktural ezberdinek, denbora epe ezberdinetarako, klase borrokaren eredu eta intentsitatea mugatzen dituzten moduez. Hots, klase borrokaren eredu aldakor horietan, eta hauek kapital metaketan zuten eraginean interesa zuten (Jessop, 1995). Hala ere, erregulazioaren teoriak kritika ezberdinak jaso ditu, batez ere klase borroka aldarazten —eta lasaitzen— duten itun sozial horiek kapitalismoaren menderatze lanabesa bat bezala ikusten dutenen ikuspuntutik (Katz, 1992).

Ez gara orain eztabaida hauetan barneratuko, ezta Marxismoak ESSaren zein tokiko garapenaren eraikuntza teorikorako izan duen influentziaz. Dena dela, beste antzekotasun batzuk aurkitu ditzakegu ESSaren oinarrizko autorearen eta erregulazioaren teoriaren artean. Polanyiren (1944) mugimendu bikoitzaren inguruko ideian, hain zuzen ere. Mugimendu bikoitza, ekonomiaren “des-errotzearen” inguruan Polanyik zuen eszeptizismoa ulertzeko beste ideia garrantzitsu bat izan zen. Merkatua polo ekonomiko nagusia den jendarteetan, eta, ekonomia jendartetik “des-errotzeko” saiakeran, hots, ekonomia soilik merkatuen bitartez erregulatzeko pausoa ematen denean, jendartean erresistentziak sortzen direla ikusita, Polanyik kontrako mugimendu bat antzeman zuen. Hau da, merkatuen desarauketarantz edo *laissez-faire*-rantz jotzen denean, jendartean kontramugimendu babesle bat sortzen da, ekonomiaren “des-errotzearen” kontra. Oso ezaguna egin den *The Great Transformation*-eko pasarte honetan azaltzen da hobeto:

*“la idea de un mercado autorregulado implicaba una utopía absoluta.
Semejante institución no podría haber existido en ninguna época sin*

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

aniquilar la sustancia humana y natural de la sociedad; habría destruido físicamente al hombre y transformado su ambiente natural en páramo. Inevitablemente, la sociedad adoptó providencias para protegerse, pero cualquiera de esas medidas dañaba el mercado autorregulado, desorganizaba la vida industrial y, así, ponía en peligro a la sociedad en otro sentido” (Polanyi, 1944:65).

Polanyik bere argudiaketan zehar, adibide ezberdinak ematen ditu. XIX. mendean, ekonomialari liberalen ideietan oinarrituta aurretik azaldu ditugun fikziozko merkantziak merkaturatzeko joera eman zen. Horrenbestez, lana, lurra eta diruaren gaineko merkatu ekintza gelditzeko, jendarteak bultzatutako neurri andana onartu ziren. Ulertu dezakegu ere zentzu honetan, II Mundu Gerra osteko berregituraketan, enplegu betea eta gizarte-segurantza jarraitzen zuen eta birbanaketan oinarritutako sistema ekonomiko keynesiarrari bidea eman zionekoa (Block, 2017). Erregulazioaren teoriako autoreek erabiltzen duten adibideetako bat antzekoa da⁷⁶. Izan ere, hauek 30eko hamarkadaren krisiaren testuinguruan AEBetako Roosevelt presidenteak aurrera eramandako *New Deal*-a aztertzen dute akordio sozial gisa (Polanyik ere honi espazioa ematen dio bere liburuan).

Erregulazioaren teoriak aztertzen dituen marko egonkorak eta Polanyiren mugimendu babeslearen arteko loturak argiak dira beraz: Merkatuen desarautzearen aurrean jendarteetako talde sozial ezberdinak parte-hartzen dute mugimendu babeslean. Kontua da, mugimendu babeslean ez dutela soilik langileria edo herri klaseek parte-hartzen; nahiz eta hauen papera ezinbestekoa izan den. Jendarteetako talde sozial ezberdinak parte-hartzen dute, eta beraz, mugimendu babeslea, paradoxikoki, kapitalisten eskutik eman daiteke ere (Block, 2017). Polanyik (1944) ildo honetan, banku zentralaren adibidea azpimarratzen du, eta gogoratzen du, klase menderatzaileak izan zirela banku zentralaren sorkuntza sustatu zutenak moneta erregulatzeko. Izan ere, autoreak dioten moduan, “banku zentral modernoak, babesa eskaintzeko garatutako gailua osatzen du, bera gabe merkatuak bere seme-alaba propioak suntsituko zituelako:

⁷⁶ Erregulazioaren teoria askotan gaizki interpretatzen da, Fordismoak Post-fordismora egindako eraldaketa aztertzen duen teoria gisa kontsideratzen baita. Eta egia da ikertzaile erregulazionistek interes berezia jarri dutela gerra osteko metaketa egonkor eta arrakastatsua eragin zuten mekanismo instituzionalak aztertzeke. Baina erregulazioaren teoria kapitalismoaren egituren aniztasunaren eta eraldaketen teoria da, eta beraz, zabaltasun handiagoa duena. Ildo honetan, testuan jaso dugun adibidea doa.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

mota orotako enpresak alegia.” (Polanyi, 1944:252). Hala ere, jendarteak babesteko abiatzen dituzten mugimenduek merkatua ahuldu dezakete, eta ondorioz, kapitalaren ofentsiba berri bat abian jartzen da, kapitala jendarte-hertsaduratik askatzeko. Eta, mugimendu bikoitzean parte-hartzen duten mugimenduetako bat ere ez (jendartetik abiatutako mugimendu babeslea edo ekonomia desarautzeko mugimendua) eraginkorrak direnean sortzen den “puntu hila”-ri buruz ere ohartarazi zuen. Berarentzako horrela hasi baitzen faxismoa European.

Polanyik hala ere, mugimendu bikoitzaren dinamika apurtu daitekeela pentsatzen zuen. Horretarako beharrezkoa izanik bizitza soziala merkatuaren menpe egon behar denaren ideia gainditzea. “Zahartutako merkatu mentalitate” (Polanyi, 1994) hori gainditzeko, eta, ekonomia demokraziaren menpe jartzeko, pertsonak eta natura babesteko duten mekanismoak ezartzea ahalbidetuko duelako (Polanyi, 1944). Zentzu honetan ere, Lavillek (2004), geroz eta merkatuko joera handiagoa duen bizitza sozialari uko egin behar zaiola, eta ekonomikoa dena pluralizatu eta sozializatzeko politikak eta proposamenak bultzatu behar direla dio; kapitalaren ofentsiba berriaren aurrean ekonomia jendarte egituretan ber-errotzeko.

Lavillek (2009) dionez, ekonomia demokratizatzeko, beharrezkoa da ESSa osatzen duten esperientzia, asoziatibo, koooperatibo eta mutualistak akordio instituzionaletan eragina izatea. Izan ere, kapitalari zentralitatea kentzen bazaio, eta pertsonak eta bizitzaren erreprodukzioa sistema ekonomikoaren erdigunean jartzen bada, beharrezkoak asetzera bideratutako ekonomia eta akordio instituzionalak emango dira. Akordio instituzionalak aldi berean, indartsuagoak izango dira maila lokaletan; ikusi dugunez, lurraldeak intentsiboak baitira harreman sozialetan, eta harreman jarraituen bilakaera da instituzioak sortzen edo definitzen dituenak.

ESSak, bere printzipio eta izatearen oinarrian du demokrazia ekonomikoa; eta, gainera, herri-mugimenduekiko elkarlanerako espazioak eta aliantzak ehuntzeko gaitasuna duen proiektu politikoa ere osatzen du. Gainera, instituzioak indartsuagoak izango dira geroz eta kohesio sozial handiagoa dagoen heinean, eta honetarako ere, aurrerago sakonduko dugun moduan, ESSa lagungarri izan daiteke. Eta tokiko garapenak, nahiz eta ildo honetako irizpide normatiboen gabezia izan dezakeen — behintzat, eredu batzuetan—, esan dezakegu ikuspegi instituzionalista eta erregulazionistaren influentzia duten ereduak, zein berrikuntza sozialaren,

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

governantzaren edo giza garapenaren parametroetatik abiatzen diren ereduak demokrazia ekonomikoan sakontzea ahalbidetzen duten ereduak direla.

Horrez gain, ekonomia jendarte egituretan “ber-errotzeko” gaitasuna dutela erakutsi duten bi errealitate osatzen dutela esan genezake. Tokiko garapena, tokiko egitura eta harreman sozialen, politikaren, kulturaren eta abarren arabera azaltzen da. Gainera, garapen prozesua bera, prozesu interaktiboa da non eragile ugari parte-hartzen duten, eta hauen elkarrekintzaren ondorioa izango da neurri handi batean garapenaren emaitza (Vázquez-Barquero, 2007). Eta aldi berean, ESSak prozesu ekonomikoak ber-errotzen ditu, lurraldeetatik eta bertan dauden biztanleengandik sortzen delako, lurraldeetako balio eta ezaugarriekiko lotuta eta jendartearen beharrak asetzera bideratuta dauden heinean. Hots, “jendearen zerbitzura diharduten jendearen enpresak” diren heinean (Guridi et al., 2011:19).

Dentsitate teoriko handiko atal honen laburpena eginez, azaldutako korrante teorikoak, gehiago edo gutxiago, ikuspegi neoklasikoaren formalismotik aldentzen dira. Hau da, ez dute ekonomia esfera isolatu bat bezala ikusten, non jendarte harremanak (botere harremanak barne) ez duten influentziarik. Ikuspegi heterodoxoak dira, ekonomia jendarte egituretan, harremanetan, jokabideetan, eta oro har, instituzioetan txertatuta dagoela esaten dutelako. Izan ere, jendarte bakoitzak, bere prozesu ekonomikoak aurrera eramaten ditu, jendarte bakoitzeko instituzio sozialen influentzia dituztelarik, euren kideen behar materialak ekoiztu eta banatzeko (ikusten dugun moduan, ikuspegi honetatik, behar sozialak eta hauek asetzeko helburua aipatzen da, eta ez, ikuspegi formalista batetik egiten den moduan, urritasun eta efizientziaren arteko banakuntzaren arrazionaltasuna).

Helburu hori lortzeko, ekonomiaren bi ezaugarri nagusi kontutan hartzen dituzte: Lehena, pertsonak euren artean eta naturarekin aurrera eramaten dituzten harremanak ekonomian eragiten dutela (ekonomia substantiboa). Eta bigarrena, ekonomiaren integraziorako printzipio eta antolaketarako jabego egitura ezberdinen bitartez aurrera eramaten dela (ekonomia plurala). Hots, ekonomia, jendarte batek gaitasunak eta baliabideak definitu, mobilizatu, banatu eta antolatzeko duen sistema sozial bat bezala ulertzen dute; kide guztien —eta etorkizuneko— behar eta nahi legitimoak ahalik eta hobekien asetzera bideratuta dagoena (Coraggio, 2009b). Beste modu batera, ikuspegi soziologiko batetik, ekonomia, eta honen barnean noski merkatu ekonomia, ez litzateke garapen natural baten ondorioa, baizik eta eraldatu daitekeen eraikuntza sozial batena.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Ikusten dugunez, soziologia ekonomikoa topagune bihurtu daiteke tokiko garapena eta ESSa aztertzeko orduan; batez ere, hauen alderdi heterodoxoetan. Hala ere, heterodoxoa izateak ez du nahitaez esan nahi sistemarekiko kritikoak direnik. Ekonomia instituzionalak, ekonomia aztertzeko bere ikerketa objektua soilik merkatuan jartzen du, eta ez, merkatutik kanpo ematen diren beste printzipio ekonomikoetan. Horrez gain, ez du zalantzan jartzen ekonomiak hazkunde mugagaberantz hartutako norabidea. Horrenbestez, instituzionalismoa edo eboluzionismoa bezalako ikuspegiak, ekonomia neoklasikoak baino analisi errealagoak eskaintzen dizkiguten arren —eragin sozialak antzematen dituztelako eta ikuspegi enpirikoagoa dutelako—, ez dute sistema ekonomikoarekiko, eta honen funtsezko elementuekin haustura bat osatzen. Horregatik, bestelako ekonomia bat —eta/edo garapen eredu bat— eraikitzeko, analisia bestelako ikuspegi kritikoekin osatzea beharrezkoa egiten zaigu.

4.2.2 Tokiko garapenaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren estrategien eta helburuen konbergentzia:

Tokiko garapenaren eta ESSaren oinarri teorikoetan hurbiltasuna aurkitu dezakegu. Hala ere, oraindik ezin dugu esan praktika konbergenteak ematen direnik. Hots, tesi honetan planteatzen dugun harremana eman dadin, tokiko garapenaren zein ESSaren helburuen eta planteatutako estrategien arteko konbergentzia ematen ote den ikertu behar dugu lehenengo. Horregatik bakoitzak dituen berezko elementu ezberdinetan arreta jarriko dugu orain, haien arteko hurbiltasuna eta bateragarritasuna aztertu ahal izateko.

Adostutako definiziorik ez egoteak zailtasun metodologiko eta konparatiboak sortzen dituen arren, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko konbergentziarako oinarrizko elementu ezberdinak aurkitu ditzakegu 2. eta 3. kapituluetan egindako berrikuspenetan. Tokiko garapena definitu dugunean, tokiko biztanleriaren bizi mailaren hobekuntza ezarri dugu helburu orokor gisa (Vázquez-Barquero, 1988). ESSa aldiz, bazkideen beharrak asetzeko (Barea eta Monzón, 2006; Monzón eta Chaves, 2012), edo, pertsonak, garapen komunitarioa eta hauek aurrera ateratzen dituzten jarduerak sistema ekonomikoaren erdigunean jartzea helburu duten antolakundeak bezala karakterizatu izan dugu (Pérez de Mendiguren et. al., 2009).

Hemen antzeman dezakegu lehenengo konbergentzia garrantzitsua: Kapitalismoaren kontraesanetatik ihesi (krisi globalak, tokiko krisi produktiboak, berregituraketa industrialak, disparekotasun ekonomiko eta sozialak etab.),

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

jendarteetatik eta eskala lokal/erregionalean abiatutako ekimenak direla. Hala ere, ikusi dugun moduan, ekimen hauek guztiak ez dira sortu kapitalismoari alternatiba emateko. Tokiko garapen eredueta batzuk eta ESSan barneratu genezakeen antolakunde batzuk, sistema kapitalistaren eta merkatuaren logikan garatu izan baitira. Horrela, batetik, atzerriko inbertsio zuzena erakartzera bideratutako garapen ereduak, nazioarteko zirkuitu ekonomikoetan tokiko enpresen integrazioa bilatzen dutenak edo lurraldeen lehiakortasuna handitzea helburu dutenak, eta bestetik, soilik hazkundera helburu duten ESSko antolakundeak, merkatu isomorfismo prozesuak izan dituzten kooperatibak etab. aurkitu ditzakegu.

Ildo honetan, hazkunde ekonomikoa eta nazioarteko merkatuetan integratzea bilatzen duten tokiko garapenerako ereduak, nazioartratze prozesuak eta hazkundera bilatzen duten ekonomia sozialeko enpresetan aurkitu dezakete konbergentzia gradu handiagoa. Aldi berean, jendarte eraldaketa helburu duten ereduak —sozialki berritzaileak diren erregioen edo tokiko giza garapenaren ikuspegitik hurbilago daudenak, alegia—, hurbiltasun handiagoa erakusten dute ekonomia solidariotik planteatzen diren enpresa edo antolakunde ereduakiko. Aldiz, atzerriko inbertsio zuzena erakartzea bilatzen duten ereduak eta ESSaren artean ez gendake konbergentziarako elementuak aurkituko; azken hau baliabide eta indar endogenoen bitartez mobilizatzen delako, eta horrelako garapen ereduak ez dute hauek aktibatzea bilatzen. Dena den, garrantzistua da esatea aipatutako eredueta bakoitza ez dela zertan lurralde batean modu bakartian agertu behar. Hau da, lurralde baten garapenean eredu, ikuspegi eta praktika ezberdinak uztartu daitezke, enpresa-egitura eta -helburu ezberdinak dituzten enpresak agertzen diren moduan.

Tokiko garapenerako, batez ere bere ikuspegi endogenoentzako, metaketa lokala ahalbidetzen duten prozesuak ulertzea ezinbestekoa da; iraunkortasun ekonomikoa lortzeko faktore zentrala kontsideratzen baitute. Horretarako, ikuspegi horretatik ikertzen duten autoreek, ikusi dugun ikuspegi sistemikoa erabiltzen dute; hots, faktore ekonomikoez gain, besteak beste, faktore sozialak, politikoak eta kulturalak ere barneratzen baitituzte euren analisisetan (Vázquez-Barquero, 1997a; 1999b; 2000...). ESSak bere aldetik, mozkinen gaineko duen tratamendu bereziarengatik, sortutako aberastasunaren bidezko banaketa ahalbidetzen du. Gainera, sortutako aberastasun hori lurraldean gelditzeko joera erakusten du eta bertan berrinbertitua izateko aukera

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

handiagoa eskaintzen du; tokiko mailako metatze prozesuak sustatuz (Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014).

Bestalde, nahiko adierazgarria da tokiko garapenetik enplegua sortzeari eman zaion lehentasuna. Albuquerquek (2001; 2004a) dionez, jarduera ekonomiko berriak, enpresak eta, azken finean, enplegu berriak sortzeko ekimen lokalak ugaritu egin dira; eta horretarako, tokiko kultura ekintzaile eta berritzailea sustzea saiatu da lurraldeetan. Ildo beretik doa Vázquez-Barquerok (2009) zeinek enplegua eta aberastasuna sortzeko, enpresen sorkuntza beharrezkoa dela ikusten du. Aldi berean, ESSaren inguruko ikerketa ezberdinetan, ESSak kalitatezko enplegua sortzeko orduan modu adierazgarri batean lagundu dezakeela argudiatzen da (Defourny eta Develtere, 1999; Laville eta García-Jané, 2009; Coraggio, 2011; Monzón eta Chaves, 2012); gainera tokiko ekintzailetza sustatzen du ekimen berriak biztanleriak aurrera eramaten dituen heinean (Coraggio, 2008; Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014).

Tokiko garapenaren ohiko beste lehentasuna promozio ekonomikoari dagokiona da. Oro har, promozio ekonomikorako politikak, tokiko ekoizpen sistemari laguntzeko neurriak bezala definitu genitzakeen. Eta hauek, sistemaren beharretara egokitzen diren profesionalak erakartzeko politikak, enplegu politikak, politika teknologikoak edo azpiegitura eraikitzea etab. bezalakoak izan daitezke. Ildo honetan ere, garrantzi handia hartu dezakete garapen agentzietatik eskaintzen diren enpresentzako zerbitzuak. Hala nola, lokalen eta lur sailen lagapena, diru-laguntzen inguruko informazioa ematea, formakuntza, enpresa kudeaketarako aholkularitza, enplegu bitartekaritza edo lurraldearen promozioa. Horrez gain, garapen agentziak izan ohi dira maila altuagotik datozen berrikuntza kultura sustatzeko politikak, IKT-en hedapenerako politikak edo kalitate politikak bezalakoak lurraldeetan ezartzen dituztenak (Gainza, 2008).

ESSak bere aldetik, esku-hartze publikoa hobeto zuzentzea eta demokratizatzea eragin dezake, politika eta zerbitzu publikoen ko-eraikuntza eta ko-ekoizpenaren bitartez. Izan ere, politika publikoak diseinatzeko orduan, administrazio publikoarekin batera ko-eraikitzerakoan edo zerbitzu publikoak hornitzeko orduan, hauek ko-ekoizterakoan, politika horien diseinua errealitatera eta zerbitzu horien hartzaileen behar espezifikoari hobeto egokitzea eragin dezake (Vaillancourt, 2009). Izan ere, tokiko garapenaren loraldia estuki lotuta egon da gobernantza eredu berriekin, non parte-hartzea eragile ezberdinetara zabaldu egin den. Eta ESSa lurraldeetako gobernantzarako eragile garrantzitsua bezala kokatzen da bere inplikazio ekonomiko, sozial, politiko eta

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

kultural lurralderatuengatik. Gainera, politika publikoak demokratizatzen ditu, jendearen enpresak diren heinean, herritarrak erabakitze organoetara hurbiltzen dituelako. Era berean, ESSaren jabego egitura pluralak, eskaintza eta eskariaren eraikuntza partekatua ahalbidetzen du; tokiko beharretara hobeto egokitzen dena. Hau da, ESSko antolakundeak inplikazio ezberdina duten eragileetatik datozen eskaeretara irekita daude; hauek, erabiltzaileak, boluntarioak, beste erakunde batzuetako ordezkariak, familiak, profesionalak, agintari publikoak, etab. izan daitezkeelarik (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2016).

Tokiko garapenaren zein ESSaren egituraketari dagokionez ere konbergentziarako puntu bat aurkitu dezakegu. Izan ere, biek garrantzi handia ematen diote saretzeari. Tokiko garapenerako eredu ezberdinek lurraldeko enpresen sareak osatzea bilatzen dute tokiko ekonomia egonkortzeko merkatuaren desoreken aurrean. Gainera, barne merkatua indartzen da eta sareetan dauden enpresa guztien hazkunde auto-sostengatua ahalbidetzen da; tokiko ekonomiaren hazkunde orekatuagoa emanez. Hala ere, sare hauek ez dute beti dentsitate berdina, lurraldearen eta ekoizpenaren egitura eta antolaketaren arabera ezberdina izan daitekeelako. Horrela, izaera Marshallianoa duten ekoizpen sistema malguak dituzten barrutiak dira garapen handiagoa izan ohi dutenak.

ESSak bere aldetik ere sartzeko joera handia dauka; bai talde kooperatiboak sortuz eta baita ere modu horizontalago batean antolakundearen arteko interkooperazioaren bitartez. Aldi berean, interkooperazioa bilateral edo multilateral, puntuala edo denboran egonkorra eta ordezkartzarako edo ekoizpenerako izan daiteke besteak beste. Ildo honetan, aipatutako talde kooperatiboz gain, azpimarragarriak izan daitezke merkatu sozialak, lankidetzaren sare solidarioak, zirkuitu ekonomiko multikulturalak, kooperatiba txikien sareak, bidezko merkataritzaren sareak etab. bezalako esperientziak.

Beste zentzu batean, garapena berrikuntza sozialen inguruan eraiki nahi duten ikuspegiak (sozialki berritzaileak diren eskualdeak, *integrated area development*-en proposamena, garapen komunitarioa...) eskualdeetan botere harremanak eraldatzeko asmoz, hauen gobernantzan ezartzen diren parte-hartzeko mekanismo demokratikoetan zentratu dira gehien bat. Hala ere, Moulaert et. al.-en (2005) berrikuntza sozialaren definizio bikoitzera joaten bagara, erraz identifikatu dezakegu ESSak berak ere

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

berrikuntza sozial bat suposatzen duela berez; bazkideen edo/eta komunitatearen beharretan zentratzen delako, botere harremanak eraldatzen dituen bitartean.

Eta azkenik, giza garapenaren ikuspegitik giza eta gaitasun kolektiboak garatzea bilatzen duen eredutik begiratura, ESSak gaitasun horiek areagotu ditzakeela argudiatzen dute hainbat autoreek (Dubois, 2014; Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014; Zulaika 2017). Zentzu honetan, bereziki gomendagarria da Guridi eta Pérez de Mendiguren-en (2014) lana, non Nussbaumen (1999 eta 2001) gaitasun zentralak eta Baser eta Morgan-en (2008) gaitasun kolektiboak banan banan hartzen dituzten ESSak hauetara nola egokitzen den aztertzeke.

Ikusten dugunez, jarraitu duten estrategia edo jokabideei begiratzen badiegu, aniztasun handia aurkituko dugu. Bai lurralde bakoitzeko beharrak ezberdinak direlako, eta beraz, proposatutako estrategiak behar horiei egokitzen direlako; eta baita ere, tokiko garapenari zein ESSari begiratzeko ikuspegia ezberdina izan daitekeelako. Beraz, zailtasun metodologiko esanguratsua aurkitzen dugu helburuen eta estrategien konbergentzia aztertzeke orduan tokiko garapenaren inguruan dagoen eredu aniztasun horregatik. Hau da, lurraldeko egitura produktiboa nazioarteko merkatuetan barneratzea eta aberastasunaren metaketa lokala helburu duen garapen eredu bat eta ekonomia solidarioko antolakundeen helburuak ez dira, adibidez, azken honek tokiko giza garapenarekin izango zituenak bezain konbergenteak. Hurrengo taulan gurutzaketa hauek hobeto ikusteko aukera izango dugu:

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

4.1. TAULA: Tokiko garapenaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko konbergentzia puntuak

TOKIKO GARAPENA		EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA	
Helburua(k)	Estrategiak	Estrategiak	Helburua(k)
- Tokiko biztanleriaren bizi mailaren hobekuntza.	Lurraldearen integrazioa nazioarteko merkatuetan	Enpresen nazioarteratzea	- Bazkideen beharrak asetzeko antolakundeak sortu.
	Hazkunde ekonomikoa eta metaketa lokala	Enpresen hazkundera eta aberastasunaren banaketa	
	Promozio ekonomikoa	Politika eta zerbitzu publikoen ko-erakuntza eta ko-ekoizpena	
		Eskari eta eskaintzaren erakuntza partekatua	
- Jendarte bakoitzak autonomiaz erabakiko du nolako etorkizuna izan nahi eta ahal duen, ongizatearen erreferentzia normatiboa izanik.	Lurralde sareak sareak sortu	ESSko sareak eta interkooperazioa	- Pertsonak, garapen komunitarioa eta hauek aurrera ateratzen dituzten jarduerak sistema ekonomikoaren erdigunean jartzea.
	Enplegua sustatzea	Enplegu duina, autonomia eta burujabea	
	Berrikuntza sozialetan oinarritutako garapena	Beharren asetzea eta harreman ekonomikoen eraldaketa	
	Giza garapena	Gaitasun zentral eta kolektiboaren garapena	

Iturria: Egileak egina

Taulan ikusi dezakegun moduan, tokiko garapenak eta ESSak dituzten helburuetan erabateko bat egitea aurkitu dezakegun moduan, helburu horiek lortzeko estrategietan ez da horrenbesteko bategite orokorrik somatzen. Horren beharrean, konbergentziarako espazio ezberdinak daudela esan dezakegu. Hau da, taulan ikusi dezakegun moduan, tokiko garapenerako estrategia bakoitzak bere baliokidea ESSan, alabaina, tokiko garapenerako estrategia guztiak ez dute ESSko estrategia guztiekin bat egiten, eta alderantziz.

Adibidez, ekonomia solidarioaren ikuspegitik ezberdintasun edo desadostasun handia ikusten dute lurraldeen integrazioa nazioarteko merkatuetan eta hazkunde ekonomikoa helburu duten tokiko garapen eredu tradizionalekin. Hauek ez baitute, besteak beste, pertsonak garapen ereduaren erdigunean jartzen, lurraldeen arteko harreman harmonikoak bilatzen, jendartearen beharrezanetan arreta jartzen eta hazkunde

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

mugagabearen ideia guztiz barneratuta daukate, eta beraz, ingurumen iraunkortasuna ez dute kontutan hartzen (Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014). Aldiz, kontrako ikuspuntutik, ekonomia solidarioak ez lioke kapital metaketari, errendimendu azkorrak lortzeko ekoizpen antolaketari, inbertsioari, berrikuntzari (teknologikoa) eta nazioarteko merkatuen eraginari arretarik eskainiko, eta hauek tokiko garapenerako ezinbesteko elementuak kontsideratzen dira (Garmendia, 2021).

Dena den, taulan maila berean ez egoteak ez du nahitaez esan nahi estrategia bateragarriak ez direnik. Oso bateragarria izan daitekeelako enplegua sustatzeko garapen estrategia bat eta gaitasun kolektibo eta indibidualen garapena esaterako. Tesi honetan, argi dago, tokiko garapenaren zein ESSaren ikuspegi zabal batetik begiratu diogu, ereduaren arteko bereizitasunak kontuan izanik, baina ahalik eta agenda partekatuen proposatzeko intentzioarekin (errealitatera hobeto egokitzen den ikuspegia delako gainera). Izan ere, estrategia batzuk dibergenteak izan daitezkeen moduan, oro har, helburu konbergenteak antzematen dira; eta beraz, eredu ezberdinen arteko elkarrikeria posiblea dela uste dugu.

4.2.3 Tokiko garapena eta ekonomia sozial eta solidarioa uztartzea ahalbidetzen duten elementu komunak:

Hurbilketa honen hirugarren maila honetan, tokiko garapena eta ESSa partekatzen duten elementuak aztertuko ditugu. Hau da, aurreko atalean aztertutako hurbilketa errazten dituzten elementu konbergenteak baino, kasu honetan, pauso bat haratago ematen dugu, eta biek aldi berean partekatzen dituzten elementu komunak aztertuko ditugu hemen.

4.2.3.1 Behetik abiatzen diren esperientzia endogeno eta kolektiboak:

Autore asko dira ESSko antolakundeak lurraldeetatik sortu eta berari lotuta garatzen direla argudiatzen dutenak. Bai ESSa eta tokiko garapenaren arteko harremanak ikertu dituztenen artean (Fernández, 1999; Moulaert eta Nussbaumer, 2005b; Mozas eta Bernal, 2006; Gallego, 2008; Perez, 2011; Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014...), baina baita ere, ESSa ikerketa objektu duten beste hainbat autoreek lurraldearekiko errotze hori aitortzen diote (Errasti et. al., 2002; Coelho, 2004; Nyssens, 2006; Coraggio, 2011; Dacheux eta Goujon, 2011; Guridi et. al., 2011...). Hau da, ESSa sortze lurraldeekiko errotze handia erakusten duen elementu endogenoa da;

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

bazkide-langileak, inbertsioa, baliabideak etab. bezalako bertoko potentziala aktibatuz aurrera eramaten baita.

Izan ere, pertsonen inguruan eraikitzen diren antolakundeak izanik (jabego, kudeaketa eta helburuaren aldetik), eta ez kapitalaren inguruan, pertsonak kokatzen diren lurralde konkretu horretan garatuko diren enpresak dira. Jabegoa bazkideek duten heinean, erabakitze ahalmena bazkide horien jatorrizko lurraldeetan egongo delako. Hau da, ESSko antolakundearen kokapen geografikoa euren bazkide sortzaileen erabakia izango delako, eta ez kapitalak errentagarritasun handiagoa lortzen duen arabera (Mozas eta Bernal, 2006). Eta aldi berean, antolakundearen helburua bazkideek eurek zehazten dute, eta ez lurraldearekin harremana izan ez dezakeen inbertitzaile kapitalistatik; eta helburu hau, bazkideen edo/eta komunitatearen beharrak asetzera bideratuta egongo da. Gainera, ESSko antolakundeak intentsiboagoak dira kapital soziala indartzen duten harremanetan. Eta beraz, Gallegok (2008) dioen moduan, euren ingurunearekin erlazionatzeko joera eta erraztasun handiagoa erakusten dute.

Ildo honetan ere, autore ezberdinak dira ESSak jatorrizko lurraldeetatik hurbil egoteagatik, antolakunde hauek garapen estrategiekin duten errotzea eta konpromisoa azpimarratzen dutenak (Fernandez, 1999; Mozas eta Bernal, 2006; Gallego, 2008; Pérez, 2011...). Zehazki, Dacheux eta Goujon-ek (2011) dioten moduan, ESSko ekimenak sortze lurraldeetako garapen ekonomiko eta sozialekiko inplikazio handia erakusten dute. Eta euren logikak, hots, elkartasuna, konfiantza, gardentasuna, lankidetzeta, autogestioa etab. eta helburuak, hots, ongizate indibidual eta kolektiboari lehentasuna ematea, garapen eredu horren zerbitzura jartzen dituztela ekimenaren errentagarritasuna maximizatzearen aurrean.

Bestalde, tokiko garapena *bottom-up* edo behetik gorakoa bezala definitu dugunean, lurraldeetan garapen estrategiak diseinatu eta aplikatzen direla esan dugu. Are gehiago, izaera endogenoko estrategietan, lurraldeek dituzten indar eta baliabideak oinarri izanik, behetik gorako garapen prozesuei erreferentzia egien diegu. ESSaren historiari begiratzen badiogu ere, erraz antzemango dugu honen parte diren antolakundearen sorkuntza ere behetik egin dela.

Hauexek dira, hain zuzen ere, tokiko garapenak eta ESSak partekatzen duten hurrengo elementua. Lurraldeetatik eta behetik sortutako esperientziak direla. Hala ere, zer esan nahi du, eta batez ere, zer suposatzen du behetik sortzen diren estrategiak edo antolakundeak izateak? Lehenik, behetik abiatutako ekimenak izateak esan nahi duena

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

da, bistan dago, ez direla maila eskalar altuago batetik ezarriak edo inposatuak izan. Hots, haien sorkuntza, berdin du estrategia edo antolakundea, estrategia edo antolakunde hori aurrera eramango dutenen, edo haren onurak jasoko dutenen nahiagatik eta haietatik gertu sortuak izan direla. Horrez gain, behetik sortutako ekimenak dira, neurri handi batean bizi kalitatea hobetzea, ongizate maila handitzea, beharrak asetzea edo pertsonak ahalduntzea bezalako helburuak dituzten ekimenak direlako. Eta beraz, helburu horien artean langileen, eta, oro har, klase herrikoien eskakizunak barneratuta daude. Azkenik, behetik abiatzeak tokiko jendarte zibilak eta eragile ezberdinek parte-hartzen duten prozesu kolektiboak direla esan nahi du; adostutako plan, estrategia, politika edo enpresa-ekimen ezberdinak barneratzen dituztenak. Hots, pertsonen bizitzetan eragiten duten arazo ekonomikoei erantzuteko, elkartzeko kolektiboan oinarritzen dira biak. Izan ere, arazoen aurrean, eta bizi baldintzak hobetzeko, lurralde oinarria duen antolatzeko moduak dira biak. Modu honetan, sortzen diren behar edo arazoei erantzun kolektibo bat ematea ahalbidetzen dute.

Laburbilduz, lurraldeen garapen beharra (zentzurik zabalenean), tokiko jendarteetatik garapen estrategiak abian jartzeak eragiten baldin badu, langileen baldintzak hobetzeko beharrak (lanaren eta behar izatearen zentzu zabalena kontuan izanik), ESSko antolakundeak sortzea eragin izan du.

Horrenbestez, ESSko antolakundearen dentsitate handia duen tokiko ehun produktibo batek, behetik gorako strategiak aurrera eramateko erraztasun handiagoak eskaini diezaiotke garapen estrategia bati; batez ere hau izaera endogenoa badauka. Izan ere, Errasti et. al. (2002) esaten duten moduan, enpresa multinazionalen jokabideak oso bideratuta daude enpresa horien matrizeek zehazten duten bide-orria aurrera eramatera. Hots, enpresa filialak ez dute enpresaren strategiak zehazteko gaitasunik; eta beraz, matrizeak filialen gainean duen kontrolagatik baldintzatuta daude. Erabakiak hartzen dituen zentroak, filialak kokatuta dauden lurraldeetatik kanpo dagoelarik. Horrek, autoreek dioten moduan, jarduera ekonomikoan parte-hartzen duten langileen eta horren zuzendaritzaren arteko banaketa eragiten du. Eta hedaduraz, jarduera ekonomikoaren eta tokiko jendartearen artekoa ere. Enpresa multinazionalak, dagoeneko azaldu dugun moduan, lurralde bakoitzak eskaintzen dion abantaila ekonomikoei bakarrik begiratuta planeatzen baitu bere jarduera produktiboa; eta ez lurraldean zehaztutako estrategia baten arabera edo honek dituen beharren arabera.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Ondorioz, behetik gorako estrategia bat aurrera eramateak zailtasun handiagoak planteatzen du. Gainera, Laville-k (2009b) esaten duen moduan, akzioen bidezko kapitalaren enpresek, kapitalaren kontzentrazioarako joera daukate; enpresaren jabegoa, kapitalak zehazten duenez, mugikorra delako. Eta beraz, esku batetik bestera igaro daitekeelako, jabeak elkarren artean ezagutu behar ez diren bitartean. Honek, argi dago, lurraldeetan sortu daitezkeen garapen estrategiak bultzatzeko desabantaila nabarmen bat gorpuzten du; besteak beste, jabeak ez direlako lurraldean egon behar, eta beraz, tokiko biztanleriarekiko ez dutelako inongo loturarik izan behar.

Aldiz, sarritan, garapen endogenoa tokiko jendarteek lurraldean dagoen garapen potentziala erabiltzeko duten gaitasunarekin lotzen da (Vázquez-Barquero, 2018). Horrenbestez, ESSa garapen endogenoan oinarritutako estrategia bat aurrera eramateko baliabide estrategikoa izan daiteke. Batetik, behetik gorako ikuspegia partekatzen duelako. Bestetik, lurraldearekiko lotura zuzena duen elementu bat delako, zeinek tokiko baliabide eta indarrak mobilizatzeko gaitasun handia erakusten duen. Eta azkenik, garapen endogenoa prozesu kolektibo bat izanik, ESSak historikoki metatutako kultura parte-hartzailea eta demokratikoa, garapen strategiaren funtsezko elementu bat bezala kokatu dezakelako.

4.2.3.2 Tokiko garapena eta ekonomia sozial eta solidarioa posfordismoan:

Tokiko garapena eta ESSa elkar banatzen duten beste elementu garrantzitsu bat 70-80ko hamarkadetatik aurrera, testuinguru posfordista eta neoliberal batean izandako ugaritzean aurkitu dezakegu.

Dagoeneko aztertu dugunez, metaketa fordista 70eko hamarkadaren erdialdean krisian sartu zen, erregulazio fordista-keynesiarrarekin bukatuz. Ondorioz, espezializazio malguan oinarritutako eredu posfordista baterako trantsizioa eman zen ideologia neoliberalaren pean. Ekoizpen malgua, nazioarteko eskarian eman daitezkeen aldatetei hobeto egokitzea ahalbidetzen duen enpresaz barneko zein kanpoko jokabideak barneratzen ditu. Hala nola, *just in time* eredu, enpresen sareak, ekoizpen prozesuaren zati batean espezializatzea, lan merkatu malgua etab. Horrez gain, esangura handia hartu duten lan berriak agertu izan dira, bai finantzen esparruan, baina baita ere bestelako zerbitzuetan orokorrean. Lan merkatuak ere berregituraketa handia jasan du. Orain, lehiakortasun handiagoa nagusi da haren ezegonkortasunagatik ezaguna den lan merkatu batean. Behin-behinekotasuna eta prekarietatea geroz eta presentzia handiagoa

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

du langilerian. Izan ere, orain, enpresek dituzten behar espezifikoak estaltzeko periferia laboraletan dauden langileak aldi baterako kontratatzen dira, edo, langile egonkorrek aparteko lan orduak egitera behartzen dira eskari altuko aldietan. Ondorioz, behin-behineko kontratuak, lanaldi partzialak eta azpikontratazioak nagusitu dira. Bestalde, estatuak eskaintzen zituen ongizate sozialerako politikak murriztu dira eta zerbitzu publikoen esternalizazioak eta pribatizazioak nagusitu egin dira, ongizate estatua deseraikiz.

Hala ere, bigarren kapituluan ikusi dugunez, tokiko garapenak krisi fordistaren ondorengo urteetan egonkortu diren esperientziak barne biltzen ditu. Aipatutako problematikei erantzuten saiatu delarik tokiko edo eskualde esparruetatik ahalik eta enplegu egonkorrena lortuz, ahalik eta prestazio eraginkorrenak eskainiz, ahalik eta kohesio sozial handiena bultzatuz etab. Are gehiago, kasu batzuetan, ekonomiaren malgutasun berri hau, bere alde erabili izan du. Adibidez, Italiako barruti industrialetan edo espazio industrial berrietan, non enpresa txikien kontzentrazioak enpresa handien eskala ekonomiak lortzeko gaitasuna erakutsi duten, merkatu aldaketei egokitu ahal diren bitartean (Storper eta Scott, 1988; Becattini, 2002); edo eskualde berrikuntza sistemak, zeintzuk lurraldeetako eragile ugari eta anitzen interakzioen bitartez, tokiko ehun produktiboa berritzen duten eta nazioarteko ekonomia globalizatuari hobeto erantzuteko baliagarriak izan diren (Vázquez-Barquero, 2000; Cooke, 2001). Eta beraz, eredu hauek guztiek erakutsi dute badela lurraldeari eta lurraldeko eragile ezberdinekin saretuta jarduera ekonomikoa garatzeko aukera (Vázquez-Barquero, 2009).

Ondorioztatu dezakegu beraz, tokiko garapena globalizazioak eta malgutasun ekonomikoak dakartzaten erronkei egokitu dela; hauek dakartzaten eragin negatiboak tokiko jendarteetan ahalik eta eragin txikienak izan dezaten. Eta aldi berean, hauek dakartzaten aukerak erabiltzen dituela lurraldeak nazioarteko ekonomian posizionamendu ona lortu dezaten. Izan ere, tokiko garapena, tokiko komunitate batek lurraldean dagoen potentziala erabiltzeko, eta une historiko jakin batean planteatzen zaizkion erronkei erantzuteko prozesuak dira; eta lurraldeen erronka horiek gaur egun, globalizazioak lanaren banaketa espazialaren inguruan dakarren aldaketak dira (Vázquez-Barquero, 2007).

ESSak ere zeresan handia du testuinguru honetan. Ekonomia sozialak ibilbide luzeagoa duen arren, XX. mendeko azken laurden honetan ugaritzen hasten baitira ekonomia sozial berriari lotutako esperientziak. Izan ere, Tomás-ek (1997) dioen

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

moduan, mendebaldeko ekonomietako ongizate estatuaren ordezkapena lehiakortasunaren estatuagatik, eraldaketa nabarmenak suposatu zituen ekonomia sozial tradizionalaren ezaugarrietan; eta dagoeneko tesi azaldu ditugun hiru ezaugarri berri erakusten hasten da jarduera ekonomikoari eta antolakuntza ereduari dagokionez. Hemen berreskuratuta eta laburtuta:

- Antolaketa eredu ez hierarkikoetan oinarritutako antolakundeak, zeintzuk sektore ekonomiko berrietan jarduten duten; batez ere, zerbitzuen sektoreetan.
- Ekoizpen malguaren eta jarduera ekonomikoen azpikontratazioari esker, kapitalean hain intentsiboak ez diren enpresa txikiagoak sortzeko aukera aprobetxatzen dute.
- Jarduera publikoaren berregituraketak ekarri duen zerbitzu publikoen esternalizazioak ESSarentzako aukera berriak ireki ditu. Gainera, pribatizazio eta merkatuen desarauketaren bitartez jendartean sortu diren arazo eta behar sozial berriak agertu dira; eta hauei erantzuteko, sektore pribatu kapitalistatik eta sektore publikotik kanpo erantzuna bilatu dute.

Ildo honetan ere, Laville eta García-Jané-k (2009) diotenez, industriak espazio estrategikoa izaten jarraitzen du oraindik ere ekonomian, produktibitate irabaziak sortzen dituelako. Alabaina, ezin du jarraitu enplegu-sorreraren eragile nagusia izaten. Jarduera industrial eta zerbitzu estandarizagarriak (intentsiboak direnak informazio kodifikatuan), II. Mundu Gerraren ondorengo hiru hamarkadetan ekonomiaren zabalkundeari eta enpleguaren sorkuntzari eutsi ziotenak, jada ez dira gai enplegua sorkuntza maila horretan mantentzeko. Izan ere, nazioarteko merkatuetako lehia eta egun eskura dauden berrikuntza teknologikoak kontuan hartuta, produktibitate hazkunde handiko jardueren lan-bolumena ez da nahikoa hazten biztanleria aktiboa xurgatzeko. Aldiz, orain enplegua sortzeko ahalmen handiena duten sektoreak hezkuntza, osasuna, zaintzak eta zerbitzu sozialak dira besteak beste. Eta hirugarren sektore erlazional hori, non beharrak ez diren ondasun materialen bidez transferitzen, baizik eta zerbitzu pertsonal eta kolektiboen bidez, nahiko autonomoa da industriarekiko.

Eta zentzu honetan, gerra osteko hazkunde garaiko erregimen ekonomikoa, non merkatua printzipio ekonomiko nagusia izanik ere birbanaketak garrantzi handia zuen (elkarrekikotasunari hondar balio bat emanez); eskaintzan oinarritutako ekonomia batera igarotzen da 80ko hamarkadatik aurrera, non estatuak bermatzen zuen babes

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

soziala sakrifikatzen den. Estatuaren eta merkatuaren arteko sinergiaren krisi honek, zerbitzu sozialak, ordura arte ezagutzen ziren moduan aldatu zituen. Eta, “elkarrekikotasunetik abiatutako zerbitzu sozialak ulertzeko modu berri bati” bide eman zion (Eme eta Laville, 2004:39).

Ildo honetan, 80ko hamarkadetatik aurrera sortzen ari ziren enplegu berriei begiratuta, Laville eta Nyssens-ek (2000) deritzoten *proximity services*-etan⁷⁷, aurkitu dezakegu, beste askoren artean, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko bateraketarako sektore garrantzitsua. *Proximity services* edo hurbiltasun zerbitzuak, pertsonak eta hauen zaintza eta garapena helburu dituzten zerbitzuak bezala ulertu genitzake. Zehazki, umeen eta adinekoen zaintza zerbitzuak, egunerokotasunerako zerbitzuak, aisialdi kulturalerako zerbitzuak, ingurumen-zerbitzuak etab. aipatzen dituzte. Hala ere, hauen definizio zehatz bat emateak edo mugapen zehatza egiteak zailtasunak erakusten ditu. Eta beraz, autoreek hauen mugapena egiteko, zerbitzu hauek guztiek partekatzen dituzten bi dimentsio zehazten dituzte: batetik, hurbiltasuna edo/eta gertutasuna (hurbiltasun geografikoa eta zerbitzua emateagatik sortzen den harremanen gertutasuna) eta bestetik ondasun (kuasi)kolektiboak direla.

Hau da, Laville eta Nyssens-ek (2000) dioten moduan, mota honetako zerbitzuak “hurbiltasun objektiboa” edo hurbiltasuna denbora eta distantzian, eta “hurbiltasun subjektiboa” edo zerbitzu emailearen eta hartzailearen arteko harremanen gertutasuna beharrezkoak dituzte. Gainera, (kuasi)kolektiboak dira, behar pribatuei erantzuna ematen dieten arren, kanpo-eragin positiboak sortzen dituztelako jendartean. Hots, zerbitzu horietako askok, kontsumitzaile indibidualen behar pribatuei modu indibidualean eskaintzen zaizkien arren, zerbitzu horiek emateagatik kolektibitate osoarentzako onurak (kanpo-eragin positiboak) eratortzen dira.

Horrenbestez, hurbiltasunak hartzen duen adiera ez da espazio edo denbora irizpideen objektibizazioaren bitartez soilik definitzen, baizik eta aktoreen subjektibotasuna ere barneratzen du. Laville eta García-Janék (2009) dioten moduan, gertutasuna definitzeko, aktoreek sentitu, probatu eta barneratu egiten dute. Bakoitza

⁷⁷ Literatura Frantsesean hedatutako *services de proximité*-tik egindako itzulpen literala da *proximity services*. Berez, zerbitzu hauei erreferitzeko adierazpen ingelesa *household and community services* litzateke; hala ere Laville eta Nyssens (2000) itzulpen literala aukeratu dute terminoaren espezifikotasuna guttiz mantentzeko. Gure testuan, arrazoi berdinagatik “hurbiltasun zerbitzuak” terminoa erabiliko dugu.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

bere aldetik eta esfera pribatuan eguneroko arazoak konpontzen saiatu beharrean, kolektiboki esfera publikorantz hauek zabalduz. Modu honetan, elkarrekikotasunak paper berritua duen zerbitzu hauetan, eskaria eta eskaintzaren eraikuntza bateratua ahalbidetzen dute.

Izan ere, esfera publikorantz zabaltzen direnez, esfera pribatuan ezkutuan egon zitekeen eskaria azalarazten da. Hurbiltasun zerbitzuek, estatuak eskainitako zerbitzu sozial tradizionalen aurrean, zerbitzu hauen emaile eta hartzaileen arteko interakzioa handiagoa da; honek behar konkretuak hobeto identifikatzea ahalbidetzen duen aritmetik. Eta beraz, zerbitzuen eskaintza hobeto egokitu daiteke (Eme eta Laville, 2004). Ildo honetan, esan genezake, 80ko hamarkadatik aurrera emandako zerbitzu sozialen kooperatibizazioak erabiltzaileen papera handitzea lortu zuela, zerbitzu horien prestazioa demokratizatuz (Laville eta García-Jané, 2009). Ez baitziren mugatu fokalizatuta eta identifikatuta zituzten arazoaren jatorria bilatzera, baizik eta interesdunen egunerokotasunean bizi dutenari buruzko galdeketa kolektiboa bideratu zen hauek identifikatzeko. Ildo honetan, zerbitzu hauen kooperatibizazioak, merkatuaren, birbanaketaren eta elkarrekikotasunaren arteko erantzun misto bat bezala ulertu ditzakegu. Are gehiago, elkarrekikotasunaren printzipioa aplikatzen da, merkatuaren eta birbanaketaren mekanismoei esker. Izan ere, merkatuko, ez-merkatuko eta ez-diruzko baliabideak mobilizatzen dira zerbitzu hauen eskaintzan. Eta beraz, baliabideen hibridazio honek, zerbitzu aniztasuna eta pertsona guztien irisgarritasuna bermatzea ahalbidetzen du (Eme eta Laville, 2004).

Hau da, ESSko antolakundeek kapitalean izan dezaketen intentsitate eskasa ordezkatzeko, eta beraz, hauen ekoizpena aurrera eramateko beharrezko baliabideak lortzeko, merkatutik, estatutik eta jendarte zibiletik baliabideak hibridatzen dituzten antolakundeak dira (Laville eta Nyssens, 2000). Baliabideak hibridatzeko gaitasun honek, merkatua helduko ez litzatekeen zerbitzuak eskaintzea eta estatuaren burokratizazioaren eta homogenizazioaren aurrean, emantzipazioa oinarri duten zerbitzuak eskaintzea ahalbidetzen du. Baina aldi berean, merkatuko baliabideetara duten irisgarritasunagatik, ekintza eremuak zabaltzea ahalbidetzen du, estatutik lortzen diren baliabideen bitartez pertsona guztiei bermatzea ahalbidetzen duen bitartean (Laville eta Jané, 2009).

Laville eta Nyssens-entzat (2000), zerbitzu mota hauen hazkundeak eraldaketa demografiko, sozial eta kulturalen eraginez, eta estatuak erregulaziorako zuten

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

paperaren eraldaketaren aurrean sortutako beharrei erantzuna ematen die. Izan ere, autore hauentzako, garatutako ekonomiek geroz eta garrantzia handiagoa ematen diete pertsonetan oinarritutako zerbitzuei, eta aldi berean, hirugarren sektorearen inguruko interesa berpiztu da. Horrenbestez, geroz eta ikerketa gehiagok, hauen arteko konexioa aintzat hartzen ari dute langabeziari aurre egiteko proposamen bezala. Autoreek dioten moduan, zerbitzu mota hauen inguruan egindako ikerketa guztiek ondorioztatzen dutenez —askok Europar Komisioak egindakoak—, sektore hauetan eskari potentziala etengabe hazten ari da, aipatutako eraldaketak direla medio. Eta beraz, desenplegua eta prekaritatea handitzen ari den egoera honetan, zerbitzu hauek erantzun bat emateko gai ote diren aztertzeko interesa handitu da azkenaldian.

Hurbiltasun zerbitzuak beraz, posfordismoaren hedapenarekin jarduera produktiboen egituretan emandako eraldaketagatik agertu diren sektore berriak dira, non ESSak gaitasun handia erakusten ari duen hauek estaltzeko (Laville, 2004). Eta aldi berean, tokiko garapenerako garrantzitsuak izan daitezke, lurraldeen ongizate maila eta kohesio soziala handitzen duten zerbitzuak direlako, hurbiltasun geografikoa beharrezkoa delako eta zerbitzuek berez eskatzen duten harremanen gertutasunak konfiantza handitzen duelako. Gainera, zerbitzu hauen beharra oso lotuta dago ezaugarri demografiko eta sozialekin, eta hauek nahitaez ezaugarri lurralderatuak dira; lurraldeen egoera konkretuak azaltzen dituztelako.

Ondorioztatu dezakegu, eredu fordistaren ohiko erantzun estatista baten aurrean, non egungo arazoan aniztasuna barneratzeko gaitasunik ez duen, bestelako alternatiba komunitarioak garatzea beharrezkoa dela, egungo errealitatera egokituta, ongizate maila mantendu nahi bada geure jendarteetan. Ez diogu, honekin guztiarekin, estatuari garrantzia eta erantzukizuna kendu nahi, oraindik badelako ezinbesteko eragilea; beharrezkoa luke, hala ere, bestelako logiketan lan egitea, kapitalaren metaketa eta kontzentrazioa birbanaketaren bitartez legitimatu ordez, logika komun(itario) batean barneratuz.

4.2.3.3 Ikuspegi komunitarioa:

Ikuspegi komunitarioa da ESSak zein tokiko garapenerako eredu batzuk partekatzen duten beste elementu garrantzitsu bat. Hala ere, eztabaida sortzen duen kontzeptua da hau. Izan ere, horren inguruko literaturan barneratzen bagara, hau ulertzeko modu ezberdinak antzemango ditugu.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Oro har, garapen komunitarioaren zabalpen akademikoak, hirietako auzo deprimituetan gertatzen diren esperientziei begiratzen die⁷⁸ (Favreau, 1997; Moulaert, 2000; Moulaert eta Nussbaumer, 2005a; Moulaert 2008). Bertan eman direlako desindustrializazio prozesu handienak, eta ezkortasuna agerikoa izan daitekeen arren, lurralde hauetan dagoen dentsitate sozialagatik ematen den elkarrekintzarako joerak, harreman sozialak eraldatzen dituzten alternatibak azalarazi ditu kasu batzuetan (Moulaert, 2008).

Garapenaren ikuspegi honetatik, dimentsio ekonomikoa garapenaren beste dimentsio gehiago bat bezala kontsideratzen da⁷⁹, eta ez, beraz, dimentsio bakarra edo lehentasuna duena. Are gehiago, ikuspegi komunitario hauen alderdi ekonomikoen oinarrietan, dagoeneko azaldu dugun ekonomiaren pluraltasuna argi eta garbi antzeman daiteke. Izan ere, hauetan, merkatutik kanpo edo/eta diruzko ekonomiatik kanpoko ekimenak pisu adierazgarria hartzen dute. Hau da, auzolana, denbora bankuak, truke sareak, moneta sozialak, boluntariora etab. garapen komunitarioaren adierazpen ekonomiko ohikoak dira. Hala ere, esan bezala, ikuspegi honek ez da alderdi ekonomikora mugatzen, parte-hartze sozial eta politikoa sustatzeko ekimen sozialki berritzaileak edo ekimen kulturalak ere barneratzen baititu.

Garapen komunitarioa beraz, komunitateek dituzten haustura sozialen jatorri ezberdinen gaineko erantzun integrala bilatzen du. Horrela, estrategia ezberdinak aldi

⁷⁸ Garapen komunitarioaren inguruko ikasketa akademiko gehienak hirietako auzoei begiratzen diete. Are gehiago, ikuspegi batzuetatik tokiko garapenaren ikuspegi urbanoena bezala kontsideratzen da (nahiz eta landa eremuetako garapen komunitarioari buruz hitz egiten duten autoreak ere aurkitu ditzakegun). Argi dago, dena den, garapen komunitarioaren inguruan idazten duten autoreak lurralde hauetan ematen diren harreman sozialen dentsitatean oinarritzen direla haren corpusa osatzeko. Ikuspegi ekonomikotik haratago eta alor sozial eta kulturaletan arreta handiagoa jarritz. Hau, lurralde eskala hauek izan ohi dituzten eskuduntza ekonomikoen faltagatik izan liteke ere. Esperientziei begira, garrantzi handia hartu dituzte garapen komunitarioa artikulatzen duten zentroak (*Corporations for Community Economic Development* edo *CCED*) (Favreau, 1997), batzuk ESSaren forma hartzen dutelarik (*Social Economy Community Development Organization* edo *SECDO*) (Fong, 2010).

⁷⁹ Garaen komunitarioaren ikuspegi batzuek arlo ez ekonomikoei espresuki erreferentzia egiten diete. Beste batzuk, merkatutik kanpoko esperientzia ekonomikoak barneratzen dituzte soilik. Hala nola, auzolana, denbora bankuak, truke sareak, moneta sozialak, boluntariora etab. Hala ere, tesi honetan hartutako kontzeptioa, dimentsio ezberdinak maila berdinean lantzen dituen garapen eredu plural batena da. Hau da garapenaren dimentsio soziala, politikoa, kulturala, ekonomikoa (merkatukoa, ez-merkatukoa eta ez-diruzkoa) uztartzen dituen. Horretarako, Favreau (1997), Moulaert eta Nussbaumer (2005a), Bouchard eta Lévesque (2010) edo Majee eta Hoyt (2011) bezalako ekarpenak hartu ditugu oinarri moduan. Autore hauek, oro har, garapen komunitarioaren ideia berdina lantzen dute, non berrikuntza soziala den dimentsio horiek arautzen dituen; beharrak asetzerako bideratutako ekonomiaren bitartez, harreman sozialak eraldatuz eta parte-hartze politikorako forma berriak garatuz.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

berean jorratzea ahalbidetzen du. Adibidez, adineko pertsonen isolamenduaren eta ehun sozialaren ahultzearen kontra lan egin, merkatutik kanporatuak izan direnen laneratzearen aldeko estrategiak aurrera eraman, talde sozial ahulenak ahaldundu, edo lan prekarietatearen kontra eragin (Favreau, 1997).

Oro har, laburbildu genezakeen komunitatearen ahalduntzerako prozesu bat bezala, non ekintza kolektibo ezberdinen bitartez, arazo komunei irtenbideak ematen zaizkien, kohesio eta justizia soziala, parte-hartzea, ingurumen iraunkortasuna eta garapen kulturala bezalako irizpideak oinarri izanik.

Gainera, ikuspegi kapitalista/neoliberal garrantzitsu batekin apurtzen du. Izan ere, azken honek, garapenaren merkatuko ikuspegi teknologiko eta industrial bati jarraitzen dio, non kohesio soziala, harreman sozialak, parte-hartzea eta kultura bezalako elementuak, garapenaren elementu osagarriak kontsideratzen diren gehienez ere. Garapen komunitarioak, garapen industrialaren zentralitatea duen paradigmarekin apurtzen du, arlo sozial, politiko eta kulturei garrantzi handia emanez. Izan ere, garapen industrialaren paradigma azken mendean indartu den bitartean, harreman sozialak eta adierazpen kulturalak bizitza bezain zaharrak dira. Hortaz, arlo hauen garapena ezinbestekoa da, hazkunde ekonomikoa baino haratago doan garapena bilatu nahi bada. Horregatik, ikuspegi honetatik idazten duten autoreentzat, soilik helburu ekonomikoak dituzten garapen ereduak duten merkatuan oinarritutako ontologia batetik, komunitatean oinarritutako beste batera igarotzea beharrezkoa dela diote (Moulaert eta Nussbaumer, 2005a).

Beraz, dentsitate sozialak eragiten duen harremanen ugaritzea baliatuz, bizitzaren alor ezberdinetan sortu daitezkeen behar kolektiboak komunitatea oinarri izanik asetzean datza. Izan ere, esparru pribatua eta publikoaren arteko dikotomia geroz eta lausoagoa denean, eta behar horiek asetzeko erantzukizunak dikotomia hori gainditzen duenean, komunitateak, berezkoak dituen arauekin (non merkatuaren efizientzia, beharrak asetzeagatik ordezkatzen den), hartzen du paper hori (Moulaert eta Nussbaumer, 2005a).

Eta horretarako, Favreau-k (1997) dionez, ESSak ekonomia kapitalista baino eredu eraginkorragoa osatzen du. Izan ere, ESSaren izaera, helburu, egitura, arau, eragile eta abarregatik, jendarte zibiletik, herri-mugimenduetatik eta hauen aldarrikapenetatik hurbilago dagoen eredu da. Azken finean, ESSa langile antolatuen, klase herrikoien eta herri-mugimenduen adierazpen ekonomikoa bezala ulertu genezakeen. Eta beraz,

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

ESSak —bere merkatuko, ez-merkatuko eta ez-diruzko adierazpen ezberdinekin— hauen aldarrikapenei erantzuna emateko marko aproposagoa osatzen du, komunitateari lotura handiagoa erakusten duten antolakundeak direlako.

Ildo honetan ere, Majee eta Hoyt-ek (2011) esaten duten moduan, ESSko antolakundeak parte-hartzeko, negoziatzeko, politikoki eragiteko eta bazkideen bizitzetan eragiten duten instituzioak moldatzeko gaitasunetan ahalduz dituzte komunitateei. Izan ere, komunitate bateko kideak batera eta horizontaltasun gradu handiago baten bitartez lan egiterakoan, tokiko komunitatearen ongizaterako kolektiboki lan egiten ari dela ulertzen da. Gainera, ESSko antolakundearen elkarlaneko barne jokabideak jendartera zabaltzeko baliagarriak dira, modu honetan identitatea sendotuz, arau komunitarioak ezarriz eta eragile ezberdinen arteko konfiantza handituz. Horrez gain, ESSak dituen balio implizituengatik, garapen komunitarioaren logikan dauden ekimenei aterki juridiko eta antolaketa eredu bat eskaintzeko lanabesa proposa bihurtzen da.

4.3 Tokiko garapenaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko sinergiak:

Tokiko garapenaren eta ESSaren arteko harremanak behin ikusita, atal honetan, haratago joango gara, eta harremantze horretatik sortu ditzaketan sinergiak aztertuko ditugu. Sinergia, enpresa antolaketa ikasketetan asko erabili den terminoa da; antolaketa aldaketak egiten direnean edo bi enpresen fusioa edo elkarlana ematen denean adibidez. Oro har, bi faktore edo gehiagoren elkarlanaren emaitza, faktore horien banakako gehiketaren emaitza baino handiagoa denean ematen dela esan ohi da.

Gurera hurbiltzen, badira bai tokiko garapenaren barnean eta baita ere ESSaren barnean hauen helburuak lortzeko erraztasun handiagoa eskaintzen dizkieten elementu sinergetikoak ikertu dituzten autoreak. Hau da, tokiko garapenaren ikuspegitik, tokiko garapena lortzeko lagunduko dituzten elementu sinergetikoak ikertu dituztenak, eta bere aldetik ESSaren barnean egin dutenak ere. Lehenengoan artean, nagusi izan daiteke Sergio Boisier (1999b) autore txiletarra, zeinek tokiko garapenerako “kapital sinergetikoaren” eraikuntza beharrezkoa dela esaten duen. Autore honentzako, kapital sinergetikoa, tokiko jendarteak lurraldean dauden kapital ezberdinak (ukiezinak ia guztiak: soziala, instituzionala, naturala, gizatiarra, zibikoa, eraikitakoa etab.) kolektiboki eta demokratikoki artikulatu eta garapenaren norabidean bideratzeko duen

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

gaitasuna litzateke. Bestetik, ESSko barneko ekintzailletza proiektuak jatorri berdineko edo/eta esfera publiko eta pribatuko beste proiektuekin elkarlanean lortu dezaketen sinergiegi begiratu izan zaio (Sarasua eta Udaondo, 2004; Poyato, 2017). Gure kasuan aldiz, tokiko garapena eta ESSaren arteko hurbilketa baten ondorioz sortu daitezkeen sinergien azterketa egingo dugu.

Horretarako, identifikatutako 11 sinergiak⁸⁰ 5 taldeetan banatu ditugu: Lurraldetasuna, enplegua eta ekintzailletza, berrikuntza eta ekoizpenaren antolaketa eta komunitatearen ahalduntzea. Beraz, atalaren egiturari dagokionez, testuan, esandako 5 talde horiek garatuko ditugu sinergien ikuspuntutik, eta azkenean, sinergia bakoitza jasotzen duen taula sintetiko bat eraiki dugu⁸¹.

Lurraldetasunaren inguruko sinergiak (S1 eta S2):

Lehenengo talde honetan, lurraldearen garrantzia eta garapen politiken izaeraren inguruan sortu daitezkeen sinergiak bildu ditugu. Lurraldeak garrantzi handia hartzen du bi eruedetan. Tokiko garapenerako, lurraldea, garapen estrategiak diseinatu eta aplikatzen diren espazioa da; baina aldi berean, harreman sozial ezberdinen kokalekua ere bada. Eta azken hauek estrategien izaeran eragiten dute. Hau da, tokiko garapenaren inguruko ikasketek, ez dute lurraldea soilik termino espazialean ulertzen, baizik eta garapena baldintzatzeko orduan, bertan ematen diren harreman ugarien garrantziagatik, termino sozialetan ulertzea beharrezkoa dela argudiatzen da.

ESSrako aldiz, lurraldeak garrantzia du, esan dugun moduan, antolakunde baten kokalekua soilik euren sortzaileen erabakia delako (Mozas eta Bernal, 2006), eta ez, beraz, kapitalaren erreprodukziorako baldintza hoberenak eskaintzen dituen lurraldearen arabera. Esan dezakegu ildo honetan, autogestioak, antolakundeak lurraldean errotzen dituela; lana tokiko jendartearen berezko elementua bezala kontsideratzen baitu, eta ez beraz, geografikoki trukagarria edo mugikorra. Gainera, sortzaileen lurraldeetan abiatutako ekimenak izanik, ekimen hauek, tokiko

⁸⁰ S1: Lurraldearen garrantzia. S2: Garapen politiken izaera. S3: Tokiko ekonomia. S4: Metaketa lokala. S5: Enplegua. S6: Ekintzailletza. S7: Berrikuntza. S8: Tokiko sare egitura. S9: Garapen integrala. S10: Sakontze demokratikoa. S11: Eraldaketa.

⁸¹ Testuan 5 talde barneratzea erabaki dugu nahiz eta guztira sintesi taulan barneratutako 11 sinergiak identifikatu ditugun. Honen arrazoiak, testua ulergarriagoa eta arinagoa egitea izan da; baina aldi berean, 11 sinergia horiek biltzen dituen taula egitea beharrezkoa ikusi dugu, sinergia guztiak begi kolpe batean ikusi ahal izateko.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

instituzioetatik bustita, tokiko beharren jakinaren gainean eta tokiko komunitatearekin harremanetan daude. Are gehiago, ESSko antolakundeek euren komunitatearekiko (ICA, 1995⁸²) eta tokiko garapenarekiko (REAS, 2011⁸³) konpromiso esplizitua erakusten dute. Oro har esan genezake, lurraldeak ekonomia eta jendartearen arteko hurbilketa ahalbidetzen duten eskala aproposenak direla.

Horrek, Rodríguez eta Mozasek (2000) dioten moduan, garapena, ongizatea eta lurraldearen defentsaren arteko lotura handitzen du. Aurrekoagatik ere, ESSak tokiko identitatearen indartzea dakar. Identitate sendo bat, erronka komunei aurre egiteko eta propioak diren balioak kolektiboki defendatzeko baliagarria da. Eta azken hauek, ez dira soilik immaterialak. Argi dago, tokiko identitatearen indartzeak, balio historiko eta kulturalen inguruko defentsa areagotzen duela, baina baita ere ondasun komunak (basoak, mendiak, aintzirak...) eta publikoak (osasuna, hezkuntza, pentsioak...).

Horrez gain, ESSko antolakundeak harreman pertsonal eta sozialetan enpresa kapitalistak baino intentsiboagoak dira; pertsonen lehentasuna ematen dietelako, kudeaketa demokratikoak etengabeko eztabaida sortzen duelako, interkooperazioa edo/eta lankidetzaren harremanak aurrera eramaten dituztelako, tokiko eragileekiko harremanak sustatzen dituztelako etab. Eta beraz, ESSak pisu adierazgarria duen lurralde batean, harreman sozialak hazteaz gain, kooperazioan, elkarrekikotasunean, elkarren arteko laguntzan etab. bezalako balioetan oinarritutako kapital soziala eraikitzen laguntzen du (García-Jané, 2014). Gainera, ESSaren erroan dagoen kooperatzeko izaera honek, beste eragileekin batera interkooperazioa areagotu dezake, tokiko lurralde sareak indartuz eta eragile berriak inplikaturaz garapen estrategietan. Hau da, ESSak garapen strategiara eragile gehiago gehitzea eragin dezake, estrategia zabalagoak sortuz, eta beraz, onarpen eta eraginkortasun maila handiagoarekin. Horrek, ezberdinen arteko eztabaidan oinarritutako akordioak eragin ditzake, tokiko eragile gehiago strategiaren parte direla sentiaraziz eta lurraldean ematen diren harreman sozialak aberastuz.

⁸² Zazpigarren printzipioa: Komunitatearekiko ardura: *“Kideen beharretan arreta jartzen duten bitartean, kooperatibek beren komunitateen garapen jasagarria lortzeko lan egiten dute, kideek onartutako politiken bidez.”*

⁸³ Seigarren printzipioa: Inguruarekiko konpromisoa: *“Lurraldearen tokian tokiko garapen iraunkorra eta komunitarioa bultzatuta gauzatzen dugu gure inguruarekiko konpromisoa.”*

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Horrenbestez, argi gelditzen da azterketa termino ekonomiko hutsetan baino, ikuspegi sozioekonomiko, politiko, instituzional eta kultural baten bitartez egin behar dela. Izan ere, onura ekonomikoez gain, lurraldeari eta tokiko komunitateari lotutako bestelako sinergia batzuk antzeman ditzakegu. Hala nola, harreman sozialen garapena, indartze instituzionala, jendartearen ahalduntzea, tokiko errealitatearen ezagutza handiagoa, garapen estrategien zabaltasun handiagoa, tokiko identitatearen sendotzea, proiektu partekatuak sortzeko aukera handiagoa etab. Hauek guztiak lurraldearen eta garapen prozesuaren indartzea dakartzatelarik.

Bestalde, arreta garapen estrategietan jarritz, garapen endogenoko eta behetik gorako ereduekin —ez guztiekin, batzuk goitik beherako ereduak jokabideak errepikatzen bideratu baitira— lurralde garapenaren ikuspegia guztiz aldatu da. Eredu berriak, atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko helburua duten eskaintzan oinarritutako ereduak aurrean, eskarian oinarritzen dira gehiago, biztanleen eta enpresen beharrak asetzera bideratuta dauden heinean (Vázquez-Barquero, 2005; Mozas eta Bernal, 2006). Hots, lurraldeetan egindako diagnostiko sakon baten osteko mugimenduak dira, non beharrak identifikatu diren eta hauei erantzuna emateko pausoak erabakitzen diren. Kasu honetan, beharrak enplegua, dinamismo ekonomikoa, ekoizpenaren lurralde antolaketa, berrikuntzarako zentro teknologikoak edo hezkuntza esparruak izan daitezke, eta baita ere lurraldean beharrezkoak diren elikadura, osasuna, etxebizitza, kultura, kirola, ingurumena, zerbitzu sozialak etab. bezalako zerbitzu edo ondasun konkretuak.

ESSko antolakundeak, definizioz, behetik gorako ikuspegiarekin sortutako elementu endogenoak direla. Pertsonen arteko elkartzaren bitartez sortutako antolakunde kolektiboak direlako; bazkideek edo komunitateak enplegu, kontsumo, finantzaketa, etxebizitza eta abarren inguruan dituzten beharrak asetzeko asmoa dutenak; eta ez behar artifizialak sortzeko helburuarekin. Horretarako, tokiko baliabideak mobilizatu eta indarrak aktibatzen dituzte, lurraldeetatik eta euren jendeetatik sortzen diren heinean (Guridi et. al., 2011; Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014).

Horrez gain, ESSak, eskaria eta eskaintzaren eraikuntza bateratua sortzeko duen gaitasunagatik, tokiko beharrak hobeto identifikatzeko erraztasun handiagoa eskaintzen du. Izan ere, gobernantza zabaleko antolakundeak dira, non inguruan dauden eragile interesatuen parte-hartzea ematen den. Horrela, interes talde hauen nahiak eta beharrak

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

ezagutzen dira modu zuzenago batean, eta beraz, ekoiztutako produktu edo zerbitzuen erabiltzaileekin batera produktu eta zerbitzu horiek diseinatu daitezkeelako.

Beraz, garapen estrategia endogeno bat aurrera eramane nahiko lukeen lurralde batek, badaki ESSan logika bateragarri bat aurkituko duela, eredu hauek sustatzen duten enpresa ikuspegia eta bat datorrelako ESSarekin. Izan ere, tokiko garapenerako eredu berriek lurraldeetan enpresa txiki eta ertainen kontzentrazioa agertzea sustatzen dute, ekoizpen malgura eta tokiko kultura industrialera hobeto egokitzen direlako. Hau, ESSko merkatuko enpresak agertzeko orduan ezaugarri onuragarria da. Alde batetik, enpresa txiki eta ertainak sortzeak kapital ekarpen txikiagoa behar duelako, eta bazkide sortzaileak lurraldearekiko eta honen ezaugarri sozial eta kulturekiko errotze handiagoa dutelako (Mozas eta Bernal, 2006). Eta bestetik, ekoizpen antolaketa malgua ahalbidetzen duen enpresa egiturak garatzeko aukera handiagoa daukatelako, erabakia langileen eskuetan dagoelako.

Are gehiago, ESSak enpresa kapitalistek baino hobeto hartu dezake bere gain horrelako estrategia bat. Izan ere, alde batetik, lurraldearekiko errotze maila handiagoa erakusten dutenez, lurraldean oinarritutako erantzun bat emateko aproposagoak dira. Eta bestetik, bazkideen eta tokiko biztanleriaren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzearen helburua partekatzen dutenez, hau ez da jarduera ekonomikoaren errentagarritasun mailara azpiratzen; kapitala ez delako helburu bat bezala ikusten, helburuak lortzeko bitarteko bat baizik. Eta beraz, enpresa kapitalista batek, tokiko garapenerako estrategia bat babestuko du soilik baldin eta errentagarritasuna handitzeko baliagarria bada, aldiz, ESSko antolakunde batean, inplikazio handiagoa emango da bere bazkideen etorkizuna bertara lotuta dagoen heinean.

Lotura hauek guztiek argi dago, tokiko garapenaren markoan dauden politikak aurrera eramatea errazten dute. Horrez gain, tokiko garapenak eta ESSak norabide partekatua aurrera eramaten dutenez, behintzat funtsezko helburuei begira, epe luzeko begirada gailendu daiteke; egiten ari diren horretan sinesten dutelako. Pentsamendu hau komunitatean zabaltzen bada, epe laburrean emaitza azkarragoak baina funtsean lurraldearen egituretara eta beharretara egokitzen ez direnak, epe luzerako estrategia sostengatuengatik aldatzea ahalbidetuko luke.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Tokiko ekonomia eta aberastasunaren banaketa (S3 eta S4):

Tokiko ekonomiari dagokionez, tokiko garapenak, promozio ekonomikorako politika ezberdinak aplikatu ohi ditu garapen agentzien bitartez. ESSak, bultzatutako politika horiek guztiak egituratzeko juridikoki zein antolaketaren aldetik aterki bat eskaintzeaz gain, ekonomia autozentratuagoa lortzeko baliagarria da. Hots, ekoizpenaren baliagarritasun soziala errentagarritasun ekonomikoaren aurretik jartzen duenez, eta baliabide endogenoen bitartez “behar endogenoak” asetzera bideratuta dagoen enpresa eredua suposatzen duenez, tokiko ekonomiaren lehentasuna, lurraldeetan bizi diren pertsonen bizitzen erreproduktzioarako beharrezkoak diren jarduerak bihurtzen dira. Zentzu honetan, ESSaren izaera pluralagatik sektore ezberdinetan garatu daitekeenez, industriarako zerbitzu osagarriak ekoiztu ditzakeen moduan, onura sozial handiak sortzen dituzten baina errentagarriak ez diren bizitza sostengatzeko beharrezko zerbitzuak eskaini ditzake. Horrela, gainera, tokiko ekonomia dibertsifikatzen da kanpo dependentziak murriztuz. Hau bereziki garrantzitsua izan daiteke eremu urbanoetan, non oinarriko beharrak asetzeko produktuak inportatu behar diren, horrek dakarren ingurumen kostuekin.

Horrez gain, ESSak, tokiko ekonomia dinamizatzeko eta tokiko beste eragile kooperatiboak aktibatzeke gaitasun handia erakusten du. Hau da, ESSko antolakundeek ez dituzte onurak soilik eurentzako bilatzen, baizik eta ESSko sektore guztiarentzako. Horregatik ugariak dira batera haztea eta tokiko ekonomia dinamizatzea ahalbidetzen duten ekimen ezberdinak. Hala nola zirkuitu ekonomiko laburrak, tokiko merkataritza sustatzeko ekimenak, merkatu sozialak, merkatu agroekologikoak, kontsumo arduratsuaren sareak etab. Horrela, kontsumo masiboa sustatzen duten merkataritza ereduaren aurrean, ESSa tokiko ekonomia modu jasangarriagoan dinamizatzeko aktore garrantzitsua bezala kokatzen da.

Ildo honetan ere, dagoeneko azaldu ditugun hurbiltasun zerbitzu berriak ekoizteko duen potentziala agertzen zaigu. Modu honetan, enplegua sortzen den bitartean, tokiko jendartearen beharrak asetzen dira, garapen iraunkorrago ahalbidetzen den bitartean (izan ere, zerbitzu hauek oro har, ez dira intentsiboak materialen erabilpenean). Horrez gain, botere publikoekiko eta eragile sozialekiko lortzen ari duen aitorpen eta ikuspena, behar sozialen hornikuntzarekin lotutako zerbitzuak esleitu eta ekoizteko abantailak sortzen ditu enpresa kapitalisten aurrean. Izan ere, Guridi eta Pérez de Mendigurenek (2014) dioten moduan, simetria handiagoa sortzen da zerbitzu horien

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

eskaintza publikoaren interesaren eta zerbitzu horiek ekoizten duten erakundeen filosofia sozial eta komunitarioaren artean.

Ikusi dezakegunez, ESSak tokiko ekonomiari eskaini diezaioken onurak ugariak dira, horregatik, ohikoak dira ESSaren presentziagatik lurralde batek lortzen dituen onura ekonomikoak azpimarratzen dituzten autoreak aurkitzea. Kapitulu honen hasieran dagoeneko batzuk aipatu ditugu (Ikusi 4.1. atalean aipatutako García, 1997; Mozas eta Bernal, 2006; Juste, Gómez eta Fernández, 2011). Hala ere, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko harremanak batek tokiko ekonomiaren izaeran sortu dezakeen eraldaketa ere aipatu behar da. Izan ere, ESSan oinarritutako tokiko ekonomia batek, burujabetza ezberdinak berreskuratzeko gaitasun handiagoa ematen dio lurralde bati. Hau da, bizitzaren sostengurako ezinbestekoak diren, baina kapitalaren logikan dauden, sektore estrategiko ezberdinak berreskuratzeko gaitasuna dute, komunitatearen eskura eta eskuetan jarriz. Zentzu honetan, besteren artean, elikadura-, energia-, finantza-, teknologia-, etxebizitza-burujabetzak berreskuratzeko ESSko antolakundeek burutu dezaketen alternatibei buruz ari gara. Adibidez, tokiko ekoizpen agroekologikoaren bitartez, energia berriztagarrien kooperatiben bitartez, finantza solidarioen bitartez, teknologia librearen bitartez edo co-housing etxebizitza ereduaren bitartez (hauen inguruan aurrerago sakonduko da) (Arrillaga, 2021b).

Tokiko ekonomia dinamizatzeaz gain, tokiko garapenetik burutu ohi diren beste ekintzak, tokiko enpresa egituraren lehiakortasuna handitzera, berrikuntzak sustatzera edo nazioarteko merkatuetan kokapena hobetzera bideratutakoak dira. Horretarako, ekoizpena lokalki antolatzen da, helburu partekatu hori duten eragile ezberdinak harremanetan jartzen dira eta nazioarteko joerak aztertzen dira. Modu honetan, lurraldeek nazioarteko merkatuetan lehiatu eta metaketa lokala ahalbidetu dezaketen moduan, lurralde bakoitzak eskaintzen dituen baldintza ezberdinengatik kanpoko enpresen hartzailak dira ere. Mugimendu hauek, bi ahoko ezpata izan daitezke lurraldeentzako, izan ere, dinamismo ekonomikoa, enplegua eta aberastasuna sortu dezaketen moduan, dependentzia, zerga ihesa, tokiko ekonomia egituraren kontrol eza etab. eragin dezakete. Gainera, lurraldeetara heldutako lehiakortasun global honek, tokiko enpresak merkatutik baztertu ditzake. Horrez gain, erakarritako enpresa kapitalistek lurraldeetan dituzten filialen itxiera edo kaleratzeak bezalako neurriak hartzen ohi dituzte krisi garaietan, tokiko krisi produktiboak areagotuz.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Ildo honetan, ESSaren izaera eta egituragatik, lehiakortasun globalaren eragin horietako batzuk irauli daitezke neurri batean. Zerga ihesa ekiditzen da matrize kooperatiboa lurraldean dagoelako, sortutako aberastasunaren banaketa bidezkoagoa ematen da mozkinen gaineko tratamendu bereziagatik, kohesio soziala areagotzen da ohiko lan-merkatutik baztertuta dauden pertsonak laneratzen direlako, tokiko instituzioak indartzen dira lurraldearen egunerokotasunean eragiten duten antolakundeak direlako etab. Gainera, ESSaren erresilientzia eta lan kooperatiboaren egonkortasuna handiagoak dira. Izan ere, alde batetik, testuinguru aldakor eta ezegonkor honetan, kanpo talkak jasateko eta horietatik suspertzeko eta erantzun erresiliente bat emateko lurraldeek duten gaitasunari begiratzen zaion une batean, ESSko antolakundeak, erresilientzia gradu altua erakusten duten heinean (Birchall eta Ketilson, 2009; Laville eta García-Jané, 2009; Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014), lurralde erresilienteagoak eraikitzen lagundu dezakete (Sonnino eta Griggs, 2013). Eta bestetik, nazioarteko hainbat ikerketek babesten dutenez, krisi garaietan ESSak enplegua sortzeko gaitasun handiagoa erakusten du ohiko enpresak baino (Jefferis eta Masson, 1990; Bartlett eta Pridham, 1991; Monzón eta Barea, 1991; Guerreri, Nazzaro eta Zevi, 1992; denak Tomás-en (1997) bilduta).

Bestalde, tokiko garapenaren helburu inplizitu bat, aberastasuna erakartzea eta jarduera ekonomikoaren balio erantsiaren ahalik eta zatirik handiena lurraldean geratzea da; hots, metaketa lokala. ESSko antolakundeen jabego eta kudeaketa egiturengatik, hau lurraldean geratzea, berrinbertitzea eta honen banaketa bidezkoagoa ahalbidetzen du. Modu honetan, ez da bakarrik metaketa lokala lortzen, baizik eta honen banaketa ematen da, kohesio soziala areagotuz. Hau da, batetik, mozkinak berrinbertitzeko joera handiagoa dago, jarduera produktiboa sendotzeko. Bestetik, ESSko antolakundeen bazkideak lurraldekoak direnez, balio erantsia bertan gelditzen da. Eta azkenik, bazkideen jabego eta kontrolpeko antolakundeak izanik sortutako aberastasuna modu berdinzaleago batean banatzen da. Modu honetan ere, langileen artean motibazioa areagotzen da eta ekoizpen egitura sendoagoak lortu daitezke. Horrez gain, ESSko antolakundeen ingurunearekiko konpromisoagatik, tokiko ekimen ezberdinetara bideratutakoa kontutan hartu behar da ere. Hala ere, beharrezkoa da jarduera ekonomikoaren balio erantsiaren zati handiena lurraldean gelditzeko, ekoizpen prozesuaren ahalik eta zati handiena lurraldeetan gertatzea; eta horretarako, lurralde sareak ezinbestekoak dira.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Horrela, ESSak lurralde metaketa ahalbidetzen duten baldintza hauek sortzeko lanabesa izan daiteke. Hala ere, soilik ikuspegi ekonomiko batetik begiratzea baino, ESSan oinarritutako lurralde batek, ahalduntzerako, balioak partekatzeko, kultura herrikoa indartzeko eta harremanetzeko zein ekintza politikorako modu berriak esperimentatzeko espazio bat izango da (Arrillaga, 2021b). Hots, adierazpen sozial, politiko, kulturalak etab. metatzeko espazioa.

Enplegua eta ekintzailtza (S5 eta S6):

Tokiko garapenaren ohiko beste helburu nagusi bat enplegua sortzea da. Horretarako, tokiko garapenaren ikuspegi ugarik, tokiko sistema produktiboaren dinamizazioan arreta jarri izan dute, eta tesi honetan zehar azaldu ditugun elementu eta indar ezberdinak aktibatzen saiatzen da: lurraldeak eskaini ditzakeen abantaila ekonomikoak, tokiko instituzioak, aurrezkoa eta inbertsioa, berrikuntza sistemak, kapital soziala, baliabide endogenoak, enpresa ehunaren antolaketa ereduak, sareak, gobernantza ereduak, tokiko eragileak etab. Hauek, tokiko enpresa ehuna estimulatzeko dutelako, eta ondorioz, enplegua sortzen delako (Albuquerque, 2001).

ESSak bere aldetik enplegu egonkorra sortzeko potentzialtasun handia erakusten du; bai zabalkunde ekonomikoko garaietan, baina baita ere krisi garaietan (García, 1997; Tomás eta Monzón, 1998; Mozas eta Bernal, 2006). Izan ere, oro har, ESSko enpresek enpresa pribatu kapitalistek baino bizirauteko gaitasun handiagoa dute, langileen inplikazio handiagoari esker eta beren helburua ez delako mozkinak maximizatzea, baizik eta lanpostuak eta jarduera mantentzea (Laville eta García-Jané, 2009). EAEko kasuari begira adibidez, Bengoetxeak (2016:40), 2009-2013ko datuen azterketa egiterakoan hurrengo ondorioztatzen du: “gizarte ekonomiako enpresek enpleguari trataera hobea ematen diotela ohiko enpresa kapitalistek baino, bai kuantitatiboki eta baita ere kualitatiboki”.

Izan ere, ESSak lanarekiko⁸⁴ duen harremana haren erroan dago. Kooperatibismo modernoaren sorkuntzan emandako berrikuntzarik garrantzitsuenak, ondasun eta zerbitzuen kontsumorako elkartzeetatik lana beraren kooperatibizatzeko jauzia eman zenean kontsideratu daiteke. Are gehiago, lana pertsonen bizitzetarako funtsezko

⁸⁴ Lana erabiltzen dugu hemen, merkatutik kanpo ematen diren lan boluntarioak, zaintzakoak, etxeak etab. azpimarratzeko.


4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

elementu bat kontsideratzen da (REAS, 2011⁸⁵). Ildo honetan, Bengoetxeak (2016) dioenez, lanak ESSaren ardatza osatzen du, eta beraz, enpresa kapitalisten aurrean hau zaintzeko ahalegin handiagoa egiten da. Izan ere, ohikoa da —jarraitzen du autoreak— enpresa kapitalista batek krisian sartzen denean, kostuak murrizteko lehenengo neurria kaleratzeak izatea. Aldiz, ESSak, eta honen barnean kooperatiben kasua azpimarratzen du, bestelako doikuntzak egiten ditu bazkideen lanpostuak galdu ez daitezzen. Horrez gain, erresilientzia maila handiagoa duten antolakundeak dira. Beste antolakundeekin interkooperatzeko aukera dutelako eta bazkide -langileek edo -kontsumitzaileek sortutako ekimenak direlako, eta hauek ekimen propioa bezala kontsideratzen dutelako, eta beraz, antolakundearen jabegoaren parte izateak, norberaren eta familiaren etorkizuna enpresaren etorkizunarekin lotzen baitu (Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014).

Baina ez diogu bakarrik antolakundearen erresilientziari eta enpleguaren defentsari begiratu behar, ekimen berriak sortzerako orduan ere ematen dira sinergia garrantzitsuak tokiko garapenaren eta ESSaren artean. Izan ere, ekintzailtza izango da beharbada, azkenaldian tokiko garapenaren zein ESSaren arreta gehiena erakarri duen esparruetariko. Hau ez da arraroa tokiko garapenak zein ESSak ez diotelako errealitateari bizkarra ematen, eta argi ikusi dugu nola gaiak garrantzi handia hartu izan duen egungo agintari politikoen diskurtsoetan. Zentzu honetan, tokiko garapenak zein ESSak elementu eta lanabesa garrantzitsuak daukate ekintzailtza sustatzeko. Eta lanabesa hauek aldi berean lanean jartzerakoan, sinergiak sortu ditzakete. Hurrengo irudian, tokiko ekintzailtza sozial eta kolektiboa aurrera eramateko, bakoitzaren ezaugarri eta lanabesa garrantzitsuenak bildu ditugu:

⁸⁵ Bigarren printzipioa: Lanaren printzipioa: *“lana funtsezko elementua da pertsonen eta komunitatearen bizi-kalitaterako, eta hiritarren, herrien eta Estatuaren arteko harreman ekonomikoetarako.”*

6. IRUDIA: Tokiko Garapenaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ezaugarri eta lanabesak ekintzailtza sustatzeko



Iturria: Egileak egina.

Irudian ikusi dezakegunez, badira dagoeneko garatuta dauden eta aurrera eramaten diren ekimen eta lanabesa ezberdinak ekintzailtza sustatzeko bai tokiko garapenetik bai ESStik. Tokiko garapenak dituen lanabesak irudian ikusten ditugun bost multzoetan sailkatu ditzakegun arren, oro har, bi iturri edo jatorri dituzte: Tokiko garapen agentziak (edo garapen prozesua artikulatzen eta dinamizatzen duten agenteak) eta ingurune instituzionala. Hots, tokiko garapenak eskaini ditzakeen lanabesak izaera teknikoa eta instituzionala dituzte; bi hauen arteko elkarrekintzak kontuan izanik.

Enpleguaren sustapenerako, garapen agentzien papera ezinbestekoa da. Hauek arduratzen baitira, besteak beste, tokiko ekonomia dinamizatzeko beharrezkoa den elkarlanerako atmosfera sortzeaz, sektore berrien esplorazioaz eta lan-bitartekotza jarduerak aurrera eramateaz lurraldeetan. Gainera, enpresa ekimen berriak sustatu eta lehenengo pausoak ematen laguntzen dituzte kasu askotan.

Gainzak (2008) dionez, tokiko garapen agentzien lehentasunezko lana ekintzailtza dagokionez, arlo edo fase ezberdinetan aurrera eramaten da: Lehenik, tokiko kultura ekintzailea sustatzen da arriskuaren inguruko sentsibilizazio jardunaldi eta ideiak azalarazteko tailer ezberdinen bitartez. Ondoren, aholkularitza lana egiten da. Bertan, ekimena hasi baino lehenago beharrezkoa den laguntza tekniko-administratiboa

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

ematen da, eta ekimena hasi denean, horren jarraipena aurrera eramaten da. Horrez gain, formakuntza ezberdinak eta tokiko beste enpresei eskaintzen zaizkien zerbitzuak ere eskaintzen zaizkie ekimen berri hauei (berrikuntza eta teknologia berrien inguruko aholkularitza, adibidez). Gainera, geroz eta tokiko garapen agentzia gehiagok lokalak dituzte enpresa hasiberriei lagatzeko. Hauek, haztegiak edo inkubategiak deritzotenak, hasierako urteen zailtasunak gainditzeko lagungarriak dira, ekimenaren kostu finkoak murrizten direlako, eta egoera berdinean dauden beste ekimenekin harremanak sendotzea eta esperientziak elkarbanatzea ahalbidetzen dutelako.

Horrez gain, garapen agentziek garapen prozesuaren artikulatzaileak eta dinamizatzaileak diren heinean, lurraldean enpresa berriak sortzeko eta denboran irauteko baldintza instituzional egokiak ezartzen saiatzen dira; garapen agentzien eginkizunen artean dagoelako ere, eragile ezberdinen arteko harremanak sustatzea, eta beraz, sareak sortzen laguntzea. Hortaz, garapen agentziek, enpresa berriak sortzerakoan, hauen ingurune produktiboarekiko erlazionatzeko (hornitzaileak lortzeko, bezeroak bilatzeko, enpresa berrien tamainagatik bakarrik aurrera eramatea ezinezkoa litzatekeen proiektuak tokiko beste enpresekin egiteko hitzarmenak sinatzeko etab.) lehenengo laguntza eskaini diezaiekete.

Bestalde, autore ugari azpimarratzen dute baldintza instituzionalen garrantzia ekintzailtza sustatzeko orduan. Adibidez, Vázquez-Barquero-k (2007) dionez, lurralde batean ekiteko dagoen gaitasuna, lurraldearen berezkotasuna azaltzen duten faktore instituzional eta kulturalengatik baldintzatuta egongo da. Hots, garapena, testuinguru kultural batean dagoen tokiko biztanleriak ekiteko duen sormenari esker sortzen da; eta ekiteko beharrezkoa den sormena, lurraldeak dituen potentziala, baliabideak, eta oro har, balio kulturalak definitzen dute. Hortaz, lurralde bakoitzean kulturaren eta sormenaren arteko elkarrekintzak haren garapen prozesua baldintzatzen dute, lurralde bakoitzeko kultura eta sorkuntzarako gaitasuna ezberdina izango delako. Hala ere, ekintzailtza kultura garatu daitekeen zerbait da, horregatik garapen agentziek ekimen ezberdinak burutzen dituzte heziketa zentroetan, esaterako.

Ildo honetan, Albuquerque-k (2003), tokiko garapen estrategia baten funtsezko eginkizuna, enpresa-ekimen berriak sortzea erraztuko duen ingurune bat eraikitzea dela dio; horretarako, aldeko baldintza instituzionalak, tokiko ekintzailtza kultura eta hitzarmen publiko-pribatuak sustatu behar direlarik. Horrez gain, ekintzailtza kultura duen lurralde batek, errazago izango du adibidez, administrazio publikoaren laguntza

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

eta babesa lortzea. Hala ere, autoreak dionez, gobernu lokalen jarrera proaktiboa beharrezkoa da tokiko ekoizpenaren sustapenarekiko. Hau da, lurraldea eta honen kudeaketa publikoaren bestelako ulertzea dakar; zerbitzu emaile gisa ulertzetik, sustapen produktiborako eta enplegu sortzaile bezala ulertuta.

Azkenik, tokiko antolaketa industrialak ere lagungarria izan daiteke ekimen berri bat aurrera eramateko orduan. Kasu honetan, lurraldeen antolaketa produktiboaren ikuspegi Porteriano batetik heldu diezaiokegu. Izan ere, Porter-ek (1998), kluster batean parte hartzea ekimen baten hasierako arriskua murriztu dezakeela dio; honen bitartez, merkatu aukerak hobeto antzeman dezaketelako enpresariak. Gainera, merkatuan barneratzeko sarrera-oztopo gutxiago daude, baliabideak, finantziarioa edo tokiko merkatua eskurago daudelako. Hemendik ondorioztatzen dira ere, sarean (Grabher, 1993) egituratzeak sortzen dituen aukerak.

Aldiz, ESSak ekintzailtza lagundu dezaketen antolaketa formak eta arriskua txikitzen duten zerbitzuak eskaintzen ditu. Antolaketa formei dagokionez, ekintzailtza lagunduko duten bi ekarpen nagusi aurkitu ditzakegu: *C* faktorea⁸⁶ (Razeto, 2005) eta ekoizpen forma sozial berrien sorkuntza (Gaiger, 2007), hain zuzen ere.

Razetorentzat (2005), *C* faktorearen bidez antolatutako enpresa bat eraginkorragoa izango da. Hainbestera da horrela, zein *C* faktoreak eskaintzen duen aparteko eraginkortasuna bestelako ekoizpen faktoreen gabezia ordeztu dezakeela baieztatzen du autore txiletarrak (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2016). Bestalde, Graiger-ek (2007) dionez, autogestioan oinarritutako ESSko ekimenetan langileek ez dute bakarrik elkartasunaren, lankidetzaren, kooperazioaren edo elkarrekikotasunaren printzipioek duten indar moralagatik lan egiten; baizik eta, ikusten dutelako modu horretan lan eginda euren interes indibidualak osoago asetzen dituztelako. Hots, nolabait, ESSaren markoan dagoen ekimen bat aurrera eramateak duen oinarri militanteaz gain, langileak euren lanaren jabe izateagatik, euren lanaren gaineko erabakiak hartzeko gaitasunagatik, lan burujabearen duintasuna eta motibazioa berreskuratzeagatik etab. beste modu batean lortuko ez lituzketen abantailak lortzen dituztela (Gaiger eta Da Silva, 2011). Gainera, ESSko antolakundeak definizioz elkartze

⁸⁶ *C* faktorea, hirugarren kapituluan azaldu dugun moduan, Luis Razetok asmatutako kontzeptua da eta ekonomia, eta hau antolatzeko eredu, solidarioagoa egiten duten kontzeptuei erreferentzia egiteko erabiltzen du. Izan ere, gaztelaniaz, kooperazioa, komunitatea, komunikazioa, partekatzea, kolektiboa, laguntasuna, lankidetzeta eta horrelakoak “*C*” hizkiak hasten dira.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

kolektiboak dira, eta beraz, enpresa ekimen bat sortzeagatik eratortzen diren arrisku eta erantzukizunei kolektiboki aurre egiten zaie.

Hauekin batera, hibridazio eta ko-eraikuntza prozesuak (Laville eta Nyssens, 2000) barneratu ditzakegu. Lehenago esan bezala, hibridazio prozesuak merkatuarekiko edo/eta finantzaketa publikoarekiko dependentzia murrizten dute, ESSko antolakundeek merkatuko, ez merkatuko edo ez diruzko ekonomietatik baliabideak mobilizatu eta eskuratzeko garatzen duten gaitasun estrategikoa baita. Eta horrekin batera, ko-eraikuntza, ESSko antolakundeak eraikitze eta kudeatzeko orduan garatzen den gobernantza eredu zabala litzateke; ordaindutako lanaz gain, lan boluntarioa onartzen duena, eta erabakitze prozesuetan antolakundearen ingurunean dauden agenteen eskarietara irekitzen dena (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2016). Azken hau, antolaketa forma izateaz gain, arriskua murrizteko modua ere bada.

Ildo honetan, ESSak euren ekimenetan arriskua murrizteko duten beste moduen artean, antolakundeek euren arteko harremanak sendotzeko formak aurkitzen ditugu. Hala nola, interkooperazioa, lankidetzeta eta saretzea. Antolakundearen arteko lotura hauek, garrantzitsuak izan daitezke adibidez, krisi bati eusteko orduan, bakarka erantzutea ezin izango liratekeen proiektuak aurrera eramateko orduan edo ekimen berri bat hasierakoan bezero eta hornitzaileak aurkitzeko orduan. Mance-k (2008) fluxu eta konexio ugarien sektorea bezala ulertzen du ESSa, osotasun gisa, horregatik, lankidetzan oinarritutako ESSko tokiko sektore dentso batek, ESSa babesten du.

Ekintzailtzaren arriskua murrizteko ESSak dituen beste tresna garrantzitsuak, haren inguruan lan egiten duten finantza entitateak dira. Hauek ekimen berriak aurrera eramateko lanabesa finantzario garrantzitsuak dira, beste modu batera finantzaketa lortzea ezinezkoa izango luketen proiektuak finantzatu ditzaketelako, baldintza hobetoetan. Modu honetan, onura sozial handia izan dezakeen, baina ekonomikoki enpresa kapitalista batek bertan inbertituko ez lukeen sektoreetara heldu daitezke ESSa.

Zentzu honetan sortu daitezkeen sinergieei begira, enplegua izateak, eta hau egonkorra eta baldintza onetan ematen bada are gehiago, enplegua bera izateagatik lortzen diren onurak baino gehiago sortzen ditu. Adibidez, giza segurtasuna lortzeko edo kohesio soziala sustatzeko baliagarria da. Eta azken hauek berriz, elementu garrantzitsuak dira tokiko garapenerako. Giza segurtasuna, errealitate sozioekonomikoaren lurrunkortasun eta ziurgabetasunaren aurrean lortutako ongizatea denboran zehar iraunkorra izango denaren segurtasuna bezala ulertuta, parte-hartzea

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

sustatu dezake oinarrizko beharrak estalita daudelako. Kohesio soziala bere aldetik, beharrezkoa izango da konfiantza maila handitzeko, instituzio sozialak indartzeko eta garapen estrategia baten inguruan tokiko eragileen koordinazioa lortzeko. Izan ere, jendarte kohesionatu bateko eragileek aldarrikapen eta helburu konbergenteagoak izango dituzte; talde sozialen arteko ezberdintasunak txikiagoak diren heinean.

Ildo honetan, azaldu dugu, ESSak enplegu egonkorra sortzeko duen potentzialtasuna, eta beraz, etorkizunaren aurrean giza segurtasuna handitzeko duena ere. Baina kohesio soziala lortzeko ere baliagarria da hiru zentzutan: Batetik, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa ahalbidetzen duelako. Bigarrenik, laneratze enpresen, enplegu zentro berezien eta zerbitzu sozial komunitarioen papera azpimarratu behar da. Lehenengoek, ohiko lan merkatutik baztertuta dauden pertsonen enplegarritasunean laguntzen dute; bigarreneok aniztasun funtzionala⁸⁷ duten pertsonen enplegarritasunean; eta hirugarrenek, kolektibo zaurgarrien ongizate soziala hobetzeko orduan. Eta hirugarrenik, pertsona guztientzako ekitatearen alde egiten duelako. Izan ere, “pertsona guztiek dute duintasun berbera, eta eskubidea dute menderatze-harremanen azpian ez egoteko, beren egoera soziala, generoa, adina, etnia, jatorria, gaitasuna eta abar edozein izanik ere” (REAS, 2011:2).

Bestalde, ekintzaitzaren arloan tokiko garapenaren eta ESSaren arteko harremanak sortu dezakeen sinergiak bistan daude ere. Tokiko garapenak, oro har, baldintza instituzionalak eta laguntza tekniko-administratiboa eskaintzen duen bitartean, ESSak barne antolaketa forma berriak eta arriskua murrizteko lanabesak eskaintzen ditu. Modu honetan, tokiko ekintzaitza sozial eta kolektiboaren ahulezia gehienak estaltzeko lanabesak planteatzen dira bi ereduetatik. Horregatik, ekintzaitza berrien oinarri lokal eta kolektiboari esker, lurraldean dauden beharrei hobeto egokitzen den enpresa ehun egonkorra sortzeko aukera dago. Horrez gain, enpresen arteko harremanak indartzen dira, eta barne antolaketari begira, langileak motibazio handiagoa daukate ekimen propioak aurrera eramaten dituztelako. Eta langileek, euren lanaren duintasuna eta burujabetza berreskuratzen badute eta haren baliagarritasun soziala ikusten badute, lana, jendartean parte-hartzeko modu gisa ulertuko dute.

⁸⁷ Ez zaigu gehiegi gustatzen “aniztasun funtzionalaren” terminoa funtsean ezer gutxi esaten duelako. Pertsona oro garelako anitzak aurrera eraman ahal ditugun eginkizunekin. Alabaina, askoz gutxiago gustatzen zaizkigu “desgaitasuna duten pertsonak” edo “ezgai” terminoak, bistako arrazoiengatik.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Beraz, beste sinergia bat, lanaren inguruko kontzepzio sozialari dagokionez sortu daiteke. Izan ere, lurraldean aurrera eramaten den lana, kapitalak zehazten duenaren gainetik egongo da; eta ESSko antolakundeetan bezala, azken hau lurraldearen garapenerako lanabesa bat bezala ikusiko da. Hau da, lanaren eta ekoizpenaren gaineko kontrola lurraldean dauden langileek izango dute, eta honen baliagarritasun soziala agerian geratuko da, tokiko beharrak asetzera bideratuta dagoen heinean; merkatuan zein merkatutik kanpo aurrera eramaten den lana izanik.

Berrikuntza eta ekoizpenaren lurralde antolaketa (S7 eta S8)

Identifikatutako hurrengo sinergia multzoa, berrikuntzaren eta ekoizpenaren lurralde antolaketari dagokiona litzateke. Izan ere, tokiko garapenerako ezinbesteko elementuak dira hauek, eta ESSa, bere izaeragatik, eragile garrantzitsua bezala agertu daiteke berrikuntza teknologikorako, zientifikorako, sozialerako etab. eta lurralde ekoizpen sareak sortu eta indartzeko orduan.

Berrikuntzak —bere zentzurik zabalenean— ezinbesteko faktorea osatzen du bai (tokiko) garapenaren inguruko ikasketetarako (Lundvall, 1992; Cooke, Uranga eta Etxeberria, 1997; Uranga eta Olazarán, 2001; MacCallum et. al., 2009...), bai ESSaren inguruko ikasketetarako (Bakaikoa, Begiristain, Errasti eta Goikoetxea, 2004b; Servós eta Gil, 2008; Bouchard eta Levesque, 2010; Etxezarreta, 2011; Bouchard, 2013...). Biek gainera, izaera kolektiboa aitortzen diote, non lurraldeek eta bertan garatzen diren baldintza instituzional eta harreman ezberdinek paper garrantzitsua jokatzen duten. Izan ere, lurraldeetan dauden eragile ezberdinen arteko interakzioen bitartez eta lurraldeetan dauden alderdi finantzario, administratibo eta legegileek berrikuntza sistemaren prozesuan eragiten baitute (Uranga eta Cooke, 1998; Cooke, 2001). Hau da, bai sozialki eraikitako erakunde ezberdinak eta bai historikoki garatutako instituzioak eragiten dute berrikuntza sistemetan (Uranga eta Olazarán, 2001). Horrenbestez, lankidetzak eta elkarrekotasun harremanak garatu behar dira, ikasketa kolektiboa, ezagutza lurralderatua eta berrikuntzak emateko.

Berrikuntza sistemak, ezagutza tazituaren sorkuntzarako eta zabalpenerako ezinbestekoak dira, eta beraz, ezagutza kodifikatua ondasun internazionala den testuinguru globalizatu batean, berrikuntzaren beste elementu tazitu horiek lurraldeetara eta bertan ematen diren harreman ezberdinetara lotura estua erakusten dute (Etxezarreta, 2011). Hots, berrikuntzak sortzeko beharrezkoa den ezagutza tazituak osagai

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

kolektiboak eta lurralderatuak erakusten ditu; ondorioz, enpresa barneko eta tokiko eragileen lankidetzak beharrezkoa suertatzen da. ESSak, ezagutza tazitu horren inguruko informazioaren zabalpena eta berrikuntzen transferentzia handiagoa eragin dezake, interkooperatzeko eta lankidetzarako duen joeragatik, ezagutza eta hezkuntza zentroak garatzen dituelako eta lurraldeko beste eragileekiko duen hurbiltasun harremanen bitartez.

Gainera, eskualde berrikuntza sistema bat garatzeko beharrezkoa den eragileen eraldaketa —berrikuntzarekiko eragile proaktiboagoak sustatzea eta inplikatzeta, zentro teknologikoak sortzea etab.—, ESSaren aterkipean egin daiteke. Izan ere, ESSak adierazpen ezberdinak izan ditzake, eta beraz, merkatuko enpresa berritzaile gisa egituratu daitekeen moduan, zentro teknologiko bat kudeatzeko egitura mixtoa (publiko-kooperatiboa) edo komunitarioa bezala, edo berrikuntza sozialetarako polo bat bezala egituratu daiteke.

Harreman hauek garatzerakoan, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko sinergia handia ematen da. Izan ere, tokiko garapenetik, berrikuntzaren lurralde dimentsioari eta eragile desberdinek parte hartzen duten eskualde sistemen sorrerari buruzko ikaskuntzei, ESSko antolakundearen intentsibitatea gehitu behar zaio harreman sozialei dagokienez. Beraz, ESSak pisu espezifiko handia duen lurralde berrikuntza sistemetan, ekimen berritzaileak sustatzeko potentzial handiagoa eman daitekeela ondorioztatu genezake. Batez ere berrikuntza sistemen sare egituretara eta lankidetzak harremanetara hobeto egokitzeko gaitasuna izango dutela espero dezakegulako⁸⁸. Eta beraz, *learning by interacting* ikasketa prozesuak abian jartzeko erraztasun handiagoak somatu ditzakegulako. Hots, kapitalaren enpresetan eman daitekeen botere harremanek sortzen duten egiturazko zurruntasuna hautsi daitekeelako. Hau da, egitura demokratikoa eta jarduera parte-hartzaileagoak dituen antolakunde batean, barneko eragile ezberdinen

⁸⁸ Arrasateko talde kooperatiboari (Corporación Mondragón, CM) aplikatuta, Bakaikoa, Begiristain, Errasti eta Goikoetxeak (2004b) diotenez, CMko kooperatibek enpresa sareak sortzeko trebetasuna, eta kapital soziala eta giza kapitala garatzeko gaitasun handia erakusten dute. Gainera, autoreek diotenez, CMk urte asko daramatza bere enpresa-sarea kudeatzen, eta geroz eta lotura estuagoak sortu direla antzematen dute. Lotura horietan, zentro teknologikoek, unibertsitateak eta enpresek etengabeko harremana dute egunero, eta beraz, harreman horiek uneoro eguneratuta daude. Harreman hauek denboran luzatzearen ondorioz, balio, jokabide, arau, eta, oro har, sareko elementuen arteko konfiantza eta elkarreragina indartu duen kapital soziala sortu da; korporazioaren berrikuntza gaitasuna handituz.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

arteko interakzioak ugariagoak izango dira, eta modu honetan, informazio fluxuak errazago heldu daitezke maila operatiboetatik maila estrategikoetara.

Hala ere, hemen zehaztu beharra dago, enpresa fordista tradizionalaren egitura ereduaren duten kooperatiba handiek, lurralde berrikuntzarako finantzaketa iturri esanguratsua izan daitezkeen moduan, galga ere izan daitezkeela ekoizpen fordistatik eratorritako zurruntasunagatik; eta beraz, prozesu berritzaileak onartzeko orduan, tamaina eta egitura bertikalegiak izateagatik sortu daitezkeen eragozpen burokratikoengatik.

Dena den, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko berrikuntza sistema batek, produktuen edo prozesuen gaineko berrikuntza teknologikoez gain, antolakundearen kudeaketaren inguruan, artearen eta sormenaren inguruan, zientzia politiko eta administrazio publikoaren inguruan eta tokiko garapenaren inguruan ematen diren berrikuntza sozialak (Moulaert, 2008) garatuko lituzke; berrikuntza teknologiko eta sozialaren arteko bateragarritasuna emanez. Izan ere, berrikuntzak ez dira errentagarritasun ekonomikoa handitzea eta mozkinak maximizatzea helburu duen enpresa eredu baten jabegoan egongo, baizik eta lurralde estrategiaren bizi kalitatea hobetzearen helburuarekin hobeto lerrokatzen den antolakunde kooperatibokomunitario batena izango da. Eta beraz, ESSaren oinarritzko ezaugarriak jabego kolektiboa eta kudeaketa demokratikoa izanik, bertatik sortutako ekimen berritzaileak ez dira kapitalaren irizpideen arabera kudeatuko.

Hortaz, berrikuntzak klase herrikoietara hurbiltzeko tresna izango da. Edo are garrantzitsuagoa dena, berrikuntza horiek sortzeko eskumena langile eta klase herrikoetara hurbilduko da; ondorioz, berrikuntzak komunitate osoaren eskuetan jarritz. Modu honetan, tokiko komunitateen ahalduntzea eman daiteke eta lortutako botere hori modu autonomoan erabili izango dezakete haien oinarritzko beharrak asetzeko (Moulaert eta Sekia, 2001).

Ekoizpenaren antolaketari dagokionez, sareak eraikitzea ezinbestekoa da bi ereduentzako. Izan ere, sareen inguruko ikasketak nabarmen hazi dira gizarte zientzietako ikerlarien artean globalizazioa hasi zenetik. Oro har, eskala ezberdinetan aldi berean eragin ditzaketen erregulazio marko konplexua osatzen dute; informazioa, ekoizpena, ezagutza, finantzak, teknologia, merkataritza, enpresak etab. bezalako izaera eta fluxu ezberdinak izan ditzaketelarik. Sareak, definizioz, nodo ezberdinen arteko konexioak dira; hots, eragile ezberdinen arteko harreman ugariak. Eta beraz, tokiko

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

garapenak lurralde sareen bitartez eta ESSak egituratzeko duten moduagatik, sinergiak sortu ditzakeen izaera anitzeko sare egituraketa batean pentsatu dezakegu, non dagoeneko existitzen diren lurralde sareek eta ESSko sareek bat egiten duten. Alabaina, tokiko garapenean eta ESSan parte-hartzen duten eragileek garatzen dituzten harremantzeko formak ez dira guztiz berdinak; nahiz eta azalduko dugun moduan, bateragarriak izan daitezkeen.

Ekoizpen eta berrikuntza sareei dagokionez, tokiko garapenaren ikuspuntutik, arretan handia jarri ohi da eragileen arteko konfiantza mailan, enpresa ehunean ematen den lankidetzaren harremanetan, gobernantza sisteman etab. Oro har, esan genezake, tokiko garapenak eragileen arteko harremanak lurraldean ematen den ekoizpena eta berrikuntza laguntzeko asmoz sustatzen dituela. Horrenbestez, esanguratsuak bihurtzen dira ekoizpen sare malguak edo berrikuntza sistemak bezalako antolaketa ereduak. Sare hauen bitartez, enpresek baliabideak partekatzen, arriskuak murrizten eta proiektu bateratuak aurrera eramaten dituztelako, abantaila ezberdinak lortuz (Bakaikoa et. al, 2004b).

ESSren baitan egituratzen diren sareak bestalde, izaera ezberdinak izan ditzakete. Adibidez, federazio edo talde kooperatibo baten inguruan sortzen diren bigarren graduako kooperatibak kontsideratu genitzake sare gisa. Alabaina, egituraketa modurik ezagunena, ESSko antolakundearen arteko interkooperazioa litzateke. ICA-ren (1995⁸⁹) arabera, interkooperazioa, kooperatibek euren artean elkar laguntzeko duten jokabide inplizituari egingo lioke erreferentzia. Laville eta García-Jané-k (2009) eta García-Jané eta Suriñach-ek (2019) diotenez, interkooperazioa maila ezberdinetan eman daiteke. Lehenengo maila batean, ESSko antolakundeek hornitzaile-bezero harremanak garatzen dituzte euren artean. Bigarren mailan, epe ertain edo luzerako proiektu partekatutak burutzen direnean emango litzateke. Gainera, aurrera eramandako jarduera produktiboaren bitartez lortutako soberakinak, sarea indartzeko erabiltzerakoan, bai posibleak antolakundearen berrinbertituz ekoizpen jarduera berriak sortzeko, eta baita ere, sarean integratuko diren antolakunde berriak sortzeko (eta hau artikulatzeko sarean dauden finantza entitateez baliatu daitezke), hirugarren maila bat lortzen da. Horrela,

⁸⁹ Seigarren printzipioa: Kooperatiben arteko kooperazioa: “*Kooperatibek modu eraginkorrago batean asetzen dituzte euren bazkideen beharrak eta mugimendu kooperatibista indartzen dute, tokiko, nazioko, eskualdeko eta nazioarteko elkar lanerako egituren bidez.*”

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

interkooperazio multilateralak garatzen bada, ESSko antolakundearen arteko sare dentsuak sortuko dira, sektorea hazaraziz eta erresilientzia maila handituz. Dinamika hauek egituratzeko, ESSak, oro har, zirkuitu solidarioak, lankidetzaren sare solidarioak edo merkatu sozialak bezalako ekimenak burutu ohi ditu (Arrillaga, 2021a eta b).

Hala ere, batzuetan kontrakoa aurkitu dezakegu. ESSko antolakundearen arteko deskonexioa, alegia. Hots, saretu gabe, beren kontura diharduten ESSko antolakundeak. Edo hain urrunera joan gabe, ohikoa da ESSko sareak aurkitzea non, indarrak batzeko eta, behar bada, diskurtso politikoa helarazteko sortzen diren, baina hauek ez lukete ekoizpen kateen izaera hartzen duten sareak izango. Hau da ESSko sareak ez dira beti ekoizpen prozesu lurraldeetan edo berrikuntzak lortzeko efizientzian oinarritzen, baizik eta ohiko harreman kapitalistak ez diren bestelako harremanetan oinarritzen dira. Hots, ekoizpena antolatzeko ereduari baino, partekatzen dituzten balio ezberdinei begiratzen diete.

Horrenbestez, esan genezake, ekoizpenari eta berrikuntzari begira, ESSaren inguruan antolatzen diren sareak, orokorrean, kluster izaerara gehiago hurbiltzen direla; eta tokiko garapenak orokorrean bultzatu ohi dituen ereduak barruti industrialen edo berrikuntza sistemen antza handiagoa hartzen dutela. Hots, batetik, ESSak ikusgarritasuna lortzeko eta diskurtso politikoa baten inguruan edo talde kooperatibo baten inguruan indarrak metatzeko sareak sustatzen du, non antolakunde berriak sortzeko erraztasunak ematen dituen, baina gero ez da, orokorrean, hornitzaile-bezero ekoizpen sare lurraldeak sortzen arduratzen; merkatu sozialak edo interkooperazio dinamika batzuk kenduta. Eta bestetik, tokiko garapenak ekoizpen kate edo berrikuntza sistema lurraldeak bultzatzen ditu, non tokiko eragile ezberdinek ekoizpen edo/eta berrikuntza prozesuen parte bihurtzen diren.

Alabaina, ESSaren hedapena garapen estrategian barneratzen bada, eta lehentasuna ematen bazaio, saretearen bi ikuspegiak bat egin dezakete. Izan ere, ikusi dugunez, antolakunde hauen izaeratik, enpresa kapitalistek baino alde aurretiko jarrera proaktiboagoa erakusten dute beste eragileekin kooperatzeko eta elkarlana sustatzeko orduan; ekoizpen eta berrikuntza sare eraginkorrak eta sendoak egin dezakeelarik. Are gehiago, ESSan oinarritutako lurralde sareek kooperazioa, lankidetzaren, elkarlana, elkarlaguntza eta elkarrekotasuna bezalako balioak bereganatuko dituzte. Hauek ESSaren oinarrietan daudelako. Gainera, sare hauek ez lirateke bideratuko errentagarritasun handiena sortzen duten ekoizpen edo berrikuntzak sustatzera, baizik

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA


eta baliagarritasun sozial handiena sortzen duten horietara. Hots, saretzea ez da gelditzen errentagarritasun ekonomikoaren irizpide utilitaristarengatik baldintzatuta, baizik eta lortzen den baliagarritasun soziala izango litzateke sarea baldintzatzen duena. Hau da, helburua ez litzateke bestekin saretzea banakako mozkinak handitzeko helburuarekin, baizik eta elkarrekin hazteko saretzea. Horrela, sareko enpresa baterako ona dena, sare guztiarentzako ona izango da.

Horrez gain, ESSan oinarritutako sare lurralderatuak, merkatura bideratutako sare produktiboez gain, ez-merkatuko edo/eta ez-diruzko ekimen ekonomikoak, ekimen sozialak, politikoak eta kulturalak garatzeko aukera eskaintzen du. Horrela, lurraldeko beste eragileak konektatu ditzake ekonomia dinamizatzeaz gain, komunitatea ere indartuz.

Ondorioztatu dezakegu, tokiko garapenetik eratortzen diren ekoizpen eta berrikuntza sareen inguruko irakaspenak bere egin beharko lituzke ere ESSan oinarritutako ehun produktibo batek. Aldi berean, ESSren harreman motagatik eratortzen diren beste ezaugarriek, tokiko ehun produktiboa indartzeko eta haren barnean konfiantza, kooperazioa eta elkarlana bultzatzeko baliagarriak izan daitezke. Modu honetan, konfiantzan eta lankidetzan oinarritutako harreman hauek informazioa zabaltzen laguntzen dute; eta hau, ezagutza tazitua lurraldean txertatzeko orduan garrantzitsua izateaz gain, informazio fluxu eraginkorrak izatea, garrantzitsua izango da parte-hartzea aurrera eramateko orduan.

Laburbilduz, sareen bidezko egituraketa globalizazioarekin aregotutako errealitatea da; eskala, dimentsio, sektore etab. anitzetan agertzen dena. Horrenbestez, lurraldearen esparru sozioekonomikoari eragiten dion sareen arteko egituraketa hobeto ulertzeko hurrengo irudia burutu dugu. Bertan, lurralde baten esparru sozioekonomikoan eragiten duten sare ezberdinak, eta sare hauen arteko konexioak agertzen dira. Izan ere, helburua ez da lurralde sare bakarra sortzea non eragile guztiek parte-hartzen duten, baizik eta izaera ezberdinak duten sareen garapena ahalbidetzea, eta sareen arteko konexioak laguntzea. Sareen sare lurralderatuak sortzeko. Gainera, lurraldeetan eragiten duten sareek lurraldearen esparru sozioekonomiko bera gaintzen dute, beste lurraldeetan eta beste maila eskalarretan ere eragiten dutelako.

7. IRUDIA: : Lurraldearen esparru sozioekonomikoan eragiten duen sare egitura



Iturria: Egileak egina.

Komunitatearen ahalduntzea: Garapen integrala, parte-hartzea eta eraldaketa sozioekonomikoa (S9, S10 eta S11):

Bostgarren multzo honetan, garapenaren izaera integralean, parte-hartzean eta jendarte eraldaketan arreta jarriko dugu. Izan ere, beharrak asetzea, bizi kalitatea hobetzea eta komunitateak indartu eta ahalduntzea helburu duen garapen eredu batentzako, esparru ekonomikoaz haratago arduratzen den garapen ikuspegia, honen gaineko tokiko jendartearen kontrol demokratikoa eta menpekotasuna sortzen dituzten botere harremanak eraldatzen dituen, eta jendartea ahalduntzen duen estrategia bat beharrezkoa da. Eta horretarako ere, tokiko garapenetik eta ESStik eratorritako irakaspenak bateratzean sinergia ezberdinak antzeman ditzakegu.

Geroz eta gehiago hitz egiten da garapenaren inguruko ikasketetan garapen integrala sustatzeko garrantziaz. Hots, esparru ekonomikoan, ahalik eta behar gehien asetzea ahalbidetzen duen tokiko ekonomiaz gain, esparru ekonomikotik haratago, bizitzaren esparru ezberdinak barneratzen dituen garapen ereduaren garrantziaz; esparru sozial, politiko, kultural, ekologiko eta abarrez arduratzen dena, alegia. Izan ere gaur egungo problematika gehienak elkar gurutzatuta daude, eta beraz, ezinbestekoa da haiei estrategia integralen bitartez erantzutea.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Hala ere, tokiko garapenerako ohiko ereduek, garapen ekonomiko industrialera bideratu izan dituzte haien ekarpen nagusienak. Izan ere, nazioarteko merkatuetan lehiatzeko, balio erantsi gutxiagoa sortzen duen lehenengo sektorearen eta metaketa erakartzeko gaitasun txikiagoa duen hirugarren sektorearen aurrean, bigarren sektore industrialara aproposagoa da. Bai honen azpisektore tradizionalagoak, eta baita ere, teknologia altuko azpisektore modernoagoak. Hortik hedatzen da, neurri handi batean, geografia ekonomikoaren esparruan espezializazio malguari, berrikuntza teknologikoari eta antolaketa industrialari emandako garrantzia. Ildo honetan, tokiko garapen ekonomikoaren helburua tokiko dinamismo ekonomikoa sustatzea, enplegua sortzea, berrikuntza teknologikoaren zabalpena eta tokiko produktuak nazioarteko merkatuetan duten kuota handitzea baldin bada, espezializazio produktiboa bide egokia izan daitekeela ondorioztatu ohi da (Marshall, 1920; Piore eta Sabel, 1990; Scott, 1988; Storper, 1997; Porter, 1998; Amin, 2000; Becattini, 2002...).

Alabaina, horrenbesteko espezializazioak ez du ematen bide egokiena denik tokiko beste beharrak asetzea helburu duen garapen eredu batentzat. Hots, tokiko egitura produktiboa oso espezializatua baldin badago, bistan da, ez dela egongo dibertsifikatua. Eta dibertsifikatua ez badago, oso zaila dirudi tokiko enpresek komunitateak dituen behar ezberdinak asetzeko gaitasuna izatea. Hau da, garapen ekonomikoa, eta haren helburu tradizionalak —hazkundera, dinamismo ekonomikoa, enplegua...— baliabide endogenoen mobilizazioaren bitartez lortu daitezke, baina bestelako oinarrizko behar ekonomikoak, sozialak, kulturalak etab. asetzen ez dituen ereduak izan daiteke aldi berean. Horrenbestez, behintzat bizitzak sostengatzeko beharrezkoa dena ekoiztea ahalbidetzen duen dibertsifikazioa ezinbestekoa da, hain garrantzitsuak diren ondasun eta zerbitzu hauen inguruko kontrola areagotzeko, pertsona guztien irisgarritasuna bermatzeko eta kanpo dependentziak murrizteko.

Ez dugu, dena den, lurralde autarkia eman behar denik esaten; lurraldeek goragoko zein beheragoko eskalekiko irekita egon behar direlako, eskala anitzeko gobernantza batean eta mundu zeharo interkonektatu batean. Baizik eta subsidiarotasun printzipiotik abiatuta, ahalik eta garapen autozentratua aurrera eramaten duten lurraldeak eraiki behar direla. Eta beharrezkoak diren, baina propioak ez dituzten ondasunak beste lurraldeetatik eskuratu dezaketeelarik merkataritza harreman justuen bitartez (ingurumen eta justizia sozialaren ikuspegitik).

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Tokiko garapen ekonomikoaren ikuspegitik idazten duten autore batzuk dena den, tokiko ekonomien dibertsifikazioaren alde egin dute jada (Albuquerque, 2003; Boisier, 2005a; Vázquez-Barquero, 2007). Nahiz eta kasu batzuetan dibertsifikazioaren aldeko jarrera hau, bestelako abantaila ekonomikoak lortzeko defendatzen den, eta ez tokiko biztanleriaren beharrak asetze aldera.

Beraz, orain arte behar ezberdinak ase ez badira, lurraldean dauden harremanen, jokabideen eta parte-hartze mekanismoen eraldaketa bat eskatzen du. Eta merkatuaren bitartez ase (nahi) ezin diren behar sozial ezberdinak “ekoiztu” ahal izateko, merkatuan oinarritutako ontologia alde batera uztea eta ontologia komunitario baten alde egitea beharrezkoa dela argudiatzen da (Moulaert eta Nussbaumer, 2005a). Izan ere, merkatu kapitalistak soilik errentagarritasun handiena eskaintzen duten ondasun eta zerbitzuak ekoizten ditu; haien baliagarritasun sozialari erreparatu gabe. Merkatuaren ontologia hau, zeinek soilik merkatua ulertzen duen integrazio ekonomikorako, errentagarritasuna lor dezakeen guztia merkantzia bihurtzen saiatzen da. Eta hortik kanpo gelditzen dena, ez da mundu ekonomikoaren parte kontsideratzen, nahiz eta bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren jarduera produktibo zein erreproduktiboak izan daitezkeen.

Ildo honetan, ESSak garapen integralerako paper garrantzitsua erakusten du. Ikusi dugunez, ESSaren izaeragatik tokiko beharrak ezagutzeko eta hauei hobeto egokitzeko gaitasuna dauka. Gainera, baliabideak hibridatzeko duen gaitasunagatik, merkatu terminoetan guztiz errentagarria ez diren, baina termino sozialetan onura sozial handia dakarren jarduerak aurrera eramateko gaitasuna ere badu. Are gehiago administrazio publikoarekiko lankidetzan publiko-kooperatibo-komunitarioen inguruan sakontzen bada (honen inguruan aurrerago sakonduko da). Hau da, ESSa eta bere kontzepzio pluralena⁹⁰ tokiko garapenaren zerbitzura jartzen bada, errazagoa izango da garapen estrategiak planteatzerakoan garapen integralaren alde egitea.

⁹⁰ Izan ere, ohikoa da ESSa kooperatibetara, enplegua eta hazkunde ekonomikoa sortzen duen enpresa gisa, eta laneratze enpresetara, merkatutik baztertutako pertsonen enplegu inklusiboa sustatzen duten antolakunde gisa murriztea. ESSaren inguruko irakurketa hauek partzialak dira, ez dituztelako ESSa osatzen duten antolakunde mota guztiak barneratzen eta ESSak eskaintzen dituen onura ekonomikoak soilik kontuan hartzen direlako; eta ez, harremanak eta ekoizpen moduak eraldatzeko duen gaitasuna, elkarrekikotasunean, lankidetzan eta kooperazioan oinarritutako kultura sortzeko duen gaitasuna, beharrak asetzera bideratutako ekoizpenerako joera, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa, merkatuko mentalitateari eta arrazionaltasun kapitalistari alternatiba bat eskaintzen diola, merkatutik kanpoko lanen aitortpena etab.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Izan ere, beharrezkoa da ulertzea behar guztiak ezin direla merkatuaren bitartez asetu, eta beraz, behar sozial horiek guztiak asetzea helburu duen garapen eredu integral batek, plurala izan behar duela nahitaez. Merkatutik kanpo ematen diren harreman ekonomikoak ulertu eta garrantzia aitortzen diena, eta bestelako eragile sozial ezberdinen —herri-mugimenduak, sindikatuak, GKE-ak, elkartegintza etab.— inplikazioa bilatzen duena.

Kasu horretan, sinergia sortzen da, alde batetik, ESSak jendartearen beharrak antzemateko eta hauei erantzuna emateko enpresa kapitalistek baino eraginkortasun handiagoa duelako. Gainera, modu ezberdinetan egituratu daitekeenez, merkatuko zein merkatutik kanpoko ekimenen bitartez erantzun dezake. Eta beste aldetik, tokiko garapenak komunitatea aktibatzeke, eragile ezberdinak harremanetan jartzeko eta proiektu partekatu baten inguruan mobilizatzeko gaitasun handia duelako. Horrenbestez, garapen eredu batean non ESSa haren dimentsio ekonomikoaz arduratzen den, garapen integral eta autozentratu baterako erraztasun handiagoa egongo da. Eta nahiz eta ESSari garapenaren dimentsio guztiez arduratzea gehiegi eskatzea izan daitekeen, lurraldean dauden beste eragileekin batera garapen sozial, politiko, kulturala, eta oro har, komunitatearen gaitasunak garatzen lagundu dezake ekonomia kapitalistak baino hobeto (Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014).

Komunitateak ahalduntzen dituen beste elementu garrantzitsu bat parte-hartzea da; lurraldearen eremu publikoan emandako eztabaiden eta interesen arteko negoziaketan bitartez jarraitu beharreko marko erregulatorioa bezala ulertuta. Izan ere, esku-hartze publikorako moduan emandako eraldaketarekin, eragile publiko eta pribatuen protagonismoaren ber-definizio bat eman da; hala, enpresa pribatuek, edo, herri-mugimenduek eta ESSak bezala, jendarte zibiletik abiatutako ekimenez, zeregin handiagoa dute estatuak tradizioz egin ohi zuenaren kudeaketan eta hornikuntzan. Egoera honek, politiken planifikazio eta kudeaketan eredu parte-hartzaileagoak ezartzea ahalbidetzen du (Tomás, 1997; Zurbano, 2008; Chaves, 2019). Modu honetan, akordio instituzional berritzaile ugari sortu dira lurralde maila desberdinetan, estatuko ekintza politikoaren ohiko modu eta zereginak gaindituz eta haratago dauden gobernantza forma berriak sortuz (Jessop, 2001; Swyngedouw, 2005).

Hala ere, hemen ere ezberdintasunak aurkitzen ditugu soilik garapen ekonomikoa helburu duten garapen ereduaren eta garapen integrala bilatzen dutenen artean. Bakarrik garapen ekonomikoa bilatzen bada, gobernantza ereduak, helburu hori lortzeko

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

beharrezkoak diren agenteak mobilizatuko ditu; gobernantza mekanismo instrumentala bihurtuz. Tokiko gobernantza eredu batek, zeinek modu integral batean eragin nahi duen, esparru ezberdinetan aplikatuta izan beharko da; modu zabalago batean. Hala ere, autore ezberdinek azpimarratzen dutenez, gobernantza ereduetan ez da, normalean, hauen barnean sortzen diren botere harremanen analisisian arakutzen (Zurbano, 2008). Eta beraz, botere handiagoa duten eragileen kezkak, ideiak eta interesak nagusitu daitezkeela ohartarazten dute. Adibidez, gobernantza ekonomikorako arloan, tokiko enpresarien eta langileriaren artean, desorekak egon daitezke azkenengoen behar bezala antolatuta ez badaude.

Are gehiago, botere harremanen desoreka honek gobernantza eredu integrala ere arriskuan jarri dezake. Izan ere, nahiz eta lurraldeko arazo ezberdinak konpontzeko mahai ezberdinak sortu daitezkeen, politikak aplikatzerakoan talka egin dezakete; eta kasu honetan, ez da zentzugabekeria esatea arlo ekonomikoak gailenduko direla. Hots, ez dela berdina berrikuntza sustatzeko helburuarekin enpresarien elkargoak, zentro teknologiko batek eta unibertsitateak osatutako mahaia izango duen boterea, edo, adibidez, aldaketa klimatikoari aurre egiteko herri-mugimendu ekologistak eta beste elkarte eta enpresa batzuek osatutako mahaia. Ildo honetan, Zurbano et. al. (2014a) esaten dutenez, politika arrazoi ekonomikoarengatik baldintzatu ordez, demokraziak izan behar du, eta ez merkatuak, interes orokorrari erantzungo dion gobernantza arautzen duena.

ESSak bere aldetik, demokrazia ekonomikoan sakontzen du. Izan ere, ESSak izaera eta ikuspegi anitzeko eragile eta antolakundeak integratzeagatik, parte-hartzearen inguruan historikoki metatutako esperientziak, gobernantza eredu zabal eta integratzaile baterako irakaspenak eskaini ditzake. Aniztasun horrek eragin baitu etengabeko eztabaida demokratikoan oinarritutako tradizio sendoa, non ezberdinen arteko akordioetara heltzea ahalbidetu duen. Eta beraz, ESSak eskarmentu handia lortu du bazkideen artean zein tokiko komunitatearekin etengabeko harreman demokratikoak garatzerakoan. Gainera, parte-hartzaileak ahalik eta informazio gehien eta argiena duten heinean, parte-hartze eta gobernantza sistemek indartsuagoak izango dira. Eta ESSak gardentasunaren aldeko aldarri esplizitua egiten du (REAS, 2011).

Beraz, ESSak lagundu dezakeen parte-hartze integralak, hots, esparru guztietan parte-hartzeko eskubideak, ekiteko eta sortzeko gaitasunak hobetzea, pertsonen eta antolakundearen arteko ikaskuntza eta lan kooperatiboa sustatzea, kideen eta

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

antolakundeen konpromiso maila handitu, lankidetzak kultura sustatu, elkarrekiko konfiantza handitu, balio partekatuak sortu eta identitate kolektiboa eta partaidetzazentzua indartzea bezalako aparteko onurak garatzen ditu lurraldeko egitura instituzionalean (Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014). Eta beraz, ESSak demokrazia ekonomikoa antolakunde mailatik lurralde mailara eta bestelako esparru sozial eta politikoetara zabaltzen lagundu dezake (REAS, 2011).

Ildo honetan ere, Montesinos eta Montesinos (2014), antolakundeen maila edo dimentsioaz gain, ESSak proposatzen duen eredu sozioekonomikoan, demokrazia ekonomikoa antolakunde kudeaketatik haratago joan behar duela diote. Hots, pribatizatutako ondasunak berriz ere jendartearen irispidean eta kontrolpean jarri, sistema finantzarioari ekonomia produktiboaren beharren arabera birdimensionamendu eta erregulazioa ezarri, komunitatetik hurbilago dauden zirkuitu ekonomikoei lehentasuna eman, enpresa- eta lurralde-eraginkortasunaren ulertzeko moduari esparru ekonomikotik haratago doan ber-definizioa eman, justizia sozialaren alde egin, inbertsioen kontrol soziala sustatu etab. Azken finean, demokrazia ezin da ulertu sistemari zilegitasuna ematen dion tresna bezala; demokrazia, sistema sozioekonomiko eraldatzaile baten egiturazko ezaugarria izan beharko da. Egungo erregulazio ekonomikoa dituen eskala anitzetan eragiten duena; maila lokalenetik globaleraino. Izan ere, maila guztietan ematen diren erabaki ekonomikoek pertsonen bizitzetan eragiten dute. Hau da, lurraldean dagoen ondasun komun baten kudeaketa tokiko jendartearen eragiten duen moduan, nazioartean eragiten duen inbertsio funtsa batek hiri batean etxebizitza hutsak erosten dituenean espekulazio eragiketa gisa, edo horren aldeko politika lokal edo globalak aplikatzen direnean, tokiko jendartearen eragiten du ere.

ESSak, bere forma ezberdinetan antolaturik —antolakundeak, enpresak, enpresa taldeak, sareak, sareen sareak etab.— gobernantza sistema bera demokratizatzen lagundu dezake bere eskala anitzetan; ESSak ordezkariak duen eskala bakoitzean jendartearen hurbildu dezakeelako erabakitzeko organoetara, berarekin kontuan hartzen bada. Maila lokalean, tokiko gobernantza sistemetan eragiten duten bestelako eragileak bezala integratu behar da berrikuntza sozialeko prozesua lagunduz. Izan ere, berrikuntza soziala tokiko gobernantza inklusibo baterako beharrezko elementua da (Zurbano, 2008). Modu honetan, ESSak sozialki berritzaileak diren eskualdeak garatzen laguntzen du. Hots, gobernantza eredu zabal, parte-hartzaile eta berritzaileak dituzten eskualdeak.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Honek, demokrazia ekonomikoan sakontzeko baliagarria izateaz gain, lurraldean dauden ondasun publiko zein komunak komunitarioki kudeatzeko bidea ireki dezake, hauen gaineko kontrola lurraldean ematen den kudeaketa demokratikoaren eskuetan utziz; eta pribatizazioetatik urrunduz.

Aurrekoa laburbilduta, ESSa jabego eta kudeaketa demokratikoan oinarritutako antolakundeak biltzeaz gain, bestelako eredu sozioekonomiko demokratikoago baten eraikuntzarako proposamena da. Tokiko gobernantza sistema demokratikoagoak sortzen lagundu dezakeena, ESStik datozen irakaspenak lurraldearen gobernuan aplikatu daitezkeelako eta politika publikoen ko-eraikuntza eta ko-ekoizpen prozesuen bitartez, jendarte erabakitze organoetara hurbiltzen dituelako. Hots, ESSko antolakunde batek jabego edo/eta kudeaketa eredu zabala eta demokratikoa baldin badu, eta, antolakunde honek, politika publikoen eraikuntzan eta ekoizpenean parte-hartzen badu, jokabide demokratikoen inguruan egin ditzakeen irakaspenez gain, antolakunde horren inguruan biltzen den komunitatea gobernantza sistemara hurbiltzen ari du; funtzionamendu demokratiko horiek lurralde mailara zabalduz, eta, azken momentu batean, ESSaren logikak jendartera zabalduz. Horrela, bizitza kulturala, soziala, ekonomikoa eta politikoa bezalako esparruak demokratizatu ditzake. Eta, antolakundeetan bezala, pertsonak —tokiko komunitatea, kasu honetan— erdigunean jartzen duen eredu sozioekonomiko baten alde egiteko lagundu ere.

Beraz, posiblea al da garapen kapitalistaren errezetatik aldentzen den garapen eredu bat planteatzea? Lurraldea harreman historiko-instituzionalen bitartez eraiki den espazio aktiboa bezala definitzen denean, garapena, eta honek sortu dituen dinamikak azaltzeko erabili daiteke. Hortaz, lurraldeetan ematen diren harremanek garapen eredua baldintzatzeko gaitasuna badute, garapen kapitalistatik aldentzen diren garapen ereduak formulatzeko aukera izango dute. Hots, garapen eredua ez da zerbait naturala eta automatikoa; garapena, jendarte bakoitzaren ezaugarrietara moldatzen da neurri batean. Ondorioz, lurraldeek dituzten berezko ezaugarriak metaketarako faktore garrantzitsuak bihurtu badira, lurraldeek, garapen prozesuetan eragile aktiboak diren heinean, bestelako eredu baterako proposamenak egiteko espazioak bezala konfiguratzeko gaitasuna daukate ere. Nahiz eta horretarako baliabide eta indar endogeno eraldatzaileak aktibatzen jakin behar duten.

Coraggiok (2010) esaten duen moduan, abstrakzio teorikoetatik urrunduz eta modu sinple batean, lurraldeak gauzak gertatzen diren tokiak dira. Lurraldeetan

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

egunerokotasuna gertatzen da, eta hau, ekonomikoa, soziala, politikoa eta kulturala da eta ingurumenarekin harremanetan dago. Horregatik, lurraldeak komunitateetatik hurbilen dauden espazioak bezala konfiguratzen dira; eta beraz, jendarteek esparru ekonomiko, sozial edo politikoan kolektiboki eragiteko duten lehenengo erreferentziak dira. Ildo honetan, ESSak bestelako balio eta harreman motetan oinarritutako egunerokotasun berria eraikitzen lagundu dezake. Hots, elkartasunean, demokrazia ekonomikoan, lankidetzan, elkarlanean, elkarlaguntzan, elkarrekikotasunean etab. bezalako balioetan oinarritutako egunerokotasun berria eraikitzea ahalbidetu dezake, zeinek ekonomia desmerkantilizatuz, eta beraz, lehiakortasun eta errentagarritasun maximoaren irizpideak baztertuz, merkatuko jendarteari lotutako kultura kapitalista hegemonikoa gainditzeko aukera eskaintzen duen.

Izan ere, kapitalaren berezko joera, lurralde-oztopo guztiak gainditzea da, lurraldeak homogeneousatuz, kontsumo-ereduak eta kulturak lurralde ezberdinetan berdinduz eta ekosistemen biodibertsitatea sinplifikatuz. Sektore herrikoiek bere aldetik, beren lurraldetasuna dute, eta hau, bizitza soziala erreproduzitzeko baldintzak bilatzeagatik karakterizatuta dago; komunitatean bizitzeko baldintzak bilatzeagatik, alegia. Eta klase herrikoien lurraldetasun honek, garapen kapitalistaren patrioiak ezegonkortu ditzake mobilizazio sozialaren bitartez. Izan ere, kapitalaren dinamikek lurralde baten ezaugarriak eraldatzeko indarra egiten dutenean, tokiko egunerokotasunean dauden jokabide, arau eta berezko ezaugarri instituzionalizatuek identitate soziokulturala mantentzeko indarra egiten dute ere beraien aldetik (Brenner, 2009b)

Lurraldetasun hori dena den, ezberdina izango da jendarte batetik bestera. Horrenbestez, klase herrikoien bizi kalitatearen hobekuntzari begiratzen dion garapen prozesuaren izaera burujabea izan beharko da. Jendarte bakoitzaren ahalduntzearen ondorioa; hots, jendarte bakoitzak demokratikoki erabakitzen duenaren ondorioa. Izan ere, ESSak badaki, bestelako eredu sozioekonomiko bat eraiki nahi badu, edo behintzat, haren eraikuntzan parte-hartu nahi badu, ekonomia-, jendarte-, politika-, kultura- eta ingurumen-arazoak gero eta gehiago korapilatzen diren heinean, berrikuntza ekonomikoko iturririk onena adimen kolektibo lurralderatua dela (Dacheux eta Goujon, 2011).

Horrenbestez, ESSaren indar eraldatzailea aktibatzen bada, lurraldeak bestelako egitasmo eraldatzaile baterako espazioak bezala konfiguratuta daitezke. Horrela, hauetan

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

eman ohi diren kapitalaren erreprodukziorako dinamikak baztertu daitezke komunitatearen bizitzaren erreprodukzio hedatua bilatzen duen eredu burujabearen alde. Horretarako garrantzitsua izan daiteke burujabetza sektorial ezberdinak —elikadura, energia, ekonomia, finantza— berreskuratzea. Eta lan horretarako, ESSak zeresan handia dauka, sektore estrategiko horiek komunitatearen zerbitzura jartzeko potentziala baitu (Arrillaga, 2021b). Modu honetan, ekoizpenaren gaineko lurralde kontrola areagotu eta tokiko beharrak asetzera bideratuko da lehenengo, eta ez, haren logikak eraldatzeko arriskua duten merkatu globaletara.

Kasu honetan sinergia sortzen da tokiko garapenak garapen prozesu kolektibo eta lurralderatuak aktibatzen dituelako eta ESSa harreman ekonomiko demokratiko eta berdinzaleagoak eraikitzeko lurralde-lanabesa eraldatzailea delako; gehiengo sozialaren aldeko errealitatea osatzen duena. Horrenbestez, bestelako garapen eredu baten dimentsio ekonomikoa edukiz hornitzeko oinarriak eskaintzen ditu (Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014). Eta, bere egiten dituen beste ekonomia eta ikuspegi kritikoetatik eratortzen diren ekarpen batzuk (instituzionalista, feminista, ekologikoa, Polanyi (1944), etab.), ekonomia neoklasiko ortodoxoaren abiatze hipotesi sakonki deduktiboak, positibistak, ahistorikoak eta unibertsalak baztertzen ditu interpretazio plural eta substantibo baten alde, non ekonomiak, jendarte eta naturaren arteko harremanak eta elkarrekintzak berreskuratzen dituen.

Horrenbestez, ESSak lurralde bakoitzeko errealitatera egokituta, ESSak garapen eredu alternatiboak eraiki ditzake haien dimentsio sozioekonomikoaz arduratzen bada. Ildo honetan, ESSa garapen paradigma kapitalista-neoliberalarekiko kritikoak diren beste paradigma alternatiboekiko harremanak ehundu ditzake lurralde bakoitzean; lurralde bakoitzeko errealitateari egokituta. Horrela, ESSa eta sozialki berritzaileak diren eskualdeak (Bouchard eta Lévesque, 2010; Klein et. al., 2012), ESSa eta garapen komunitarioa (Favreau, 1997), ESSa eta tokiko giza garapena (Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014; Zulaika, 2017), ESSa eta *Sumak Kawsay* (Villalba eta Pérez de Mendiguren, 2019), ESSa eta ekonomia feminista (Quiroga, 2009; Jubeto eta Larrañaga, 2014b), ESSa eta garapen iraunkorra edo ekonomia ekologikoa (Rosas-Baños, 2012; Ruiz de Galarreta eta Arrillaga, 2020) etab. bezalako harremantzeak geroz eta protagonismo handiagoa hartzen ari dira garapenaren inguruko ikasketetan.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

4.2. TAULA: Tokiko garapenaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko sinergiaren sintesi taula

Arloa	Tokiko Garapena	Ekonomia Sozial eta Solidarioa	Sinergiak
S1: Lurraldearen garrantzia	<ul style="list-style-type: none"> - Lurraldeak espazio sozialak dira, eta bertan ematen diren harremanek garapena definitzen dute. - Lurraldean oinarritutako garapena. - Tokiko identitatea sendotu eta garapena honi egokitu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Harreman sozialetan intentsiboagoak diren antolakundeak - Kokalekua irizpide “sozialengatik” erabakitzen da. - Tokiko komunitatearekiko eta garapenarekiko konpromiso esplizitua. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ekonomia eta jendartearen arteko hurbilketarako eskalarik aproposena. - Lurraldeari eta honen instituzio eta kulturari hobeto egokitutako garapen ereduak. - Kooperazioan, elkarrekikotasunean eta elkarren arteko laguntzan oinarritutako kapital sozialaren garapena. - Garapen estrategiara eragile gehiago gehitu, onarpen eta eraginkortasun maila handiagoa duten estrategia zabalagoak sortuz. - Harreman sozialen garapena eta sendotzea, indartze instituzionala, tokiko jendartearen ahalduntzea eta tokiko identitatearen sendotzea. Eta identitate sendo batek, erronkei kolektiboki erantzun eta ondasun publiko eta komunak kolektiboki babestea ahalbidetzen du.
S2: Garapen politiken izaera	<ul style="list-style-type: none"> - Lurraldeetatik abiatutako politikak. Diseinua eta aplikazioa lurraldeetan egiten da. - Eskarian oinarritutako politikak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Elementu endogenoa. - Eskari eta eskaintzaren eraikuntza partekatua. 	<ul style="list-style-type: none"> - Helburuen eta estrategien konbergentziagatik, ekoizpen unitateak egituratzeko antzekotasunagatik eta prozesu kolektiboak ulertzeko moduagatik, politikak aplikatzeko bateragarritasun handiagoa. Horrela, epe luzeko ikuspegia gailendu daiteke jendartean. - Tokiko errealitatearen ezagutza handiagoa, eta beraz, beharrak hobeto identifikatu eta hauek asetzeko eraginkortasun handiagoa.
S3: Tokiko ekonomia	<ul style="list-style-type: none"> - Tokiko ekonomia, ekoizpena, merkataritza. Turismoa etab. sustatzeko neurriak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ekoizpenaren baliagarritasun soziala bilatu - errentagarritasunaren aurrean 	<ul style="list-style-type: none"> - Dinamismo ekonomiko jasangarriagoa. - Bizitzak sostengatzea helburu duen eta lehenetsua beharrak asetzea duen lurralde ekoizpen autozentratua.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

	<ul style="list-style-type: none"> - Tokiko ekonomiaren dinamizazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Beharrak asetzera bideratutako ekoizpena - ESSaren sektorearen hazkunde bateratua bilatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Burujabetza sektorialak berreskuratu. - Zerbitzu publikoen eskaintzaren eta ekoizpenaren arteko simetria handiagoa.
S4: Metaketa lokala	<ul style="list-style-type: none"> - Tokiko egitura produktiboaren lehiakortasuna handitzeko eta berrikuntzak sustatzeko lurralde egituraketa. - Globalizazioaren erronkei aurre egiteko antolaketa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Balio erantsia lurraldean mantentzeko mozkinen gaineko tratamendu berezia. - Enpresen kokapen egonkorragoa. - Kanpo talkekiko eredu erresilientea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Balio erantsiaren zati handia lurraldean mantendu eta aberastasunaren banaketa berdinzalea. - Mozkinen banaketa jarduera produktiboa indartzeko edo/eta garapen komunitarioko ekimenak sustatzera bideratzen da. - Adierazpen sozial, politiko eta kulturalen metaketarako lurraldea.
S5: Enplegua	<ul style="list-style-type: none"> - Tokiko ekonomiaren dinamizazioa eta eragileen mobilizazioa- - Sektore berrien esplorazioa. - Lan bitartekotza. 	<ul style="list-style-type: none"> - Enplegu egonkorra sortzeko potentzialtasuna. - Krisi garaiak sortzen duten eraginekiko antolakunde erresilienteagoak. - Lanaren zentralitatea eta defentsa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kalitatezko enplegu egonkorragoa sortu. - Giza segurtasuna - Kohesio soziala (aberastasunaren banaketa bidezkoagoa, ohiko lan-merkatutik baztertuta dauden pertsonen enplegagarritasuna eta pertsona guztien aldeko ekitatea eta gizarteratzea). - Lanaren baliagarritasun soziala ageriagoa izango da, eta beraz, jendartean parte-hartzeko modua bezala ulertzea ahalbidetzen du. - Merkatutik kanpo, baina garapenerako ezinbestekoak diren lanen aitortza.
S6: Ekintzailtza	<ul style="list-style-type: none"> - Baldintza instituzionalak eta laguntza tekniko-administratiboa 	<ul style="list-style-type: none"> - Barne antolaketa forma berriak eta arriskua kolektiboki murrizteko lanabesak 	<ul style="list-style-type: none"> - Tokiko ekintzailtza sozial eta kolektiboaren ahuleziak eta arriskuak estaltzeko mekanismoak. - Langileak motibazio handiagoa daukate, aurrera eramaten dituzten ekimenak propioak direlako.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

			<ul style="list-style-type: none"> - Ekintzailtzaren oinarri lokal eta kolektiboagatik, tokiko beharretara hobeto egokitzen den enpresa ehuna sortzeko aukera.
S7: Berrikuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Berrikuntza prozesu kolektibo eta lurralderatua da. - Egitura sozialek zein instituzionalek berrikuntzan eragiten dute. - Lurraldeak ezagutza tazituaren kokagune dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Berrikuntza sistemak eraikitze beharrezkoak diren harreman sozialetan intentsiboak. - Berrikuntza aurrera eramateko egituraketa eta azpiegitura juridikoa eskaini dezake. - Berrikuntza soziala da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Berrikuntza sistemak garatzeko erraztasun handiagoa - Ezagutza tazitua zabaltzeko mekanismo eraginkorrak - Berrikuntzen kudeaketa demokratikoa eta komunitatearen mesedetan. - Informazioaren zabalpena eta berrikuntzen transferentzia handiagoa. - Berrikuntza teknologikoaren eta sozialaren arteko bateraketa.
S8: Tokiko sare egitura	<ul style="list-style-type: none"> - Ekoizpen eta berrikuntzarako sare lurralderatuak - Lurralde sareen teoria 	<ul style="list-style-type: none"> - Ekoizpen forma ez kapitalisten inguruko saretzea. - Interkooperazioa eta lankidetzaren sare solidarioak. - ESSaren saretze forma ezberdinak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ekoizpen sare eraginkor eta sendoagoak kooperazio, lankidetzaren, elkarlan, elkarlaguntza eta elkarrekikotasun balioetan oinarrituta. - Lurralde sare zabalagoak, eragile gehiagoren parte-hartzaileekin. - Lurralde sareen hazkunde bateratua. Helburua sarearen hazkundera da eta ez banakako mozkinen maximizazioa.
S9: Garapen integrala	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen komunitarioaren ikuspegia - Tokiko eragileak proiektu partekatu baten inguruan mobilizatzeko duen gaitasuna 	<ul style="list-style-type: none"> - Tokiko beharretara ekonomia kapitalistak baino hobeto egokitu. - Baliabideen hibridaziorako gaitasuna, termino ekonomikoetan errentagarriak ez diren baina bizitzak sostengatzeko beharrezkoak diren ekoizpena aurrera eramateko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Tokiko ekonomia-, jendarte-, politika-, kultura- eta ingurumen-arazo edo beharrei erantzun. - ESSaren kontzepzio plural batetik abiatuta, garapenaren ontologia komunitario batera igartzeko aukera. - Garapen autozentratuaren bitartez kanpo dependentziak murriztu.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

S10: Sakontze demokratikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Lurraldeen gobernantza sistemak eragile ezberdinak aintzat hartzen ditu erabakitze prozesuetan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Antolakundeen jabego kolektiboa eta kudeaketa demokratikoa. - Demokrazia ekonomikoan sakontzen dute. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gobernantza sistema demokratiko eta parte-hartzaileagoak. - Garapen politiken ko-eraikuntza eta ko-ekoizpen komunitarioa. - Ondasun publiko eta komunen kudeaketa lokal, demokratiko eta komunitarioa. - Sozialki berritzaileak diren eskualdeak sortu. - Demokrazia ekonomikoa antolakunde mailatik lurraldera eta bere instituzioetara zabaltzeko aukera.
S11: Eraldaketa	<ul style="list-style-type: none"> - Lurraldeak eta bertan ematen diren harremanak unitate analitiko bezala. - Garapen prozesu lurralderatu eta kolektiboak. - Garapen eredu baldintzatzeko egitura soziala. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lurraldeetako indar eraldatzailea da. - Bestelako balio eta harreman ekonomikoak. - Lurralde burujabetzak berreskuratu (elikadura, energia, ekonomia-, finantza burujabetza). 	<ul style="list-style-type: none"> - Lurralde bakoitzeko jendarteak demokratikoki erabakitako garapenaren norabidea. - Gehiengo sozialaren aldeko garapena. - Ekonomiaren ikuspegi pluralagoa eta substantiboa. - Eskualde sozialki berritzaileak, garapen komunitarioa, tokiko giza garapena, <i>Sumak Kawsay</i>, garapen iraunkorra etab. eraikitzeko potentzialtasun handiagoa lurralde bakoitzaren ezaugarrien arabera.

Iturria: Egileak egina.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Ikusten dugunez, ESSa lurralde batean ezartzerakoan, eta batez ere, ESSaren hedapena lurralde horren garapen estrategiaren norabide estrategiko gisa hartzen bada, ESS eta lurraldearen arteko norabide bikoitza duten harremanak sortzen dira. Hau da, lurralde baten berezko potentzialtasunetatik abiatuta (formakuntza maila, kultura ekintzailea, babes instituzionala, parte-hartzea, herritarren konpromisoa garapenarekin...), ESSa indartu daiteke, lurralde dinamikan presentzia handiagoa lortuz. Eta aldi berean, ESSa presentzia handia duen lurralde bateko ingurune sozioekonomikoan eragin positibo ezberdinak antzeman ditzakegu, Pérez-ek (2011) dioen efektu biderkatzailea emanez.

4.4 Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako tokiko garapenerako eredu eraldatzaile baterako proposamenak:

Tokiko garapenaren eta ESSaren arteko harremanak ikertzen aritu garen kapitulu honetan, orain arte bi teorien oinarrietan aurkitu daitezkeen harremanak, eta harreman horietatik abiatuta sortu daitezkeen sinergiak aztertu ditugu. Hasten ari garen atal honetan berriz, ESSan oinarritutako tokiko garapenerako estrategia baterako proposamenak zehaztuko ditugu.

Horretarako atal propositibo hau hiru azpiatal nagusietan banatu dugu. Lehenengo, ESSan oinarritutako tokiko garapenerako eredu batek izango zituen helburu, ikuspegi eta mugak azaltzen dira. Hots, garapenari begiratzeko modua eta garapenaren ezaugarri minimoak azaltzen dituen. Bigarrenik, garapen eredu honen egitura produktiboari begiratuko diogu. Hau da, lehenengo azpiatalean azaldutako ezaugarri teorikoak enpirikoki tokiko harreman ekonomikoak eraldatzeko erronka duen egitura kooperatibo-komunitarioaren inguruko hurbilketa bat proposatuko dugu. Azkenik, hirugarren azpiatalean, proposatutako egituraketa gertatu dadin, garrantzitsuak izan daitezkeen baldintzei begiratuko diegu. Batez ere, parte-hartze mekanismoei eta ESSa sustatzeko neurri edo politika publikoei arreta jarritz; eredu publiko-kooperatibo-komunitarioa eraikitze aldera.

4.4.1 Garapen eraldatzailearen ikuspegia, mugak eta helburua:

4.4.1.1 ESSan oinarritutako tokiko garapen eredu baten ikuspegia:

Ezer baino lehenago, zehaztu beharra dago bestelako ekonomia batean oinarritutako garapen eredu batek, modernitatearen garapenerako ikasketetan eman ohi diren oinarritzko bi ideiekin apurtzeko erronka duela: Alde batetik, II mundu gerra osteko garapenkeriatik oinordetutako joera ekonomizista eta homogeneizatzailea baztertea, zeinek munduko lurralde guztietan mendebaldeko garapenaren ikuspegia duen eredu ezarri nahi duen. Eta bestetik, pertsonen bizitzak erasotzen eta prekarizatzen dituen eredu kapitalista neoliberaletik eratorritako politika sorta, pertsonen bizitzaren erreproduzio hedatua erdigunean jartzen duen bestelako eredu batengatik ordezkatea.

Dagoeneko aipatu dugunez, ekonomia ekologikotik, feministatik, ekofeministotik eta beste korrante kritiko batzuetatik ohartarazten digute bizitzaren esparru ezberdinak zalantzan jartzen dituen zibilizazio krisi edo krisi estruktural batean murgilduta gaudela; eta krisi honek kolapsora garamatzala jendarte gisa. Krisi ekonomiko, politiko, sozial, ekologiko, kultural, zaintzen esparrukoa, parte-hartzearen esparrukoa eta abarrekoa dela ohartarazten digute. Gainera, geroz eta berezitasun, interkonexio eta konplexutasun handiagoa dituzten esparru elkargurutzatuak dira hauek. Eta beraz, erantzun integralak beharrezkoak dira.

Horrez gain, krisi ezberdinek ez dute berdin eragiten toki eta esparru guztietan; jendarte edo lurralde batetik bestera arazoak ezberdinak izan daitezkeelako, eta horietako bakoitzean esparru ezberdinetan eragin dezaketelako gradu ezberdinean. Horregatik, garapenaren estrategia ekonomizistak eta homogeneoak ez dira baliagarriak gaur egun. Jendarte bakoitzak bere egoeraren diagnostiko baten ondorioz, berezko arazo edo beharrak antzemango ditu, eta hauei modu integral batean erantzuteko, behetik abiatutako mekanismo demokratikoak abian jartzea beharrezkoa da.

Era berean, *trickle-down effect*-ean oinarrituta atzerriko inbertsio zuzena erakartzea bilatzen duten eredu neoliberalen eraginkortasun eza aitortu beharra dago. Batetik, ezinbesteko hazkunde ekonomiko mugagabearen ideiaaren aterkiaren pean garatzen direlako; eta beraz, arazo ekonomikoari erantzuna eman nahian, krisi ekologikoa areagotzen dutelako. Eta bestetik, arazo ekonomikoari ere erantzuteko gai izan ez delako. Izan ere, hazkunde ekonomikoa ez da beti klase herrikoien errenta mailan islatzen, eta beraz, disparekotasun ekonomiko eta sozialak areagotzen ditu. Baina

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

gainera, lurraldeetan beste arazo batzuk eragiten ditu, hala nola, tokiko enpresak merkatuetatik kanporatu, lurraldeekiko errotzerik gabeko enpresa filialak ezarri (eta beraz, krisialdi baten aurrean lehenengoak dira ixteko orduan, errentagarritasun irizpideak soilik kontutan hartzen dituztelako), zerga-ihesa, berrikuntza sozializatzeko errezeloa eta berrikuntza sistemetan barneratzeko eragozpenak etab.

Laburbilduz, garapen eredu eraldatzaile bat —baldin eta “garapena” terminoa erabiltzen jarraitu nahi dugun⁹¹—, garai berriek dakartzaten erronketara egokitu beharko da, modernitate industrialaren ideia gainditu eta orain arte garatu diren eredu kapitalista eta neoliberaleri alternatiba⁹² bat eskaini. Horretarako, ikuspegi propioa eta burujabea, endogenoa, integrala eta plurala eta autozentratua duten tokiko garapenerako ereduak aurrera eramatea garrantzitsua izan daitekeela uste dugu. Hauetako deskribatzaile bakoitzak ezaugarri garrantzitsuak ematen dituelarik.

- Lurralde burujabetzaren bidean sakontzen duen ikuspegi propioa; jendarte bakoitzak bere etorkizuna demokratikoki erabakitzeke aukera izan dadin. Hots, nolako garapen estrategia jarraituko duen zehazteko, euren behar eta berezko ezaugarrietara egokituta, baina betiere giza eskubide eta duintasuna garapenaren irizpide global minimo gisa hartuta. Horrenbestez, propioa eta burujabea izateak, behetik gorako ikuspegia emateaz gain, garapen prozesuaren gaineko kontrol demokratikoaren irizpidea barneratzen du; komunitateek garapen prozesua berezkoa bezala kontsideratu dezaten.
- Globalizazioak eragindako lanaren banaketa espazial berriari erantzun lurralderatua ematea ahalbidetzen duen ikuspegi endogenoa. Horretarako, lurraldeak berezkoak dituen baliabide eta indarrak mobilizatu eta aktibatzea erronka delarik. Izan ere, lurraldea ez da enpresa handien eta kanpoko erakundeen estrategien hartzaile pasiboa, baizik eta tokiko dinamika

⁹¹ Postgarapenaren ikuspegitik, “garapen” terminoaren baliogabetzea aldarrikatzen da mendebaldeko herrialdeen ikuspegi hegemonikoan oinarritutako modernitatearen garapen kapitalistarekiko duen loturagatik. Ikuspegi hauek, modernitatearen garapen eredu unibertsalistekiko kritikoak dira, azkenengo hauek garapena ulertzeko era ikuspegi kolonialean jatorria dutelako eta ez baitirelako gai izan garapena lortzeko; arazo ekonomikoen sortzailea den ekonomia kapitalistarekin apurtzen ez baitute (ikus, Latouche, 2007).

⁹² “Alternatibo” terminoa erabiltzen dugunean, bestelako oinarri, logika, jokabide etab. dituen garapen eredu bati buruz ari gara, eta ez batzuetan ulertarazi egin den moduan, margenetan gelditzen den eredu bati buruz. Izan ere, zentzu honetan, garapen eredu eraldatzaile baten helburua, eredu eskalatu eta hegemonia lortzea izan behar duela uste dugu.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

sozioekonomikoan eragiteko gai diren estrategia propioak diseinatzeko agente aktibo bat. Horrenbestez, endogenoa izateak, jendartea ahalduntzen du, kanpoko baliabideekiko dependentzia murrizten duelako eta berezkoak aktibatzea eskatzen duelako.

- Garapenaren izaera integrala eta plurala onartzen duen ikuspegia. Dagoeneko ez dutelako balio erantzun bakartuak, eta beraz, dimentsio ekonomikoaz gain dimentsio politiko, sozial, kultural, ekologiko etab. jorratu beharko luke modu koordinatuan. Eta dimentsio ekonomikoaz ari garenean, honen ulertze plurala; ohiko enpresa kapitalistaren erreproduzioaren aurrean, izaera ezberdinak dituzten eta esparru ezberdinetan jarduten duten antolakundeak aintzat hartzen dituen. Jabego egitura ezberdinak dituzten eta ez-merkatuko eta ez-monetazko ekimenei balioa ematea, alegia. Izan ere, mehatxu nagusietako bat merkatuak bizitzaren alderdi guztiez jabetzea bada, jabetza hori gutxitzera bideratuta dauden ekimenak ondo bideratuta egongo dira.
- Ekoizpena zein erreproduzioa lurraldeko beharrekin harmonizatzen duen ikuspegi autozentratua. Hau da, tokiko beharrak asetzea lehenesten duen garapenaren ikuspegia. Irizpide hori desira edo gustu hutsekin ordezkaten denean, bizitzaren erreproduzio hedatuaren helburu nagusia ahazten baita. Termino ekonomiko hutsetan, gainera, iraunkorragoa da beharrak asetzeko ekoizpena lehenestea desira eta gustuetara bideratzea baino. Ekoizpenaren eta errealizazioaren arteko batasun kontraesankorra dela eta, askoz zailagoa baita oreka mantentzea ekoizpena jende aberatsaren nahien eta ohituren mende badago, langile eta klase herrikoien eskaera sendo eta fidagarrien arabera egon ordez.

Horrez gain, aurreko lau irizpideek intrintsekoa duten bosgarren irizpide bat aipatzea beharrezkoa da ere. Prozesuen izaera kolektiboa, alegia. Garapen eredu eraldatzaile batek aurre egin nahi dituen arazoak ez dira indibidualak; kapitalismoak sortzen dituen arazoak dira, batez ere klase herrikoien gain eragina dutenak. Horrenbestez, hauei aurre egitea eta atzean inor ez uztea da erronka nagusia. Gainera, garapena lurralde mailan planteatzerakoan, bere izaera kolektiboa argi gelditzen da, jendartea antolatzen delako helburu komun bat lortzeko.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Hala ere, modernitatearen garapen kapitalistari alternatiba lurralderatua eman nahi bazaio, gutxienez gaur egungo ekonomiaren bi ezaugarri nagusi kontuan izan behar dira: Eskala aniztasuna eta botere harremanak.

Gaur egungo antolaketa ekonomiko eta sozialean ezinezkoa da garapen proiektu bat aurrera eramatea eskala espazial ezberdinen eragina kontuan izan gabe. Izan ere, Moulaert eta Sekiak (2001) dioten moduan, eraikuntza instituzionalerako ekimenak, berrikuntza sustatzeko ekimenak, proiektu kulturalak eta tokiko garapenaren markoan kokatu daitezkeen bestelako ekimenen abar luze bat, eskala espazial ezberdinak inplikatzan dituzte. Eta eskala horietako bakoitzean botere harremanak aurkitzen ditugu.

Horregatik, beharrezkoa da lurraldea testuinguru zabalago batean kokatzea, non kanpotik datozen eraginak aintzat hartzen diren. Hau da, maila globalaren, estatuaz gaindikoaren, estatukoaren, eskualdekoaren eta tokikoaren arteko harremanak ulertu behar dira, elkarri lotuta daudelako, eta, beraz, elkarren artean eragiten direlako (Brenner, 2009b). Eta aldi berean, botere harremanen inguruko irakurketa egin maila eskalar esanguratsu guztietan. Alabaina, tokiko garapenaren teoria gehienek euren analisietan botere harremanek duten garrantzia gutxitu dituzte, edo zuzenean, ez diete espaziorik eskaini. Nahiz eta argi dagoen, hauek garapenaren dinamikan eragin zuzena dutela. Horrenbestez, lurraldeetako analisi berriek botere harremanek sortzen dituzten eragin multidimentsionalak kontuan hartu beharko dituzte; disparekotasun ekonomikoekin, kohesio sozialaren hausturarekin, kultura menderatzaileen inposizioekin eta bestelako hierarkia sozialekin hausteko. Hots fundamentalismo kapitalistaren hegemoniarekin hausteko (Moulaert eta Sekia, 2001).

Eta beraz, tokiko garapenerako eredu eraldatzaileak aurrera eramaten duten lurraldeek, egitasmo horiek nola eskalatu ikusi beharko dute. Horretarako, lurraldeen arteko estrategia partekatuak beharrezkoak izango dira, izan ere, lurralde edo unitate espazial antolatuen eta geografikoki sakabanatuen arteko interkonexioak ezartzen dituen sare funtzionamenduaren printzipioa gaur egungo errealitatearen dimentsio geroz eta garrantzitsuagoa da (Brenner, 2009b). Beharrezkoa izanik babes sareak (lurralderatuak eta beste komunitateekin ehundutakoak), eskala ezberdinetako agente erregulatzailak, sindikatuak, presio talde lokal eta globalak, eta argi dago, egitura kapitalistak iraultzeko eta botere harremanak murrizteko gai izango den proposamen alternatibo bat eraikitzea.

Ildo honetan, Moulaert eta Sekiak (2001:213) tokiko garapenerako eredu eraldatzaile —edo sozialki berritzailea euren hitzetan— baten inguruan ondorioztatzen

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

dutena ekarriko dugu gurera. Autore hauentzat, ikuspegi espazial estatista batetik lokal batera aldatzea; zurruna eta eskala handikoa izatetik malgua eta eskala txikikoa izatera; edo goitik beherako erabakiak hartzeko sistemetatik sistema horizontaletara igarotzea ez da berrikuntza soziala, baizik eta metaketa eredu zurrun batetik eredu malgu batera igarotzeko kapitalaren estrategia bat. Hots, kapitalismoaren berregituraketa bat. Hau da, kapitalismoa zatikatua edo modulatuena egonda ere, kapitalismoa da oraindik ere. Eta beraz, tokiko garapena eraldatzailea bihurtuko da baldin eta, komunitatearen zatiketa, oinarritzko beharren alienazioa, ekosistemen hondaketa, kultura-ghettoen sorkuntza, muturreko disparekotasun ekonomikoa etab. gainditzeko aukera ematen badu. Beraz, tokikoa, eraldatzailea bihurtuko da baldin eta bere antolaketa-, erabaki-, ekoizpen- eta (bir)banaketa-eredu espezifikoez gure jendartearen etorkizuna arriskuan jartzen duten oinarritzko arazo horiei irtenbideak eskaintzen badizkiete.

4.4.1.2 Garapenaren mugak eta erronkak:

Garapenak dena den mugak ditu. Batzuk agerikoagoak dira eta beste batzuk zailtasun handiagoz antzeman daitezke, baina denek mugatzen dute modu batean edo bestean garapena, eta beraz, etorkizunerako erronkak ezartzen dizkiote.

Lehenengo muga, planetak ezartzen duena da, eta honek dituen muga biofisikoen bitartez definitzen da. Muga hau, muga ekologikoa da. Garapen eredu iraunkorrak sortzeko, ekonomiaren eta ekologiaren arteko hurbilketan sakontzea beharrezkoa da. Eta horretarako, ekonomia ikusten eta aztertzen dugun modua aldatzea eskatzen du ikuspegi ekologista batetik. Beraz, ekonomia, biosferaren azpisistema bezala kontsideratu behar da, eta ez, kanpo-eraginik ez dituen esfera isolatu bat bezala. Izan ere, ekonomiak jarduera ekonomikoak aurrera eramateko, naturarekin materialak eta energia trukatzeko, baina aldi berean, natura sistema itxia eta mugatua da. Hau da, ez du tamainaz handitzeko gaitasunik, behintzat, materialei dagokionez (Naredo, 2002). Ondorioz, ekonomiak, planetaren mugak eta sistema naturalen erreproduktzio gaitasuna errespetatu behar ditu. Eta horretarako ezinbestekoa da, hazkunde mugagabearen ideia baztertzea, eta hedaturaz, logika berdina jarraitzen duen mozkinak maximizatzea bilatzen duen enpresa eredu ere.

Horretarako, aztarna ekologikoa bezalako adierazleak interesgarriak izan daitezke. Izan ere, lurralde jakin batean (hiri, eskualde, herrialde, nazioarteko erregio, mundua) kontsumitzen diren baliabideak sortzen dituzten hondakinak xurgatzeko

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

beharrezkoa den ingurune ekologikoa neurtzen du (Etxano, 2015). Adierazle hau interesgarria da, lurralde bakoitzak kontsumitzen duenaren eragin naturala adierazteaz gain, beste lurralde batzuekin konparatzea ahalbidetzen duelako. Eta beraz, bigarren termino bat barneratzea ahalbidetzen digulako; ingurumen justiziarena, alegia. Hau da, lurralde batek kontsumitzen dituen baliabideek sortzen dituzten hondakinak xurgatzeko beharrezkoa den ingurune ekologikoa lurralde horren mugak gainditzen baditu, horrek esan nahi du, beste lurralde baten ingurumenaren erreprodukzio gaitasuna kentzen ari zaiola. Ildo honetan, iparraldeko herrialdeak izan dira hegoaldeko herrialdeen eta etorkizuneko belaunaldien baliabide eskuragarrien kantitatea murriztu dituztenak. Eta beraz, materialen erabilpenean gehien murriztu beharrekoak herrialde hauek izan behar dira (Ruiz de Galarreta eta Arrillaga, 2020). Horrenbestez, gaur egun ezagutzen ditugun ekoizpen eta kontsumo ereduak aldatzea beharrezkoa izango delarik.

Horregatik, tokiko garapen eredu eraldatzaile baten erronka, planetaren muga biofisikoak erasotzen dituen hazkunde ekonomiko mugagabearen mantra gainditu, eta pertsona guztien ongizatea, eta etorkizuneko belaunaldiena, bilatzen duen eredu iraunkor baten sorkuntza litzateke.

Bigarrenengo muga, pertsonen geure artean ditugun harremanen bitartez ezartzen duguna da. Muga hau, muga soziala da. Kasu honetan, interesgarria izan daiteke Nussbaum-ek (1999) oinarritzko helburu globalen inguruan egiten duen hausnarketa. Izan ere, bere ustez, gutxieneko bizi maila, oinarritzko aldarrikapenak, giza eskubideak eta duintasuna bezalako helburu minimoak ezarri daitezke nazioartean, lurraldeen kulturak eta aniztasuna bermatzen diren bitartean, eta argumentu paternalistetan erori gabe.

Kasu honetan, garapenari ikuspegi feminista batetik heltzen diogu. Garapenaren ikuspegi feminista batek, garapenaren erdigunean ekonomia (hazkundera, kapitala...) jarri ordez, bizitza eta horren sostengua jartzen ditu. Hau da, kapitalaren metaketa helburu duen, eta hori lortzeko bizitza antolatzen duen ereduaren aurrean, pertsona guztien bizitzaren erreprodukzio hedatua helburu duten garapen ereduak sortzea da erronka. Horretarako garapenaren ohiko helburuen ber-definizio bat egiteaz gain, bizitzaren sostengarritasunerako hain beharrezkoak diren zaintza lanen inguruko berrantolaketa burutzea beharrezkoa litzateke (Pérez Orozco, 2006). Adibidez, ordaindutako jardunaldia murriztuz edo pertsonen beharrianak asetzen ez duten lanak

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

txikiagotuz, eta pertsonen bizitzarako beharrezkoak diren lanen (produktibo zein erreproduktibo) banaketa bidezkoago bat emanaz (Herrero, 2014).

Hau da, erronka, edo garapenaren muga, pertsonak garapenaren edrigunean jarriz, denontzako bizitza bizigarriak eraikitzea litzateke; eta horretarako beharrezkoak diren produkzio zein erreproduktio lanak aitortu, berrantolatu eta modu autoeratuan aurrera eraman. Hori lortzeko, erreproduktio lanei lotutako generoari lotutako ezberdintasunekin apurtzea beharrezkoa delarik. Izan ere, zaintza lanen banaketa historikoa, neurri handi batean, genero-boterearen harremanekin lotuta egon da, eta, hala, gaur egun sortzen jarraitzen diren desorekak oso markatuta daude generoarekin (Pérez Orozco, 2006).

Hirugarren muga, gaur egungo mundu politikoaren egituraketatik eratorritako muga da. Ekimenak aurrera eramateko eskumenak, erabakiak eta botere harremanak definitzen dituena, alegia. Muga hau, muga politikoa da. Kasu honetan, muga hau bereziki eragiten dio lurraldeetan oinarritutako edozein garapen prozesuri. Izan ere, nahiz eta azken hamarkadetan estatuz azpiko espazioen papera berrindartu egin den, badira lurraldeen erregulazio ahalmenetik ateratzen diren eskumen ugari, eta hauek eragin zuzena daukate lurraldeetako testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoan. Horregatik, hauek duten garrantzia ukatzea, eta lurraldeetatik abiatutako ekimenei arazo ekonomiko, sozial eta politikoak konpontzeko ardura guztia uzteak, batetik, lurraldeen eskumenak gainditzen duen erantzukizun handi baten pisu guztia lurraldearen gainean jartzea dakar. Eta bestetik, errealitateari uko egitea da. Horregatik, lurraldea oinarri izanik aurrera eraman nahi den edozein garapen eredu kontuan izan beharko luke maila altuagoko eskalek dituzten eskumenak; hala nola, politika ekonomikoa, moneta- eta zerga-politika, lan-harremanen inguruko arauketa etab. zehazteko ahalmena.

Bestalde, muga honek, garapenaren izaera demokratikoa ere barneratzen du. Jendarte bakoitzak bere etorkizunaren jabe izateko, demokratikoki erabakitako garapenaren norabidea zehaztu beharko luke. Hau da, lurraldean dauden eta kanpotik inposatzen diren botere harremanak eraldatzen dituen gobernantza zabal, anitz eta parte-hartzailea eraikitzea eskatzen du.

Azkenik, garapen harmonikoa aurrera eramatea eragozten duten disparekotasun ekonomikoek ezartzen dute azkenengo muga. Muga hau, muga ekonomikoa da. Azaleko ikuspegi batetik, kohesiorik gabeko lurraldeetan, interes kontrajarriagoak egon daitezke garapen prozesu bat aurrera eramaterakoan, eta beraz, prozesu ezegonkorragoak izango

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

dira. Gainera, urritasun demokratikoak sortu daitezke, beharrianak asetuta ez duten pertsonen parte-hartze soziala txikiagoa izan ohi delako. Alabaina gehiago sakonduta, disparekotasun ekonomikoak, prozesu kolektibo baten porrota adierazten du. Eta garapena prozesu kolektiboa da, pertsona eta eragile ugarien elkarrekintzaren ondorioa baita. Eta beraz, zentzuzkoa da, lana (produktiboa zein erreproduktiboa) garapen kolektiboaren mesedera jarri bada, behar diren neurriak hartzea inor atzean geratu ez dadin.

Horregatik, tokiko garapen eraldatzaile batek ezin da oinarritu izatez disparekotasunak sortzen dituen eredu kapitalistan. Eta beraz, pertsona guztiek beharrezkoak dituzten behar materialak asetzea lehenesten dituen bestelako egitura eta antolaketa ekonomiko iraunkorra garatu beharko du, metaketa kapitalista lehenesten duenaren aurrean. Hau da, muga ekonomikoa disparekotasunek eta iraunkortasun ekonomikoak zehazten dute, eta, erronka nagusia, horiei erantzuna ematen duen bestelako eredu ekonomikoaren eraikuntza litzateke.

4.4.1.3 Garapenaren helburu baten bila: pertsona guztientzako bizitza bizigarriak:

Garapenaren helburuaren inguruan hausnartzeak bere arriskuak erakusten ditu. Izan ere, proposamena gehiegi murrizten bada, definizio estatikoegietan erortzea eragin dezake, non, batetik, etengabeko eraldaketa prozesua ez den ematen, eta bestetik, garapenaren ikuspegi batzuk definiziotik kanpo gelditu daitezkeen. Aldiz, proposamena zehatza ez bada, batetik, definizio abstraktuegietan erortzea eragin dezake, non ez den argi gelditzen zein den bilatzen ari den helburua, eta bestetik, garapen ereduaren gehiegizko luzatzea eragin dezake, non elementu eraldatzaileak lausotu daitezkeen. Gainera, garapenaren helburuaren definizio unibertsala ematea bilatzen baldin bada, garapena, ekonomia, jendarte, eta azken finean, bizitza ulertzeko modu ezberdinekin talka egin dezake. Izan ere, definizio unibertsala emateak, bizitza ikusteko eta ulertzeko modu baten inposizioa suposatzen du. Horregatik, atal honetan garapenaren helburutzat hartu dugun kontzeptuaren testuingurua eta izaera propositiboa azaldu behar dugu lehenengo.

Garapenaren inguruko ikasketetan, gai honi eskainitako arreta handia izan da. Izan ere, nondik begiratzen diogun arabera, helburua aldatu daiteke. Hau, esan bezala, garapena ikusteko eta ulertzeko egindako hurbilketa geografiko, sozial, ideologiko eta

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

kultural ezberdinetatik eratorritako eztabaida da. Horrela, termino, kontzeptu, mugapen eta definizio ezberdinak aurkitu ditzakegu, batzuk dagoeneko tesi honetan agertu direlarik. Bizi kalitatea, bizi maila, gaitasunen garapena, ongizatea, ongi bizitzea, garapen iraunkorrerako helburuak, giza garapena, modernizazioaren teoriaren faseak etab. Hauetako batzuk, antza handia izan dezaketelarik, eta funtsean kontzeptu berdinari buruz aritzen direlarik.

Gure kasuan, tokiko garapenerako eredu eraldatzaile baten helburuaren proposamenerako, pertsona guztientzako “bizitza bizigarriak” izatearen terminoa aintzat hartzea erabaki dugu. Arrazoi ezberdinengatik:

Lehena, ekonomia eraldatzaile berriek dagoeneko erabiltzen ari duten terminoa delako, eta beraz, beste kontzeptu berri baten sorkuntzarekin gaia korapilatu ordez, dagoeneko feminismoak, ekologismoak, ekofeminismoak, ESSak eta beste mugimendu sozial ezberdinek erabiltzen duten kontzeptu batean sakondu eta gure ekarpena egitea interesgarriagoa iruditzen zaigulako.

Bigarrena, pertsona guztiak aintzat hartzen duelako, guztioi duintasun berdina emanaz, edozein dela ere gure egoera soziala, generoa, adina, jatorria, gaitasuna eta abar. Eta beraz, sozialki eraikitako aurreko kategoria huen gurutzaketek sortzen dituzten menderakuntza anitzeko diskriminazioaren aurka egitea ahalbidetzen duen kontzeptua delako.

Hirugarrena, bizitza eta horren erreprodukzioa eta sostengua garapen ereduaren erdigunean jartzen duen irizpide normatiboa delako. Hots, bizitzaren ahultasunean arreta jartzen da, non bizitza duinak izateko, ohiko ekonomiak eta merkatuak asetzen ez dituen gutxieneko baldintza sozial eta ekonomiko ezberdinak bete behar diren. Eta baldintza hauek emateko, pertsonen arteko interdependentzia (eta naturarekiko ekodependentzia) onartzea beharrezkoa da, eta beraz, ekimen kolektiboaren garrantzia ulertzea. Izan ere, merkatuaren irizpideetan oinarritutako ekonomiak sortzen duen bizitzaren indibidualizazio eta prekarizazioaren aurrean, bizitza bera sistema ekonomikoaren erdigunean jartzean datza bizitza bizigarrien proposamena.

Laugarrena, bizitza sostengatzeko ardura publikoa eta komunitarioa dela ulertzen duelako, eta beraz, ondasun, zerbitzu eta lorpen publiko eta komunen defentsa egiten duelako.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Bosgarrena, bizitza bizigarriak lortzeko aurrera eraman behar den lan produktibo zein erreproduktiboa uztartzen du, non Kanpandegi eta Kareaga-k (2019:142) dioten moduan, lan egiteko modu bat baino, bizitzeko modu integral bat den, norberaren balioekin koherentzian doana. Gainera, lan sortzailea eta burujabearen alde egiten duen proposamena da, non lan-harreman berdinzaleagoak ematen diren eta ez lan esplotazioa. Eta lan erreproduktiboen bidezko banaketaren alde egiten duen.

Eta seigarrena, bizitzaren beste kosmobisioekin uztartzea ahalbidetzen duen kontzeptua delako. Horrela herri indigenen Sumak Kawsay, Suma Qamaña edo bizitza ona bezalako ekarpenekin bat egin dezakeen proposamena ere bada.

Azkenaldian bizitza bizigarriaren terminoa nahiko erabilia izaten ari den arren, ez du adostutako definiziorik. Izan ere, nondik begiratzen zaion arabera ezaugarri batzuetan edo besteetan arreta jarriko da (adibidez, feminismitik bizitzaren izaera interdependentean arreta jarriko da gehiago, eta ekologismitik bizitzaren izaera eko-dependienteen). Alabaina, ikuspegi guztiek bat egiten dute bizitzaren (bizirik dagoen oro) iraunkortasuna edo sostengua horren oinarrian dagoela. Eta era berean, bizitzaren iraunkortasunaren kontra doazen erasoak geldiaraztea eskatzen duela. Bizitzaren erreproduktzioa erdigunean jartzea esaten dugunean, jarduera ekonomikoa, edozein polon ematen dela (merkatua, estatua, komunitatea), pertsona guztiak eta komunitateak euren bizitzak duintasunez aurrera eramateko beharrezkoak dituzten beharrezkoak azpiratzea esan nahi duenari. Hots, ekonomia bitarteko bat bezala ulertzea eta ez helburu bezala.

Hala ere, proposatzen dugun garapen eredu hau guztiz irekita dago ekarpen edo ikuspuntu ezberdinetara. Hau da xedea, izan ere, jendarte bakoitzak definitu behar du zer diren bizitza bizigarriak eta nola lortu nahi duen helburu hori. Horrela, geografia eta ikuspegi ezberdinetatik datozen ekarpen berriek eztabaida aberastuko dute, eta geroz eta alternatiba sendoagoak eraikitzea ahalbidetuko duen etengabeko eraldaketa ahalbidetuko dute.

4.4.2 Tokiko egitura kooperatibo-komunitarioa:

Lurralde batean kokatzen diren enpresek, lurralde horrekiko erantzukizuna daukate. Hau da, bertan kokatzeagatik, lurralde horren ezaugarriak eta baldintzak onartzen dituzte. Eta hauek, ikusi dugun moduan, abantaila ekonomikoak sortu ditzakete, baina aldi berean, komunitateek enpresa baten jarduera, eta jarduera horrek

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

sortzen dituen eraginak (zuzenak eta kanpo-eraginak) onartzen edo baztertzen ditu. Ohikoak dira ildo honetan, jendarte zibiletik abiatutako ekimenak asko kontaminatzen duten edo inpaktu sozial negatiboa duten jarduerak baztertzeko. Egia da, botere harremanek egoera hauek baldintzatzen dituztela, baina egia da ere, gaur egun lurralde batek eskaintzen dituen abantaila ekonomiko gehienak sozialak direla, eta beraz, tokiko jendartearen babesarik gabe jarudera ekonomikoa ez dela izango horren probetxugarria.

Horrenbestez, esan dezakegu, neurri batean, lurraldearen baliabideak ustiatzeagatik, lurraldeak berak onartu behar duela jarduera hori; hots, lurraldeak ez dira enpresa-jarduerak inolako kontrolik gabe aurrea eraman ahal daitezkeen espazio hutsak, bertan era askotako harreman sozialak garatzen dira, eta hauek garapena baldintzatzen dute. Hau da, jendarte bakoitzari dagokio bere harreman ekonomikoak nola antolatu eta egituratu nahi dituen erabakitzea, egituraketa horren alde positiboak eta negatiboak balioztatzea, ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena eta banaketa antolatzea etab. (Subirats, 2014). Eta egungo krisi anitz eta estrukturalari erantzuteko, dagoeneko ez du balio kapitalaren erreprodukzioaren inguruan garatzen den egitura produktibo bat, bizitzaren erreprodukzio hedatua ahalbidetzen dituzten egiturak garatzea ezinbestekoa da.

ESSan oinarritutako tokiko lurralde egitura batek, pertsonak garapenaren erdigunean jartzen dituen eta bizitzaren erreprodukzio hedatuaren zerbitzura dagoen garapen eredu baten ezarpena ahalbidetzen du. Ekoizpen egitura hauek, natura suntsitzen eta pertsonak atzean uzten dituzten lehiakortasunaren ereduak kooperazioan oinarritutako eredu bidezkoagoengatik eraldatzeko gaitasuna daukate. Izan ere, kapitalismoak sortzen dituen arazoei erantzuteko modurik eraginkorrena, kolektiboki abiatutako ekimenen bitartez izango da. Eta aldi berean, kolektiboki aurrera egiteko eta pertsona guztientzako bizitza bizigarriak sortzeko modurik eraginkorrena, komunitatea oinarri duen elkarren arteko kooperazioaren bitartez izango da (Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014).

Horregatik hitz egiten dugu egitura kooperatibo-komunitarioetaz. Hau da, egitura kooperatibo-komunitarioek garapena azaltzeko bestelako modu bat dakartzate. Ez dira soilik ikuspegi ekonomizista batetik merkatuko esfera produktiboaz arduratzen. Hots, ez dira soilik ESSan oinarritutako egitura produktiboak (produktibo gisa merkatuan aberastasun monetarioa handitzeko ekoizten dena ulertuta). Egitura kooperatibo-komunitarioak merkatuan zein merkatutik at eta esfera produktiboan zein

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

erreproduktiboan, tokiko beharizanen gainean eragiten duten lurralde antolaketa pluralak bezala ulertu behar ditugu.

Gainera, egitura kooperatibo-komunitarioak, komunitatearen beharizan ezberdinak asetzera bideratuta daude; arazo edo behar ezberdinei erantzuteko asmoz, lurraldeetan bizi direnek sortutako antolakundeengatik osatuta dagoen heinean. Beraz, enplegua sortzera, bizitzaren erreprodukziorako beharrezkoak diren lanen banaketara, merkatuan eta merkatutik kanpo produktu eta zerbitzuak eskaintzera, zerbitzu eta politika publikoen diseinuan eta ekoizpenean parte-hartzera, lurraldean dauden ondasun komunak kudeatzera bideratzen dira, besteak beste. Beti ere, lanari eta ekoiztutako produktuen edo eskainitako zerbitzuaren baliagarritasunari lehentasuna emanez.

Horregatik antolakunde hauek lurraldean duten baliagarritasuna handia da. Aldiz, kapitalak soilik jarduera errentagarria denean inbertitzen du. Kapitalak klase herrikoien behar eta estutasunek ez ditu aintzat hartzen, salbu eta estutasun horiengatik eskari agregatua ez bada nahikoa kapitala merkatuan metatzen jarraitzeko. Enpleguaren kasuan berdina gertatzen da; soilik jarduera errentagarriagoa izango denean berrinbertitzen du lanpostu berrien sorreran. Gainera, kapitalari, soldata maila ahalik eta txikiena izatea interesatzen zaio. Eta hori kudeatzeko duten gaitasuna, “langile soberakinen erreserba industrialeko ejerzitu” termino Marxistaren eskuragarritasunaren arabera definitzen da. Erreserba ejerzitu horren funtzioa kapitalaren zabalkunderako beharrezkoa den eskulana eskaintzea da, eta, aldi berean, langileek beren ordainsariak eta lan baldintzak hobetzen saiatzen direnean kontrapisua izatea da (Harvey, 2014).

Egitura kooperatibo-komunitarioa, kapitalaren berezko bi dinamika horiek iraultzeko gai izango litzateke. Batetik, errentagarritasun handiko sektoreak ez diren, baina bizitza sostengatzeko garrantzitsuak izan daitezkeen horietan ESSko antolakundeak jardun dezaketelako; dagoeneko azaldu dugun baliabideen hibridaziorako duten gaitasunagatik eta haien helburua ez delako mozkinak maximizatzea. Eta bestetik, ESSak langileak kooperatibizatzeke joera duelako, eta beraz, haien egoera egonkortzeko enplegua, mozkinen aurretik jartzen delako, enpleguaren defentsa handiagoa erakutsiz. Gainera, ESSak ez du erreserba ejerzitu horren beharrik, langileak ekoizpen baliabideen jabeak diren heinean, eta beraz, enplegu bete lortzeko potentzial handiagoa erakusten du.

Laburbilduz, tokiko egitura kooperatibo-komunitarioak pertsona guztientzako bizitza bizigarriak bilatzen duten ekimenak barneratzen ditu; eta beraz, logika honetan

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

sortzen diren ekimen ekonomikoek, ez dute mozkinen maximizazioa bilatzen, baizik eta justizia soziala eta pertsona guztientzako irisgarritasuna bai ekoizpen edo lanari eta baita ere kontsumoari dagokionez. Komunitatearen aldeko helburu esplizituaz gain, sortutako ekimenen kudeaketa eta jabegoa kolektiboa izango da, eta komunitateren interes talde ezberdinetara irekita egongo dira. Garapenerako egitura hauek, ezberdinak izango direnak lurralde batetik bestera, bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokituta egongo direlako, tokiko garapen harmonikoa, bidezko harreman komertzialak, berdintasuna, konfiantza, erantzukizun partekatua, gardentasuna eta errespetua bezalako ezaugarriak partekatuko dituzte (REAS, 2011).

Coraggiok (2008) esaten duen moduan, egitura sozioproduktiboak baino, egitura sozioekonomiko berriak eraikitzean datza. Hots, egitura horiek legitimatzen duten jendartea eta erregulatzen duen kudeaketa politikoa behar da, tokiko ekoizpena errentagarritasun irizpideen eta merkatuaren autorregulazioaren esku uzten duten egitura kapitalisten ordeiz. Horretarako, autoreak hiru momentuko prozesua aurreikusten du: Lehena, herritar guztien bizitzen duintasuna bermatzen duena. Duintasunari dimentsio materialaz gain, bestelako dimentsio sozial eta kulturala emanez. Bigarrenik, ESSaren forma duen lan elkartuan oinarritutako eta kapitalarekiko autonomia den sektore antolatu baten hazkundera, zeinek geroz eta sektore produktibo gehiagoetara heltzen den. Eta bertan, bazkideen bizitzaren erreprodukzio hedatua ematen den. Eta hirugarren momentu bat non estatuz azpiko ekonomiak berregituratzen diren, burujabeak izateko, eta pertsona guztien bizitzaren erreprodukzio hedatua bilatzera bideratuta daudelarik.

Horretarako, argi dago, logika kooperatibo-komunitarioa duen garapen eredu batean, enpresa, eta, oro har, mota ezberdinetako antolakunde eta elkartzeko kooperatibo-komunitarioak beharrezkoak dira; ESSaren balioak izanda, eragile ezberdinei irekita daudenak eta lurraldearen garapen estrategian eragile aktiboak direnak. Hau da, ESSaren egituraketa anitzak izan dezaketen antolakundeak, komunitatearen beharrak asetzera bideratutako bestelako lan-, banakuntza-, finantza- kontsumo- eta merkataritza-harremanak garatzen dituztenak eta etengabeko elkarriketa sozialean daudenak euren artean, tokiko beste eragileekin eta jendarte zibilarekin.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

4.4.2.1 Antolakunde kooperatibo-komunitarioak

Lan elkartuko kooperatibak edo lan-sozietateak, kontsumitzaileen kooperatibak edo elkarteak, finantza erakunde kooperatiboak, etxebizitza lagapenerako kooperatibak, laneratze enpresak, enplegu zentro bereziak eta abarreko izaera duten antolakunde kolektiboen bitartez, osatuta dagoen egitura litzateke, non antolakundeen gobernantza tokiko beste eragile inplikatuak eta interes talde ezberdinei irekita dagoen. Hots, antolakundeak kokatuta dagoen lurraldeko komunitateko eragile sozial ezberdinei antolakundearen kudeaketa irekita dago, sortutako zerbitzuen eskaintza eta eskaria modu demokratikoan eraikitzeko espazioa izateko. Izan ere, komunitatearen beharretara hobeto egokitzea ahalbidetzen da, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko etengabeko elkarriketa (eta eztabaida) ahalbidetzen duelako.

Modu honetan, parte-hartzerako espazio berriak sortzen dira lurraldeetan, hauen gobernantza sistema indartuz. ESSa egitasmo sozialki berritzaileak garatzeko, parte-hartzearen inguruan ikasteko, lotura komunitarioak sendotzeko eta jendarte eraldaketa helburu duten balioak sortzeko gunea ere den heinean (Laville eta García-Jané, 2009). Izan ere, ESSko antolakundeak harremantzeko eta egituratzeko modu berritzaileak esperimintatzeko espazioak ere badira, sortu daitezkeen kudeaketa demokratikoaren inguruko praktika berritzaileak, gerora beste esparruetan aplikatu daitezkeelarik.

Polanyi-ra (1944; 1994) bueltatuz, egitura kooperatibo-komunitarioa, merkatuko jendartearekin apurtzeko, “zahartutako merkatuko mentalitatea” gainditzea ahalbidetzen duen egituraketa izan daiteke. Harreman desmerkantilizatuak sustatu eta ekonomia demokraziaren menpe jartzen dituen ereduak delako. Hau da, batetik, merkatuko arrazionaltasun neoklasikoarekin apurtzen duelako, lankidetzak, kooperazioa, elkartasuna eta elkarrekikotasunean oinarritutako jokabideak barneratzen dituelako mozkinen maximizazioa, eta beraz metaketa, helburu ez duen eredu batean; non, merkatuaren zentralitatea baztertu, eta bizitza ekonomikoa antolatzen duen polo eta egituraketa gehiagoren existentzia aitortzen duen. Eta bestetik, antolaketa ekonomikoaren eta ekoizpen baliabideen gaineko langile/bazkideen jabegoan, kudeaketa demokratikoan eta jarduera ekonomikoen gaineko nolabaiteko planifikazio komunitarioan oinarritutako ereduak delako eskaintza eta eskariaren eraikuntza partekatuen bitartez.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Lan honetarako guztirako, oro har, ESSa osatzen duten antolakundeek sustapena guztiz ezinbestekoa da. Azaldu dugun moduan, demokrazia ekonomikoan sakontzea ahalbidetzen duten figura juridikoak izateaz gain, autogestioan, balio sozialetan, kooperazioan, komunitatearekiko konpromisoan, etengabeko formakuntzan etab. oinarritutako antolakundeak direlako (ICA, 1995; REAS, 2011).

Lavillek (2004) elkartasun demokratikoaren terminoa⁹³ erabiltzen du birbanaketaren eta elkarrekikotasuna bat egiten duten puntua adierazteko; eta bide batez, elkartasunaren ulertze filantropiko edo karitatezko ikuspegitik ezberdintzeko. Elkartasun demokratikoaren logikaren pean, ondasunen ekoizpen, banakuntza eta kontsumorako elkartzeak (kooperatibak), arriskuen aurrean babesteko elkarlaguntzan oinarritutako elkartzeak (mutualitateak), bestelako jarduera kolektiboak aurrera eramateko elkartzeak (elkartek) eta eskubide unibertsalak onartzen/eraikitzen dituzten eta merkatu autorregulatuaren ondorioak indargabetzen dituzten jendarte babeseko politikak aurrera eraman dira historian zehar (Vázquez, 2014). Ildo honetan, kooperatibismoaren, laneratze enpresen eta elkartegintzaren ekarpenak egitura kooperatibo-komunitario baten eraikuntzan duten garrantzia bereziki azpimarratu nahi ditugu.

Kooperatibek⁹⁴, lan burujabea eta auto gestionatua eskaintzen diote euren bazkideei. Ildo honetan, Etxezarretak (2011:208-209) azaltzen dituen lau ezaugarri edo indar gune nagusi azpimarratu behar dira: lehenik, bazkide-langilearen figurak ematen duen jabetza-zentzua; bigarrenik, bazkide-langilearen figura horrek berak ematen duen lan-egonkortasuna; hirugarrenik, kooperatibetako sustapen- eta erregulazio-mekanismoen eta ordainketa-politiken ondorioz zabaltzen den berdintasun-zentzua; eta, laugarrenik, bazkide guztiek balioetan prestakuntza eta hezkuntza jasotzen dituztela. Gainera —jarraitzen du autoreak—, jarduera kooperatiboaren alderdi horiei esker, bazkideak proiektu kooperatiboarekin identifikazio sendoa eta egonkorra lortzen du, eta horrek malgutasun handiagoa ematen dio ekoizpen egiturari, eta, aldi berean, bazkide

⁹³ “elkartasun demokratikoak bi ikuspegi ditu: bata, elkarrekikotasunarena, non herritar aske eta berdinen arteko borondatezko jendarte-loturak barneratzen diren, eta, bestea, birbanaketarena, non kohesio soziala indartzeko eta desberdintasunak zuzentzeko Estatuak ezarritako arauak eta onurak barneratzen diren” (Laville, 2004:223).

⁹⁴ Neurri handi batean lan-sozietateak ere betetzen dituzten ezaugarri hauek. Are gehiago, batzuetan, lan-sozietateei "kooperatiben ahizpa txikiak" deitu izan zaie, ezaugarri asko partekatzen baitituzte.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

guztien artean konfiantza harremanak izateko aukera ematen du. Esaterik ez dago, tokiko egitura kooperatiboak indar gune hauek ere barneratuko lituzkela, eta beraz, testuinguru ekonomiko aldakorrari egokitzeko beharrezkoak diren berrikuntzak eta ekoizpen malgua lortzeko behar diren konfiantza eta aldaken aurrean moldatzeko gaitasuna eskaini dezakeela eredu kooperatibo batek.

Bestalde, laneratze enpresen kasuan, integrazio soziolaboralaren bitartez lurraldeen kohesio sozialaren alde egiten duten lana azpimarratu behar da. Enpresa hauek aldi baterako lan ikaskuntzako egiturak dira, ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituztenak, lortu dezaketen mozkinak enpresan bertan berrinbertitzen dituztenak eta haien eginkizun nagusia bazterketa sozialeko egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonen jendarteratzea eta laneratzea dutenak (Laville eta García-Jané, 2009). Orokorrean, laneratze enpresek harreman estuak dituzte zerbitzu sozialak ekoizten dituzten bestelako antolakunde sozial, publiko eta pribatuekin eta oinarritzko lanbide heziketako zentroekin; ildo honetako lurralde babes sareak sortuz. Horrela, lurraldeetan bazterketa sozialeko egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonen identifikaziorako, eta erantzun egokituagoa eskaintzeko tresna eraginkorrak bihurtzen dira.

Interesgarria izan daiteke, hala ere, laneratze enpresen eta beste antolakunde kooperatibo-komunitarioen arteko aliantzak sustatzea. Ez bakarrik, hornitzaile-bezero harremanen bitartez, baizik eta laneratze prozesuetan ibilitako pertsonen ibilbide profesional egonkorragoa bermatzeko. Hau da, ohiko lan merkatura bideratutako prozesua izatetik, ESSko antolakundeetan pertsona hauek kooperatibizatu, edo euren ekimen propioak eraiki dezaten baliabideak eskaintza.

Elkartegintza, jarduera kolektiboak aurrera eramateko elkartzekak dira, eta jarduera ekonomikoa aurrera eramatea beharrezkoa ez duten arren, komunitateen garapenerako ezinbesteko elementuak dira hainbat arrazoiengatik. Batetik, afiliaziorako ezinbesteko antolakundeak dira. Afiliazioa, Nussbaum-ek (1999) definitzen duen moduan, besteekin bizitzeko, elkarrenganako aitortzarako, besteengatik arduratzeko eta elkarrekintza sozialean parte-hartzeko ezaugarria da; besteak beste, elkarretaratze askatasunerako eta diskurtso politikorako askatasuna bermatzen duena. Bestetik, elkartegintzaren oinarrian, ekintza kolektiboa eta lurraldetasuna egonik, lurraldeetako marko instituzionalaren garapenerako, eta beraz, tokiko identitatea sendotzeko ezinbesteko ekimenak dira. Garapen ekonomikoan izan dezaketen eraginaz gain, batez ere, garapen komunitarioan, kulturean eta politikoan duten eragina argia baita. Izan

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

ere, elkarteak izan ohi da mota horretako ekimenak aurrera eramateko erabili ohi den egituraketa forma nagusia. Antolakunde horizontalak eta demokratikoak direlako, jarduera sozialki baliagarriak aurrera eramaten dituztelako eta izan dezaketen mozkinak ezin dituztelako banatu, eta beraz, beren jardueran, eta hedaturaz lurraldean, berrinbertitzen dituztelako.

Baina tokiko egitura kooperatibo-komunitario batek beste eragile sozioekonomikoen beharra izaten jarraitzen du. Orain aipatutako ESSko egituraketez gain, ESSaren baitan aurkitu ditzakegun beste formula ezberdinek, sindikatuek, edo herri-erakundeek izan beharko luketen papera azpimarratzea garrantzitsua izan daiteke.

Tokiko herri-antolakundeak (udalak, garapen agentziak...) izan beharko luketen jokabideak inguruan, aurrerago arreta jarriko diogu, gobernantza eraldatzaile baten markoan lankidetzak publiko-kooperatibo-komunitarioa aztertzen dugunean. Sindikatuek beren partetik, elkartasun demokratikoaren beste hanka bat osatzen dute; langileen defentsarako elkarterena, alegia (Vázquez, 2014). Sindikatuak, soldatapeko langileen lan baldintzak defendatu eta enpresa kapitalistetan ematen diren lan-harremanen kudeaketarako lanabesa kolektiboak izateaz gain, eredu kooperatibo-komunitarioaren eraikuntzan garrantzitsuak izango dira ere. Izan ere, klase herrikoiek maila eskalar ezberdinetan dauden botere harremanei aurre egiteko tresna garrantzitsuak izan daitezke. Eta beraz, gai ekonomikoetan langileriaren parte-hartzea bideratzeko tresnak izan daitezke.

Hala ere, Lavillek eta García-Janék (2009:18) dioten moduan, 1945 eta 1975 artean herrialde askotako sindikatuen eskuduntzek “lanaren eremu sozialera mugatutako kontzentrazioa onartzera eraman zuten: lan-baldintzak, higiena eta segurtasuna, lanbide-heziketa, soldata...; hau da, konpromiso fordistaren barruan, kontrabotere sindikalak, aldi berean, taylorismoa gizatiartzea eta onartzea erraztu zuten.” Sindikatuek, soldatapeko langileen lan baldintzengatik borrokatzen duten bitartean, bizitzaren erreproduzio hedatuaren kontra doan sistema kapitalistari interpelatu beharko lukete, eta jendarte zibiletik eta langile eta herri-mugimenduetatik abiatzen diren esperientzia askatzaile eta burujabeetan parte-hartu; ESSko egituraketak sustatuz, enpresak berreskurtzeko ekimenetan parte-hartuz edo enpresa handien administrazio kontseiluetan barneratuz kontrabotere gisa. Hau da, soldatapeko langileriaren defentsa burutzeaz gain, soldatapeko jendarteak gainditzen duen eredu baten eragile aktiboak izatea eskatzen du.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Azken zentzu honetan, badira esperientzia ezberdinak non ESSa eta sindikalgintza batera jardun duten. Horietako bat Quebec-eko kasua litzateke. Etxezarreta et. al. (2015:13) diotenez,

“(...)gizarte zibileko zenbait sektore buru zirela (sindikatuak, herritarren elkarteak, Ciriec-Kanada erakundeko eragile akademikoak...), zenbait konbergentzia-prozesu abiatu ziren. (...) haien emaitza izan zen Ekonomia Soziala Lantzeko Taldea (ESLT) bera sortu izana, eta talde horrek Chantier de l'Économie sociale erakundearen babespean lan egin zuen, (...) Bi erakunde horiek sortu izana inflexio-puntu argia da politika publikoen diseinuaren esparruan, gizarte-dinamika berri baterako abiapuntua ezarriko baitute. ESLTren osaketa bera konbergentzia-prozesu berri baten erakusgarria da: haren baitan elkarlanean arituko dira kooperatiba-mugimenduetako ordezkariak, sindikatuak, herritarrek osatutako elkarte komunitarioak, bai eta emakume-taldeak ere. Agente horien guztien interesak, jakina, ezberdinak dira (are gehiago, baita aurkakoak ere), eta, hala, bakoitzak bere arrazoiak ditu taldera hurbiltzeko(...)”.

Ikusten dugunez, Quebec-eko gobernantza sisteman ESSa eta sindikatuek batera jarduten dute beste eragile batzuekin politika publikoen ko-eraikuntzan. Are gehiago, autoreek azaltzen dutenez, Quebec-eko sindikatuek funtsak sortu dituzte ekintzailtza soziala bultzatzeko (edo enpresa kapitalistak berreskuratzeko). Modu honetan, sindikatuak tokiko garapen eraldatzaile baten eragile garrantzitsuak bihurtzen dira.

Egitura kooperatibo-komunitarioen ekimenen zabalkundeari dagokionez beraz, funtsa komunitarioak sortu daitezke ekimen berriak aurrera eraman nahi dituzten ekintzaileen arriskua murrizteko. Kasu honetan, lurraldean dauden antolakundeek mozkinak izanez gero, horien zati bat funtsa horietara bideratuko litzateke ekintzaile berrien aukerak handitzeko edo krisiei hobeto erantzuteko. Funtsa honekin jarduera ekonomikoaren bitartez sortutako aberastasuna lurraldeari itzuliko litzaioke, haren baliabideak ustiatu izanagatik itzulera bat emanez (Favreau, 1997). Modu honetan, kooperazioan eta elkarrekikotasunean oinarritutako egiturei izaera mutualista gehituko litzaioke. Funtsa hauen kudeaketan, sindikatuak ere parte-hartu dezakete aipatutako eginkizun berri horren baitan; eta funtsen kanalizazioari dagokionez, lurraldean eragiten duten finantza etiko edo/eta kooperatiboek izan daitezke aurrera eramaten dutenak.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

4.4.2.2 *Lan kooperatibo-komunitarioa:*

Lana, eta honek jokatzeko duen papera, izan da dudarik gabe historian zehar ekonomialari askoren ikerketa objektua. Era berean, dagoeneko azaldu dugunez, gai zentrala da tokiko garapenerako zein ESSarentzako. Hala ere, tokiko garapen eredu eraldatzaile bateko egituraketa kooperatibo-komunitarioaren ikuspegitik lana nola ulertzen den ikusi behar dugu.

Historia garaikideari begiratzen badiogu, ekonomialari klasikoek, ekoiztutako ondasunen balioaren oinarritzko elementu azaltzaile gisa kontsideratzen zuten lan-balioaren teoriari jarraituz. Marx izango zen, ekonomia politiko klasikoari kritika eginez, plusbalioaren terminoa proposatuko zuena. Plusbalioaren terminoak, ordaindu gabeko lanetik lortutako mozkinari eta lurraren errentei egingo die erreferentzia. Ekonomia neoklasikoaren aurrerapenarekin, lan-balioaren teoria baztertzen da. Orain, merkantzia baten balioa haren erabilgarritasunagatik eta urritasunagatik zehaztuta izango da; eta lana, merkantzia horiek ekoizteko beharrezkoa den ekoizpen faktore bat izatera igarotzen da. Azkenengo hamarkadetan, ekonomia neoklasikoaren ezarpenekin jarraitzen bada ere, ekonomialari batzuentzat, lanak ekoizpen prozesuan zuen garrantzia eta zentralitatea galtzen joan da teknologia berrien eraginez. Eta gaur egun, hain sakonki sartuta gaude soldatapeko lanaren ideologiaren pean, non zaila egiten den lana beste ikuspegi batetik ikustea (Arruda, 2004).

Bestalde, merkantzien balioaren eta prezioaren kontzeptuak berdindu dira; izan ere, ekonomia neoklasikoaren ikuspuntutik soilik moneta unitateetan neurtu daitekeena eta merkatuan ematen dena izango da ekonomikoki baliagarria. Eta beraz, balio ekonomikoa handitzen duten prozesuak soilik kontsideratuko dira ekoizpen gisa. Hau da, ekonomikoa denaren —merkatuan ematen dena eta adierazpen monetarioa duena— eta ez-ekonomikoa denaren —diruaren bidez neurtu ezin den guztia— arteko dikotomia bat ezarritik. Eta beraz, ikuspegi horrek, batetik, agerian uzten ditu merkatuan ematen diren erlazio ekonomikoak, eta bestetik, estaltzen edo ikusezin bihurtzen ditu merkatukoak ez diren beste erlazioak. Eta azken hauen artean daude, hain zuzen ere, bizitzaren sostengurako ezinbestekoak diren zaintza lanak besteak beste (Herrero, 2013; 2014).

Baina zentzu komunitario batean, lana pertsonen ongizaterako aurrera eramaten diren jarduerak oro litzateke; eta beraz, ikuspegi honetatik lana sozialki antolatu daiteke.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Baina ez lehia edo norgehiagoka giroan oinarritutako zatiketa gisa, baizik eta komunitatean parte hartzen duten guztiek aurrera eramaten duten elkarriketa sozialean, negoziazio kolektiboan eta planifikazioan oinarrituta, lankidetzaren giro batean sortzen den kontzepzio partekatu baten bitartez. Eta aldi berean, lanaren bitartez, pertsona bat jendartean kokatzen da, bere behar eta hasperenei erantzuten die eta bere nortasuna garatzen du (Arruda, 2004).

ESSak azkenengo bi ikuspegi horiei erantzuten die. Batetik, behar kolektiboak erantzutea helburu esplizitua du, bizitzen erreproduzio hedatua oinarri gisa duten antolakundeak bezala definitzen diren heinean, eta irabazi ekonomikoen aurrean “iraunkortasuna eta pertsonen beharrei erantzutea” bilatzen dutelako (REAS, 2011:11). Eta bestetik, ESSak sustatzen duen “ekonomia-ereduak pertsonen garapen integrala, kolektiboa eta banakakoa du helburu” (REAS, 2011:10), lana ekonomian eta komunitatean parte-hartzeko bidea bezala ulertuz. Horrenbestez, esan dezakegu, ESSak lanarekiko duen ikuspegia, baliagarritasun sozial handiko ekimenetara bideratzeaz gain, ekimen horiek osatzen dituzten banako eta taldeek bestelako jendarte bat eraikitzeke hasperenetan oinarritzen dela (Levesque, 2004), non lana emantzipaziorako bidea izango den. Hots, menderakuntza harremanak gainditzeko asmoz, eta beraz, lan emantzipatzailea edo burujabea sortzeko asmoz, erabakiak hartzeko boterea eta aberastasuna deszentralizatzean oinarritzen diren antolakundeak dira.

Baina are gehiago, egitura kooperatibo-komunitarioetan, lanaren ikuspegi ekonomizista eta produktibista gainditzen da, eta bizitzaren sostengurako beharrezkoak diren lan guztiak, produktiboak zein erreproduktiboak (etxean eta komunitatean ematen direnak), aitortu eta balioan jartzen dira. Horrela, lanak, bere osotasunean ulertuta eta ez soilik enplegua bezala, denboraren berrantolaketa behar du. Herrerok (2014) zentzu honetan proposatzen duenez, ordaindutako jardunaldia murriztu eta pertsonen bizitzarako beharrezkoak diren lan horien berrantolaketa eta banaketa beharko litzateke, modu berdinzaleago batean gizon eta emakumeen artean. Lan guztien denbora berrantolaketa, beste ardatz politiko osatzen baitu, eta ordaindutako lanaldia murrizteak eta jendarteak behar dituen lan-denbora guztiak banatzeak beste jendarte baten eraikuntzarako oinarritzeko pausoa izan daitekeelako. Horretarako, pertsonen beharrezkoak asetzen ez dituzten eta bizitzarentzako zein naturarentzako onuragarriak ez diren lanen kopurua txikiagotuz.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Oinarri hauen guztien gainean eraikitzen dira ESSko ekimenak. Hau da, ongizate handiagoa —norberarena eta besteena aldi berean— bilatzen duten ekimenak dira, elkarren arteko laguntzan eta elkarrekikotasunean oinarritzen direnak. Horrez gain, dageneko azaldu dugun moduan, ESSarentzako, “lana funtsezko elementua da pertsonen eta komunitatearen bizi-kalitaterako, eta hiritarren, herrien eta estatuen arteko harreman ekonomikoetarako” (REAS, 2011:4). Izan ere, lan egiteko aukera ez duten pertsonak, baliabide materialen urritasunagatik ez ezik, beren harreman sarearen hauskortasunagatik ere ahulduta daude. Hau da, ez daude bakarrik pobretzeko bidean, baizik eta des-afiliaziarako bidean ere, hots, harreman eta lotura sozialeko haustura egoeran. Horrek isolamendu soziala ekarri dezake, eta aldi berean, lan merkatutik baztertutako pertsonak, jendartean partekatutako balioetatik urruntzea eragin dezake. Enplegua galtzeak, askotan, besteekin lankidetzarako eta komunikaziorako aukera konkretu bat galtzea baitakar; eta hori funtsezkoa da identitatea eraikitzearen ikuspegitik. Izan ere enplegua galtzeak, edo behin behineko lan txiki eta prekarioen kateatzeak, sozializazio defizita sortzen du, enplegu duina aurkitzeko aukerak murrizten dituen, kontratazio irizpideek lehentasuna ematen baitiete harremantzeko gaitasun handiagoak dituzten pertsonari (Laville eta García-Jané, 2009).

Aldiz, pertsonen gaitasunak garatzea ahalbidetzen duen lanaren giza dimentsioa, alderdi soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala berreskuratzen badira, eta ondasun eta zerbitzuak ekoizterakoan lurraldearen beharrezkoak asetzera bideratzen denean, lana enplegu bat edo okupazio soil bat baino gehiago bihurtzen da (REAS, 2011). Hau da, jarduera ekonomikoa elkarrekikotasun bulkada batetik abiatzen bada, jarduerak, parte-hartzaileek ematen dioten zentzua hartuko du. Horrela, jarduera ekonomikoa zentzu komun baten adierazpena izango da, hots, beste batzuekin partekatutako mundu baten zentzua. Eta beraz, lankidetzan eta komunikazioan oinarritutako sozializazio dinamikak bultzatzeko elementua bihurtzen da (Laville eta García-Jané, 2009).

Azken finean, lan burujabea lana egiteagatik, sortzeagatik eta ezagutzak gure eta guztion eraldaketan zabaltzeagatik sorrarazten den plazerra berreskuratzea da. Hots, lana, bizitza eredu burujabe indibidual eta kolektibo batekin bateragarria izan behar du, eta hori egiteagatik, bizitzaren esparru materialez gain, ez materialak asetzeko gai izango dena ere; hala nola, hasperenak, motibazioak, harreman sozialak, zaintzak etab. Baina baita ere, garapena eta etorkizuna kudeatu eta erabakitzeak eta, subjektu oso gisa, bere historia eraikitzeak beharrezkoa den boterea eta jakintza berreskuratu dituen

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

jendarte baten erdigunean egindako lana bezala uler daiteke. “Lan burujabearen jendarte litzateke hau, eta hari dagokio, hedaduraz, lan burujabearen ekonomia” (Arruda, 2004:427).

4.4.2.3 Ekintzailtza kooperatibo-komunitarioa:

Aipatutako lanaren ikuspegi hau emateko, lana sozializatzea ahalbidetzen duten ekimen ekonomikoak sortzea beharrezkoa da. ESSak dituen irizpide normatiboengatik, izaeragatik eta balioengatik, lan burujabea sortzeko tresna izan daiteke; ekoizpen baliabideen jabegoa langileek eurek duten heinean, autogestioan oinarritzen direlako, baliagarritasun sozial handiko zerbitzuak eskaintzen dutelako etab. Gainera, sortu daitezkeen ekimen berriei begira dagoeneko ikusi ditugun mekanismoak garatu ditu hasierako arriskuei aurre egiteko. Hala ere oraindik gelditzen zaigu ikusteko nola kokatzen diren ekimen berri hauek lurralde egitura kooperatibo-komunitarioetan. Atal honetan dena den, ekintzailtza kooperatibo-komunitarioaren ezaugarri teorikoak aztertuko ditugu, ekintzailtza sustatzeko praktika konkretuei aurrerago erreparatuko diegun bitartean, politika publikoei buruz hitz egiten dugunean, hain zuzen ere.

Lehenago esan dugun moduan, ekintzailtza izango da gaur egun arreta gehien pizten ari duen gai ekonomikoetako bat. Are gehiago, 2008ko krisi ekonomikotik, ohikoa da agintari politikoek diskurtsoetan ekintzailtzaren aldeko aldarriak entzutea, eta neurri ezberdinen bitartez hori sustatzea. Alabaina, langabeziaren arazoari aurre egiteko diskurtso politikoan indarra gehien hartu duen ekintzailtza eredia ez dator bat, orokorrean, ikuspegi kooperatibo-komunitario batekin. Izan ere, agerikoa egiten ari da, oinarri teknologiko edo/eta berritzailea duten eta hazkunde azkarra izan ohi duten enpresa sortu berrien eredia edo *startup* eredia gailentzen ari dela.

Startup ereduak, arrakasta ekonomiko handia lortu izan duten enpresa txiki eta berritzaileak barneratzen ditu, eta ohikoa da entzutea haiek ibilitako bidea talentua duen edonork jarraitu dezakeela. Hala ere, *startup*-en errealitateak ezkututzen ditu hainbat ezaugarri haien hasierako xarmarekin bukatuko dutenak. Izan ere, sakonki indibidualistak diren ekimenak dira eta horrek sortu ditzakeen errenta disparekotasuna, garapen ekonomiko eskasa, lurraldearekiko errotze zalantzarria eta abarrez gain, kapitalismo neoliberalak duen potentzial handiko lanabesa bihurtzen da bi arrazoiengatik: lehena, besteak beste berrikuntzarako, dinamismo ekonomikorako eta enplegua sortzeko erantzukizuna ekintzaile indibidualaren eskuetan gelditzen delako.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Hots, elementu hauek sozialki onuragarriak bezala kontsideratzen diren arren, hauek sortzeko jasan beharreko arriskua ekintzailearen gain gelditzen da; eta beraz, politikoki oso merkea da, nahiz eta arrakasta lortuz gero, etekin politikoa handia izango den eta diskurtso neoliberalak legitimatzeko baliagarria izango den. Bigarrena, ohikoa da enpresa hauek finantzaketa behar izatea, eta ohikoa da ere, enpresaren jabegoaren zati handi bat saltzea hau lortzeko. Enpresa hauen jabegoa, lurraldeen gaineko ardura eza duten finantza entitate edo inbertsoreen eskuetan gelditzen da maiz. Hortaz, higiezinekin bezala, orain, *startup*-ak dira espekulatuzaileen negozio erakargarrietarikoa; hasieran merkea delako bertan inbertitzea eta denbora gutxian asko hazi daitezkeelako. Horrez gain, enpresa hauen jarduerari begira, beharrezkoa dute, aipatutako hazkunde lortzeko, publizitate kanpainen bitartez kontsumo alienatua sustatzea. *Startup*-ak ez baitira sortu, oro har, biztanleriaren beharrak asetzeko asmoz, baizik eta mozkinak maximizatzeko helburu bakarrarekin sortzen dira. Eta beraz, behar faltuak sorrarazi behar dituzte kontsumoa areagotzeko.

Argi dago beraz, *startup* ereduak ez duela tokiko garapenaren, edo behintzat, aurretik planteatu dugun eredu burujabe, endogeno, integral eta autozentratuaren planteamenduekin bat egiten. Izan ere, batetik, tokiko garapenak tokiko kapital soziala, instituzioak, kohesio soziala etab. indartzea beharrezkoa du garapen estrategiak hobeto errotu daitezen. Eta bestetik, ekoizpena, berrikuntza, saretzea etab. prozesu kolektiboak dira. *Startup* ereduak aldiz, indibidualki hazi nahi duen eredu gorpuzten du. Gainera, jabego egiturak hain likidoak izanik, nahiz eta lurralde batean sortu, zaila da esatea lurralde horretara errotzen direnik. Hortaz, lehenago kanpo baliabideen endogenizazioaz aritu garen moduan, orain kontrako bidea hartzen duen enpresa eredu bati buruz hitz egin dezakegu.

Ikuspegi kooperatibo-komunitario batetik, ekintzaitza beste modu batean ulertzen da. Lehenik, gorago azaldu ditugun garapenaren helburuari, ikuspegiei eta mugei egokitzen diren antolakundeak dira. Hau da, bizitza bizigarriak sortzeko helburuarekin, lurraldeetan garapen eredu propioa ahalbidetzen duten antolakunde autogestionatuak dira; kanpo dependentziarik sorrarazten ez duten, eta tokiko garapen estrategietan integratzen diren antolakunde endogenoak dira; lurraldearen garapen integrala laguntzen duten antolakunde pluralak dira; eta, garapen autozentratua eman dadin, euren jarduera tokiko beharrak asetzera bideratzen duten antolakunde

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

kolektiboak dira. Horrez gain, naturaren muga biofisikoak kontuan izanik eta bizitza eta bere erreproduzio hedatua erdigunean jartzen duten antolakundeak dira.

Bigarrenik, soziologia ekonomikotik ikasitako printzipio ekonomikoen eta jabego egituren pluraltasunarekin bat egiten duten antolakundeak dira. Modu honetan, jarduera anitzak, baliabideen hibridazioa eta gobernantza ko-eraikiak ahalbidetzen dira. Esparru ekonomikoa merkatura mugatzen ez duten antolakundeak izanik gainera, lanaren kontzeptzio zabal baterantz egiten dute. Eta horrela, lanaren dimentsio ez-monetarioa beste arrazoi batengatik azaldu dezakete, lana ez baita beharrezan materialak asetzeko elementu instrumentala soilik, adierazpen indibidual eta kolektiboa ere bada, bestelako hasperen eta motibazioengatik gidatuta dagoena (Laville eta García-Jané, 2009). Gainera, lanaren kontzeptuaren mugak zabaltzeak ere hautsi egiten du lan ordainduaren eta ordaindu gabearen arteko ikuspegi dikotomikoa. Eta besteren artean, gizonezkoek eta emakumeek zaintza lanen inguruan izan behar duten baterako erantzukizuna planteatzea ahalbidetzen du. Horretarako, merkataritza ordutegietan, ordaindutako lanaldiaren iraupenean eta denbora, espazio eta lanen antolaketa sozialean aldaketak (Jubeto eta Larrañaga, 2014b) bere egin behar dituzten ekimenak direlarik.

Hirugarrenik, pertsonak ahalduzko duten gaitasuna oinarri izanik garatzen diren antolakundeak dira; autogestioan oinarritutako antolakundeak direlako eta lan burujabea aurrera eramatea ahalbidetzen dutelako. Autogestioa, autonomian oinarritutako erakundeen edo komunitateen eraketa eta funtzionamendua bezala ulertuta, zeintzuk pertsonen erabakitze gaitasunean oinarrituta dauden (Sarasua eta Udaondo, 2004). Eta beraz, lanaren gaineko burujabetza berreskuratzeko oinarrizko elementua da hiru arrazoi nagusirengatik: i) bazkidea jabe eta kudeatzailea delako aldi berean. ii) Erabakiak hartzeko duen gaitasunagatik. iii) Lan mota honen duintasun eta adierazgarritasunari lotutako autoestimua berreskuratzegatik (Gaiger eta Da Silva, 2011). Baina beti ere, eruen helburu ekonomiko eta sozialak lortzeko, erabakitze gaitasuna ahalbidetzen duen funtzionamendu autogestionarioaz gain, komunikazioa eta konfiantza zabaltzen erraztuko duen funtzionamendu gardena eta erabaki garrantzitsu guztiak erabakitze gaitasunaren parte-hartzaile baten bitartez aurrera eramaten dutelarik (REAS, 2011).

Eta laugarrenik, mozkin asmoak lehentasuna ez duenez, egon litezkeen mozkinen gaineko tratamendu berezia dute, non lurraldearen baliabideak ustiatzeagatik, lurraldearen garapenerako ekimen ezberdinetara bideratzen diren. Hala nola, jarduera

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

ekonomiko eraldatzaile berriak sustatzera, ekimen kulturaletara, formakuntzara, bestelako praktika eraldatzaileen zabalpena etab.

ESSaren logikan dauden ekimenek beraz, bat egiten dute aurreko ikuspegi guztiekin. Izan ere, Gaiger-ek (2004) dioen moduan, antolaketa kolektiboko izaera ezberdinak har ditzakete, langileen elkartzeko askean, autogestioan, lankidetzan, eta bideragarritasun printzipioetan oinarrituta. Eta beren jardura ekonomikoak hezkuntza eta kultura arloko ekintzekin konbinatzen dituzte, komunitatearen zentzua eta horiek kokatzen diren jendartearekiko konpromisoa baloratuz.

Are gehiago, Laville eta García-Jané-k (2009: 173-175) ESSko ekimenak berezkoak dituzten eta bestelako jendarteak eraikitzea erraztuko duten lau ezaugarri nagusi antzematen dituzte. Eta hauek, argi dago, tokiko egitura kooperatibo-komunitarioak eraikitzeke beharrezkoak diren ekimenetan barneratu beharreko ezaugarriak dira: Lehenengoa, ESSko ekimenek modu demokratikoan funtzionatzen dutelako, kideen arteko disparekotasun maila existitzen bada oso txikia delako, ekologikoki jasagarriagoak direlako eta ondasunak eta zerbitzuak enpresa kapitalistak baino modu eraginkorragoan sortzen dituztelako. Bigarrena, ESSa herritartasun eskola aktiboa delako, eta komunitatea sortzen dutelako. Hau da, ikaskuntza eraldatzaileko espazioak dira, non kapitalistak ez diren ekoizteko, kontsumitzeko, inbertitzeko etab. moduak ikasten diren. Gainera, demokrazian, autogestioan, erantzukizunean eta elkartzasunean bezalako balioetan hazteko baliagarriak dira. Hirugarrena, balio kontrahegemonikoak sortzen dituzenez, aldaketa sozialean interesa duen subjektu berriak eraikitzen laguntzen dutelako. Eta azkenik, laborategi gisa funtzionatzen dutelako, ekonomia berriak konpondu behar dituen arazoei erantzunak emateko: hala nola enpresa demokratikoen dimentsio egokiak, enpresen birmoldaketa ekologikoa, edo gobernantza demokratikoentzako berrikuntza sozialak etab.

Izan ere, ESSko ekimenen ezaugarri garrantzitsu bat haien funtzio anitzeko izaera da. Aldi berean arlo ekonomiko, sozial eta politikoan jarduteko bokazioa baitute, eta beraz, arlo ekonomikoan jarduteko, lehenengo, zapalketa erreproduzitzen dituzten egiturak interpelatzen dituzte. Hortaz, merkatu-estatua binomioari egozten zaion interes ekonomikoen eta arlo sozialen arteko dikotomia baztertzen dute, hala nola, ekoizpen eta erreproduzizio lanaren arteko mugak ere. ESSko ekimenen helburu nagusia kideen behar materialak asetzeaz gain, adiskidetzea, gizarteratzea eta autonomia bezalako helburu ez-

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

monetarioak ere asetzen dituzte (Nyssens, 1996). Eta beraz, ezaugarri hauek guztiek ESSko ekimenak tokiko garapenerako eragile esanguratsu bat bezala ezartzen dituzte.

4.4.2.4 Burujabetzen ikuspegia:

Egitura kooperatibo-komunitarioak eraikitzean, lurralde burujabeak lortzeko bidean sakontzen da. Burujabetza, herri edo komunitate bakoitzak, bere gain eragina izango duten politiken inguruan erabakitzeke duen gaitasuna bezala ulertuta, eraldaketa helburu duen tokiko garapenerako eredu baten lanabesa izan daiteke. Horrenbestez, lurralde burujabeak, lurraldeen autogestiorako ahaldundutze kolektiboaren ondorioke lurraldeak dira. Izan ere, globalizazioak, zerbitzu publikoen pribatizazioak eta aurreko mendearen azken laurdenetik aurrera areagotu den merkatuen desarautzeak, bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren behar materialen inguruko kontrola lurraldeekin eta jendareekin loturarik ez duten enpresa kapitalisten esku geratzea eragin dute. Eta beraz, hauen logika bakarra etekinak maximizatzea denez, ondasun eta zerbitzu horien hornikuntza haien errentagarritasun ekonomikoaren menpe dago, eta ez sortzen duten onura sozialaren arabera. Modu honetan, behar hauek asetzea ahalbidetzen duten ezinbesteko ondasun eta zerbitzuen kontrola eta irisgarritasuna herritarrengandik urruntzen da (Arrillaga, 2021b).

Horregatik, lurralde burujabeak lortzeko bide horretan, burujabetza sektorialak berreskuratzea ezinbestekoa bihurtzen da. Elikadura, energia, finantza, etxebizitza, zaintza, teknologia etab. bezalako burujabetza sektorialak berreskuratzeari buruz ari garenean, jendarteek edo komunitateek sektore hauetara duten irismen unibertsala bermatzeko eta hauen gaineko kontrol demokratikoa eskuratzeko duten gaitasunaz ari gara. Hau da, pribatizatuak baina bizitzaren sostengurako ezinbestekoak diren sektoreen gaineko kontrol herritarra berreskuratzea helburu duten ekimenei buruz, alegia. Kontuan izanik, gainera, jendartearen eta ingurumenaren behar berriei erantzuteko gai izan beharko lukeela, adibidez, produktu ekologikoak eta energia garbiak ekoiztuz, finantziario etiko eta solidarioa aurrera eramanez edo teknologia libreak erabiltzen duten ekimenak izanik.

ESSa burujabetza sektorialak berreskuratzeke tresna bat izan daiteke, ekonomia kapitalistaren oinarriko printzipioak iraultzen dituelako eta antolakunde irekiak eta

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

demokratikoak biltzen dituelako (ICA, 1995⁹⁵; Monzón eta Chaves, 2012); eta beraz, herritarren antolaketa egiturak bezala agertu daitezke sektore hauetan eragiteko.

Hau da, agroekologia sustatzen duten ekimen kolektibo eta lokalak (kontsumo taldeak, kontsumitzaileen kooperatibak edo elkarteak etab.), energia berriztagarrien sorkuntzan diharduten kooperatibak, *co-housing* etxebizitza ereduak, teknologia askeak, finantza kooperatiboak (bai banku etikoak, jarduera para-bankarioa aurrera eramaten duten antolakundeak, edo mozkin asmorik gabeko aseguruak eta mutualitateak) etab. bezalako ekimenez, sektore hauen gaineko kontrol demokratikoa eta irisgarritasuna bermatzen dute herritarrei irekitako antolakundeak direlako. Eta beraz, lurraldeetan, elikadura, energia, etxebizitza, zaintza, teknologia, finantza etab. arloen inguruan erabakitzeke ahalmena berreskuratu dezakete. Horrela, pixkanaka, lurralde- eta herri-burujabetzak lortzeko (Arrillaga, 2021b).

Burujabetzen ikuspegiari beraz, dimentsio ezberdinak antzeman diezaiokegu. Alde batetik, lanaren burujabetza aurkitzen dugu. Lanaren burujabetza, dagoeneko azaldu dugun lana ulertzeko moduan oinarritzen da; ekintzailtza kooperatibokomunitarioaren bitartez aurrera eramaten dena. Ekimen horiek gainera, burujabetza sektorialak berreskuratzeko bideratu daitezke. Hots, burujabetzen ikuspegiaren bigarren dimentsioa, bizitzaren sostengurako ezinbestekoak diren sektore horien gaineko kontrola berreskuratzera bideratutakoa litzateke. Hirugarren dimentsioa lurralde burujabetzei dagokiona litzateke. Hemen, aurrekoez gain, burujabetza politikoa paper garrantzitsua hartzen du. Dena den, zaila izango da —ezinezkoa ez esatearren— burujabetza politikoa lortzea burujabetza ekonomikorik gabe. Burujabetza ekonomikoa, burujabetza sektorialak baino haratago doa, eta beraz, ESSa baino eragile gehiagoren — eta batez ere sektore publikoaren— elkarrekintza beharrezkoa izango da. Izan ere, honen barnean bidezko fiskalitatea, moneta-politika, lan-harremanak, oinarritzko (eta gehiegizko) errenta ezartzea, zaintza lanen demokratizazioa, sozializazioa eta aitortzea, enpresa publikoekiko aliantzak, sektore estrategikoen planifikazio demokratikoa,

⁹⁵ Lehenengo printzipioa: Bazkidego irekia eta borondatezkoa: “Kooperatibak borondatezko erakundeak dira, beren zerbitzuak erabil ditzaketen eta kidegoaren erantzukizunak onartzeko prest dauden pertsona guztiei irekiak, genero, gizarte, arraza, politika edo erlijio bereizkeriarik gabe.” Eta Bigarren printzipioa: Bazkideen kontrol demokratikoa: “Kooperatibak kideek kontrolatzen dituzten erakunde demokratikoak dira, beren politikak ezartzen eta erabakiak hartzen aktiboki parte hartzen dutenak. Hautetsien ordezkari diren gizon eta emakumeak dira erantzuleak kideen aurrean. Lehen mailako kooperatibetan, kideek boto eskubide berberak dituzte (kide bat, boto bat), eta beste maila batzuetako kooperatibak modu demokratikoan antolatuta daude.”

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

enpresa kapitalista handietako administrazio kontseiluetan langileen parte-hartzea, kontrola eta, finean, ko-kudeaketa ereduak barneratzea etab. barneratzen dira (García-Jané, 2018). Helburua bizitza burujabea, edo, dagoeneko izendatu dugun moduan, pertsona guztientzako bizitza bizigarriak lortzea izanik.

Hala ere, ESSak badu, gure ustez, ildo honetan birpentsatu beharreko alderdi garrantzitsu bat. Izan ere, heltzen al da ESSa —batez ere merkatura fokuratuta dagoena— komunitateen kide behartsuenetara? Edo beste modura, ESSa bustitzen duten inplikazio etiko eta politikoei sortu dezaketen ondasun eta zerbitzuen prezioen igoerek baimentzen al dute baliabide gutxien dituzten pertsonak hauetara heltzea? Adibide gisa, egun indarrean dagoen elikadura ereduari alternatibak ematen zaizkio ESStik. Hala nola, kooperatibismo modernoaren sorkuntzarekin sortutako kontsumo kooperatiben bitartez; edo, gaur egungo tokiko produktu ekologikoen kontsumo kooperatiba eta elkarrean bitartez; edo, zuzenean nekazariarekin harremanetan dauden kontsumo talde agroekologikoen bitartez. Alabaina, pertsona guztiek daukate produktu hauetara iristeko aukera prezioen aldetik? Edo ESSa soilik da irisgarria esparru konkretuetan?

Teoriari begira erantzun bat planteatu dezakegu: Enpresa kapitalisten metaketarako joerak, kapitalaren kontzentrazioa dakar. Hau, geroz eta handiagoa izango da eta esku gutxiagoetan egongo da. Kapitalaren kontzentrazioa, klase herrikoiei kontsumitzeko aukera gutxiago uzten die, aberastasuna esku gutxiagoetan dagoen heinean erosteko ahalmen gutxiago dutelako; eta beraz, eskaria murrizten da. Eskaria murrizten bada, langabezia handitzen da; eskaintzak ez dituelako ekoizpen baliabide guztiak erabiltzen eskaria estaltzeko. Ondorioz, geldialdi ekonomikoak sortzen dira, eta ondoren krisiak (Etxezarreta, 2015). Ziklo hau, estaturaz azpiko lurraldeetara aplikatu dezakegu ere. Beraz, planteatu genezake, ESSan oinarritutako ekonomia lokal batek, non kapitalaren metaketa ez den helburu nagusia, kapitalaren kontzentrazioa ekidin egingo lukeela aberastasunaren banaketa berdinzaleago baten alde. Eta beraz, kontsumitzaileek luketen kontsumorako boterea, ESSko antolakundeetatik sortuta eta ESSko antolakundeetan kontsumitzeko izango litzateke. Hots, komunitate baterako erantzun integral bat ildo honetan planteatu nahi bada, ziklo ekonomikoaren fase guztietan planteatu behar da, eta komunitate horren behar pribatu eta kolektiboak asetze aldera.

Ildo honetan, ekonomia sozial tradizionalak, aberastasuna sortu, eta horren banaketa eraginkorra ematea lortu du, kapitala eta lanaren arteko gatazkari erantzun bat

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

emanen. Ekoizpena eta lana eskualdean bertan sortu eta garatutako enpresetan aurrera eramaten da, biztanleriari kontsumorako botere ahalmen handia eskainiz. Modu honetan, aurretik aipatzen genuen erronkari erantzun bat emanen. Alabaina, modernitate industrialari erantzun hau ematea lortu duenean, Azkarraga eta Altunak (2012) dioten moduan, galdera aldatu diote. Hots, garai berrietan funtsezko gatazka hori zabaldu egin da; orain, gatazka kapitalaren eta bizitzaren artean ulertu behar dugu. Modu honetan, ikuspegi ekologista edo feminista batetik adibidez, ez luke hain eredu jasangarria osatuko. Batetik ez duelako zalantzan jartzen hazkunde mugagabea eta oso enpresa fosilistak biltzen dituelako; eta bestetik, ekonomia sozial tradizionalak jarduten duen sektore ekonomikoetako askok ez direlako bizitzaren sostengurako beharrezkoak eta horretarako beharrezkoak diren beste askok ez dira jorratzen. Gainera hauek ez diote zaintzaren krisiari erantzuten. Are gehiago, arreta hazkundera eta errentagarritasunean jarri izan da bestelako alor sozialak bigarren maila batean jarriz. Ildo honetan, Azkarraga eta Altunak (2012:36) dioten moduan “ekoizpen baliabideen sozializazioak, ez du nahitaez krisi sozio-ekologikoari aurre egiteko berme bat osatzen”.

Gaur egun beraz, tokiko garapenari ESStik erantzun bat ematea nahi bada, gaurkotasanak iradokitzen dituen errealitate ekonomiko eta gatazka sozio-ekologikoei egokitzen den eredu planteatu behar da. Gaurko beharrei erantzun integrala ematen diona, kapitala eta lanaren arteko gatazka gainditzeko duena beraz, eta kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka multidimentsionalari erantzuna ematen saiatzen duena; komunitateetako pertsona guztientzako irisgarria izango den eredu sortuz. Horretarako, hurrengo atalean aurkezten dugun lankidetzako publiko-kooperatibo-komunitarioa izan daitekeelarik jardura berritzaile eta auto-eratu hauei izaera unibertsala eransten lagunduko dion egituraketa.

4.4.3 Egituratzeko baldintzak: lankidetzako publiko-kooperatibo-komunitario baterantz.

Azaldutako egitura kooperatibo-komunitarioak lurraldeetan ezartzeko, beharrezkoa izango da, edo behintzat oso lagungarria izango dira esparru publikoarekiko ehundu daitezkeen aliantzak. Tesi honetan zehar, dagoeneko esan da administrazio publikoak paper proaktiboa jarraitu behar duela garapena laguntzeko. Hots, zerbitzu emaile hutsa baino, garapenaren eragile aktiboa izan behar duela tokiko beste eragile ezberdinekin batera. Hemen proposatzen ari garen tokiko garapen eredu

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

eraldatzaile baterako ere paper hori jokatu dezan eskatzen zaio, betiere ESSaren eta bere balioen sustapena lehentasun gisa jarritz.

Izan ere, administrazio publikoari eskatzen zaiona, bere paper birbanatzailea betetzeaz gain, ikuspegi aurre-distributiboa ere izatea da. Hau da, administrazio publikoak ESSaren logikan dauden ekimenak sustatzerakoan, sortutako aberastasunaren bidezko banaketa, justizia sozial eta ekologikoa, garapen kulturala, ahalduntze pertsonal eta komunitarioa etab. bezalako ezaugarriak betetzen dituen eredu ekonomiko bat sustatzen ari da. Hots, aberastasunaren alde aurretiko banaketa berdinzaleagoa burutzen duen eredu, hain zuzen ere.

Baina are gehiago, aurrekontu publikoen ikuspegi batetik ere eraginkorragoa izan daiteke ESSan oinarritutako garapen ereduak sustatzea, neurri aurre-distributibo horiek beti ez dutelako diruzko ekarpenik behar edo, kasu askotan, diru publikoz egindako ekarpena baino gehiago berreskuratzen delako. Adibidez, ESSak bai krisi garaietan lan-elkartuaren bitartez, eta baita ere ohiko lan merkatutik baztertuta dauden pertsonen artean enplegua sortzeko duen gaitasunari esker, prestazio publiko ezberdinak jasotzen duen jende kopurua murriztu dezake.

Dena den, honek ez du esan nahi administrazio publikoaren papera desagertu edo txikiagotu behar denik. Izan ere, ESSak, oinarrizko zerbitzuei begira, administrazio publikoa unibertsala, doakoa eta kalitatezkoa izan behar dela defendatzen du; eta beraz, hirugarren sektorea (oro har) ezin daitekela izan pribatizaziorako aitzakia (Díez, 2018). ESSak administrazio publikoarekin batera, politika eta zerbitzu publikoen eraikuntza edo kudeaketa komunitarioaren alde legoke, aurrekontu parte-hartzaileen bitartez, herri-mugimenduekin adostutako politika publikoen bitartez edo irabazirik asmorik gabeko antolakunde demokratiko eta ireki batek bideratutako zerbitzuen bitartez, adibidez. Eta beraz, proposatzen dugun eredu hau eman dadin esparru publikoaren zereginen berdefinizio bat ematea ezinbestekoa da.

Horrenbestez, tokiko garapen eraldatzaile baten markoan, lankidetzaren publiko-kooperatibo-komunitarioan oinarritutako tokiko erregulaziorako gobernantza sistema bat ehuntzea litzateke erronka. Hau da, esparru publikoak, ESSa eta komunitatea osatzen duten poloen arteko lankidetzaren eredu bat litzateke, herritarrei lurraldeetako estrategia sozioekonomikoen inguruan erabakitze ahalmena bermatuko duena. Izan ere, hiru polo hauen arteko elkarlanak, sinergia garrantzitsuak dakar bizitza bizigarriak lortzeko bide horretan. Esparru publikoak ekimenean unibertsaltasuna, eta beraz, pertsona

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

guztientzako irisgarria izango direla bermatzen duen bitartean, ESSak demokrazia ekonomikoa eta jokabide kooperatiboekin lotutako kudeaketa ereduak bermatzen du eta komunitateak garapen prozesuaren gaineko parte-hartzearen bitartez, bere etorkizuna erabakitzen du.

Hau da, Etxezarreta eta Morandeirak (2020) esaten duten moduan, bizitzak sostengatzeko beharrezkoak diren jarduera produktibo zein erreproduktiboak, tokian toki, modu autoeratu, kolektibo eta komunitarioan antolatu eta kudeatzea litzateke helburua; beharizan horiek asetze bidean herritarrak ahaldunduz eta ekimenen jabe eginez. Eta horretarako, izaera unibertsala (jabego publiko, komunitarioa edo mistoarekin), planifikazio komunitarioa eta kudeaketa kooperatiboa duten ekimenak aurrera eramanez.

Atal honetan, ESSan oinarritutako tokiko garapen eredu eraldatzaile bat egituratzeko baldintza horietan arreta jarriko dugu. Hala nola, gobernantza ereduak, politika publikoetan eta garapena laguntzeko sortu daitezkeen egitura ezberdinetan. Hala ere, atal honetan ez da gehiegi sakonduko, tesiaren helburu nagusia ESSaren balioetan oinarritutako tokiko garapenerako eredu bat planteatzea delako, eta ez hainbeste ESSa sustatzeko aurrera eramaten diren ekimen edo politika publiko konkretuak aztertzea. Besteak beste, hauetan sakontzeak beste tesi baterako emango zuelako eta luzeera kontuengatik tesi honen mugak aski gaintutako lituzkeelako.

4.4.3.1 Gobernantza sareak eta parte-hartzea:

Egungo errealitate sozioekonomikoari egokitutako garapenaren ikuspegi eraldatzailea eta honen mugak zehaztuta, horren kudeaketaren ezaugarri garrantzitsuenak zehaztu behar ditugu. Hau da, zer nahi dugun zehaztuta, nola egingo dugun zehaztu behar dugu, eta atal honetan, batez ere garapen ereduaren erregulazioari arreta jarriko diogu; hots, lurralde gobernantza sistemari.

Hemen bi kontu azpimarratu nahi genituzke proposamenekin hasi baino lehen: Batetik, lurralde gobernantza sistema, maila anitzeko gobernantza egitura handiago baten parte dela, eta eskala horiekiko harremanak garatzea eta koordinazioa aurrera eramatea beharrezkoa dela. Izan ere, ohikoa da, ildo honetan, estatuz azpiko gobernuek nazioartera jotzea, adibidez, europar erakundearen aukera berriak aprobetxatzeko, ikusgarritasuna lortzeko edo baliabideak eskuratzeko asmoarekin (Zurbano et. al., 2018). Bestetik, garai fordista-keynesiarrean esangura handia zuen gobernu hierarkiko

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

tradizionalaren eboluzioa merkatuan oinarritutako gobernantza eredu neoliberal baterantz izan dela, eta bestelako ekonomia batean oinarritu nahi duen gobernantza eredu demokratiko batek, azken honekiko ikuspegi kritikoa jorratu behar duela. Izan ere, gobernantza eredu berriek eragile ekonomiko kapitalistei lehentasuna eman diete komunitatetik abiatutako talde sozialen aurretik; modu honetan botere harremanak mantentzen direla bermatuz (Martínez et. al., 2019). Are gehiago, Subirats et. al.-ek (2009) esaten duten moduan, eragile kritikagoen partaidetza oztopatu edo ukatzen da eraginkortasun arrazoiak argudiatuta.

Estatuan oinarritutako gobernu eredu liberalek merkatuen autorregulaziorako kapitalaren ofentsiba ezberdinei aurre egitea baino, sarri, merkatuaren zabalkunderako ezinbesteko hanka izan dira. Komunitatea, ahaldunduta badago, izan daiteke bizitzaren esparru ezberdinen gaineko merkantilizazioari aurre egiten duena. Komunitatea ahalduntzeko, gobernantza eredu batek, aurrekoei lotutako bete beharko lukeen beste bi ezaugarri garrantzitsu agertzen zaizkigu: Batetik, subsidiarietate printzipioarekin betetzea eskatzen du. Hau da, maila altuagoko eskalek onartu behar dute lehentasuna eman behar ziola lurraldetik hurbilago dauden erregulazio eskalei; eta soilik beheko mailek gaitasuna ez dutenean, maila altuagoko gobernantza sistemek jardungo dute (Zurbano et. al., 2014a). Eta bestetik, lurralde mailan, tokiko eragile sozioekonomikoei eta komunitateari garapen egitasmoen jabe eta protagonista bihurtzea bilatzen duen kalitate demokratiko handia duten gobernantza eredu parte-hartzaileak aplikatzea eskatzen du (Etxezarreta eta Morandeira, 2020). Ildo honetan, Subirats, et. al.-ek (2009) gobernantza sareen kalitate demokratikoa aztertzeko hurrengo taula proposatzen dute:

**4.3. TAULA: Gobernantza sareen kalitate demokratikoa neurtzeko
aldagaien proposamena**

Gobernantza sareen kalitate demokratikoa				
Gobernantza sarea	Aldagaiak	Kalitate demokratiko urria	Kalitate demokratiko handia	Partaidetza errazten duten osaerak
Sareen oinarritzko osaketa	Eragile dentsitatea	Kopuru urria	Kopuru handia	Zenbat eta dentsitate eta konplexutasun handiagoa, orduan eta aukera gehiago dute herritarrek parte hartzeko
	Konplexutasuna	Homogeneoa	Heterogeneoa	
	Harremanen intentsitatea	Puntuala	Sistematikoa	
Barneko botere harremanak	Botere harremanak	Asimetrikoak	Simetrikoak	Arlo erlazionala eta berdintasuneko harremanak nagusitzen badira, aukera gehiago daude ohikoak ez diren eragileek parte hartzeko
	Baliabide nagusiak	Materialak	Erlazionalak	
Interesen eta joko-arauen banaketa	Hasierako posizioak	Akordioa	Gatazka	Elkarrizketako estrategiek parte-hartzea errazten dute
	Barneko estrategiak	Negoiazioa	Elkarrizketa	
Sarearen ingurunearekiko harremanak	Politiketan duen eragina	Txikia	Handia	Iragazkortasunak, eragina izateko gaitasunak eta komunikabideetako presentziak partaidetza eremua zabaltzen laguntzen dute
	Iragazkortasuna	Txikia	Handia	
	Komunikabideetan duen eragina	Txikia	Handia	

Iturria: Subirats et. al. (2009:376) Martínez et. al.-en (2019:14) bilduta.

Parte-hartzea eta askatasun politikoa, giza garapenaz aritu garenean azaldutako gaitasun indibidual eta kolektiboak garatzeko garrantzitsuak izateaz gain, garrantzi handia dute ere ekimen politikoak sortzeko eta gobernuen erantzukizunaren inguruko kontu-ematea bermatzeko. Baina, are gehiago, funtsezkoak dira komunitateen beharrak ezagutarazteko orduan. Gobernantza sistemek, kohesio sozial eza egoteak sorrarazten dituen desberdintasun politikoak kontuan izan behar dituzte. Izan ere, ohikoa da jendartearen talderik baztertuenen inplikazio politikoa urria izatea (Alberdi, 2014). Ondorioz, parte-hartze integralerako, beharrezkoa da ere gutxieneko kohesio soziala. Hots, demokrazia liberalen ikuspegi formalaren aurrean, aukera berdintasun erreala sustatu behar du gobernantza sistema eraldatzaile batek eta parte-hartzea maila guztietan bermatu.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Gobernantza sare zabal eta parte-hartzaileak, beharrezkoak dira komunitate baten etorkizuna modu kolektibo batean pentsatu ahal izateko. Eta esan dugunez, kalitate demokratiko handiko sareak sortzeko, lurraldean dauden eragile sozioekonomiko ezberdinak saretu eta lankidetzara publiko-kooperatibo-komunitarioaren logikan lanean jartzea bilatu beharko litzateke, tokiko garapenaren markoan abiatutako estrategiak hiru polo hauen arteko uztartze gradu eta egituraketa ezberdinen bitartez (Etxezarreta eta Morandeira, 2020). Hau da, lurralde gobernantza sistema parte-hartzaileak eraikitzean datza, onartutako politiken ekoizpen partekatuz gain edo kudeaketa demokratikoaz gain, politikak eta estrategiak diseinatzeko orduan ere eragile sozioekonomikoen eta komunitatearen paper aktiboa onartzen dutenak. Hots, ESSko antolakundearen oinarrian dagoen eredu parte-hartzailea lurraldeetara hedatu behar da. Adibide gisa, Silva-k (2010) azaltzen dituen ESSko enpresen parte-hartzearen iturriak, modu honetan lurraldeetara hedatuz:

4.4. TAULA: Parte-hartzea; antolakundeetatik lurraldeetara

	Parte-hartze kooperatiboa (Silva, 2010)	Gobernantza parte-hartzailea
Parte-hartze naturala	Bazkide bakoitzak antolakunde kooperatibo batera askatasunez eta borondatez atxikitzeko duen eskubideari dagokio, eta, ekarpen ekonomikoaren bidez, elkarkortasunak ematen dituen onura ezberdinak eskuratzeko eskubideari. Bazkide izatea erabiltzaile izatea baino askoz gehiago da.	Pertsona, talde eta eragile bakoitzak bere komunitatearen garapen prozesuarekin bat egiteko eta horren alde egiteko eskubidea dauka, hots, garapen prozesuaren subjektu aktiboa izateko eskubidea dauka; garapen prozesu horretatik lortzen diren onura ezberdinak eskuratzeko eskubidea duen moduan.
Erabilera parte-hartzea	Bazkideak, antolakundeak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuak arduraz, konpromisoz eta etengabe erabiltzeko duen eskubideagatik zehaztuta dago. Praktikan, eskaintako produktua edo zerbitzua bazkide guztiengana iristea; produktu horrek bazkideari bere bizikaltatea hobetzeko edo benetako beharrak asetzeko aukera ematea; etab.	Pertsona, talde eta eragile bakoitzak lurraldeak eskaintzen dituen baliabideak irisgarri izateko eskubidea dauka. Erabilera hau, arduraz, konpromisoz eta komunitatearen beste partaideekiko erantzukizun partekatuan emango da; ongizate indibidual eta kolektiboaren mesedetan.
Parte-hartzea antolaketa eta kudeaketan	Bazkideek euren antolakundearen zuzendaritzarekiko lotzeko duten aukera da. Aukera hori eskubide gisa ezarrita, elkartasunezko enpresa baten kudeaketari eta zuzendaritzari dagokienez bazkideek dituzten trebetasunak ulertu eta garatzeko aukera da.	Pertsona, talde eta eragile bakoitzak euren etorkizun kolektiboa markatuko duen garapen strategiaren diseinuan eta aplikazioan parte-hartzeko eskubidea dauka.

Iturria: Silva-tik (2010:84-85) abiatuta, egileak moldatuta.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Parte-hartze integralak dena den, baditu bere zailtasunak. Kasu honetan ere, ESSko enpresetan eman daitezkeen zailtasunak edo arazoak aplikatu ditzakegu tokiko garapenari. Chaves eta Sajardo-k (2004) biltzen duten moduan, ESSko antolakundeen berrikuntza, eraginkortasuna eta lehiakortasuna bermatzeko, ESSaren balioen kontra doazen neurriak aplikatu daitezke; antolakundeen identitatea aldatuz. Horrez gain, gobernu teknokratikoen ezarpenak barne demokraziaren ahultzea ekarri dezake. Gainera, antolakundeen tamaina handitzerakoan, antolaketa arrazoiengatik, zuzendaritza karguen protagonismoa handitu ohi da; bazkiderena txikituz. Modu honetan, bazkidea erabiltzaile bat baino gehiago denaren ideia desagertu daiteke. Lurralde gobernantza sistemetara aplikatuta, atzerriko inbertsio zuzenaren erakarriz tokiko ekonomiaren hazkundera epe laburrera lortu nahi duten ereduak, tokiko enpresen integrazioa merkatu globaletan bezalako helburuak lehenesten dituzten ereduak, edo, enpresetan bezala, erabakiak hartzeko orduan aditu teknokratikoen iritzia inposatzen duten ereduak komunitateari boterea kentzen diote bere paper aktiboa txikiagotuz, ez baitituzte benetako eredu parte-hartzaileak erreproduzitzen. Horrela, 4.3. taulan ikusi ditugun kalitate demokratiko urriko gobernantza sistemak garatzeko arriskua kudeatu beharko da, eta erabakitze prozesuak tokiko eragile sozioekonomikoei eta jendarte zibilari ez zabaltzeagatik sortu daitezken arazo hauek ekiditeko mekanismoak sortu.

Dena den, oraindik ere ESSaren eta (tokiko) gobernuen arteko lankidetzaren harremanak garatu behar dira kasu gehienetan. Eta nahiz eta politika publikoen inguruko ko-eraikuntza eta ko-ekoizpen hitzarmenak hedatzen joan diren, esan bezala, oraindik ildo honetako estrategia iraunkorrak gehiago garatu behar dira. Honen inguruan dagoeneko aritu garen arren, hurrengo atalean proposamen konkretuetan jarriko dugu arreta.

4.4.3.2 Tokiko politika publikoak ESSa sustatzeko:

Dagoeneko azaldu dugunez, ESSarekiko lankidetzaren harremanek politika publikoen demokratizazioari ekarpen handia egiten dio (Vaillancourt, 2009), eta gainera, simetria handiagoa sortzen du politika publikoen helburuen eta emaitzaren artean, hauek aurrera eramaten dituzten antolakundeen filosofia komunitatearen beharrak asetzeko den heinean (Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014).

Bestalde, argi geratu da lurraldeak pertsonen arteko eta beste eragileen arteko harremanak biltzen dituzten espazio konplexuak direla, eta beraz, konplexutasun hori

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

onartuko duten politika publikoak beharrezkoak dira. Ildo honetan, Vaillancourt-ek (2009) dionez, politika publikoen diseinu eta aplikaziorako estatua eta merkatua, edo estatua eta jendarte zibila soilik kontutan hartzen dituzten ikuspegi dikotomiko mugatuak baztertu behar dira, estatua, merkatua eta jendarte zibilaren eragile ezberdinak barneratzen dituztenen alde. Hauek, politika publikoen eragin eremuaren konplexutasunari hobeto egokituko baitira; bai arazoen analisisa egiterakoan eta baita ere, politika publikoak planifikatzerakoan⁹⁶.

Chaves-ek (2019), azkenengo urteetan ekonomia sozialaren aldeko diskurtsoa antzematen du Europar erakundeetan, non, bestek beste, Europako Kontseiluaren adierazpen ofiziala, 2015eko abenduaren 7koa azpimarratzen duen, zeinean ekonomia sozialaren sustapena, Europako garapen ekonomiko eta sozialaren funtsezko eragile gisa kontsideratzen den. Egoera berri honek, eskala anitzean, hainbat gobernuak, ekonomia soziala bultzatzeko politika berritzaileak zabaltzea eragin izan du; autoreak deritzon ekonomia sustatzeko “belaunaldi berriko” edo “bigarren belaunaldiko” politika publikoei bidea emanaz. Politika berri hauek, espainiar estatuan 2015eko ziklo politikoarekin eta 2008ko krisi osteko hazkunde ekonomikoaren hasierarekin ematen hasten direnak, lau ezaugarri nagusi partekatzen dituzte: i) ESSko eragile ezberdinekin ko-eraikitako politika publikoak dira. ii) ESSa sustatzeko tresna bakartuen ordeztu, ikuspegi holistikoa jorratzen dute non dimentsio anitzeko planak eta jarduera ildoen arteko interkonexioak dituzten estrategiak planteatzen diren. iii) Aurrekontuei baino, ekosistemak sortzeari lehentasuna ematen dioten politikak dira, non ESSaren inguruko eragileen (elkartek, unibertsitateak, administrazioak, finantza-erakundeak, etab.) arteko eta jendarte zibilarekin elkarrekintza sistemikorako baliabideak aktibatu nahi dituzten. iv) Autoreak *mainstreaming* gisa kontsideratzen dituen politikak dira, zeintzuk eskala ezberdinetako gobernuetako politika orokorrekiko zeharka lantzen direnak.

Politika publikoen izaera atzean utziz, eta hauen funtsean barneratuz, Chaves-ek (2010) ESSko antolakundeentzako ingurune egokia sortzeko politikak edo *soft* politikak eta antolakundeak sustatzeko politika ekonomikoak edo *hard* politikak bereizten ditu. Aldi berean, lehenengoan artean neurri instituzionalak eta kognitiboak antzematen ditu,

⁹⁶ Beharrezkoa da hemen zerbitzu eta politika publikoak bereiztea; nahiz eta bietan ko-eraikuntza eta ko-ekoizpena eman daitekeen. Zerbitzu publikoa, izenak dioten moduan zerbitzuari dagokio. Eta politika publikoak, ikuspegi normatiboa dauka; eta beraz, gobernantza sistemak demokratizatzeko ahalmen handiagoa izan dezake.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

eta bigarrenengo artean lehiakortasuna hobetzeko eskaintzan oinarritutako politikak eta jarduera ekonomikoa errazteko eskarian oinarritutakoak. Hurrengo taulan, hauen inguruko laburpen bat ikusi dezakegu:

4.5. TAULA: ESSa sustatzeko politika publikoen erreferentzia markoa

A) <i>Soft</i> politikak: Enpresen aldeko ingurune bat sortzera bideratutako politikak	
Neurri instituzionalak	<ul style="list-style-type: none"> - Eragile pribatu gisa onartzearen aldetik forma juridikora zuzendutako neurriak. - Ekonomia-jardueraren sektore guztietan duen ahalmen operatiboa onartzea eta oztopoak kentzea, halakorik badago. - Eragile politiko gisa onartzea, politika publikoak eraikuntza eta ekoizpenerako. - Sektorea sustatzeko erakunde publikoen sustapena.
Neurri kognitiboak	<ul style="list-style-type: none"> - Jendartean zabaltzeko eta ezagutaraztea - Formakuntza sustatzea. - Ikerketa sustatzea.
B) <i>Hard</i> politikak: Enpresak sustatzeko politika ekonomikoak.	
Lehiakortasuna hobetzeko eskaintzan oinarritutakoak.	<ul style="list-style-type: none"> - Aurrekontu-, zerga- eta finantza-laguntzako neurriak; laguntza teknikoko eta prestakuntzako neurriak, etab. Neurri hauek, enpresaren bizi-zikloaren arabera (enpresa sorkuntzaren edo garapenaren fasearen arabera) eta indartu beharreko funtzioaren arabera (finantziazioa, aholkularitza, prestakuntza, enplegua eta giza baliabideen kudeaketa, lankidetzeta eta sareak, I+G eta berrikuntza, kalitatea, IKTak, espazio fisikoa, etab.) bereizten dira.
Jarduera mailari zuzendutako eskarian oinarritutakoak.	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriko merkatuetarako eta merkatu publikoetarako sarbidea erraztea.

Iturria: Chaves (2010:573)

Politika publikoen erreferentzia markoa behin ikusita, administrazio publikoak lurraldeetan aplikatu ditzakeen politika konkretuak ikusiko ditugu. Horretarako, EAEn eragina duten ESSko bi sarek —REAS Euskadi eta Olatukoop— proposatutako neurriak aztertuko ditugu. Beraz, REAS Euskadik (2016) eta Olatukoop eta Kataluniako Xarxa d'Economia Solidària-k (Olatukoop eta XES, 2019) argitaratutako txosten eta dokumentuetan bildutakoa aztertuko dugu. Hurrengo taulan proposamen hauek guztiak laburbiltzen dira:

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

4.6. TAULA: Lurraldeetan eta udalerrietan ESSa sustatzeko proposamenak eta neurriak

REAS Euskadi (2016)		Olatukoop eta XES (2019)
Blokea	Proposamenak	15 neurri, udalerrietan ESEa sustatzeko
Guztion ongiaren zerbitzurako kudeaketa instituzionala Garapen alternatibo baterako ekonomia berri bat Bizitzaren iraunkortasuna sustatzeko estrategiak	<ul style="list-style-type: none"> - Erosketa publiko arduratsua - Parte hartuzko aurrekontu publikoak - Auditoretza Soziala - Lurraren kudeaketa iraunkorra eta ez-espekulatiboa - Gizartearen edo ingurumenaren mesederako jardueretarako pizgarriak - Jarduera sozialak eta komunitarioak egiteko guneak lagatzea - Erantzukizun publikoko zerbitzuak eredu berritzaileetatik kudeatzea - Administrazioen arteko elkarlaneko kontsumoa - Laneratze-enpresa bat eratzen parte hartzea - Ekonomia Sozial eta Solidarioa bultzatzeko plan estrategikoak - Udalaz gaindiko edo sektoreko sare eraldatzaileak - Finantzaketa etikoa eta alternatiboa duten zirkuituak - Desmonetizatutako ekonomia eta lankidetzako ekonomia - Merkatu soziala - Merkaturatze zirkuitu laburrak - Ekintzaitza Ekonomia Sozial eta Solidarioan - Toki-garapeneko planetan genero-ikuspegia sartzeko neurriak - Ekonomia sozial eta solidarioaren inguruan sentikortzeko kanpainak - Berdintasun-planetatik bizitzaren iraunkortasunerako planetara - Zaintzak, lurralde-garapeneko estrategiaren erdigunean - Hiri iraunkorrangoetarako trantsizioak - Denboraren erabilera berriak - Elikadura-burujabetza - Nekazaritzako elikagaien estrategiak iraunkortasun- eta justizia-irizpideetatik - Energiaren etika: energia-eredu berri baten alde 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ekonomiaren matrize berri bat bultzatzeak aldaketaren eragile sozioekonomiko guztien ekarpena behar du. 2. Tokiko eraldaketa sozioekonomikoa gauzatzeko, tresna egokiak behar dira. 3. Gertuko sustapen ekonomikorako espazioak 4. Ondare kolektiboaren kudeaketa kooperatiboa edota komunala 5. Aldaketa sozioekonomikoa bermatzeko, epe luzerako kultura- eta hezkuntza-aldaketa landu behar da. 6. Ekimen sozioekonomiko berriei aholkularitza, prestakuntza eta Akonpainamendua 7. Finantzazioa erraztea finantza etikoen sistema integral baten bidez, eta kredituaren birlokalizazioa sustatzea 8. Interkooperazioa, Tokiko Merkatu Soziala eta kontsumo arduratsua babestea 9. ESEk gizarte-behar guztiak hornitzeko aukera izan behar du, baita administrazio publikoenak ere 10. Enpresak berreskuratzea eta enpresa erreleboa 11. Zerbitzu publikoen udalekotzeak eta kooperatibizazioak 12. Burujabetzak: elikadura, energia, etxebizitza 13. Ezagutzaren gizartea demokratizatuzko, eremu publiko digitala kudeaketa komunitarioko gune gisa onartu behar da eta plataformako kooperatibismoa sustatu behar da 14. Udalerrien eraldaketa sozioekonomikoari buruzko kontakizuna sortu behar da. 15. Ekonomiaren eraldaketa feminista

Iturria: REAS (2016) eta Olatukoop eta XES (2019). Egileak moldatuta

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

Neurri hauen guztien analisisia erraztu eta laburbiltzeko, hurrengo 8 multzoetan sailkatu ditugu:

- Administrazioaren parte-hartzea eta erosketa publikoak: Multzo honetan erosketa publiko arduratsua, kontratu publikoetan klausula sozialak sustatzea, ESSak tokiko administrazioen hornikuntzak asetzeko neurriak (adibidez, arlo finantzarioan, finantza etikoen bitartez; arlo energetikoan, energia berriztagarrien kooperatiben bitartez; eskola publikoen eta udal jangeletan tokiko produktu ekologikoak eskainiz etab.) eta laneratze enpresentzako eta enplegu zentro berezientzako kontratu erreserbatuen eskaintza bezalako neurriak kokatuko lirateke. Gainera, ESSaren inguruko ekimenetan administrazioaren parte-hartzea sustatzen duten politikak barneratzen dira, adibidez ekimen kooperatiboetan, finantza zirkuitu alternatiboen eraikuntzan, laneratze enpresen eraketetan etab. Horrez gain, enpresa kapitalistak edozein arrazoiengatik berrabiarazi behar ezker, administrazio publikoaren parte-hartzea eta ekonomia sozialeko formak sustatzeko neurriak ere aurkituko genituzke hemen. Beraz, ildo honetako politikak aurrera eramanez ahal izateko, tokiko administrazioek berariazko funts ekarpenak egiteaz gain, bidelagun izan behar dira.
- Aholkularitza eta formakuntza zerbitzuak, pizgarriak eta bestelako laguntzak ESSko ekintzaileentzako sustatzeko: Kasu honetan, ESSko ekimenak garatzeko espazioen lagapena autogestioaren, ko-gestioaren edo partaidetzako logikarekin; ESSaren logikan lan egiten duten enpresen elkarlantegi edo *co-working* eremuak sortzea; bestelako ekipamendu publikoaren lagapena; ekintzaileentzako aholkularitza eta formakuntza zerbitzu publikoak eskaintzea; edo, erantzukizun soziala edo ingurumenaren inguruan duten enpresentzako pizgarriak ematea bezalako neurriak barneratuko lirateke. Zerbitzu hauek guztiak aurrera eramateko, garapen agentziek horretara bideratutako departamentuak sortu dezakete. Horrez gain, administrazioek ESSko antolakundeek kreditua lortzeko erraztasunerako bideak jorratu dezakete finantza etikoen zirkuitu integralen bitartez. Horretarako partekatutako berme finantzariorako funtsak sortuz, ESSko antolakundeen kapitalizazio programak sustatuz, eta, bere kasuan, zerga pizgarriak aplikatu mota horretako ekimenetan.
- Zerbitzu publikoen kudeaketa: Eskala edo/eta lurralde ezberdinen arteko administrazioen artean ondasun publikoen erabilera balioa jabegoaren gaintik

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

lehenestea eta elkarlanerako kontsumoa sustatu. Hots, azpiegitura eta ekipamendu publikoen jabegoari erreparatu ordez, hauek duten erabilera balioa lehenetsi, eta momentu bakoitzean horren behar handiagoa duen administrazioak erabili dezan; nolabaiteko elkarlanerako kontsumo publikoa sustatuz. Horrez gain, politika eta zerbitzu publikoen ikuskaritza sozialeko prozesuak aurrera eramatea, partaidetzako aurrekontuak sortu jendarte zibilarekin eta herri-mugimenduekin batera, zerbitzu publikoen municipalizazioa eta kooperatibizazioa, eta, oro har, politika eta zerbitzu publikoen kudeaketa sozialki berritzaileak diren ikuspegietatik egin. Horretarako ko-erakuntza eta ko-ekoizpena sustatu eta adimen kolektiboaren bidez programa publikoak, araudiak, erregulazioak eta legedia diseinatuz etab.

- Ondasun komunen kudeaketa: Ondasun komunen eta ondare kolektiboaren kudeaketa kooperatiboa eta komunitarioaren gisako proposamenak, lurraren eta beste espazio komunen kudeaketa iraunkorra eta ez-espekulatiboa aurrera eramatea eta modu honetan, hiri iraunkorretarako trantsizioak sustatu. Horrez gain, ondasun komun berriak, teknologia berrieekin lotura dutenak, ezagutzaren jendartea demokratizatzeko, eremu publiko digitala kudeaketa komunitarioko gune gisa onartu eta plataformako kooperatibismoa sustatu daitezke.
- Genero ikuspegia, zaintzak, denbora banaketak, erantzunkidetasuna eta gatazken kudeaketarako sistemak: Genero ikuspegia duten tokiko garapenerako estrategien eraikuntza eta zaintza lanak estrategia horien erdigunean jarri. Bestalde, denbora banaketa ekitatiboagoak eta erantzunkidetasuna sustatzea ahalbidetzen duten lan jardunaldi malguko politikak, bizitzaren iraunkortasunerako planak sortu, eta, oro har, ekonomiaren eraldaketa feminista sustatu.
- Burujabetzak berreskuratzeko neurriak: Burujabetza ezberdinak —energia, elikadura, etxebizitza, finantza, ekonomia etab.— berreskuratu. Horretarako zirkuitu ekonomiko laburrak sustatu, tokiko produktuen merkatuak promozionatu, merkatu tradizionalak berreskuratu, tokiko marka kolektiboak sortu, merkatu sozialak bultzatu, tokiko nekazaritza bultzatzeko planak garatu, iraunkortasunean eta justizian oinarritutako ekoizpen kate eraldatzaileak sortu eta sostengatu, energia berriztagarrien ekoizpen eta kontsumo publiko-kooperatibo-komunitarioa sustatu energetikoki iraunkorrak diren udalerriak lortzeko, finantza kooperatiboetan edo/eta etikoetan oinarritu etab.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

- Bestelako tokiko garapen ekonomiko baterako neurriak: Kasu honetan, lehendabizi, beharrezkoa da ESSan oinarritutako tokiko plan estrategikoak sortzea. Ondoren, tokiko egitura sozioekonomiko eraldatzaile eta iraunkorra emateko programak abiatu, maila ezberdinetako hezkuntza zentroen, enpresa munduan eta administrazio publikoaren kudeaketan balio kooperatibo eta demokratikoetan formakuntza eskaini daiteke. Horretarako, ESSa garapen agentzien eta udal politiken zeharkako lan ildo gisa jorratzea beharrezkoa da. Eta tokiko eragile herrikoien, ESS eta administrazioaren ordezkarien mahaiak sortu, ekonomiaren trantsizio demokratiko, ekologiko eta feministara bideratutako tokiko politika ekonomiko, sozial, ingurumenekoak eta kulturalak sustatzeko; betiere elkarlan publiko-kooperatibo-komunitarioaren paradigman oinarriturik. Horrez gain, tokiko testuinguru kultural, tradizional, instituzional eta, oro har, tokiko kapital soziala ESSaren balioekin indartu tokiko herri memoria kooperatiboa berreskuratuz. Eta azkenik, desmonetizatutako ekonomia eta lankidetzako ekonomian oinarritutako ekimenak bultzatzea, dirua erabiltzen ez duten antolakuntza sozioekonomikoko ereduak agerian jarriz, eta kontsumo kritikoa, kontzientea eta eraldatzailea bultzatuz. Horretarako, adibidez, moneta sozialak, denbora bankuak eta trukean oinarritutako ekimenak sustatu.
- Sentsibilizazioa, promozioa, formakuntza eta ESSaren zabalpena: ESSaren inguruko sentikortze kanpainak bultzatu lurralde berri bat eraikitzen parte hartzeko dauden modu anitzak agerian jartzeko; zabalpen teknika ezberdinak erabiliz ahalik eta pertsona gehienei ESSaren inguruko informazioa helarazteko. Gainera, ESSaren zabalkundeaz gain, merkatu soziala, kontsumo arduratsurako sareak etab. bezala, tokiko ekonomian eragin positiboa izan dezaketen ekimenak jendartera zabaltzeko ekimenak bultzatu. Tokiko komunikabide eta webguneetara ESSko ekimenei presentzia erraztuz eta ekimenak ikusaraziz mapaketa eta gidekin. Eta azkenik, udalez gaindiko sare eraldatzaileak sortuz; adibidez, ESSaren aldeko udalen sareak, bidezko merkataritzaren aldeko hirien sareak etab.

Neurri hauek guztiak dena den, lurralde bakoitzera egokitu behar diren adibide batzuk dira, lurralde bakoitzak bere bereizitasunak dituen heinean. Hau da, ez dira denak lurralde guztietan ezarri behar, baizik eta diagnostiko sakon baten ostean, lurraldearen beharretara hobeto egokitzen diren neurriak moldatu behar dira lurraldearen bereizitasun horietara egokitzeko. Eta aldi berean, plan estrategiko baten parte izan

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

behar dira; tokiko garapenerako estrategia zabalago baten parte, alegia. Izan ere, beste modu batean, politika kontraesankorrak aplika litezke; adibidez, tokiko merkataritza sustatzeko politikak sustatzen diren bitartean, merkataritza zentro handiak eraikiz. Epe luzeko ikuspegia ere beharko lukete, neurri hauek lurraldeetan behar bezala egokitzeko. Eta aldi berean, tokiko garapenerako plan estrategikoa artikulatu behar duten agentzien independentzia bermatu; aldaketa politikoek garapen strategiaren norabidean duten eragina murrizteko eta epe luzeko ikuspegi hori mantendu ahal izateko.

Horrenbestez, badira, aurreko politika hauen guztien aplikazioa egokia eta egonkorra izatea baldintzatzen duten faktore ezberdinak. Hau da, orain azalduko ditugun faktoreak kontuan izan behar dira, ESSan oinarritutako tokiko garapenerako estrategia bat bultzatu nahi bada. Ildo honetan, Via-k (2014:57-59) hurrengo zazpi baldintzak azpimarratzen ditu:

- Batak bestea ordezkatu nahi ez izatea: Tokiko herri erakundeek (udalek, garapen agentziek...) ezin dute uste izan garapen jasangarriaren giltza guztiak dituztela, eta tokiko itun handiak eginez hori lortuko dutenik. Eguneroko bizitza, mikroenpresariak, harreman pertsonalen kalitatea edo parte-hartzeko bideak ahazten dituzten bitartean. ESSak ere ezin du pentsatu bere buruaz nahikoa denik, hots, bizitza ekonomikoaren alderdi guztiak estaltzen dituenik; eta, ondorioz, ez duela lurraldea oinarri duen aliantzarik behar.
- ESSko antolakundeak espazio jakin batean lokalizatzegatik, ez da tokiko garapen endogenoaren baldintzak sortzea lortzen: Beharrezkoa da ildo honetan, organo demokratiko bat bultzatzea, bertako biztanleak horrekin identifikatzen direnak. Prozesu irekiak izan behar dira non interes anitzak dituzten aktoreak ados jartzen diren helburu komun bat lortzeko. Hori lortzen da, arau komun batzuk definitzen direnean, errealitatearen inguruko ikuspegi bateratua lortzen denean, eragileetako batek ere ez duenean hegemonikoa izan nahi, emaitza positiboak lortzen direnean eta hauek ekitatez banatzen direnean, garapen prozesua finantziario iturri bakar baten mende ez dagoenean, erabaki demokratikoak hartzeko antolaketa formak hartzen direnean, hartzen diren erabakiak legitimatuta daudenean eta erabakitze eta gauzatze mailak bereizten direnean.
- Estatuaren eta beste administrazio deszentralizatuen, jendarte zibilaren eta merkatuaren arteko lankidetzak ezinbesteko baldintza da tokiko garapenerako

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

edozein prozesutarako: Interes ezberdinak dituzten gatazkak onartu eta horiek kudeatzeko beharrezkoak diren mekanismoak sortzea beharrezkoa da. Ildo honetan, kontseiluak, batzordeak edo partzuergoak sortu ohi dira, non lurralde baten garapenean inplikaturako eragile guztiak dauden, eta erabaki estrategikoak modu paritarioan hartzen diren. Horrez gain, txandakako lehendakaritzek, aldez aurretik guztiek egindako eta guztiei bidalitako dokumentu eta eguneko aginduek, bertaratze-zerrendek eta abarrek parekotasun hori benetakoa izatea berma dezakete.

- Sortutako organo horrek errealitatearen diagnostiko partekatua eta negoziatua egiteko gai izan behar du, baita haren behar eta baliabideena ere: Dagoeneko ikusi dugunez ez dago ekonomia bakar bat; eta tokiko ekonomiaren egitura, hori osatzen duten guztien batura da. Tokiko garapen endogenoa ekonomia anitz horretan eta haren ahalmenetan oinarritu behar da.
- Denek ez dute dena egin behar, baina denek egin dezakete zerbait: Hau da, zeinek eta zer egingo duen eta zein baliabide erabiliko dituen erabakitzeko konpromisoa hartu behar da. Funtsezkoak dira, pertsonen ahalduntzean arreta berezia jartzea eta elkartegintzan oinarritutako prestakuntza; besteak beste, garapena sustatzen den bitartean sakontze demokratiko eman dadin. Parte-hartzeak biztanleen beharrak, eskaerak eta ibilbidea kontuan hartu behar ditu, haien ongizate materiala eta bizi-kalitatea hobetzeko. Talde interesatu guztiek garapenaren diseinu, programazio, jarraipen eta ebaluazioari buruzko informazioa izan eta erabaki hartze prozesuen parte izan behar dute.
- Tokiko garapenerako prozesu askok porrot egin dute, dimentsio bakar baten alde bakarrik egin dutelako: Alderdi ekonomikoa (finantzarioa, komertziala) edo lanpostuen sorrera soilik azpimarratzen badute, desberdintasunak handituko dituen hazkunde ekonomikoa sortzera eta aberatsenei eta boteretsuenei mesede egingo dien eta ingurumena suntsituko duen hazkunde ekonomikoa sortzera arriskatuko dira. Sustapen ekonomikoa ezinbesteko baldintza da, baina ez da nahikoa tokiko garapenerako. Aldi berean, ez du zentzu handirik soilik esparru sozialen garapen bat oinarri ekonomiko sendoetan oinarritzen ez bada.
- Eremu asistentzialistako eta zerbitzu sozialetako ekintzekin lotutako arriskuak gutxitu beharko lirateke: Pobreziaren eta bazterketaren aurka borrokatzeko era askotako estrategiak daude. Neurri asistentzialistek, diru-laguntzek edo zerbitzu sozialek pobrezia eta bazterkeria egoerak erreproduzitzen dituzte maiz, eta,

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

gehienez ere, arintzen dituzte. Oso gutxitan laguntzen dute egoera horiek eragindako pertsonen autonomia ematen. Askotan, ausaz eta paternalismoz ematen dira laguntzak, eta horrek jauntxokeria, ustelkeria eta dependentzia egoerak sortzen ditu. Aldiz, biztanleria guztiaren eskubide gisa bideratutako prestazio eta zerbitzuek jarduera kaltegarri horiek gainditzen laguntzen dute.

Horrez gain, ESSa sustatzea helburu duten politika publikoak ondo bideratzeko beharrezkoa egiten da lurraldean dauden eragileen inguruko azterketa edo mapeo sakonak aurrera eramatea. Hots, lurraldean ESSaren balioekin identifikatu daitezkeen esperientzia guztiak ondo ezagutzea. Izan ere, batetik, ekonomia merkatura mugatzen duen ikuspegi hori oso errotuta dago egin ohi diren analisietan. Eta beraz, azterketetatik kanpo gelditzeko arriskua daukate, nahiz eta herritarren arteko kooperazio eta elkartasun jokabideak zabaltzeko ezinbestekoak diren. Merkatutik kanpo ematen diren ekimen hauek, besteren artean, garrantzi handia izan baitezakete komunitate lokalak indartzeko orduan eta elkarrekotasunean oinarritutako garapen instituzionala laguntzeko. Eta bestetik, Laville-k (2016) ohartarazten duen moduan, ekonomia sozialaren alderik instituzionalizatuenak bere boterea erabili dezake politika publiko hauek bereganatzeko. Autoreak dionez, joera hau kaltegarria izan daiteke ESSarentzako eta, batez ere, honen inguruan mobilizatuta dauden ekimen eraldatzaileenentzako. Izan ere, azterketa egokia egiten ez bada, hauek oharkabean pasatu daitezke politika publikoak bideratzen dituzten agenteen aurrean. Nahiz eta ekimen hauek diren ingurumenarekiko defentsan, kultur aniztasunaren defentsan, desparekotasunen kontra etab. potentzial handiena dutenak. Eta beraz, ekimen hauek ez sustatzeak etorkizunerako kaltegarriak izan daitezkeen etsipenak erakarri ditzake.

Laburbilduz, politika publikoak bideratzerakoan, errentagarritasun ekonomikoa eta mozkinen maximizazioa soilik bilatzen dituzten ekimen kapitalistekiko konparaketa egiterakoan, eragin ekonomizista-utilitaristei begiratu ordez, ESSak eragiten dituen aparteko onura sozialak balorean jartzen dituzten programa publikoak behar dira. Eta beraz, ESSaren balioak partekatzen dituzten politika publikoak abian jarri. Hortaz, tokiko garapen eraldatzailearen markoan kokatzen diren politika publikoak garapenaren logika tradizionala gainditu behar dute, non helburua aldagai ekonomikoen hobekuntza den. Eta horren ordez, pertsonen egunerokotasunean eragiten duten esparru guztietan, ESSaren logika demokratiko eta soziala oinarri izanik, pertsonen bizitzak sostengatzeko beharrezkoak diren esparru guztietan kokatu behar dira. Horretarako, etxebizitzak

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

zaharberritzea, nekazaritza produktuen ekoizpen eta banaketa modu berriak, kontsumo dinamikak eta sareak, ondasun natural komunen zaintza eta ustiaketa, etengabeko hezkuntza, pertsona guztien autonomiari lotutako alderdiak, berrikuntza eta sare egituren zabalpena, ekoizpen alternatiboa, birziklatzea, osasun komunitarioa etab. bezalako alderdiak sustatu behar dira. Hots, helburua, bizitza bizigarriak eta ekoizpen dinamika erresilienteak, partekatuak eta solidarioak guztien artean eraikitzea ahalbidetzen duten tokiko garapenerako politiketarantz aurrera egitea da. Komunitatea eta konpromiso kolektiboa eraikitzen dituztenak (Subirats, 2014).

4.4.3.4 Gobernantza publiko-kooperatibo-komunitario baterako urratsak eta garapeneko eragileen papera:

Tokiko herri-erakundeen, ESSaren sektore zabalaren eta jendarte zibila zein beste eragile sozioekonomikoen arteko lankidetzaren bitartez garatu daitekeen lurralde gobernantza publiko-kooperatibo-komunitarioaren hasierako egituraketa, lurraldeetan dagoen alde aurretiko egoerak ezartzen dituen baldintzen arabera izango da. Hau da, lurralde guztiak ez daude momentu berean, eta beraz, aurrera eraman daitekeen esku-hartzea ezberdina izango da batetik bestera. Ildo honetan, Etxezarreta eta Morandeira-k (2020) ESSa sustatzeko politika publikoen inguruko hainbat ekarpenen berrikuspen bat burutu eta prozesu izaera duen esku-hartze mailakatu bat proposatzen dute. Horrela, autoreek, politika publikoen izaerari begira (*soft* edo *hard*) eta politika horiek eraikitze aurrera eraman den gobernantza ereduaren arabera (herri-erakundearen lidergoa edo lankidetzaren publiko-kooperatibo-komunitarioa) hiru esku-hartze eredu edo estrategia proposatzen dituzte: Ongarritu, erabili eta eraldatu bezala kategorizatzen dituztenak.

Hauetako hiru agertokietako bakoitzean politika ezberdinak aplikatu daitezke eta eragileen inplikazio maila ezberdinak egon daitezke, baina orokorrean, jarraian laburtu ditugun ezaugarriak dituzte (Etxezarreta eta Morandeira, 2020:51-58):

- Ongarritzea bilatzen duen esku-hartze eredu, lurraldean ESSa hedatzeko baldintzak erraztera bideratutako politika publikoek osatuko lukete. Hauek, politika publiko leunak edo *soft* politikak izango lirateke (instituzionalak zein kognitiboak) eta gobernantza eredu sinple baten bitartez aplikatuko lirateke, non udalak edo garapen agentziak lidergoa erakusten duen. Esku-hartze eredu honen

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

helburu nagusia, bere izenak dioen moduan, lurraldean ESSko egitasmo berriak sor daitezten aldeko baldintzak sortzea litzateke.

- Erabiltzea bilatzen duen eredu, administrazio publikoak lurraldean dagoen ESSaren sektorea zerbitzu ezberdinak eskaintzeko erabiltzen duenean emango litzateke. Kasu honetan politika publiko sendoak edo *hard* politikak izango lirateke eta, aurrekoan bezala, gobernantza eredu sinple baten bitartez aplikatuko lirateke. Eredu honen helburu nagusia, lurralde bakoitzean dauden ESSko esperientziak erabiliz, sektorea indartzea litzateke.
- Eraldatzea bilatzen duen esku-hartze eredu, ESSak lurraldean duen paperaren eta politika publikoen bestelako ulertzea dakar. Kasu honetan, politika publiko sendoak aplikatuko lirateke gobernantza eredu konplexu baten bitartez, non herri-erakundeek, ESSaren sektorea eta komunitateak parte-hartzen duten. Horrela, esku-hartze eredu honen helburua, lurraldean egon daitezkeen beharrei erantzuteko, hiru poloen arteko elkarrekintza aktibatzea litzateke.

Tokiko garapen eredu eraldatzaile baten markoan aurrera eramaten diren politika publikoak beraz, hirugarren maila honetara hurbiltzen joatea litzateke erronka nagusia. Hala ere, hirugarren urrats honetara heltzeko, lurralde bakoitzaren eta sektore ekonomiko bakoitzaren errealitatearen arabera izango da. Hau da, esan bezala, lurralde edo sektore bakoitzaren hasierako egoera ez da berdina izango, eta beraz, hauetako bakoitzera egokitutako esku-hartze eredu bat zehaztu beharko da. Adibidez, zerbitzu sozialen kasuan, non ESSa presentzia handia izan ohi duen, hirugarren maila honetako politika publikoak aplikatu daitezke. Aldiz, ESSa presente ez dagoen sektore bati begira, lehenengo mailako ongarrantze politikak aplikatu beharko dira.

Ildo honetan ere, García-Jané-k (2014:112-115) garapenaz arduratzen diren herri-erakundeek ESSarekiko izan behar dituzten hurrengo jokabideak azpimarratzen ditu:

- Lurraldean baldintza egokiak sortu. Izan ere, tokiko garapenerako estrategia guztiak ez dute ESSa sustatzeko balio. Beraz, ekonomia auto-oreatuak sustatzea beharrezkoa da finantzaketa iturri propioak dituztenak. Gainera, zaintza lanen garrantzia aitortzen duten ereduak izan behar dira eta elkarrekikotasunean eta elkarren arteko laguntzan oinarritutako herritarren arteko konfiantza sareak egituratzen lagunduko dituzten politikak abian jartzen dituztenak. Eta horrez gain, kooperazioa azalarazten duten espazioak sustatu behar dira. Autoreak

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

zentzu honetan, honakoak aipatzen ditu: kooperaziorako haur eta gazteentzako jarduera eta espazioak, hala nola aisialdi zentroak, eskultismoa, komunitateari zerbitzuak eskainiz ikasi ahal izateko ekimenak etab. Jarduera hauekin, etorkizuneko lankidetzeta eta ekintzaitzeta sustatzen baita. Azkenik, kohesioan, elkartasunean eta parte-hartze demokratikoan oinarritutako kapital soziala garatzea beharrezkoa da ESS proiektuak hazteko.

- ESSaren zabalpena erraztu behar da. Horretarako, ekimen bat egonkortzea ahalbidetzen duten baliabide ez-monetarioak ere garrantzitsuak dira. Herri-erakundeek prestakuntza, informazioa, aholkularitza, merkatu-hobiak aurkitzeko lanabesak, tramite burokratikoak errazteko laguntza, lurra eta lokalen lagapena, laguntza teknikoa, beste eragile eta enpresekiko harremana etab. eskaini dezakete zentzu honetan. Baliabide hauek guztiak lehendik eraturik dauden ESS enpresak eta antolakundeak sendotzeko, krisian dauden negozio kapitalistaak ESS enpresetara bihurtzeko eta ESSko jarduera berriak abian jartzeko eskuragarri jarri behar dituzte.
- Sentsibilizazioa ezinbestekoa da, ESSa jendartean zabaltzeko. Herri-erakundeek langabetuen artean, lurraldean dauden bestelako entitateen bazkideen artean, preskriptoreen artean (gestoriak, komunikabideak) etab. ESSa zabaltzeko. Hala ere, berebiziko garrantzia dauka hezkuntza esparruan zabaltzea; hala nola eskolen, institutuen, lanbide heziketarako zentroetan, fakultateen, helduen eskolen artean etab. Hezkuntzaren esparruan, garapen agentziek harreman sendoak garatu ohi dituzte, eta beraz, jarduera eta unitate didaktikoak bultzatu dezakete kontsumo arduratsurako hezkuntzari, finantza etikoei, bidezko merkataritzari, kooperatibako gizarte-ekintzaile izateari eta abarri buruz.
- Tokiko garapen agentzien edo udalen erosketak ESSaren bitartez hornitzea. Izan ere, ESSa garatzeko, oso garrantzitsua da tokiko administrazioek ESSari merkatu-aukerak handitzea, erosketara publiko arduratsua sistematikoki eginez. Garapen agentziek bitartekotza lana egiten badute, erosketara publiko arduratsua, garapen agentziekin harreman handia duten hezkuntza zentroetara heldu daiteke adibidez. Modu honetan, ikastetxe publikoek edo ikastolek euren ikasleentzako, jangeletan, bertoko produktu ekologikoak eskaintzea ahalbidetzen du.
- Garapen agentzien parte-hartzea ESSko ekimenetan laguntza oso garrantzitsua izan daiteke, batez ere hasiera batean, ekimena definitzen denean, sorkuntza fasean eta finantzaketa fasean.

4. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ARTEKO MARKO TEORIKOAREN ERAIKUNTZA

- ESSko ekimen batzuk finantzaketa publikoa behar izatekotan, %50-%50 formulak erabili daitezke. Modu honetan, finantzaketaren erdia publikoa litzateke eta beste erdia finantza etiko edo kooperatiboek aurrera eraman dezakete. Horrela, tokiko ekintzailatza soziala finantzatzeko funtsa mistoak sortu daitezke, non arriskua elkarbanatzen den, eta onurak komunitate osorako diren.

Honekin guztiarekin ikusi dezakegunez, bestelako ekonomia batean oinarritutako garapen eredu bat abian jartzeko tokiko herri-erakundeen laguntza garrantzitsua izan daitekeela. Izan ere, dagoeneko komunitateek ez dute birbanaketa hutsean oinarritutako erantzunik bilatzen, lurraldeen berezko problematika anitzei erantzuten dieten neurri integralak bilatzen dituzte, modu proaktiboan aurrera eramaten direnak eta arazoan erroetara joaten direnak (Favreau, 1997). Eta ildo honetan, garapenaren ikuspegi publiko-kooperatibo-komunitario baten alde egiten duten udalek edo garapen agentziek komunitateak ahaldunduz, komunitateei benetan arduratzen zaien esparruen gainean eragiteko gaitasun handiago erakusten dute.

BIGARREN ZATIA:

LANDA LANA

**5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA
SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOAN:**

Tokiko garapenaren eta ESSaren arteko harreman teorikoak behin azalduta, kontraste enpirikoari ekingo diogu tesiaren bigarren zati honetan. Horretarako beharrezkoa egiten zaigu, lehenengo, 5. kapitulu labur hau egitea, non EAEko tokiko garapenaren zein ESSaren testuinguruari hurbilketa bat egingo zaion. Hau da, kapitulu honetan, 6. kapitulu burutuko den ikerketa enpirikoa kokatzeko asmoz, EAEko egoera orokorrari begiratuko diogu. Beraz, bertan eragiten duten tokiko garapenerako eta ESSko agente edo eragile ezberdinak identifikatu eta elkarren artean aurrera eramandako proiektu eta esperientzia ezberdinen gainbegiratu burutuko da.

EAEko tokiko garapenaren eta ESSaren testuinguruari hurbilketa hau egiteko, marko teorikoan jarraitu dugun eskema berdina jarraituko dugu. Hots, lehenengo EAE egitura eskalar berriaren markoan kokatuko dugu; ondoren, EAEko tokiko garapenaren eragileen mapeoa burutuko da; horren ostean, ESSaren inguruko eragileena; eta, azkenik, tokiko garapen agentzietatik eta ESSko sare ezberdinetatik orain arte elkarren artean aurrera eramandako proiektu eta esperientzia ezberdinak ikusiko ditugu.

Hurbilketa honetarako erabilitako iturriei dagokionez, gaira dagoeneko hurbildu diren autoreen lan ezberdinak berrikusi dira oinarri moduan. Bestek beste, Zurbano

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

(2005) EAE egitura eskalar berriaren markoan kokatzeko; Larrea (2003), Gainza (2008), Gainza eta Unceta (2011) eta Garapen-etik publikatutako datuak eta informazioa EAEko tokiko garapenaren eragileen azterketa burutzeko; OVES/GEEB (2020) eta EGES (2018) EAEko ESSaren inguruko azterketa egiteko; eta azkenik, tokiko garapen agentzietatik eta ESSko sare ezberdinetatik orain arte elkarren artean aurrera eramandako proiektu eta esperientzia ezberdinen azterketa egiteko, garrantzitsua da esatea GEZKI ikertegiak burututako ikerketa lan batean⁹⁷ oinarrituko garela, non ikertzaile honek ere parte hartu duen. Zehazki, lana, ESSa sustatzeko asmoz, EAEko eskualde ezberdinetako tokiko garapen agentzia (eta udalak bezalako tokiko eragile) ezberdinek burututako praktika onak antzemandean, dokumentazioan eta alderatzean oinarritu da; antzemandako esperientzia bakoitza beste eskualde batean erreplikatzeko beharrezkoak izango liratekeen elementuak antzemandeko helburuarekin.

Zehazki, tokiko garapena eta ESSa aurrera eramandako elkarlanari hurbiltzeko, azaldutako ikerketa lan horretarako egindako mapeoaz baliatuko gara. Hau da, esperientzia konkretuetan sakontzea baino (lan hori eginda baitago GEZKI ikertegiak burututako txostenean), identifikatutako esperientzien azalpen eta kokapenari ekingo zaio, esan bezala, EAEko egoera orokorraren argazki bat izateko. Informe honetan jasotako esperientziak antzemandeko⁹⁸, prozesu parte-hartzailea burutu zen Garapen (EAEko garapen agentzien elkarte; www.garapen.net), EGES (Euskal Gizarte Ekonomiaren Sarea; www.eges.eus) eta ikerketa burutu zuten ikertzaileen artean. Esan bezala, informean jaso behar ziren esperientziak, ESSa sustatzeko asmoz tokiko garapen agentzietatik (eta bere kasuan udaletatik) aurrera eramandako praktika onak izan behar ziren. Ondoren, esperientziak dokumentatu ziren esperientzia bakoitzeko

⁹⁷ Txostena hemen eskuragarri: www.gezki.eus/pdfs/21799f65d8.pdf . Era berean, ikerketaren emaitza nagusienak Arrillaga et. al. (2021) artikuluan aurkitu daitezke.

⁹⁸ Antzemandako esperientziak: Lanzituz (zabalpen eta formakuntza programa), Koopfabrika (zabalpen eta formakuntza programa), Getxo (ESSaren eta administrazio publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmenak), zaugarritasun egoeran dauden pertsonentzako mikrokredituak (ESSaren eta administrazio publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmenak), Oñatiko Ur Jauziak (Enpresa publikoa kooperatiba baten parte-hartzearekin), San Marcos-eko mankomunitatea (erosketa publiko arduratsua), klausula sozialen aplikazioa Gasteizko Udalean (erosketa publiko arduratsua), Kimu Bat S.L.L (orientazio zerbitzuak eta enpresa-birmoldaketa), Goiener S.Coop (ESSko enpresak sortzeko dinamizazioa eta erraztea), Lanerain (ESSko enpresak sortzeko dinamizazioa eta erraztea), Oarsotek-Badiaberri (ESSko enpresa publikoa), USOA (ESSko enpresa publikoa), Iturola Elkarlan Sorgunea (Kudeaketa komunitarioko ekipamendu publikoa), Ekonopolo (Kudeaketa komunitarioko ekipamendu publikoa), Work-Lan (Lanbide heziketako zentroi lotutako ekintzailtza), Azaro Fundazioa-Kooperatiben mahaia (Lanbide heziketako zentroi lotutako ekintzailtza).

erreferentziazko pertsonen egindako elkarrizketa pertsonalen bitartez. Dokumentazioari dagokionez, esperientzia bakoitzaren ezaugarri nagusienak, esperientzia aurrera eramateko faktore laguntzaileak eta zailtasunak jasotzen zituen fitxa bana burutu zen. ESSa bultzatzeko praktika onen izaera ezberdinengatik, esperientziak sailkatu ziren Chaves-en (2009; 2010; 2012 eta 2019) ESSa bultzatzeko politika publikoen erreferentzia markoan oinarrituta. Hau da, oro har, 4. kapituluan jaso dugun 4.5. taulan azaldutako ESSa sustatzeko politika publikoen erreferentzia markoa oinarri izanik, ikerketara eta testuingurura egokitutako sailkapena burutu zen. Behin esperientziak dokumentatuta, kontraste fasea burutu zen eztabaida talde baten bitartez. Eztabaida taldearen bitartez, besteren artean, garapen agentzien ordezkariak ESSa bultzatzeko dituzten behar espezifiko eta komunak ezagutu eta esperientzia bakoitzaren arrakasta baldintzatzen zuten elementu laguntzaile nagusiak eta zailtasunak antzeman nahi izan ziren (Arrillaga et. al., 2021).

5.1 EAE eskala anitzeko gobernantzan:

Globalizazioarekin, ekonomia globalaren parte diren agenteak estatuetik autonomia handiagoa erakusten dutela, eta aldi berean, eskualdeak, hiri-eskualdeak edo hiri globalak bezalako eremuak, kapitalaren erreproduktzio eta metaketarako lehentasunezko antolaketa eredu berriak bezala agertu direla ikusi dugu tesian zehar. Izan ere, estatuaren lurraldetasuna bir-eskalatu egin da, eta estatus azpiko eremu hauek erregulazio ekonomikorako eragile aktiboak bezala azaleratu dira antolaketa espazial berrian. Eta horien artean, argi dago, EAE ere eskala anitzeko marko erregulatorio berri horretan kokatu behar dugu.

EAEk ekonomia globalean subjektu aktibo izan nahi du. Horretarako, Zurbanok (2005) dionez, mendebaldeko beste herrialdeetan gertatzen den bezala, garai fordista-keynesiarretik eratorritako konfigurazio eskalarra birformulatzeko prozesu batean dago barneratuta. Hots, EAEn eskala anitzeko birformulatzeko prozesu bat hasi da bere lurralde konfigurazioan. Fordismoaren garaiko lurralde estrategia hierarkikoan, non euskal eremu sozioekonomikoa, kanpora, Estatuaren lurraldetasunaren menpekoa zen, eta barnera, harreman mailakatuak ematen ziren EAEko gobernutik, lurralde historikoen gobernuetara, eta azkenik, gobernu lokaletara, eskala anitzeko konfigurazio berri batera eman dio bide.

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

Konfigurazio berrirako eraldaketa prozesu hau Estatuko beste lurraldeetan baino goiztiarragoa izan da EAE eta Katalunia bezalako estaturik gabeko nazioetan bereziki. Izan ere, nazioartean ematen ari zen eraldaketetatik eratortzen diren faktore globalez gain, nortasun propioari loturiko elementuek bultzada erabakigarria izan zuten eredu zaharrarekiko haustura eman zedin. Hau da, fordismo-keynesiarraren krisiak eta globalizazioak eragindako goitik beherako eraldaketa erregulatorio eta eskalarra baino lehenago, lurralde hauetan, garai fordistan adierazgarria zen Estatuko eredu hierarkikoa zalantzan jartzen zuten eta deszentralizazioaren norabidea hartu zuten behetik gorako prozesuak hasiak ziren. Hala, Espainiar estatuaren eredu espazial hierarkikoaren krisia baino lehen, izaera deszentralizatzailea zuen joera eman zen (Zurbano, 2005).

Trantsizio politikoaren garaiko tentsio espazial hauek, zaharkituko proiektu baten aurrean, sortzen ari zen lurraldeen errealitate berriarekiko hurbilago zegoen proiektu berri bat ekarri zuen. Euskal autogobernuaren emandako kudeaketa eskumenak argiago azaldu baitzuen EAEn izandako garapen ibilbidea. Espainiar estatuan, egoera berriaren eta Estatuaren proiektuaren artean sortutako tentsio soziopolitikoak, autonomien estatua deritzon erantzun partziala eragin zuen. EAE, beraz, lurralde harremanei dagokionez, Estatuaren proiektuaren eredu hierarkikoaren eta erregionalismo berriari lotutako integrazio kontinentaleko paradigma berriaren artean kokatu zen. Horrenbestez, Euskal autogobernuak garapenerako egitasmo propioa aurrera eramateko orduan, erregulazio fordistaren bertikaltasuna baino aukera handiagoa ematen badu ere —besteren artean eraikuntza sozial eta instituzional dinamikoagoaren gain, berezko harreman sozialen ereduaren gain eta baliabide ekonomiko eta kapital sozial espezifikoaren garapenaren gainean eraikita dagoelako—, oraindik ere, EAE trantsizio prozesu batean kokatzen da aipatutako Estatuaren eredu hierarkikoaren eta integrazio kontinentalaren artean (Zurbano, 2005).

Horregatik, Zurbano (2005), Estatuak proposamen instituzional berrien beharra onartu behar duela dio, Europako gobernantza multidimentsionalean sortzen ari den errealitate berriari irtenbidea emateko; eta hau subsidiarioritasun printzipioaren arabera izan behar da. Hots, gertuen dagoen agintaritzak ebatzi behar dituela sortzen diren arazoak. Eta beraz, promozio ekonomikoarekin lotutako estrategien diseinua, hauek eragingo duten jendartetik hurbil egon behar dira ahal den heinean. Marko honetan, estatuak bere eginkizunen birmoldaketarako borondatea erakusten dute, eta EAE bezalako lurraldeek ekonomia globalaren subjektu aktiboa bezala egituratu eta beste

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

eragile globalekin harremanak garatzen dituzte. Zentzu honetan, EAeko osagai globala gero eta handiagoa dela argi dago; hala, EAek ekonomia globalarekin dituen harreman ekonomikoak sendotuz eta handituz doaz, Espainiar estatuarekiko loturen kaltetan.

Globalizazioak eragindako eskala anitzeko marko berri honetan dena den, lurralde lehiakortasunean baino, pertsona guztientzako bizitza bizigarriak helburu duten tokiko garapenerako ereduentzako lekua dagoela defendatu daiteke ere. Zurbano et. al.-ek (2014b) dioten moduan, horrelako erduek lurraldeen ahalduntzea ahalbidetzen dute, eta, hortik aurrera, behetik gorako globalizazio ezberdina eraiki daitekeela argudiatzen dute. Izan ere, garapenaren planteamendu alternatiboek ez dute ekoizpen-kate globaletan eta lanaren nazioarteko banaketan txertatzeko ekoizpen-espezializazioa bilatzen, baizik eta kohesio- eta interes-soziala bilatuko dituen garapen proiektu komunitarioa sortzea. Eta proiektu horiek abiapuntu izanik tokiko baliabideak eta indarrak sustatuz eta aktibatuz tokiko jendartearen beharrei lehentasuna emateko eta horiek asetzeko.

Barnera begira, 80ko hamarkadatik, lurralde estrategia berriak eraikitzen dira mendebaldeko herrialdeetan. Eta gailendu den eredu, hazkunde ekonomikoaren eta lurraldeen arteko lehiakortasunaren irizpide adierazgarriak dituen *workfare*-an oinarritutako estatu Schumpeterianoa izan da. Testuinguru honetan dena den, tokiko garapenaren inguruan eraikitzen diren lurralde estrategia berriak, izaera sozialagoa eta kooperatiboagoa duen eredu baten gainean eraikita daude oro har (Zurbano, 2005). Korrante instituzionalistarantz emandako biraketatik abiatuta, lurraldea, baliabide espezializatuak, berezko elementu ukiezinak eta kooperazio osagai handia duten abantaila ekonomikoak lortzeko eremua bezala ulertzen baita (Vázquez-Barquero, 1999). Izan ere, bertan, enpresen arteko lehia eta kooperazioa ematen da aldi berean; adibidez, enpresen sareen bitartez, zeintzuk lehiakortasuna handitzeko, lurraldeko instituzioez baliatzen dira konfiantza- eta lankidetzaharreman sendoak garatzeko (Zurbano, 2005). Ildo honetan, geografia ekonomiko berriak egindako ekarpenak aintzat hartzea ezinbestekoa da, lurraldeen garapenerako beharrezkoa den kohesio sozialari edo kulturari dagokionez (Benko eta Lipietz, 2000). Izan ere, korrante liberalentzako garapenaren elementu adierazgarriak ez diren kohesio soziala, tokiko kultura, ingurune naturala etab. garrantzi handia hartu dezakete garapen parte-hartzaileago bat emateko, pertsona guztien gizarteratzea bermatzeko, tokiko ondasun publiko eta komunen defentsarako, tokiko egitura produktiboa antolatzeke etab.

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

Dena den, orokorrean, lehiakortasunean oinarritutako estatu Schumpeterianoa hiru zutabeen gainean eraikitzen da: Industriaren antolaketa berria, garapena sustatuko duen, eta beraz, arriskuak hartzeko prest dagoen tokiko finantza sistema eta paper proaktiboa duen administrazio publikoa. Hala ere, Bakaikoa, Agirre, Errasti eta Martín-Cobos-ek (2008) esaten dutenez, EAeko kasuan hiru zutabe hauei, gutxienez beste bi gehitu behar zaizkio: Unibertsitatearekin lotura estua duen zentro teknologikoen sarea batetik, eta langileen parte-hartzean oinarritutako enpresa kudeaketa eredua bestetik. Azkenengo honek erreferentzia argia egiten dio aurrerago aztertuko dugun, eta EAEn hain errotuta dagoen ekonomia sozialeko ehunari.

Gaur egungo lurralde-politiken helburu bereizgarria beraz, ingurune lehiakorra sortzea da, tokiko abantailak indartuz. Horrek eskualde eta hirietan politika berri bat sortzen duelarik. Izan ere, azken urteetan, eskualdeak, hiriak edo hiri-eskualdeak bezalako eremuak abantaila lehiakorrak sortzeko gune estrategikotzat hartu izan dira (Brenner, 2004b). Eta diskurtso hori hainbat gobernuren agendetan sartu da; non EAE ez den salbuespena. Eremu hauen lehiakortasunari buruzko ikuspegi horrek esku-hartzeko tresna berriak ekarri ditu, berrikuntzan oinarritutako politika industrialaren bitartez edo hiri-politika berria (Cox, 1993) deitu izan den horren bitartez esaterako.

Berrikuntza sustatzeko helburuarekin, faktore instituzionalen indartzean oinarritutako politika industrialak nagusitu da, non tokiko gobernuek, enpresen eta eragile teknologikoen gaitasunak hobetuko dituzten ingurune berritzaileak garatzen saiatu diren, azpiegiturak sortuz, zientzia- eta teknologia-sistemaren gaitasunak hobetuz edo berrikuntza sustatuko duten baldintza sozio-instituzionalak ezarriz.

Aldi berean, hiri-politika berriak gutxienez hiru ezaugarri nagusi erakusten ditu: Batetik, hiria —eta eskualde urbanoa edo hiri-eskualdea— lehiakorra izan behar duen eremua bezala ulertzea, eta beraz, esku-hartze publikoa horretara bideratzen da eta ez hainbeste biztanleriaren beharrak asetzera. Bigarrenik, inbertsioak, jarduera berriak eta talentua erakartzeko lurraldeen arteko lehia ematen da, eta beraz, helburua pertsona-fluxu horietarako eremu erakargarria egitea da. Horretarako, estatuz azpiko eremu hauek, hiri-plangintzaren agenda berri bat aplikatzea ekarri du non ezagutzaren ekonomia, turismoa, industria kulturala, hirigintza berria, azpiegiturak etab. sustatu ohi diren. Eta azkenik, enpresa-irizpideetan oinarritutako kudeaketa publikoaren ereduaren ezarpena izan da; lehentasun berriak sortuz, hala nola inbertsioen errentagarritasuna edo helburu estrategikoetarako espazioaren eraikuntza. Eta ildo honetan esanguratsuak dira

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

azkenaldian areagotutako partzuergo publiko-pribatuak, non interes pribatuak eta tokiko gobernua elkartuta, finantziazio-iturriak edo inbertsio berriak erakartzen saiatzen diren (Harvey, 1989b; Cox, 1993; Gainza, 2008).

Hala ere, gobernantza eraldatzaile baten aldeko apustua egiten bada, lankidetzaren publiko-pribatu neoliberalak eragiten duen publikotasunaren ulertzetik urrunduta, non publikoa eraginkortasunaren eta lehiakortasunaren irizpideetara azpiratzen den, eta beste kontzeptzio baterantz hurbilduta, non esparru publikoaren dimentsio kolektiboa eta demokratikoa aitortzen den eta jendartearen parte-hartzerako espazio hibridoa bezala ikusten den (estatala eta komunitarioa). Horrela, aurrekontu parte-hartzaileak, ondasun komun berrien kudeaketa komunitarioa, privatizatutako zerbitzu publikoen eta sektore estrategikoen kooperatibizazioa etab. bezalako adibideak ere aurkitu ditzakegu EAEko geografian zehar.

Bukatzeko, maila anitzeko gobernantzari dagokionez, eskala ezberdinetan abiatutako prozesu ezberdinak koordinatzea eskatzen du. Aldi berean, gobernantza eredu berriek parte-hartze publiko-pribaturako egiturak eraikitzea eragin du. Izan ere, estatuetatik tokiko gobernuetara emandako erregulazio eskalaren jaitsiera horrek ez ditu soilik eremu politiko berriak garatu, baizik eta gobernatzeko moduetan ere aldaketa nabarmenak eragin ditu. Nahiko esanguratsuak dira zentzu honetan, Europatik abiatutako programak edo EAEko eskualde eta maila ezberdinetako eragileen arteko kooperazio sareak.

Ildo honetan Estensoro eta Zurbanok (2010) adibide ezberdinak aurkitzen dituzte. Hala nola, *Innobasque* erkidego mailan, Gipuzkoa Berritzen sarea Gipuzkoa mailan eta EAEn zehar zabaltzen diren tokiko garapen agentziak maila lokalean. Baina baita ere aipatuak izan ohi dira zientzia eta teknologia arloan aurrera eramandako gobernantza eredua esaterako (Moso eta Olazaran, 2001; Zurbano, 2008) edo EAEko kluster politika (Larrea, 2003). Alabaina, orokorrean, EAE edo aldundi mailako erakundeak izan dira politika ekonomiko eta teknologikoz arduratu izan direnak. Hauen artean, batez ere, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko entitatea (SPRI) eta foru-aldundietako sustapen ekonomikoko sailak. Hala ere, garapen agentziak bezalako tokiko erakundeak geroz eta garrantzia handiagoa hartzen ari dira zentzu honetan, eta politika erregionalaren igorle soilak baino, hauekin kontuan hartzen duten maila anitzeko ekimen estrategikoak geroz eta ugariagoak dira (Gainza, 2008).

5.2 Tokiko garapenerako oinarrizko eragileak Euskal Autonomia Erkidegoan:

Tokiko garapenak zabalkunde handia izan du EAEn 80ko hamarkadako erdialdetik aurrera. Hala ere, ikusiko dugun moduan, honek ez du bide berdina jarraitu eskualde guztietan. Besteren artean, eskualde bakoitzaren errealitatea ezberdina delako, eta beraz, sortutako instituzioak errealitate eta momentu historiko bakoitzari egokitu direlako. Horregatik, tokiko garapenerako estrategiekin hasi baino lehen, EAeko eskualdeetan garapena baldintzatu duten ezaugarri nagusienak aztertuko ditugu.

EAEko eskualdeetan ematen diren sistema produktiboen antolaketa moduari begiratzen badiogu, Gainza eta Uncetak (2011) eta Larreak (2000) antzemandako bost multzoetan sailkatu ditzakegu. Lehenik, badira egitura produktibo marshallianoa duten eskualde batzuk. Hauek, Debarrena, Durangaldea, Arabar Errioxa eta Goierri liriateke eta ekoizle txiki eta ertainen sareen bitartez eraikitzen dira modu deszentralizatuan eta espezializazio gradu esanguratsuekin. Horrez gain, azpisistema marshallianoak dituzten eskualdeak ere badaude. Hauek, lokalizazio ekonomiak bezala kontsideratu daitezke ere, baina ekoizpen deszentralizaturik eta enpresen arteko osagarritasunik ez da ematen. Hauek, Tolosaldea eta Urola Kosta izango liriateke. Bestetik, integrazio maila altua duen sistema produktibo zentralizatu bat ere badago. Kasu honetan, enpresa handiago bat edo gutxi batzuek traktore lana egiten dute beste enpresa txiki batzuei ekoizpen prozesuaren zati bat azpikontratatzuz. Azken hau, batez ere Debagoienan ematen da, non Arrasateko talde kooperatiboaren eragina argia den. Araban eta Bizkaian biztanleriaren zati handiena hirietako area funtzionalaren inguruan kokatzen da. Hortaz, ez da arraroa Gasteiz, Bilbo eta hauen ondoko eskualdeetan urbanizazio ekonomien abantailaz baliatzen diren eskualdeak aurkitzea. Hauek, industria ez espezializatuan eta zerbitzuetan oinarritzen dute euren egitura produktiboa. Azkenik, espezializaturik ez dauden, tokiko enpresen arteko erlazorik ez duten eta kanpo-eragin ekonomikorik gabeko eskualde zehaztugabeak aurkitzen ditugu.

Ekoizpenaren antolaketa honek, eskualdeak lan, merkataritza, jendarte eta kultura harremanak ezartzen diren eremuak bezala egituratzea errazten du, eta dinamika propioak sortzen laguntzen dituzten partzuergoak, sareak, elkarteak, formakuntza zentroak, zentro teknologikoak, etab. sortzen dira. Hala ere, eskualde guztiek ez dute sareak sortzeko potentzial berdina. Gainzak eta Uncetak (2011) antzematen dutenez, dirudienez, barruti industrialen antza duten tokiko sistema produktibo marshallianoek

dute horretarako erraztasun handiagoa. Hots, aipatutako lehenengo eta bigarren taldean dauden eskualdeak; Gipuzkoan kokatzen direnak batez ere.

Aurrekoaz gain, antzeko sailkapen bat aurkitu dezakegu Zubiaurre, Zabala eta Larrea-n (2009), baina kasu honetan, eskualdeak beren osagai nagusien arabera sailkatzen dituzte, eta ez industria antolatzeko moduaren arabera. Autore hauen arabera, EAeko eskualdeak bost multzoetan sailkatu daitezke. Hurrengoak dira (Zubiaurre, Zabala eta Larrea, 2009: 106-108):

1. Ekoizpen egitura dibertsifikatua duten hiri-eskualdeak. Multzo honetan, EAeko lurralde historikoen kapitalak eta beren influentzia eremua (batez ere Bilboko kasuan) barneratzen dituzte. EAeko biztanleria eta BPGaren zatirik handiena duten eskualdeak dira eta ekoizpen egitura dibertsifikatua daukate. Beste sektoreen aurrean, zerbitzuak eta ezagutzan oinarritutakoak gailentzen dira, izan ere, EAeko ikerketa azpiegituraren zati handi bat eta unibertsitate gehienak eskualde horietan kokatzen dira. Beraz, batz besteko I+G gastua beste eskualdeetan baino handiagoa da. Gainera, eskualde hauen garapen urbanoak, biztanleriaren dentsitate handiak eta langileen kualifikazioak, Jacobs-en kanpo-eraginak sortzeko ingurune egokiak bezala ezartzen ditu.
2. Industria aglomerazio aurreratuak. Kasu honetan, teknologia maila altuko eta ertaineko industriaz ari dira autoreak; I+G industrialean gastu handia dutenak. Batez ere, Debabarrenean eta Debagoienan kokatzen dituzte horrelako industria aglomerazioak. Hauetako bakoitzak zentro teknologiko bana dauka, eta lanbide heziketako zentroez gain, Debagoieneko kasuan, Mondragón Unibertsitatearen garrantzia azpimarratzen da; honek industriarekin duen loturagatik. Enpresen tamainaren aldetik bestalde, batz bestekoa baino enpresa handiagoak nagusi dira eta MAR izaerako kanpo-eraginak sortzeko gaitasuna daukate lan eskuaren kualifikazioagatik, hornitzaileen espezializazioagatik eta ezagutza zabaltzeko azpiegiturengatik.
3. Errendimendu teknologiko ertaineko industria aglomerazioak. Hirugarren multzo honetan, batez ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako hamar eskualde industrial kokatzen dituzte autoreek. Durangaldea, Urola Kosta, Goierri, Arratia-Nerbioi, Tolosaldea, Lea-Artibai, Busturialdea-Urdaibai, Enkarterri, Aiaraldea eta Bidasoaldea (nahiz eta azken hau lehenengo multzoan ere kokatu daitekeen hiri-eskualdeekiko partekatzen dituen elementuengatik) hain zuzen ere. Teknologia

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

maila ezberdinetako industriak aurkitu daitezke bertan, eta lehenengo eta bigarren taldeen artean kokatzen dira I+Gko jardueretan aritzen diren enpresei dagokionez; nahiz eta lehenengotik hurbilago egon eta bigarren taldeko bi eskualdeetatik oraindik oso urrun egon. Gainera, eskualde hauetako enpresek azpiegitura teknologiko ahulagoa daukate.

4. Eskualde industrial txikiak. Arabako Gorbeialdea eta Añanako eskualdeak kokatzen dira multzo honetan. Enpresa dinamismo handia erakusten dute, baina tamaina txikiko eskualdeak direnez, EAEko datu osoekiko eragina oso txikia da. Eskualde industrial oso espezializatuak dira eta 50 langile baino gehiago dituzten eta I+Gan jarduerak aurrera eramaten dituzten hamar manufaktura-enpresa inguru erakartzeko izan duten gaitasunagatik, berrikuntzarekin lotutako aldagaietan lan ona egitea eragin du. Gainera, horrek guztiak per capita errenta handia ekarri du. Autoreen iritziz, eskualde hauek, lurralde txiki batek azpiegitura zientifiko eta teknologiko ahula izanda ere, desabantaila hori gainditu dezakeela erakusten dute beste lurralde batzuekin harremanak landuz.
5. Landako eskualde txikiak. Azkenengo multzo honetan ere Arabako bi eskualde aurkitu daitezke: Arabar Errioxa eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko eskualdea. Landako eskualde hauek EAEko biztanleriaren %1era ere ez dira heltzen eta haien biztanleria EAEko bataz bestekoa baino zaharkituagoa dago. Hala ere, Arabar Errioxaren kasuan EAEko eskualdeetako bigarren errenta per capita altuena dauka, kalitate eta marka handiko ardoetan duen espezializazioari esker.

EAEko eskualdeetan, tokiko garapenerako prozesuak gidatu eta gidatzen dituzten eragile nagusienak tokiko garapen agentziak dira. Dagoeneko definitu ditugun moduan, tokiko garapenerako garapen agentziak gobernantza ekonomiko lokala bultzatzeko prozesuak errazten duten agente lokalak dira. Edo beste modura esanda, lurraldean tokiko garapena sustatu eta artikulatzeko lanaz arduratzen diren, eta haren buru diren eragileak dira⁹⁹. Gaur egun, EAEko eskualde gehienek bere tokiko garapenerako

⁹⁹ Dena den, nahiz eta garapen agentziak tokiko sustapen ekonomikorako tresna nagusia izan, eskala anitzeko testuinguru batean kokatu behar dira. Lurraldeetan eragiten duten eta tokiko ekonomien erreprodukzioa eta dinamizazioa errazten duten tresnen multzo baten eragile bat bezala. Hauek ez baitira lurraldearen funtzionamendu ekonomikoan eragiteko gaitasuna duten erakunde bakarrak, beste batzuk ere garrantzitsuak dira, hala nola Foru Aldundietatik, Eusko Jaurlaritzatik, Estatutik edo Europatik sustatzen diren erakundeak edo programak. Eta hauek ere zeresan handia dute tokiko garapen agentzien sorkuntzan. Hemen garrantzia aipagarria dute Europar Batasuneko eskualde politikaren markoan sortutako FEDER programak eta garapen agentziek ikasteko emandako lan-jarraibide berriak. Baita

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

agentzia daukate. Hala ere, hauen sorkuntzari eta eragin eremuari begiratuta ezberdintasun azpimarragarriak aurkitu ditzakegu.

EAEko garapen agentzien mapa, Gainzak (2008: 197-204) antzematen dituen hiru etapa edo garaietan egituratu izan da. Lehenengo etapa, 80ko hamarkadaren erdialdean hasten da euskal garapen agentzia aitzindariak agertu zirenean; batez ere Gipuzkoan. Hauek, 80ko hamarkadako krisiaren eta industria-birmoldaketaren ondorio larriagoak zituzten eskualdeetan sortzen dira, eta, oro har, udalen eta foru-aldundien zeregina ezinbestekoa suertatzen da haien sorkuntzan. Aldiz, garai honetan sortzen diren Bizkaiko garapen agentzia gutxi batzuetan, eta baita Gasteizen ere, hauek sortzearen ekimena alkateetatik datoz eta, oro har, eragin eremua herrira edo hirira mugatzen da. Nolabait, hasierako agentzia guzti horien agerpena berrikuntza instituzional gisa uler daiteke, garai berriei egokituko zen tresna berri bat sortzea beharrezkoa zela ikusita. Hasiera batean, garapen agentzia hauek langabezia arintzera bideratuta zeuden batez ere. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, eta behin tokiko ekonomia horiek berreskuratzen ziren heinean, haien eginkizuna, helburua, tresnak eta jarduteko modua aldatu egin dira: enplegu politiketatik tokiko ekonomiaren sustapen aktibora (besteren artean enpresentzako zerbitzuak, turismoa eta merkataritza sustatzea, ingurumena edo zerbitzu mankomunatuak).

Hala ere, badira 80ko hamarkadaren erdialdean sortzen hasten diren lehenengo garapen agentzia hauen agerpena azaltzen duten gutxienez beste hiru faktore (Gainza, 2008:76): Batetik faktore globalak leudeke, hala nola sektore ezberdinen berregituraketa. Bigarrenik, estatuko eta eskualdeetako prozesuak, hala nola gobernu zentralaren eta erregionalaren boterearen deszentralizazioa. Eta hirugarrenik, tokiko zenbait eragileek langabeziari aurre egingo dien erakunderen bat martxan jartzeko zuten borondatea. Gainera, esan bezala, ondoren nazioartean zabaldutako lurralde lehiakortasunak ere aldaketak eragin ditu garapen agentzien jardueretan, eta, kasu askotan, potentzial endogenoa indartzera bideratu dituzte euren zereginak.

Bigarren etapa, 90ko hamarkadan zehar eman zen, bereziki garapen agentziak Gipuzkoako beste eskualdeetan pixkanaka zabaltzen joan zirenean. Bigarren olatu honetan sortzen diren garapen agentziek ez daukate aurrekoek duten osagarri hain

lurraldeek berezkoak dituzten bestelako faktore ekonomiko, sozial, politiko eta ideologikoak; horiek ere aldatu egin baitzituzten lurraldean esku-hartzeko moduak.

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

endogenoa; aurreko agentzien arrakasta ikusita, hauen ezaugarriak erreplikatzean oinarritzen baitira. Izan ere, beste udalerriek tresna horrek enpleguaren eta ekonomiaren sustapeneko orduan duen ahalmena ikusi zuten eta bereak garatu nahi izan zituzten. Azkenik, 2000. urtetik aurrera, Bizkaiko tokiko garapena zabaldu egin zen, batez ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) eta BBK-ren ekimenez agentziak finantzatzeko programa bati esker. Hirugarren garai honetan beraz, Bizkaiko udalerrri askok beren garapen agentziak sortzea erabaki zuten (Larrea, 2003; Gainza, 2008).

Ikusi dezakegun moduan, jatorri, izaera eta behar ezberdinei egokitutako garapen agentziak aurkitu ditzakegu EAEn zehar. Izan ere, batzuk behetik gorako eredu bat irudikatzen duten bitartean, beste batzuetan, batez ere azkenengoen kasuan, bultzada goitik beherakoa izan zen, eta horrek eragina du agentziaren egiturari, honek jendartean txertatzeko izan duen moduan eta, azken finean, agentzia bakoitzaren jarduteko gaitasunean. Oro har, esan genezake, 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera sortzen diren garapen agentziak behetik gorako sorkuntza prozesu argia jarraitu zutela. 90ko hamarkadan zehar sortzen direnak aldiz, aurrekoen arrakasta ikusita, eta eskualde ezberdinetan burututako plan estrategikoetan antzemandako enplegua eta garapen ekonomikoa sustatzeko asmoz, lurraldean oinarritutako tresna baten beharrari egokitutako erantzuna izan zirela. Eta azkenik, 2000. urtetik aurrera, Bizkaian zabalduetako tokiko garapenak goitik beherako norabidea duten neurriak jarraitu zuen, non, esan bezala, BFAk eta BBK-k “behargintza” deritzon garapen agentziak sustatu ziren. Hauek, oro har, ez ziren behetik antzemandako behar bati erantzuteko sortu, baizik eta herritarrei eskaintzen zitzaizkien beste zerbitzu publiko bat bezala sortu ziren. Gainera, ikuspegia ere nolabait aldatu zen, izan ere, hasiera batean Gipuzkoan sortutako garapen agentzia aitzindariak eskualde mailan eragiten hasi ziren, eta azkenengo hauetan aldiz, udala da nagusitzen den eskala. Ordutik eta gaur egun arte, agentziarik ez zituzten eskualdeetan garapen agentziak sortzen joan dira pixkanaka.

Behetik gorako norabidea jarraitu zuten agentzien artean —nahiz eta maila altuagoko administrazioaren babesa ere izan—, bi multzo aurkitu ditzakegu. Alde batetik, bai hasiera batean edo bai behin agentzia sortuta zegoenean lurralde horietan plan estrategikoak burutu zituztenak, eta plan estrategikorik gabe sortu zirenak. Plan estrategiko hauek, lurraldearen diagnostiko sakon baten ostean garatutako tresna garrantzitsuak dira, zeintzuk epe luzerako ekintzen norabidea zehazteaz gain, garapen estrategia sozializatzeko garrantzitsuak izan ziren. Besteak beste, tokiko beste eragileek

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

garapenerako aktore aktiboak bezala ikusarazteko eta garapen agentziak tokiko enpresen eta jendartearen zerbitzura dauden lanabesa propioak bezala ikusarazteko baliagarriak izan zirelarik (Gainza, 2008). Oro har, eskualdea eragin eremu gisa duten garapen agentziak izan ziren plan estrategikoak burutu zituztenak, eta ez hainbeste udalaren egiturapean egituratutakoak.

Ildo honetan ere, garapen agentzien egituraketa ezberdinak aurkitzen ditugu. Izan ere, garapen agentzia batzuk udalen egitura administratiboetan barneratuta daude guztiz, udaletatik eskaintzen den beste zerbitzu bat balira bezala. Beste kasu batzuetan, enpresa publikoa sortu da garapen agentziari oinarri juridikoa emateko. Kasu honetan, oro har, eskualde mailan eragiten duten agentziak baltzu anonimo edo mugatua erabiltzen dute izaera juridiko gisa, eta udal mailan jarduten dutenak, udalaren departamentu bat osatzen dute orokorrean.

Jarduera eremuari dagokionez, eskala ezberdinetan antolatzen dira EAeko garapen agentziak. Batzuk udal txiki edo ertainetan eragiten dute, beste batzuk eskualdeetan, eta azkenik, hirietan jarduten dutenak leudeke. Kasu honetan, hala ere, eremua zehazteko modu bat baino, lurraldea ulertzeko modua da eztabaidatzen dena. Hau da, badira garapen agentziaren eragin eremua, lurralde horretan ematen diren harreman sozialen adierazpen gisa definitu dutenak, eta badira jarduera administratiboa edo hurbiltasun geografikoaren irizpideak oinarri hartuta euren eragin eremua definitu dutenak. Hau da, alde batetik, tokiko ekoizpen/berrikuntza sistema, garapen instituzionala, harreman sozial egonkortuak etab. dituzten lurraldeak kontuan izanik sortu diren garapen agentziak daude, eta bestetik, nahiz eta eragin eremua udalerrien multzo bat izan, ez da lurraldea irizpide sozial hauen arabera definitu, ez baitago ekoizpen sistema lokala definiturik eta ez baita tokiko instituziorik garatu, udalerrien arteko harremanak ez baitira instituzionalizatu (Larrea, 2003; Gainza, 2008).

Garapen agentzien banakako helburu eta lehentasunen inguruan ere ezberdintasun batzuk aurkitu daitezke, nahiz eta oro har, enplegua sortzera, ekintzailtza sustatzera edo enpresentzako zerbitzuak eskaintzera bideratuta dauden (Gainza eta Unceta, 2011). Hala ere badira agentziak tokiko merkataritzari, turismoari, ingurumen iraunkortasunari eta bestelako gai sozial eta kulturei arreta handiagoa eskaintzen dizkietenak. Eskaintzen dituzten zerbitzu konkretuei dagokienez, laneko orientazioa, lan-bitartekotza, formakuntza, kultura ekintzailea sustatzeko jarduerak, bideragarritasun planak egitea, laguntzak eta diru-laguntzak eman eta tramitatzea, proiektuaren tutoretza

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

eta jarraipena, kudeaketa arloko formakuntza eta aholkularitza, finantzaketa, enpresa haztegiak, lan-merkatuko bitartekaritza, enpresaren diagnostikoa egitea, ingurumen-aholkularitza, aretoen alokairua, IKTak zabaltzeko programak, kalitatea hobetzeko programak, berrikuntza sustatzeko programak etab. aurkitu ditzakegu.

Gaur egun, EAEn 34 garapen agentzia elkartuta daude tokiko garapenerako agentzien euskal elkartean (Garapen), EAeko biztanleriaren %92ra heltzen direlarik (Garapen, 2019). Hala ere, nahiz eta Garapen-en elkartuak egon, bakoitzak bere ezaugarri eta estrategia propioak ditu azaldutako izaerari dagokionez, jarduera eremuari dagokionez, tamainari dagokionez, sustatutako ekimenei dagokionez etab. Izan ere, lurralde bakoitzaren baldintza instituzionalengatik garapen agentzia bakoitza definitzen da. Hurrengo taulan, Garapen-en elkartuta dauden garapen agentziak agertzen dira:

5.1. TAULA: Garapen-en bilduta dauden garapen agentziak

Eskualdea/Udala	Garapen agentzia	Eskualdea/Udala	Garapen agentzia
Debabarrena	Debegesa	Durangaldea	Durangaldeko Behargintza
Gasteiz	Dpto. de Promoción Económica	Uribe Kosta	Uribe Kostako Behargintza
Urola Erdia	Iraurgi Berritzen	Mungia	Mungialdeko Behargintza
Donostia	Fomento San-Sebastian	Txorierrri	Behargintza Txorierrri
Gernika	Gernikako Lanbide Ekimenak Zentroa	Bermeoaldea	Bermeoaldeko Behargintza
Urola Kosta	Urola Kostaldeko Udala Elkartea	Basauri eta Etxebarri	Behargintza Basauri-Etxebarri
Bilbo	Bilbao ekintza	Urduña	Urduñederra
Bidasoa	Bidasoa Activa	Lea-Artibai	Lea Artibai garapen agentzia
Barakaldo	Inguralde	Galdakao	Galdakaoko Udala
Debagoiena	Debagoienako Mankomunitatea	Beterri Buruntza	Beterri-Buruntza Udalak
Goierri	Goieki	Laudio	Laudio Udala Garapen Agentzia
Oarsoaldea	Oarsoaldea	Zalla	Zallalan
Urola Garaia	UGGASA	Meatzaldea	Meatzaldeko Behargintza
Tolosaldea	Tolosaldea Garatzen	Leioa	Leioako Behargintza
Getxo	GetxoLan	Erandio	Erandioko Behargintza
Enkarterri	Enkartur	Sestao	Sestaoko Udala-Behargintza
Amurrio	Amurrio Bidean	Añanako Kuadrilla	Añanako Kuadrilla

Iturria: Egileak egina

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

Taulan agertzen diren garapen agentziak, gaur egun Garapen elkartean bilduta daudenak dira. Hala ere, hauetaz gain badira beste garapen agentzia batzuk —edo garapen agentzien eginkizun batzuk betetzen dituzten beste erakundeak— EAEn. Ildo honetan identifikatu genitzake Forlan Muskiz-en, Azaro Fundazioa Lea-Artibai eskualdean, Work-Lan Bilbo Handian, SaioLan Debagoienan, BDS eraldaketa fabrika Bidasoan edo Garapen-en elkartuta ez dauden beste udal ezberdinetako enplegua eta ekonomia sustatzeko saila eta departamentuak. Hauetako batzuk (Azaro Fundazioa, Wok-Lan, BDS eta SaioLan) lotura zuzena daukate ESSarekin, bere sorkuntza ekimen kooperatibo bati lotuta egon delako eta lurralde ezberdinetan, eta garapen estrategia baten markoan, ESSa sustatzeko helburua daukaten tokiko erakunde gisa azaltzen direlako. Hauen inguruan, 5.4. atalean gehiago sakonduko da.

Esan bezala, garapen agentzia hauek Garapen-en elkatuta daude, eta bakoitzak bere proiektu, egitasmo eta estrategia propioak dituen arren, Garapen-ek ere ikuspegi estrategiko bat jorratzen du, non agentzia ezberdinak kokatu behar diren. Oro har, Garapen-ek hurrengo helburuak ditu (www.garapen.net):

- Tokian tokiko izaera endogenoko garapen ekonomikoaren gainean kontzeptualizatzea, eta garapen horren proiektio estrategikoa eta aplikazio operatiboa lantzea.
- Informazio- eta jakintza-trukea sustatzea, lankidetzako eta kooperazioko proiektuak garatuz.
- Agentziei guztien interesekoak diren programetan sinergiak garatzeko zerbitzuak ematea.
- Erakunde publiko zein pribatuen aurrean irizpide eta jarrera bateratuak eratzea, haien ekintza-eremuen barruko gaietan.

Bestalde, Garapen-en tokiko garapenaren inguruko ikuspegiari dagokionez, garapen agentziek modu zeharkakoan jorratu behar dituzten sei alderdi zehazten ditu (www.garapen.net):

- Gobernantza-eredua: sistema berean esku-hartzen duten eragile guztien arteko kudeaketa.
- Lurraldea: lurraldea, tokian tokiko garapen-estrategia egituratzen den jardueraren unitatetzat hartua. Aintzakotzat izanik agentzia bakoitzaren testuingurua, giza

paisaia naiz paisaia fisikoa, haien arteko harremana, tokian tokiko lurraldean esku-hartzen duten eragileak eta abar.

- Berrikuntza eta sormena: berrikuntza teknologikoa edota lehiakortasuna hobetzeko berrikuntza eta gizarte-berrikuntza. Arazoei konponbide berritzaileak emateko neurriak eta jardunbideak asmatzea eta gorpuztea.
- Jasangarritasuna: Garapen jasangarriak gaur egungo beharrezanean erantzuna ematen die, betiere etorkizuneko belaunaldiak haien beharrezanek asetzeko ahalmena izatea arriskuan jarri gabe.
- Giza aurrerabidea: pertsonei zuzenduta eta haien alde egiten den garapena.
- Prospektiba-behatokia: Egoerari aurre hartzeko eta etorkizuna prestatzeko tresna.

Eta horrez gain, Garapen-ek garapen agentziei ere zerbitzuak eskaintzen dizkie. Hala nola, informazioa eta aholkularitza, etengabeko prestakuntza, hausnarketa-foroak, jakintzaren kudeaketa, proiektuen kudeaketa, agentzien lana sustatzea eta haren berri ematea eta ordezkartzea eta erakundeekiko harremanak jorratzea.

5.3 Ekonomia Sozial eta Solidarioaren oinarrizko eragileak Euskal Autonomia Erkidegoan:

Luzaroan, Euskal ESSari buruz hitz egiterakoan, burura etortzen zitzaigun lehenengo esperientzia Arrasaten burututakoa izan da. Hau, noski, ez da arraroa, izan ere, Debagoienan sortutako esperientzia hau, gaur egun estatu mailan pertsona gehien enplegatzen duen talde kooperatiboa bezala, EAeko enpresa talde handiena bezala eta mundu mailako talde kooperatibo industrial handiena bezala kokatu da. Gainera, aski ezaguna da, eta behin baino gehiagotan ikertutako errealitatea izan da talde honen nazioarteratze prozesua (adibidez, Errasti (2015), Errasti et. al. (2002; 2003)...); 37 herrialdeetan ekoizpen instalazioak izatera arte eta 150 herrialde baino gehiagotan salmentak burutzera arte heldu baita. Hala ere, hau ez da Euskal esperientzia bakarra; are gehiago, EAEn ESSko esperientzia aberasgarri ugari izan dira —eta badira— historian zehar.


2018. urtean, OVES-GEEB-ren (2020) arabera, EAeko ESSak 88.000 pertsona baino gehiago enplegatzen zituen ia 5.000 antolakundeetan banatuta. Hauek, EAeko enpleguen %9,5a suposatzen zuten. Horietatik kooperatibak ziren lanpostu gehien sortzen zituztenak. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoa zen ESSak pisu erlatibo

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

handiena zuen lurraldea; bertan, enpleguen % 14,1a ESSan ematen ziren, 43.000 enplegu baino gehiagoren bitartez. Bizkaian eta Araban aldiz, ESSak enplegu osoaren %7,6 eta %5,94 hartzen zuen 36.000 eta 8.000 enplegu baino gehiagoren bitartez, hurrenez hurren. Hala ere, ESSko antolakunde gehien zituen lurraldea Bizkaia zen. Horrenbestez, ondorioztatu dezakegu, orokorrean Gipuzkoako antolakundeak Bizkaiakoak baino handiagoak direla langileen ikuspuntutik. EAeko ESSak urte horretan sortu zuen balio erantsi gordina, 3,4 mila milioi eurokoa izan zen (3.400.000.000€). Eta haren lurralde banaketak, lanpostuen banaketa geografikoaren antza hartzen du, Gipuzkoa izanik gehien sortzen duen lurraldea 1,8 mila milioi eurekin.

Hurrengoak, enpleguaren inguruan OVES-GEEB (2020) biltzen dituen grafiko esanguratsuenak dira:

8. IRUDIA: EAeko ESSaren enpleguaren banaketa antolakunde, lurralde historiko eta eskualdearen arabera. 2018. urtea




Iturria: OVES-GEEB (2020: 29, 30 eta 33).

Grafikoan ikusi dezakegun moduan, enpleguaren banaketa nahiko ezberdina da bai antolakundearen arabera eta bai lurraldearen arabera. Lehenengo irizpidearen arabera, kooperatibak dira enplegu kopuru handiena sortzen dutenak, eta bigarrenaren arabera, Gipuzkoako eskualdeak dira lanpostu gehien sortzen dituztenak; hauen artean Debagoiena, Urola Kosta, Donostialdea eta Bidasoaldea nabarmentzen direlarik.

Hala ere, hurrengo grafikoetan ikusi dezakegun moduan, sektorearen bidezko ESSko enplegu kopuruaren banaketak, ez du horrenbesteko datu argirik ematen lurralde historikoaren arabera, eta beraz, maila bat gehiago jaitsi behar gara xehetasunak ikusteko. Eskualdeka, Debagoiena, Goierri eta Tolosaldea dira enplegu industrial gehiena sortzen dituzten eskualdeak (3.638 enplegutik gora eskualde bakoitzak). Hala ere, Bizkaiko zein Gipuzkoako kostaldean ere enplegu industrialak garrantzi handia

hartzen du. Bestalde, zerbitzuei begira, hiriak (Bilbo eta Donostia) eta nukleo urbano handiak (Irun, Zarautz, Arrasate, Durango etab.) dituzten eskualdeak nagusi dira.

9. IRUDIA: ESSko enplegu kopurua sektore ekonomikoaren arabera (Industria eta Zerbitzuak). 2018.urtea




Iturria: OVES-GEEB (2020: 34).

Kasu honetan, enplegu kopuruaz ari garenez, Debagoiena bezalako eskualde batek non MCC-ren eragina argia den, enplegu industrialean zein zerbitzuetan lehengo postuetan agertzea azaltzen du. Dena den, ESSaren enpleguen banaketa hau bat dator neurri handi batean aurreko atalean azaldutako eskualdeen osagai ekonomiko nagusiekin. Aipatu dugun moduan, eskualdeetan zerbitzuen sektoreetan ematen den ESSko enplegu kopuru handiena hiri eta hiri-eskualdeetan ematen baita, eta enplegu industrialak aldiz, industria aglomerazioetan. Desbideratze nagusia, Debarrenan, Uribe Kosta eta Durangaldean ematen dira. Izan ere, lehenengoak ez du ESSko enplegu kopuru esanguratsurik aurkezten ez industrian eta ezta ere zerbitzuetan. Uribe Kostari dagokionez, Bilbo Handiak sortzen dituen urbanizazio ekonomien eraginez ekoizpen egitura dibertsifikatua bezala sailkatu dugun arren, ESSko enplegu industrialen kopuru esanguratsua aurkezten du. Kontrakoa gertatzen da Durangaldean. Eskualde industrialak bezala sailkatu dugun arren, ESSko enplegu kopuru handiena zerbitzuetan erakusten baitu. Azkenik, Arabari dagokionez, batetik, azpimarratu behar da, batez ere Añanako eskualdearen kasuan, industria zein zerbitzuen enpleguaren kopurua EAeko datuak kontutan izanik oso adierazgarriak ez izan arren, 6.000 biztanle inguruko eskualdea

dela¹⁰⁰, eta beraz, eskualde mailan ESSko enplegua adierazgarritasun handiagoa lortzen duela. Eta bestetik, OVES-GEEB-eko (2020) txostenak ez digu lehenengo sektoreari buruzko datuak eskaintzen, eta beraz, ezin dugu Arabar Errioxa eta Kanpezu-Arabako Mendialdea bezalako landa eskualdeen datuak kontrastatu.

10. IRUDIA: ESSko establezimendu kopurua eta ESSko fakturazioaren gaineko esportazioak EAEn. 2018. urtea



Iturria OVES-GEEB (2020: 34 eta 35)

Antolakunde kopuruari dagokionez, nahiko adierazgarria da hiriek edo hiri-eskualdeek antolakunde gehiago dituztela. Horren azalpen bat zerbitzuen sektoreetara bideratutako antolakundeen tamaina txikiagoa dela izan daiteke industriara bideratutakoekin konparatuta. Izan ere, grafiko honek antza handiagoa hartzen dio zerbitzuen enpleguen kopurua azaltzen duen grafikoari, enplegu industrialaz azaltzen duenari baino. Eta beraz, ondorioztatu dezakegu zerbitzuetara bideratutako antolakundeak gehiago direla, nahiz eta tamainaren aldetik industriara bideratutakoak handiagoak izan. Hala ere, ezberdintasun batzuk ere ikusi daitezke zerbitzuetan ematen den enpleguaren grafikoarekiko, batez ere Arabako kasuan. Izan ere, Arabako ESSko enplegu kopuruaren datuek EAEkiko esangura handia ez duten arren, antolakunde edo establezimenduen kopuruaren aldetik, hazi egiten da EAEko datuekin alderatuta esangura handiagoa lortuz. Kasu honetan, ondorioztatzen da Arabako ESSko antolakundeak, oro har, txikiak direla langileen ikuspuntutik bere eskualde guztietan.

¹⁰⁰ Eustat-eko datua www.eustat.eus

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn









Bestalde, fakturazioen gaineko esportazioen grafikoak erakusten duenez, industria aglomerazioak dituzten eskualdeak dira orokorrean ESSko ekoizpenarekiko gehien esportatzen dutenak; kasu batzuetan gainera, fakturatutakoaren erdia edo erdia baino gehiago esportazioetatik lortuz.

ESSaren egituraketari dagokionez, sare ezberdinak aurkitu ditzakegu EAEn; sareen sareko egituraketa osatzen dutenak. Euskadiko Gizarte Ekonomiaren Sarea (EGES), ESSko familia ezberdinen sareez osatuta dago. Bertan, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa (KONFEKOOPE), Euskadiko Lan Sozietate eta parte hartutako enpresen Elkarte (ASLE), Euskadiko Enplegu Zentro Bereziak (EHLABE), Euskadiko Laneratze Enpresen elkarte (Gizatea) eta Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren sarea (REAS Euskadi) elkartzen dira. Eta hauetako bakoitzak antolakundearen sare bat osatzen du ere aipatutako sareen sarearen egituraketa emanez. EGES-ek (2018) eskaintzen dituen datuen arabera, 2017. urtean, KONFEKOOPEk 54.667 langile zituzten 1.160 kooperatiben ordezkaria zen. ASLEn 600 lan-sozietate zeuden elkartuta, 6.925 enplegu sortzen zituztenak. EHLABEn 13 antolakunde biltzen ziren, 9.417 enplegu sortzen zituztenak; horietatik 7.793 aniztasun funtzionala duten pertsonak izanik. Gizatean 42 laneratze enpresa zeuden saretuta, 1.162 enplegu sortzen zutelarik. Eta REAS Euskadin, 63 antolakunde saretzen ziren, 2.525 enplegu sortu eta 4.000 boluntario baino gehiago hartzen zituztenak.

Hala ere, garapen agentziekin gertatzen zen moduan, ESSko sare guztiak ez daude EGES-en saretuta. Ildo honetan aipatu ditzakegu Olatukoop Ekonomia Sozial Eraldatzailearen (ESE) sarea edo Red Goratuz Bizkaiko kooperatiba txikien sarea. Horrez gain, talde kooperatiboen parte diren antolakundeak kontuan izan behar ditugu. Kasu honetan, esan bezala, talderik esanguratsuena Arrasateko Corporación Mondragón litzateke. Talde honetan 96 kooperatiba eta I+Gko 14 zentro federatuta daude, EAEko enpresa-talde handiena osatzeko. Eta, nahiz eta bertan federatuta dauden kooperatiba ezberdinak aldi berean KONFEKOOPE-en saretuta egon daitezkeen (eta beraz, aurreko datuetan kontabilizatuta egon), taldearen garrantzia azpimarratu beharra dago. Hau da, sare batean edo talde batean federatuta egoteagatik ez da familia berdineko beste sare batean egoteko aukera ukatzen (Adibidez, ohikoa da laneratzen enpresak Gizatean eta REAS Euskadin saretuta egotea aldi berean, edo REAS Euskadin eta KONFEKOOPE-en). Hurrengo irudian, EAEko ESSaren sare egituraketa ikusi dezakegu.

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

11. IRUDIA: EAEko ESSaren egituraketa

		 EGES irabazi asmorik gabeko elkarte baten izaera juridikoa daukan sare bat da. Topagune bat sortzeko nahiak gidatzen du bere lana, lankidetzarako espazio integratzaile bat eskaini ahal izateko. Bertan, eragileek Gizarte Ekonomiako ekintzak eztabaidatu eta bultzatzeko aukera izango dute Euskadiko erakunde publiko eta pribatuetan, bai ekonomikoetan, instituzionalen zein sozialetan, bai eta eskal gizartea sentibilizatzeko aukera ere (www.eges.eus).						
ESSko	familiak	Kooperatibak	Enplegu zentro bereziak	Lan sozietateak	Laneratze enpresak	Ekonomia Solidarioa	Ekonomia Sozial Eraldatzailea	Bizkaiko Kooperatiba Txikiak
	Printzipio mugatzaileak	- Printzipio kooperatiboak (ICA, 1995)	- Mozkin asmorik gabeko enplegu zentro bereziak. - Ezgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatu.	- Sozietatearen kapital sozialaren gehiengoa, kontratu mugagabea duten langileena da. - Bazkide bat bera ere ezin du kapitalaren herena baino gehiago izan	- Mozkin asmorik gabeko laneratze enpresak. - Bazterketa sozialean edo baztertuak izateko arriskuan dauden langabeel lagundu, gizarteratu eta laneratzea.	- Ekonomia solidarioaren gutunean bildutako printzipioak (REAS, 2011).	- Olatukoop-eko (2019) oinarri irikiak	- Printzipio kooperatiboak (ICA, 1995) - Bizkaiko kooperatiba txikia izatea (2 eta 10 bazkideen artean izatea)
	EAEko marko juridiko orokorra	- 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena.	- 168/2019 Dekretua, urriaren 29koa, EAEn ezgaitasuna duten pertsonen enpleguarekin zerikusia duten programak eta zerbitzuak eta enplegu-zentro berezien euskal erregistroa arautzen dituen.	- 44/2015 Legea, urriaren 14koa, Lan Sozietateei eta Partaidetza Sozietatei buruzkoa.	- 182/2008 Dekretua, azaroaren 11koa, laneratze enpresen kalifikazioa arautzen duena.			- 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena.
	sareak							

Iturria: Egileak egina

Irudian dena den, ez dira agertzen ESSko antolakundeek eurek sortzen dituzten sareak. Izan ere, badira sektore ekonomiko jakin batzuei lotutako antolakunde batzuek beren hornitzaile, bezero, finantzatzaile, laguntzaile eta abarren sareak sortzen dituztenak. Hau bereziki antzemangarria izan daiteke energia berriztagarrien edo finantza sektoreetan esaterako. Iruditik kanpo gelditzen dira ere eskualde batzuetan sortu diren kooperatiben elkarteak. Era berean, ez dira agertzen talde kooperatiboak eta elkarturik edo federaturik ez dauden ESSko antolakundeak.

Antolakundeez gain, ESSaren sustapenerako komunitarioki kudeatutako espazio ezberdinak aurkitu ditzakegu EAEn. Hauen artean bereziki azpimarragarriak izan daitezke Hernaniko Iturola Elkarlan Sorgunea eta Bilbon eraikitzen ari den Ekonopoloa. Hauek, lurraldearekiko eta tokiko komunitatearekiko lotura handia duten ESSa sustatzeko espazioak bezala konfiguratu dira; ekintzailtza programak, tokiko ekintzaileen arteko sareak, formakuntza, sorkuntza, ezagutzaren sozializazioa, ekintza eta ahalduz kolektiboa, garapen komunitarioa etab. sustatu eta aurrera eramateko espazioak direlarik. Bestalde, aipatutako ekintzailtza programak, ESSaren baitan ekimen bat aurrera eraman nahi duten pertsonentzako ibilbide bat eskaintzen dute; hasierako formakuntza, akonpainamendua, aholkularitza eta mota ezberdinetako


5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

laguntza eskaintzen dutenak. Hauen artean, adibidez, Elkarlan, Lanzituz edo Koopfabrika programak aurkitu ditzakegu, kooperatibak, lan-sozietateak eta ESE-a sustatzeko helburua dutenak hurrenez hurren.

Hauetaz gain, badira ere lurralde inplikazio handia duten ESStik bultzatutako beste ekimenak EAEn. Adibidez, moneta sozialak, denbora bankuak edo truke sareak. Baina, azkenaldian esangura gehien lortu izan duen ekimena Euskadiko Merkatu Soziala izan da. Merkatu sozialak, dagoeneko azaldu dugun moduan, prozesu ekonomikoaren fase ezberdinak konektatzen ditu ESSaren balioen arabera. Horrela, merkatu kapitalistatik pixkanaka deskonektatzea ahalbidetzen du, bertan ohiko merkatuen helburuak iraultzen direlako: mozkin indibiduala helburu izatetik, ongizate kolektiboa bilatzen delako (Arrillaga, 2021a eta b). Bere jatorrian, Euskadiko Merkatu Soziala REAS Euskadiren baitan aurrera eramandako ekimena zen, alabaina, hazi egin den heinean, Olatukoop-eko antolakundeak ere barneratu izan dira bi sare hauen arteko bi urteko elkarlanerako hitzarmen baten ondorioz. Gaur egun, Euskadiko Merkatu Soziala sektore ezberdinetan jarduten duten 80 antolakunde baino gehiagok osatzen dute, hala ere, joera hazkorra duen errealitatea da, eta beraz, geroz eta antolakunde gehiago biltzen ditu. Horrenbestez, geroz eta posibleagoa da kontsumorako ondasun gehiago merkatu sozialetik eskuratzea, esan bezala, merkatu kapitalistatik deskonektatuz.

Euskal administrazio publikoaren aldetik, besteren artean, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza azpimarratu beharra dago; Lan eta Enplegu sailaren barnean kokatzen da eta kooperatiben eta lan sozietateen inguruko zuzeneko eskumenak dituen. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren antolaketan badira beste departamentu batzuk ESSarekin harremana dutenak. Hurrengoak dira:

12. IRUDIA: ESSarekin harremana duten Eusko Jaurlaritzako departamentuak



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren 2017-2020 Jarduera Planak¹⁰¹.

Irudian ikusi dezakegunez, ESSaren inguruan eragiteko gaitasuna duten instantziak hainbat sail eta zuzendaritzatan sakabanatuta daude, eta beraz, horrek nabarmen baldintzatzen du ESSko familia guztientzat neurri bateratuak eta zeharkakoak planteatzeko gaitasuna.

Hala ere, Bakaikoa eta Morandeira-k (2012) eta Morandeira-k (2013) jasotzen duten moduan, azkenaldian ESSa sustatzeko politika publikoak areagotu egin dira, ildo honetan esku-hartzeko modua aberastuz. Oro har, aurreko kapituluko 4.5. taulan jaso dugun politika publikoen erreferentzia markoetan kokatu daitezke EAEn aplikatzen direnak. Eta azpimarragarrien artean sektorea ikuskatzeko eta horren inguruko ikerketa sustatzeko neurri instituzional eta kognitiboak, edo ekintzailtza, formakuntza eta enpresen elkarteak sustatzeko aurrekontu neurriak aurkitu daitezke esaterako. Gainera, euskal ESSa hainbat kontsulta erakundetan ageri da, hala nola Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Lanbide-n ordea ez dago, nahiz eta hau sektorearen aldarrikapen historikoa izan. Ildo honetan, azpimarratu behar da kooperatibak Lanbiden egoteko eskubidea defendatuz txosten bat egin zela 2017an EAeko hiru unibertsitateen

¹⁰¹https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan_economia_social/es_registro/adjuntos/Plan%20Direcci%C3%B3n%20de%20Econom%C3%ADa%20Social%202017-2020.pdf

artean¹⁰². Beste zentzu batean, EAEko Ekonomia Itunak erabateko eskumenak ematen dizkio euskal zerga-sistemari kooperatiben, elkarten eta fundazioen zerga erregulaziorako; eta ildo honetako kontsulta organo gisa, Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua (CSCE-EKGK; www.csce-ekgk.coop) aipatu behar da.

Azkenik, unibertsitateko loturari dagokionez, ESSaren inguruan ikertzen duten hainbat ikertegi aurkitu ditzakegu EAEn. Esanguratsuenak, EHUko GEZKI institutua eta bertan kokatzen den OVES/GEEB behatokia, Mondragon Unibertsitateko LANKI ikertegia eta Deustuko Unibertsitateko ikerketa kooperatiboen institutua direlarik.

5.4 Tokiko garapen agentzietatik Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko burututako ekimen ezberdinak EAEn:

Arestian aipatu dugun moduan, azpiatal honen garapenerako, batez ere GEZKI institutuaren baitan aurrera eramandako ikerketa izango dugu oinarri gisa. Bertan, esan bezala, garapena sustatzeko eskumenak duten tokiko erakundeetatik (oro har, tokiko garapen agentziak eta udalak) ESSa sustatzeko esperientzien analisia burutu da.

Analisirako hartutako esperientziak, EAEko tokiko erakundeetatik ESSa sustatzeko aurrera eramandako neurrien lagin bat dira, non ESSko familia ezberdinen sustapena bilatzen den izaera ezberdina duten politika publikoen bitartez. Hau da, hartutako esperientziak, ESSaren pluraltasuna eta ESSa sustatzeko politika publikoen aniztasuna aintzat hartzen duten esperientzia adierazgarriak dira, baina ez dira bakarrak. Hurrengo bi tauletan, batetik GEZKIren ikerketa txostenean aztertutako esperientzien azalpen laburra, eta bestetik, dagoeneko azaldu dugun politika publikoen erreferentzia markoa kontuan izanik (Chaves, 2009; 2010; 2012 eta 2019), ikerketa txosten horretan egindako sailkapena¹⁰³ azaltzen dira.

¹⁰² Txostena hemen eskuragarri: https://www.csce-ekgk.coop/documentacion/es/fhAL7dzO_LANBIDE-Konfekoop%20vdef.pdf

¹⁰³ Aipatu behar da esperientzia batzuek azalduko sailkapenaren zurruntasuna gainditzen dutela, eta, aldi berean, politika publikoen bi tipologia edo gehiago betetzen dituztela. Beraz, sailkapena modu propositiboan egiten da, esperientzia bakoitzaren ezaugarri nagusien arabera kokapenaren arabera. Helburua, tokiko erakundeek jarduteko dituzten aukerak argiago identifikatzea baita, esperientzia bakoitza sustapen-tresna batean edo bestean zehatz-mehatz kokatzea baino.

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA
EAEn

5.2. TAULA: Tokiko erakundeetatik ESSa sustatzeko esperientzia adierazgarriak EAEn

Garatutako esperientzia	Lurraldea	Eragile sustatzaileak	Azalpen laburra
(1) LANZITUZ	Urola erdia	Iraurgi Berritzen eta ASLE	Ekintzaitza programa (formakuntza, jarraipena eta aholkularitza), nagusiki lan sozietateak sortzea helburu duena.
(2) KOOPFABRIKA	Hasieran Beterri Buruntzaldea; ondoren zabaldu egin da.	Olatukoop, Lanki (MU), Beterri-Buruntza Udalak, Gezki (UPV/EHU), eta Gipuzkoako Foru Aldundia.	Ekintzaitza programa (formakuntza, akonpainamendua eta lurralderatzea), Ekonomia Sozial Eraldatzailearen balioen inguruan dauden ekimen kooperatiboak sustatzea helburu duena.
(3) GETXO	Getxo	Getxolan eta ESSko antolakunde ezberdinak	Getxoko zerbitzu publiko ezberdinak ekoizteko, udalaren eta ESSren artean aurrera eramandako lankidetzaren hitzarmenak.
(4) MICROCRÉDITOS	Hasieran Hernani; ondoren zabaldu da	Euskadiko finantza etikoen elkarte eta lurraldeko mahai soziala (non Hernaniko Udala parte-hartzen duen.)	Interesik gabeko mikrokredituak ematea jendartean baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen aurkeztu parte-hartzaileen bitartez onartutako neurria da eta ESSak ko-ekoiztutako politika da
(5) OÑATIKO UR JAUZIAK	Oñati	Oñatiko Udala eta Goiener	Goiener-en partaidetza OUI enpresa publikoan.
(6) SAN MARCOS	San Marcos Mankomunitatea.	San Marcos Mankomunitatea klausula sozialen bitartez.	Ehunkiak biltzeko zerbitzuaren lizitazioan klausula sozialak barneratuz, ESSa arduratzen da zerbitzu horretaz.
(7) VITORIA-GASTEIZ	Gasteiz	Gasteizko Udala	Erosketa publiko arduratsua aurrera eramateko barne jardunbidea.
(8) KIMU BAT	Urola Erdia	Iraurgi Berritzen eta ASLE	Ohiko enpresa bat (SL) ESSko enpresa bihurtzeko prozesua (SLL)
(9) GOIENER	Goierri	Goieki	Energia berriztagarrien sektorean ESSko kooperatiba bat sortzea garapen agentziaren laguntza eta dionamizazioarekin.
(10) LANERAIN	Debarrena	Debegesa, Kalexka elkarte eta Edukeibar S.L.	Laneratze enpresa baten sorkuntza garapen agentziaren inplikazioarekin.
(11) OARSOTEK/BADIABARRI	Oarsoaldea	Oarsoaldea, Lezoko udala eta Rubitek S.A.	Laneratze enpresa publikoa.
(12) USOA	Barakaldo	Barakaldoko Udala eta Gorabide	Enplegu zentro berezi publikoa.
(13) ITUROLA	Beterri Buruntzaldea (Hernanin kokatuta)	Beterri Buruntza Udalak	Lanerako, topagunerako, sorkuntzarako eta berrikuntza sozialerako gune bat da. Espazio publiko bat kudeaketa komunitarioarekin.

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA
EAEn

(14) EKONOPOLO	Bilbo	REAS Euskadi eta Bilbao Ekintza	ESSren inguruan lan egiten duten hainbat eragilek topo egin eta esperientziak, proiektuak eta baliabideak partekatzeko erreferentzia-espazio bat da. Espazio publiko bat kudeaketa komunitarioarekin.
(15) WORK-LAN	Bilbo	EJko ekonomia sozialeko zuzendaritza eta Bilbo Handiko lanbide heziketako 5 zentro.	Bilbon ESSko proiektuak sustatzea helburu duen elkartea da, ESSan ekintzaitzari laguntzeko ekosistema bat, alegia. Bilbao ekintzatik deribatutako proiektuak ere hartzen ditu.
(16) AZARO FUNDAZIOA-KOOPERATIBEN MAHAIA	Lea Artibai	Azaro Fundazioa eta eskualdeko hainbat kooperatiba	Eskualdean ESSko proiektuak sustatzen ditu orientazioa, aholkularitza eta laguntza finantzarioa eskainiz. Gainera, eskualdean ESSa eta bere balioak zabaltzeko helburua dauka.

Iturria: Arrillaga et. al. (2021)

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA
EAEn

5.3. TAULA: ESSa sustatzeko esperientzia adierazgarrien sailkapena bere izaeraren arabera

ESSko antolakundeei zuzendutako politikak	ESSa sustatzeko lanabesak	Ereduak	Garatutako esperientziak
Eskaintzan oinarritutako politikak (antolakundeeen egituraren gain eragina dutenak)			
Neurri kognitiboak	- ESSaren hedapena, prestakuntza eta ikerketa.	Ekintzaitzarako formakuntza programak	Lan sozietateen sustapena Kooperatibismoaren sustapena
Neurri ekonomikoak	- Aurrekontu-neurriak. - Neurri fiskalak. - Finantza-laguntzarako beste neurri batzuk. - Laguntza teknikoko neurriak.	ESSko antolakundeeekin lankidetzak hitzarmenak	(1) LANZITUZ (2) KOOPFABRIKA (3) GETXO (4) MICROCRÉDITOS
Eskarian oinarritutako politikak (antolakundeen jardueraren gain eragina dutenak)			
- Administrazio Publikoaren hornitzaile izateko neurriak.	Lankidetzak publiko-kooperatiboa	ESSko antolakunde baten parte-hartzea enpresa publiko batean.	(5) OÑATIKO UR JAUZIAK
- Ekonomia Sozialarekin lankidetzak publiko-pribatuak arautzeko eta aplikatzeko neurriak.	Kontratazio publiko arduratsua	Zerbitzu mankomunatuak Udal zerbitzuak	(6) SAN MARCOS (7) VITORIA-GASTEIZ
ESSko enpleguari bideratutako politikak			
ESSko antolakundeen sorkuntza			
Jarduera proaktiboa ESSko ekimen berrietan enplegua sortzeko	Orientazio zerbitzuak	Proiektuak ESSren laguntza zerbitzuetara bideratzea	(8) KIMU BAT
	Dinamizazio eta errazte zerbitzuak	Proiektuen buru izatea eta giza baliabideak eta baliabide fisikoak eskaintzea	(9) GOIENER (10) LANERAIN
	ESSko antolakunde publikoen konstituzioa	Proiektuen buru izatea eta kapital sozialaren %100 finantzatzea	(11) OARSOTEK/BADIABARRI (12) USOA
Egituren sorkuntza ESSko ekintzaitzarako sustatzeko			
Ekipamendu eta azpiegituren lagapena, ESSko ekintzaitzarako programak ezartzeko	Kudeaketa komunitarioko ekipamendu publikoak	Eskualde mailako ekipamenduak Udal mailako ekipamenduak	(13) ITUROLA (14) EKONOPOLO
	Lanbide heziketarako lotutako zentroak	Promozio publikoa Promozio pribatua	(15) WORK-LAN (16) AZARO FUNDAZIOA-KOOPERATIBEN MAHAIA

Iturria: Arrillaga et. al. (2021)

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

Tauletan ikusi dezakegunez, tokiko erakundeen aldetik inplikazio ezberdina duten esperientziak aurkitu ditzakegu. Batzuk, antolakundeak, enplegua edo ekintzaitza sortzeko eta sustatzeko beharrezkoa den orientazioan jartzen dute arreta. Beste batzuk sorkuntza prozesuak dinamizatzen eta errazten dituzte. Bestalde, erosketa edo kontratazio publiko arduratsuaren bitartez kontratu publikoetan klausula sozialak barneratuz, ESSko antolakundeek aurrera eramaten dituzten zerbitzu publikoen esperientziak daude. Baita espazio publikoen lagapenaren bitartez, ESSaren baitan burutzen diren programa eta ekimen ezberdinak aurrera eramateko aukera ematen duten neurriak ere. Kapital ekarpenen aldetik, garapen agentziak sortutako ESSko antolakundeak parte-hartzea, lankidetzak publiko-kooperatiboan oinarrituta ESSko antolakundea enpresa publiko batean barneratzea, edo zuzenean, ESSko forma duen enpresa publikoen sorkuntza aurkitu ditzakegu.

Aldi berean, sorkuntzan erakunde lokalen jokabidea ezberdina izan zen kasu batetik bestera, gutxienez bi zentzutan: i) Batetik, bai ESSaren aldetik edo bai erakunde lokalaren aldetik modu unilateralean aurrera eramandako neurriak antzeman ditzakegu (1, 4, 7, 9,13,15 eta 16). Hau da, hauen sorkuntzan, erakunde sustatzaile baten gidaritza nabarmenagoa dute, hauek tokiko eragileak edo ESSko sare edo antolakundeak izan daitezkeelarik. ii) Bestetik, tokiko garapenereako agentzia eta ESSko sare edo antolakundeen arteko elkarlanaren bitartez sortutako esperientziak daude (2, 8, 10, 12 eta 14).

Tokiko zer behar estali nahi duten ikuspuntutik ere ezberdintasunak aurkitu ditzakegu. Alde batetik, desenpleguari aurre egiten saiatzen diren esperientziak aurkitu daitezke. Bai enplegu orokorra sustatuz (1,2 eta 4), eta baita ere bazterketa egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonen enplegarritasuna sustatuz (10, 11 eta 12). Bestalde, lurraldeko sektore estrategikoak indartu eta lurralde burujabeen bidean kokatu daitezkeen esperientziak aurkitu ditzakegu (9, 10, 11 eta 13). Ikusi dezakegunez, esperientzia batzuk bazterketa egoeran edo horren arriskuan dauden pertsonen laneratzea, sektore estrategikoetan burujabetza berreskuratzearekin lotzen dute aldi berean. Beste esperientzia batzuk aldiz, zerbitzu publikoak kudeatzera bideratzen dira (5 eta 12) kudeaketa publiko-kooperatiboan sakonduz. Azkenik, ESSa bera eta bere balioak lurraldean sustatzea helburu duten esperientziak daude (4, 13, 14, 15 eta 16).

Lurraldeko eragileekin uztartzeko duten moduaren aldetik ere, errealitate ezberdinak aurkitzen dira. Batetik, soilik garapen agentziarekin (edo, bere kasuan,

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

udalarekin) lotura duten esperientziak aurkitu ditzakegu (6, 7 eta 13). Hala ere, esperientzia gehienak bigarren maila batean kokatzen dira, garapen agentzien eta ESSaren arteko lankidetzaren ondorio baitira; nahiz eta harremantzeko erak anitzak izan daitezkeen. Hala nola, lankidetzaz-hitzarmenak, parteneriatu publiko-kooperatiboetan parte hartzea, politika publikoen ko-erakuntza, espazio publikoen kudeaketa komunitarioa, etab. (3,4, 5, 9, 12, 13 eta 14). Hurrengo maila batean, garapen agentziak eta ESSa uztartzeaz gain, heziketa zentroak zein unibertsitatea barneratzen dituzten esperientziak daude (1, 2 eta 15). Eta azkenik, lurralde artikulazio maila handiena duten esperientziak daude. Eragile publikoak, kooperatiboak, enpresa pribatuak, hezkuntzakoak eta beste eragile sozialak inplikatu dituztenak (10 eta 16).

Eta aurrekoarekin lotuta, beste eragile sozial antolatuekin harremantzeko eta mobilizatzeko orduan ere, modu ezberdinak aurkitu ditzakegu. Izan ere, esperientzia batzuk oinarri militante adierazgarria mobilizatzen duten bitartean (2, 9, 10 eta 16), beste batzuk mobilizazio txikiagoa eragiten dute (4 eta 11) edo soilik garapen agentziaren eta ESSaren arteko harremanak jasotzen dituzte (1, 3 eta 6).

Tokiko garapen agentzien eta ESSaren arteko elkarlanaren bitartez sortutako esperientzia adierazgarri hauek ikusi eta gero, ondorioztatu dezakegu ekintzarako espazio zabala dagoela. Izan ere, ESSaren pluraltasunak, politika publikoen anitzasuna eta tokiko agentzietatik aplikatu daitezkeen neurri ezberdinek, ESSan oinarritutako tokiko garapenerako eredu baterako zelai zabala osatzen dute; eta beraz, borondatea dela funtsezkoa horrelako tokiko garapena sustatzeko. Hau da, batetik, bigarren belaunaldiko esku-hartze publikoa garatzea interesgarria litzateke: proaktiboagoa eta behetik gorako politika publikoen ko-ekoizpenaren bitartez, ikuspegi holistikoarekin, eragile ezberdinen arteko interakzioan oinarrituta eta zeharkako izaera dutenak (Chaves, 2019). Eta bestetik, tokiko garapen agentziak izan daitezkeela ESSa tokiko garapenerako estrategietan barneratzen dituztenak. Izan ere, ESSa sustatzeko politika publikoen azken urteetako bilakaerak, politika publikoari ekiteko modu berri bat eragin du non ikuspegi integralagoa eta integratzaileagoa jorratzeaz gain, lurralde-lotura handiagoa erakusten duen. Hortaz, ESSa sustatzeko politika publikoen eta tokiko garapenerako prozesuak artikulatzeko eginkizuna duten eragileen arteko konbergentzia dela eta, esparru horien arteko elkarriketa handiagoa eta ekintza koordinatuagoa izatea zeregin garrantzitsua bihurtzen da.

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

Dena den, dagoeneko azaldu dugun moduan, gure asmoa tesi honetan ez da politika publiko edo neurri konkretuetan arreta jartzea, baizik eta ESSan eta bere balioetan oinarritutako tokiko garapen eredu baten inguruan hausnartzea, eta ildo horretako tokiko garapenerako eredu eraldatzaile baterako pausoak argitzen lagundu. Horregatik, hurrengo kapituluan, EAEn horrelako tokiko garapen eredu baterako espaziorik dagoen aztertuko dugu, marko teorikoan garatutako harreman teorikoez gain, orain ikusi ditugun esperientzia hauek guztiak bide horretan dagoeneko kokatu diren eskualdeak daudela baieztatzeko argumentu enpirikoak ematen dizkigutelarik.

Kapitulu honekin bukatu baino lehen, aipamen berezia egin nahi zaie dagoeneko aipatu ditugun ESSa sustatzeko erakunde lurralderatu berezi batzuei. Lehenago esan dugunez, badira Garapenetik kanpo dauden garapen agentziak, eta horietako batzuk, ekimen kooperatibo ezberdinei lotuta sortutako erakundeak dira. Zehazki, Azaro Fundazioa Lea-Artibain, Work-Lan Bilbo Handian, SaioLan Debagoienan eta BDS eraldaketa fabrika Behe Bidasoan dira (Azaro Fundazioa eta Work-lan GEZKiko txostenean jasota daude 15. eta 16. esperientzietan). Hauek, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako zuzendaritzaren babesa eta finantzaketarekin jarduten dute, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren 2002ko abenduaren 11ko Aginduaren aginduaz geroztik.

Bestelako garapen agentziak bezala, bakoitzak bere ezaugarri, lan ildo eta zerbitzu propioak dauka eta tamainaren aldetik ere dimentsio ezberdina daukate. Hala ere, hirurek partekatzen dute ekimen kooperatibo baten bultzadatik sortzen direla, tokiko hezkuntza zentroekiko lotura handia erakusten dutela (hiru kasuetan hezkuntza zentro hauek hezkuntza kooperatibak dira eta hauek dira erakunde hauen sorkuntzaren atzetik egon ziren ekimen kooperatibo nagusienak) eta helburu gisa ESSko enpresak sortu eta laguntza ematea eta ESSaren balioak zabaltzea dutela. Erakunde hauek beraz, ohiko garapen agentziek eskaintzen dituzten zerbitzu batzuk eskaintzen dituzte ESSko ekimenak sortzeko (Edo, ahal denean ESSko ekimenak sortzeko. Izan ere, erakunde hauetako batzuk ez dira mugatzen ESSko antolakundeak sustatzera, nahiz eta lehentasuna ematen dioten). Dena dela, laurak elkarbizitzen dute euren eskualdeetan beste tokiko garapen agentzia batekin, eta lau kasuetan haien arteko elkarlana aurrera eramaten dute. Laburbilduz, ESSa giltzarri duten eta zeharka lantzen duten tokiko eragileak dira, tokiko garapen ekonomikoan eragiten dutenak ESSaren ikuspuntutik eta euren eskualdeetan tokiko ekosistema kooperatiboak sortzen saiatzen direnak.

5. KAPITULUA: TOKIKO GARAPENAREN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN TESTUINGURUA EAEn

Azkenik, eskualde batzuetan dauden kooperatiben elkartze edo elkargoak aipatu behar dira. Elkartze hauek forma ezberdinak izan ditzakete (elkartek, fundazioak etab.) eta eskualde bateko kooperatiba ezberdinak biltzen dituzte eredu kooperatiboa zabaltzeko helburu nagusiarekin; balioak zabalduz eta ekintzaile kolektiboei eta kooperatiba berriei laguntza eskainiz. Horrez gain, eskualde bakoitzeko errealitateari egokitutako beste helburu batzuk izan ditzakete. Horrela, elkartze hauetako batzuk izaera industrialagoa dute eta berrikuntzari eta arlo teknologikoei garrantzi handiagoa ematen diote eta beste batzuk izaera dibertsifikatuagoa daukate eta ez dira sektore batean edo gutxi batzuetan zentratzen.

6. KAPITULUA: LANDA LANAREN EMAITZAK

6.1 Landa lanaren inguruko ohar metodologikoak:

Kapitulu honetan aurkezten dugun ikerketa enpirikoak, tesian zehar teorikoki landutakoa EAEko tokiko garapenean aplikagarria ote den aztertzea du helburu nagusia. Hots, EAEko eskualde ezberdinetan ESSan eta bere balioetan oinarritutako tokiko garapen ereduak sustatzea posiblea ote diren aztertzea, hain zuzen ere. Izan ere, aurreko kapituluan ikusi dugun moduan, bai tokiko garapen agentziak eta baita ere ESSak garapen esanguratsua izan dute EAEn. Hala ere, orain arte, ez da bi mundu hauen arteko jarraitutako elkarlanik eman, edo, behintzat, eman baldin bada, hau ez da gehiegi ikusarazi. Dena den, ikusi dugunez, badira han eta hemen elkarlanerako aukera eta borondatea dagoela erakusten diguten esperientzia ezberdinak. Gainera, gure ikerketa objektua prozesu izaera izanik, pixkanaka ESSa tokiko garapenerako prozesuetan barneratzen ari dela baieztatu dezakegu. Nahiz eta kontrastatzeko gelditzen zaigun hori zenbateraino iristen ote den eta politika publiko puntualak baino, ESSa modu orokortuan lantzen den edo lantzeko asmoa dagoen tokiko eragileen partetik.

Lan honetarako, bi tresna metodologiko nagusi erabili dira. Batetik, Garapen-en bilduta dauden garapen agentzia guztiei galdera itxien bidezko inkesta bana igorri zaie. Inkestaren helburua, EAEko argazki ahalik eta osatuena lortzea da. Orain arte zein

garapen agentziek gaia landu duten, lantzeko asmoa duten, interesgarria iruditzen zaien, potentziala duen edo ez iruditzen zain etab. jakiteko.

Bigarren urrats batean, elkarrizketa sakon irekiak burutu dira EAEn jarduten duten tokiko garapen agentzia eta ESSko eragile esanguratsuenekin. Elkarrizketen helburua, oro har, EAEn ESSan oinarritutako garapen eredu bat planteatzea posiblea ote den sakonean aztertzea izan da. Horretarako, EAEko tokiko garapenaren eta ESSko eragile ezberdinek euren ikuspuntu pertsonaletik erantzun diote galderei. Horrez gain, gaian adituak diren hiru pertsonen ekarpenak jaso dira, ikuspegi eta hausnarketa orokorrago eskaini diotenak ikerketa honi.

Antzeman daitekeenez, ikerketaren izaeraren aldetik nagusiki kualitatiboa izango da. Izan ere, gure ikerketarako funtsezko galderari erantzuteko, izaera honetako ikerketa beharrezkoa dela kontsideratu dugu. Ikuspegi kualitatiboak subjektibotasunerako aukera ematen digu, eta beraz, eragile bakoitzaren ikuspegi eta hausnarketa propioak jasotzeko aukera handiagoa ematen digula uste dugu. Hau da, errealitate edo proposamen berdinen aurrean, ikerketa kuantitatibo batek eskainiko ez ligukeen ikuspegi eta hausnarketa ezberdinak jasotzeko aukera ematen digu. Gainera, gure gaiaren dentsitate sinbolikoagatik, ikerketa kuantitatibo batek garrantzi handiko elementu ugari analisitik kanpo uzteko arriskua ekar dezakela uste dugu. Hots, ESSak lurralde batean duen inplantazioa modu kuantitatiboan neurtu daitekeen arren, gure ikerketan, ESSaren errotzea, lurraldearen egunerokotasunean zabaldu ditzakeen balioak eta eragin ditzakeen aldaketa instituzionalak bezalako elementuak ikertu nahi izan dira; eta hauek, modu kuantitatiboan neurtzekotan, irakurketa ezberdinak analisitik kanpo gelditu daitezke. Horrez gain, ikerketa kualitatiboarekin, eragileetatik eta hauek aurrera eramandako esperientzietatik hurbilago egoteko aukera ematen digu. Hau da, gure ikerketaren bitartez, estatistika bat sortzea baino, eragileek errealitate honi ematen dioten esanahien narrazioaren azterketa egitea izan da gure helburua, eta ondorioz, izaera kualitatiboa duen ikerketa aurrera eramatearen arrazoi nagusia.

Honekin guztiarekin ez dugu esan nahi, noski, gai honen inguruko edozein azterketa kualitatiboa izan behar denik, osagai kuantitatiboagoa daukaten ekarpenak (aldagai ekonomikoak, auditoretza soziala edo proiektuen memoriak, kasu) ere ezinbestekoak dira tokiko garapenaren eta ESSaren inguruko azterketak egiteko.

Bestalde, iturrien jatorriari dagokionez, aurreko kapituluak ez bezala, kapitulu honetarako bildutako datu guztiak zuzenak edo lehen mailakoak izango dira. Hots,

ikertzaileak berak ikerketa honetarako jasotako datuak, alegia. Horretarako, arestian aipatu ditugun inkestak eta sakoneko elkarrizketa pertsonalak erabili izan direlarik.

6.1.1 Inkesten egituraketa:

Esan bezala, ikerketa enpiriko honetarako lehenengo tresna metodologikoa inkesta bat izan da (1go eranskinean jasota). Inkesta hau, Garapen Agentzien Euskal Elkartean (Garapen) elkartuta dauden garapen agentzia guztiei igorri zaie (5. Kapituluko 5.1 taulan agertzen direnak, hain zuzen ere). Inkestak Garapenen elkartuta dauden garapen agentziei mugatu dira, hauek EAEko tokiko garapen ekonomiakoan eragiten duten eskualde sare nagusiak direlako, eskualdeko eragileen arteko lankidetzaz errazten dutelako, eta, batez ere, enpresen inplikazioan oinarritzen diren arren, beste eragile batzuk ere inplikatzen dituztelako (Zurbano eta Larrea, 2010). Eta beraz, garapena artikulatzeko oinarritzko tokiko eragile gisa kontsideratu ditugulako. Garapenetik kanpo dauden tokiko garapenerako eragileak ez dira barneratu, multzo heterogeneoegia osatzen dutelako eta garapen agentzia gisa definitzeko zailtasunak agertzen direlako. Izan ere, tokiko garapenean eragiten duten erakundeak izan daitezkeen arren, garapen agentzia gisa definituta ez egonda, udal bereko departamentu ezberdinak barneratu beharko genituzke (adibidez promozio ekonomikoa, enplegua eta zerbitzu sozialak), bakoitzak bere ikuspegia izan dazakelarik. Gainera, ia EAEko eskualde edo/eta udalen osotasunean jarduten du Garapenen bilduta dagoen garapen agentziaren bat, hortaz, garapen agentzia hauetako guztiei inkesta bana igorritz, EAEko errealitatearen argazki fidagarri bat lortu daiteke.

Bestalde, aurreko kapituluan azaldu ditugun ekimen kooperatibo baten bultzadaz sortutako garapenerako erakundeak inkestetatik kanpo utzi ditugu, inkesten helburu nagusiak garapen agentziek ESSarekiko duten ezagutza eta jarrera ezagutzea delako, eta azken hauek, argi dago, ezagutza maila altua eta jarrera proaktiboa daukate, bertatik sortuak izan direlako. Hala ere, aurrerago ikusiko dugun moduan, sakoneko elkarrizketak egiteko bai izan ditugula kontuan, tokiko garapenerako eragile gisa eta ESSaren bultzadatik sortutako eragile gisa, ESSan oinarritutako tokiko garapen ereduak sustatzeko ekarpen interesgarriak egin ditzaketelako.

Inkestaren izaeraren aldetik ez da luzeegia izan; inkesta betetzeko gehienez ere 10 minutu inguru behar direla estimatu dugu. Arrazoiak, batetik, inkesta bakoitzetik ahalik eta informazio baliagarri gehiena bildu ahal izatea, eta bestetik, hartutako laginetik (Garapenen bilduta dauden garapen agentzia guztiak) ahalik eta inkesta gehien

beteta jasotzea. Izan ere, laburregia balitz ikerketarako behar dugun informazio guztia ez hartzeko arriskua dagoen bitartean, luzeegia izanda, eragileek inkesta ez erantzuteko arriskua dago. Bestalde, inkestak galdera itxien bidezko galdetegiaren izaera hartu du, eta erantzunak, oro har, “X” baten edo batzuen bitartez aukeratu behar izan dituzte galdera bakoitzean emandakoetatik. Inkestak egiteko encuestafacil¹⁰⁴ webgunea erabili izan da.

Inkestaren egituraketari dagokionez, hasierako bloke batean (zero blokea) eta beste 3 blokeetan banatu dira galderak. Zero blokeak, garapen agentzia identifikatzeko galderak biltzen ditu. Garapen agentziaren izena, eragin eremua, sortze urtea, izaera juridikoa, jorratzen dituen lan ildoak eta eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko galderak dituen. Lehenengo blokean, jorratzen dituzten lan ildo estrategikoen inguruko galderak biltzen dira. Hala nola eskualdearen arazo nagusienak, lehentasun handiagoa duten lan ildoak eta tokiko beste eragileekiko harremanak. Zero eta lehenengo bloke hauen helburua, garapen agentzia bakoitzaren izaera eta egoera orokorra ezagutzea izan da. Gainera, tokiko garapenaren alderdi orokorren inguruko alderaketa egitea ahalbidetzen digu garapen agentzien artean.

Bigarren blokean, ESSaren inguruan garapen agentziek daukaten ezagutzari buruz galdetu da. Adibidez, ESSaren inguruko formakuntza saioak jaso ote duten, zein ezagutza maila duten, ESSko antolakundearen izaera, ESSaren helburua eta euren garapen agentziaren eta ESSko sare ezberdinen arteko elkarlanik burutu ote duten. Bloke honen helburua, argi dago, EAEko garapen agentziek ESSaren inguruko ezagutza maila neurtzea izan da. Izan ere, ESSan oinarritutako tokiko garapen estrategiak planteatzea bada helburua, lehendabizi, ESSak zer eskaintzen duen jakin beharra dago.

Azkenik, hirugarren blokeak, ESSa eta tokiko garapenaren inguruko galderak jasotzen ditu. Bloke luzeena da eta ESSak tokiko garapenari egiten dizkion ekarpenak, garapen agentzia bakoitzean ESSa sustatzeko ezagutzen dituzten, aurrera eramaten dituzten edo eramateko prest dauden neurri konkretuak, garapen agentzietan ESSa modu transbertsalean lantzeko aukera etab. bezalako gai buruz galdetu da. Bloke honen helburua, EAEko garapen agentziek ESSarekiko jarrera ezagutzea eta gure gaiaren inguruko argazki osatuena lortzea izan da.

¹⁰⁴ www.encuestafacil.com

Inkestak, lehen aldiz 2021eko otsailaren 15ean bidali ziren. Ondoren, erantzundako inkestak erdira heltzen ez zirenez, otsailaren 22an berriz bidali ziren erantzun ez zuten garapen agentziei. Ordutik, erantzun kopurua nabarmen hazi egin zen eta, oro har, erantzun kopuru egokia jaso dugula kontsideratzen dugu (34 garapen agentzietatik 26 erantzun jaso ditugu, laginaren %76,5a, hain zuzen ere). Izan ere, 26 euskal garapen agentziak ESSari buruzko inkesta betetzeko prestutasuna erakutsi dute, eta hori aurrerapauso interesgarria kontsideratzen dugu bi eragile-multzo horien arteko etorkizuneko harremanak sakontzeko. Hala ere, esan beharra dago, inkesta batzuk bukatugabeak daudela. Hauek (4 garapen agentzia), galderen 1go eta 2. blokeak bete dituzte eta ondoren 3. blokea erantzuterakoan, eta batez ere, 4. blokea erantzuterakoan hutsik utzi dituzte erantzunak. Arrazoi posibleena ESSaren inguruko ezagutza edo/eta lanketa eza izan daiteke. Dena dela, ezagutza eza eta garapen agentzietatik ESSa landu ez izana inkesten erantzun posibleen artean agertzen zirenez, ez ditugu horrela kontsideratuko, eta besterik gabe, erantzun gabeko galderak bezala utziko ditugu.

Jasotako erantzunak honela sailkatu ditzakegu: Gipuzkoako 11 garapen agentzietatik 9 erantzun (%81,8a). Bizkaiko 19 garapen agentzietatik 14 erantzun (%73,7a). Eta Arabako 4 garapen agentzietatik 3 erantzun (%75a).

6.1.2 Sakoneko elkarrizketen egituraketa:

Landa lanerako erabilitako bigarren tresna metodologikoa, sakoneko elkarrizketak izan dira. Kasu honetan, 14 elkarrizketa burutu dira. 6 EAEko garapen agentzia edo tokiko eragileei¹⁰⁵, 5 EAEn jarduten duten ESSko sareei¹⁰⁶ eta 3 gaian adituak diren pertsoneri. Elkarrizketak modu erdiegituratu aurrera eramanez dira, hots, gidoi orokor bat jarraitu izan da, baina malgutasunez eta modu irekian egin dira, elkarrizketatuak nahi beste zabaldu ahal izateko. Modu honetan, elkarrizketatu bakoitzari bere ikuspegia, hausnarketak eta diskurtsoa garatzeko aukera ematen dioten galdera orokorrak egin zaizkio.

¹⁰⁵ Zehaztuko denez, “garapen agentzia” bezala egin ditugun elkarrizketak Garapen-en bilduta dauden garapen agentziak gaintzen du. Hau da, “garapen agentzia” bezala, garapen agentzia publikoek gain, ESSaren ekimenez sortutako tokiko eragileak (azalduta daudenak aurreko kapituluan) ere barneratu izan dira. Orotara, 4 garapen agentzia publiko eta ESSaren ekimenez sortutako 2 tokiko eragile elkarrizketatu dira.

¹⁰⁶ Irakurleak antzemango duenez, ESSko sareei egindako elkarrizketen artean Gizatea (EAEko laneratzen enpresen elkarte) falta da. Izan ere, ezinezkoa izan da, elkarrizketatuaren agenda kontuengatik eta Covid-19aren testuingurua dela eta elkarrizketa bat burutu.

Inkestez gain elkarrizketa pertsonalak egiteko erabakia, tresna honek eskaini ditzakeen bestelako onuretatik eratorzen da. Izan ere, pertzepzioak, ikuspegiak, diskurtsoak etab. hain garrantzitsuak diren gai honetan, sakoneko elkarrizketa pertsonalak egitera behartu gaitu. Hots, inkesten bitartez argazki orokorra jasotzeaz gain, gaiak errealitatearekiko hurbiltasun handiagoa eskatzen zuela kontsideratu genuen. Modu honetan gainera, inkesten zurruntasuna hausten da, galderak irekitzen direlako. Beraz, sakoneko elkarrizketen helburu nagusia, EAEko tokiko garapenaren eta ESSaren diskurtsoaren analisisa egitea izan da, ESSan oinarritutako tokiko garapenerako estrategia bati begira.

Elkarrizketen egituraketari dagokionez, 3 gidoi ezberdin sortu izan dira eragile multzo bakoitzerako. Hots, gidoi bat garapen agentzietarako (2.1 eranskina), beste gidoi bat ESSko eragileentzako (2.2 eranskina) eta azken gidoi bat adituentzako (2.3 eranskina). Hala ere, gidoien egituraketa oso antzekoak izan dira, bloke berdinak jorratzen dituzte eta bakarrik galdera gutxi batzuk aldatzen dira eragile multzo batetik bestera.

Esan bezala, bloke berdinak jarraitu dituzte elkarrizketa guztiak: 1. blokea: Gaur egungo testuingurua, ESSa eta lurraldea. 2. blokea: Garapen estrategia, ESSa sustatzeko politikak eta harreman instituzionalak. Eta 3. blokea: ESSan oinarritutako garapen estrategia baten inguruko hausnarketak. Hala ere, garapen agentziei elkarrizketaren hasieran kokatutako beste bloke bat gehiago gehitu behar zaie: 0. blokea, ESSaren inguruko iritzi orokorrari buruz. Hasierako bloke bereiztu honen arrazoia, inkestaren 2. blokea sortzeko berdina izan da. Hots, antzeman delako eragile hauetako batzuk duten ESSaren inguruan duten ezagutza mugatua dela, eta ESSa soilik kooperatibetara (enplegua sortu eta ekonomia suspertu eta dinamizatu dezakeen beste enpresa mota bat bezala) edo laneratze enpresak bezalako antolakundeetara (bazterketa sozialean edo horren arriskuan dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzen duten antolakundeak bezala) mugatzen dutela.

Bestalde, elkarrizketa guztiek partekatzen duten 1go, 2. eta 3. blokeei begira, gure tesiaren helburuak betetzeko koherentzia jarraitzen duten blokeak dira. Hala ere, esan bezala, nahiz eta hiru blokeak errespetatu diren elkarrizketatutako eragile multzo bakoitzerako, blokeen barnean zeuden galdera konkretu batzuk ezberdinak ziren kasu bakoitzean. Adibidez, 1go blokean, garapen agentziei globalizazioak lurraldeetan iza(te)n (ari) duen eraginari buruz galdetu den bitartean, ESSko eragileei,

globalizazioaren eraginez ESSko antolakundeetan emandako eraldaketei buruz galdetu izan da. Honen arrazoia, bistan da, bakoitza bere esparrutik erantzutea ahalbidetzea izan da, pixkanaka, 3. blokean ESSan oinarritutako tokiko garapen estrategia bati buruzko galderen inguruan bat egiteko. Aldiz, adituen taldeei galdera guztiak egin zaizkie. Hurrengo taulan, bloke bakoitzean galdetutakoaren sintesi bat agertzen da:

6.1. TAULA: Elkarrizketetan jorratutako gai nagusiak

Blokea	Garapen Agentziak	ESSko eragileak	Adituak
0 blokean jorratutako gai orokorrak	- Zer da/ nola ulertzen da ESSa? -ESSaren balioak		
1go blokean jorratutako gai orokorrak	- Lurraldea eta globalizazioa - Tokiko garapenaren etorkizuna - ESSko antolakundeen errotzea lurraldera	- ESSko antolakundeak eta globalizazioa - ESSa etorkinueko tokiko garapenean - ESSko antolakundeen errotzea lurraldera	- Lurraldea, ESSa eta globalizazioa - Tokiko garapenaren etorkizuna eta ESSa - ESSko antolakundeen errotzea lurraldera
2. blokean jorratutako gai orokorrak	- ESSa eta tokiko garapena - ESSa sustatzeko politika publikoak - Gobernantza zabala - Garapen-en eginkizuna	- ESSaren onurak tokiko garapenari - Garapen agentzien garrantzia eta hauekiko elkarlana - ESSa lurralde gobernantzan	- ESSaren onurak eta garapen estrategian bat egitea - Garapen agentzien garrantzia eta ESSa sustatzeko politika publikoak - Lurralde gobernantza eta ESSa
3. blokean jorratutako gai orokorrak	- ESSaren lanketa garapen agentzietan - ESSaren potentziala eta transbertsalitatea - Garapen ereduaren ikuspegia eta mugak	- ESSaren lanketa garapen agentzietan - ESSaren potentziala eta transbertsalitatea - Garapen ereduaren ikuspegia eta mugak	- ESSaren lanketa garapen agentzietan - ESSaren potentziala eta transbertsalitatea - Garapen ereduaren ikuspegia eta mugak - ESSan oinarritutako egunerketasunaren instituzionalizazioa

Iturria: Egileak egina

Elkarrizketatuak zehazteko orduan, hurrengo irizpideak jarraitu izan dira:

- Garapen agentziak (6 guztira):
 - EAEko eskualde edo udal batean eragitea. Hau oinarritzko baldintza da, ikerketa EAera mugatu baitugu.
 - ESSarekiko elkarlan puntuala edo jarraitua baina adierazgarria aurrera eramán izana.

- Aurreko baldintzak beteta, ahalik eta aniztasun handiagoa lortzea eskualdearen sistema produktiboari dagokionez, ESSko enplegu kopuruari, enpleguaren pisu espezifikoari dagokionez, ESSko antolakunde kopuruari dagokionez, garapen agentziaren sorkuntza etapari dagokionez, lurralde historikoari dagokionez etab.
- ESSko eragileak (5 guztira):
 - EAEn eragiten duen ESSko sarea izatea. Hau oinarrizko baldintza da, ikerketa EAera mugatu baitugu.
 - Tokiko garapenarekiko harremana erakustea edo elkarlanerako prestutasuna erakutsi izana.
- Adituak (3 guztira):
 - Adituen elkarrizketetarako, gaiaren osotasunean edo gaiaren alderdi esanguratsu batean erreferentziazko adituak izatea. Betiere haien oinarrizko diziplinaz gain (tokiko garapena edo ESSa), bestean ere ezagupen maila handia izanik.

Zehaztutako irizpide hauekin, hurrengo taula osatu da. Bertan, elkarrizketatu diren eragile eta adituak agertzen dira bakoitza hautatzeko jarraitutako arrazoiekin:

6.2. TAULA: Elkarrizketatuak eta hauek zehazteko arrazoiak

TOKIKO GARAPEN AGENTZIAK					
<i>Kodea testuan</i>	<i>Garapen Agentzia</i>	<i>Eragin eremua</i>	<i>Sortze urtea</i>	<i>Arrazoia(k)</i>	<i>Elkarrizketaren gidoia</i>
A1	Goieki	Goierri	1993	Goier S.Coop-en sorkuntzan lagundu izana/ Sistema produktibo Marshallianoa/ ESSko enpleguaren pisu erlatibo handia (%8,3-%12,1)/ ESSko enplegu kopuru handia (8.264-10.780)	Eranskina 1
A2	Azaro Fundazioa	Lea-Artibai	2002	Kooperatiben Mahaia/ ESSko enpleguaren pisu erlatibo handia (%8,3-%12,1)	Eranskina 1
A3	Beterri Buruntza Udalak	Beterri Buruntza	2017	Iturola, Koopfabrika/ Urbanizazio ekonomiak/ ESSko antolakunde kopuru oso handia (432-778)/ ESSko enplegu kopuru oso handia (10.780-13.296) ¹⁰⁷	Eranskina 1
A4	Bilbao Ekintza	Bilbo	1991	Ekonopolo / Urbanizazio ekonomiak/ Antolakunde kopuru oso handia (432-778) ¹⁰⁸	Eranskina 1
A5	GetxoLan	Getxo	1996	ESSko antolakundeekin hitzarmenak/ Urbanizazio ekonomiak/ Antolakunde kopuru oso handia (432-778) ¹⁰⁹	Eranskina 1
A6	Debagoiena 2030	Debagoiena		Kooperatibismoaren instituzionalizazioa, MCC/ Sistema produktibo zentralizatu/ ESSko enpleguaren pisu erlatibo oso handia (%12,1-%48,5)/ ESSko enplegu kopuru oso handia (10.780-13.296)	Eranskina 1

¹⁰⁷ Donostialdearen datuak.¹⁰⁸ Bilbo handia eskualdearen datuak.¹⁰⁹ Bilbo handia eskualdearen datuak.

6. KAPITULUA: LANDA LANAREN EMAITZAK

ESSKO ERAGILEAK				
<i>Kodea</i>	<i>Eragilea</i>	<i>Eragin eremua</i>	<i>Arrazoia</i>	<i>Elkarrizketaren gidoia</i>
<i>testuan</i>				
B1	Konfekoop	EAE	EAEko ESSko sarerik handiena. Koooperatiben konfederazioa	Eranskina 2
B2	REAS Euskadi	EAE	Ekonomia solidarioaren sarea, tokiko garapenerako proposamenak garatzen dituzte.	Eranskina 2
B3	Olatukoop	EAE	Ekonomia Sozial Eraldatzailearen sarea. Udalgintza eraldatzailean aritutakoak eta lankidetzak harremanak garapen agentziekin.	Eranskina 2
B4	ASLE	EAE	Lan-sozietateen sarea. Lankidetzak garapen agentziekin.	Eranskina 2
B5	EHLABE	EAE	Enplegu zentro berezien sarea. Lankidetzak harreman ugari tokiko erakundeekin	Eranskina 2
ADITUAK				
<i>Kodea</i>	<i>Izena</i>	<i>Kargua</i>	<i>Arrazoia</i>	<i>Elkarrizketaren gidoia</i>
<i>testuan</i>				
C1	Jokin Diaz	EJko Gizarte Ekonomiako zuzendaritza	EAEko ESSko enplegu eta ekintzailtzan aditua	Eranskina 3
C2	Rafael Chaves	Irakaslea Universitat de València	ESSa sustatzeko erakunde lokalek abiatutako politika publikoetan aditua	Eranskina 3
C3	Jordi García Jané	Koooperatibista L'apostrof	ESSa sustatzeko politka publikoetan eta tokiko garapenerako eredu eraldatzaileetan aditua	Eranskina 3

Iturria: Egileak egina. Eskualdeen datu kuantitatiboak (OVES-GEEB, 2020)

Elkarrizketa gehienak 2021eko martxoan eta apirilean zehar egin ziren. Covid-19aren egoera dela eta, eta agenden bateragarritasuna errazteko, formatu telematikoan burutu ziren. Elkarrizketen gainean lan egin ahal izateko, elkarrizketak grabatu ziren. Grabazio horiek, tesi honen 3. eranskinean aurkitu daitezkeen esteka baten bitartez eskuratu daitezke. Hala ere, esteka hau tesiaren epaiketa tribunalak entzun nahi izatekotan atxikitzen da bakarrik, eta bere zabalpena debekatuta dago pribatutasun arrazoiengatik. Horregatik, tesia behin ebaluatuta denean, estekan dauden edukiak ezabatuko dira.


6.2 Landa lanaren emaitzak (I): Inkestaren emaitza orokorrak

Arestian aipatu dugun moduan, 34 garapen agentzietako laginetik, 26k erantzun dute osorik edo ia osorik (%76,5a hain zuzen ere) bidalitako inkesta. Atal honetan, inkesten analisik lortu daitezkeen emaitza orokor eta esanguratsuenak aztertuko ditugu.

6.2.1 0 Blokearen emaitzak. Garapen agentzien inguruko datu orokorrak:

Eragin eremuari dagokionez, nahiko sailkapen pertsua aurkitzen dugu eskualde mailan eta udal mailan eragiten duten garapen agentzien artean. Garapen agentzien %50a eskualde batean eragiten dute eta %46a udal mailako garapen agentziak baitira. %100era heltzeko falta den %4a, nagusiki udal batean baina ondoko beste udalerrri batean ere eragiten duen agentzia bat osatzen du.

1. GRAFIKOA: EAEko garapen agentziak bere eragin eremuaren arabera




Iturria: Egileak egina.

Bestalde, egituraketari dagokionez, %31a sozietate anonimoaren izaera hartzen dute, %15a sozietate mugatuarena eta %23a udalaren egituraren barneko

departamentuak dira. Falta den %31a, nagusiki mankomunitateak eta udalen arteko kooperazio hitzarmenak osatzen dute.


2. GRAFIKOA: EAeko garapen agentziak bere izaera juridikoaren arabera



Iturria: Egileak egina.

Garapen agentziek jorratzen dituzten lan ildoei dagokienez, hiru nabarmentzen dira besteen artean. Izan ere, garapen agentzien % 100a ekintzailletza, %96a tokiko egitura produktiboa, enpresa-sareak eta/edo enpresa-lehiakortasuna eta %88a enplegua jorratzen dituzte. Hurrengo grafikoan, garapen agentziek dituzten lan ildoak agertzen dira, eta bakoitzean, hauek jorratzen dituzten garapen agentzien ehunekoa.

3. GRAFIKOA: EAeko garapen agentziek jorratzen dituzten arlo nagusiak




Iturria: Egileak egina.

“Beste batzuk” erantzun dutenen artean hirigintza, mugikortasuna, zerbitzu sozialak, hezkuntza, auzoak eta hiri-garapena eta migrazioa eta aniztasuna bezalako arloak aurkitu ditzakegu.

Eta hasierako bloke honekin bukatzeko, eskaintzen dituzten zerbitzu konkretuei dagokienez, lau nagusitzen dira besteren artean. Lau zerbitzu hauek, garapen agentzien %90a baino gehiago eskaintzen dituzte eta hurrengoak dira: Formakuntza (%100), ekintzaileentzako zerbitzuak (%100), enpresentzako zerbitzuak (%96) eta laguntzak eta diru-laguntzen inguruko informazioa eta/edo tramitazioa (%92). Hala ere, lan orientazioa eta/edo bitartekotza (%82), turismoaren sustapena (%65), tokiko merkataritzaren sustapena eta dinamizazioa (%65) eta lurralde edo/eta sektore ekonomikoen diagnostikoak eta planifikazio estrategikoak (%62) ere emaitza esanguratsuak lortu dituzte, garapen agentzien %60a baino gehiago eskaintzen baitituzte zerbitzu hauek. Hurrengo grafikoak garapen agentzietatik aurrera eramaten diren zerbitzuak erakusten ditu:

4. GRAFIKOA: EAEko garapen agentziek eskaintzen dituzten zerbitzuak



Iturria: Egileak egina.

Kasu honetan, “beste batzuk” emaitzaren barnean azpimarratu daitezke hiria eta industria biziberritzeko proiektuak, etxebizitzak zaharberritzeko informazioa eta aholkularitza, kontsumitzaile bulegoa, agroekologian oinarritutako proiektuen garapena, eskualdeko plan energetikoa eta berrikuntza proiektuak aurrera eramaten dituzten tokiko hezkuntza zentroyen beharrak asetzea, besteak beste. Hala ere, hemen ESSa oinarri duten inklusio-politika aktiboak garatzea, ESSko sareak sustatzea eta enpresentzako gizarte- eta lurralde-erantzukizuna lantzeko aholkularitza bezalako

zerbitzuak eskaintzen dituen garapen agentzia bat azpimarratu beharra dago, gure gaiarekiko duen lotura estuagatik (Beterri-Buruntza udalak).


Oro har, esan genezake gure inkestaren emaitza hauek bat egiten dutela neurri handi batean Gainza eta Unceta-k (2011) jasotzen duten lan ildo ohikoekin: enplegua sortzea, ekintzailtza sustatzea eta enpresentzako zerbitzuak eskaintzea. Nahiz eta gure kasuan formakuntza ere garapen agentzia guztiek lantzen duten esparrua bezala agertzen zaigun.

6.2.2 1go Blokearen emaitzak. Garapen Agentzien lan ildo estrategikoen ingurukoak:

1go blokearen lehenengo galderan, eskualdeen arazoen inguruan galdetzen zen. Kasu honetan, nahiko erantzun ezberdinak agertzen dira, hala ere, arazo handiena bezala gehien errepikatzen dena “desenplegua” da (garapen agentzien %31ak lehenengo postuan jarri dute, %12k bigarren postuan eta %8k hirugarren postuan). Bestalde, nahiko esanguratsuak dira ere “enpleguaren kalitatea eta lan baldintzak”, “tokiko merkataritzaren dinamismoa”, “tokiko enpresen lehiakortasuna” eta “jarduera ekonomiko eskasa”. Kasu hauetan, nahiz eta arazo larrienak bezala ez kontsideratu, bigarren edo hirugarren arazo larrienak bezala kontsideratu dituzten garapen agentziak asko dira. “Enpleguaren kalitatea eta lan baldintzak” lehenengo hiru arazo larrien artean kokatu dituzten agentziak %46a izan dira, “tokiko merkataritzaren dinamismoa” %38a, “enpresen lehiakortasuna” %35a eta “jarduera ekonomiko eskasa” %30a, hain zuzen ere.

Aldiz, arazo txikienak bezala eskaintza soziokulturala eta turismoaren promozioa agertzen zaizkigu batez ere. Hurrengo grafikoan, eskualdeetako arazo nagusienak biltzen dira. Grafiko hau eraikitzeko, balioak eman dizkiegu erantzun ezberdinei. Horrela, garapen agentzia bakoitzak hartutako lehenengo arazoari 7 puntu eman diogu, bigarrenari 6 puntu eta arazo txikienari puntu 1. Horrela, grafikoa modu honetan gelditzen da:


5. GRAFIKOA: EAEko eskualdeetako arazo sozioekonomiko garrantzitsuenak garapen agentzien arabera



Iturria: Egileak egina.

Emitza hauek harreman estua erakusten dute garapen agentzietan lehentasun handiena duten lan ildoekin. Lehentasun handiena duena “ekintzailtza” da (%88), bigarrena “enplegua” (%85) eta hirugarrena “enpresentzako zerbitzuak” (%81). Aldiz, lehentasun txikiena daukaten lan ildoak “zerbitzu soziokulturalak” (%4) eta “ingurumena” (%23) dira. “Beste” lehentasunezko ildoen artean hirigintza nabarmentzen da. Hurrengo grafikoan garapen agentzien lehentasunak agertzen dira:

6. GRAFIKOA: EAEko garapen agentzien lehentasunezko lan ildoak




Iturria: Egileak egina.

Emitza hauetatik, aldagai ekonomikoak nabarmentzen direla ondorioztatu dezakegu. Bai arazo nagusien artean eta bai garapen agentzien lehentasunen artean. Eta aldi berean, lotura estua erakusten dute 0 blokean ikusitako emaitzekin. Hots, alde batetik, ekintzailtza, enplegua eta egitura produktiboa direla gehien errepikatzen diren

arloak, eta bestetik, ekintzaileentzako zerbitzuak, lan bitartekotza eta orientazioa, enpresentzako zerbitzuak, formakuntza etab. direla gehien errepikatzen diren zerbitzuak.

Beste ildo batean, garapen agentziek tokiko beste eragileekin dituzten harremanei dagokienez, bi eragile nabarmentzen dira besteen artean: “enpresak” (garapen agentzien %96a) eta “hezkuntza zentroak” (%85). Aldiz, harreman gutxien dituzten eragileekin “sindikatuak” (%4), “GKEak” (%15) eta “talde kooperatiboak” (%19) dira. “Beste batzuen” artean, merkataritza ganbera, Garapen, Lanbide, Innobasque eta eskualde/udalaz gaindiko beste erakunde publikoak (Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza) nabarmentzen dira. Hurrengo grafikoan garapen agentziek garatzen dituzten harremanak azaltzen dira:

7. GRAFIKOA: EAEko garapen agentzien harremanak tokiko beste eragileekin



Iturria: Egileak egina.


6.2.3 2. Blokearen emaitzak. ESSari buruz duten ezagutzaren ingurukoak;

ESSaren inguruko ezagutzari buruzko blokearen lehenengo galderan, garapen agentzietan ESSaren inguruko formakuntza jaso ote duten galdetzen zen. Garapen agentzien gehiengoak formakuntzarik jaso ez dutela adierazi zuten. Zehazki, bakarrik 9 garapen agentzia formakuntza jaso izana adierazi zuten eta beste garapen agentzia batek soilik laneratze enpresen inguruko formakuntza jaso duela (eta ez garapen agentziako pertsona guztiak) adierazi zuen. Lehenengo galdera honi lotuta, garapen agentzietan ESSaren inguruan duten ezagutzari buruz galdetu zen ondoren. Otik 5era erantzuteko aukera zuten non 0, “ezagutza eza” zen, eta, 5, “ezagutza maila aditua” zen. Agentzien gehiengoak (%44) 3 erantzun zuten. Hala ere, 0, 1 eta 2 erantzun zutenen artean ere %44ra heltzen ziren. Gelditzen zen %12a, 4 erantzun zuten, hots, ez zen egon “ezagutza maila aditua” bezala erantzun zuen garapen agentziarik.

Ondoren, ESSaren parte diren antolakundeen inguruan galdetu zen. Garapen agentzien gehiengoak laneratzen enpresak eta kooperatibak kokatzen zituen ESSaren barnean (garapen agentzien %88a eta %84a hurrenez hurren). Bestalde, garapen agentzien %68a barneratzen zituen ere enplegu zentro bereziak ESSaren barnean, eta soilik %40a elkarteak barneratzen zituen. Aldiz, garapen agentzien %64a gizarte erantzukizuna aurrera eramaten duten antolakundeak bezala kontsideratzen zituen eta %32a enpresa publikoak bezala.

ESSak dituen helburuen inguruko pertzepzioari dagokionez, garapen agentzien %92a “ekonomiaren demokratizazioa eta eraldaketa sozioekonomikoa” helburu duten antolakundeak bezala ikusten zuten. Kasu honetan ia denak bat egiten zuten ESSaren helburu horren inguruan. Bozka gehien izan zuen bigarren helburua, “jendarte bazterketa egoeran edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen laneratzea eta gizarteratzea” izan zen %52arekin. Hirugarrenik, “enpresaren arlo ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa uztartzea” helburu duten antolakundeak bezala ikusten zuten bozken %44arekin. Hurrengo grafikoan garapen agentziek ESSaren helburuekiko duten pertzepzioari buruzko datuak azaltzen dira:

8. GRAFIKOA: ESSaren helburu nagusia EAEko tokiko garapen agentzien arabera




Iturria: Egileak egina.

ESSaren inguruko ezagutzari buruzko bloke honekin bukatzeko, ESSko federazio, sare, familia edo/eta talde ezberdinekin dituzten harremanen inguruan galdetu zen. %28ak “inolako harremanik garatu ez dituztela” onartzen zuen, eta harremanak garatu dituztenen artean, gehiengoak (%28) “harreman puntualak” garatu dituztela

adierazi zuten. Azpimarratzekoa da “inolako harremanik garatu ez dituztela” adierazi duten garapen agentzia guztiak bat izan ezik Bizkaikoak direla (bestea Arabakoa da). Dena den, garapen agentzien beste %24a “lankidetzaz jarraitua” aurrera eramaten dutela adierazi zuten. Beste emaitzen artean, “noizean behin harremanetan jarri” direnak %8a ziren, elkar ezagutzen direla adierazi zutenak %4a, eta epe luzera lan egin dutenak adierazi zutenak %8a.

Galdera honi oso lotuta, harreman horiek norekin garatu izan dituzten galdetu zitzairen. Kasu honetan emaitzak oso argiak izan ziren, garapen agentzien %65a ASLEekin harremanetan izana adierazi zuten eta %55a Mondragón Corporación-ekin. Hurrengo grafikoan emaitza hauek agertzen dira:

9. GRAFIKOA: EAEko tokiko garapen agentzien harremanak ESSko sare ezberdinekin



Iturria: Egileak egina.


6.2.4 3. Blokearen emaitzak. ESSaren eta tokiko garapenaren ingurukoak:

Inkestaren azkenengo bloke honetan, ESSaren eta tokiko garapenaren aterko harremanei buruz, garapen agentziek ESSa sustatzeko aurrera eramaten dituzten ekintza eta neurriei buruz eta ESSan oinarritutako garapen estrategia baten inguruan galdetu zitzairen batez ere.

Lehenengo galderan, ESSak tokiko garapenari egiten dion ekarpen nagusiei buruz galdatu zen, eta emandako erantzunetatik gehienez ere hiru hautatu zezatela eskatu zitzairen. Ildo honetan, erantzunik errepikatuena “sortutako aberastasunaren banaketa bidezkoagoa lortzen du eta lurraldean geratzea bermatzen du” izan zen; garapen agentzien %77ak erantzun hau hautatu baitzuen. Bigarren erantzun errepikatuena, “tokiko ekonomia demokratizatzen du eta eraldaketa sozioekonomikoa ahalbidetzen du” izan zen; agentzien %73eko bozkekin. Eta hirugarrena (%52),

“lurraldearen kohesio soziala areagotu dezake” izan zen. Hurrengo grafikoan, galdera honi emandako erantzunak erakusten dira.

10. GRAFIKOA: ESSak tokiko garapenari egiten dizkion ekarpen nagusiak EAEko garapen agentzien arabera



Iturria: Egileak egina.


Azpitarragarria da gutxien hautatutako erantzunen artean bozka gutxien jaso duena (0%) “enpresen lankidetzarako sareak sortzen laguntzen du” izatea. Izan ere, saretzea eta interkooperazioa bezalako elementuak oinarritzkoak dira ESSaren inguruko literaturan. Alabaina, inkestan jasotako erantzunengatik, saretzea eta interkooperazioa edo ez dute garrantzi handiegirik tokiko garapenerako, edo ESSak ez du lortu ildo horretan egin ditzakeen ekarpenak ikusarazten garapen agentzietan. Aldi berean azpitarragarria da ere, “kalitate handiagoko enplegua sortzen du (lan-baldintzak, egonkortasuna...)” erantzuna soilik garapen agentzien %9a aukeratu izana. Izan ere, marko teorikoan jaso dugun moduan, ESSko antolakundeak pertsonen inguruan eraikitzen dira, eta ezaguna da ESSak egiten duen enpleguaren defentsa handiagoa.

ESSa sustatzeko garapen agentziek aurrera eramaten dituzten ekimenei dagokienez, gehienek (%50) ez dute ekimen berezirik aurrera eramaten. Aldiz, garapen agentzien %36a ekimenei bat aurrera eramaten dute. Gelditzen den %14a “beste bat” erantzuna hautatu zuten baina gero ez zuten zehaztu haien erantzuna. ESSa sustatzeko ekimen bereiztuak aurrera eramaten dituzten artean, 10 garapen agentziek zehaztu zituzten ekimen hauek zeintzuk ziren. Hauek dira: Lanzituz-en (lan-sozietateak sustatzeko programa) parte hartzea; klausula sozialen bidezko erosketa publiko arduratsua aurrera eramatea eta espazioen lagapena; eskualdean gizarteratze enpresa berriak sortzen edo ezartzen laguntzea; aurrekontu parte-hartzaileak, enpresa

ekimenentzako lehiaketa bat non kooperatibek aitorpen berezia duten; jendarte bazterketa egoeran edo horren arriskuan dauden kolektiboentzako formakuntza ESSko edo hirugarren sektoreko antolakundeekin sinatutako hitzarmenen bitartez; enpresa sozialen zentro bat; energia, elikadura etab. helburu duten proiektu eta ekintzaileentzako laguntza; garapen ekonomikoa zeharkatuko duen ESSan oinarritutako politika publikoaren diseinua helburu gisa; gizarteratzeko politika aktiboak ESSekiko lankidetzarekin (adibidez laneratzen enpresa bat sortu edo Maitelan kooperatiba integrala sortzeko ekintzailtza sozial eta inklusiboa erraztea), parte-hartzean oinarritutako antolakundeen sareak erraztu, eskualde mailako kooperatiba mahaia eratu eta ekintzailtza sozial eta kooperatiboa sustatu.

Hurrengo bi galderak, ESSa sustatzeko neurriei buruz galdetzen zuten. Lehenengoan, neurrien sorta batetik zentzuk ezagutzen zituzten galdetzen zen, eta bigarrenean, neurrien sorta horretatik zeintzuk zeuden prest aurrera eramateko euren garapen agentzietan. Ezagutzari buruzko erantzun azpimarragarrien artean, 19 garapen agentziek “erosketa publiko arduratsua (klausula sozialak, kontratu erreserbak, hornikuntzen erosketak ESSari etab.)” hautatu zuten; 14 garapen agentziek, “laneratzen enpresen sorkuntzan parte-hartzea”; eta hirugarren neurri ezagunenak bi izan ziren: “Aurrekontu publiko parte-hartzaileak” eta “ESSan ekintzailtza sustatzeko programak”. Alabaina, erantzun hauek ez dira guztiz islatzen bigarren galdera horretan. Hots, aipatutako neurri hauen inguruko ezagutza nahiko altua izan arren, garapen agentziak aurrera eramateko prest dauden neurriek ez dute guztiz bat egiten horiekin. Kasu honetan, babes gehiena duten neurriak “ESSan ekintzailtza sustatzeko programak” eta “ESSaren inguruko sentikortze kanpainak” dira, 13 eta 12 garapen agentzien prestutasunarekin, hurrenez hurren. Ildo honetan, esan beharra dago, oro har, aurrera eramateko prest dauden neurriak ezagutzen dituzten neurriak baino babes txikiagoa jaso dutela. Hurrengo grafikoan, bi galdera hauen inguruko datuak agertzen dira; kolore ilunez ezagutzen dituzten neurriak eta kolore argian aurrera eramateko prest dauden neurriak.

11. GRAFIKOA: EAeko garapen agentziek ESSa sustatzeko ezagutzen eta aurrera eramateko prest dauden neurriak



Iturria: Egileak egina.

Grafiko honetatik ondorioztatu dezakegu, neurri konkretu batzuetan izan ezik ESSa sustatzeko neurrien inguruko ezagutza ez dela oso handia, eta are txikiagoa dela neurri hauek aplikatzeko prest dauden garapen agentziak (batz besterik soilik bi neurri aplikatzeko prest daude). Hala ere, prest egiteko dauden neurri guztiak batuz, 61 erantzun jaso ditugu. Hots, garapen agentzia guztien artean (batzuk gehiago eginda eta beste batzuk gutxiago) 61 neurri aplikatzeko prest daude. Ikusi dugun moduan, lagin osoarekin konparatuta datu apala izan daitekeen arren, neurri hauek aplikatuko balira ESSa lurralde ezberdinetan zabaltzeko bultzada garrantzitsua izan zitekeen.

Aurrekoarekin guztiarekin lotura handia dauka inkestan egindako hurrengo galdera, non, orokorrean, ESS sustatzeko neurri gehiago aplikatzeko prest ote zeuden galdetzen zen. 7 garapen agentzia prest agertzen ziren (DEBEGESA, Tolosaldea Garatzen, Inguralde, Debagoienako Garapen Agentzia, UGGASA, Behargintza Leioa eta Bilbao Ekintza) eta beste 10 garapen agentzia “egoeraren arabera” erantzun zuten. Horrez gain, beste garapen agentzia batzuk kasua hobeto ezagutzea eskatzen zuten erantzun bat emateko, politikoki onartu beharreko zerbait bezala kontsideratzen zuten edo udalaren beste arlo batzuen eskumena zela erantzun zuten, besteak beste.

Beste ildo batean, ESSaren markoan proiektu ekintzaile bat aurrera eramateko orduan, garapen agentzien partetik bestelako enpresa-proiektu batek izango zituen erraztasun berdina izango zituela erantzun zuten garapen agentzien %73a. Beste %27ak erraztasun handiagoak eskaintzen die ESSan oinarritutako ekintzailetza proiektuei proiektu kapitalistei baino.


Garapen agentzietatik aurrera eman beharreko ESSaren inguruko lanketari dagokionez, erdiak uste du zeharka landu daitekeen zerbait dela ESSa, eta beste erdiak lan ildo bat bezala ikusten du. Hots, erdiak, dagoeneko lantzen diren lan ildo guztiei aplikatu daitekeen zerbait bezala ikusten du (enplegu arloari, ekintzailletza arloari, merkataritza arloari, promozio ekonomikoari, kultura arloari, ingurumen arloari etab. aplikatu daitekeen zerbait bezala, alegia), eta beste erdiak, lan ildo horien artean dagoen beste lan ildo bat bezala ikusten du.

Hala ere, ESSa zeharkako lan ildo gisa lantzeko prest dauden garapen agentzien kopurua 8 garapen agentzietara jaisten da (%38a). Eta horietatik soilik bat prest legoke zuzenean egiteko (Bilbao Ekintza); besteak “ESSko sareen, unibertsitatearen, udalen, Aldundien eta abarren laguntza” beharko lukete ESSa zeharka lantzeko euren garapen agentzietan (Behargintza Sestao, DEBEGESA, Tolosaldea Garatzen, UGGASA, Iraurgi Berritzen, Añanako Kuadrilla eta Behargintza Leioa). Beste %29a ESSa garapen agentziaren beste lan ildo bat bezala lantzeko prest agertzen dira. Bestalde, beste garapen agentzia bat ESSa sustatzeko ekimen berezirik egiteko prest ez dagoela adierazi zuen. “Beste bat” erantzun zuten garapen agentzien artean, garapen agentziaren “aldaketak” ematen ari direla eta ezin dutenak galdera honi orain erantzun, etorkizunari begira ESSa lantzerako “ixten ez direnak” eta ESSaren lanketa “etorkizunari begira pentsatzen” dutenak bezalako erantzunak jasotzen dira. Ildo honetan, bereziki azpimarragarria da Beterri-Buruntzako kasua. Izan ere, orain arte ESSa sustatzeko eta ESSarekin elkarlanean aurrera eramandako ekimen gehien aurrera eramandako garapen agentzietarikoak da. Alabaina, ekimen horiek udalen lankidetzaren hitzarmen baten aterkiaren pean egin izan dira, eta gaur egun udalen mankomunizazio prozesu konplexu bat aurrera eramaten ari dute, eta beraz, mankomunitatea sortu arte ez dute jakingo orain arte garatutako lan ildoak jarraituko ote duten. Arrazoi horregatik garapen agentzia hau ez da islatzen azkenengo emaitza horien artean.

Inkestarekin bukatzeko, garapen agentzietan ESSa sustatzeko zailtasunen inguruan galdetu zitzairen. Erantzunik errepikatuenak “ESSaren inguruko ezagutza falta”, “baliabide falta” eta pertsonal falta” izan ziren. Erantzun hauetako bakoitza garapen agentzien %50a hautatu zituzten. Beste erantzun azpimarragarri batzuk “finantzaketa falta” (%36), “zailtasun juridiko eta burokratikoak” (%27) eta “ideiak praktikan aplikatzeko edo egonkortzeko zailtasuna” (%27) izan ziren. Hurrengo

grafikoan zailtasun ezberdinak agertzen dira bakoitzak jasotako erantzunen ehunekoaren arabera:

12. GRAFIKOA: EAEko garapen agentziek ESSa sustatzeko aurkitzen dituzten zailtasun nagusiak



Iturria: Egileak egina.

6.2.5 Inkestaren emaitzen inguruko irakurketa:

Inkestaren emaitzen inguruko irakurketari hasi baino lehen, parte-hartze mailari buruzko ohar txiki bat zehaztuko dugu. Lehenago esan bezala, parte-hartzea %76,5koa izan da; erantzun ona, alegia. Erantzun ona dela kontsideratzen dugu, inkesta hau EAEko tokiko garapen agentzietan bidalitako lehenengoa izan delako espresuki ESSaren inguruan galdetzen duena. Eta garapen agentzia guztietatik %76,5a erantzun izana, berri positibotzat jotzen dugu bi eragile multzo hauen inguruko elkar ezagutza sustatzeko eta elkarlana etorkizunean indartu ahal izateko.

Inkestaren emaitzetatik eratorri daitekeen lehenengo irakurketa orokorra da garapen agentzien lantzen dituzten arlo, eskaintzen dituzten zerbitzu eta kontsideratzen dituzten lehentasunezko lan ildoen artean, esparru ekonomikoa oso modu nabarmenean nagusitzen dela. Hots, desenpleguari arre egiteko ekimenak, enplegua eta honen kalitatea hobetzeko ekimenak eta enpresen kudeaketa errazteko edo lehiakortasuna sustatzeko zerbitzuak, alegia. Hau da, esan dezakegu, EAEko garapen agentziek, orokorrean, garapenaren ikuspegi ekonomikoa jorratzen dutela gehienbat, eta honen barneran, batez ere, merkatuko ikuspegia. Beraz, tokiko garapen ekonomikorako eragile garrantzitsuak dira eskualde eta/edo udaletan beste eragile ekonomikoen arteko giltzarri lana egiten dutelako, baina oraindik ere garapenaren arlo soziala, kulturala, politikoa etab. artikulatzeko gaitasuna ez dute horrenbeste garatu.

Ildo honetan, ñabardura bakarra agertzen zaigu aipatutako arlo, zerbitzu eta lan ildo nagusien artean formakuntza ere kokatzen delako. Kasu honetan, formakuntza zentzu zabalean jaso dugu geure inkestan eta ezin dugu jakin zein esparru espezifikora bideratuta dagoen espresuki. Hots, ez dakigu formakuntza saioak enpresen kudeaketan egiten diren, pertsonak lan merkatuan hobeto txertatzeko intentzioarekin egiten diren, bestelako eredu eta forma ekonomiko berriak ezagutarazteko eta balio alternatiboak sortu eta zabaltzeko ematen diren, ahalduntzea, parte-hartzea eta herritartasun aktiboa sustatzeko ote diren, tokiko kulturari eta ondarearen ingurukoak diren etab. Hau da, ez dakigu formakuntza soilik esparru ekonomiko horiek laguntzeko erabiltzen den edo garapenaren bestelako arloak ere barneratzen dituen.

Aurrekoarekin oso lotuta, gobernantza ereduari buruzko ondorio batzuk lortu ditzakegu ere inkestetatik. Garapen agentzia guztiek erantzun dute tokiko beste eragileekin batera lan egiten dutela, hala ere, eragile batzuk beste batzuk baino gehiagoetan agertzen dira garapen agentzien erantzunetan. Tokiko enpresa ehuna (tokiko ehun kooperatibotik bereiztuta) eta formakuntza zentroak dira gehien agertzen diren eragileak. Aldiz, sindikatuak, GKEak eta ehun kooperatiboa dira, ordena horretan, gutxien agertzen direnak. Hau da, barne-partaidetzaren maila handia izan dezaketela aurreikusten zaizkien antolakunde hauek, ez dira, oro har, eskualdeetako eta/edo udalerrietako lurralde-gobernantza ekonomikoko sistemen parte bezala kontsideratzen, ez baitute elkarlan sendoa jorratzen garapen agentziekin. Gainera, hauek tokiko jendarterekiko hurbiltasun handia duten heinean, lurralde gobernantza sistemetan hain presente ez egoteak, alde batetik, ohikoak ez diren beste ekarpen batzuk isilarazten ditu, eta bestetik, benetan behetik abiatutako garapen prozesuak aurrera eramateko aukera galarazi dezake. Hala ere, esan beharra dago ere, jendarte zibiletik sortutako beste antolakunde batzuk bai daudela elkarlanean garapen agentziekin.

Garapen agentzien eta ESSaren inguruko harremanari erreparatuta, ESSari buruzko formakuntza espezifikoa jaso ez duten garapen agentzien kopurua altua da oraindik ere. Hau argi islatzen da garapen agentziek eurek ESSarekiko duten ezagutza maila aitortzerakoan. Garapen agentzia gehienek, 5etik, 1 eta 3 artean (0 izanik ezagutza eza eta 5 ezagutza maila aditua) erantzun dute ezagutza mailari buruzko galderan. Horrenbestez, interesgarria izan daiteke ESSaren inguruko eragileek formakuntza saio ezberdinak planteatzea garapen agentzietako pertsonalari. Izan ere, garapen agentzietako pertsonal teknikoak, neurriak praktikan aplikatzeaz arduratzeaz gain,

udaletako pertsonal politikoa baino egonkorragoa da epe ertain eta luzean eman daitezkeen hauteskunde aldaketei begira.

Bestalde, garapen agentzien eta ESSko sare, familia edo talde kooperatiboekin garatutako harremana txikia da ere. Soilik 8 garapen agentziek aurrera eramanez epe luzeko elkarlana edo jarraitutako lankidetzak eta soilik ASLE eta Mondragón Corporación landu dituzte nolabaiteko harremanak (puntualak, epe laburrera, epe luzera edo jarraituak) garapen agentzien gehiengoarekin. Hau da, ondorioztatu dezakegu, alde batetik, garapen agentzien eta ESSaren artean orain arte garatutako harremanak ez direla oso egonkorak denboran zehar, eta bestetik, harreman hauek ematen direnean soilik sare, familia edo talde kooperatibo gutxi batzuekin garatzen direla.

Inkestaren emaitza hauek argigarriak dira EAEko tokiko garapenaren eta ESSaren arteko harreman historiko eskasa ulertzeko. Hala ere, egoera hau egia izanda ere, ez du harrigarria izateari uzten. Izan ere, garapen agentziak garapena artikulatzeko tokiko eragileak izanik eta ESSak herri honen garapen ekonomikorako duen pisu kuantitatiboa eta sinbolikoa kontuan izanik, elkarren arteko horrelako harreman eskasa atentzioa ematen du. Horregatik, interesgarria litzateke elkarren artean ezagutzea ahalbidetzen duten espazioak eta proiektu gehiago partekatzen joatea, elkarri zertan lagundu ahal diren jakiteko eta bata besteari lurraldeetako garapenean eragile aktiboak bezala igartzeko.

Zentzu honetan, garapen agentziek ESSarekiko duten pertzepzioa jokoan sartzen da. Izan ere, partekatutako proiektu horiek aurrera eramateko, garapen agentzietatik ESSa zer den, zer helburu dituen eta zer egiteko gai ikusten duten aztertu behar da. Hau da, ESSa tokiko garapenerako eragile gisa potentziala ikusten dioten edo ez jakin behar da. Inkestaren emaitzei erreparatu, hasteko, garapen agentziek ESS gisa identifikatzen dituzten antolakundearen artean kooperatibak eta laneratze enpresak dira gehien agertzen direnak (eta pixka bat beherago enplegu zentro bereziak). Aldiz, lan-sozietateak, eta, batez ere, elkartegintza ez dira ESS bezala identifikatzen. Aldi berean, garapen agentzien ehuneko altu batek Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE) aurrera eramaten dituzten antolakundeak bezala identifikatzen ditu, eta beste garapen agentzia batzuk zerbitzu publiko edo/eta sozialak eskaintzen dituzten enpresa publikoak bezala identifikatzen dituzte.

Emaitza hauek harreman zuzena daukate aurreko kapituluan landutako GEZKiko txostenean antzemandako beste emaitza batzuekin. Izan ere, esan dugunez, garapen

agentzietatik lurraldeetan enplegua eta jarduera ekonomikoa suspertzeko lanabesa bezala ikusten da ESSa nagusiki; ESSak eragin ditzakeen beste ekarpenak aztertu gabe. Horregatik, ulergarriak dira emaitza hauek non, batez ere, kooperatibak eta laneratze enpresak ezagutzen diren jarduera ekonomikoa eta enplegua (bai arrunta eta bai laneratze enplegua) sortzeko duten gaitasunagatik. Hala ere, emaitza hauek kontraesankorrak dira garapen agentziek antzematen duten ESSaren helburuarekin. Izan ere, garapen agentzien gehiengo handi batek ESSaren helburua ekonomia demokratizatzea eta eraldaketa sozioekonomikoa sustatzea dela adierazi du eta enplegua sortzea, beharrak asetzea edo enpresaren arlo ekonomikoa, soziala eta ingurumena integratzea bezalako erantzunak babes gutxiago jaso dute. Hau da, alde batetik, ohiko adierazle ekonomikoak hobetzera laguntzen duen errealitatea bezala identifikatzen da ESSa, baina aldi berean, ekonomiaren demokratizazioa eta eraldaketa sozioekonomikoa eta kohesio sozialaren areagotzea (jendartetik baztertuta dauden edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen laneratzeagatik) bezalako helburu integralagoak aitortzen zaizkio.

ESSan oinarritutako garapen estrategia batek ekarriko lituzkeen onurei begira, aurreko pertzepzioekin lotura handia duten ekarpenak nagusitzen dira. Izan ere, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa, ekonomiaren demokratizazioa, eraldaketa sozioekonomikoa eta kohesio soziala bezalako ezaugarriak errepikatzen dira. Hala ere, ikusi dugun moduan, dagoeneko aplikatzen dituzten edo aplikatzeko prest dauden ESSa sustatzeko neurriak ez daude orokortuegiak. Antzekoa gertatzen da garapen agentzietan ESSa lantzeko moduarekin. Izan ere, garapen agentzia guztiek kontsideratzen dute ESSaren inguruko lanketa berezia egin daitekeela, modu zeharkakoan edo lan ildo bat bezala. Gainera, garapen agentzien gehiengoa prest agertzen da ESSaren inguruko berariazko lanketa aurrera eramateko (batzuk zeharka eta beste batzuk lan ildo gisa). Alabaina, ikusi dugun moduan, oraingoz prestutasun hori ez da guztiz islatzen aurrera eramaten diren neurrietan. Ekintzaitzaren esparru konkretuan adibidez, ez dira, orokorrean, ESSan ekiteko aukera handiagoak eskaintzen nahiz eta horren aldeko apustua egiteak aipatutako onurak ekarriko lituzkeen.

Bukatzeko, ESSan oinarritutako tokiko garapen estrategia bat aplikatzea edo horren aldeko pausoak ematea galarazten duten elementuei begira, zailtasunen bi multzo nagusi bereiztu ditzakegu. Lehenenik, ESSaren inguruko ezagutza maila apalari lotutako zailtasunak leudeke, eta bigarrenik, baliabideen faltari lotutako zailtasunak

(baliabide material, pertsonal eta finantzaketa falta batez ere). Maila baxuago batean, zailtasun juridiko eta burokratikoak eta neurriak praktikan aplikatzeko edo egonkortzeko zailtasunak agertzen dira, baina hauek ez daude hain orokortuak. Bestalde, inkesten emaitzei begira, ESSa sustatzeko neurrien aldeko borondate politikoa agerikoa dela esan dezakegu, izan ere, soilik bi garapen agentzia identifikatu dute ezaugarri hau zailtasun bat bezala. Beraz, ikusi beharko da borondate politiko hori praktikan ematen den aipatutako baliabideen faltari baliabideak eskainiz. Eta beste aldetik, ESSaren inguruko ezagutza maila handitzeko formakuntzaren beharra agertzen zaigu berriz ere.

Laburbilduz, inkesten emaitzetatik hainbat ondorio orokor atera ditzakegu; hurrengoak dira:

- Garapen ereduari dagokionez, garapen agentziak gehien arduratzen dituzten alderdiak alderdi ekonomikoak dira. Enplegua, egitura produktiboa eta enpresen lehiakortasuna bezalako alderdiak parte-hartze politikoari, alderdi sozialei, kulturei edo ingurumenari gaintzen dira. Alabaina, ESSari aitortzen dizkieten ekarpenak ez dira, orokorrean, enpleguaren, ekintzaitzaren edo enpresen sareen ingurukoak. Aldiz, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa, kohesio soziala, ekonomiaren demokratizazioa eta eraldaketa sozioekonomikoa bezalako ezaugarriak nagusitzen dira.
- ESSaren inguruko ezagutza zabaltzeko lana egin behar da oraindik ere. ESSan oinarritutako formakuntza eta praktika onen zabalpena etorkizun hurbileko oinarrietako bat izatea interesgarria litzateke, ESSa eskualde ezberdinetara iristeko. Ondoren, eskualde bakoitzaren hautua izango da ESSa sustatzeko neurriak aplikatzea edo ez, baina ezinezkoa da ESSa sustatzeko neurriak aplikatzea ESSa ezagutzen ez bada.
- Orokorrean, prestutasuna antzeman da garapen agentzien partetik ESSra hurbiltzeko. Nahiz eta garapen agentzietatik aurrera eramane behar den lanketa moduari bat egite orokorrik ez egon (batzuk zeharka joratu daitekeela adierazten duten bitartean, beste batzuk lan ildo bat bezala joratu daitekeela adierazten dute), guztiek uste dute ESSa modu bereiztuan landu daitekeela, eta, esan bezala, oro har, euren prestutasuna erakusten dute.
- Aurrekoari lotuta, prestutasun maila handia aurkitu daitekeen arren, egun aurrera eramane diren ekintzak eskasak dira, eta, konpromiso konkretuagoak hartzeko

orduan (zer neurri konkretu dauden aplikatzeko prest), bataz beste, 2 neurri bakarrik aplikatzeko prest agertzen dira. Hala ere, hauek betetzen badira ESSarentzako bultzada garrantzitsua izan daiteke. Ildo honetan, ez dago garapen agentziarik ESSa sustatzeko neurri gehiago aplikatzeari ateak ixten diona, batzuk guztiz prest agertzen baitira eta beste batzuk egoeraren arabera. Beraz, ESSaren aldeko neurriak EAeko eskualde eta/edo udal guztietan zehar zabaltzen badira, pixkanaka, ESSa oinarri duen tokiko garapenerako estrategietarako trantsizioak egitea ahalbidetu dezake lurralde horietan.

6.3 Landa lanaren emaitzak (II): Elkarrizketen analisia:

Behin inkestetatik lortutako emaitzak aztertuta, sakoneko elkarrizketak analizatzeari ekingo diogu. Aurreko atalean bezala, analisi honek, elkarrizketak egiteko erabili ditugun blokeen egitura jarraituko du, gai bakoitzaren inguruko ekarpenak, hausnarketak eta ondorioak lortu ahal izateko.

Irakurleak antzemango duenez, jorratutako gaien inguruko irakurketa ezberdinak mahaigaineratu dira elkarrizketetan, bai eragile batzuk gai hauen alderdi batzuei edo besteei garrantzi handiagoa ematen dietelako, eta baita ere, gertakizun berdinen inguruan irakurketa ezberdinak egiten dituztelako. Hau da, eragile nagusien izaera ezberdinengatik (garapen agentziak eta ESSko sareak) espero ahal ziren irakurketa ezberdinez gain, multzo bereko eragileen arteko ikuspegi eta diskurtsoen arteko ezberdintasunak ere agerikoak izan dira. Hau, alde batetik, eskualdeen arteko egoera eta eraikuntza instituzional ezberdinek eragindako garapen agentzien arteko ezberdintasunengatik izan daiteke, eta bestetik, ESSko sare bakoitzaren atzean dagoen errealitateagatik eta jorratzen duen ikuspegi sozioekonomiko propioagatik.

Era berean, gaiari heltzeko abiapuntua eta erabilitako terminologia ezberdina da elkarrizketatu batetik bestera; batez ere ESSaren kasuan. Izan ere, tesi honetan zehar azaldu ditugun termino ugariak agertzen baitira elkarrizketetan: Ekonomia Soziala, kooperatibismoa, Ekonomia Solidarioa, Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Ekonomia Sozial Eraldatzailea etab. bezalakoak, alegia. Eta, aldi berean, ESSaren terminoa erabiltzen dutenen artean, ulertze ezberdinak aurkitu ditzakegu. Horregatik, eragile bakoitzaren diskurtsoari leial izateko, eragile bakoitzak erabiltzen duen terminologia errespetatu izan da. Ildo honetan, elkarrizketen analisiaren eta lanketaren zailtasuna areagotu izan da, oso anitza den errealitate baten papera sinplifikatzea zaila delako.

Bukatzeko, elkarrizketa hauek egin diren testuingurua kontuan izan behar da (2021eko martxoa eta maiatza artean). Izan ere, nahiko antzemangarria da Covid-19aren pandemiak eta horren eraginez aurreikusten den krisiak eragin dutela elkarrizketatuen diskurtsoetan. Pandemia elementu koiunturala bezala ulertu daitekeen arren, Covid-19a kapitalismoaren joera estruktural batzuk azkartu dituela adierazten dute elkarrizketatu gehienek. Horrenbestez, aldaketa ekonomiko esanguratsuak aurreikusten direnez, egokia ikusi dugu, beharrezkoa izan denean, gai horren inguruko ekarpenak barneratzea.

6.3.1 Garapen agentziek ESSarekiko duten iritziari buruz:

Elkarrizketen lehenengo blokea soilik garapen agentziekin joratu da, eta izenak dioen moduan, hauek ESSarekiko duten iritzi orokorrari buruz galdetu izan da. Nola ulertzen duten ESSa, zer den beraientzako ESSa, zeintzuk diren breaiantzako ESSaren balioak, ESSaren helburuak etab. jakiteko asmoarekin. Horrenbestez, bloke honetan soilik 6 eragileen ekarpenak jaso ditugu. Hauek, alde batetik, Garapenen bilduta dauden 4 garapen agentzia (Goieki, Beterri-Buruntza Udalak, Bilbao Ekintza eta Getxolan), eta bestetik, ESSa edo ekimen kooperatibo bat oinarri izanik sortu diren tokiko garapenerako beste 2 eragile (Azaro Fundazioa eta Debagoienako berrikuntza irekiko plataforma edo Debagoiena 2030) izan dira. Irakurketa errazteko, 6 eragile hauei “garapen agentziak” bezala erreferituko gara.

Orokorrean, ESSa zer den galdetzerakoan, garapen agentzietako ordezkariak azpimarratzen duten lehenengo ezaugarria ESSaren balioak izan dira. Hots, justizia soziala, demokrazia, ingurunearekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa etab. bezalako balioak berezkoak dituen errealitate bat bezala definitzen dute. Hala ere, gehiago sakontzerakoan, ESSari begiratzeko ikuspegi ezberdinak daudela somatu daiteke, nahiz eta, oro har, hiru ikuspegi orokor, eta kasu batzuetan bateragarrietan, sailkatu ditzakegun.

Alde batetik, garapen ekonomikoari egiten dion ekarpenean arreta jartzen duen ikuspegia legoke. Kasu honetan, lurraldean jarduera ekonomiko bat aurrera eramaten duten enpresak bezala ikusten dira, baina, esan bezala, aldi berean, ohiko enpresek ez dituzten balio sozial edo etikoagoak jorratzen dituzte (A1, A2, A6). Beste alde batetik, jendartean zailtasun gehien dituzten pertsonen gizarteratzea edo/eta laneratzea helburu duen enpresa eredu bezala ikusten da (A1, A4, A5). Eta azkenik, ESSa eraldaketa sozioekonomikoa eragiteko gai den bestelako paradigma ekonomiko gisa kontsideratzen dutenak daude (A3, A4, A5, A6). Kasu honetan, aurreko onurak onartu arren, arreta

jartzen da ekonomia kapitalistari eta garapen eredu neoliberalari eskaini diezaiokeen alternatibetan. Ikuspegi honetatik, ESSak bestelako garapen eredu bat proposatuko luke, eta beraz, tokiko garapenaren edozein esparruan eragin dezakeen paradigma ekonomikoa bezala ulertu daiteke, non lurraldea oinarri hartuta, jendartearen ahalduntzea bilatuko lukeen. Hots, bizitzeko beharrezkoa dena asetzeko helburuarekin, komunitateen paper aktiboa aldarrikatzen duen ikuspegia litzateke. Hala ere, esan bezala, ikuspegi hauek ez dira bateraezinak eta aldi berean bi edo hiru ikuspegiak barneratzen duten iritziak aurkitu daitezke.

Dena den, garapen agentziak ESSa ulertzeko orduan, beste sailkapen bat ere egin genezakeen eskualdearen izaeraren arabera. Izan ere, nahiko agerikoa da ESSaren eginkizuna ulertzeko modu ezberdinak daudela eskualde industrialetan eta eskualde tertziarioetan.

Izan ere, eskualde industrialetako garapen agentzietan, lan-kalitatean, enpresen lehiakortasunean eta berrikuntzan arreta handiagoa jartzen da (A1, A2, A6). Eta eskualde tertziarioetan aldiz, ESSak eskaini ahal ditzakeen tokiko produktuetan edo hurbiltasunezko zerbitzuetan (A4, A5). Aurrerago ikusiko dugunez, azkeneko eskualde hauetan dauden garapen agentziak dira erosketa publiko arduratsua bezalako lanabesei garrantzi handiagoa ematen diotenak; ESSak eskaini ditzakeen zerbitzuen artean administrazio publikoari eskaini diezaiokenak pisu handia hartzen baitute.

Elkarrizketatuen ekarpen zehatzetan arreta jarritz, aipatutako sailkapena babesten duten hainbat pasarte bildu ditugu:

“Kooperatiba hauek oso arraigo handia daukate gure eskualdeaz, eta presente daukate garrantzitsuak direla eskualde honen lehiakortasunerako, eskualde honetako bizi baldintzak hobetzeko, eskualde honen garapenerako... Eta orduan lortu dugu enpresa industrial kooperatiba hauek elkarregaz lanean jartzea, ez bakoitza bere negozioko aktibitateak hobetzeko baizik eta eskualdeko hobekuntzarako”. (A2)

Edo jarduera ekonomikorako zein zailtasun gehien dituzten pertsonen gizarteratzeko duen potentziala uztartuz,

“Iruditzen zait Ekonomia Sozial eta Solidarioa hain errez ez duten edo zailtasun gehien dituzten perfil edo arloi laguntzeko aukera bat izan litekeela. Eta aldi berean ere bai, mota honetako ekonomiak, hitzak esaten duen bezala, solidarioagoak eta demokratikoagoak dira beste motatako enpresa batzuekin alderatuko bagenu.” (A1)

Mondragoneko kooperatibismoaren ikuspegitik (A6), efizientzia enpresariala eta ekonomia egiteko beste balio batzuk uztartzen dituen eredia bezala kontsideratzen da. Eta balio horien artean, batez ere, lankidetzan oinarritutako ekonomia azpimarratzen da; bai kooperatibaren barne egiturari eta antolaketari begira, eta baita ere kanpora, lurraldeari begira. Barnera begirako lankidetzak, demokrazia ekonomikoaren ildotik doa, non langileek antolakundearen gaineko jabegoa eta erabakitze eskubidea duten. Eta aldiz, kanpora begira, kooperatiben arteko interkooperazioaren ildotik doa, non beste kooperatibekin eta lurraldeko beste eragileekin lankidetzak markoak gauzatzen diren.

Horrez gain, Mondragoneko kooperatibismoak oso berezkoak dituen beste ezaugarri batzuk ere dituela azpimarratzen du elkarrizketatuak. Esanguratsuena, beharbada, lanaren burujabetzak daukan zentralitatea litzateke. Izan ere, elkarrizketatuaren iritziz, Mondragoneko kooperatibismoan oso modu argian ulertzen da lan-bazkideak izan behar direla proiektu kooperatibo baten subjektu nagusiak. Eta kreditu kooperatibak, hezkuntza kooperatibak, kontsumo kooperatibak dauden arren, guztiek badituzte lan-bazkideak. Egoera hau, elkarrizketatuaren iritziz, berezia da beste lurralde batzuetan eman daitekeen esperientzia kooperatiboekin alderatzen bada, non erabiltzailearen irudia nolabait lan-bazkidearen irudia baino garrantzi handiagoa hartzen duen; lehenengoek direlako, eta ez bigarrenengoek kooperatiben erabakien gainean parte-hartzeko eskumena dutenak (ildo honetan, Quebec-eko edo Frantziako kreditu kooperatiben adibidea jartzen du, non lan-bazkideek ez duten kooperatiben erabakietan parte-hartzeko eskumenik, eta bazkide erabiltzaileak diren erabakiak hartzen dutenak).

Bigarren ezaugarri esanguratsuena, Mondragoneko kooperatibismoak lortu duen aberastasunaren banaketa da; horretarako, elkarrizketatuak dio lehenengo aberastasun hori sortu behar delarik. Eta hor sartzen da, hain zuzen ere, lehenago aipatu den efizientzia enpresarialaren ezaugarria.

Eta azkenik, eraldaketa sozialerako bokazioa duela esaten du elkarrizketatuak, nahiz eta azken ezaugarri hau eztabaidagarriagoa izan daitekeela onartzen duen, badagoelako enpresa baino haratago, lurraldera begiratzeko bokazio bat eta betidanik izan duelako jendartearen gehiengoaren aldeko alternatibak edo lan aukerak sortzeko joera argi bat.

Zentzu honetan,

“Hasieratik oso garbi izan zuten Mondragoneko kooperatibismoan gizartearen gehiengora iristeko bokazio hori edo apustu hori eta hor jartzea esfortzuak, ez? Ez gelditzea,

ez dakit nola esan, oso utopikoak edo kontzeptualki interesgarriak izan zitekeen ekimen batzuetan, baino gizartearen margenetan geldituko liratekeenak, ez? Gizartearen gehiengoarentzat aukerak sortu, pragmatismo haundiarekin” (A6)

Azkenik, ESSa eraldaketarako duen potentziala azpimarratuz,

“Paradigma ekonomiko alternatibo bat, egungoari aurre egiteko. Eta niretzako da kontra-balantza bat orain arteko ekonomia kapitalistaren eragin nozibo guztiak geldiarazteko.” (A3).

Eta,

“Otra forma de hacer economía, una economía transformadora, con unos valores específicos (...). Estos valores tienen que ver con la justicia y equidad, con el empleo digno y estable, con el compromiso con el entorno y el medio ambiente, con la cooperación, trabajo en red y apoyo mutuo, con la primacía de las personas frente al capital y la gestión democrática” (A4).

Azken garapen agentzia honen diskurtsoan, oso presente egon dira une oro REAS Euskadiko parte diren antolakundeak. Izan ere, antzeman daitekeenez, ESSa definitzeko orduan, ekonomia solidarioaren gutunean aurkitu daitezkeen printzipioak aipatu ditu. Kasu honetan, aipatzen dituen balioak, gaur egun bizi dugun krisi anitzeko eta testuinguru globalizatuaren baitan oso interesgarriak direla dio. Are gehiago, enpresa handi askok balio hauek integratu dituzte euren diskurtsoetan, eta, nahiz eta marketin tresna bat bezala erabili dezaketen arren, argi uzten dute balio hauek ekonomian txertatzearen garrantzia; eta hedaduraz, tokiko garapenean ere txertatzeko garrantziaz (A4).

Ildo honetan ere, teorikoki gure bizitzak zeharkatzen dituen eredu kapitalistari alternatiba interesgarria eskaini diezaiokeen eredia bezala ikusten duen, baina era berean, mendebaldeko ekonomietan oraindik horrenbesteko gaitasunik ez daukan eredia bezala ikusten duen beste ikuspegi bat dago (A5).

Beste zentzu ezberdin batean, garapen agentzia batzuetako ordezkariak uste dute euren lana lotura handia daukala ESSarekin. Hau da, garapen agentzien lana ekonomia sozialago edo solidarioago bat lortzea dela adierazten duten elkarrizketatuak daude (A1, A2). Izan ere, alde batetik, arlo ekonomiko soilei garrantzia ematea baino, euren lana lurraldearen garapen sozioekonomikoan eragin zuzena duela adierazten dute. Eta bestetik, garapena, tokiko eragile ezberdinen artean elkarlanean eraikitako prozesu bat bezala ikusten dutelako. Hots, prozesu sozial bat bezala non enpresa bakoitzaren

ekarpen indibidualaz gain, lurraldearen onerako diren eta elkarlanean sortzen diren proiektu komunak aurrera eramatea ahalbidetzen duen.

“Nik esango nuke garapen agentzien helburua (...) eskualdeko garapen sozioekonomikoari bultzada ematea dela kontutan izanik, soziala edo gizarte arloa kontuan hartzen duela eskualdeko garapen ekonomiko honek.” (A1)

Eta

“Guk azken batean Lea Artibai eskualdearen garapen ekonomikoaren alde egiten dugu lana ezta? Eta guk horren barruan, hori dela ESSa ere bai ulertzen dugu. Ze azken batean, gure lana da garapen ekonomikoa, baina horren azken helburua, eskualdeko biztanleen egoera edo bizi baldintzak edo bizi kalitatea hobetzea da ezta? (...) Eta hori zelan lortu? Ba batez ere, kalitatezko enplegua sortzen lagunduz, enpresak lehiakorragoak izaten lagunduz. (...) Eta horrela ulertzen dugu, eskualdeko ikuspuntutik. Gure lana batez ere da, ikuspuntu indibidualetik edo banakako ikuspuntutik baino haratago joan eta elkarlanean denok, eskualde baten parte garen heinean, eskualde horren onerako diren proiektuak martxan jartzea” (A2)

“Azken batean guk nahi duguna da eskualdeko bizi kalitatea hobetu garapen ekonomikoaren bidez, ez? Kalitatezko enplegua sortuz eta eskualdean gelditzeko aberastasuna(...) nik hori Ekonomia Sozial Solidarioa bezala ulertzen dut, ezta?” (A2)

Ikusi dezakegunez, elkarrizketatu hauek ESSa antolakundeen mailatik ateratzen dute, eta lurraldearen ikuspegitik begiratzen diote. Hots, izaera juridikoari edo barne jardunbideei erreparatu ordez, lurraldearen garapen sozioekonomikoa eragiten duen enpresen arteko elkarlana bezala ulertzen dute ESSa. Hau da, enpresek lurralde batean kokatuta egoteagatik bere ingurunearekiko betebeharrak bat dutela ulertzen dute eta ingurune horren hobekuntzarako konpromisoa adierazten dute elkarlanean erronka ezberdinei aurre egiteko (A1, A2, A4).

“Dentro del ADN de la Economía Social y Solidaria hay algo que ellos entienden muy bien. Si el territorio me da, yo tengo que generar un impacto positivo con mi trabajo al territorio. Es decir, tengo que tener un retorno al territorio. Y eso para nosotros (Bilbao Ekintza) es fundamental.” (A4)

Beraz, enpresa bakoitzak dituen beharrez gain edo jarduera sektoreari atxikitutako beharrez gain, lurraldeak dituen erronka eta behar garrantzitsuei batera erantzutea ulertzen dute ESSa dela. Eta ildo honetan, adibidez, Lea Artibain eskualdeko kooperatibak eta Azaro Fundazioa biltzen dituen mahai bat sortu zuten eskualdearen etorkizunerako arazoei aurre egiteko. Horrela, adibidez, talentu ihesaren erronkari aurre

egiteko programa bat jarri zen martxan Azaro Fundazioak dinamizatuta eta kooperatiba hauen finantzaketari esker (A2).

Beste garapen agentzia batean, ESSa euren eguneroko lanerako paradigma ekonomiko gisa hartu dutela adierazten dute, laneko edozein esparruan aplikatu dutena. Izan ere, elkarrizketatu honek uste du, ekonomia pertsonen beharrak modu kolektiboan asebetetzeko behar den ekoizpena eta banakuntza kudeatzeaz arduratu beharko litzatekeen arren, gaur egungo ekonomia kapitalistak ez diola errealitate horri erantzuna ematen. Eta aldiz, ESSa jendartearen beharrak asetzeko tresna bat eskaintzen duela uste du, modu parekide batean eta ingurumenarekin errespetua duena (A3). Zehatzago:

“Ekonomia Soziala da tresna bat administrazio publikoarentzat sustatzeko paradigma ekonomiko bat (...). Eta paradigma ekonomiko honek, Ekonomia Sozialak, posibilitatzen duelako joera neoliberal globalizatzaile honek sortzen dituen desorekak, mundu mailako desorekak, klase desorekak, arraza edo genero desorekak eta diskriminazioak... nolabaiteko inboluzioa posibilitatzen dutela eta hortik joan behar dela bidea, ez? Benetan nahi badugu bertako beharrei erantzungo dioten gizarteak eraiki eta benetan pertsonen ongizatean oinarritutako gizarte batzuk sortzeko uste dut paradigma ekonomikoa aldatu behar dela eta horretarako, ba hori, Ekonomia Sozialak eskaintzen du tresna, bueno paradigma hori.” (A3).

Bukatzeko, nahiz eta elkarrizketatu batzuk (A3, A6) aipamen txikia egiten dioten ez-merkatuko eta ez-diruzko izaera duten ESSko esperientziei, orokorrean, garapen agentzietako ordezkariak ESSaren merkatuko alderdian jartzen dute arreta guztia. Eta hauen artean, batez ere, kooperatibeei eta laneratze enpresei edo esku-hartze sozialeko sektorean diharduten antolakundeei.

6.3.2 Gaur egungo testuinguruari, ESSaren errotzeari eta lurraldeari buruz:

Galderen bloke honi (eta hurrengo blokeei) elkarrizketatutako eragile talde guztiek erantzun zioten. Hau da, garapen agentziak, ESSko erreferentziazko sareen ordezkariak eta adituak. Hala ere, lehenik esan dugun moduan, eragile bakoitzari bere esparruari egokitutako galderak egin zitzaizkion. Hots, garapen agentziei, tokiko garapenaren egungo testuingurua eta etorkizuna, lurraldea eta globalizazioa eta ESSko antolakundeen errotzeari buruz galdetu zitzaien bitartean, ESSko sareei ESSko antolakundeak eta globalizazioa, ESSaren papera tokiko garapenean eta ESSko antolakundeen errotzeari buruz galdetu zitzaien. Adituei bere aldetik, gai hauen guztien inguruan galdetu zitzaien.

6.3.2.1 Lurraldeak eta globalizazioa:

Orokorrean, garapen agentzietako ordezkariak ados daude globalizazioaren testuinguruan nazioarteko fluxu ekonomikoak areagotu diren arren lurraldeek paper berritua daukatenaren baieztapenarekin. Izan ere, batetik, garapen agentzietatik, lurraldeen garapenerako tresna eraginkorrak abian jartzea posiblea dela argudiatzen dute, eta bestetik, garapen agentziek maila gorenetakoa erakundeak ez daukaten enpresekiko eta jendartearekiko hurbiltasun handiagoa dute (A1). Beti ere lurraldea eskala anitzeko marko batean kokatuta, eta jakinik garapenaren gain eragin dezaketen beste politika garrantzitsu batzuen gaineko eskumenik ez dituztela eta goragoko eskaletatik etor daitezkeen baliabideak oso garrantzitsuak izan daitezkeela tokiko garapenerako.

Hala ere, lurraldeen ber-indartze honek ez dio ikuspegi bakar bati jarraitzen eta nondik begiratzen zaion arabera inplikazio ezberdinak izan dezakeela argudiatzen du elkarrizketatu batek (A6). Adibide gisa, ikuspegi neoliberal batetik begiratu ahal zaiola esaten du, non enpresez gain, lurraldeak diren euren artean lehiatu behar dutenak. Gainera, kontutan izan behar da lurralde guztiak ez daudela abiapuntu berdinean eta berezkoak dituzten baliabide endogenoekiko oso baldintzatuta daudela. Eta horregatik, geroz eta disparekotasun handiagoak sortzen ari dira lurralde batetik bestera.

“Tokiko lurraldeek pisu edo subjektu izaera handiagoa daukate, baina era berean, horrek baditu irakurketa, ondorio edo konsekuentzia ezberdinak. (...) Ikuspegi neoliberalak ere hori onartzen dute. (...) Batzuk diote gaur egungo garaiotan, globalizazioan, lurraldeak elkar konpetentzian... konpetentzian daudenak ez direla enpresak, lurraldeak direla. Niri baieztapen horiek gogorak egiten zaizkit. Baina egia da lurralde baakoitzak dituen ezaugarrietatik abiatzen dela edo garatzen direla hainbat prozesu ekonomiko, ez bakarrik baliabide endogenoekin, exogenoak hor daude, eta faktore exogenoek garrantzia handia dute, baina baliabide endogenoetatik abiatzen direla, eta hori inkuestionablea da baita lurralde guztiak ez daudela abiapuntu berdinean. (...) Bakoitzak oso baldintzatuata dago eskualdean dituen baliabide endogenoei” (A6).

Dena dela, lurraldeak berrindartzeak edo ekonomian eragiteko gaitasuna izateak ez du esan nahi globalizazioak edo nazioarteko merkatuetan ematen diren gertakizunak lurraldeetan eragiten ez dutenik. Hau da, globalizazioak ez die bakarrik eragiten nazioartean lehiatzen duten enpresei. Izan ere, globalizazioak eta ekonomiaren digitalizazioak eragina izaten ari du eskala guztietako ekonomietan eta esparru ezberdinetan. Ildo honetan, lan harremanak eraldatu egin direla eta prekarizazioa

orokortu dela argudiatzen da; nahiz eta inoizko etekin ekonomiko handienak ematen dituen ekonomia baten aurrean gauden (A5, A6). Gainera, ekonomia geroz eta finantziarizatuagoa dago, etxebizitzaren sektorean atzerriko inbertsio funtsek etxebizitzara sartzeari zaildu dute, kontsumo ohiturak eraldatu dira eta geroz eta indar handiagoa duen plataforma kapitalismoak, dagoeneko egiturazko krisi testuinguru batean dauden jendarteoi beste kapa prekarizatzaile bat gehiago ezartzen die (B3). Eta lurraldeetatik joera hauei erantzuna ematea posiblea bada ere, lurralde batek mundu mailako ekonomian izan dezakeen eragina oso txikia da (A5).

Badira dena den, globalizazioak eragin positiboak dakarrela argudiatzen duten elkarrizketatuak. Hauen iritziz, globalizazioak, eta berarekin datorren teknologia berrien garapenak, sareak sortzeko testuinguru aproposa sortu du, eta hau, ezaugarri positiboa dela uste dute, batez ere ESSko antolakundeentzako. Izan ere, sareak sortzeko erraztasun horrek, ESSko antolakundeak elkarren artean aurkitu, ezagutu, elkarri eragin, elkarlanerako proiektuak martxan jartzea etab. ahalbidetzen die. Eta aldi berean, horrek ESSa bera, eta ESSa suposatzen duena ikustaraztea ere ahalbidetzen du (B4).

“La globalización aporta algo buenísimo desde el punto de vista de las redes. De trabajar en red. Y lo vinculo un poco al tema de la visibilidad. Es decir, la globalización está posibilitando que muchísimas familias, organizaciones, entidades que giramos en torno a la Economía Social seamos capaces de interactuar, de encontrarnos, de conocernos, de poner proyectos en marcha. Cuestión que antes, cuando no estábamos en este contexto pues se podía hacer de forma mucho más complicada, ¿no? Y eso posibilita que se visibilice mucho más lo que es la Economía Social. (...) Lo que no se ve no existe. En la medida en que Economía Social no se ve, difícilmente vamos a crecer. Si nuestro objetivo como Economía Social, o uno de los objetivos a los que podemos aspirar es el crecimiento, la base de cualquier crecimiento está en la visibilidad” (B4)

Hala ere, gaur egungo egoera konkretura begiratuta, C2 elkarrizketatuak aldaketa bat somatzen du. Izan ere, Covid-19aren krisiaren eraginez ekoizpen kate globalak zalantzan jarri dira neurri batean, ezinbestekoak izan diren produktu askoren inportazioak (maskarak, EPI-ak etab.) ez direlako behar bezala heldu, eta ondorioz, produktu hauen hornikuntzarik gabe geratu diren herrialde askotan, tokiko ekiozpenaren ikuspegiaren aldeko joera aldaketa eman dela. Ikuspegi aldaketa hau lurraldeetan jarduten duten ESSko antolakunde txikientzako joera positiboa izan den bitartean, ekoizpen kate global horietan barneratuta egon diren enpresa handienetzako kaltegarria izan da neurri batean; lehenetsi delako tokiko ekoizpena inportazioa baino. Egoera hau argi ikusten da, dio elkarrizketatuak, Espainiar estatuko gobernu erregional batzuek

(Valentziako gobernuaren kasua aipatzen du) behar izan dituzten hornikuntzak tokian ekoiztutako produktuen bitartez lehenetsi dutelako; eta are gehiago, hornikuntza horiek, zehazki, ESSko antolakundeak hornitzeko jarrera proaktiboa izan dutela dio.

Joera aldaketa hau ere somatu dute Bilbon. Izan ere, A4-k dionez, Covid-19aren pandemiaren ondorioz, gauzak beste modu batera egin beharko liratekeela ohartarazi gara. Hau da, pandemiaren eraginez gehiago azaleratu diren ahultasun ekonomiko, sozial eta pertsonal horiek erakutsi digutela gauzak nola egiten diren arabera, eragin ezberdinak jasan daitezkeela horrelako krisi bat etortzerakoan. Eta ildo honetan bereziki azpimarratzen du zaintza lanen esparrua, non beste modu batera helduta, etorkizunerako aukera garrantzitsu bat ere izan daitekeen.

“¿Qué papel juega (...) la Economía Social y Solidaria? En el cómo hacerlo. Tú vas a seguir apoyando aquellas iniciativas y proyectos que supongan una mejora para el territorio... ahora, igual hay que ir sensibilizando de que además del qué ponemos, hay que mirar el cómo lo hacemos” (A4).

6.3.2.2 ESSa eta globalizazioa:

C3 adituarentzako, ESSaren azken bultzada XX. mendeko 80ko hamarkadaren erdialdean hasten da munduko toki ezberdinetan aldi berean. Hala nola, Latinoamerikan, Frantzian edo Quebec-en esate baterako. Eta beraz, adituak dionez, globalizazioaren edo kapitalismo globalaren hedapenarekin denboran bat egiten duen fenomeno da, azken honen eraginekiko lotura zuzena baitauka. Zehazki, politika neoliberalen eragin zuzena jasotzen ari zuen Txilen kokatzen du ekonomia solidarioaren terminoaren sorkuntza, hain zuzen ere. Europan eta Espainiar estatuan, ESSaren hedapena krisi industrialaren, industria birmoldaketaren, ekoizpen deslokalizazioen eta abarren testuinguru batean ematen da; esperientzia ugaritze batekin. Honekin guztiarekin, adituak esan nahi duena da, ESSa ulertzeko era modernoaren hastapenetan globalizazio kapitalistari edo kapitalismo global berri horri erantzuna ematea bilatzen duten esperientziak daudela, eta beraz, honen eraginei (prekarizazioa, langabezia, pobreziaren gorakada etab.) oso lotuta dagoen fenomeno dela.

Era berean, nazioarteko beste herrialdeetan bezala, Euskal Herrian ESSarekin lotutako olatu berri batean barneratuta gaudela adierazten dute Olatukoop-etik. Zehazki, Euskal Herriko 5. olatu kooperatiboa deritzotenean, hain zuzen ere. Lehenengo olatua, industrializazioari lotutako olatua litzateke, bigarrena, Arrasateko esperientziari

lotutakoa, hirugarrena, euskalgintza eta kulturgintzari lotutakoa 70eko hamarkadan, laugarrena, ipar Euskal Herriko kooperatibismoari lotutakoa, eta azkenik, gaur egun ematen ari den bostgarren olatua (B3).

Bostgarren olatu honek bi ezaugarri nagusi uztartuko lituzke: Alde batetik, ekonomia solidarioak planteatzen duenarekin lotuagoa dagoen olatua da (nahiz eta hau aurretik zetorren), batez ere pertsonen beharrak asetze aldera kontsumoaren ikuspuntutik (energia berriztagarriak, banka etikoa, elikadura burujabetza etab.), eta bestetik, lan-elkartuko kooperatiba ugarien sorkuntzarekin lotuta dagoela. Hau da, elkarrizketatuarentzako, orain arte, ekonomia solidarioak hirugarren sektorearekiko eta GKEekiko gertutasun handia zuen, eta bestetik, ekonomia sozialak edo kooperatibismo tradizionalak jorratutako merkatuarekiko gertutasunagatik, bere hastapenetan zeuden balioetatik urrundu da. Baina krisi eta globalizazioaren testuinguru honek, nolabait batu egin ditu paraleloan zihoazen bi mugimendu hauen ezaugarri batzuk, bostgarren olatu zabalago bati bide emanez.

Aldi berean, bostgarren olatu honek lotura zuzena dauka gaur egun bizi dugun dimentsio anitzeko krisiarekin, 2008tik aurrera areagotzen dena. Hau da, orokorrean bostgarren olatu kooperatiboaren baitan kokatu daitezkeen esperientziak, eta ere berean, Olatukoop sarearen sorrera bera (2013. urtean) egiturazko krisi honen eta globalizazioaren eraginei emandako erantzun zuzena bezala ulertzen du ere. Izan ere, egoera honetan, lana bermatzeko orduan eta pertsona guztien beharrak asetzeko orduan, ohiko merkatua gai izan ez dela adierazten du. Eta beraz, Olatukoop-en uste dute mugimendu kooperatibo berri bat sortzen ari dela ikuspegi eraldatzaileago batetik abiatzen dena eta lurraldearekiko errotze handiagoa duena jendearen beharrak asetzera bideratuta dagoen heinean eta bertatik hornitzen delako (B3).

Ikusirik globalizazioa eragin zuzena izan duela ESSko antolakundeetan, hurrengo pausoa eragin horiek zeintzuk izan diren aztertzea da. Hauek, hala ere, ikuspegi ezberdinetatik aztertuak izan daitezke. Izan ere, ESSak suposatzen duen errealitate anitza kontutan izanik, ESSaren barnean egon daitezkeen errealitate ezberdin horien gainean globalizazioak izan duen eragin bateratua aztertzea ezinezkoa izan daiteke. C2 elkarrizketatuak, gutxienez, ESSko antolakunde txikien eta handien artean bereiztu beharko genukeela dio. Antolakunde txikiak, globalizazioaren eragin gutxi jasan dutela dio:

“Yo creo que el papel va a continuar siendo prácticamente el mismo. Estarán vinculadas a las necesidades que hay en los territorios, a solucionar problemas sustantivos que hay a nivel comarcal, provincial y regional fundamentalmente” (C2).

Aldiz, tamaina handiko antolakundeei dagokienez,

“La globalización tiene otros desafíos, otros elementos que tienen que ver con la reconfiguración de las cadenas globales de suministros, de comercio etc. Y eso afectará sobre todo a las grandes empresas. A las empresas que sean capaces de exportar, que sean capaces de deslocalizar su producción etc. Pero insisto, mínimamente van a afectar a lo que son las empresas pequeñas. De las experiencias que conozco, de estas que son grandes, que pueden tener perfectamente forma jurídica de cooperativa, pero también de asociaciones o de fundaciones, han tendido a seguir la misma forma de actuar que han tenido las empresas privadas de carácter capitalista, su lógica no ha variado mucho; me estoy refiriendo a las muy grandes” (C2).

Hau da, globalizazioak dakarren erronka ekonomikoen aurrean, hala nola, merkataritza-trukeen konfigurazio berria, deslokalizazio prozesuak eta lurralde batzuetatik besteetara mugitu diren ekoizpen edo hornikuntza kateen aurrean, ESSko antolakunde handiek merkatu kapitalistak arautzen duten patroi berdinak jarraitu duten bitartean, antolakunde txikiagoek ez dute horrenbesteko eraginik jaso.

Antzeko irakurketa egiten da ekonomia solidariotik (B2). Sare honen arabera, kooperatibismo industrial handiak, globalizazioaren erronkei aurre egiteko, bere ekoizpen eta nazioarteratze politikak berrantolatzen behartuta ikusi dela argudiatuko lukeela diote aurrera eramane dituen jokabide batzuk justifikatu ahal izateko. Bestalde ekonomia solidarioari dagokionez, non enpresak, oro har, txikiagoak diren, eta industrian baino, hurbiltasunezko zerbitzuetan jarduten duten, globalizazioaren eraginak beste ildotik joan dira. Izan ere, ekonomia solidarioak hornitu ohi dituen hurbiltasunezko zerbitzu horietan ere lurraldearekin lotura ez duten enpresa multinazionalak eragiten dute, adibidez frankizien bitartez, elikadura burujabetzaren kontra doan eredu agroindustrialaren bitartez edo merkatuaren erregulazioa baldintzatzeko orduan.

Hala ere, ekonomia solidarioaren kasuan, globalizazioak eragin gutxiagoa izan duela aitortzen dute, izan ere, ekonomia solidarioko antolakundeetan ez da hazkundera bilatzen, eta beraz ez dira beharrezkoak ikusten nazioarteratze prozesuak. Hau da, esperientzia arrakastatsu baten aurrean, esperientzia hori beste lurralde batzuetan erreplikatzeko bilatzen da, eta ez lurralde berrietara zabaltzeko hazkundera prozesuak.

Dena dela, globalizazio kapitalistari aurre egitea elementu diskurtsibo garrantzitsua bihurtu da ekonomia solidarioan, batez ere lurraldeen eta komunitateen gain izan dituen efektuengatik. Eta, zentzu honetan, ulertzen dutelako ekonomia solidarioak ekonomia lokalen indartzea dakarrela (B2).

C3 adituak ere, aurrekoek egiten duten antzeko bereizketa egiten du. Hala ere, kasu honetan, bereizketa egiteko ez dio enpresen tamainari erreparatzen eta ez du zuzenean ekonomia solidarioaren eta ekonomia sozial edo kooperatibismo tradizionalaren arteko bereizketarik egiten, baizik eta antolakundeen jarduera sektorean jartzen du arreta.

Adituaren iritziz, merkatu batzuk globalagoak dira beste batzuk baino, eta beraz merkatu global horietan parte hartzen duten ESSko antolakundeei ekoizpenaren nazioarteratzea eskatzen zaie besteren artean. Jokabide hauek, adituak dio, antolakunde hauen nortasun kooperatiboaren des-kooperatibizatze bat ekarri dezake, filial kooperatiboak sortzea zailtasun handiak ekarri ditzakelako. Kooperatibismoa jendearen auto-antolakuntza bultzada batetik sortzen dela ulertzen du eta atzerrian sortzen diren filialak goitik beherako ezarpenak direlako, adibidez. Eta beraz, erraza da enpresa-*holding* kapitalista klasiko baten izaeran erortzea, non zentro bat ezartzen den talde kooperatiboaren matrizea dagoen lurraldean eta, aldi berean, periferia bat lan baldintza txarragoekin filialak dauden herrialdeetan. Adituarentzako, egoera hau, sektore industrialean emateaz gain, lehen sektorean edo finantza sektorean ere ematen da, non globalizazioak dakarren merkatuen irekieragatik, landa kooperatibak, banakuntza kooperatibak edo aurrezki kutxa kooperatiboak lehiakorrak izaten jarraitzeko haztera behartuta ikusten diren (C3).

Globalizazioaren testuinguruan ESSko antolakundeen tamainari edo hazteko beharrari erreferentzia egiten dioten beste hainbat elkarrizketatuen ekarpenak jaso ditugu ere.

Izan ere, globalizazioaren testuinguruan lehiakor izateko, enpresen hazkundera ezinbestekotzat jotzen da ikuspegi batzuetatik (B1, B4, C1). Eta horregatik da garrantzitsua, hain zuzen ere, enpresen presentzia handitzea nazioartean. Modu honetan, enpresek, batez ere sektore industrialetakoek, euren biziraupena bermatzen dute eta jatorrizko lurraldean enplegua eta garapen teknologikoa mantendu dezakete.

“Lo que se dice desde el propio sector (Ekonomia Soziala, eta honen barnean bereziki lan-elkartuko kooperatibismoari buruz hitz egiten ari du elkarrizketatuak) es que han tenido que

dar ese paso para poder competir con empresas también grandes, (...), porque el tamaño sí que es muy importante para ciertos negocios (...) por qué bueno, al final a las pequeñas, vienen los fondos de inversiones, vienen las grandes empresas y no se puede competir contra ellas. (...). Y luego en el fondo para mantener el empleo aquí y que de alguna forma el desarrollo tecnológico se lleve desde aquí, desde la matriz que normalmente son cooperativas que están en Euskadi.” (C1)

Antzekoa gertatu izan da lehenengo sektorean diharduten kooperatibekin. Globalizazioarekin, lehenengo sektoreko kooperatibek eboluzio garrantzitsua izan dute, non kooperatiba txikiak profesionalizatu, balio erantsi handiagoa sortzen duen ekoizpen balio kateak osatu eta nabarmen hazi egin diren. Kasu konkretu honetan, hazkunde hori kooperatiba ezberdinen elkartze eta fusioen ondorioz eman da. Modu honetan, gaur egun, EAEko lehenengo sektoreko produktuen ekoizpena edo/eta merkaturatzea oso kooperatiba gutxietan kontzentratuta dago. Eta beraz, orokorrean, globalizazioaren eraginez, eta honek enpresetan sortu duen hazteko beharragatik, kooperatiben kopurua txikitu izan da haien negozio-bolumena hazi egin den bitartean. Aldi berean, batez ere produktu hauen balio kateen eraldaketak sortzen duen balio erantsiaren hazkundeari lotuta, sektorearen egonkortzea eta enplegu berriak sortzea eragin du (B1).

Orokorrean, ikuspegi honetatik heltzen dioten elkarrizketatuek, kooperatibak, testuinguru globalizatuan biziraun ahal izateko, bestelako edozein enpresak dituen behar ekonomikoak partekatzen dituztela diote (B1, C1), eta beraz, kooperatiba izateagatik eratortzen diren bestelako onurak, kooperatiba horrek bizirauteko behar dituen mozkin ekonomikoak lortzeko duen gaitasunari azpiratuta daude nolabait.

“Parece lógico y evidente que antes sea, o por lo menos simultáneamente, empresa, es decir, que haya beneficios empresariales, a que además esté arraigada”. (C1)

Hala ere, nazioartekotze prozesu hauek ekar dezaketen nortasun kooperatiboaren galerari dagokionez,

“A pesar de que pueda actuar en el mundo y de que pueda actuar con formas jurídicas de distinta índole, que la identidad cooperativa se manifieste lógicamente en la matriz cooperativa vasca pero que también puedan descender algunos aspectos cooperativos a esas otras figuras con las que actúa en el mundo, si está actuando en China utilizará formas jurídicas normalmente locales chinas o si está actuando en Polonia pues polacas. Lo que seguramente puede también la cooperativa vasca es introducir elementos cooperativos de los que está habituado dentro de la CAV también dentro de esas entidades, aunque no sean cooperativas, chinas o polacas” (C1)

Horrenbestez, globalizazioaren auziari nazioartekotze prozesuetatik heltzen diotenek, ezinbestekotzat jotzen dute enpresen hazkundera lehiakortasun globalak dituen erronkei aurre egin ahal izateko. Hala ere, ekimen kooperatiboek badute garatu dezaketen hazteko modu propioa. Ildo honetan, interkooperazioaren gaia barneratzen dute eztabaidan:

“La internacionalización necesita cierta dimensión y la dimensión no se logrará por temas de fusiones, sino seguramente por temas de intercooperación. Entonces, el fomento de la intercooperación, que es otro de los principios cooperativos, para lograr dimensión cooperativa para lograr ámbitos de actuación económica internacionales.” (C1)

Hala ere, nazioartekotzearen eta deslokalizazioaren arteko ezberdintasuna azpimarratzen dute. Izan ere, deslokalizazioa ohiko enpresek lurraldeetan eragiten duten arazo nagusienetarikoak direla diote eta kooperatiben kasuan prozesu hauek ekidin egiten dira erabakia langileen esku dagoelako.

“Globalización, no como deslocalización, sino como como actuación en ámbitos lógicamente superiores a la CAV, que no deja de ser una pequeña región de un estado dentro de la Unión Europea.” (C1)

Ildo honetan, hainbat elkarrizketetan globalizazioak dakarren beste arrisku garrantzitsu bat azpimarratu izan da, EAEko enpresa ehunari bereziki eragiten ari diona. Elkarrizketatu ezberdinentzako (A1, A5, B4), enpresen erabakitze zentroen lekualdatzea Euskal ekonomiaren arazo nagusienetarikoa izaten ari da gaur egun. Izan ere, atzerriko enpresek bertako enpresa ugari erosten ari dituzte, eta beraz, enpresen erabaki zentroak alde egiten ari dute. Era berean, arazo horri aurre egiteko modu eraginkorra langileria enpresaren jabegoan parte-hartzea dela uste dute zalantzarik gabe. Izan ere, langileek enpresaren jabegoaren zati esanguratsua dutenean, enpresa horrek lurraldetik alde egiteko arriskua asko murrizten dela argudiatzen dute. Eta beraz, ESSa lan-elkartuaren irizpidetik ulertuta, arrisku hauei aurre egiteko gai dela ere, egitura produktiboa askoz sustraituagoa egongo delako (A6, B4).

Gainera, azpimarratzen da, Euskal Herriko industria askotan erreleboak emateko garaia heltzen ari dela eta ESSa (lan sozietateen edo kooperatiben kasuak bereziki azpimarratzen dira) izan daitezke aukera interesgarriak. Hala ere, aldi berean, lidergo sendoak beharrezkoak direla eta pertsonak erdigunean jartzeko lanketa handia egin beharko luketela adierazten da (A1).

Ildo honetan, Gipuzkoako kasua jartzen da eredu bezala non langileen partaidetza sustatzen ari den enpresetan. Izan ere, ASLE-tik diotenez, Gipuzkoan, parte-hartzearen aldeko apustua egin da eta bazkide kapitalisten jubilazioagatik enpresa industrialen erreleboa emateko orduan, ESSko forma baten bitartez izateko pizgarriak eskuragarri jarri direla. Hots, transmisioa langileen alde egiten bada, tratamendu mesedegarria izan dezaten. Izan ere, enpresak errotzeko modurik eraginkorrena dela ikusten da (B4).

Dena den, lan-sozietateen kasuan, arrisku hori ez da guztiz desagertzen, haien jabego egiturak langileen esku dauden arren (%50ean baino gehiago behintzat), partaidetzak edo akzioak salerosi daitezkeelako. Eta ASLE-tik ohartarazten dutenez,

“Como son empresas que, en general, lo hacen bien, porque tienen algunos elementos que aportan mucho valor a su competitividad, somos muy atractivas para las grandes empresas que están creciendo a través de la compra de empresas en otros países. Y en Euskadi, no sólo las empresas de economía social, estamos viendo que somos un caladero interesantísimo para un montón de grandes empresas para comprar empresas y abrir sus tentáculos.” (B4)

Eta,

“No sólo tenemos problemas para crecer porque no tenemos músculo financiero, sino que somos atractivas para que nos compren. Y eso supone la pérdida de la esencia de lo que es una empresa de Economía Social” (B4)

Hala ere,

“Hemos visto un montón de procesos nuestros de empresas que si son compradas, y a corto plazo, si hay unas ciertas cláusulas de blindaje del empleo y tal, pero en el momento que quieren cogen la producción y se la llevan a otro sitio y hay una descentralización. (...) Pero claro, esas empresas, si les dices que no a su oferta, van a seguir creciendo y tú con tu pequeña empresa vas a tener que seguir compitiendo con ellas” (B4)

6.3.2.3 ESSko antolakundeen errotzea:

Globalizazioak ESSko antolakundeen gain izan dituen eraginei buruzko aurreko eztabaidatik, gure tesirako zentrala den gai beste bat estuki lotu dezakegu: ESSko antolakundeek lurraldearekiko duten errotzea. Gai honen inguruan iritzi askoz bateratuagoa aurkitzen dugu elkarrizketatuen artean. Izan ere, guztiek esaten baitute, modu esplizituan, ESSko antolakundeek bestelako enpresak baino errotze handiagoa erakusten dutela sortzen diren lurraldeekiko (A1, A2, A3, A4, A5, A6, B1, B2, B3, B4, B5, C1, C2, C3).

Hala ere, ESSko antolakundeek erakusten duten errotzea ez da beti modu berdinean ulertzen, eta gutxienez, bi zentzu ezberdin aurkitu daitezke elkarrizketatuen diskurtsoetan¹¹⁰. Alde batetik, errotzea ESSko antolakundeen ezaugarri formalekin eta izaera juridikoarekin lotzen dutenak leudeke, non jabego egitura kolektiboa, kudeaketa demokratikoa eta mozkinen banaketa mugatua bezalako elementuek eragiten duten errotzean; eta beste aldetik, ESSko antolakundeek tokiko garapenarekiko edo garapen komunitarioarekiko duten konpromisoarekin lotzen dutenak daude.

Lurraldearekiko errotzea azaltzeko antolakundeen ezaugarri juridiko formalei garrantzia ematen diotenen artean, C2 elkarrizketatuak hurrengo hausnarketa planteatzen du ESSak enpresa kapitalistak baino lurraldearekiko errotze handiagoa duela adierazteko. Elkarrizketatuarentzako, ESSak dituen berezko hiru ezaugarri eta elementu bereizgarriengatik ematen da errotze handiago hori. Hau da, nork eta nola erabakitzen duen, antolakundearen helburua eta mozkinen edo soberakinen banaketa. Enpresa kapitalistetan, inbertsore kapitalista da —kapitala, alegia—, hiru ezaugarri horiek zuzentzen dituena: Batetik, erabakiak kapitalaren gehiengoa duenak hartzen ditu, eta beraz, inbertsore kapitalista da funtzinamendu logika ezartzen duena enpresan; enpresa kokatuta dagoen lurraldean bizi edo ez. Bigarrenik, helburua mozkinen maximizaizioa bihurtzen da, inbertsore kapitalistak inbertitutako diru horretatik errentagarritasun handiena lortu nahi duelako. Eta beraz, mozkinak maximizatu ezin diren esparru, lurralde edo sektore horietan ez dira enpresa kapitalistak agertuko. Adibidez, despopulatutako landa eremuetan edo degradatutako auzoetan ez dira enpresa kapitalistak agertuko ez dagoelako eskari egonkorrik ondasun eta zerbitzuen eskaintzari erantzuteko gai dena. Berdin gertatzen da ekonomikoki errentagarriak izan ez daitezkeen sektore batzuetan. Eta hirugarrenik, kapitalaren gehiengoa duena da mozkinen gehiengoa lortzen duena. Horregatik kapitala da helburua, erabakiak eta banaketa inposatzen duena (C2).

Aldiz, ESSko antolakundeak beste modu batera erantzuten diote hiru ezaugarri hauei. Erabakiak modu demokratikoan hartzen dira antolakundeari lotutako bazkideen artean. Helburua ez da mozkinak maximizatzea, baizik eta bazkideen, kolektibo ezberdinen edota jendartearen beharrak asetzea. Eta beharbada, irabaziak, helburu horiek lortzeko bitarteko bat izan daiteke. Adibidez, lan elkartuko kooperatibetan

¹¹⁰ Ez dira bateraezinak; izan ere, gehienek bi ikuspegiari egiten diete erreferentzia. Hala ere, elkarrizketatu bakoitzak, modu esplizituagoan edo inplizituagoan nabarmendu ohi du horietako bat.

helburua enplegua izatea da eta kontsumo elkartuko kooperatibetan kontsumorako ondasunak prezio baxuagotan. Eta azkenik, mozkinen banaketari dagokionez, hau ematen baldin bada, kapitalari lotuta ez dauden bestelako parametroen bitartez ematen dela dio (C2).

Elkarrizketatuaren iritziz, funtsezko ezberdintasun hauek dira lurraldearekiko errotzerako ezinbesteko elementuak. Izan ere, enpresa kapitalista batean erabakiak kapitalaren arabera hartzen direnez, kapitalaren gehiengoa duen inbetitzailearen irizpideen arabera hartuko dira, eta beraz errentagarritasun handiagoaren bila enpresa deslokalizatzea erabakitzen badu munduko beste toki batean soldatak edo ekoizpena merkeagoa delako enpresa deslokalizatuko da bertoko jarduera ekonomikoa etenduz eta lanpostuak galduz. ESSko antolakunde batean, erabakiak demokratikoki hartzen direnez, jabegoa kolektiboa denez eta helburua bazkideen beharrak asetzea denez ezin izango da antolakunde hori deslokalizatu. Adibidez, lan elkartuko kooperatiba batean non langileek erabakiak demokratikoki hartzen dituzten, ez da jarduera ekonomikoa deslokalizatzeko erabakirik hartuko enplegua delako jokoan dagoena eta erabakia langileek eurek dutelako (C2).

“En las empresas cooperativas, y en general, en las entidades de Economía Social, el principio decisión es distinto. No es en base al capital, sino que está vinculado al principio democrático. Cuando es democrático es que hay muchas más personas. En una cooperativa de trabajo asociado serían todos sus trabajadores. Tú vas a decir a la empresa, pongamos de 100 trabajadores de Elgoibar... ‘Oye, que vamos a trasladar la producción a Tánger, y lo vamos a votar en asamblea’ ¿Que te van a decir los trabajadores? Evidentemente te van a decir que no, porque se están jugando su puesto de trabajo. Si esa misma empresa, en vez de ser cooperativa de trabajo asociado, fuera una Sociedad Anónima, el empresario de turno diría: Bueno lo siento, vosotros vais al paro y yo la traslado a otro sitio y yo continúo ganando dinero porque me va a resultar mucho más barato. Es decir, la propia forma jurídica, en este caso vinculado al modo de decisión hace que las entidades de Economía Social estén más ancladas al territorio por la decisión. Y esto por el momento es una mayor garantía, no una garantía total, pero desde luego una mayor garantía, frente a los procesos de deslocalización empresarial, por la vía de la decisión en este caso.” (C2)

Ikusi dezakegunez, errotzea ESSko antolakundeen ezaugarri juridiko formalekin lotzen dutenen artean, jabego egiturari, deslokalizazioari aurre egitea, lanaren defentsa eta aberastasunaren banaketa berdinzale eta lurralderatuagoa bezalako ekarpenetan jartzen dute arreta gehien.

Adibidez, jabego egiturari dagokionez:

“El hecho de que la propiedad de la empresa, los resultados de la empresa y la gestión de la empresa estén vinculados con las propias personas que trabajan en la empresa, pues sin ninguna duda esto te está dando un input importante en cuanto a la localización de la empresa” (B1)

“Si la mayoría del capital está en manos de personas que trabajan aquí, lógicamente el proyecto va a estar afincado allí donde se está desarrollando la actividad, con sede social en nuestro territorio, con personas que tienen un vínculo muy fuerte con la localidad donde viven, que generalmente somos empresas que intentamos contribuir al crecimiento paralelo del entorno en el que vivimos, que se hace con mucha contratación local. Vamos en ese sentido, el nivel de enraizamiento es total y absoluto. En un momento en el que tenemos a un montón de fondos de inversión y grandes multinacionales comprando nuestras empresas (...) que al final supone pérdidas de centros de decisión, pérdidas de recaudación (...) y al final va a redundar en una pérdida del bienestar” (B4)

Hala ere,

“Ekonomia Sozialeko entitateak bai errotuagoak daude territoriora eta zailagoa da beste nonbaitera joatea hemengo kooperatiba handi bat edo txiki bat, baina aldi berean, isomorfismo de mercado delako fenomeno hori dezente pairatzen dutela eta batzuk ekonomia kapitalistako praktiketara peligrosamente asko hurbiltzen direla, ez?” (A3)

Jarduera ekonomikoen deslokalizazioaren aurkako ekarpenei eta tokiko enpleguaren defentsari dagokionez:

“Son empresas que están ubicadas aquí y que su sentido está en mantener el empleo, empleo de calidad, estar arraigadas al territorio, no deslocalizarse, que es uno de los grandes problemas de las actuales empresas, porque los propietarios son los trabajadores y no tienen ningún interés en deslocalizarse” (C1)

“(...). Ze uste dugu, kooperatiba bada errotu egiten dala bertan eskualdean, eta gero badagozenez krisi garaiak eta, ba hobeto irauten dotzela krisi garai horri ba deslokalizatzeko edo ixteko erabakiak zailagoak izaten dira hartzea. Bueno, lotuagoak dagoz eskualdera, ezta? Orduan hori egiten dugu batez be, hori ekiditzeko kooperatiba eredu, ahal dugun neurrian behintzat, bultzatu enpresa berrien sorreran” (A2)

“En cooperativas suele ser imposible que se deslocalice una empresa. De hecho, cuando nuestras cooperativas han salido al mundo porque se han internacionalizado... Pues un Ulma, un Fagor un LKS... lo que sea, su centro de decisión sigue estando en Euskadi, la mayoría de su personal sigue estando en Euskadi y su salida al exterior pues es una evolución lógica de su negocio” (B1)

“Una de las características fundamentales suele ser la no deslocalización ¿no? En el caso nuestro de los Centros Especiales de Empleo que dan trabajo a personas con discapacidad

y además con mayores dificultades o mayores necesidades de acceso a la empleabilidad pues es impensable deslocalizar nuestras entidades porque además son empresas muy arraigadas ¿no? Con mucha capilaridad, sobre todo las grandes ¿no? En muchas comarcas y muchos pueblos (...) es todo lo contrario ¿no? es dar empleo a las personas con discapacidad de las comarcas o de los pueblos (...) es hacer actividades en y para el propio pueblo, ciudad o comarca ¿no?” (B5)

“Nahiz eta globalizatuta egon, kooperatiba horiek enpresa oso handiak dira eta mundu guztian egon, matrizea edo zentrala gure eskualdean dago, eta orduan hor igarri egiten da asko. Ez dago, oraingoz behintzat, edo nik horrela ulertzen dut, deslokalizaziorako arriskurik. Ze azken finean, globalizatu dira zertarako? Bertan mantendu ahal izateko lana, matrizean, ezta?. Eta orduan esango neban, bertotik, hau da eskualdean bertan sortutako, eta kooperatiba eredu batez ere, oso baliagarriak dirazela globalizazio hori aprobetxatzeko solik aukera modura eta ez mehatxu modura eta gero galdu bertoko lanpostuak.” (A2)

Eta aberastasunaren banaketari dagokionez:

“Al final son empresas que se van a desarrollar en el propio territorio. (...) Una de las principales características de la Economía Social es el arraigo territorial, entonces lo que va a aportar además de todos esos valores de igualdad, equidad, responsabilidad (...), redistribución de la riqueza ya que ellos van a ser los propietarios.” (C1)

Gainera, mozkinen banaketa kapital ekarpenari lotuta dagoenean, inbertitzaile kapitalistak mozkinak jasotzen dituenean beste lurralde, enpresa edo jarduera batean berrinbertitzea erabaki dezake. Hau da, bi efektu eman daitezke aldi berean: Batetik, mozkin horiek lortu diren enpresan berriz ez inbertitzea, hots, ez da tokiko egitura produktiboan berrinbertitzen, eta bestetik, mozkinak lurralde batetik bestera eramaten denez, kapitalaren drainatze efektu bat eragiten du, aberastasuna sortu den jatorrizko lurraldetik beste batera eraman delako. Beraz, enpresa kapitalistek, ekoizpena ez ezik, kapitala deslokalizatzeko aukera daukate. Aldiz, ESSko antolakundeetan, mozkinak jarduera produktiboan berrinbertitzen dira, antolakundeak sortzen duen jarduera ekonomikoa garatzeko, eta hedaduraz, enpleguak egonkortzeko (C2).

“(...). Y luego está por la vía de la distribución de los excedentes y los beneficios. Decimos que en las empresas capitalistas va en función de la participación en el capital, por tanto, es fácil que el inversor capitalista una vez que recibe sus ingresos, pues lo pueda destinar a donde más le sea rentable. El empresario que hemos mencionado de Elgoibar, por ejemplo, de 100 millones de euros de beneficio de este ejercicio, y a lo mejor no lo ve rentable continuar invirtiendo allí en Elgoibar, y dice: mira en la costa de la Azahara aquí en Valencia, pues hay unos pisos unos inmuebles fantásticos y estamos en un proceso de ‘Boom’ del sector inmobiliario, bueno pues esos 100 millones me los voy a invertir allí donde voy a ganar mucho

dinero. ¿Verdad que es totalmente legítimo? Totalmente legítimo, y acabo de generar dos cosas: Uno, no acabo de reinvertir en mi territorio, que sería la zona de Elgoibar, y además lo que he hecho es un efecto vacuas, es decir un efecto de drenaje de capital de un territorio para llevármelo a otro. Acabo de deslocalizar no producción sino capital a otro territorio. Esto es poco menos que inconcebible en las cooperativas, en las entidades de Economía Social. La cooperativa obtiene sus beneficios, y lo primero que hace (...) vincular esos beneficios que obtiene a la reinversión en el propio medio de producción. Ampliando la planta, etcétera, con la finalidad de que sus puestos de trabajo, su actividad económica se quede más anclada y mejor desarrollada dentro del territorio. Es decir, se produce un proceso acumulativo y un proceso de retroalimentación dentro del territorio.” (C2)

Horregatik, ESSko antolakundeek duten mozkinen gaineko tratamendua ere, lurraldearekiko errotzea indartzeaz gain, horren garapen ekonomikorako ekarpen endogeno garrantzitsua suposatzen dute.

Por tanto, le vemos dos funciones claramente significativas que favorecen y que entran dentro de lo que es la teoría de desarrollo endógeno que favorecen más las entidades de Economía Social frente a las empresas capitalistas: Uno tienen un mayor anclaje al territorio, y luego, tienden a auto-reproducir y a ampliar más lo que es la capacidad productiva vinculada a actividad principal y a las actividades anexas que tiene la empresa de producción en su correspondiente territorio. ¿De acuerdo? Entonces, a la pregunta, ¿tienen mayor vinculación al territorio? Clarísimamente. (C2)

Hala ere, ESSko jabego egiturengatik arazoak eratorri daitezkeela argudiatzen duten elkarrizketatuak ere badaude. Izan ere, testuinguru globalizatu batean, kooperatibak eta lan-sozietateak batez ere, nazioartean lehiatu behar dute enpresa multinazional handiekin, eta ESSko antolakundeak askoz zailagoa daukate hazteko eta proiektu berriak hasteko edo enpresak erosteko beharrezkoa den kapitala metatzea. Gainera, enpresa multinazionalak kapitalean oso intentsiboak dira eta ESSko antolakundeetan capita soziala bazkideek eurek jarri dutenez, oso zaila daukate aurrekoekin lehiatzea.

“Son personas cuyo objetivo primordial es el empleo, no el enriquecimiento. Es gente que tiene un buen nivel de bienestar en general, porque hay una redistribución de la riqueza, pero no es gente capitalista, con grandes capitales. Entonces, sus posibilidades para poner dinero en una empresa, para escalar el proyecto y que compita a nivel internacional es prácticamente imposible.” (B4)

Beste ikuspegitik, ESSko antolakundeek errotzea garapen komunitarioarekin eta lurraldean parte-hartzearekin lotzen dutenen artean, garapen estrategiaren inguruan eragileak batzeko, tokiko beharrei espresuki erantzuteko, lurralde gobernantzan parte-

hartzeko, politika publikoen ko-eraikuntzarako eta abarrerako ahalmenean arreta jartzen dute batez ere. Zentzu honetan, aurrekoan bezala, bestelako enpresek baino errotze handiagoa daukatela kontsideratzen da.

“Ez dira ikuspegi ekonomiko eta errentagarritasun batetik sortzen bakarrik, baizik eta beste arazo eta behar batzuei erantzun emateko. Eta erantzun horiek oso lotuta daude eskualdeko errealitatearekin eta eskualdeko jendeak tira egiten du normalean horrelako proiektuetatik” (A1).

Ekonomia solidariotik esaten dutenez,

“Yo creo que todas las respuestas de la Economía Social y Solidaria tienen que ver con el territorio” (B2).

Izan ere ekonomia solidarioaren printzipioen gutunean espresuki agertzen da ingurunearekiko konpromisoa. Elkarrizketatuen ustez, printzipio honek ESSko antolakundeek sortzen diren lurraldearekiko duten harreman estuaren adierazgarri da eta haien sorkuntza tokiko beharrak asetzearekin lotzen ditu. Hau da, ESSko antolakundeak lurralde bakoitzean erabilgarritasun soziala eta inpaktu positiboa duten jardueretan ezartzen direlako erakusten dute haien errotzea.

Eta,

“Yo diría que incluso es más que vinculación, no sé, ese nudo que tienes con el espacio en el que naces, y en el que habitas y para el que estás generando tus productos, servicios y resolviendo sus necesidades.” (B2)

Zentzu honetan ere, C3 elkarrizketatuak dionez, ESSko antolakundeak errotze handiagoa dute lurralde bateko beharrak asetzeko espresuki sortzen direlako. Gainera, ekimen horiek aurrera eramaten dituzten pertsonak bertakoak direnez, jarduera ekonomikotik eratorri daitezkeen kanpo-eragin negatiboak saihestu daitezke. Izan ere, inork ez du nahi, adibidez, bere bizitokian kutsadura tasa altuak izatea; eta gertatzekotan, erreklamazioa errazagoa izan daiteke ekimenaren jabeak bertan bizi direlako.

“Como muchas veces son iniciativas (...) que surgen para resolver necesidades del territorio (...). Y por lo que respecta a lo que podríamos denominar como externalidades negativas, que cualquier actividad humana y económica pues clarísimamente puede generar... pues contaminar un río, ¿no? o echar a la calle a un grupo de trabajadores. Pues esto es más difícil que ocurra si la entidad local es de Economía Social y Solidaria en la medida en la que la gente que es socia de esta entidad, que lleva esta entidad, vive en el territorio... y, por lo tanto, bueno pues eso que llamamos... existe en los territorios un cierto control social difuso ¿no? Es decir, si yo con tres compañeros más montamos una cooperativa, de no se... un taller

de motos, y resulta que ensuciamos cada día la acera y echamos humo cada día a la calle, pues como yo vivo al lado, es posible que venga la vecina o el vecino: oiga oye Jordi, esa cooperativa que dices tú que tenéis aquí... dejáis esto echo un cisco, ¿no? Si en cambio yo vivo en Neguri o yo vivo en Pedralbes aquí en Barcelona (...) pues vete a reclamar vecino ¿a quién reclamarás?”
(C3)

Era berean, enplegua sortzen dute lurraldeetan eta tokiko baliabideak mobilizatzen dituzte. Ez dira frankiziak, matrizea lurraldean dutelako, eta beraz, sortzen duten aberastasuna era bidezkoagoan banatuta egoteaz gain, lurraldean gelditzen da. Gainera, alternatiba integralak izan ohi dira lurralde bateko bizitza sozial eta kulturala aktibatzen lortzen dutelako, eta, azken finean, komunitatea indartzen dutelako. Ezaugarri hauek, elkarrizketatuaren ustez, sinergiak sortu dezakete auto-eraketa bilatzen duen tokiko garapenerako eredu autozentratu batekin (C3).

“(...) pues bueno, como la mayoría de las necesidades son híbridas, ¿no? No solo son lo que entendemos por económicas, tienen muchas veces un componente social, un componente cultural, ¿no? Por lo tanto, son las iniciativas de la Economía Social y Solidaria integrales, que consiguen activar la vida social y cultural de un territorio o generar comunidad en el mismo territorio, ¿no?” (C3)

Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ikuspegitik ere, antzeko irakurketa egiten da. Kasu honetan, ESSaren errotze handiagoa bi arrazoi nagusiengatik ematen dela argudiatzen da. Alde batetik, ESSak duen izaera politikoak eragiten du, besteren artean, tokiko dinamika ekonomiko, sozial eta politikoetan eragile izatea, eta beraz, errotzea handiagoa erakustea. Eta bestetik, ESSaren negozio ereduak lotuta, pertsona erdigunean jartzen denez, eta jarduera ekonomikoa komunitateari begira aurrera eramaten denez, bertan dauden beharren arabera sortzen direlako proiektuak; eta beraz, lotura zuzena ematen da lurraldearen beharren eta ESSko antolakundearen artean. Eta azken elementu honetan dago, elkarrizketatuaren iritziz, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen eta ekonomia sozial tradizionalaren arteko ezberdintasun nagusia lurralde ikuspegitik (B3).

Ildo honetatik ere, ESSaren baitan sar ditzakegun enpresa eta antolakundearen irakurketa homogenea ezin dugula egin adierazten dute hainbat elkarrizketatuk (A3, A5, B3). Adibidez, A3 elkarrizketatuk dionez, Euskal Herriko bigarren olatu kooperatiboan baneratu genitzakeen kooperatibak (Arrasateko esperientzia kooperatibora lotuta daudenak), oro har, kanpora begira garatu izan baitira. Eta enpleguaren beharrari lurralde ikuspegi batetik eutsi dioten arren eta kooperatiba horien

bitartez enplegu sorrera nabarmena egon den arren, ez dituzte tokiko beste behar batzuetan arreta jarri jarrera globalizatailea jarraitu dutelako. Eta horrek gainera, ekonomia sozialaren legea mugara eramatea eragin du (elkarrizketatuak kooperatiba batzuen langile-bazkide eta soldatapeko langileen kopuruaren harremana eta merkatu globaletan lehiatzeagatik jasan duten merkatu-isomorfismoa jartzen ditu adibide gisa.) (A3).

Gainera, kasu batzuetan, antolakundearen egunerokotasunean murgilduta egoteak eta antolakundearen biziraupen ekonomikoan indar guztiak jarri beharrak eragin dezake garapen komunitarioarekiko lotura hori galtzea.

“Depende de cada caso. En general están, como todas las empresas, están tan condicionadas por los resultados, o sea por la supervivencia económica, que su vinculación con el territorio es la que pueden (...). Es que la supervivencia económica y las condiciones de cada empresa pues a veces hacen difícil que eso se haga posible” (A5).

6.3.2.4 Tokiko garapenaren etorkizuna:

Gaur egungo testuinguruak tokiko garapenean zein ESSan eragin dituen aldaketak ikusita, tokiko garapenaren etorkizunari buruz hausnartzea eskatu zitzairen elkarrizketatuei. Kasu honetan ere, iritzi eta ikuspegi oso ezberdinak jaso ziren. Orokorrean, garapen agentziek euren eskualdearen egitura produktiboaren izaeraren arabera, arreta jartzen dute garapenaren esparru batzuetan edo besteetan.

Hala ere, orokorrean, etorkizuneko lan ildo bezala garapen agentzia bakoitzak orain arte egin dituenak identifikatzen ditu. Hots, orokorrean, orain arte egindakoarekin jarraitzeko asmoa daukate garapen agentzia guztiek (Salbuespen batekin, izan ere garapen agentzietako elkarrizketatu gehienek Covid-19aren krisiaren ondorioz premiazko neurriak eta ekimenak aurrera eraman behar izana adierazten dute. Adibidez, enpresen diagnostikoak, kontsumorako eta turismorako bonoak, laguntza bereziak etab.). Bestalde, ESSko eragileek, orokorrean garapen agentzien etorkizunerako lan ildoan artean ESSa sustatzea, edo, behintzat, ESSarekin harremanak sendotzea beharrezkoa litzatekeela esaten dute. Izan ere, oro har, ESSko eragileek garapen agentziak eragile garrantzitsuak bezala ikusten dituzte ESSa sustatzeko orduan, nahiz eta, aldi berean, harremanak garatuegiak ez dituzten aitortzen duten.

Orokorrean, lurralde bakoitzaren izaeraz gain, lurralde guztietan eragiten duten erronka transbertsalak daudela aipatzen dituzte elkarrizketatu batzuek; nahiz eta erronka

hauei aurre egiteko moduak ez diren berdinak izango lurralde guztietan. Hauek, adibidez, geroz eta nabariagoak diren disparekotasun ekonomikoak, digitalizazioa, iraultza teknologikoa, klima aldaketa, energia berriztagarriak, ekonomia zirkularra, Garapen Iraunkorreko Helburuak barneratzea etab. izan daitezke (A2, A5, A6, C2).

Gehiago zehaztuz, lurraldearen izaerari begiratzen badiogu, oro har, eskualde industrialetako garapen agentziek, enpresen lehiakortasuna sustatzeko neurrietan sakontzea beharrezkoa dela argudiatzen dute. Eta honen barnean berrikuntza dinamiken beharra azpimarratzen dute, batez ere, enpresa industrial txiki eta ertainen kasuan; horretarako eragile ezberdinen arteko lankidetzeta eta elkarlana beharrezkoa delarik (A1 eta A2). C2 elkarrizketatuak globalizazioaren testuinguruan sortu den lehiakortasun globalagatik eta deslokalizazio prozesuengatik gainbeheran dauden eremuetan ekoizpen egitura berregituratzeko orduan ESSak paper garrantzitsua jokatu dezakeela dio. Izan ere, balio kateak berriz ere lurralderatzeko somatu daitekeen patroia aldaketa horretan, ESSak duen jabego egiturengatik eta berrikuntza teknologikoa eta soziala uztartzeko duen gaitasunagatik industriak berpizteko aukera handiagoa eskaini dezake (C2).

Lehiakortasunaren ildotik ere, baina ESSko antolakundeei espresuki aplikatuta doaz ESSko eragile eta aditu batzuk ere (B4, C1). Kasu honetan erronka nagusienak ESSko antolakundeen muskulu finantzarioa handitu, enpresen tamaina handitu, digitalizazioa, espezializazioa, bezeroaren behar espezifikotik oinarritutako eredua garatu etab. bezalakoak azpimarratzen dira. Eta enplegua sortzeko,

“La industria es la gran tractora del empleo (...) El tamaño es muy importante porque genera empleo primario y secundario (...) y porque ese tamaño les posibilita el competir y que no les vengán y les comprendan, sino que sean ellas las que comprendan” (B4)

Gainera, ESSko antolakundeetan eman behar den erreleboa antzematen dute beste erronka nagusi bezala. Eta ildo horretan, gazteak ESSra hurbiltzea ere ikusten dute erronka garrantzitsu bezala. Batez ere gaur egun non enpresa eredu indibidualak gaintzen ari diren (B4, C1). Hala ere, orokorrean, ESSko eragileek lan ildo nagusia ekintzaitza kolektiboaren bidetik aurkitzen dute. Hots, tokiko garapenaren etorkizunerako lan ildo estrategikoa izan behar duela ESSko antolakunde eta enplegu gehiago sortzea (B3, B4, C1, C3).

“Hay un reto o una línea de trabajo que no deberíamos de perder nunca de vista, que es el crear más empresas y más empleo en Economía Social. O sea, apostar por el emprendimiento en Economía Social como respuesta o como una alternativa al modelo

económico actual ¿no? Al dominante, sobre todo. Un empleo, unas características pues más justas, más redistributivas, más equitativas, más igualitarias y de mayor cohesión social ¿no? Las características principales de la Economía Social.” (C1)

Eskualde urbanoetan, ekintzailletza, enplegua (enplegu inklusiboa barne), enpresa txiki eta ertainetako zerbitzuak, merkataritza, digitalizazioa etab. bezalako lan ildoak jorratu beharko dituztela aurreikusten dute (A4). Hots, nolabait, hirietan dauden enpresa txiki eta ertainentzako geroz eta konplexuagoa den ekonomia eta mundu batean jarduteko trebakuntza, informazioa, formakuntza eta diru-laguntzak beharrezkoak izango direla diote. Izan ere, eskualde tertziarioetako enpresak txikiagoak izan ohi dira baina era berean enpresa multinazional oso handiekin lehiatu behar dute (A5). ESSak eremu hauetan izan dezakeen paper espezifikoari dagokionez, A4 elkarrizketatuak dionez, Covid-19aren pandemiak argi utzi du orain arte garatutako eredu ekonomikoak ahulgune ugari dituela eta beste ekonomia bat eraiki behar dela, ESStik eta bere balioetatik hurbil (A4).

Gainera, degradazio prozesuetan dauden auzoen biziberritzean ESSak ere zeregin handia duela esaten du C2 elkarrizketatuak. Hau da, errenta maila altua ez duten, ahulezia soziala duten eta orotariko zerbitzuak ez dituzten auzoetan erronka horiei kolektiboki erantzuteko ekimen ezberdinak martxan jarri ditzake ESSak (Ildo honetan, Madrilgo Mares egitasmoa jartzen du adibide moduan non auzo ezberdinek zituzten erronkei aurre egiteko proiektu ezberdinak sustatzea bilatu zen energia, zaintza, mugikortasuna etab. bezalako esparru ekonomikoetan).

Landa eremuetan, C2 elkarrizketatuak despokatze arrisku oso larriak dituzten eskualdeak daudela dio, horrek dakarren jarduera ekonomiko, sozial, kultural etab. desagerpenarekin. Elkarrizketatuaren arabera, lurralde hauetan ere ESSak asko dauka esateko, izan ere despokatutako lurralde askotan gelditzen den azkenengo enpresa nekazal kooperatiba izan ohi da eta, era berean, azkenengo finantza entitatea landakutxa. Gainera, lurralde batzuetan despokatze prozesu batzuei aurre egin diete ESSko antolakundeak sortuz eta jarduera ekonomikoa berriz ere eramanez lurralde hauetara, enplegua sortuz eta bizitasuna mantenduz (eta Kordobako eta Palentziako landa eremuetako bi adibide zehatz jartzen ditu elkarrizketatuak non ESSaren bitartez despokatzeari aurre egitea lortu egin zaion jarduera ekonomiko esanguratsuak aurrera eramanez; lehena abeltzantzaren inguruan eta bigarrena kulturaren inguruan).

Zentzu honetan ere, hainbat elkarrizketatuek arreta jartzen dute lurralde desoreketan etorkizunerako erronka gisa (B1, B3). Batez ere hirien edo eremu urbanoagoen eta landa eremuen artean. Eta ildo honetan, ESSa eremu hauen arteko desorekak zuzentzeko tresna egokia izan daitekeela adierazten dute. Izan ere,

“La tendencia es que las industrias se localicen en entornos urbanos y en las capitales. Y si entendemos por desarrollo local el desarrollo más uniforme de todo el territorio, de los pueblos con la llegada de los mismos servicios que tenemos en las ciudades (...), necesitamos una red de puestos de trabajo, industrias, comercios... y yo creo que la Economía Social podría dar respuesta a la creación esos puestos de trabajo y en especial el cooperativismo. Tanto cooperativas de uno o de otro tipo podrían generar esos puestos de trabajo que a su vez provocaría que la gente viviera en esos entornos rurales, y por lo tanto ese proceso de huida de la población de los pueblos a las ciudades se detuviera o incluso se invirtiera” (B1)

Hala ere, eremu urbanoen eta landa eremuen arteko desoreka hauek orain arte jarraitutako egitasmoko politikoen ondorio dela adierazten da ere. Eta beraz, egoera eraldatzeko, garapen eredia eraldatu behar dela dioten elkarrizketatuak daude. Egitasmo politiko hauei jarraika, lurraldeek beste lurraldeekiko diferentziatzeko estrategiak jarraitu dituzte inbertsioa erakartzeko eta enpresak bertan kokatzeko eta ez garapen autozentratu bat, lurraldeak benetan dituen beharrak asetzeko (B3).

“Ez hainbeste lurralde batek bere gaitasunak garatu eta lurralde gaitasun horiek sozialki orekatuak izateko estrategia bat, baizik eta lanerako ere espezializazio eta konpetentzian oinarritutako espezializazio estrategia bat. Ni oso kritikoa naiz ikuspegi horrekin, hemen Gipuzkoan San Sebastian Region eredia bultzatu delako izugarri (...) turismoan eta espezializazio handiko lanei lotutako eredu bat bultzatu da Donostiarako. Eta horrek afektatu du asko inguruko eskualdeetako garapen estrategietan. Adibidez, Oarsoaldeako garapen estrategia erabat dependiente da Donostiaren espezializazio horrekiko. Orduan Donostiak espezializatu nahi badu turismoan, Oarsoaldea zer izango da? Ba izango da Donostiak behar dituen turismoko langileen bizitokia. (...) Eta hori injustoa izateaz gain, lurralde ikuspegitik oso desorekatua da, azkenean espezializazio horren arabera aberastasun edo lan kualifikatu edo errenta altueneko lanbideak Donostian sortzen dira eta espezializazio gabeko edo errenta baxuko lanpostuak inguruan, ez? (...) hori da sustatu dena, enplegarritasunera eta enplegu tasak murriztera bideratutako tokiko garapen politikak, baina ez benetan lurralde horretan bizitzeko eta lan duinak izateko gaitasuna handitzeko estrategiak” (B3).

Lurralde desoreka hauei gainera, lan merkatuaren prekarizazio orokorra gehitu behar zaio. Horegatik, elkarrizketatuak dionez, ESSa desoreka horiei, prekarizazio horri, duintasun eta kalitate gabeko lan horri etab. erantzuna emateko sortzen da.

“Gure gaitasun propioetatik, gure lanaren jabe egin eta lan baldintza duinak sortzeko asmoarekin” (B3).

Antzeko ikuspegi kritiko batetik ere, A3 elkarrizketatuak dionez,

“Esplizituki egin beharko zela tokiko garapen endogeno baten aldeko apustua” (A3).

Izan ere, elkarrizketatu honek orokorrean hautu hori ez dela egiten somatzen du; are gehiago, kontrako norabidean dauden erabakiak hartzen direla adierazten du. Eskualde batzuen garapenaren gaur egungo ohiko helburua hostalaritza eta turismoa bezalako jardueren bitartez eta goitik beherako ikuspegi batetik (Eusko Jaurlaritza, Estatu mailatik...) tertzializazioa sustatzea dela adierazten du. Eta sektore hauek talka ekonomikoen aurrean sektore ahulak izateaz gain (Covid-19aren krisia aipatzen du elkarrizketatuak), kalitate baxuko enpleguak sortzen dituzten sektoreak dira. Horregatik egin beharko litzatekeena da lurralde bateko pertsonen beharrak asetzeko behar diren sektore estrategikoak identifikatu eta ikuspegi endogeno batetik horien burujabetzan sakondu. Eta helburu horretarako ESSak tresna egokiak eskaintzen ditu (A3).

Ekonomia solidarioaren ikuspegitik, tokiko garapenaren erronka nagusia, kapitalismoa gainditu eta bestelako eredu alternatiboa sustatzea litzateke. Izan ere, gaur egungo tokiko garapen ereduak orokorrean ikuspegi kapitalista-neoliberalak jorratzen du, eta ekonomia solidariotik egiten den apustua ekonomia solidarioagoa, feministagoa eta ekologistagoa sustatzea da. Hau da, bizitzaren erreprodukzioa garapen ereduaren erdigunean jartzen duen bestelako eredu baten alde egin; egitura auto-eratu, parte-hartzaile eta demokratikoagoen bitartez. Era berean, burujabetza sektorial ezberdinak berreskuratzearen aldeko lan ildoetan sakondu beharko litzatekeela diote ere. Eta horretarako guztirako, ekonomia solidarioa sustatzen duten politika publikoak ezinbestekoak dira (B2).

Hau da, ekonomia solidarioak planteatzen duen tokiko garapenaren etorkizuna hiru urrats edo agertoki jarraitu beharko zituen: lehenik, ekonomia berreskuratu pertsonen zerbitzura jartzeko, bigarrenik, eraikitako eredu sozioekonomiko kapitalistak sortzen dituen eraginei aurre egiteko komunitate erresilienteak sortzea, eta hirugarrenik, trantsizio ekologiko, energetiko, sozial etab. artikulatzeko gai den tokiko garapena. Izan ere, ekonomia solidariotik erronka hauen erantzuna, neurri handi batean, lurraldean, hurbiltasunean eta komunitatean daudela uste dute. Eta beraz, euren ustez, beharrezkoa da ekonomia komunitatera bueltatzea, eta komunitatea izatea erronka hauei aurre egiten diena eta trantsizio horiek kudeatzen dituen (B2).

Ildo honetatik hurbil, Ekonomia Sozial Eraldatzailetik, 2008ko krisitik tokiko garapenaren markoan proposamen berririk ez dela egin uste dute. Eta zentzu horretan, krisiari erantzuna emateko orduan tokiko garapenak zein politika publikoek huts egin dutela uste dute. Izan ere, tokiko garapen agentzien sorkuntza desindustrializazio prozesuetara lotzen dute, non garapen agentzia batzuk paper garrantzitsu bat jokatu zuten. Baina 2008tik, oro har, ez dutela funtzionatu eta gobernuetatik datozen diru-laguntzak lurraldeetara jaistera mugatu direla adierazten du elkarrizketatuak. Gainera, diru-laguntza horien atzean lurralde lehiakortasuna areagotu duen ikuspegi neoliberalala egon delarik (B3).

Horregatik, ESSaren eta tokiko garapen eredu eraldatzaile baten lehentasunezko esparruak lurralde eta kolektibo prekarizatuak izan behar dira. Eta nahiz eta testuinguru zail honek proiektuak aurrera eramatea zailtzen duela onartzen duten, aldi berean, kapitalismoak alde batera uzten dituen lurraldeak aukera garrantzitsua izan daitezke ESSa bertan errotzeko. Izan ere, elkarrizketatuaren esperientziaren arabera, beharra handiagoa denez, ESSaren proposamenak hobeto jasotzen dira, bertoko biztanleriak bertan lan eta bizi nahi dutelako eta beraz, lanpostu burujabeak izateko tresnak garatzeko aukera ikusten da ESSan (Zentzu honetan Nafarroako Pirinieotan Olatukoopek aurrera eramandako lanketa jartzen du adibide bezala, non ESSaren proposamena oso harrera ona izaten ari duen) (B3).

Era berean, kolektibo prekarioekin berdin gertatzen da, ESSan euren lana dignifikatzeko eta lan esklabotik ateratzeko aukera ikusten dutelako euren lana kooperatibizatzearen bitartez (Zentzu honetan *rider*-en kolektiboa eta zaintza eta etxeke lanak burutzen dituzten emakume migratzaileen kolektiboa adibide gisa jartzen ditu, zeintzuk geroz eta ahalduntze talde gehiago sortzen ari dituzten indibidualetatik atera eta elkarren arteko laguntza sistemak martxan jartzeko) (B3).

“Testuinguru globalak prekarizatzen dituen lanak berreskuratu, kooperatibizatu, dignifikatu eta gero horiek saretu (...). Turbokapitalismo aktualak sortzen ari dituen eremu prekario horietan kooperatibismoa antolaketarako eta dignifikaziorako tresna bezala proposatzen. Eta geroz eta interes handiagoa dago horrelako prozesuetan.” (B3)

Hala ere, hainbat elkarrizketatuak bat egiten dute langileek duten geroz eta interes handiago hau ez dela gero administrazio publikotik berdin antzematen (C3). Hau da, langileek ESSarekin antzematen dituzten onura hauek ez dira, orokorrean, administrazio publikoaren partetik babesten; adibidez, ESSko antolakunde hasiberriei lagunduz, edo

laneratze enpresen eta enplegu zentro berezien kasuan, zeintzuk lehiakortasun gutxiko abiapuntu batetik abiatzen diren, eta kasu askotan enpresa oso handiekin lehiatu behar duten (A5).

6.3.3 Garapen estrategiari eta ESSa sustatzeko politikei buruz:

Garapenerako strategiari buruz hitz egiterakoan, orokorrean, ESSaren eta tokiko garapenaren helburuak bat egiten dutela onartzen da. Izan ere, biek jartzen dute arreta komunitatearen beharrak asetzeari eta bizi kalitatea hobetzean. Ildo honetan,

“Las entidades de Economía Social, si han nacido, han nacido precisamente para satisfacer necesidades sociales o necesidades de un determinado territorio o solucionar problemas sustantivos de ese territorio. Han nacido por ello. Con lo cual están directamente imbricadas con la problemática que hay en ese territorio. (...) la vinculación es, vamos, clarísima.” (C2)

Helburu orokorrei begira, ESSak lurralde batean errotutako esperientziak dira, zeintzuk pertsonen parte-hartzearen bitartez lurralde horretan dauden beharrei erantzuna ematen saiatzen diren, eta tokiko garapenak bere aldetik, lurralde bateko behar material eta sozialak asetzeko eragileen artikulazioa bilatzen du.

“Eta nire ustez, tokiko garapena eta ekonomia soziala eskutik joan behar diren bi planteamendu dira porque azken batean helburuak nik uste dut berdinak dira: territorio edo egitura empresarial baten barruan dauden pertsonen beharrak modu kolektiboan kudeatu eta asebetetzea.” (A3)

Eta

“Esango nuke intuizioz behintzat, badagoela hurbilpen logiko bat. Biak arreta jartzen dute tokiko eskualdean, ez? Edo tokiko lurraldean fokoa jartzen dute, bai Ekonomia Sozialak eta bai tokiko garapenak, noski. Uste dut biek ere jartzen dutela neurri batean garrantzia edo enfasia eragileen arteko lankidetzan (...). Eta uste dut biak ala biak balioan jartzen dituztela baliabide endogenoak, ez? Eta esango nuke horien artean ba kapital soziala eta kapital humanoa balioan jartzen dela bietan, ez? Kooperatibetan zentralak pertsonak dira... Arizmendiarretak esaten zuen lehenengo kooperatibistak eta gero kooperatibak, ez? Lehenengo da pertsonaren garapena, horretan jartzen da fokoa. Baina baita pertsonaz haratago, kapital sozialean eta baliabide edo indargune endogeno ezberdinetan.” (A6)

Are gehiago, ESSko antolakundeak tokiko garapenerako berezko eragileak bezala identifikatzen dira, garapen estrategia antolatu baten baitan egon edo ez, eta administrazio publikoaren babesa izan edo ez izan arren.

“Las cooperativas nacen en lo local, el origen es local, o es por las personas que viven en una comunidad determinada o en un lugar geográfico determinado, y su finalidad en principio es el desarrollo local a nivel social de la comunidad en la que están insertas. (...) Es decir, a mayor desarrollo cooperativo, mayor desarrollo local. ¿Por qué? Porque esas empresas van a invertir en lo local, porque los trabajadores de esas empresas son de una localidad determinada (...). Y esto independientemente de que el desarrollo local interese a lo público. A los ayuntamientos, a las comarcas, mancomunidades etc. (...). Se entiende que no todo lo que tiene carácter social o utilidad pública se desarrolla por lo público (...).” (C1)

Hala ere, elkarrizketatu batzuen iritziz, desadostasun handiagoak sortzen dira helburu hori lortzeko burutu behar diren estrategietan.

“En teoría coinciden mucho (tokiko garapena eta ESSa). En la práctica no tanto, porque hay una desvinculación en el desarrollo local de la parte política, de los agentes locales en su mayoría.” (A5)

6.3.3.1 ESSak garapen strategiari egiten dizkion ekarpenak:

Ikusi daitekeenez, orokorrean, elkarrizketatutako eragile eta aditu ezberdinek onartzen dute ESSaren eta tokiko garapenaren arteko gertutasuna. Hala ere, gehiago zehaztuz, zer eskaintzen dio ESSak tokiko garapenari?

Lanari eta aberastasunaren banaketari dagokionez,

“Yo creo que la Economía Social da respuesta a muchos de los problemas que tenemos en estos momentos. Lo primero el empleo. Es un modelo de generación de empleo, y no cualquier empleo, empleo de calidad y estable. (...) Creo que hacemos una apuesta por la diversidad. (...) Creo que las empresas de Economía Social tienen mucha mayor sensibilidad por la incorporación de personas con dificultad de acceso al empleo (...) La mayor sociedad laboral que hay en Euskadi es Katea Legaia, que es un centro especial de empleo cuyo 90% de la plantilla, personas con discapacidad, son socios trabajadores o socias trabajadoras. (...) Somos modelos de empresa flexibles (...) creo que la Economía Social y el emprendimiento colectivo pudiera ser una alternativa para localizar personas en zonas donde el nivel de despoblación es grande. Porque les da oportunidades de desarrollo, una flexibilidad a la hora de trabajar... (...) El enraizamiento territorial, la localización de los proyectos, el mantenimiento de los centros de decisión en Euskadi... (...) El nivel de bienestar. Una empresa de Economía Social contribuye a que no haya una persona que se enriquezca y el resto sobrevivan. Somos modelos de empresas donde hay una redistribución de la riqueza” (B4)

Eta,

Va a ser un trabajo más digno, de mayor calidad, en principio, porque otra de las características principales de la Economía Social y el cooperativismo es que el centro de la

actividad es dar respuesta a las necesidades de las personas ¿no? Por lo tanto, si las personas están en el centro, toda la actividad debería estar orientada a las personas ¿no? En ese sentido de igualdad, de ser todos iguales dentro de la propia empresa de Economía Social, la redistribución de la riqueza de forma equitativa, la responsabilidad (...), la autoayuda como parte de comprometerse con otros, no sólo con tu empresa sino con tu entorno, con la sociedad y con lo que nos rodea. Y eso tiene mucho que ver con ese desarrollo local ¿no? (C1)

Ildo honetan ere, gaia lanaren burujabetzatik helduta, langileen parte-hartze maila altuena duten enpresak tokiko garapen estrategiarekiko konpromiso eta lurraldearekiko errotze askoz handiagoa dutela adierazten da, kapitalaren enpresekin konparatuta. Era berean, krisi garaietan jarduera ekonomikoa eta lana mantentzeko erresilientzia handiagoa erakusten dute, kolektiboaren indarrean oinarritzen direlako (A6). Gainera, langileen parte-hartzearen bitartez, hauek enpresarekiko duten lotura sendotzen da, eta beraz, talentua enpresan mantentzeko, eta hedaduraz lurraldean mantentzeko egiten duten ekarpena ere aipatzen da. Eta horrez gain, hornitzaile eta langile lokalak kontratatzeko joera azpimarratzen da, zein azken hauen etengabeko formakuntza (B4). Bestalde, batez ere Gipuzkoako kasuari begira, kooperatibek eskualdeetako berrikuntza sistemari egiten dioten ekarpena enpresa kapitalistek egin diezaioketena baino handiagoa izan daitekeela azpimarratzen da ere (A6).

Ildo honetan ere, enpresen sare lurralderatuak sortzeko duen gaitasuna azpimarratzen dute beste elkarrizketatu batzuek.

“Uste dut Ekonomia Sozialeko entitateak beraien izaera juridikoagatik eta beraien legediagatik, bakarrik horregatik, eta orokorrean ere bai beraien filosofiagatik, garapen endogenoko estrategia baten sustapenean aktiboagoak izan ahal direla. Eta gure kasuan eskualde honetan (Beterri-Buruntza) hori nabarmen ikusten da, ez? Eraldaketa nodoko enpresekin edo Beterri Saretuz-en parte-hartzen duten enpresekin kasuko, ez?” (A3)

Gainera, garapenaren ikuspegi iraunkorragoa garatzea ahalbidetzen duen enpresa eredua bezala ere identifikatzen da ESSa.

“Yo creo que ofrece una visión del desarrollo mucho más sostenible. Yo creo que es necesaria esa visión. Es una visión concreta y práctica que debería incluirse en muchos aspectos de la administración, tanto en la contratación pública como en la gestión diaria.” (A5)

Ildo honetan ere, Ekonomia solidariotik esaten dutenez, ESSak garapen bidezkoagoa eta demokratikoagoa den eta pertsonetan eta ingurumen iraunkortasunean oinarrituta dagoen eredu bat eskaintzen dio tokiko garapenari. Izan ere, ESSko

antolakundeak lurralde batean ezartzen direnean euren balioak eta printzipioak lurralde horretan zabaltzen dituzte ere. Era berean, ESSak enplegua duina, beharrak asetzea, tokiko eragileen saretzea eta interkooperazioa (eta merkatu sozialaren esperientzia azpimarratzen dute), ekoizle eta kontsumitzaileen komunitateak bezalakoak ere eskaintzeen dio (B2).

“Cuando el motor no es el capital, ni la maximización de los beneficios, sino que es la persona, la comunidad, el medio ambiente (...) pues obviamente los beneficios para una comunidad y para un territorio son mucho mayores” (B2)

ESSak egiten duen beste ekarpenen garrantzitsu bat, sortutako aberastasunaren zuzeneko banaketa bidezkoagoa da. Hau da, beraien izaeragatik, ESSaren tresna ekonomikoek beraien jarduera ekonomikoaren bitartez sortzen duten aberastasuna modu bidezkoagoan sortzen da hasieratik. Eta beraz, aberastasuna edonola sortu behar denaren ideia baztertzen da. Hots, *trickle-down effect*-aren ideia neoliberalak baztertzen da, aberastasunaren benetako banaketa berdinzale baten alde.

Beraz, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ikuspegitik, ESSak tokiko garapenaren eredu neoliberalari bisio alternatibo bat eskaintzen dio. Lurralde espezializazioa eta edozein moduan lortutako enplegarritasuna bilatu ordez, ESSak pertsona guztientzat lanpostu duinak sortzeko gaitasuna erakusten du lurralde horrek izan ahal ditzakeen behar sozioekonomikoak asetzen dituen bitartean; batzuk lana eta errentaren bitartez, baina beste batzuk tresna ekonomiko konkrituak sortuz (kontsumo kooperatibak, aurrezki kooperatibak, etxebizitza kooperatibak etab.). Hau da, tokiko garapenak izan ohi duen lurralde lehiakortasunaren ikuspegiari kritika egiten diote Olatukoop-etik eta izaera endogenoa duen eredu autozentratu baten aldeko ekarpena egin dezakeela argudiatzen dute, non aberastasunaren banaketa bidezkoa ematen den, eta lurralde lehiakortasunaren ordez, lurraldeen arteko kohesioa sustatzen den. Izan ere, azken zentzu honetan, ESSko antolakundeak bezala, lurraldeak ere sarean ulertu behar dira eta horien arteko kohesioa eta elkarlana sustatu lehiakortasunaren gainetik (B3).

6.3. TAULA: Elkarrizketetan agertu diren ESSak tokiko garapenari egin ahal dizkion ekarpenen laburpena:

Esparru ekonomikoa

- Deslokalizatzeko arriskua ez duen egitura produktibo lokala.
- Tokiko enplegua sortu eta krisi garaietan enpleguaren defentsa handiagoa (jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren erresilientzia handiagoa)
- Aberastasuna antolakundea ezarrita den lurraldean sortzen da eta horren banaketa bidezkoagoa ematen da.
- Jarduera ekonomikoa tokiko beharrekin lerrotzen da.
- ESSa tokiko garapenaren ohiko alderdi guztiei erantzuna emateko gai da
- Garapen paradigma alternatiboa. Bidezkoagoa eta demokratikoagoa dena

Esparru sozio-kulturala

- Eskualdeko beste proiektu sozialetan parte-hartzen du
- Langile elkartuek enpresan parte-hartzeko kultura hori zabaltzen dute komunitatera
- Kooperazioan, elkarlanean, elkarrekikotasunean eta elkarlaguntzan bezalako balioetan oinarritutako kapital sozialaren garapena. Elkarlanerako prestutasuna.

Esparru politiko-administratiboa

- Beste eragileak inplikatu dezake garapenaren ikuspegi orokorragoa sortuz
- Politika publikoak ko-erakitzeke prestutasuna.
- Lurralde gobernantza sistema aberastu dezake.

Iturria: Egileak egina, elkarrizketetatik lortutako ekarpenetan oinarrituta.

6.3.3.2 ESSa eta lurralde gobernantza sistema:

Lurralde gobernantza sisteman arreta jarritz, ESSak ekarpen ezberdinak egin dezakeela argudiatzen da, nahiz eta ESSaren baitan barneratu ditzakegun antolakundeak euren artean oso ezberdinak izateaz gain, eskualdeak ere oso ezberdinak diren euren artean eta gobernantza sistema ezberdinak aurrera eramaten dituzten. Beraz, elkarrizketatu batzuentzako ezin da orokorrean ESSak lurralde gobernantza sisteman izan beharko lukeen paperari buruz hitz egin, lurralde edo eskualde konkretuen errealitatea ezagutu gabe.

Horregatik, administrazio publikoak, tokiko enpresa ehuna, ezagutza zentroek eta jendarte zibila osatzen duten gobernantzaren helize laukoitzean, ESSak pisu erlatibo handia baldin badu, eragile estrategikoa izango da gobernantza sistemarako eta tokiko garapenerako. Baina horrela ez bada,

“Baina ez berez ESSa izateagatik eskubide propio batzuk izango balitu bezala, ez? Gu ESSa gara, eta horregatik ya daukagu kokapen bat edo hartzen dugu eragile estrategikoaren

izaera. Niretzako hor galdera da: Zerk egiten du eragile bat, eragile estrategikoa izatea? ESSa izateagatik nahikoa da? Nahiko zalantzak ditut. Niretzako eragile estrategikoa da, baldin eta tokiko ekonomian pisu erlatibo handia daukan heinean. (...) Ez berez definizioz, izateagatik ESSa edo gure burua kontsideratzeagatik ESSa, ya daukagula eskualdeko tokiko garapenean postu bat edo izaera estrategiko bat izendatuta. Nik lotura zuzen hori kuestioan jarriko nuke behintzat. O sea, uste dut dela irabazi beharreko txapela bat, ez?” (A6).

Hala ere, kontrako norabidean doan iritziak aurkitu ditzakegu elkarrizketatuen artean. Hainbat elkarrizketatuek ESSa tokiko garapen estrategietako eragile zentrala izan beharko lukeela defendatzen dute. ESSak enpresa egiteko beste modu bat izateaz gain, bestelako proposamen sozioekonomikoak ere mahaigaineratzen dituelako. B3 elkarrizketatuak dioen moduan, ESSak garapen eredu berri bat proposatzen du, baina eredu berri hau ez da partziala, hots, ez da bakarrik ESSarentzako. Eta beraz, ESSak gaur gaurkoz errealitate txikia osatzen duela eta lurralde batean dauden enpresa guztiak ez direla izango ESSkoak badakien arren, garapen eredu bidezkoagoa aurrera eramateko, ESSan oinarritutako lan ildo garrantzitsu bat sustatu behar da lurraldeetan. Modu honetan ere, ESSa ez den bestelako tokiko ekonomia (ekonomia plurala deritzona) ESSaren balio eta praktiketara hurbiltzen joateko (B3, A4). Hots, tokiko garapena ESSaren balio eta praktikekin lerrokatzeko. Horretarako, ESSari zentralitatea eman beharko litzaiokeelarik garapen estrategiatik tira egiten utziz (B3).

Ikuspegi honetatik hurbil dauden elkarrizketatuak, normalean, Kataluniako *Ateneus Cooperatius*-en eredu edo Frantziar estatuko lurralde lankidetzako poloak edo *Pôle territorial du coopération économique*-ak jartzen dituzte eredu bezala. Izan ere, Katalunian eskualde askotan tokiko garapeneko estrategien nukleoa bezala ezartzen da ESSa. Honek ez du esan nahi estrategia guztiaren ardura daukanik, baizik eta eragile nuklearra bihurtzen dela. Hau da, tokiko garapenerako estrategien proposatzaile eta dinamizatzaile bihurtzen da ESSa. B3-k zehazki Sants auzoko Coopolis *ateneu*-aren esperientzia aipatzen du. Eta esaten duenez, Sants auzoko garapen ekonomikoaren oinarria ESSaren bitartez eraiki nahi zen. Beraz, Bartzelonako udalaren laguntzarekin (gero Bartzelona osora zabaltzea eskatu zen, Bartzelonako garapen ekonomikoaren oinarrietako bat ere izateko), bertoko garapen ekonomikoaren oinarria bezala zehaztu zen ESSa; ez oinarri bakarra baina bai zentrala.

Frantziar estatuko lurralde lankidetzako poloen kasuan,

“Son agrupaciones de distintos actores en el ámbito local, con distinta naturaleza, privada-capitalista, administraciones públicas y economía social, que normalmente están

liderados o promovidos por administraciones públicas, como por ejemplo un ayuntamiento o una entidad de ámbito comarcal o por entidades de economía social. Interesa que sean estos dos si queremos que la visión y el proyecto de desarrollo sea más de interés general o de interés social, que es el que marca a estas entidades. ¿De acuerdo? Porque si lo marcas por las empresas privadas de carácter capitalista (...) le impondrán otro tipo de lógica.” (C2)

Hau da, ESSa eragile zentrala izanik, *ateneu* edo *Pôle*-aren inguruan lurraldeko eragileak lankidetzan batzen saiatzen dira garapen egitasmo komun baten inguruan. Hots, enplegu eta jarduera ekonomiko duinak sortzera bideratuta dauden ekimen lurralderatuak sustatzen dituzte tokiko jendartearen beharrak asetzera bideratuta dauden berrikuntza sozialen bitartez, eta inplikaturako eragileak eta jendarte zibila *ateneu* edo *Pôle*-aren inguruan lankidetzan batuz eta saretuz gobernantza parte-hartzaile eta demokratiko bat aurrera eramanez.

Elkarrizketatuen artean, Debagoiena 2030 norabide honetatik doan egitasmoa bezala ulertu dezakegu. Izan ere,

“Debagoienako berrikuntza irekiko plataforma, berrikuntza sozialeko plataforma edo, azkenean ezagutzen den moduan, Debagoiena 2030, kooperatiben ekimenez sortutako ekimen bat da, baino argi eta garbi dago hasieratik baita kooperatibek ulertzen dutela lankidetzaren sare bat dela eta onartu behar diren ardurak partekatuak direla (...). Sare bat da Debagoienako territorioan etorkizunerako erronkak modu bateratuan eta lankidetzan oinarrituta erantzutea asmoa duena (...). Abiapuntutzat hartzen da etorkizuneko eskualdeak izango dituen etorkizuneko erronkak erronka konplexuak dira, eta erronka konplexu horiei ezin zaie modu puntualean erantzun, ez? Baizik eta horretarako beharrezkoa da ikuspegi sistemikoa izango duen lan metodologia bat eduki. Eta suposatzen da berrikuntza irekiko edo gizarte berrikuntzako plataforma hauek hori hartzen dutela kontutan. Konplexutasunaren paradigmak kokatzen dira eta hortik abiatuta, daukate lan metodologia bat fase edo sekuentzia ezberdinak betetzen dituen, oinarritzen dena, neurri handi batean herritarren eta eskualdeko eragileen parte-hartzean, ez? Hor esaten dutena eta ikusten dutena jasotzen, baina gero hortik identifikatzen ko-sorkuntza aukera berriak eta etorkizunean prototipaturako diren ekimen edo proiektu berriak” (A6)

Debagoiena 2030ren gobernu organoan administrazio publikoa (eskualdeko 3 udal nagusien alkateak, mankomunitatea eta Gipuzkoako Aldundia), ehun kooperatiboa (Ulma, Fagor eta MCC, Mondragon Unibertsitatea eta SaioLan) eta tokiko beste eragile estrategikoei (Garaia parke teknologikoa eta Goiena euskalgintzan eta kulturaren jarduten duen tokiko hedabidea) osatzen dute. Ondoren, modu parte-hartzailean beste eragile, elkartzeko edo pertsona indibidualak batu ahal direlarik. Eta burutzen dituzten proiektuak ESSkoak izatea beharrezkoa ez den arren, lankidetzaren eta lurraldetasunaren oinarritzeko

elementuak izan behar dira eta identifikatu dituzten eskualdeko 8 erronkei lotu behar dira (Lana, trantsizio energetikoa, lana eta inklusioa, mugikortasuna, ekonomia zirkularra, energia burujabetza, garapen komunitarioa eta hezkuntza)

ESSak lurralde gobernantza sisteman izan beharko lukeen paperari buruzko eztabaida gaindituz, eta EAEko eskualdeetan ematen den errealitatean arreta jarritz, orokorrean nahiko iritzi bateratua dago parte-hartzea sustatzen ez denaren inguruan; are gehiago, ESSaren parte-hartzearen inguruan.

Adibidez, EAEko ESSko sarerik handienak, Konfekoop, aitortzen duenez, ez du sare gisa eskualde eta udal mailako gobernantzan parte-hartzen. Hots, EAEko hiru lurralde historikoetan jarduten duen sarea den arren, eskualde eta udal mailetako politketan ez dute eragiten (B1). Garapen agentzia batzuetatik, ESSko eragileak barneratzea zaila dela adierazten dute (A4), edo enpresa txiki eta ertainak ez direla horren eragile garrantzitsu bezala ikusten, oso sartuta baitaude euren egunerokotasunean eta bizirautea mugatzen direlako. Ildo honetan, Azaro Fundazioak enpresa txiki eta ertainak sentsibilizatzen eta inplikatzeko saiatzeko dituzten eskualdean aurrera eramaten diren elkarlaneko proiektuetan inplikatzeko (A2). Baina orokorran,

“(...) Lo que es la participación de los agentes sociales en la toma de decisiones políticas yo lo veo muy complicado. Muy complicado no porque sea complicado, que lo es, sino complicado porque no veo que haya mucha intención que sea real. Cada administración y cada partido tiene su sistema y su visión de tomar decisiones y muchas veces va por encima de los modelos más participativos... en general, ¿eh? No digo que no haya territorios que se gobiernen con esa filosofía... pero claro, no todo se puede hacer con ese modelo, porque también tenemos los tiempos, tenemos la eficacia y entonces es como una combinación que requiere mucho trabajo. Pero requiere trabajo que tiene resultados. Y el otro trabajo en el que estamos acostumbrados, pese a que parece que el resultado a corto plazo es el mejor, no siempre para nada es el mejor.” (A5)

Gainera, Covid-19aren eraginez eskualdeetan eman diren erabaki hartze prozesuak askoz piramidalagoak izan dira; eta besteren artean, politika publikoen ko-erakuntza zaildu egin dute.

“Cualquier intento de que las tomas de decisiones sean más horizontales o de que haya participación está quedando en muchos casos en un segundo grado. Los que no hayan tenido eso estructurado y de alguna manera organizado, las decisiones, supuestamente por la urgencia, que en algunos casos igual si son necesarias las decisiones rápidas, y claro las decisiones rápidas son muy verticales. Y claro eso tiene sus condiciones si ese sistema de decisiones se queda. Y para mi gusto está durando demasiado.” (A5)

Ekonomia solidariotik esaten dutenez,

“Las agencias podían haber jugado en determinado momento esa capacidad de articular actores y entonces generar espacios de participación y de construcción colectiva de propuestas económicas, eso en la práctica no existe, o si existe, existe en lugares contados con algunas personas contadas que apuestan por esos modelos. Pero en general existen pocos espacios de participación. De participación digo en la co-construcción de políticas públicas, en la co-construcción de actividades económicas etc. No digamos ya en marcos de herrialde o de comunidad autónoma... yo creo que todavía se está más lejos todavía de poder tener esos marcos” (B2).

Eta beraz,

“Si me dijese, ¿participáis en espacios donde realmente se articulan esas propuestas económicas, donde se articulan esas nuevas formas de entender la economía...? Pues te diría que yo creo que no. (...). Yo la pregunta que me haría es si existe algún sistema de gobernanza territorial abierto, democrático y plural en este país... yo mi respuesta sería que no.” (B2)

“Y prueba de ello (...) los next, los programas europeos, el gobierno vasco cuando ha hecho su propuesta para negociar con gobierno español, lo que no ha hecho no es un parlamento, o un espacio de trabajo colaborativo entre las diferentes formas de economía que hay en Euskadi y ver qué proyectos pueden ser más importantes desde el punto de vista de la resiliencia y la cooperación, que es lo que plantean esos fondos europeos, sino que directamente lo ha hecho con consultoras y ha negociado directamente con grandes empresas (...). Es decir, no hemos pintado nada, pero no ya nosotros que somos una cosa muy pequeña, no ha pintado nada casi nadie.” (B2)

Hala ere, ekonomia solidariotik esaten dutenez, beraien apustua politika publikoak ko-eraikitzearen alde da, non eragile ezberdinen eta herritarren parte-hartzearen bitartez lurralde biziak sortzen diren. Eta zentzu honetan, aurretik aipatutako zailtasunak egon arren, REAS sare bezala edo REAS-en barnean dauden beste sare edo antolakundeak bai saiatzen direla modu proaktiboan administrazio publikoarekiko interlokuzioa sustatzen, batez ere esparru lokalean; nahiz eta, esan bezala, parte-hartzerako egitura egonkorrak garatuta ez egon eta politika publikoak goitik beherako norabidean ezartzen diren orokorrean. Interlokuzioa sustatzen duten antolakundeen artean adibide batzuk zehazten dituzte, hala nola, Goienerrek sustatzen ari dituen komunitate energetiko lokalen kasua, Fiare banku etikoaren kasua, birziklatzera dedikatzen diren antolakundeen kasua edo REAS-ek berak jorratzen duen erosketa publiko arduratsua, besteak beste (B2).

Olatukoop-ek bere aldetik adierazten duenez, Euskal Herrian geroz eta gehiago lortzen ari da ESSak tokiko garapenerako estrategien gobernantzan barneratzen, nahiz eta oraindik ere joera hau ez dagoen orokortua eta lurralde gutxi batzuetan ematen den. Sare honen iritziz, ESSko antolakundeak eragile izan behar dira tokiko garapenerako estrategietan eta apurka zentralitatea irabazten joatea.

“Olatukoop-en dagoen kooperatiba bakoitzak izan behar du bere territorioan tokiko ekonomietako estrategietako eragilea. (...) Zergatik? Ekonomia Sozial Eraldatzaileko kidea delako, eta gauzak eraldatu nahi ditugulako, ez? Estrategiak baldintzatu nahi ditugulako eta zentralitate bat lortzen joan nahi dugulako. Orduan gaude oso posizio desigualean esango nuke, baina pixkanaka pixkanaka geroz eta influentzia handiagoarekin tokiko garapenerako estrategietan. Eta geroz eta toki gehiagotan eskatzen digute tokiko garapen estrategia horietan parte-hartzeko eta inkluso proposatzeko.” (B3)

ESSak, lurralde gobernantza sistemari egin diezaiokeen ekarpenei begira, balioak eta parte-hartzeko mekanismoak antolakunde mailatik lurralde mailara igarotzeko izan dezakeen garrantzia azpimarratzen da. Izan ere, ESSko antolakundeek lurraldearen ikuspegi orokorrago bat partekatu dezakete garapen agentzia batekin. Hots, enpresa indibidualen ikuspegia baino, eredu zabalago bat osatzen lagundu dezake tokiko beste eragileekin duten hartu-emana nahiko jarraia delako (A1, C1).

“Bueno yo lo que diría es que las empresas de Economía Social sí que tienen ese papel democrático en el que y se va desarrollando una cultura participativa por parte de todos los trabajadores ¿no? Y eso sí que crea de alguna forma una forma de hacer y de ser ¿no? Entonces es una buena escuela donde desarrollar otro tipo de valores que se han aprendido o que se están desarrollando a nivel laboral (...) y se puede extrapolar a otro tipo de actividades o de acciones.” (C1)

Gainera, interkooperaziorako duten joeragatik, gobernantza sistemetara beste eragile batzuk erakarri ditzaketela argudiatzen dute hainbat elkarrizketatuk. Izan ere, ESSko antolakundeek alde zuzenetik jarrera erakusten dute beste eragileekin batera lan egiteko edo interkooperatzeko, beraz, beste eragile horiek prest badaude eta tokiko garapeneraren helburuak partekatzen badituzte.

“Se pueden atraer otros agentes económicos en la medida que compartan la finalidad del desarrollo local que es propio de las cooperativas. Si se comparte eso, por el tema de la finalidad van a atraer a otros agentes. (...) Desde luego ellos están en disposición de colaborar, de que atraigan a otros agentes. Otra cosa es que esos otros agentes vean en las cooperativas agentes competidores en el ámbito económico local”. (C1)

Ildo honetan, Olatukoopetik egiten duten proposamen batera heltzen gara, aurretik aipatzen genituen *ateneu*-en edo *Pôle*-en ideietatik edaten duena. Ekonomia Sozial Eraldatzailearen sarearen iritziz, eskualde bakoitzean ESSko subjektu lurralderatu bat sortu beharko litzateke. Hau da, lurraldeari lotuta dauden ESSko antolakundeak (ESSren barne egon daitezkeen izaera ezberdinak aintzat hartuta), ekonomia pluraleko enpresak (ESSa ez den beste tokiko ekonomia: tokiko merkatariak, ekoizleak, nekazariak, etab...), administrazio publikoa, sindikatuak etab. biltzen dituen subjektu kooperatibo bat. Eta subjektu hori izango da, eragile horiek guztien lankidetzarekin, tokiko beharrak identifikatzen dituen eta ESSa lurralde horretara hurbilduko duena. Adibidez, formakuntza saioen bitartez, lanketa berezia behar dituzten sektoreak identifikatuz, eta, oro har, behar horiei erantzuna emateko proiektuak proposatuz, sustatuz eta saretuz (B3).

Kasu honetan, adibide bezala Goierriin aurrera eramaten ari duten Biziola egitasmoa jartzen du. Bertan, Olatukoop-eko eta REAS-eko tokiko antolakunde batzuk, tokiko ekoizleak, sindikatuak (CAF enpresan daudenak, batez ere) eta Ordiziako Udala parte-hartzen dute. Eta elkarte baten izaera hartu duen subjektu honen bitartez, ESSa eskualdeetara hurbiltzeko helburua daukate, adibidez formakuntzaren bitartez, edo lanketa berezia behar duten sektoreak identifikatuz ESStik erantzuna emateko. Hau da, subjektu kooperatiboa lurraldean dagoen agente bat da, bere helburuen artean behar sozioekonomikoak identifikatzea duena, ondoren behar horiei saretutako proiektu ezberdinen bitartez erantzuna emateko. Eta elkarrizketatuak dionez, subjektu kooperatiboaren eta tokiko garapen agentziaren arteko elkarlana oso estua izan beharko luke, subjektuak proposatzen dituen proiektuei laguntza teknikoa emateko, nahiz eta Goierriko kasuan, momentuz, garapen agentziak parte-hartu ez duen (B3).

6.3.3.3 Garapen agentziak eta ESSa sustatzeko neurriak

Orokorrean, ESSko elkarrizketatuek adierazten dute garapen agentziak eragile garrantzitsuak izan daitezkeela ESSa eskualde bakoitzean sustatzeko. Hala ere, aldi berean, ESSko sare gehienek garapen agentziekin harremanak garatu gabeak dituztela aitortzen dute. Edo, are gehiago, kasu batzuetan, zehazki zer egiten duten edo zer eskumen dituzten ere ez dakitela aitortzen dute.

“Las agencias de desarrollo yo creo que pueden jugar un elemento clave de desarrollo territorial o comarcal. Creo que tienen la gran oportunidad de conocer bien su comarca y no

te voy a decir dar solución a todo porque no tienen capacidad, pero sí encauzar sus necesidades para mejorar su competitividad” (B4)

Ikuspegi orokor batetik, garapen agentziek ESSa sustatzeko egin dezaketen politiketan arreta jarriz, C3 adituak esaten duenez, Katalunian azken urteetan ESSak hazkunde nabaria izan badu, garapen agentziak eta garapenerako beste eragile lokalen laguntzagatik ere izan da. Eta beraz, adituarentzako, argi dago garapen agentziak eragile garrantzitsuak izan ahal direla ESSa hedatzeko; beti ere, ESSa sustatzeko erabakia hartzen badute. Horretarako, baliabideak esleitu, espazioak lagatu, tokiko administrazioaren zergak murriztu ESSko ekimen berriei, harremantzea eta interkooperazioa sustatu, erosketak publiko arduratsuaren bitartez merkatua sortu etab. egin dezakete. Hala ere, adituak dionez, ESSak administrazio publikoarekin duen interlokuzioa ezin da mugatu garapen ekonomikoa sustatzeko eskumenak dituzten agentzia edo departamentuetara. ESSak kulturaren, zerbitzu sozialetan, hezkuntzan, hirigintzan, merkataritzan etab. bezalako esparruetan ere presente egon behar dela adierazten du. Hau da, ESSa sustatzeko politika publikoak, politika integralak bezala ulertzea beharrezkoa dela.

Politika hauek, aldi berean, izaera ezberdina izan daitezke; gutxienez lau zentzutan. Lehenik, adituak dioten ESSaren sustapen politikak (*políticas de impulso*) egongo lirateke. Hauek, ESSko antolakundeak sortu eta egonkortzeko politikak barneratzen dituzte, eta adituarentzako oinarrizko politikak dira beti presente egon beharko liratekeenak.

Eta hauekin batera, beste politika batzuk aplikatzen hasi dira azkenaldian: erabilera politikak (*políticas de uso*). Hauek, administrazio publikoaren galdera klasikoari (zer egin dezaket nik ESSaren alde?), buelta ematetik dator (zer egin dezake ESSak nire lurraldeko arazoak konpontzeko?). Galdera horrela ulertuta, adibidez, etxebizitzaren inguruan erabilera lagapenerako etxebizitza kooperatibak, elikaduraren inguruan tokiko merkatuak, elikadura burujabetza edo nekazar kooperatibak, energiaren inguruan energia berriztagarrien kooperatibak bezalako erantzunen abar luze bat agertzen dira. Hau da, udalaren erantzukizunen esparru guztietan ESSak ekarpen ezberdinak ditu egiteko, eta hauek nola barneratzen direnaren arabera, erabilera politika horiek zehazten dira.

Baina politika publikoen bi multzo hauez gain, ongarrantze politikak ere (*políticas de fertilización*) barneratzea garrantzitsua dela dio adituak. ESSa klase herrikoiek

beraien beharrak asetzeko helburuarekin burutzen duten auto-antolakuntza bada, eta auto-antolakuntza hori baliabide eta gaitasun antolatu batzuetatik abiatzen bada, nola egin dezake administrazio publikoak auto-antolakuntzaren ideia hori sustatzeko? Kasu honetan, kooperazioaren inguruko sentsibilizazioa eta formakuntza, elkartegintza sustatzen duten politikak, herritarren parte-hartze politikoa sustatzen duten politikak etab. bezalako lurraldearen ongarritze politikak beharrezkoak dira etorkizunean ESSko antolakundeak sortzen joateko.

Eta azkenik, polinizazio politikak deritzonak leudeke (*políticas de polinización*). Hauek, gaur egun bizi dugun egiturazko krisiaren emergentziaren aurrean ezinbesteko politikak bezala kontsideratzen ditu adituak. Izan ere, hurrengo bi hamarkadetan sistema ekonomikoa aldatzea ezinbestekoa izango dela dio, eta denbora tarte horretan ESSak bakarrik ezin izango du sistema osoa eraldatu; egitura aldaketa sakonak behar direlako eta sektore estrategiko ugarietan ESSa oraindik ere sartu ez delako. Horregatik, batetik, sektore publikoaren zeregina ezinbestekoa izango da. Hala ere, sektore publikoaren berrindartze horretan, ESStik datozen irakaspenak kontuan hartu behar ditu. Hau da, herritarrak zerbitzu publikoaren gainean esateko ezer ez duten erabiltzaile soil batera ez murriztuz, eta erabiltzaileen partetik zein langileen partetik parte-hartzea handitzeko mekanismoak barneratuz, zerbitzu publikoen konpromiso ekosoziala handituz edo ESSaren eta sektore publikoaren arteko hibridazioak sustatuz, adibidez. Horregatik hitz egiten du polinizazio politikei buruz. Bestalde, lurraldeetan ezarrita dauden enpresa txiki eta ertainak polinizatzeko beharra ikusten du, hauek pixkanaka ESSaren balio eta praktiketara hurbiltzeko. Juridikoki enpresa kapitalistak izan daitezkeen arren, kapitalismo global eta basatiaren eraginez ere sufritzen ari dutelako, hau da, kapitalismo depredatzailearen parte baina, biziraupeneko ekonomia bezala kontsideratzen direnak lirakeke. Eta azkenik, enpresa handienganako polinizazio politikak ere eman beharko lirakekeela aipatzen du. Kasu honetan, batez ere, sindikatuen eta estatuaren aliantzaren bitartez. Hau da, ESSak ezin du enpresa handiekin lehiatu, beraz, nazionalizazio edo sozializazio politikak, edo, gutxienez, enpresa handi hauen gaineko langileen kontrol handiagoa sustatu beharko litzatekeela dio administrazio kontseiluetan langileen ordezkariak barneratuz, eta nolabaiteko ko-gestioa aurrera eramanez (C3).

Azalpen orokor honetaz gain, elkarrizketetan errepikatu izan diren politika publikoen 5 lan ildo azpimarratu behar dira. Lehenik, ESSko antolakundearen saretzearen eta interkooperazioaren erraztea sustatzea (A3, A4, A6, B3). Bigarrenik, ekintzailtza

kolektiboaren sustapen aktiboa (A3, A4, B5, C1). Hirugarrena, inklusio edo politika sozialak ESSa ardatz izanik aurrera eramán (A3, B2, B3, B5). Laugarrenik administrazio publikoak erosketa publiko arduratsuaren ildoko konpromisoak hartzen joan beharko litzatekeela (A3, A4, A6, B2, B5). Eta azkenik, ESSaren inguruko sentsibilizazioa eta ikusgarritasuna emateko politikak (B1, B4, B5, C1)

“Maila orokorrean uste dut egin behar dela, guk eskualde honetan egin dugun moduan, ikusi esparru ezberdinetan zer egin ahal den: Enpresa arloan uste dut faziilitatu behar dela Ekonomia Sozialeko entitateen saretzea (...) beraien artean saretzeko espazioak sortu, beraien problematikak modu autonomoan kudeatzeko tresnak eman... (...). Gero, ekintzailtzari begira, uste dut aktiboki sustatu behar dela Ekonomia Sozialeko entitateen sorrera. Ez utzi jendeari esanez: egin zaitez autonomo eta hipotekatu zure bizitza y viene una crisis y allá cuidaos..., ez? Nik uste dut hor ardura gehiagoz jokatu behar dela eta uste dut Ekonomia Sozialeko entitateak berme gehiago ematen dituztela, eta orduan egin behar dela ekintzailtzari begira sustapen bat egin Ekonomia Sozialarena. Gero, inklusio politikei dagokionez ere bai, inklusio politika asistentzialak alde batera uztea eta benetan Ekonomia Soziala ardatz daukaten inklusio tresnak sustatzen jarraitu behar dela. (...)Eta gero kontratazio publiko sozialki arduratsuan pedagogia eta sustapena eta konpromisoak hartu behar dira administrazio publikoko maila ezberdinetatik: adibidez, udaletatik hasita, Diputaziora eta Eusko Jaurlaritzara porque batez ere, gorengo bi maila hauek kontrolatzen dute kontratazio publikoan bolumen handiena, ez? Eta beraiek dira askotan kanpoko enpresak kontratatzen dituztenak etc etc., ez? Eta hor uste dut bertako enpresei begiratzuz gero eta Ekonomia Sozialeko enpresak badira, pues askoz hobe, ez? Eta kontratazio publikoan edo merkatu publikoan BPGaren %23 hori erabiltzen bada Ekonomia Soziala sustatzeko lan dezente egingo zela. (A3)

Erosketa publiko arduratsuaren gaiari, batez ere, ESSko sare batzuek (B2, B5) eta garapen agentzia gutxi batzuek, gehienak urbanoak, heltzen diote haien diskurtsoan (A3, A4, A5, A6). Eta elkarrizketatu gehienek aipatutako gaia ez izan arren, gaiari heltzen diotenen artean garrantzia handia hartzen du.

Adibidez,

“Administrazio publikoak erronka moduan uste dut duela kontratazio publiko sozialki arduratsuaren bitartez, berak kudeatzearen BPGaren %20 - %23 hori, benetan optimizatze al maximo. Ezin da izan administrazio publikoak daukan kontratazio publikoaren ehuneko handi baten... ez dakit, adibidez, orain kasuko Gipuzkoan, erresidentziak greban egotea, ez? Osea, ezin da izan administrazio publikoaren bitartez finantzatutako zerbitzuak edo esternalizatutako zerbitzauak izatea ere bai prekarizazioa erreproduzitzen dutenak, ez?” (A3).

Hala ere,

“Creo que sigue siendo la gran desconocida la contratación pública responsable. Y a parte de desconocida, en el momento de aplicarla sigue generando dudas, sigue generando muchos roces dentro de los propios técnicos y técnicas de los ayuntamientos o las entidades locales por las dudas jurídicas que presenta (...) Y ahí también yo creo que el Gobierno Vasco, aunque sea en un papel normativo de redactor de normas, pues debiera impulsarlo también un poquito más o hacer un papel más facilitador.” (B5)

Bestalde, Ekonomia Solidariotik esaten dutenez, azkenaldian modan jarri da tokiko merkataritza edo ekonomia zirkularra sustatzeko administrazio publikoen kanpaina instituzionalak. Baina hauek ekonomia solidarioa urte askoz landuz joan diren ekimenak dira. Ekonomia Solidarioa guztiz lotuta dago tokiko produktu eta hurbiltasun zerbitzuak eskaintzarekin eta estatu mailan dagoen ekonomia solidarioko sare sektorial garrantzitsuenetarikoa hondakinen berreskurapenarekin eta birziklatzarekin lan egiten duena da. Eta beraz, zerbitzu horiek hornitzeko orduan, administrazio publikoaren helburu horiekin lerrokatze handiagoa erakusten dute (B2).

Hala ere, badaude erosketa publiko arduratsuari zailtasunak antzematen dizkioten ikuspuntuak. Izan ere, kontratu publikoetan klausula sozialak barnerazerakoan, lizitazioan eskatzen den zerbitzua hornitu gabe gelditzeko arriskua gerta daiteke ESSko ehuna eskasa baldin bada edo kontratu publikoa bere erakargarritasuna gal dezakeelako. Horregatik, erosketa publiko arduratsuen markoan lizitatzen diren kontratu publikoak ondo pentsatu behar dira, eta bere kasuan, politika publikoa ko-eraiki administrazio publikoaren eta tokiko eragileen artean (A4).

Ildo honetan ere, beste hainbat garapen agentziek erosketa publiko arduratsua — zein ESSko ekimenak sustatzea— oso zaila dutela esaten dute, proiektu horien lidergoa aurrera eramaten duten pertsonen parte-hartzerik gabe. Hau da, garapen agentzietarako zaila da ESSko ekimenen sorkuntzaren lidergoa eramatea (beharrak identifikatzea, ekintzaileak aurkitzea...), aldiz, ekintzaileak edo proiektu horiek aurrera eraman nahi dituzten pertsonak garapen agentzietara hurbiltzen direnean laguntza eskaini ahal diete, baina ez alderantziz (A1, A5, C1)

Ekintzailtza programei dagokienez, ESSko hainbat elkarrizketatu diote, orokorrean garapen agentzietako ekintzailtza arolak oso oinarrituta daudela ekimen indibidual eta/edo kapitalistak sustatzean, eta ESSa baztertuta dagoela programa hauetatik (B1, B2, B3, B4, B5, C1). Bestalde, ESSak berak bere eredua erreproduzitzeko ekintzailtza programa propio ugari ditu. Izan ere, ESSko sare gehienek dute horrelako programa edo plataformaren bat. Adibidez, Elkar-Lan Konfekoop-en barnean, Lanzituz

ASLEren kasuan, Koopfabrika Olatukoop-en kasuan etab. Eta hauez gain, aurreko kapituluan ikusi ditugun ESSaren baitan sortu diren tokiko eragileak daude (batzuk elkarrizketatuen artean daudelarik). Hots, ekimen kooperatibo bat oinarri izanik eta EJko Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren laguntzarekin jarduten duten garapen eragileen papera ere azpimarratu behar da zentzu honetan. Horrenbestez, elkarrizketatu ezberdinek adierazten dute garapen agentzien eta ESSko ekintzailtza programa hauen arteko harremana indartzea interesgarria izan daitekeela eskualdeetan kolektiboki ekin nahi duten pertsonentzako zerbitzua hobetzeko; eta beraz, garapen agentziak izan daitezkeela lurraldeetan dauden ekintzaile potentzialak programa hauetara bideratzen dituztenak (A3, B1, B4, C1).

“No tenemos la capacidad de estar en todas las comarcas directamente, pero si a través de esas oficinas comarcales o locales (...). Lo que hace falta es cuando llegue un promotor, pues decirle (...) tenéis también el modelo cooperativo y tenéis también quien os lo monta desde cero. Si le convence al promotor el modelo cooperativo (...) pues estamos nosotros para ayudarle. Y como Euskadi es tan pequeño en menos de una hora estás en cualquier sitio... Ese no es el problema, el problema es que orienten a esos promotores con respecto al cooperativismo.” (B1)

Horretarako, garapen agentzietako eta tokiko administrazio publikoaren papera aldatu beharko litzatekeela diote hainbat elkarrizketatuek. Hau da, ez da beharrezkoa garapen agentzia bakoitzak bere ekintzailtza kolektiboko programa propioa garatzea ESSa sustatzeko, baizik eta ESSa ikustarazi, sentsibilizazio lanak egin, baliabideak kanalizatu eta dagoeneko sortuta dauden ekintzailtza programetara ekintzaileak bideratu (B1, B4). Hots, garapen agentzietara hurbiltzen diren ekintzaile edo enpresak ESSko eragileetara hurbiltzea izan behar da beraien lana. Horretarako, ekintzailtza kolektiborako programak martxan jartzen dituzten ESSko sareen eta garapen agentzien arteko elkarlana askoz handiagoa izan behar delarik.

“Estos técnicos tienen que asumir es nuevo rol, en el sentido de que ‘oye tenemos otra fórmula para prescribir’ (...), y es otra fórmula dentro del abanico empresarial, y también al promotor en función del proyecto se le debe de orientar pues si tiene ese contenido social, si quiere compartir desde la gestión hasta los resultados pasando por el capital y la propiedad etc. Si el promotor está en esa tesis pues ese agente local le debería dar la opción de la cooperativa” (B1)

Hau da, garapen agentzien zereginari begira, esparru guztietan eragin orde, beharretatik hurbil egon eta hauek kanalizatu behar dituztela argudiatzen da. Ez da beharrezkoa behar guztiei erantzuna ematea garapen agentzietatik denetara heltzea zaila

izan daitekeelako. Aldiz, heltzen ez direnean lankidetzak beste eragileekin garatu beharko lituzketela denon artean behar horiei erantzuna eman ahal izateko. Hots, ez dira lurralde batean beharrak ase ditzaketen eragile bakarrak, eta beraz behar horiek kanalizatu ditzakete beste eragile batzuetara. Esparru bakoitzean eragile adituak egon daitezke laguntza hori eskaini dezaketenak. Ildo honetan, ESSaren munduan, badaude erreferentziazko erakundeak zeintzuk lagungarriak izan daitezkeen lurraldean ESSa sustatu nahi bada.

“No se trata de que las agencias profundicen, yo creo que las agencias su labor es canalizar, estar cerca de la empresa y a partir de ahí interlocutar. Es decir, conectar con los especialistas en cada materia. Ver las oportunidades que hay en su comarca y derivarlas a los que conocemos. Para eso, lo dicho, tiene que haber una verdadera interlocución, una verdadera alianza y colaboración entre las distintas redes creando un verdadero ecosistema” (B4).

Ildo berdinetik, baina gehiago sakonduz, doa B3 elkarrizketatuak. Bere ustez, tokiko ESSko eragileak, aipatutako ESSko lurralde subjektua hain zuzen ere, izan beharko litzateke garapen estrategia eta proiektuak proposatzen duenak, eta aldiz, garapen agentziak, estrategia eta proiektu horiek aurrera eramateko laguntza teknikoa eskaintzen duen eragilea. Hala ere, elkarrizketatuak dionez, hori ez da ematen gaur gaurkoz EAEn.

“Gaur egun garapen agentziak oso estankoak dira. Egiten dute normalean beraiek egiteko gai diren proiektuak, baina ez badira gai ez dute sartzen beste bat hori egitera. Dela ere bai Kataluniako eredia. Kataluniako eredian Ekonomia Sozial Eraldatzaileko eragileak dira proiektuak aurrera eramaten dituztenak garapen agentzien laguntzarekin. Hori hemen ez da egiten. Ez dago kulturarik tokiko beste eragileekin proiektuak egiteko orokorrean” (B3)

Era berean, ESSa sustatzeko ekimenak ESSak berak izan dezakeen finantzamuskulua erabiliz osatzea interesgarria izan daiteke. Adibidez, eskualde ezberdinetako kooperatiben elkartzeek, eskualde horietan sortu daitezkeen kooperatiba berriei laguntza finantzarioa emateko. Mota honetako esperientziak eskualde ezberdinetan aurkitu ditzakegu dagoeneko, adibidez, modu oso egituratu batean, Lea-Artibain Azaro Fundazioaren eta Kooperatiben Mahaia Elkartearen artean, edo Goierrin bezala, Goieki eta Goierriko Kooperatiben Elkartearen arteko elkarlanaren bitartez (A1, A2). Bi esperientzia hauetan, eskualdeko kooperatiba handi eta/edo egonkortuek funtsa bat sortzen dute, esan bezala, eredu kooperatiboa sustatzeko. Gainera, aholkularitza lanak eta bisio estrategikoa eskaintzen diete sortu berri diren kooperatibei, eta, ahal denean, ekoizpen sareak sortzen dira kooperatiba berriak hornitzaile gisa hartuz (A2). Lan

honetarako, eskualdeetako garapen agentziak dira kooperatiben elkarteak eta ekintzaileak harremanetan jartzen dutenak eta prozesua dinamizatzen dutenak.

“Dago beste eragile bat, Goilan, dela Goierriko kooperatiben elkartea, eta Goilaneke urte askotan bere zereginetan edo helburuetan bai izan da eskualdeko Ekonomia Sozialeko enpresen sorrera sustatzea. Eta beti parte-hartu dute guk identifikatzen genuenean proiektu bat Ekonomia Sozialekoa izan zitekeena, ba beraiekin harremanetan jartzen, ikusten Goilane bitartez beraiek zertan lagundu dezaketen... Eta bai eduki dugula... De hecho, daukagu espazio bat coworking deitzen zaiona kooperatiba erako enpresak sustatzeko eta elkarlaneko proiektuak.” (A1)

Hauez gain, badira elkarriketetan agertu diren beste ekimen konkretu batzuk garapen agentziak aurrera eraman dezaketena. Hala nola, merkatu sozialak sortzen laguntzea, espazio publikoen lagapena, finantza etikoen bitartez proiektuak sustatu, mutualismo tresnak sortu, formakuntza tresnak etab.

Badira, gainera, garapen agentzien arteko ezberdintasun garrantzitsuak antzematen dituzten elkarrizketatuak. Adibidez, B4 elkarrizketatuak bereizten ditu besteren gaintik Gipuzkoako garapen agentziak. Izan ere, elkarrizketatuarentzako, Gipuzkoako garapen agentziak dira euren lurraldearekiko ezagutza handiagoa dutenak eta lurraldearen lehiakortasuna hobetzeko eragile oso garrantzitsuak bezala ikusten ditu. Gainera, Gipuzkoan langileen parte-hartzea gehiago sustatu dela dio; ESSari mesede eginez. Beste garapen agentzia batzuk aldiz, ekintzailtzan oinarrituegiak daudela dio, eta honen barnean ekintzailtza indibiduala sustatzen dutela azpimarratzen du; horrek dakarren balio indibidualen indartzearekin.

“La política pública me parece clave. Pongo el ejemplo otra vez de Guipúzcoa. Guipúzcoa lleva una línea estratégica desde hace un montón de años en la que ha hecho una apuesta por la participación. Y la realidad es que Guipúzcoa cada vez es más ejemplarizante en este sentido. Cada vez hay más empresas participadas, cada vez hay más sociedades laborales y más cooperativas... Y creo que ha conseguido que el ecosistema, y en el ecosistema están las agencias de desarrollo, haya una mayor implicación en torno al fomento y a la sensibilidad en favor de la Economía Social. Entonces creo que es una herramienta clave el tener una voluntad política clara en favor de la Economía Social.” (B4)

Dena den, ESSa garapen agentzietatik sustatzea bere zailtasunak izan ditzake. ESSko eragile askok adierazten dute ezinbestekoa dela garapen agentzietan eta, oro har, administrazio publikoan lan egiten duten teknikarien formakuntza ESSaren inguruan (izaera juridikoak, klausula sozialak, erosketa publiko arduratsua etab...) (A3, B1, B2 B3, B5). Eta aldi berean, garapen agentzien ikuspegitik, euren funtzionamendua beste

elementuengatik baldintzatuta dagoela diote, eta beraz, beti ez dela erreza lan ildo berriak planteatzea. Zailtasunen artean, borondate politikoaren gabezia (A3, A5), administrazio publikoaren ohiturak eta inertziak (A5), ESSaren pisu erlatibo txikia (A4) edo plan estrategikoaren zurruntasuna (A1, A2) agertzen dira besteak beste.

“La labor política me parece fundamental. Pero la labor política a largo plazo porque los equipos de gobierno cambian cada 4 años (...) Entonces las agencias sí que me parece que podemos convencer con un soporte desde la Economía Social y Solidaria... Y luego también tener una batería, o sea un kit de herramientas. Es decir, la teoría está muy bien, a todos nos gusta estamos de acuerdo ¿pero luego que podemos hacer? ¿Qué cosas concretas, ¿no? Ez decir, ¿podemos llevar los servicios de jardinería...? Cosas concretas ¿no? Que ya las hay, ¿eh? Cosas concretas que se pueden hacer desde la administración pública. Pero requiere, entre comillas, ser muy pesados. Porque es que la mentalidad, la costumbre, los discursos que no favorecen la Economía Social y Solidaria, y son muchos, y están todos los días. Entonces para conseguir abrir un hueco en esas mentalidades y esas dinámicas y en esas costumbres, tanto en lo político como en lo técnico, (...) hay que ser muy pesado para que cale. Es que sino no cala (...) En una jornada o un encuentro a todo el mundo le parece muy bien, los valores, la filosofía, lo local (...) todo esto nos parece fantástico a todos en general. Pero luego ¿cómo operativizamos todo eso? Y ¿Cómo conseguimos que todo eso que a todo el mundo le parece bien lo consigamos hacer? Tiene que haber un lobby diario muy insistente, que lo hay ¿eh? Pero creo que el otro lobby es mucho más importante y está mucho más organizado (...) por que a nivel general está entre comillas en todos los sitios ¿no? Desde medios de comunicación, universidades etc. etc. y parece que las cosas tienen que ser de una determinada manera y cambiar eso es complicado porque las mentalidades están ya muy instauradas.” (A5)

Eta

“Gure atzetikan eskualdeko 18 udaletxeak daude eta normalean gure plangintza edo gure kudeaketa plana, ez? Zein lan lerro jarraitu behar ditugun, plan estrategiko batek erabakitzen du edo finkatzen ditu. Bai dela egia plan estrategiko hori elkarlanean egindako estrategia bat da eta eragile ezberdinen parte-hartzearen ondorioz da. Eta eskualdeko erronkei buruz gogoeta bat egiten da eta nola erantzun behar zaie erronka horiei erabakitzen da. Orduan, uste dut tokia dela horrelako zerbait planteatzeko, baina beti ere eragile horiek horrela ikusten baldin badute” (A1)

Bilbao Ekintzatik diotenez, ESSa Garapen Iraunkorreko Helburuekin eta Bilboko Udalean legegintzaldi honetarako lan ildoekin bat egiten duela ikusten dutenez ESSa sustatzeko erabakia hartu duten arren,

“Conseguir que la Economía Social y Solidaria sea una política pública que impulse esta economía como una opción preferente para el desarrollo económico territorial (...) Y que ese debería construir entre empresas, la universidad, la administración y las propias entidades

de la Economía Social y Solidaria. Es una especie de hélice que hay que activar (...) y trasladarla, visibilizarla y llevarla al territorio” (A4).

Politika publikoak ezartzerakoan ezin diotela lehentasunik eman adierazten dute. Bilboko 40.000 enpresetatik ESSko antolakundeak pisu erlatibo oso txikia daukatelako. Hau da, tokiko garapenerako beste enpresa ereduak baino onura handiagoak aitortzen dizkioten arren, lehentasunik ematen ez diotela adierazten dute (A4).

Beste elkarrizketatu batzuentzako dena den, zailtasun hauek ez dira arazo nagusiena (nahiz eta garapen agentziek ESSarekiko duten ezjakintasun maila altua dela ere adierazten duten). Arazo nagusiena garapen agentzien eta ESSaren arteko lerrokatze falta da. Adibidez, Ekonomia Solidariotik garapen agentziak ESSarekin lerrokatze handiagoa izan beharko luketela adierazten dute, izan ere, orokorrean, garapen agentzietatik ez da ESSak proposatzen duen garapen eredu bidezkoago baten alde egiten (B2).

Izan ere, Ekonomia Solidarioaren iritiz, garapen agentzien sorkuntza eskualdeak ekonomikoki aktibatzeke eman zen, lurraldeari eta bere beharrei oso lotuta egon zelarik. Alabaina, globalizazioagatik, bizi izan dituzten krisi ezberdinengatik, izan dituzten finantzazio murrizketengatik etab. euren lanerako esparruak murriztuz joan dira eta gaur egun ez dira lehen ziren bezain gai lurraldean dauden eragileak biltzeko, koordinatzeko eta garapen estrategia baten inguruan artikulatzeko. Are gutxiago, ESSarekin kontuan hartzeko. Hau da, gaur egun, enplegua, ekintzailtza, enpresentzako zerbitzuak eta gorago esparruetatik datozen funtsen kanalizazioa bezalako lan ildoak jorratzen dituzte eta administrazio publikoaren beste bulego bat bezala ikusiak daude nolabait. Horregatik, elkarrizketatu hauentzako, garapen agentziak tokiko beharrak identifikatzera bideratu beharko lirake, eta ondoren, horiei erantzuteko eragileak batu ESSa ardatz hartuta; adibidez, Beterri-Buruntzan zaintzen esparruan sortu den kooperatibarekin egin den bezala (B2).

Antzeko irakurketa egiten da Olatukoop-etik. Garapen agentziak tresna interesgarria direla adierazten duten arren, beraien estrategietan ESSa kontutan hartzen ez dutela adierazten baita. Kasu honetan ere Beterri-Buruntzako esperientzia azpimarratzen da EAE mailan (Nafarroan Sakanako esperientzia azpimarratzen da), izan ere hori izan da prozesurik sakonena zentzu horretan. B3-k dionez garapen agentzia hau 2008ko krisiaren ostean sortutako garapen agentzia delako, eta beraz, gaur egungo egiturazko krisiaren testuinguruan sortu delako, eta horregatik, askoz iragazkorra izan

zela ESSak proposatzen zuenarekiko. Horregatik, adibidez, Koopfabrika ekintzailletza kolektiboko programa txertatuta egon da hasieratik garapen agentzia horren zerbitzuen artean. Izan ere, elkarrizketatu honentzako, aurretik zetozen garapen agentziek ez dituzte proposamen berririk egin 2008ko krisiaz geroztik eta diru-laguntzak ematera mugatu direla dio. Eta beraz, estrategia komun bat aurrera eramateko tokiko eragileen arteko sare trinko bat osatzen duen agentea izatetik, diru-laguntzak ematen duen administrazioaren hanka bat izatera igaro dira garapen agentzia asko (B3).

Ikuspegi honetatik, garapen agentziek ESSan oinarritzeko, edo behintzat, ESSa kontuan izateko 3 zailtasun nagusi antzematen dira. Lehenengo zailtasuna, zailtasun politikoa da. Izan ere, elkarrizketatuak dionez, ESSak proposatzen duen eredu dena aldatzen du. Eta beraz, interes ekonomiko partikularrak izan dezakenarentzako eredu kaltegarria da. Eta horregatik, badaude espazio publikoak eredu horren kontra daudenak guztiz. Adibidez Donostian, non Olatukoopek egiten dituen ekimen oro autonomia da, babes publikorik gabekoa (B3).

Bigarren zailtasuna da, garapen agentziak mugatuta daudela Eusko Jaurlaritzatik jasotzen duten diru-laguntzek eskatzen dietenarekin. Hau da, diru-laguntzak jasotzeko baldintzengatik mugatuta daude, eta diru-laguntza horietan ESSa ez dago presente.

“(...) orduan diru-laguntzetan ez dutenez jasotzen eredu hau bultzatzeko diru-laguntzarik, ba ez dute garatzen ze oso dependienteak dira diru-laguntza horietara. Eta garatzen dituzte bakarrik proiektuak goitik datozen diru-laguntza lerroetan sartzen direnak. Orduan behetik egiten diren proposamenentarako ez daukate aurrekonturik kasu askotan; ez daukate kapazidade finantzierorik horrelako proiektuak aurrera eramateko. Kasu batzuetan egiten da, eh? Hor askatzen aurrekontu honetatik edo bestetik... a ver egiten dugun formazio bat Ekonomia Sozial eta Solidariokoa edo Ekonomia Sozial Eraldatzailekoa, edo kooperatibismoari buruzko txarla batzuk, edo goazen formatzera gure teknikariak... egiten dira baina oso oso modu miniritarioan, (...) Beharko litzateke Eusko Jaurlaritzako (Ekonomia Sozialeko zuzendaritzatik bideratuko liratekeenak esaten du elkarrizketatuak) partida batzuk garapen agentzietara iristea ere guzti hau landu ahal izateko” (B3)

Kasu honetan, jarraitu beharreko eredu gisa Kataluinian *Generalitat*-eak ateneuen inguruan irekitako finantzaketa lerroa interesgarria litzatekeela dio.

Eta azkenengo zailtasuna, dagoeneko azaldu zaigun elementu bat jasotzen du: Garapen agentzietako teknikarien artean ESSa zabaltzea. Izan ere, elkarrizketatuak dionez, teknikariek 30 urte daramatzate berdina egiten eta batzuetan politikoki ondo ikusten dena eta teknikariek ez dute onartzen, “ez dakitelako kooperatiba bat ere zer

den” (B3). Gainera, lurralde problematikak geroz eta konplexuagoak dira, eta beraz, horiei erantzuteko abiatzen diren proiektuak ere geroz eta konplexuagoak dira (eta adibide bezala Goiener jartzen du). Ez bakarrik juridikoki, baizik eta behar duen komunitatearen dinamizazioaren aldetik ere. Eta elkarrizketatuak dionez, normalean garapen agentzietako teknikariek ez daukate profil hori.

“Ezagutza maila nire ustez ya, ezagutza... zer den Ekonomia Sozial Eraldatzailea geroz eta gehiago daukate. Baina gero eguneroko praktika maila oso..., eszepzioak kenduta... direla niretzat Beterri Buruntza eta Lea Artibai” (B3).

Dena dela, garapen agentzietatik edo garapenetik ESSa sustatzeko zer egin daitekeenari buruzko atal honekin bukatzeko, aurrekoetatik aldentzen den iritzi bat barneratu behar dugu ere. Kasu honetan, administrazio publikoaren laguntzarik edo laguntza handirik gabe, ESSak bere kabuz, garatu beharko litzatekeela defendatzen duen ikuspuntua da (A6, C1).

“Iguar da hori, kooperatibismoa ulertzeko modutik, baina ni gehiago kokatzen naiz autoeraketaren marko horretan, ez? Eta gehiago da pisua jartzea, bueno ba gu ez bagaude ados gizartean dauden gauza ezberdinekin goazen guk geure alternatiba propioak sortzera eta goazen gu geureari egitera eta pisua eta indarrak geureak jartzera. Ze seguru aski guk ez badugu egiten, ez du beste inork guregatik egingo, ez? Orduan nik Ekonomia Soziala edo kooperatibismoa hortik ulertzen dut asko (...) autoeraketaren eta autogestioaren marko horretatik. Eta klaro, hortikan, esatea administrazio publikoak edo tokiko garapenak nola eta zer sustatu behar duen eta... ez nago eroso.” (A6)

Hala ere, administrazio publikoaren laguntza handiago edo txikiagoarekin, sustatu beharreko ildoak nahiko antzekoak dira: Ekintzailtza programak sortzea, ESSko jarduera gehiago sortzeko; saretzea sustatzea, bai ESSko antolakundearen arteko harremanak sendotzeko, baina baita ere tokiko beste eragileekin harremanantzeko; eta azkenik, erosketa publiko arduratsua (A6).

6.3.3.4 Euskal ESSaren eta tokiko garapenaren arteko harreman instituzionalak:

Euskal ESSaren eta tokiko garapenaren arteko harreman orokorreari begiratuta, azken urteetan EGES eta Garapen-en artean ematen ari den hurbilketa azpimarratzen dute hainbat elkarrizketatu (B4, B5). Izan ere, bi antolakunde hauen arteko harremanak sendotzeko lehenengo pausoak ematen ari dira eta garapen agentzietan ESSa zer den zabaltzeko proiektu batzuk garatzen ari dira eta baita ere agentzietako teknikariak

prestatzeko formakuntza proiektu batzuk ere. Alabaina, garapen agentzien erantzuna ezberdina izaten ari da agentzia batetik bestera.

“Bueno de los proyectos que estamos haciendo con Garapen, por la parte de Garapen veo muchas ganas de colaboración, de seguir profundizando ¿no? (...) En función de donde están las agencias y de la realidad del territorio pues se nota diferencia ¿no?, Hay muchas entidades que ya conocen la Economía Social, que siguen impulsándola, que la tienen como prioritaria y en otras en las que habría que desarrollar más ¿no? Y llevándolo a la contratación pública, pues hay de todo. Algunas entidades que han hecho mucho y que siguen haciéndolo también en este campo de la contratación con diferentes proyectos con Centros Especiales de Empleo o con Empresas de Inserción para todo el tema de los colectivos con mayores dificultades de empleabilidad... Lo que ha hecho hasta ahora Vitoria, el Ayuntamiento de Getxo... algunos municipios que han sido claves y que han hecho bastantes cosas... y en otras en las que no está tan desarrollado.” (B5)

ESSaren eta garapen agentzien arteko harremanetan sakonduz, orokorrean, ESSko familien erreferentziazko antolakundeek harreman garatuagoak dituzte maila altuagoko administrazio publikoarekin; Aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin bereziki. Izan ere, garapen agentziekin dituzten harremanek ez dute Aldundiekin edo Eusko Jaurlaritzarekin dituzten harremanek duten horrenbesteko marko egonkorrik, oro har, garapen agentziekin edo eragile lokalekin garatzen dituzten harremanak informala goak dira

“No es algo tan establecido como puede ser a nivel autonómico o a nivel provincial, que tiene como unas pautas y unos protocolos, sino que a nivel local de ayuntamientos y comarcas depende más de la relación que tengan (...) es casi una relación personal” (B5)

Eta

“Los proyectos que hacemos desde EGES con Garapen o con el desarrollo local son muy novedoso para nosotros. Al final EHLABE que es una entidad tan supraterritorial bajar a esta colaboración con las agencias de desarrollo local pues también es importante y cambiamos un poco el punto de vista y el objetivo ¿no? O sean no solo centrarnos en lo supra sino empezar de abajo de lo más local y ahí también pueden salir proyectos bonitos.” (B5)

Baina orokorrean, eragile gehienek bat egiten dute gaur gaurkoz ez dagoela EAeko ESSaren eta tokiko garapenaren arteko harreman jarraitu eta egonkorrik. Garatzen diren harremanak bilateralak dira agentzia baten eta ESSko sare baten artekoak; hots, lankidetzaren harremanak ez daude orokortuak. Ildo honetan, B3 elkarrizketatauak, Frantziar estatuko lurralde lankidetzaren poloei erreparatuz, EAeko tokiko garapenean ESSa kontuan hartu behar dela zehazten duen inongo ezarpen

normatiborik ez dagoela dio, eta bide horretan aurrera egitea interesgarria izan zitekeela “normatiboki ESSa tokiko garapenean kontutan izateko”. Hau da, tokiko garapenean legez ESSarekin kontuan hartu behar izatea (B3).

Garapenetik ESSa sustatzeko egin daitekeenari begira, alde batetik, ESSaren inguruko ezagutza faltari edo ESSa sustatzeko beharrezkoak izan daitezken bestelako behar orokorrei erantzutea eskatzen diote hainbat elkarrizketatuek. Adibidez, formakuntza saioen bitartez, sentsibilizazioaren bitartez edo praktika egokien zabalkunde edo elkarbanatzearen bitartez (B1, B5). Hala ere, aldi berean, ideia eta ekintza konkretuak aplikatzeko orduan, eskualde bakoitzaren esku uztea beharrezkoa dela ikusten da, bertan dauden eragileak direlako bertoko errealitatea hobeto ezagutzen dutenak eta ESSarentzako merkatu-nitxoak identifikatu dezaketelako (A1, A5).

Horrez gain, elkarrizketatu batzuek ESSa gazteen artean zabaltzeko orduan, hezkuntza zentroetan eta unibertsitatean gehiago barneratu beharko litzatekeela diote, gaur gaurkoz inbisibilizatuta dagoelako. Eta zeregin pedagogiko horretan Garapen-ek ere zer esana izan dezakeela (A3, C1).

“Ezin duguna espero da ekonomia kapitalistan espezializatuak sortzen egon unibertsitatetik eta ez egotea kasi inork Ekonomia Sozialaren gaineko jakintzarik daukana edo ez hartzea kontuan Ekonomia Soziala paradigma ekonomiko baten moduan, ez? Den moduan, gainera Euskal Herrian daukan indar guztiarekin, ez?” (A3)

A5 elkarrizketatuak arreta jartzen du Garapenek dituen baliabideetan. Elkarrizketatu honentzat bai garapen agentzien eta baita ere Garapenen baliabideak oso mugatuak dira. Eta ESSa behar bezala sustatzeko denbora, dedikazioa, ezagutza, energia eta dirua beharrezkoa dela dio. Beraz, bai Garapen, eta baita ere ESSaren erreferentziazko antolakundeak baliabide gehiago beharko lituzkete ESSaren inguruko zabalpen bat egiteko. Eta Getxoko Udaleko adibidea jartzen du non baliabide eta denbora gehiena diru-laguntzen bitartez “suteak itzaltzera” bideratzen duten. Hots, enpresen berehalako arazoak estaltzera, eta ez bestelako proiektu estrategikoak sustatzera. Izan ere, hori da politikoki eskatzen zaiena (A5).

Eta azkenik, Eusko Jaurlaritzaren mailan,

“El Gobierno Vasco también son compartimentos estancos. Hay un departamento de la Economía Social, pero la Economía Social no es un departamento estanco. La Economía Social es transversal. Cuando están haciendo el plan de emprendimiento que lo hace competitividad, ¿la Economía Social no tiene nada que decir? Cuando estás hablando de

educación ¿la Economía Social no tiene nada que decir? (...) Claro que sí, tiene muchísimo que decir.” (B4)

6.3.4 ESSan oinarritutako garapen estrategia baten inguruko hausnarketak:

Azkenengo bloke hau lotura zuzena erakusten du tesi honen marko teorikoaren atal propositiboarekin (4. kapituluko 4. atalatik aurrera). Izan ere, ESSan oinarritutako tokiko garapenerako estrategia baten inguruan hausnartzea eskatzen zitazien elkarrizketatuei. Hots, elkarrizketatutako eragile bakoitzaren imaginarioan gai hau nola kokatzen den ezagutu nahi zen, etorkizunari begira pausoak ematerakoan norabidea zein den ezagutzeko hain zuzen ere. Beraz, lotura estua erakusten du tesi honen atal propositiboarekin, zer egiten den baino, eragile bakoitzaren iritziz zer egin beharko litzateke galdetzen delako.

6.3.4.1 ESSaren lanketa garapen agentzietan: ¿Transbertsala ala beste lan ildo bat?

Elkarrizketatu guztiek daude ados etorkizuneko tokiko garapenean ESSak bere tokia izan behar duelarekin. Hala ere, ESSak izan dezakeen pisuaren eta lanketa nola izan beharko litzatekeen inguruan iritzi ezberdinak aurkitu daitezke.

Bloke honetan sortzen den lehenengo eztabaida ESSaren izaera estrategikoaren inguruan ematen da. Gai honen inguruan galdetzerakoan hiru jarrera nagusi aurkitu ditzakegu. Alde batetik, ESSa estrategikoki lantzen dutela esaten duten garapen agentziak daude (A2, A3, A4, A6). Bestalde, estrategikoki landu daitekeela argudiatzen duten arren, oraindik ere erabakia hartu ez duten, edo momentu honetan ESSa estrategikoki lantzen ez duten garapen agentziak daude (A5). Kasu hauetan garrantzitsua da esatea, estrategikoki ez lantzeak ez duela esan nahi ESSa sustatzeko ekimen konkretuak burutzen ez direnik. Eta azkenik, badaude beste batzuk oso zaila ikusten dutenak ESSa garapen agentziaren lan ildo estrategiko bezala kontsideratzea (A1).

Beraz, orokorrean, garapen agentzietatik ESSa lantzeko erabaki estrategikoa hartzea posible dela argudiatzen dute elkarrizketatu ezberdinek. Hala ere, aldi berean, arrazoi ezberdinengatik, erabaki estrategiko hau ez da oraindik ere hartu garapen agentzia guztietan. Adibidez, dagoeneko azaldu zaigun moduan, ohikoa da garapen agentziek epe ertain edo luzera bergiratzten duten plan estrategikoetan murgilduta egotea, eta plan estrategiko horiek tokiko beste eragileekin batera definituak izan

daitezkeen arren, hauek definitzerakoan ESSa lan ildo bezala agertu ez bazen, zailtasunak aurkitzen dituzte haren aldeko lan ildo bat planteatzea (A1). Horregatik ere, garrantzitsua da ESSak tokiko gobernantza sistemetan eragile gisa barneratzen joatea; lurraldeetako plan estrategikoak diseinatzeko beste eragile bat gehiago izateko eta bere ekarpenak egin ahal izateko. Nahiz eta beste kasu batzuetan borondate politikoa egotea edo ez elementu erabakigarria izaten jarraitzen duen (A5).

Dena dela, ESSa estrategikoki lantzen dutela adierazten duten garapen agentzien inguruan ere ezberdintasunak aurkitu daitezke. Izan ere, zer da ESSa estrategikoki lantzea? Lehenengo begirada batean, ESSari lehentasuna ematearekin lotu ahalko genuke edo gobernantza ereduko eragile garrantzitsua izatearekin. Alabaina, dagoeneko ikusi dugunez, garapen agentzia guztiek ez diote lehentasunik ematen arrazoi ezberdinengatik.

Adibidez, ESSa eragile estrategikoa kontsideratu arren, eta beraz, harreman jarraitua garatu arren, ESSaren pisu erlatibo txikia duen eskualdeetan politika publikoen lehentasuna beti ezin zaiola eman adierazten dutenak daude (A4, A6).

Nahiz eta ESSa tokiko garapenaren helburuekin lerrokatze gradu handiagoa duenez, eta ESSaren abiatze egoera ahulagoa denez, ez baitu bestelako enpresa eredu duen ezagutza maila jendartean, haren aldeko lehentasunezko apustua egin beharko litzatekela defendatzen da beste ikuspegi batzuetatik.

“La fórmula de la Economía Social es una fórmula de economía más justa, más solidaria, más equitativa y que mejor da respuesta al desarrollo local, entendemos que se debiera hacer más de lo que la realidad actual manda. Equilibrar más entre la economía capitalista y la Economía Social ¿no? Por tanto, si desde el desarrollo local se está haciendo más o menos lo que te marca la realidad, habría que hacer más desde nuestro punto de vista (...) Pero es verdad que partimos desde una realidad donde la posición de la Economía Social por ahora es la que es... pero bueno siendo la que es, por eso mismo hay que darle más impulso ¿no?” (B5)

Beste kasu batzuetan aldiz, ESSaren estrategikotasuna tokiko gobernantza sistemaren parte garrantzitsua izatearekin lotzen da. Adibidez, Lea Artibaiko kasuan, eskualdeko kooperatibak lurralde gobernantza sistemako eragile garrantzitsuak dira Azaro Fundazioaren eta Kooperatiben Mahaia Elkartearen bitartez (A2). Edo Debagoiena 2030-n non ESSaren inguruan berrikuntza sozialetarako egitasmoa sortu den (A6). Eta Beterri-Buruntzan, ESSari lehentasuna ematen diote, aurrera eramaten

dituzten inklusio politika aktiboak ESSan oinarrituz. Zentzu honetan, adibidez, garapen agentziaren eta Erroak Sartu elkartearen arteko lankidetzaren bitartez Beterri Errotuz laneratze enpresa sortu dute eskualdean enplegu soziala sustatzeko. Gainera, garapen agentziatik lortu dute eskualdeko udal ezberdinen artean, erosketa publiko arduratsuen markoan, kontratu erreserbaren tresnaren bitartez 4 urteko kontratu publikoa esleitzea laneratze enpresa honi. Modu honetan, Beterri Errotuz enpresak lan karga nahikoa dauka ingurumen zerbitzuen sektorean inklusioa landu ahal izateko. Era berean, zaintzen esparruan Maitelan Kooperatiba integralaren sorkuntzan parte-hartu du garapen agentzia honek, non SOS Arrazakeriaren inguruan biltzen den emakumeen foroarekin batera ko-diseinatu duten (A3).

Beraz, estrategikoa zer kontsideratzen den, eta, batez ere, zer suposatzen duen, garapen agentzia bakoitzaren arabera izango da. Hau da, aipatu dugun moduan, estrategikoa lehenetsia ematearekin lotu daiteke, gobernantza sistemako eragile zentrala izatearekin edo harreman jarraitu bat garatzearekin.

Garapen agentzietatik ESSaren inguruko lanketa aurrera eramateko orduan sortzen den bigarren eztabaida, lanketa horrek izan beharko lukeen izaeraren inguruan sortu zen. Izan ere, bi ikuspegi nagusi antzematen dira ildo honetan. Batetik, zeharkako lanketa edo lanketa transbertsala, non garapen agentziek jorratzen dituzten lan ildo guztietan ESSa sustatzeko neurriak aplikatu daitezkeela defendatzen dutenak daude. Ikuspegi hau beraz, enplegu arloa, ekintzailtza arloa, lehiakortasun arloa, merkataritza arloa, kontsumo arloa, ingurumen arloa, kultura arloa eta garapen agentzia batek izan ditzakeen beste arlo guztiak ESSan oinarritzean datza. Eta bestetik, garapen agentziek ESSa espresuki sustatzeko beste lan ildo bat sortu behar dutenak defendatzen dutenak daude. Hots, aipatutako lan ildo horietaz aparte, ESSa sustatzeko lan ildo bat sortzea interesgarria ikusten dutenak.

Elkarrizketatu gehienek lanketa transbertsala egin beharko litzatekeela, edo behintzat, egin daitekeela argudiatzen dute (A1, A3, A4 B1, B4, B5, C1, C2, C3). Izan ere, orokorrean, ESSa tokiko garapenaren arlo ezberdinei (edo guztiei) erantzuna emateko gai, edo behintzat, lan ildo guztiei ekarpenen bat egiteko gai dela argudiatzen da.

“La Economía Social y Solidaria es transversal, no es un sector, sino que es un cómo ¿no? Es una manera diferente de hacer economía” (A4)

Transbertsialitatearen gaia aurretik eztabaidatu diren beste gairekin lotuz,

“La Economía Social no es un departamento estanco; es una sensibilidad, es una forma de entender la forma de hacer empresa. Y que creo que es importante que, dentro de una agencia, todas y cada una de las personas tengan conocimiento y tengan formación en lo que es la Economía Social. Porque las oportunidades para la Economía Social pueden surgir en el ámbito del medio ambiente, en el ámbito del emprendimiento, en el ámbito de la digitalización, o en el tema de competitividad empresarial. Pueden surgir en cualquier ámbito. No se trata de que haya una persona que sepa de Economía Social, porque no le van a llegar ni la mitad de las oportunidades, se trata de que todas y cada una de las personas conozcan y están sensibles a la Economía Social para que tengan esa capacidad de identificar oportunidades. Oportunidades que luego puedan ser derivadas a las familias de la Economía Social para poder ser puestas en marcha” (B4)

Hau da, politika publiko guztietan ESSa aplikatu daitekeela,

“ESSa politika publikoen oinarri, euskarri edo paradigma ekonomikoa” (A3).

Hala ere, kasu honetan ere, lanketa transbertsala egiteak ez du nahitaez esan nahi ESSari lehentasuna ematen zaionik. Hots, garapen agentzia batek dagoeneko definituak dituen lan ildo estrategikoetan (enplegu arloan, ekintzailtza arloan, promozio ekonomikorako arloan, lehiakortasun arloan, zerbitzu sozialen arloan, ingurumen arloan, kultura arloan etab.) ESSaren forma ezberdinek erantzun aproposa eman dezaketen arren, arlo hauen barnean ekimen ezberdinak aurrera eramaterakoan ESSa beste aukera posible bat bezala ikusi daiteke, eta ez lehentasunezko aukera bezala. Hau da, ESSa hor dagoela eta arazo ezberdinei erantzuna emateko aukera eskaintzen duela onartzen da, baina ekimenak aurrera eramateko orduan ez da ESSari lehentasuna ematen dion apustu sendoa egiten; bestelako enpresa ereduaren tratamendu berdina jasotzen du, nahiz eta bere hasierako posizioa ahulagoa izan daitekeen jendartean, ohiko enpresa eredia bezain beste zabaldua ez dagoelako.

Ildo honetan, C1 elkarrizketatuak dionez, askotan garapen agentziek ez dute ESSa bere lan esparruen artean barneratzen orokorrean. Ez modu transbertsalean eta ezta ere lan ildo bat bezala. Eta beraz, garapen agentziek ESSarekin batera edo ESSa sustatzeko aurrera eramaten duten lana oso marginala izan dela. Gehienez ere, neurri generalistak proposatzerakoan ESSa ez dela baztertu argudiatzen du, baina ESSa espresuki sustatzea helburu duten neurriak ez dira, oro har, aurrera eraman. Hau da, neurri berdinak aplikatzen dira orokorrean ESSa edo bestelako enpresentzako.

Horregatik, beste elkarrizketatu batzuk ESSak lan ildo propioa izan behar duela defendatzen dute; behintzat hasieran. Izan ere, aurreko arrazoiarengatik, zeharka lantzen

denean lehentasuna galtzen duela argudiatzen dute; eta beraz, lausotu egiten da. Bestalde lan ildo propioa izanik, baliabide eta helburu konkretuak izango lituzke eta ez litzateke garapen agentziaren eginkizunen artean disolbatuko. Gainera, lan ildo propioa izateak ez du zertan esan nahi beste lan-ildo batzuetan aplikagarria edo transbertsalizatu izango ez denik (A5, A6, B2).

“Porque muchas veces lo transversal, que en concepto está muy bien, desaparece cuando vienen cosas urgentes. Y casi siempre hay algo urgente. (...) Entonces lo que es interesante es visualizarlo y ponerle nombre, ponerle un responsable y ponerle presupuesto para que tenga consistencia. Luego ya veremos que aplicaciones se pueden dar en función de la localidad, en función de quien lidera eso y en función de la respuesta del territorio, ¿no?”
(A5)

Hau da, helburua ESSa garapen agentzien ildo guztiak eta egiteko erak bustitzea litzateke. Alabaina, helburu orokor hori konbinatu beharko litzateke ESSa sustatzeko lan ildo espezifikoekin. Ildo honetan, adibide gisa ekintzailtza programak jartzen dira. Oso positibotzat joko litzateke garapen agentzia batek sustatzen duen ekintzailtza ESSarengatik zeharkatuta egongo balitz eta ESSaren inguruko ekintzailtza programa espezifikorik behar ez izatea. Baina gaur egungo egoeran ezinbestekotzat jotzen dute programa espezifikoak sortzea, besteren artean ESSa ikustarazteko (B2). Hau da, lan ildo espezifikoek ESSa iksutarazten dute eta, esan bezala, baliabide konkretuak esleitzeko baliagarriak dira.

Dena dela, badago behintzat eskualde bat (Beterri-Buruntza) non lanketa transbertsalaren ikuspegitik abiatuta, lehen aipatu dugun moduan, ESSari lehentasuna eman zaion politika publiko ezberdinen oinarria izateko. Eta beraz, ESSa paradigma ekonomiko moduan hartu dutela beti politika publikoen edozein esparruan lan egiteko oinarri bezala. Izan ere,

“Eskualde honetan teknikoki antolatu izan gara hiru arlo nagusietan. Alde batetik, enpresa arloa eta sektore estrategikoak izango zirenak, beste aldetik ekintzailtza, eta hirugarrenik enplegua. Orduan saiatu garena izan da nolabait lan esparru guztietan Ekonomia Soziala ardatz edo euskarri moduan hartzen. (...) Adibidez, enpresa arloan, sustatu izan dugu eskualde honetan eraldaketa nodoa izeneko eskualdeko kooperatiben mahaia bat, beraiek nolabait tokiko garapeneko agente aktibo izateko, ez? Eta sare logikan binkulatzeko ekintzailtza proiektu berriekin edo enplegutik edo inklusio esparrutik landu ahal izan ditugun gizarteratzea eta laneratzea xede daukaten proiektu ezberdinekin” (A3).

Modu honetan, Beterri-Buruntza eskualdearen kasu konkretu honetan, beste ekimenen artean, eskualdeko ehun kooperatiboarekin tokiko garapeneko esparru ezberdinetan eragiteko agenda konkretu bat definitu dute kooperatiben motibazio, interes eta beharren arabera.

Eskualde honen garapen agentziaren elkarrizketatuaren arabera,

“Niretzat argi eta garbi izan behar dela transbertsala. (...) Nik uste dut Ekonomia Soziala ez dela helburua bere horretan, sino que dela bitarteko bat, ez? Eta horregatik, egin behar dena da garapen agentzien esparru ezberdinetan hau transbertsalizatu, ez?” (A3)

Eta ildo honetan, Beterri-Buruntzan jorratzen dituzten hiru lan ildo nagusietan (enpresa, ekintzailtza eta inklusioaren esparruan) nola transbertsalizatu daitekeen aipatzen du: Enpresa arloan, batez ere, ESSko enpresen arteko saretzea eta lurraldean proaktiboki eragiteko erraztea eta dinamizazio lana. Ekintzailtza arloari dagokionez, ekintzailtza sozialeko programak, aholkularitzak, bidelaguntzak, enpresa-haztegiak etab. eskaintzea, izan ere, elkarrizketatuaren arabera, normalean programa espezifiko hauek ez dira eskaintzen beste eskualdeetan. Eta inklusioari edo zerbitzu sozialei dagokienez, kontratazio publiko ardratsua sustatu eta laneratze enpresak eta enplegu zentro bereziak bezalako inklusio tresnak sustatu. Eta beste edozein arlo lantzen dituzten garapen agentzietan, ESSa ere transbertsalizatu daitekeela argudiatzen du (eta energiaren esparrua eta finantzen esparrua jartzen ditu adibide bezala) (A3).

Beste ikuspegi batetik, ESSko ekosistema sortu edo sortzea helburu izan duten kasuak aurkitu ditzakegu. Kasu hauek ESSaren inguruan eragile ezberdinak (heziketa zentroak, unibertsitatea, zentro teknologikoak, beste eragile ekonomiko eta sozialak etab.) artikulatzea lortu izan duten eskualdeak dira. Zentzu honetan, batez ere Lea Artibai aurkitu ditzakegu. Izan ere, Lea Artibain Azaro Fundazioaren inguruan kooperatiba berriak sortzeko helburuarekin eta ESSaren balioak zabaltzeko helburuarekin eskualdeko kooperatiba handiak (Kooperatiben Mahaian elkartuta), lanbide heziketa zentroa, zentro teknologikoa, tokiko eta landa garapenerako agentziak etab. biltzen dira (A2).

Ildo honetan ere, Beterri-buruntzan Ekonomia Sozial Eraldatzailean oinarritutako ekosistema bat sustatzen edo errazten saiatu dira. Horretarako, parte-hartzean oinarritutako antolakundearen arteko saretzea sustatu dute Beterri Saretuz egitasmoaren baitan, non

“beraien artean elkar elikatzen diren, ezagutza konpartitzen duten eta konpartitutako irakaspen horietatik agenda berri bat garatzen den, eta kanpora begira ere bai lortzen dugun trantsizio bat ekonomia konbentzionaletik Ekonomia Sozialerako ehun ekonomiko bat izatera” (A3).

6.3.4.2 ESSan oinarritutako garapen eredu baten ezaugarriak eta mugak

Garapen ereduari buruzko galderak, 4. kapituluan identifikatu ditugun garapen ereduaren ikuspegiarekin eta mugekin lotu dira batez ere. Galdera hauek planteatzerakoan bategite nahiko orokorra aurkitu dugu ESSak garapen eredu propioa, endogenoa, integrala eta autozentratuagoa lortzen lagundu dezakeela muga ekologiko, sozial, politiko eta ekonomikoen barnean. Hots, ESSan oinarritzen den garapen eredu batek burujabetza gradu handiagoa izango duela, indar eta baliabide endogenoak aktibatzeke aukera handiagoa izango duela, merkatuko esparru ekonomikoa baino haratago doan garapen eredu izango dela eta lehenik tokiko beharrak asetzera bideratuko dela. Eta, aldi berean, gaur egungo testuinguruak ezartzen dituen mugen barnean ezaugarri hauek betetzeko aukera handiagoa eskaintzen duela; muga ekologikoak errespetatuz, krisi sozialari erantzuna emanez, estrategia demokratikoagoak sortuz eta disparekotasun ekonomikoak murriztuz.

Hala ere, ezaugarriak eta mugak aztertu baino lehen, C3 adituak egiten duen tokiko garapenerako eredu orokorren arteko bereizketa egitea interesgarria izan daiteke. Adituarentzako, tokiko garapena eta lurraldea hiru zentzu orokorretan ulertu daiteke, nahiz eta errealitatera jotzen badugu, normalean, hiru eredu orokor horien arteko nahasketak aurkituko ditugun.

Alde batetik, lurraldea kapitalismo globalaren zerbitzura dagoen plataforma bat bezala ulertu daiteke.

“Vamos a instalar aquí al lado un Ikea, ¿no? Y, por lo tanto, ¿qué ofrece ese ayuntamiento? Yo te exoneró del impuesto del IBI, te aplano el terreno, y no hace falta que pagues ni el asfaltado ni la iluminación porque quiero que vengas aquí, que así crearas puestos de trabajo, ¿no? Es decir, hay un tipo de desarrollo local que está mirando hacia afuera siempre buscando ‘oportunidades’ de nuevos negocios y que por tanto no salen de las capacidades y de las necesidades de la propia población local, ¿no?” (C3).

Lehenengo eredu hau gainera, epe laburreko ikuspegia dauka, lanpostuak berehala sortzen diren bezala, urte gutxi batzuen bueltan lanpostuak galdu daitezkeelako erakarrirako enpresak beste lurralde batera deslokalizatzen direlako kostu txikiagoen

bila, beste lurralde batek eskaintzen dituen abantailen bila, edo, oro har, errentagarritasun handiagoaren bila. Adituarentzako, nazioartean jarduten duten kooperatiba batzuk izan ezik, ESSak ez du zer esan handiegirik tokiko garapenerako eredu honetan.

Tokiko garapenaren bigarren eredu orokorra, proiektzio globala duen baina lurraldetik abiatzen den tokiko garapen eredu litzateke. Kasu honetan, indar eta baliabide propioak erabiltzen dira ekoizpena esportatzeko eta nazioarteratzeko; eta, kasu honetan, ESSak badu zeresana. Batez ere sektore industrialetan kokatuta dauden antolakundeen bitartez.

“Sobre todo cooperativas y sociedades laborales productoras industriales y exportadoras a mercados globales, ¿no? Hemos partido de unas capacidades y unos recursos endógenos del propio territorio, pero nos dirigimos a un mercado mundial o mercado global” (C3).

Eta azkenik, hirugarren ikuspegia ez da bakarrik baliabide eta gaitasun propioetatik abiatzen, baizik eta horiez gain, lurraldean dauden beharretatik eta aspirazioetatik abiatzen den eredu litzateke, lehenik horiek asetzeko.

“Estaríamos hablando no solo de un desarrollo endógeno, sino de un desarrollo auto-centrado y autosuficiente lo máximo posible que nos permite el sistema económico donde estamos inmersos (...) que no es posible al 100%. Por lo tanto, estamos hablando de cuotas de soberanía económica, cuotas de autosuficiencia. Es decir, utilizar el desarrollo local para satisfacer las necesidades y aspiraciones del propio territorio.” (C3).

Azken zentzu honetan, ESSak ere asko dauka esateko; bigarren ereduan baino gehiago beharbada. Izan ere, ESSko antolakunde askok zerbitzuen sektoreetan jarduten dute (kultura, zerbitzu sozialak, hurbiltasunezko zerbitzuak, enpresentzako zerbitzuak etab.), eta beraz, oso jarduera lokalizatuak dira nazioartera begiratzea zaila dutenak. Hala ere, orokorrean, lurralde gehienek lehenengo eta bigarren ikuskerak lehenetsi dituzte, nahiz eta adituak aipatu duen moduan, hiru ikuspegiak aldi berean eman daitezkeen.

Alabaina, adituarentzako, barneratzen ari garen hamarkada erabakigarri honetan, batez ere krisi ekosozialari begira, tokiko garapenak hirugarren ikuspegia hartu beharko luke norabide bezala. Eta, antzeman dezakegun moduan, tesi honetan planteatzen diren tokiko garapenerako ezaugarriak harreman handiagoa daukate hirugarren ikuspegi honekin. Horregatik, nahiz eta gaur egun duen egoerak ez dion ESSari faktore

erabakigarria izaten uzten, adituak dio horrelako garapen eredu bat lortzeko lagundu dezakeela, ESSak ezaugarri horiekin guztiz lerratuta dagoelako (C3).

Ezaugarriak banaka aztertuta, behetik gorako eredu propio edo burujabea sortzearen inguruan, ESSko antolakundeek sorkuntza behetik gorako prozesu bat bezala ikusten da, eta beraz, ESSan oinarritutako garapen eredu batek ezaugarri hori izateko erraztasun handiagoa izango duela antzematen da.

“El tema de abajo a arriba en realidad es (...) sujetos que parten de una necesidad común se ponen a colaborar o a cooperar para poder satisfacer sus necesidades a través de una empresa gestionada de una forma determinada y con unas finalidades determinadas. Eso es de abajo arriba. (...)” (C1)

Eta

“Los propios afectados se auto-organizan, montan sus asociaciones ciudadanas (...), utilizan el mecanismo de la voz de manifestarse o de articularse como una asociación para reivindicar a la administración pública determinadas respuestas o lo que fuera, y no las reciben, y entonces, hacen otro paso adelante y entran en el ámbito económico, Y el ámbito económico es ya montar una entidad.” (C2)

Eredu endogenoaren inguruan,

“Cuando hablas de lo endógeno, activando recursos y fuerzas locales, pues bueno, aquí solemos hablar de lo local para llegar a lo global, o sea también efectivamente priorizar las empresas de aquí, el trabajo aquí, el arraigo territorial ese que decíamos aquí, bueno yo lo encajaría aquí” (C1)

Eta

“En el tema de los recursos endógenos, pues sí efectivamente, los recursos los van a aportar los socios de la cooperativa (...)” (C1)

Hala ere, kanpotik datozen baliabide eta indarretara itxita ez egotearen garrantzia azpimarratzen dute elkarrizketatu ezberdinek (A1, A2, A6). Hau da, baliabide exogenoak ez direla baztertu behar eta horiek aprobetxatzeko gaitasuna izatea garrantzitsua dela. Horregatik kudeatu beharko litzateke baliabide exogenoen onarpena agenda propioa planteatzeko gaitasunarekin. Hau da, kanpotik jasotzen diren baliabideak garapen estrategia baldintzatzeko duten gaitasuna kudeatu behar da, garapen eredu burujabea izaten jarraitzeko (A6).

Bestalde, ESSa tokiko garapenaren arlo ezberdinei modu integralean erantzutea ahalbidetzen duela argudiatzen dute hainbat elkarrizketatuek (A2, B1, B5, C1). Izan ere, ESSak forma eta sektore ezberdinetan egituratu daitekeenez, behar ezberdinak ase ditzake behar bakoitza asetzeko forma egokiena bilatuz. Gainera, ESSko antolakundeak ez direnez enpresa kapitalistak bezain intentsiboak kapitalean eta mozkinen maximizazioa ez dagoenez haien helburuen artean, bazkideen eta tokiko komunitatearen beharrak asetzera lehenesten da; eta errentagarritasun ekonomiko handiena lortzeak zehazten dituen dinamika globaletatik askatuta agertzen dira neurri batean. Horrela, administrazio publikoa heltzen ez den eta enpresa kapitalistek interesa ikusten ez duten lurralde eta esparruetan, ESSak alternatibak eskaini ditzake (B1, C2).

Horrenbestez, tokiko komunitateek bizitzeko beharrezkoa dutena ekoizteko antolatzen badira, eskualdeek dituzten beharrak eskualdeetan bertan asetzera lortu dezake ESSak. Hau da, ESSak enplegua, kontsumorako ondasunak, zerbitzuak, hezkuntza, etxebizitza, kultura, aisialdia etab. asetzeko gaitasuna duenez, lurralde oreka handiagoa lortu daiteke beharrak asetzera ahalbidetzen duten jarduerak ez baitira hiri edo eremu urbano handietan lokalizatzen. Hots, teoriara bueltatuz, ESSak globalizazioaren testuinguruan sortu den lurralde irabazle eta galtzaileen dinamika irauli dezakeela argudiatzen da. Jarduera ekonomikoa eta inbertsioa erakartzeko gaitasuna ez duten lurraldeek ESSan oinarritu daitezkeelako nolabaiteko indar zentripettoa sortzeko eta lurralde deprimituak berpizteko. Izan ere, aurretik esan bezala, kasu askotan, lurralde desindustrializatueta edo gelditzen den azkenengo enpresa kooperatiba da (B1, B3, C2).

Hala ere, ikuspegi batzuetatik garapen integrala, enpresen gizarte erantzukizunarekin nahasten da. Hau da, ESSko antolakundeak esparru ekonomikoa baino gehiago jorratzen dutela aitortzen da, baina esparru hauek nolabaiteko jarduera osagarriak bezala kontsideratzen dira. Hots, ez da arreta jartzen ESSak merkatutik kanpo izan ditzakeen inplikazio sozial, kultural, politiko etab.

“En el tema de lo integral, es decir aquello que sea más que lo económico, pues es el tema de la responsabilidad social empresarial. Es decir, las cooperativas son empresas, pero son más que empresas y, por lo tanto, tienen unas finalidades más allá de las aplicaciones empresariales y de la maximización de beneficios.” (C1)

Bestalde, garapen agentzia batzuetatik ohartarazten denez, garapen integralaz hitz egiteko beharrezkoak diren arlo batzuk garapen agentzien eskumenak gainditzen

dituzte. Eta beraz, gaur gaurkoz, ez dituzte esparru horiek lantzen (A1, A2). Adibidez, A1 elkarrikzetatuak dionez, Goierriin elikadurarekin lotutako ekimenak Goierriko landako agentziak aurrera eramaten ditu. Eta beraz, ESSari elikadura arloari erantzuna eman diezaiokeela aitortzen duten arren, garapen agentzia bezala beraien eskumenak gainditzen dituela adierazten du.

Azkenik, eredu autozentratuaren inguruan,

(...) Y el auto-centrado, (...) se trata de poner a las personas en el centro y dar respuesta a las necesidades de las personas. (...) Yo no lo he reflexionado sobre el desarrollo local como tal, pero sí que encaja con la Economía Social.” (C1)

Eta

(...) Y en el tema de las necesidades locales, pues si los socios son locales, la cooperativa lo que intenta es satisfacer las necesidades de los socios, entonces estará satisfaciendo necesidades locales.” (C1)

A3, B2 eta B3 elakrriketatuarentzako, planteatutako ezaugarriak erabat lerratuta daude ESSarekin. Izan ere, ESSaren balioak ez dira bakarrik ESSko antolakundeentzako balioak; balio sistemikoak dira. Hau da, sistema ekonomikoa izan behar duen balioak dira. Tokiko garapenetik hasita, eta gero eskalatzen joan behar direnak.

“Guk Ekonomia Sozial Eraldatzaitetik, tokiko ekonomia lehenengo mailan jartzen dugu, delako herritarren eguneroko beharretik hurbilen dagoen ekonomia. Hor egiten delako herritarrek beraien bizitzetarako behar dituzten tresna ekonomikoen lanketa” (B3).

Horregatik ere, eragileen arteko harremanetan arreta jartzen du. B3-rentzako, tokiko eragileen arteko harremanak interkooperazioan oinarritu beharko lirateke, epe luzera mutualismorantz jotzen dutenak. Eta horretarako, harremanak lantzeko eredu publiko-pribatua gainditu eta eredu pluralago baterantz joan beharko litzatekeela dio. Eragile publikoak, lurraldeko eragile ekonomikoak eta eragile sozial eta komunirarioak integratuko dituenak. Eta guzti horiek harremanduta egon behar dira tokiko garapenerako eredu integral baten inguruan.

Eta kasu konkretuetan arreta jarritz, Lea-Artibaiko Azaro Fundarioaren kasuan,

“Guk egiten duguna da, azken batean, eskualdean beharretatik oinarritutako garapen ereduak ipintzen dugu martxan. (...) Azken batean eskualdea oso ondo ezagutzen dugu, eskualdeko eragile ezberdinak daukazen beharrak oso ondo ezagutzen duguz, eta behar horietatik abiatuta, behetik edo, diseinatzen dugu garapen ekonomikorako estrategia. Eta gero, estrategia hori aurrera eramateko behar dugu lankidetzak eskualdean, eskualdetik kanpo,

Europako laguntzak Bizkaiko Foru Aldundiak, kanpoko laguntza... guk diseinatu dugun beharretara moldatutako erronka horrerri aurre egiteko. (...) da barruko beharrak betetzeko plan estrategikoa, eta gero plan estrategikoa aurrera eramateko, ba igual bai behar duguz eskualdez kanpoko lankidetzak edo baliabideak edo proiektuak ezta? Hori da gurea. (...) Orduan Ekonomia Soziala? Ba klabe, ze honen oinarrian dagoena da denekin berba egitea, elkarlana eta konpromisoa” (A2).

Teorikoki identifikatu ditugun tokiko garapenaren mugei buruz galdetzerakoan, oro har, bi ideia nagusi jorratu izan dira. Batetik, garapena muga horien barnean emateko ESSak zeregin garrantzitsua duela argudiatzen duten elkarrizketatuak daude (A5, B2, B3, B4, C2, C3). Izan ere, ESSa errentagarritasunetik haratago doa eta beste behar batzuei erantzuna ematen dienez, tokiko garapenari aipatutako mugak planteatzerakoan (ekologiko, soziala, politikoa eta ekonomikoa), muga horien barnean garatzeko orduan ekimen kapitalistak baino afinidade gehiago duela adierazten dute elkarrizketatu gehienek. Hauen artean, dena den, nabarmentzen dira garapena muga horien barnean emateko orduan ESSaren papera laguntzaile izatea dela argudiatzen dutenak. Hots, ESSarekin bakarrik ez dela nahikoa argudiatzen dutenak (A3, A4, A6, B4, C3). Eta bestetik, mugak baino, merkatuko aukerak ikusten dituzten elkarrizketatuak daude (batez ere muga ekologikoari eta sozialari dagokienez) (A2, C1).

Lehenengo ikuspegiari dagokionez,

“Yo creo que, por razones diversas, algunas estructurales otras motivacionales, las empresas de Economía Social y Solidaria se adaptan o se adaptarían mucho más a la necesidad de respetar estos límites” (C3).

Eta beraz, muga hauen barnean garatzeko aukera handiagoa eskaintzen du, norabide horietan aportazio ezberdinak egin ditzakeelako. Hala ere, gaur gaurkoz, dio adituak, ESSak bakarrik ezin die muga hauek dakarren erronkei erantzuna eman, lurraldeko beste eragile batzuk ere beharrezkoak dira.

“Somos necesarios, pero no somos suficientes (...) No tenemos suficiente fuerza, ni la podemos tener en un plazo corto de tiempo para generar suficiente empleo para revertir el desastre ecológico si no se cambian las reglas del juego. Y esas reglas del juego las tenemos que cambiar entre todas y todos, ¿no? Y eso supone tener un hueco en el poder político existente, y en el poder económico. Y eso requiere una fuerza que no tiene la Economía Solidaria ni tampoco tienen todos los movimientos sociales juntos, ¿no?” (C3).

Eta bigarren ikuspegiari dagokionez,

“Aukerak ikusten ditugu bebai eh? Aukerak bilatzen ditugu. Guk behatoki lan oso fuertea egiten dugu aukera berriak ikusteko gure eskualdearentzat. Adibidez, esan duzuna muga ekologikoarena, ez? Guk badugu begi bat jarrita ekonomia zirkularrean (...) Ekonomia zirkularra eskualdera ekartzen, ekonomia zirkularra zelan aplikatu daitekeen garapen ekonomikoan, ekonomia zirkularra enpresetan aplikatzen... Orduan mugak dirazen horretan ze aukerak ahal dirazen egon bilatzen dugu, ezta?”(A2)

Eta

“En cuanto a las nuevas necesidades sociales, en nuestra sociedad vasca van a ser aquellas derivadas de la demografía, la vejez etc. En ese punto el cooperativismo en este momento está más asentado. Es decir, la prestación de actividades de cuidados de personas realizadas por personas, por sociedades personalistas. Ahí hay ejemplos claros y seguramente el futuro ira también por ese tipo de empresas en las que ya están, como digo, bien posicionadas las cooperativas y a futuro todavía pueden estar mejor posicionadas por que integran no solamente el cuidado de la persona, que es el objeto de la empresa, sino que lo hacen con criterios digamos personalistas. (C1)

Ildo honetan ere, Ekonomia Solidarioaren ikuspuntik, ESSan oinarritutako tokiko garapenerako eredu batek muga hauen barnean garatzea errazteaz gain (eta aurretik kapitalismoak sortutako gaitz ezberdinak sendatzeaz gain), muga hauek jarduera ekonomikoa sortzeko aukerak bezala ikusten dira; ekonomia solidarioak urteetan zehar jorratu dituzten elementuetan arretan jartzen dutelako. Eta beraz, urteetan zehar, ekonomia solidarioko antolakundeek muga hauen barnean jardun izan dutelako. Adibidez, agroekologiaren bitartez, energia berriztagarrien eta komunitate energetikoen sustapenaren bitartez, hondakinak birziklatzera dedikatzen diren antolakundeen bitartez, zaintza kooperatiben bitartez etab. enplegu duina sortuz, ekonomia demokratizatuz eta erabilgarritasun soziala duten ondasun eta zerbitzuak sortuz (B2).

Hala ere, muga hauek batera kontutan hartzearen garrantzia eratoritzen da euren diskurtsotik. Izan ere, adibidez, muga ekologikoa bakartuta hartuta, kapitalismo berdearen markoan erori gaitezkeela argudiatzen dute, eta beraz, disparekotasun sozial eta ekonomikoak erreproduzitu. Edo soilik disparekotasun ekonomikoetan arreta jarritz, krisi ekosoziala erantzun gabe gelditu daitekeela.

Mugak banaka aztertuz, muga ekologikoari dagokionez, lurralde batetatik abiatuta, mundu mailan klima-aldaketa gelditzea lortuko ez den arren, ESSaren ekarpenaren bitartez lurralde bakoitzaren alea jartzea erraztuko lukeela argudiatzen da (A3). Nahiz eta beste ikuspegi batzuetatik, ESSaren barne aniztasunari erreparatzen

zaion, non adierazpen batzuek ekarpen handiagoa egin dezaketen beste batzuek baino. Hala ere, azken adierazpen hauek erronka gisa identifikatu izana, eta beraz, ardura piztu izana balioan jartzen da, nahiz eta gaur gaurkoz aurrera pauso handirik eman ez duten (Eztabaida honetan Goiener energia berriztagarrien kooperatiba jartzen da adibide bezala alde batetik, eta bestetik, Mondgraoneko kooperatibak) (A6).

Muga sozialari erantzuna emateko, tokiko esparruak eskaintzen duen hurbiltasuna beharrezkoa dela argudiatzen da. Kasu honetan, zaintzak duen (eta izango duen) garrantziari buruz hitz egiten dute elkarrizketatu ezberdinek (A3, C1). Kasu honetan, ESSak tresnak eskaini ditzakeela argudiatzen da, nahiz eta ESSaren ekarpenez gain beharrezkoa izango den zaintzaren krisia eztabaida politikoaren erdigunera eramatea eta maila ezberdinetako agintaritzak inplikatzeari (A3).

Muga politikoari dagokionez, garapen eredu demokratikoagoak sortzeko bidea, C2 adituak 2015. urtetik aplikatzen joan diren ESSa sustatzeko bigarren belaunaldiko politikekin lotzen du. Adituarentzat, aldaketarik esanguratsuenetarikoa ESSa sustatzeko politiken eredu berri hori izan da (teorikoki ere jaso duguna), non, oro har, politika publikoaren diseinuan eta aplikazioan ESSari espazio handiagoa eman zaion. Hau da, ESSa sustatzeko planak dagoeneko ez da goitik beherako ikuspegi batetik egiten eta norabide bakarrean (gobernuetatik abiatzen dena, datu hauek ditugu, hau lortu nahi dugu, hau egiten dugu inor kontsultatu gabe) baizik eta plan horien sorkuntza prozesuan ESSko eraileak partaide egiten dira metodologia parte-hartzaileen bitartez. Eta beraz, eragile ezberdinen ideiak, aportazioak, beharrak etab. kontuan hartzen dira plan horiek sustatzeko (C2).

Beste elkarrizketatu batzuk, ESSak parte-hartzea sustatu dezakeela argudiatzen dute. Beraz, ESSa politika publikoetan inplikatzuz, bai diseinuan eta baita ere aplikazioan, lurraldean dauden interesak barneratuagoak egotea lortzen da eragile, iritzi, ideia, behar... gehiago kontuan hartu direlako. Hortaz, politika publikoaren aplikazioan lortzen den eraginkortasuna handiagoa izango dela adierazten da. Eta bestetik, nahiz eta maila gorenetan hartzen diren politikan (zerga- edo moneta-politika eta lan-harremanak adibidez) eragiteko gaitasunik ez izan, ESSak beste alternatiba lurralderatu batzuk eskaini ditzake, hala nola, denbora bankuak, moneta sozialak, truke sareak etab. (A3, A6)

Ekonomia Solidarioarentzako,

“Democrático... (...) forma parte de la forma en como construimos nuestras organizaciones, si construimos así nuestras organizaciones es porque creemos que la sociedad debería estar construida de esa manera” (B2)

Eta Lea-Artibaiko esperientzian arreta jarritz, non ESSa tokiko garapenerako eragile zentrala den,

“Demokratikoa (...) ba hor be gauz aukerak bilatzen, momentu honetan gaude prozesu batean eskualdean, eragile asko gauz garapen ekonomikoaren inguruan lanean, ez? Alde batetik Azaro Fundazioa industria arloan, garapen agentzia komertzio arloan eta gero ADR (Agencia de Desarrollo Rural) lehenengo sektorean (...). Bueno, bagauz prozesu baten orain, hiru erakunde horiek eta eskualdeko eragile publiko eta pribatuak aurkitzeko zeresana sortuko den erakunde berri horretan (Lea Artibako plan estrategiko berriari buruz ari da elkarrizketatuak). Eta eskualdeko bai udalak, bai mankomunazgoak, ikastetxeak edo enpresak parte izatea garapen ekonomikorako sortuko den erakunde berri horretan. Orduan ahal den eta demokratikoena izatea (...) denon iritziekin definituko da plan estrategiko berria. Orduan muga horiei gauz aukera berriak bilatzen, ezta?” (A2).

Azkenik, muga ekonomikoari dagokionez,

“¿Quién aporta mayores elementos de igualdad? Pues las empresas precisamente de Economía Social o las cooperativas, que insisto, cuyo 30% de los beneficios no son de apropiación individual, y como sabes muy bien, en las grandes cooperativas históricamente el tema de la igualdad como tal es difícil de llevarlo a cabo, pero si hay una proporcionalidad en la equidad entre el que más cobra y el que menos cobra en las sociedades cooperativas. Es decir, el tema de lograr la igualdad a través de la justa distribución de beneficios lo tienen las cooperativas por ley.” (C1)

Eta

“¿Dónde está la comarca donde menos paro hay, donde menos desigualdad existe entre diferencias de salarios o de rentas en la pirámide retributiva o fiscal? Pues precisamente en el alto deba en Gipuzkoa, Mondragon, Goierri... zonas muy cooperativizadas donde tenemos unos niveles de renta muy superiores a los de otras zonas no ya de Gipuzkoa, sino de Euskadi donde el cooperativismo es muy bajo.” (B1)

Hala ere, tokiko garapenaren gaur egungo egoerari begiratuta, B3 elkarrizketatuak dio muga horiek praktika orokorretik oso urrun daudela. Izan ere, elkarrizketatuak dionez, garapenaren ikuspegi hau, ESSaz gain, tokiko garapen agentzietatik ere partekatu ahal daiteke neurri batean, baina gero, aurrera eramaten diren praktika konkretuetara jotzen bada, ez direla muga hauek errespetatzen direnik ikusten. Adibide bezala, eremu industrializatuetan, enpresa traktore handiei (CAF-en eredua

jartzen du Goierrin) laguntzen zaie tokiko erakundeetatik, nahiz eta zuzenean lau muga horien kontra egiten duen enpresa bat izan daitekeen.

“Enpresa traktoreen eredia arrakala soziala handitzen du. Ez da demokratikoa (...) ari zarelako laguntzen eragile bakar bat (...) beste guztien iritzia jaso gabe.” (B3)

Horregatik, elkarrizketatuak dionez, lortu beharko litzateke muga hauen barnean garatzen diren eskualdeak nolabait sistematizatzea, esperientziak partekatzeko. Zeren gaur egun oso esperientzia puntualak daude, baina ez da orokorra.

Hala ere, elkarrizketatu batzuk garapenak dituen muga hauei, edo etorkizunak planteatzen dizkigun erronkei ezin zaiela ESStik bakarrik erantzuna eman argudiatzen dute. Eta etorkizunean, joera izango dela tokiko eragile ezberdinen artean lankidetzaz sustatzea Debagoiena 2030n egin den moduan.

“Erronka demografikoa, erronka ambiental-energetikoa... hauei ezin izango diegu erantzun sektore batetik edo lubaki batetik, hauei erantzun beharko diegu ados jarrita gizarteko edo aipatu ditugun lurraldeko eragile estrategiko horiek ados jarrita eta frente desberdinetatik erantzungo diegu erronka hauei. Gaur egun ditugun erronkak ez dira sektore batetik erantzuteko modukoak. (...) kooperatibak tresnak dira lan duina sortzeko edo aberastasuna sortzeko... baina kooperatibak ez dira helburua” (A6)

Hau da,

“Hor mezua izan daiteke: Ekonomia Sozialetik bai, baina ez Ekonomia Sozialetik bakarrik” (A6).

6.3.4.3 Lurralde burujabeak eta eskala kontua

Lurralde burujabeei buruz edo lurraldeetan burujabetza sektorialak berreskuratzeko garrantziari buruz elkarrizketatu batzuk hitz egiten dute (A3, B2, B3, C3).

“Egin behar dela apustu bat identifikatzeko zeintzuk diren sektoreak territorio edo gizarte jakin bateko pertsonen beharrak asetzeko zeintzuk diren sektore klabeak... ez dakit aipatu daitezke argindarra, telekomunikazioa, ura, energiaren sorrera bera, elikadura...ez? Identifikatu sektore konkretu batzuk eta territorioaren burujabetza lortzera bideratu politikak. Eta horretarako uste dut badaudela tresnak, ez? Ekonomia Sozialak eskaintzan dituen tresnak, ez? nolabaiteko relokalizazio bat emateko sektore klabe hauena, daudenak guztiz globalizatuta eta beharrezkoak direnak, nolabait esateko, pertsonen biziraupena bermatzeko. Nik uste dut hor egon daitekeela erronka nagusi bat. Gero ondasun eta zerbitzuen ekoizpena begira zaila dela territorio batek produzitzea behar duen guztia gaur egungo panorama globalizatu honetan,

baina bai egin beharko zen nolabaiteko planifikazio bat nahitazko produktuak behintzat edo aliantzak josteko beste lurraldeekin” (A3)

Eta

“La Economía Social y Solidaria promueve, apuesta, apoya, se construye sobre la soberanía alimentaria, la soberanía energética... (...) Economía Social y Solidaria es reforzar la soberanía de las comunidades, de los territorios, de lo cercano... es crear economía en el territorio y que las capacidades sean mayores en todos los ámbitos, sean financieros, sean sociales, sean económicos, sean tecnológicos etc. etc.” (B2)

C3 adituak ESSa burujabetzak lortzeko bidea izan daitekeela dio, baina aldi berean, beste bide batzuk ere ezin direla baztertu adierazten du.

“Por desgracia tenemos prisa y es un camino demasiado lento, ¿no? Me parece más fácil si tuviéramos el poder político para realizarlo. Mientras no lo tengamos tenemos que primar y facilitar el trabajo a muchos Goiener y a muchos Som Energía pero si lo tuviéramos, sería mejor, a mi modo de ver, crear empresas públicas a imagen y semejanza de Goiener o de Som Energía. ¿Por qué? Porque nos permitiría ser autosuficientes energéticamente de un modo más rápido y más claro (...) No podemos quebrar el oligopolio eléctrico a base de muchos Goiener por mucho que queramos o muchos Som Energia (...). No nos podemos conformar con ser el 1% y decir: bueno con el tiempo tal vez seremos el 20%... ¿Y qué pasa con el 80% restante? No nos podemos permitir tener Endesa 100 años más porque no tenemos ese tiempo” (C3).

Dena dela, burujabetzen ikuspegia lantzeko eskala kontua garrantzi handia hartzen duela azpimarratzen da. Izan ere, eskala lokalena ez da beti eraginkorrena burujabetzak sortzeko. Adibidez, finantza burujabetza lortzeko maila altuagoa beharrezkoa da, ezin baita egon banku bat eskualde bakoitzean. Eta beraz, alternatiben dimentsionamendua eta hazkunde prozesuak nola kudeatzen diren kontuan izan beharko da.

“En el tema de soberanías podemos hablar del territorio, pero también podemos hablar de relaciones supra territoriales, ¿pero en qué tipo de condiciones? Por ejemplo, si queremos generar soberanía financiera, queremos generar soberanía tecnológica y tal, normalmente necesitamos espacios territoriales más amplios que una pequeña unidad. Pero el problema no es que sean espacios territoriales más amplios, sino cómo se construye ese espacio más amplio. Es decir, cómo se hace el proceso de crecimiento, cómo se toman las decisiones, cómo se estructura ¿no?” (B2).

Alternatibak eskalatzeko erronka honi aurre egiteko, elkarrizketatu ezberdinek saretzea eta interkooperazioaren alde egiten dute. B2 elkarrizketatuek bi adibide jartzen

dute zentzu honetan. Alde batetik, Goienerrek, zeinek energia burujabetzan sakontzen duen, ez du beste lurralde batzuetara hedatzea bilatzen, baizik eta beste lurralde horietan sor daitezkeen antzeko proiektuei laguntza eta aholkularitza eskaintzen dizkie, sare bat sortuz, euren egitasmo propioak aurrera eramateko. Eta bestetik, Fiare banku etikoa zeinek estatu mailako asanblada orokorraz gain, parte-hartzerako beste espazio lurralderatuak barneratu dituen bere egituran (B2).

Burujabetzen ikuspegiak ez du tokiko ekonomia autarkikoak sortzea bilatzen, baizik eta gaur egun lehiakortasunean oinarrituta dauden lurraldeen arteko harremanak lankidetzan oinarritzea; lurraldeen eta antolakundeen interkooperazioaren bitartez. Hau da, ESSak eskaintzen duena da, lurraldea komunitate ekonomiko gisa balioan jartzea (B2). Eta beraz, eskala saltoak ematea ahalbidetu dezakeen lankidetzari hori sustatzeko, udalen edo eskualdeen sare baten sorkuntzari buruz galdetu izan zaie elkarrizketatuei (Adibide gisa Kataluniako Xarxa de Municipis per l'Economia Social i Solidària (XMESS) jarri da).

Orokorrean elkarrizketatu gehienek interesgarria ikusten dute horrelako sare bat (A1, A2, A3, A5, A6, B2, B3, B5, C3).

“Todo lo que sea colaborar entre municipios, mancomunar los esfuerzos municipales, no solamente para prestaciones económicas ordinarias, sino para la difusión de la Economía Social entendemos que es absolutamente lógico y necesario. Otra cosa es que los municipios estén en ese momento digamos histórico de desarrollo para poder hacerlo. (...) Aquí no conocemos que haya experiencias en ese sentido, pero sí que tenemos previsto desarrollar el plan interinstitucional de Economía Social. Entonces entre una de las líneas posibles, pues está crear una mesa de encuentro con la administración local o con los representantes de la administración local para colaborar en esa difusión de la Economía Social en lo local”. (C1)

Eta

“Luego hay que aterrizar cada uno en su municipio o comarca como se concreta eso, ¿no? Y donde pueden unos desarrollar más y otros menos... Depende mucho del equipo político, de la red social que haya y la forma en la que eso se pueda desarrollar en cada municipio, ¿no? Pero cualquier red, cualquier caja de herramientas es bienvenida... Pero sí que es importante que en cada municipio pueda verse como pueda desarrollarse eso.” (A5)

Izan ere, batez ere udal txikietako teknikarientzako lagungarria izan daiteke sarean lan egitea, zalantzak, arazoak, informazioa, baliabideak etab. elkarbanatu ditzaketelako (A2, C3). Gainera, maila politikoan, geroz eta udal gehiago erakartzeko

tresna baliagarria izan daiteke. Ildo honetan, ESSaren inguruko adostasun politikoak lortzeko tresna garrantzitsua izan daitekeela adierazten da (A3, A6, B3).

“Nik uste dut garrantzitsua dela batez ere, badakizu zergatik? Lehen aipatu dudan limitazio politiko horri aurre egiteko. Gertatzen dena tokiko garapenean askotan da eskualde mailatik egiten dela baina eskualde batean kolore politiko asko egon ahal direla gure kasu moduan... Eta askotan gertatzen da zaila izaten dela eskualde mailako konpromiso politiko irmo bat hartzea linea horretan. Eta adibidez, uste dut Xarxa de Municipis d’ Economia Social i Solidaria moduko sareek posibilitatzen dutela gehiago alineazio hori maila munizipaletik, ez? (...) Bai ekarpena egin ahal duela eskualde mailako posizionamendu politiko horiek Ekonomia Sozialarekin errazteko, eta uste dut udaleka lan egitea behai, edo udalek euren artean harremanduta egotea behai inportantea dela, ez? Porque ez dut uste Garapen bezalako elkarte batek kapilarizatzen duenik udaletara arte, udaletako politikariengana arte, gehiago uste dut gelditzen dela maila teknikoago batean. Eta Ekonomia Soziala sustatzeko konpromisoa hartzen duen udalen sare batek lagundu ahalko duela dezente konpromiso politikoei begira eta pedagogia eta sentsibilizazioa egiteko lan horri begira, kapilarizazioari begira... eta uste dut eskualde mailan lan egiteak limitante horiek dauzkala, ez dela iristen udaletako maila politikora eta teknikora askotan, ez? Orduan uste dut bai, ekarpena egin ahal duela.” (A3)

Eta kanpora begira, ESSaren aldeko udalen sare batek (edo sare sektorialagoak bidezko merkataritzaren aldeko udalen sarea edo kontsumo ekologikoaren aldeko udalen sareak bezala) ikusgarritasuna ematen dio (B2).

Hala ere, C3 adituak Katalunian duten faktore erabakigarri bat azpimarratzen du: udal askotako teknikariak autonomia izan dute eta sentsibilizatuak daude ESSarekiko; benetan sinesten dutelako ESSan alternatiba moduan.

Azkenik, badaude elkarrizketatu batzuk interesgarria ikusten ez dutenak, edo saretzea ondo ikusten duten arren, sare eta eragile gehiegi daudela adierazten dutenak eta kasu batzuetan eginkizunak errepikatzen direla eta balibideak modu efizienteagoan kudeatu behar direla uste dutenak (B4).

6.3.4.4 ESSan oinarritutako egunerokotasun baten sorkuntzaren inguruko garrantziari buruzko hausnarketak

Azken gai honen inguruan adituei galdetu zaie bakarrik, hala ere, beste elkarrizketatu batzuen elkarrizketetan zehar gaia ere atera da. Zehazki, lurraldeetan ESSa nola zabaldu daitekeen galdetu izan zaie ESSan oinarritutako egunerokotasun bat sortzeko; baina aldi berean behetik gorako ikuspegia izateko, hots, inposatua ez izateko. Izan ere, galdera honen atzetik, ESSa tokiko instituzio sozialetan nola txertatu daitekeen

aztertu nahi zen, eta beraz, horrelako aldaketa instituzionala emateko, behetik eman behar dela uste dugu, inposatutako neurriek jendartean errefusa sortzen dutelako, eta horregatik, kontrako emaitza izan dezaketelako.

Ildo honetan, adituek hainbat pista ematen dituzte. Alde batetik, ESSak duen eta bestelako ekonomia eraldatzaileek ez duten elementu batean arreta jartzen da: ESSa esperientzia konkretuak direla eta aldarrikatzen dituen balioak praktikan ikustea ahalbidetzen duela (C3). Beraz, ESSko antolakundeak, nolabait, adibidearen bitartez predikatu dezakete euren onurak jendartean zabaltzeko (A5, C1, C3).

Bestetik, geroz eta kooperatibista gehiago egonik lurralde batean, kooperatiben edo ESSaren balioak gehiago zabalduko direla dioen aditua ere badago. Horretarako, garrantzi handia hartzen duen ESSa gazteei hurbiltzea (C1)

“Se ha dicho históricamente que las cooperativas no solo son empresas, sino que son escuelas de democracia, de valores etc. Es decir, cuando los socios cooperativistas actúan en su relación económica, en el trabajo que tienen que hacer, sujetos a unos valores, esos mismos valores luego son transportados a las unidades en los que ellos participan fuera cuando ya no trabajan en la cooperativa. Por ejemplo, en su comunidad, en su comunidad de propietarios, en su municipio, en las asociaciones de ese municipio etc. Quiero decir que a medida que haya más tejido empresarial (...) que comparten esos valores en un territorio, esos valores se van a expandir a las instituciones de ese territorio. (...) ¿Esto cómo nace? Si es de abajo a arriba debería ser de las empresas asentadas en un territorio que de alguna forma expanden esos valores en ese territorio. Entonces lo suyo sería crear más empresas de ese tipo en ese territorio. Pero volvemos a lo que hemos dicho antes, se crean empresas de ese tipo con cooperativistas, se crean cooperativas con cooperativistas, luego también es necesario formar e informar a la juventud y en general a las personas de un territorio de las bondades del cooperativismo. (...) Por imposición legal no va a ser y tampoco es ese el modelo cooperativista” (C1)

Ildo honetan ere, ESSko ekimenen parte diren pertsonak ekimen horien parte aktiboa direla sentitzea garrantzitsua dela adierazten da. Modu honetan, haien lanaren baliagarritasun soziala antzemango dute eta jendartean parte-hartzeko modu bat bezala ikusiko dute euren lana.

“Ez bada sentitzen bere lana egitean oinarrituko da eta horretan geldituko da. Pertsona hori eskualdeko behar eta beste inbolukrazio gehiago ez du topatuko.” (A1)

Bilbao Ekintzatik ESSa sustatzeko burutzen dituzten ekimenak,

“Son medidas que se van hilando poco a poco para generar algo que en el futuro tenga peso, tenga fortaleza, se consolide... Somos partidarios de pequeños programas que luego se vayan convirtiendo en un gran programa consolidado” (A4)

Eta helburu bezala Gipuzkoako eskualde batzuen adibidea jartzen du non ESSa eskualde horien DNAn dagoen.

Beste elkarrizketatu batek aldiz, landa eremuan jartzen du ikuspuntua. Haren ustez, errazagoa baita, bertan ematen den bizimoduagatik, ESSa zabaltzea.

“En los pueblos hay unas sensibilidades, hay unas formas de trabajar, pues el auzolan, (...), una forma de entender la vida sin la prisa que tenemos en las ciudades, una serie de cosas que podrían ser recuperables y que digamos el cooperativismo lo podría asumir” (B1).

Bukatzeko, C3 adituak helburua merkatu sozial oso handia sortzea izan behar duela dio. Merkatu sozial bat non ESSko ehundaka antolakunde elkar konektatuta dauden interkooperazioaren bitartez, eta milaka kontsumitzaile eta aurreztaile arduratsuak biltzen diren lurralde batean eta beraien behar gehienak (edo guztiak) merkatu hauen bitartez ase dezaketen.

Hala ere, horretarako, ESSko antolakundeen aldeko politika ekonomikoko neurriak beharko lirateke, bai tokiko mailan, baina baita ere maila gorenetan, adibidez, kapitalaz hornituz sektore industrialetan jarduten duten ESSko antolakundeak, kontzientziario eta sentzibilizazio lanaren bitartez, etab. Izan ere, oso zaila da merkatu sozial horiek jarduera ekonomiko askoetan barneratzea merkatu kapitalistak dagoeneko beteta dituelako enpresez. Eta kapitalismoak dituen joko arauekin ESSak berak bakarrik ezingo du bizitzeko behar ditugun ondasun eta zerbitzu guztiak ekoiztu. Horregatik, joko arauak aldatzearen aldeko erabaki politikoak ezinbestekoak izango direla dio.

Hala ere, tokiko mailan ESSa erreferente izatearen garrantzia azpimarratzen du C3-k. Izan ere, aipatu dugunez, ESSak balio pedagogiko handia dauka. Hala ere, ulertu behar dugu testuinguru kapitalistan elkarbizitzen dutela eta eguneroko borroka ekonomiko eta ideologiko batean murgilduta daudela kapitalismoarekin balioengatik eta praktikengatik; eta beraz, ESSak egunerokotasuna aldatu ordez, egunerokotasun horrek ESSa eraldatzeko arriskua ekar dezake.

“Serán esas cooperativas, esas asociaciones, esas fundaciones consolidadas y transformadoras en nuestros territorios las que poco a poco irán con su ejemplo, con su insistencia, con su presión transformando la institución ¿o se irán acomodando poco a poco al medio dominante? Porque es necesario a veces para sobrevivir y por lo tanto al cabo de 20

años serán una pálida sombra de lo que fueron, ¿no? Bueno que a mi modo de ver es lo que ha pasado con la mayoría, no con todas, pero sí con la mayoría de las cooperativas del valle del Deba de Mondragón, ¿no? ¿Quién se ha adaptado a quién? (...) Por ciertas cosas se nota que es un valle cooperativo, pero por otras no tanto. Y por lo tanto aquí también tenemos que ser precavidos e imaginarnos que esa cotidianidad puede a la larga redundar en contra (...) de esos proyectos, que, por su característica de instituyentes, una vez se consolidan, si no consiguen avanzar retroceden. Porque el medio es tan fuerte que te acaba acomodando, te acaba transformado, te acaba aburguesando, ¿no? Eso puede ocurrir.” (C3)

Eta arazo horiek ekiditeko ESSak duen tresna garrantzitsuena saretzea da. Bai ESSko antolakundearen artean eta baita ere mugimendu sozial eraldatzaileekin. Izan ere, azken hauek atentzioa deitu diezaiekete horrelako joerak ematen direnean.

6.3.5 Elkarrizketen inguruko irakurketa:

Elkarrizketen lanketatik ondorio eta irakurketa ezberdinak atera daitezke. Lehenengoa, eragileen aniztasuna da. Izan ere, lanketa egin baino lehen aurreratzen genuen bezala, eragile bakoitzarentzako elementu ezberdinak dira garrantzitsuenak eta gai berdinen inguruan iritzi oso ezberdinak aurkitu daitezke.

Eragileen arteko ezberdintasun nabariak hiru zentzutan ematen dira batez ere. Lehena, argi dago, ESSko eta tokiko garapenerako eragileen artean. Kasu honetan, nahiko argia izan da gai batzuen inguruan ESSak tokiko garapenari gehiago egiteko eskatu izana, eta aldi berean, garapen agentziek bere eskumenetatik edo gaitasunetatik ihes egiten duten elementuetan eragiteko ezintasuna adieraztea (borondate politikoaren faltagatik, baliabideen faltagatik, eskumenen faltagatik etab.). Hau da, nolabaiteko sokatira bat antzematen da non ESSak eskatzen duen eta garapen agentziek gehiago egin ezin dutela dioten.

Egoera honi, gainera, ESSko sare batzuen eta garapen agentzien arteko harreman eza edo oso txikia gehitu behar zaio. Izan ere, oro har, ESSaren familietako erreferentziazko antolakundeek Aldundi edo Eusko Jaurlaritza mailari begiratzen diote eta bertan garatuak dituzte harreman instituzional gehienak. Aldiz, maila lokaletako erakundeekin harremanak garatu izan dituztenean, banaka garatu behar izan dituzte garapen agentzia bakoitzaren errealitatea eta inplikazioa kontuan hartuta. Horrek dakarren kostu handiagorekin. Bestalde, garapen agentziek ESSaren inguruan duten formakuntza tekniko eta sentsibilizazio txikia errepikatzen da elkarrizketetan zehar. Eta beraz, horrek lurraldeetan sortu daitezkeen proiektu interesgarriak aurrera eramanez ezin izatea edo enpresen ohiko ereduen bitartez bideratzea eragin dezake.

Eragileen arteko bigarren ezberdintasun nagusia garapen agentzien artean ematen da. Batez ere, eskualde tertziarioetan eta industrialetan kokatuta daudenen artean. Orokorrean, garapen agentzia industrialek, lehiakortasunean eta berrikuntzan jartzen dute arreta gehiena eta eskualde tertziarioetako garapen agentziak aldiz, zerbitzuetan. Horrenbestez, ikusi dugun moduan, ESSak eskualde horietan izan dezakeen papera oso modu ezberdinean ulertzen da, nahiz eta bi esparruetan paper garrantzitsua izan dezakeela aitortzen duten.

Hirugarren ezberdintasun nagusia, ESSko sareen artean ematen da. Kasu honetan, batzuk nazioartratze prozesuetan eta ESSko antolakundeen lehiakortasunean arreta handia jartzen duten bitartean, beste batzuk tokiko beharren asetzearekin lerrokatzen dira. Azken hauek, garapen eredu autozentratu baten alde egiten dute eta ekonomiaren ikuspegi eraldatzaileago batetik abiatzen direlarik.

Elkarrizketen bitartez erantzun nahi zen galdera orokorrari erreparatuz, hots, ESSan oinarritutako tokiko garapenerako estrategia baten inguruko hausnarketak jasotzea eta zein puntura arte posiblea ote den horren aldeko pausoak ematea EAEn, hurrengo emaitzak azpimarratu daitezke.

Garapen agentziek ESSarekiko duten iritziaren inguruan, aipatutako garapen agentzien izaerak zehazten duen ikuspegi ezberdintasunaz gain, oro har, elkarrizketatutako garapen agentzia guztiek ezaugarri positiboak duen errealitatea bezala ikusten dute ESSa. Hala nola, errotzea, lanaren defentsa, aberastasunaren banaketa, arazo ezberdinei erantzuna emateko gai izatea, balioen zabalpena lurraldean etab. Hala ere, soilik garapen agentzia gutxi batzuk kontsideratzen dute ESSa eraldaketa sozialerako, eta beraz, bestelako tokiko garapen eredu baterako, tresna bezala. Izan ere, gehienek, gaur egun aurrera eramaten duten tokiko garapen ereduan txertatu daitekeen beste eragile bat gehiago bezala kontsideratzen dute. Aipatutako eragin positibo ezberdinak dituen, baina garapen eredu bera eraldatzeko duen potentzian arreta jarri gabe. Egoera hau nahiko garbi ikusten da etorkizunera planteatutako tokiko garapenaren lan ildoak aztertu direnean. Izan ere, garapen agentziek dagoeneko aurrera eramaten dituzten ekimenak aurrera eramaten jarraitzeko intentzioa daukate, eta horien artean, salbuespenak kenduta, ez da ESSa lehenesten.

Ildo honetatik doa hurrengo irakaspena. Izan ere, ESSaren estrategikotasuna modu ezberdinean ulertzen da garapen agentzia batetik bestera. Batzuentzako ESSa ez du eragile estrategikoa izan behar, eta beste batzuentzat soilik ESSaren pisu erlatiboa

adierazgarria denean izan beharko litzateke eragile estrategikoa. Aldi berean, ESSa eragile estrategikoa dela kontsideratzen dutenen artean, beste enpresa ereduaren aurrean lehentasuna eman behar ez zaiola edo ezin zaiola argudiatzen duten garapen agentziak daude. Zentzu berdinean doaz ESSko sare batzuk ere. Alabaina, ESSaren egoera ez da enpresa ohiko ereduena bezain indartsua, eta beraz, ESSa lehenesten ez bada, enpresa kapitalisten edo indibidualen ereduak gailentzen da.

Ildoa jarraituz, garapen agentziek egin beharko luketen lanketaren inguruko eztabaida heltzen zaigu. Orokorrean, egoera ideala ESSak garapen agentziak zeharkatzea izango litzatekeela argudiatzen dute elkarrizketatu gehienek. Alabaina, lehentasunik ematen ez bazaio, ikustezin bihurtzen da eta, esan bezala, ohiko enpresa ereduak izango dira lan esparru bakoitzean inposatzen direnak. Hauek baitute ikusgarritasun handiagoa jendartearen aurrean. Horregatik, elkarrizketatu batzuk ESSa lan ildo propioa izan beharko lukeela defendatzen dute. Erantzun hau interesgarria izan daiteke ESSari guztizko lehentasuna ematen ez dioten garapen agentzietarako. Hau da, baliabideak eta helburu konkretuak ezartzen dira, eta beste lan ildoekin pixkanaka harremanak garatuz, ESSa zeharkatu daiteke.

Dena dela, ESSa sustatzea edo ez, eta bere kasuan, lehentasuna ematea edo ez, erabaki politikoa da. Kasu batzuetan, udal taldeek soilik erabakitakoa eta beste kasu batzuetan plan estrategikoa adostu duten eragileen artean erabakitakoa. Alabaina, azken kasu honetan, plan estrategikoak diseinatzeko orduan tokiko eragileen botere harremanak kontuan izan behar dira. Izan ere, ESSa indar gutxi duen lurralde batean ezin izango du plan estrategikoa baldintzatu eta bertatik at geldituko da, ezpada estrategikoki lehentasuna ematea adosten bada.

Beraz, garapen agentziaren babesa ez dagoen lurraldeetan (eta baita ere garapen agentzia ESSarekin lerrotatzen den horietan), interesgarriak izan daitezke ESSaren ekimenez sortutako garapenerako eragileak. Elkarrizketetean zehar agertu diren formula ezberdinen bitartez: EJKo Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren laguntzarekin sortu diren garapenerako eragileak, subjektu kooperatiboak, berrikuntza irekiko plataformak, *Ateneus Cooperatius*-ak, *Pôle territorial du coopération économique*-ak etab. Beti ere jakinik garapen agentzia publikora nolabait hurbildu beharko direla, laguntza teknikoa jasotzeko eta, batez ere, politika publikoak aurrera eramateko eskumena berak izango duelako.

7. KAPITULUA: ONDORIOAK

7.1 Hasierara bueltatuz, zirkulua itxiz:

Bukatzen ari den tesi honen bitartez, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko harremanak aztertu nahi izan dira ESSan oinarritutako tokiko garapen eredu baten inguruan aztertzeko. Izan ere, alde batetik, tokiko garapenaren zein ESSaren inguruko eztabaiden berpizkunde esanguratsua somatu daiteke azkenaldian, eta beraz, esan daiteke, gaurkotasanak eskatuta burutu dela tesi hau. Gainera, gaur egun bizi dugun testuinguruak, dimentsio anitzeko egiturazko krisian gorpuztuta, harreman sozioekonomikoak eraldatzea helburu duten alternatiben beharra mahai gaineratu du, ez badugu, autore ezberdinek dioten moduan, kolapsorako bidea jarraitu nahi. Eta beste aldetik, ikertzaile honek aurretiaz —eta tesiak iraun duen bitartean— burututako ikerketek gidatuta, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko bateragarritasun interesgarriak somatu ahal izan zituen. Hala ere, Euskal testunguruari begira, tokiko garapeneko eta ESSko eragileen arteko harremanak garatuegiak edo jarraikortasun handirik gabekoak zirela ere somatzen zen. Ideia hauetatik guztietatik tesi honi hasiera ematen dioten hipotesi eta ikerketa galdera nagusiak planteatu ziren.

Orain, tesi hau amaitzeaz dagoela, hasierara bueltatzea eskatzen digu, une batez bada ere, tesia gidatu duten helburu, hipotesi eta ikerketa galderari erantzuna eman zaien

egiaztatu ahal izateko. Berreskuratzen dugun hurrengo taula honetan aipatutako guztiak agertzen dira, hurrengo lerroetan azalduko ditugun ondorioak horiekin bat egiten dutela ikusi ahal izateko.

7.1. TAULA: Tesiaren hipotesia, ikerketa galderak eta helburuak

Hipotesia	
Ekonomia Sozial eta Solidarioak eta tokiko garapenak oinarri bateragarriak dituzte jendarte lokalaren beharrak asetzeko.	
Ikerketa galderak	Helburuak
ESSak birpentsatu dezake garapena?	H1: Tokiko garapenaren eta ESSaren marko teoriko sakona burutzea, ondoren elkarren arteko marko teoriko partekatua garatzeko. H2: ESSan oinarritutako tokiko garapeneko eredu eraldatzaile baten ezaugarriak, neurriak eta urratsak proposatzea.
Zer egiten ari dira EAEko eragileak?	H3: EAEko tokiko garapenerako eta ESSko eragileak identifikatu eta garapen agentzien eta ESSaren arteko harremana eta loturen inguruan EAEk duen egoera orokorra ezagutu. H4: Gaian aurreratuen dauden EAEko eragileen diskurtsoa aztertu ESSan oinarritutako tokiko garapen estrategiak aurrera eramateko aukerarik eta prestutasuna ote dagoen ezagutzeko.

Iturria: Egileak egina.

7.2 Hipotesiaren kontrastea:

Tesi honen atzean dagoen hipotesia ulertzea erraza da. Tokiko garapenaren helburua tokiko jendartearen bizi kalitatea hobetzea baldin bada, eta ESSarena bazkideen edo/eta komunitatearen beharrak asetzea bada, helburuen bat egitea agerikoa da. Baina horrez gain, tokiko garapenak helburu hori lortzeko lurraldearen egitura produktiboaren eraldaketa eta instituzio eta harreman sozialen garrantzia kontutan hartzen badu, eta ESSak egitura produktibo hori egituratzeko modu bat eskaintzen badu lurraldearekiko errotze handiagoa duena, orduan, tokiko garapenerako estrategiak ESSan oinarritzeko aukera logiko bat egon daiteke. Horrenbestez, *Ekonomia Sozial eta Solidarioak eta tokiko garapenak oinarri bateragarriak dituzte jendarte lokalaren beharrak asetzeko.*

Gure ikerlan honetan burututako lan bibliografiko zein enpirikoaren bitartez baieztatu dezakegu hasierako hipotesia betetzen dela, jarraian laburbildutako ideiek ondorio hau berresten dutelarik.

Tokiko garapenak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioak oinarri bateragarriak dituzte:

Tesian zehar ikusi dugunez, tokiko garapenak eta ESSak maila ezberdinetako oinarri bateragarriak dituzte. Maila teoriko batean, tokiko garapenaren zein ESSaren inguruko ekarpen ugari soziologia ekonomikoaren esparruan egiten dira. Hauek, noski, ez dira bi corpus teorikoak osatzen dituzten ekarpen bakarrak, baina bistan da garrantzi esanguratsua dutela haien garapenean. Izan ere, tokiko garapenaren marko teorikoa osatzeko, behintzat ikuspegi ekonomizista batetik urruntzea baldin bada helburua, diziplina arteko ikuspegi bat barneratzea beharrezkoa izan da, non geografia ekonomikotik, ekonomia erregionaletik, eskala-ekonomia politikotik, gobernantzaren inguruko ikasketa politikoetatik etab. ekarpenak jaso diren. Jakina, soziologia ekonomikoaren esparruan barneratu genitzakeen ekonomia instituzionaletik edo erregulazioaren teoriatik jasotako influentziak ere argiak izan dira marko teorikoa osatzeko; lurralde instituzioak, kapital soziala, botere harremanak etab. bezalako ezaugarri sozial eta kolektiboak garapena azaltzeko faktore garrantzitsuak bezala kontsideratu baititugu.

Era berean, ESSaren inguruko marko teorikoa osatzeko, bere garapen historikoari eta ESSko eragileek eurek egindako mugapen kontzeptualei begiratzeaz gain, azken hamarkadetan indartutako beste ikuspegi kritikoetatik datozen ekarpenekin osatu dugu. Ekonomia ekologikotik edo ekonomia feministatik datozen ekarpenek, natura, jendartea eta ekonomiaren arteko harremanak ikuspegi kritiko batetik aztertzea ahalbidetu digute. Aldi berean, soziologia ekonomikoaren esparruan influentzia handia izan duen Karl Polanyi-ren ekarpenak jaso ditugu. Autore honek, instituzionalismoaren esparruan guztiz kokatu gabe, ekonomiak jendarte egituretan txertatzeko duen joera, integrazio ekonomikoaren pluraltasuna edo berez arautzen den merkatuaren ezintasunaren inguruko ekarpenak egin zituen, gure marko teorikoa osatzeko garrantzia izan dutenak.

Esparru praktikora jauzita, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko oinarri partekatuak areagotzen dira. Helburu orokorretan aurkitu dezakegun bat egiteaz gain (bizi kalitatearen hobekuntza eta beharren asetzea), helburu horiek lortzeko aurrera eramaten diren estrategietan ere antzeman daitezke beste bat egiteak. Izan ere, tokiko

garapenaren ohiko ardurei erantzuna emateko (tokiko ekonomiaren dinamizazioa, enplegua, ekintzailtza, berrikuntza, enpresen sareak etab.), ESSak modu ezberdinetan egituratu daiteke (lan- edo kontsumo-elkartuko kooperatibak, finantza entitate edo heziketa zentro kooperatiboak, kontsumitzaileen elkarteak, laneratze enpresak, enplegu zentro bereziak etab.).

Ildo honetan ere, oinarri partekatua aurkitu dezakegu tokiko garapenerako estrategien eta ESSko antolakundeen sorkuntzari dagokionez. Biak behetik abiatutako ekimen kolektiboak dira, eta beraz, egunerokotasunetik eta ekimen egingarrietatik abiatzen dira. Hau da, zuzenean komunitatearen egunerokotasuna baldintzatzen duten elementuen gain eragiteko gaitasuna duten egitasmoak dira. Klase herrikoien bizitzak modu esanguratsuan hobetu dezaketenak.

Aldi berean, gaur egungo testuinguruari egokitutako erantzunak dira biak. Tokiko garapena globalizazioaren efektuei emandako erantzun lokala bezala ere definitu daiteke. Mendekotasuna sortzen duen nazioarteko kapital ezegonkorra jaso ordez, lurraldeek, euren baliabide eta indar endogenoak lehenesten dituzte euren garapena lortzeko. Eta ESSko antolakundeak beraien aldetik, gaur egungo testuinguru aldakorrari hobeto egokitu daitezke, kapitalaren arabera kudeatzeak sortzen duen zurruntasunari irtenbide bat ematen baitio langileei hitza eta ekimenen kontrola emanez. Gainera, ESSak behar berriei lotutako sektoreetan jarduten du nagusiki; zeintzuk, orokorrean, ez diren kapitalean hain intentsiboak. Eta azkenik, zerbitzu publikoen esternalizazioari lotuta, ESSak aukera berriak bilatzen ari ditu zerbitzu horiek eskaintzeko.

ESSak gainera, tokiko garapenaren ikuspegi komunitarioagoekin bat egiten du. Izan ere, merkatuko ekonomiaz gain, merkatutik at eta diruzko ekonomiatik at dauden ekimenak barneratzen ditu. Hala nola, auzolana, lan boluntarioa, denbora bankuak, truke sareak, moneta sozialak etab. Baina horrez gain, garapenaren ikuspegia esparru ekonomiko soiletik ateratzen du alderdi sozialei, politikoei, kulturei edo ingurumenari garrantzi handiagoa emanez. Eta beraz, guztiz bat egiten du esparru hauetan ematen den ekintza kolektiboaren bitartez komunitatea ahaldundu eta beharrak asetzea helburu duten garapen erduekin.

Aipatutako harreman hauek guztiez gain, tokiko garapenari arduratzen zaizkion —edo beharko zitzaizkion— aparteko beste onura batzuk ere eskaintzen dizkio ESSak. Ildo honetan, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko sinergiak aztertzerakoan sakondu

dugu. Laburbilduz, hurrengoak lirateke batzuk: Sortutako aberastasunaren banaketa bidezkoagoa eta hau lurraldean gelditzea, baliabide eta indar endogenoen aktibazioa, kohesio sozial eta giza segurtasun handiagoa, merkatu ikuspegitik errentagarriak ez diren baina bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren sektoreetan jardutea, jarduera ekonomikoaren errotzea, kalitatezko enplegu egonkorragoa, jarduera ekonomiko iraunkoragoaren garapena, sektore estrategikoen berreskurapena, tokiko kulturarekiko harreman handiagoa, lurraldearen defentsa, ekonomiaren demokratizazioa, parte-hartze sozialerako eskola izatea, eraldaketa sozioekonomikoa bultzatzea etab.

Tokiko jendartearen beharrak asetu eta harremanak eraldatzen ditu:

Esan dugunez, orokorrean, tokiko garapenak tokiko biztanleriaren bizi kalitatea hobetzea du azken helburu bezala. Hau da, jendarteak eskatzen dituen beharrei erantzutea. Hala ere, eredu batzuk ikuspegi neoliberal batetik heltzen diote eginkizun honi, eta *trickle-down effect* edo atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko bezalako neurriak aplikatzen dituzte. Hau da, jarduera ekonomikoa erakartzerako enpresentzako baldintza onuragarriak ezartzen dira (zergak murriztu, pizgarriak eman, azpiegiturak eraiki etab.), biztanleria osoaren gaineko eragin positiboa izango duelaren premisaren pean. Hala ere, egiaztatu denez, eredu hauek gehienetan disparekotasunak handitu besterik ez dituzte egiten, besteren artean, kapital metaketa ahalbidetu duelako klase herrikoien baldintzak hobetu ez diren bitartean. Tokiko garapenerako beste eredu batzuk, baliabide eta indar endogenoak aktibatzen saiatzen dira nazioartera begira esportazioak handitzeko eta lehiakorragoak izateko. Hauek, kanpora begira garatzen diren heinean, ez dira lurraldeak dituen beharren inguruan garatzen, hala ere, enplegua sortzeko orduan oso eraginkorrak izan daitezke. Azkenik, garapen autozentratua helburu duten ereduak aurkitu ditzakegu, zeintzuk tokiko beharrak asetzera bideratutako jarduera produktibo zein erreproduktiboak garatzea lehenesten duten. Eredu hauek nazioarteko lehiakortasunean arreta jartzen ez duten arren, kalitatezko lana eta bizitzak sostengatzeko behar diren jarduerak erdigunean jartzen dituzte eta lurralde bizigarriagoak sortzen saiatzen dira.

Praktikan hiru eredu hauek aldi berean eman daitezkeen arren, ESSak azkenengo bi eredu horietan dauka zeresan handiena. Bigarrenean, batez ere, kooperatiba edo lan-sozietate industrialen bitartez, eta hirugarrenean, batez ere, hurbiltasunezko zerbitzuen sektoreetan jarduten duten antolakundearen bitartez. Izan ere, ESSak lan, kontsumo, etxebizitza, finantza, kultura, ingurumen etab. beharrei erantzun diezaike.

ESSko antolakundeak, espresuki bazkideen edo/eta komunitatearen beharrak asetzeko sortuak izateaz gain, lan-harreman kapitalistak eraldatzen dituzte. Antolakundeen jabegoa, kontrola eta helburua kapitalak zehazten ez duen heinean, eta langileak edo bazkideak zehazten duten heinean, garapen ekonomikoaren oinarrizko unitatea (enpresak, antolakundeak) kapitalaren hertsaduratik askatzen dira. Hots, ESSan oinarritutako ehun produktibo batean langileak dira ekoizpen, kontsumo, finantza, etxebizitza etab. baliabideen jabeak. Eta beraz, garapena pertsonen inguruan eraikitzea ahalbidetzen du; eta pertsonak lurraldean dauden heinean, garapena ere lurraldera errotzen da.

Hau da, ESSak ez du bakarrik beharrak asetzeko enpresa eredu eraginkorragoa suposatzen, baizik eta hori egiten duen bitartean, harreman ekonomikoak eraldatzen ditu garapen berdinzaleagoa lortuz.

7.3 Ikerketa galderei erantzuten saiatuz:

Tesi honen hasieran planteatzen ziren ikerketa galderei erantzuteko, ezarri ditugun helburuak betetzea eskatzen zuen. Hau da, lehenengo ikerketa galderari erantzuteko, H1 eta H2-ri erantzun behar zitzaien, eta bigarrenari erantzuteko, H3 eta H4-ri. Jarraian, ikerketa galdera bakoitzari erantzuten diogu helburuak betetzerakoan antzemandako ondorio ezberdinen bitartez.

7.3.1 Lehenengo ikerketa galderari erantzuten: ESSak birpentsatu dezake tokiko garapena?

Lehenengo ikerketa galdera, osagai teorikoagoa dauka garapen ereduari erreferentzia egiten dion heinean. Hala ere, honek ez du esan nahi soilik marko teorikoaren bitartez erantzun diogunik, elkarrizketetatik ateratako ideia ezberdinak ere oso baliagarriak baitira galdera honi erantzuteko. Hona hemen ondorio nagusienak:

ESSak tokiko garapenari ikuspegi propio, endogeno integrala eta autozentratua erantsi diezaioke:

Tokiko garapenaren inguruko literaturan aurkitu ditzakegun ezaugarriak diren arren, izaera propioa (behetik gora abiatzen diren garapenerako egitasmoak bezala kontsideratuta), eta, gehienez ere, izaera endogenoa dira garapen handiena izan dutenak. Izan ere, garapenaren izaera integralak arlo ekonomikoez gain, garapenean eragin dezaketen beste arlo batzuk barneratzea eskatzen du, eta, ikusi dugun moduan, tokiko

garapenaren ohiko ikuspegiak, arlo ekonomikoan jartzen dute arreta gehiena. Era berean, tokiko garapenerako eredu asko kanpora begira garatu dira, eta ez ikuspegi autozentratu batetik tokiko beharrianak asetzera. Hau da, atzerriko inbertsio zuzena erakartzera bideratu diren eredu neoliberalak edo, ikuspegi endogeno batetik abiatu arren, nazioarteko merkatuetan lehiatzera bideratu izan diren ereduak, albo batera utzi dituzte lurraldean dauden beharrianak. Nahiz eta aitortu behar den, batez ere azkenengo hauen artean, metaketa lokala areagotzeko eta jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko eraginkorrak izan direla.

Teorikoki ikusi dugunez, lau ezaugarri hauek tokiko garapen eredu eraldatzaile baten oinarriak izan daitezke. Izan ere, lehenik, jendarte bakoitzari bere etorkizunaren gaineko kontrol demokratikoa, eta beraz, euren bizitzetan eragiten duten elementuen gainean erabakitze gaitasuna ematen diote. Horrela, lurraldeko berezko ezaugarrietara egokitzen da eta inplikazio handiagoa eta epe luzeko ikuskera egonkorragoa lortu dezake garapen prozesua propioa bezala kontsideratzen delako. Bigarrenik, tokiko baliabideak ardatz hartuta eta lurraldeko indarrak aktibatuz garatzen den eredu delako. Eta beraz, auto-eraketarako eta jendartearen ahaldunderako eredu aproposa gorputzen du, kanpoko dependentziak murrizten diren bitartean. Hirugarrenik, garapenaren alderdi ekonomikoaz gain, bestelako alderdi sozialen, politikoen, kulturalen, ekologikoen eta abarren gainean eragiten duelako. Horrela, erantzun bakartuak eman ordez, erantzun integralak ematea ahalbidetzen du. Gainera, arlo ekonomikoaz ari garenean, merkatuko ikuspegiak gain, ez-merkatuko eta ez-diruzko jarduera ekonomikoak aintzat hartzen ditu, eta hauek ekonomia des-merkantilizatzeko baliagarriagoak izateaz gain, etxeko eta zaintza lan ez ordainduak bezalako lanak azaleratzen ditu garapenerako duten garrantzia aitortuz. Era berean, pluraltasun honek, ohiko enpresa eredu indibidualistatik haratago dauden ekimen kolektibo eta demokratikoak aintzat hartzen ditu afinitate handiagoko garapenerako eragile gisa. Eta azkenik, garapen prozesua tokiko beharrek inbentzioa ahalbidetzen du, hauek asetzera lehentasuna hartzen baitu. Ekoizpena eta erreproduzioa, langileen eta klase herrikoien eskaera sendo eta fidagarrien arabera zehazten da modu honetan; modu demokratikoan planifikatuta eta orekaz banatuta.

Hau da, kapitalak ez du zehazten garapenaren norabidea, tokiko jendarteak baizik. Horregatik, ezaugarri hauek dituen garapen eredu baterako, ESSan oinarritutako lurralde egitura kooperatibo-komunitarioa lagungarri izan daiteke. Izan ere, pertsonen inguruan eraikitako antolakundeak dira, eta ez beraz kapitalaren inguruan. Ikusi dugun

moduan, ESSko antolakundeen jabegoa, erabakiak eta helburua bazkideek zehazten dituzte eta ez kapitalak. Baina gainera, sakoneko elkarrizketen bitartez, ESSko antolakundeek tokiko garapenari ezaugarri hauek erantsi diezaioketela egiaztatu dugu. Besteren artean, jabegoa lurraldean dagoelako, izaera endogenoa dutelako, garapeneko beste alderdietan arretan jartzen dutelako eta egitasmo sozialentzako, politikoentzako, kulturalentzako edo komunitarioentzako aterki juridikoa eskaini dezaketelako eta bazkideen edo/eta komunitatearen beharrak asetzeko espresuki sortu direlako.

Muga ekologiko, sozial, politiko eta ekonomikoek ezartzen dituzten erronkei aurre egitea ahalbidetzen duen garapen ereduak sortzen lagundu dezake:

Aurreko ezaugarriak ez ezik, gaur egungo testuinguruak ezartzen dituen muga hauen barnean garatzeko potentzialtasun handiagoa dauka ESSan oinarritutako tokiko garapen eredu batek. Izan ere, abiatze egoera batean, afinitate handiagoa somatu daiteke ESSaren eta garapen iraunkorraren artean. Eta beraz, planetaren muga biofisikoen barnean eta sistema naturalaren erreproduktzio gaitasuna errespetatuz, pertsona guztien ongizatea —eta etorkizuneko belaunaldia—, bilatzen duten garapen ereduak sortzeko alde aurreko jarrera positiboagoa erakusten du. ESSko ekimenak lurraldeari txertatuta eta bertako jendearen bitartez sortzen baitira, eta inork ez du bizi nahi ekologikoki narriatuta dagoen eremu batean. Horregatik ere, ESStik egiten den lurraldearen defentsa handiagoa da.

Muga sozialari erantzuteko, ekonomia feministatik datozen ekarpenetan oinarritu gara. Kasu honetan ere ESSak afinitate handiagoa erakutsi dezake. Ez bakarrik diskurtsiboki ESSko hainbat sare eta esperientziak bertatik hurbil daudelako, baizik eta jarduera ekonomikoaren erdigunean pertsonak eta beren lana jartzen duen enpresa eredu baten aurrean gaudelako. Hots, kapital metaketa lortzeko bizitza antolatzen duen ereduaren aurrean, pertsona guztien bizitzen erreproduktzio hedatua erdigunean jartzen du ESSak. Gainera, ordaindutako jardunaldia murrizteko, baliagarritasun sozialik gabeko lanak txikiagotzeko eta pertsonen bizitzarako beharrezkoak diren lanen (produktibo zein erreproduktibo) banaketa bidezkoago baterako behar den antolaketa sozial berri bat sustatzeko aukera handiagoak ematen ditu ESSak.

Hala ere, hau ez litzateke zerbait automatikoa, izan ere, teorikoki zein elkarrizketetan jaso dugun moduan, ekoizpen baliabideen sozializazioak, aberastasunaren banaketa eta kalitate handiagoko enplegu egonkorra sortu duen arren,

ez dio beti krisi ekosozialari erantzun bat eskaini; ideologia produktibistari jarraika masa konsumorako jarduera oso fosilistak erreproduzitu baititu.

Politikoki, lurraldeak eskala anitzeko marko erregulatzailer batean kokatu behar dira, eta subsidiarotasun printzipiotik abiatuta, jendearen behar eta arazoetatik hurbilen dagoen agintaritzak behar eta arazo horiek estaltzeko eskumenak izan behar dituen arren, ezin ditugu analisitik alboratu goragoko eskaletan ematen diren harreman ekonomiko, politiko eta sozialek lurraldeetan dituzten eraginak; baita agintaritzaren maila altuagoek dituzten eskumenak ere. Horregatik, tokiko garapen eraldatzailea beste eskala batzuetara eskalatu beharko den ESSaren (beste ekonomia eraldatzaileekin batera) egitasmo eraldatzaile baten maila bat bezala ulertu behar dugu, tokiko edo eskualde eskaletan eragina duena; eta ez bera bakarrik arazo guztiei erantzuna emango dion proposamena bezala.

Era berean, muga politikoari eman diogun bigarren adierak, parte-hartzera eta izaera demokratikoari egiten die erreferentzia. Jendarte bakoitzak bere etorkizunaren jabe izateko, demokratikoki erabakitako garapenaren norabidea zehaztea eskatzen du, eta horretarako, botere harremanak eraldatzen dituen gobernantza zabal, anitz eta parte-hartzailea eraikitzea beharrezkoa da, lankidetzaren publiko-kooperatibo-komunitarioan oinarrituta dagoena. ESSak garapen eredu parte-hartzaileagoak sortzen lagundu dezake, besteak beste, barne funtzionamendu demokratikoa jorratzen duelako, herritartasun aktiboko eskola delako eta bestelako balioak eta harremantze mota ez kapitalistak erreproduzitzen dituelako.

Azkenik, muga ekonomikoari dagokionez, disparekotasun ekonomikoak erreproduzitzen dituzten ereduetatik aldendu eta bestelako eredu sozioekonomiko bat proposatzen du tokiko garapen eraldatzaileak. ESSak, besteren artean, ekoizpen-, kontsumo-, etxebizitza-, finantza-baliabideak sozializatzen ditu jabego kolektibodun antolakunde ez kapitalisten bitartez. Gainera, sozioekonomikoki ESSak aberastasunaren banaketa bidezkoagoa, jarduera ekonomikoen gineko burujabetza, lankidetzaren, saretzearen eta interkooperazioaren, balio kateen eraldaketa, burujabetza sektorialen berreskurapena etab. bezalako ezaugarriak eskaini diezaiotke. Horregatik ere, tokiko garapenaren dimentsio ekonomikoa birpentsatzen lagundu dezake ESSak.

Bizitza bizigarriak lurralde bizigarrietan:

Tokiko garapenerako eredu neoliberalak, eta neurri batean, nazioarteko merkatuei begira garatzen diren eredu endogenoak, ez dira gai lurraldeak dituen beharren inguruan garapena eraikitzeko. Ikusi dugunez, atzerriko inbertsio zuzena erakartzera bideratutako neurriek, erakarritako enpresa multinazional handiekiko menpekotasuna sortzeaz gain (enpresa lurraldean errotuta ez dagoelako, eta etorri den moduan, urte batzuk pasata, baldintza hobegoak eskaintzen dituen beste lurralde batera salto egin dezake, errentagarritasun maila jaitsi baldin bada), bestelako kanpo-eragin negatiboak ere sortzen dituzte. Hala nola, aipatutako disparekotasunak, zerga-ihesa, azpiegituretan egindako gehiegizko gastua, lan-harremanen desorekatzea etab. Gainera, enpresak erakartzerakoan edo tokiko egitura produktiboa nazioarteko merkatuetara begira garatzerakoan, jendarteak izan ditzakeen beharrak alboratzen dira errentagarritasun handiagoa eskaintzen dituzten jardueren alde.

Horregatik, garapen eredu eraldatzaile baten ikuspegitik eredu hauek lurraldeei egiten dioten ekarpena salatzen da (nahiz eta garapen endogeneoaren teoriatik datozen hainbat ekarpen bere egin ditzakeen, beti ere ikuspegi propioa, integrala, plurala eta autozentratuekin uztartzen bada). Garapena errentagarritasun kapitalistaren arabera zehazten dutelako, eta ez komunitatearen benetako beharren inguruan. Eredu hauek erreproduzitzen dituzten botere-harreman asimetrikoen eraginez, lurralde gobernantza sistemetan hartzen diren erabaki estrategikoak ere helburu horren inguruan (kapital metaketa ahalbidetzen duten jardueren alde) zehazten dira, eta beraz, ez da herritarren kontrolpeko estrategia parte-hartzaile eta auto-eraturik sortzen. Lurraldean aurrera eramaten den jarduera produktiboa esportaziora bideratzen da, eta ez dira bizitzaren sostengua lortzera bideratutako jarduera produktibo zein erreproduktiboak aintzat hartzen.

Hau da, finean, eredu hauek ez dituzte lurralde bizigarriak sortzeko asmorik, baizik eta kapitalaren erreprodukziorako lurralde onuragarriak sortzea. Eta ondoren, horrek tokiko bizi kalitatean eragin positiborik badu, hartutako neurriak justifikatzeko erabiltzen da, nahiz eta aipatutako kanpo-eragin negatibo horiek lurraldean azaldu.

Aldiz, tokiko garapen eredu eraldatzaile baten helburu eta estrategiak kontrako norabidean garatzen dira guztiz. ESSan oinarritutako ekoizpen egitura kooperatibo-komunitarioak beharrianen asetzea jarduera ekonomikoaren erdigunean jartzen du. Baina gainera, lanaren emaitzak baliagarritasun soziala izango du; ekoizpen baliabideen

jabegoa langileek eurek izango dute; enpresak pertsonen inguruan eraikitzen direnez, langileentzako baldintza onuragarriagoak izateaz gain, lurraldean errotuagoak egongo dira; jarduera ekonomiko iraunkorragoak sortzen dira ikuspegi ekosozialetik; kontsumoko jarduerak kolektiboki antolatuko dira kontsumitzaileen elkarten edo kooperatiben bitartez, produktu eta zerbitzuen eskaintza eta eskariaren eraikuntza partekatua aurrera eramanez; etxebizitzaren arazoari modu komunitarioan erantzun diezaioke, erabilera balioari lehentasuna emanez merkatuko truke balioaren aurrean, erabilera lagapeneko etxebizitza kooperatiben bitartez; aurrezki kolektiboa eredu hedatzeko erabili daiteke, finantza etiko eta kooperatiboen bitartez ekonomia produktiboan inbertituz, jarduera espekulatzailleetan egin orde; bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren sektore estrategikoen gaineko burujabetza sektorialak (elikadura, energia, finantza, teknologia etab.) berreskuratu dezake, hauen gaineko kontrola herritarrei emanez; kultura kapitalista homogenizatzaileari lurraldean sustraitutako ekimenen bitartez erantzun etab.

Hau da, bizigarriak izango diren lurraldeak eraikitzea eskatzen du tokiko garapen eraldatzailearen proposamena, jarduera produktibo zein erreproduktiboak pertsona guztien bizitzak bizigarriagoak egitera bideratuz. Horretarako, jarduera ekonomikoak modu unibertsalean, auto eratuan, herritarren kontrolpean eta kudeaketa kolektiboaren bitartez antolatuz.

Beraz, ESSak birpentsatu dezake tokiko garapena?

Azaldutakoagatik, ESSak ohiko tokiko garapen eruedetarako eragile interesgarria bezala konfiguratzeaz gain, garapen eredu bera birpentsatzeko gaitasuna izan dezakeela baieztatu dezakegu.

Izan ere, ikusi dugun moduan, tokiko garapenaren ohiko helburuei erantzuteko gaitasun handia erakutsi dezake. Hala nola, enplegua eta jarduera ekonomikoa sortu, metaketa lokala ahalbidetu, sareak sortu eta enpresen arteko lankidetzak sustatu edo jarduera ekonomikoaren deslokalizaziorako arriskua murriztu. Gainera, bestelako kanpo-eragin positiboak sortzen ditu lurraldean. Adibidez, aberastasunaren banaketa bidezkoagoa, kohesio sozial handiagoa, ekoizpen baliabideen jabegoa lurraldean gelditzea, kultura parte-hartzaile baten zabalpena, ekonomiaren demokratizazioa etab.

Baina are gehiago, tokiko garapena ESSan oinarritzen bada, eta garapenaren ardatz bihurtzen badu, aipatutako izaera propio eta burujabea, endogenoa, integrala eta

plurala eta autozentratua duen tokiko garapenerako eredu ekologikoki, sozialki, politikoki eta ekonomikoki iraunkorragoa eraiki dezake. Gainera, ESSak harremantzeko moduak eraldatzen ditu, eta beraz, eraldaketa instituzionala eragin dezake lurraldeetan, lankidetzan, kooperazioan eta elkarrekikotasunean oinarritutako kapital soziala garatuz. Izan ere, ESSak egitasmo egingarriak gorpuzten ditu adibidearen bitartez predikatzen dutenak, eta beraz, lurraldearen egunerokotasuna eraldatzeko gaitasuna dutenak.

Eta batez ere, bestelako eredu sozioekonomiko bat proposatzen du lurraldeetarako. Lehiakortasun globalean oinarritutako lurraldeen arteko norgehiagoka sustatu ordez, lurraldeen arteko harreman harmonikoagoak eta bidezko merkataritza-harremanak sustatuz. Espekulazioa erreproduzitzen ez duen eta ekonomia errealean oinarritzen den eredu bat sustatuz. Planifikazio ekonomikoa herritarren beharretara egokituz, eta ez kapitalaren metaketarako baldintzen arabera. Eta klase disparekotasunak ezabatzen dituen eredu bat aurrera eramaten, non ekoizpen baliabideen sozializazioaz gain, lana, baliagarritasun soziala duten ondasun eta zerbitzuetara bideratzen den, mozkin asmoaren gainetik.

7.3.2 Bigarren ikerketa galderari erantzuten: Zer egiten ari dira EAEko eragileak?

Bigarren ikerketa galderari erantzun ahal izateko, lehenengo, EAEko egoera orokorra ezagutzea eta eragileen diskurtsoa aztertzea beharrezkoa izan da. Hau da, H3 eta H4 helburuei erantzutea, alegia. Helburu hauei, batez ere, ikerketa enpirikoaren bitartez erantzuten saiatu gara. Eta burututako analisiak hainbat ondorio utzi dizkigu ikerketa galderari erantzuna emateko baliagarriak direnak. Jarraian bildu ditugunak, hain zuzen ere:

Tokiko garapena eta ESSa; elkar ezagutzen ari diren bi mundu:

Ikerketa enpirikoarekin lotutako lehenengo ondorioa, 5. kapituluan egindako EAEko tokiko garapenerako eta ESSko eragileen argazki orokorretik hedatzen da. Alde batetik, bistan da EAEn tokiko garapena nahiko errealitate zabaldua dela. Garapen elkartean bilduta dauden garapen agentziek EAEko eskualde eta/edo udal ia guztietara zabaltzen dute haien eragin eremua. Bestalde, ESSko sareek, orokorrean, eskualde edo udal mailan iragazkortasun txikikoak izan arren —euren lan gehiena erkidego mailan eta kasu batzuetan lurralde historiko mailan burutzen dute batez ere—, ESSa osatzen duten familia ezberdinak ordezkatzen dituzte.

Beraz, lehenengo begirada batean, tokiko garapena zein ESSa ongi ordezkatuta daudela ondorioztatu daiteke. Lehenengo begirada batean diogu, inkesta eta elkarrizketetan, besteren artean, baliabideen eta eskumenen falta adierazi delako garapen agentzia batzuen partez, eta beraz, horrek haien eragiteko gaitasuna murrizten duelako. Eta beraz, eskualde bateko garapenaren ordezkari izan zaitezke, eskualde horretako garapenean eragiteko eskumenik edo baliabideak ez dituzunean? Era berean, ESSaren inguruan desorekak somatu daitezke sare, familia edo enpresa-talde handienek duten botereari eta politikoki eragiteko duten gaitasunari dagokionez.

Bestalde, egituren aldetik aipatutako ordezkariak nahikoa dagoen arren, tokiko garapena eta ESSa uztartzen duten ekimenak aski gutxiago dira. Hau da, lurraldeetako egunerokotasunean elkarbizitzen duten bi errealitate izanik, eta aipatutako harremanak suposatuz, ez dituzte, salbuespen garrantzitsu batzuk kenduta, elkarren arteko egitura edo subjektu iraunkorrik eraiki.

Egitura iraunkorrik ez egoteak dena den, ez du esan nahi elkarlanik burutu ez denik. Eta espero zitekeena baino elkarlan gutxiago aurrera eramán den arren, badira EAEko geografian zehar garapen agentziek edo udalek ESSa sustatzeko burututako hainbat esperientzia. Hauetako batzuk, 5. kapitulu horretan bildu ditugu GEZKI institutuak aurrera eramandako ikerketatik jasota. Beraz, ildo honetako ondorioak txosten horretan eta ondoren publikatutako artikuluan jasotako ondorio berdinak dira. Hemen laburpen bat (Arrillaga et. al., 2021):

- Tokiko erakundeek (udalak, garapen agentziak, ...) ESSa sustatzeko duten politika publikoen kopurua handia eta anitza da. Eta beraz, ESSaren sustapenerako politika publiko ezberdinak aplikatu daitezke lurraldearen eta beharraren arabera.
- ESSak tokiko beharrak asetzeko eta esku-hartze publikoaren helburuei erantzun egokia emateko orduan egituraketa forma ezberdinak hartzeko gaitasuna dauka.
- ESSak zerbitzua eskaintzen duenean politika publikoaren helburuaren eta emandako zerbitzu horren arteko bat egite handiagoa da.
- ESSak garapen agentziaren ohiko helburu bikoitzari erantzuna emateko gaitasuna erakusten du: enplegua sortu eta tokiko ekonomia suspertu eta dinamizatu.
- ESSak enpresa kapitalistek sortzen ez duten bestelako onurak sortzen ditu lurraldeetan.

- Hala ere, ESSko antolakundeen faktore profesional eta ekonomikoak bezalakoak esperientziak sustatzea zailtzen dute.
- Esperientziak beste eskualdeetan zabaldu ahal izateko, beharrezkoak dira tokiko erakundeetako (eta goragoko mailetako) teknikarien formakuntza, lankidetzak publiko-kooperatibo-komunitarioa eta Garapen-en partetik eskualde bakoitzari bere beharren arabera ESSa sustatzea ahalbidetzen dion estrategia koordinatu bat.

Aurrekoarekin jarraituz, aipatutako esperientzia konkretu horiek garapen agentzien eta ESSaren arteko harremanak sortzen eta indartzen ari dituzte. Inkestetan jasotako emaitzen arabera, ESSko sareekin harreman garatugabeak dituzten garapen agentzien kopurua altua izan arren, nolabaiteko harremanak (elkar ezagutzetik, elkarlan jarraitu batera) garatu dituzten garapen agentzien kopurua aski altuagoa da. Bistan da ez dela berdina harreman puntualak garatu izana edo epe luzera harreman jarraituak garatzea, baina elkar ezagutzeko eta elkarrekin lan egiteko joera positiboa erakusten du jasotako erantzunak.

Gainera, garapen agentzietatik ESSa sustatzeko aurrera eramandako esperientzien datari begiratzen badiogu, orokorrean, azken urteetan areagotu direla antzeman dezakegu, joera positiboa denaren seinale. Hau da, garapen agentzietatik ESSko sareekin garatutako harremanak azkenengo urteetan ematen ari direla somatu dezakegu. Eta beraz, tokiko garapenaren eta ESSaren bi munduek pixkanaka elkar ezagutzen ari direla esan dezakegu.

Aldez aurretiko jarrera ona bai, baina ez proaktiboa:

Orokorrean, ESSa ezagutzeko eta bere formetara hurbiltzeko aldez aurreko jarrera ona somatzen da garapen agentzien partetik. Ondorio hau baieztatzeko aurkitzen dugun lehenengo aztarna ez dago hainbeste inkestetatik lortutako emaitzekin lotuta, baizik eta inkesta igorritakoan lortutako parte-hartzearen emaitzarekin. Orokorrean, aipatutako tokiko garapenaren eta ESSaren harremana eskasa dela kontuan izanik, parte-hartze maila esanguratsua lortu dugula kontsideratzen dugu; aldez aurretiko jarrera onaren seinale. Izan ere, tesian aipatu dugun moduan, seguru aski ESSari buruz espresuki galdetzen duen lehenengo inkesta izan da hau garapen agentziei igortzen zaiena, eta beraz, emaitza apalagoa espero zitekeen.

Bestalde, inkestan zehar galdetutako hainbat galderen erantzunak, adibidez, “Hurrengoetatik, zeintzuk egiten edo egiteko prest zaudete zuen garapen agentzian?”, “Oro har, prest egongo zinatekete ESS sustatzeko neurri gehiago aplikatzeko?” edo “Prest zaudete ESS zeharkako elementutzat hartzeko zuen garapen agentzian?” aldez aurretiko jarrera on hori egiaztatzen dutela kontsideratzen dugu.

Hortaz, EAEko tokiko garapenean ESSaren presentzia handitze aldera lehenengo mugarrria —aldez aurretiko jarrera ona— orokorrean aurkitu dugula esan dezakegu. Hala ere, jarrera ona izateak ez du nahitaez esan nahi jarrera proaktiboa dagoenik; ezta ere, argi dago, ESSa oinarri nagusi izanik aurrera eramango diren garapen ereduak izango direnik.

Ildo honetan, gure ikerketan etengabe agertu diren elementu batzuk azpimarratu behar dira jarrera proaktibo horren gabezia azaldu dezaketenak. Alde batetik, garapen agentziak administrazio publikoaren beste beso bat bihurtu direla uste da ikuspegi batzuetatik. Administrazio publikoak enpleguaren eta enpresetako zerbitzuen arloan eskaini ohi dituen zerbitzu emaile izatera murriztuak izan direla kontsideratzen direlako; horrek dakarren zurruntasunekin eta garapen eredu propio baten inguruan eragiteko gaitasun txikiarekin. Hots, ez dira kontsideratzen, kasu batzuetan bederen, tokiko eragileak erakartzera eta garapen estrategia baten inguruan koordinatzeko bideratuta dauden eragileak bezala. Zentzu honetan ere, garapen agentzia batzuetatik, garapenerako garrantzitsuak izan daitezkeen ildo batzuetan eragiteko eskumenen falta, edo plan estrategikoen zurruntasuna adierazten da. Eta beste garapen agentzia batzuetatik, baliabideen falta edo ESSa espresuki sustatzera bideratu ahal den pertsonalaren falta adierazten da. Baina, aldi berean, ESSko eragile batzuetatik, orokorrean falta dena borondatea dela (politikoa zein teknikoa, kasu batzuetan) azpimarratzen da.

ESSaren inguruko ezagutza maila eskasa da garapen agentzietan, horregatik garapen agentzien (eta tokiko garapenean eragina duten beste erakunde publikoen) teknikarien formakuntza ezinbestekoa da:

Aurreko ondorioan aipatzen genuen ESSa sustatzeko jarrera proaktiboaren falta horren beste arrazoi nagusi bat, maila ezberdinetako erakunde publikoetako teknikarien ezagutza maila eskasagatik eratorri daiteke ere. Izan ere, teknikarien ezagutza eta formakuntza maila eskasaren ideia gure azterketan ez ezik, Arrillaga et. al.-en (2021) ikerketan ere agertu zen.

Igorritako inkesten emaitzei begiratzen badiegu, garapen agentzien gehiengoak ez du formakuntza espezifikorik jaso ESSaren inguruan, eta garapen agentziek eurek ESSaren inguruan duten ezagutza maila bataz beste gaindituaren azpitik dago. Are gehiago, ESSa sustatzeko dituzten arazo nagusien artean errepikatuenetarikoa da ezagutza falta, hain zuzen ere. Elkarrizketetan ere, ideia hau agertu izan da behin baino gehiagotan. Ildo honetan ESSko eragileak dira, batez ere, gai honetan gehien erreparatzen dutenak. Gai honi, heltzen diotenen artean, nahiz eta ESSa zer den geroz eta gehiago zabaldua egon, ESSaren antolakundearen arlo juridikoen inguruan eta hau sustatzeko politika publikoek beharrezkoa duten ezagutza juridikoan antzematen dute gabezia handiena.

Zentzu honetan, arrazoi ezberdinak bilatu daitezke, hala nola, administrazio publikoaren zurruntasuna, borondate politiko eskasa, teknikariek urtez jarraitu duten joerak aldatzea uzten ez duten inertziak, ESSa sustatzeko argibideen edo tresna-kutxa baten falta etab. Elkarrizketatuek, oro har, egoera honen garrantzia azpimarratzen dute, teknikariek pertsonal egonkorra direlako administrazio publikoan, eta beraz, hauek formatzea garrantzitsua izan daitekeelako epe luzean ESSa sustatzeko neurriak mantentze aldera.

Horregatik ere, interesgarriak izan daitezke formakuntza saio juridiko-teknikoak ematea maila ezberdinetako erakunde publikoen teknikariei, ESSa sustatzeko zer egin daitekeen inguruko formakuntzak, beste lurralde batzuetan egin denaren inguruko praktika onen zabalpena eta esperientziak, irakaspenak, baliabideak etab. zabaltzeko sare bat sortzea.

ESSak eskaintzen dituen onuren inguruko bat egitea:

Orokorrean, inkesta zein elkarrizketetan, ESSak lurraldeari eta garapen estrategiari teorikoki antzemandako onurak berretsi egiten dira. Hots, ESSko antolakundeak lurraldeari errotuagoak daudela, aberastasuna modu bidezkoagoan banatzen duela, kohesio soziala handitzen dutela, ekonomia demokratizatzen duela, esparru ekonomikoaz haragoko elementuez arduratzen dela, kalitate handiagoko enplegua sortzen duela, landa eremuen eta eremu urbanoen arteko oreka handitu dezakeela etab.

Hau da, elementu hauek guztiei enpresa kapitalistek baino modu eraginkorrean erantzuten diola diote inkestatu eta elkarrizketatuek. Hala ere, kasu batzuetan, elementu

hauei partzialki erantzuten diela atera dezakegu haien diskurtsoetatik. Beraz, batzuentzako, jarduera ekonomiko arruntak eta ohiko jokabideak aurrera eramaten duten enpresak bezala ikusten dira, ezberdintasun bakarra bestelako antolaketa ereduak delarik. Beste batzuentzako, esku-hartze sozialaren inguruko ekimenak bilduko lituzke bakarrik ESSak (laneratze enpresak, enplegu zentro bereziak edo esku-hartze sozialera bideratutako beste ekimenak).

ESSak aurreko onura guztiei aldi bereko erantzun bat ematea posiblea duela entzun ahal izateko, oro har, ESSko eragile batzuei eta adituei kasu egin behar zaie. Izan ere, antzeman daiteke garapen agentzia gehienak lurraldeak dituen arazoei era bereiztuan erantzuten saiatzen dira. Adibidez, enplegua, tokiko merkataritza, zerbitzu sozialak etab. lan ildo bereiztuak dira bata bestearekiko, nahiz eta ESSak hiruei aldi berean erantzuteko gaitasuna izan dezakeen.

Horrenbestez, orokorrean lurralderako eta tokiko garapenerako onura ugari aitortzen zaizkion arren —enpresa kapitalisteei baino gehiago—, ez da gehienetan ESSaren aldeko apustu estrategikorik egiten garapen agentzietatik, eta gehienez ere, arazo konkretu eta isolatuei erantzuteko erabiltzen da.

ESSaren izaera estrategikoaren eta garapen agentziek aurrera eraman beharreko lanketaren inguruko apunteak:

Sakoneko elkarrizketetatik lortu ditugun eztabaidarik interesgarrienetarikoa garapen agentziek ESSari lehentasuna eman behar ote lioketen eta hau sustatzeko aurrera eraman beharreko lanketari buruz izan dira.

ESSari lehentasuna ematearen inguruko eztabaida, ESSa eragile estrategiko gisa duen izaerarekin nahastu da. Izan ere, elakrriketatuek orokorrean, ESSari paper estrategikoa ematen diote tokiko garapenerako. Hala ere, denek ez daude prest ESSari ohiko ekonomiaren aurrean lehentasuna emateko. Arrazoi ezberdinengatik: tokiko ekonomian pisu erlatibo txikia duelako, eragile estrategikoaren papera irabazi behar duelako lurralde bakoitzean, bestelako enpresek duten laguntza berdina eman behar zaio baina ez aparteko neurririk etab.

Hala ere, hemen ESSaren errealitateak dituen bi ezaugarri gogoratzea garrantzitsua izan daiteke. Alde batetik, ESSaren abiatze egoera ez dela ohiko enpresen berdina; egoera ahulagoan dago. Adibidez, ezagutza maila ez da berdina, eta beraz, garapen agentzietara gerturatzen diren ekintzaileak ohiko enpresen formetara

bideratzeko joera handiagoa egon daiteke tekinkariek edo ekintzaileek eurek ESSan behar adina ezagutza ez dutelako; nahiz eta ESSaren forma bat egokiagoa izan zitekeen ekimen horretarako. Edo, ESSaren berezko ezaugarriengatik lehiakortasun txikiagoa izan dezake ohiko enpresekin konparatuta, eta beraz, merkatutik baztertuta gelditu daiteke errentagarritasun terminoetan beharrezko laguntza ematen ez bazaio. Nahiz eta baliagarritasun sozial handiko produktu edo zerbitzuak eskaini; horien artean kapitalismoak errentagarritasun irizpideengatik baztertu dituen baina bizitza sostengatzeko ezinbestekoak direnak barne.

Eta beste aldetik, ohiko enpresek lurraldeari eskaini ahal dizkieten onurez gain (jarduera ekonomikoa eta enplegua), ikusitako beste onura edo kanpo-eragin positibo gehiago eskaintzen ditu. Eta beraz, garapen eredia zehazterakoan, plan estrategikoa adosteraoan, plan estrategikoa adostutako ildoak nork aurrera eramango dituen ezartzerakoan eta politika publikoak diseinatzerakoan eta aplikatzerakoan ESSak eskaintzen dituen beste onura horiek kontutan hartu beharko lirarteke.

Horrenbestez, gure ustez, guztiz justifikatuta dago, ez bakarrik ESSa eragile estrategiko gisa kontsideratzea, eskaini ditzakeen aparteko onurengatik, baizik eta aparteko onura horiek sustatzeko, lehentasuna ematea.

Eztabaida honetatik hedatuta, ESSaren inguruko lanketaren izaeraren eztabaidara heltzen gara. Kasu honetan, bategite txikiagoa aurkitu dugu elkarrizketatuen artean. Batzuk zeharkako lanketa egin beharko litzatekeela adierazi zuten, ESSa garapen agentziaren edo tokiko erakundearen lan ildo guztietara aplikagarria dela adieraziz. Hau da, ESSa arazo ezberdinei eta tokiko garapenaren behar ezberdinei erantzuna emateko baliagarria den tresna bezala ulertzen dute. Enpresa arloan, enplegu arloan, etxebizitza arloan, zerbitzu sozialen arloan, kultura arloan, ingurumen arloan etab. zeresana duten antolakundeak bezala, alegia. Beste batzuentzako aldiz, nahiz eta tokiko garapenerako arlo ezberdinei erantzuna emateko gaitasuna ez dioten ukatzen, garapen agentzietatik ESSaren inguruko zeharkako lanketaren inguruan erreparoa dituzte, behintzat hasiera batean. Eta beraz, ESSaren inguruko lan ildo espezifikoen alde egiten dute. Hau da, garapen agentzien beste lan ildoan artean, ESSa sustatzea helburu espezifikoa duen beste lan ildo bat sortzearen alde agertzen dira.

Izan ere, ESSaren inguruko lan ildo bereiztu batek, lagungarria izan daiteke ESSarentzako baliabide, pertsonal eta plangintza konkretuak esleitzeaz gain, lurraldean ikusgaitasuna handitzen eta indartzen joateko. Beraz, batez ere ESSak hedapen txikia

duen lurraldeetan ezartzeko, aukera interesgarriagoa izan daiteke lan ildo bereiztu bat sortzea. Zeharka lantzerakoan, aukera ezberdinen artean beste bat gehiago bezala ikusi daitekeelako eta, praktikan, ikusgaitasun handiagoa duen ohiko ekonomiaren aldeko autua eman, batez ere, ESSan trebatutako pertsonalik ez badago. Hala ere, helburua, ESSa behin egonkortuta dagoenean, ESSa tokiko garapenerako arlo guztietara lehentasunez zabaltzea izango litzateke.

Hala ere, ESSa zeharka lantzeak, beste arazo bat dakar gure ustez. Gaur egungo tokiko garapen ereduak garapenaren ikuspegi neoliberal bati jarraitzen diote orokorrean; merkatuan guztiz zentratuak eta arrazionaltasun kapitalistaren pean. Hortaz, garapen agentziek dituzten lan ildoak ikuspegi honi erantzuna emateko sortuak izan dira. Horregatik, eraldaketa sozioekonomikoa helburu duen eredu batek, lan ildo hauek zeharkatu baino, tokiko garapena birpentsatzea eskatzen du. Adibide gisa, alde zurretik ezarritako lan ildoak lehiakortasuna sustatzea izanik, zer egin beharko luke ESSak? Lan ildo hori zeharkatu? Edo, demagun, inkerkooperazioa deritzon beste lan ildo bat sortu?

Zentzu honetan, bat egiten dugu Moulaert eta Nussbaumer-ekin (2005) zeintzuk komunitatearen beharrak asetzeko gai izan ez diren eta elkarren arteko lehia eta merkatuan oinarritutako tokiko garapenerako ereduak, pertsonak erdigunean jartzen dituen eta komunitatean oinarritutako garapenaren ontologia duten bestelako tokiko garapen eredu alternatiboengatik ordezkatu behar direla diote.

Tokiko subjektu kooperatiboak sortzea garrantzitsua izan daiteke:

Garapen estrategiaren lidergoa ezberdina izan daiteke lurralde batetik bestera. Lurralde bateko ESSaren pisua adierazgarria denean, administrazio publikoaren babesa ematen ez denean, edo haren babesa bai baina lidergorik ematen ez denean, subjektu kooperatiboak edo oinarri kooperatiboa duten tokiko eragileak sortzea interesgarria izan daiteke, tokiko garapenaren lidergoa aurrera eramateko.

Era berean, subjektu kooperatibo hauek izaera ezberdina izan ditzakete, baina orokorrean, eragile ezberdinak batzera (ESSko antolakundeak, tokiko ekonomia pluraleko eragileak, sindikatuak, eragile sozial eta komunitarioak, jendarte zibila etab.) bideratuta egongo dira, ESSa eta bere balioak lurraldeetan indartu eta txertatzeko. Horretarako, adibidez, formakuntza saioak aurrera eraman, lanketa berezia behar dituzten sektoreak identifikatu eta tokiko beharrei erantzuna emateko proiektuak proposatu, sustatu eta saretu dezakete.

Ildo honetan, gure testuinguruan horrelako esperientzia batzuk aurkitu daitezke. Adibidez, Azaro Fundazioa, BDS eraldaketa fabrika, WorkLan, SaioLan, Debagoiena 2030 edo Biziola proiektua aurkitu ditzakegu. Era berean, gure ikerketan beste adibide batzuk ere agertu dira, hala nola, Kataluniako *Ateneus Cooperatius*-ak, edo Frantziar estatuko *Pôle territorial du coopération économique*. Subjektu kooperatibo hauek oso ezberdinak dira euren artean, bakoitzak bere eskualdearen beharrei erantzuteko eta bertako errealitatearen arabera sortu izan delako. Batzuk ekimen kooperatiboak soilik oinarri izanik sortu dira eta garapen agentzia kooperatiboaren antza handiagoa daukate, beste batzuk aldiz, tokiko jendarte zibila eta eragile sozialak biltzen duten ekimen komunitarioagok dira eta beste batzuk administrazio publikoaren babesarekin eraiki dira. Eta beraz, ikuspegi eta estrategia ezberdinak jorratu ditzakete, betiere lankidetzaren garapen ereduaren erdigunean jarriz.

Subjektu kooperatibo hauek garrantzi handia izan dezakete ere tokiko gobernantza sisteman ESSaren inguruko auziak barneratzen joateko. Izan ere, elkarrikeria batzuetan antzeman denez, nahiz eta ESSaren aldeko ekimen eta politika publiko gehiago burutu nahi diren, garapen agentzia batzuk zailtasunak aurkitzen dituzte eskualdeko plan estrategikoa diseinatzerakoan ESSa barneratu ez zelako. Orokorrean, plan estrategikoak tokiko eragile ekonomikoak kontutan hartuz zehazten dira, alabaina, gehienetan ez da ESSarekin kontutan hartzen. Eta beraz, subjektu kooperatibo hauetan bilduta, eskualdeetako plan estrategikoak diseinatzeko orduan ESSak presentzia eta indar handiagoa izan dezake bertan barneratua izateko eta lurralde gobernantza sistemetan agerikoak diren botere-harremanak eraldatzen saiatzeko.

Subjektu hauen helburua, dena den, ez da garapen agentziak ordezkatzea, nahiz eta kasu batzuetan antzeko lana egiten duten. Izan ere, besteren artean, ez dituzte politika publikoak aplikatzeko eskumenik, erakunde publikoak ez diren heinean. Aldiz, helburua, garapen estrategia beraren eta politika publikoen ko-diseinuan parte-hartzea da lankidetzaren publiko-kooperatibo-komunitarioaren markoan eta garapen agentziekin koordinatzea subjektu hauek proposatzen dituen proiektuei laguntza juridiko-teknikoa emateko.

Eta beraz, zer egiten ari dira EAEko eragileak?

Zerrendatu berri ditugun ondorioak kontutan hartuz, bigarren ikerketa galderari erantzun bat emateko moduan gaudela uste dugu.

Esan dugunez, EAEko tokiko garapenaren eta ESSaren arteko gerturatze bat somatu daiteke, esperientzia konkretu batzuetan islatuta ikusi daitekeena. Gerturatze hau azkenaldian ematen ari den zerbait positiboa bezala kontsideratu daiteke, azken hamarkadan emandako ikuspegi aldaketa baten markoan kokatu dezakegularik (bizitzaren prekarizazio orokortua, sektore publikoaren ezintasuna arazo ezberdieni aurre egiteko, Euskal Herriko bosgarren olatu kooperatiboa, ESSa sustatzeko bigarren belaunaldiko politika publikoak etab.). Hala ere, zer egiten ari dira EAEko eragileak? noraino heltzen da EAEko tokiko garapenean ikuspegi aldaketa hau? Posiblea al da EAEn ESSan oinarritutako tokiko garapen ereduak aurrera eramatea?

EAEko tokiko garapenerako oinarritzko eragileek, garapen agentziak, jatorri ezberdina dutela ikusi dugu. Batzuk eskualdeetako udalen ekimenez sortutako erakundeak dira eta, beste batzuk, goitik beherako ikuspegia jarraitu izan dute. Bestalde, garapen agentzia batzuk, udalen egitura administratiboan integratuta daude guztiz, eta beste batzuk autonomia handiagoa duen aparteko egitura bat sortu dute. Gainera, urteetako lana gidatuko duten plan estrategikoak diseinatzerakoan, gobernantza sistema zabalagoak edo murriztaileagoak aurkitu ditzakegu; tokiko eragile ezberdinak kontutan hartzen dituztenetik, udal-gobernu taldearen erabakiz hartzen direnetatik pasata eta maila altuagoko erakunde batean —Aldundi mailan edo Eusko Jaurlaritzaren laguntzengatik baldintzatuta— erabakitzen direnetaraino. Hortaz, garapen agentzia bakoitzaren eraikuntza, eskualde bakiotzak dituen baldintza instituzional propioen arabera izan da, eta beraz, ESSarekiko burutu dituen harremanak ere. Horrenbestez, errealitate ezberdinak aurkitu ditzakegu EAEn zehar, eta horregatik ere, galdera honi erantzuteko errealitate horiek guztiak ezagutzea beharrezkoa da, oso erantzun orokorra eman nahi ez bada.

Dena dela, salbuespen batzuk kenduta (Beterri-Buruntza, Lea Artibai eta, neurri batean, oso ekimen berria delako, Debagoiena) ezin da esan, gaur gaurkoz, ESSan oinarritutako tokiko garapen eredurik aurrera eramaten denik EAEn. Beterri-Buruntzan, garapen agentziaren eguneroko lana ESSarekin guztiz lerrotuta dagoela esan dezakegu, enplegu, ekintzailtza eta politika sozialen arloei ESSaren bitartez erantzuten saiatzen direlarik. Gainera ESSaren hedapena sustatzeko, Iturola deritzon eta kudeaketa komunitarioa duen *coworking* espazio bat garatu dute. Lea Artibain, batez ere Azaro Fundazioaren urteetako lana azpimarratu behar da. Azaro Fundazioa ekimen kooperatibo baten ekimenez sortutako tokiko garapenerako eragilea da, bere helburuen

artean ESSa sustatzea dagoelarik; batez ere, kooperatiba industrialak eta teknologikoak sustatzera bideratuz. Horretarako, ekintzailtza kooperatiboa laguntzeko egitura bat garatu dutelarik. Gainera, Azaro Fundazioak eskualdearen plan estrategikoaren diseinuan parte-hartzen du ESSari ahotsa emanez. Eta Debagoienaren kasuan, Mondragon taldeak historikoki eskualdean izan duen pisu adierazgarriaz gain, 2019an Debagoiena 2030 berrikuntza irekiko plataforma sortzen da. Nahiko proiektu berria den arren, eskualdean izan duen babesa, Mondragoneko kooperatibismoa barne, handia izan da. Debagoiena 2030-ren bitartez, eskualdeak izango dituen erronkei eragile ezberdinen arteko lankidetzaren bitartez erantzun nahi zaie, horien artean kooperatibak egonik baina baita ere tokiko beste eragile ekonomiko, sozial komunitarioak edota pertsona indibidualak.

Aipatutakoez aparte, Goierriko Biziola proiektua aipatu daiteke, non ESSko antolakunde batzuk, tokiko beste eragileak eta pertsona ezberdinak bildu diren ESSa lurraldera erakartzeko. Hala ere, kasu honetan ez dute, momentuz, Goierriko garapen agentziaren babesik lortu.

Maila apalago batean, ESSko ekimenak sustatzeko ekintzailtza egiturak aurkitzen ditugu, adibidez Bidasoan BDS Fabrikaren bitartez, Debabarrenan SaioLan-en bitartez, Goierriin Goilan-en bitartez edo Bilbon Work-Lan-en bitartez. Eta aldi berean, ESSko sare batzuek dituzten ekintzailtza programa propioak (Konfekoop, Asle eta Olatukoop Elkar-Lan, Lanzituz eta Koopfabrikaren bitartez, hurrenez hurren). Hala ere, ekimen hauek ESSaren inguruan ekintzailtza sustatzeko egiturak eta programak dira, baina orokorrean, ez daude tokiko garapen estrategia espezifiko batekin lotuta. Hau da, tokiko garapenerako oso esperientzia interesgarriak izan daitezkeen arren, ez dira garapen estrategietan barneratzen, eta beraz, oso modu atomizatuan eta elkarren arteko harreman gutxirekin gelditzen dira EAEko geografian zehar.

Hurrengo maila batean, ESSarekiko esperientzia puntualak aurrera eraman dituzten garapen agentziak daude. Hauen kopurua geroz eta handiagoa den arren, ezin dugu esan ekimen puntual bat aurrera eramateagatik, ESSan oinarritutako tokiko garapen eredu bat aurrera eramaten dutenik. Eta azkenengo maila batean, inolako harremanik burutu duten eskualdeetako garapen agentziak leudeke. Kasu honetan, nahiko adierazgarria da inolako harremanik garatu ez dutela adierazi duten garapen agentzia guztiak bat izan ezik Bizkaikoak direla (bestea Arabakoa da).

Bukatzeko, elkarrizketatuen diskurtsoei erreparatzen badiegu, egia esateko, elkarrizketa gehienak ez dira hainbeste “ESSan oinarritutako garapen ereduen” ildoan garatu, baizik eta garapen agentzietatik ESSa sustatzeko zer egin daitekeenari buruz jodute elkarrizketatu gehienek. Hau da, orokorrean ez da ESSa oinarri duen garapen ereduetan pentsatzen, baizik eta gehienez ere, ESSa pisu handiagoa izango duen garapen egitasmoei buruz.

Horregatik guztiagatik, gure ikerketa galderari erantzuteko, gaur gaurkoz, salbuespen konkretu eta txiki batzuk kenduta, ez dago EAEn ESSa oinarri gisa hartzen duten tokiko garapen eredurik. Etorkizunari begira, pixkanaka pausoak ematen jarraituko direla pentsatu dezakegun arren, oraindik ere hesi asko salto egin behar ditu ESSak garapen agentzien egitasmoetan indarrez barneratzeko.

7.4 Etorkizunerako ikerketa eta lan ildo interesgarri batzuk:

Azkenengo lerro hauetan, gure ustez etorkizun desiragarri posible batera begira jarriko gara, eta ildo horretan interesgarriak izan daitezkeen ikerketa eta lan ildoen inguruko apunte labur batzuk zirriborratzen saiatuko gara.

Ikerketari begira, tokiko garapenaren eta ESSaren arteko harremanetan sakontzen jarraitu, eta hauek beste ikuspegi ekonomiko kritikoekin dituzten harremanak aztertzea interesgarria izan daiteke, geroz eta oinarri teoriko sendoagoa eraikitze aldera. Zentzu honetan, burujabetzen proposamenean, lankidetzaren publiko-kooperatibokomunitarioaren egituraketan, interkooperazioan eta sare kooperatiboetan, ekosistema kooperatiboetan, despopulatutako landa-eremuen, desindustrializazio prozesuak dituzten eremu industrialen eta degradatutako hiri-eremuen ESSaren bidezko eraberritzeak etab. bezalako gaietan sakontzea interesgarria izan daitekeela kontsideratzen dugu. Hauek ESSa bera indartzeko elementu garrantzitsuak izateaz gain lotura zuzena baitaude tokiko garapenarekin.

Era berean, lurralde ezberdinetan aurrera eraman daitezkeen esperientzia konkretuak jasotzea garrantzitsua izan daiteke gutxienez bi arrazoi nagusiengatik. Alde batetik, tokiko garapenak zein ESSak oso osagai enpiriko handia daukate eta euren garapen teoriko-akademikoa praktikaren bitartez garatzen joaten dira biak, etengabeko eraikuntzan daudelarik. Beraz, hauen arteko oinarri teorikoak sendotzeko, nahitaez errealitatera begiratu beharko diogu ikertzaileok. Eta bestalde, tresna-kutxa bat

osatzeko, esperientzia konkretuak biltzen dituen, eta tokiko zein goragoko mailetakoa erakundeetatik ESSko ekimenak euren lurraldeetara egokitu nahi izatekotan jarraibide argiak izan dezaten.

Bestalde, ESSan oinarritutako tokiko garapen ereduak sortze aldera jarraitzea interesgarriak liratekeen lan ildoen inguruan, dagoeneko agertu zaizkigun gai batzuk berreskuratzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

- Lurralde bakoitzean ESSak duen egoera eta erakunde publikoen esku-hartzearen inplikazio konkretua kontuan izanik, egoera horretara egokitutako neurriak aplikatu daitezke. Lurralde batzuetan ESSko esperientziak sortzeko baldintza egokiak izateko neurriak bultzatu daitezke garapen agentzia edo tokiko erakundeetatik. Beste lurralde batzuetan, non ESSaren formulak presentegoak dauden, garapen agentzia edo tokiko erakundeek ESSa erabili dezakete lurraldean dauden beharrei erantzuteko. Eta azkenik, proposamen eraldatzaile batera helduko ginateke non tokiko zerbitzuetan administrazio publikoak, ESSa eta herritarrak parte-hartzen duten, gobernantza publiko-kooperatibo-komunitarioaren markoan.
- Aurrekoarekin jarraituz, administrazio publikoaren, tokiko egitura kooperatiboaren eta komunitatearen arteko lankidetzak espazioak sustatzea garrantzitsua izan daiteke, aipatutako lurralde gobernantza publiko-kooperatibo-komunitarioaren proposamenean aurrera egiteko. Hiru polo hauen arteko elkarrekintzaren bitartez, arestian aipatutako garapen eredu neoliberalari bestelako tokiko garapen eredu bat proposatzea posiblea da. XX. mendeko merkatuaren eta estatuaren arteko ikuspegi dikotomikoa gainditzen da, komunitatea eta bertatik sortzen diren jokabide eta eragileak barneratuz. Izan ere, estatua merkatu kapitalistaren arrazionaltasunak dakarren jokabideak eusteko eraginkorra izan daitekeen moduan, kapitalaren aliatu hoberena izan daiteke ere; zerbitzu publikoak pribatizatuz, merkatuak desarautuz, bizitzaren esparru ezberdinetan merkatua hedatuz eta, oro har, kapitalaren metaketa ahalbidetzeko politikak abiaraziz. Horrenbestez, ekuazioan komunitatea barneratzerakoan, hau ahaldunduta badago, aktiboki eta modu auto-eratuan euren bizitzaren gain eragiten duten elementuen gain eragiteko antolaketa ereduak sortu ditzake garapen kapitalistari eta ikuspegi neoliberalari aurre egiteko. Hots, beharrak asetu errentagarritasun ekonomikoaren irizpideetatik at, botere

harremanak eraldatu eta etorkizunak dakarren erronka ekosozialei erantzuna eman. Horretarako, praktikan, aukera ugari aurkitu daitezke. Tesi honen 4. kapituluan dagoeneko hainbat ekintza konkretu planteatu ditugu, eta oro har, helburua, jendartean dauden hiru polo hauen arteko egiturak sortzea litzateke. Zerbitzuen diseinuan, planifikazioan eta kudeaketan hiru eragileen parte-hartzea bermatuz.

- Garapen agentzien lidergoa ematen ez den bitartean bederen, subjektu kooperatibo lurralderatuak edo oinarri kooperatiboa duten tokiko eragileak sortzea izan daiteke ESSak duen bide-orririk argiena, ESSa lurraldeetara hurbiltzeko eta lurralde gobernantza sistemetan pisua lortzen joateko. Horretarako ereduak ezberdinak izan daitezke lurraldearen arabera. Adibidez, EAEn aurkitu ditzakegun subjektu batzuk oinarri kooperatiboagoa duten bitartean (ekimenaren atzean kooperatibismoa dago), beste batzuk oinarri komunitarioagoa daukate (ekimenaren atzean komunitatea eta eragile sozioekonomiko ezberdinak daude). Era berean, EAetik kanpo ere beste eredu batzuk aurkitu daitezke, adibidez, tesi honetan azaldu diren Kataluniako *Ateneus Cooperatius*-ak edo Frantziar estatuko *Pôle territorial du coopération économique*-ak zeintzuk adibide ona izan daitezkeen EAEko eskualdeetan ezartzeko.
- Garapen agentzien edo tokiko erakundeen jarrera proaktiboagoa izateko, parktika onak, baliabideak, esperientziak, irakaspenak etab. partekatzen dituen sare bat garatzea lagungarri izan daiteke. Ez bakarrik aipatutako tresna-kutxa hori betetzeko eta argibide konkretuagoak eskuragarri izateko, baizik eta, batez ere, presio politikoa egiteko. Izan ere, ESSaren sustapenaren aldeko udalez gaindiko sare bat sortzen bada, udal berriak erakartzeko eta hauek konpromisoak hartzeko tresna ona izan daiteke; ondoko udala bertan badago, ez al gara gu egongo? Zentzu honetan, Xarxa de Municipis per l'Economia Social i Solidària (XMESS) izan daiteke eredu.
- Bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren sektore estrategikoen gaineko burujabetza berreskuratzea. Elikadura, energia, etxebizitza, finantzak etab. bezalako sektore estrategikoak merkatu kapitalistaren logitetatik atera, eta herritarren kontrola ahalbidetzen duten egiturak eraikitzea, alegia. Horretarako, ESSa tresna-kutxa interesgarria izan daitekeelarik.

- Eta azkenik, gaur egun prekaritatea gehien erreproduzitzen duten sektoreetan eragitea. Adibidez, zaintzen esparruan edo “plataforma kapitalismoaren” jardueretan areagotzen ari diren lanen kooperatibizazioa eta duintzea.

BIBLIOGRAFIA:

AGUILAR, Luis F. (2010): *Gobernanza: El nuevo proceso de gobernar*, Fundación Friedrich Naumann para la Libertad, Mexico City

ALBERDI, Jokin (2014): *Aspectos socio-políticos del Desarrollo Humano Local: Nuevas claves de análisis para la participación democrática y las interacciones público-privadas*, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Instituto Hegoa.

ALBURQUERQUE, Francisco (1997): *Metodología para el desarrollo económico local*, CEPAL.

ALBURQUERQUE, Francisco (2001): *La importancia del enfoque del desarrollo económico local*, Editorial Homo Sapiens, Argentina

ALBURQUERQUE, Francisco (2003): *Teoría y práctica del enfoque del desarrollo local*. Instituto de Economía y Geografía, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madrid.

ALBURQUERQUE, Francisco (2004a): *El enfoque del Desarrollo Económico Local*, (Vol. 1), Organización Internacional del Trabajo, Buenos Aires.

ALBURQUERQUE, Francisco (2004b): “Desarrollo económico local y descentralización en América Latina”, *Revista de la CEPAL*, 82, 157-171.

ALBURQUERQUE, Francisco (2006): *Clusters, territorio y desarrollo empresarial: diferentes modelos de organización productiva*, Inter-American Development Bank.

AMIN, Ash (1998): “Una perspectiva institucionalista sobre el desarrollo económico regional”, *Ekonomiaz Revista vasca de economía*, (41), 68-89.

AMIN, Ash. (2000): “Industrial districts”, In Sheppard, E. S., & Barnes, T. J. (Eds.): *A companion to economic geography*, Oxford: Blackwell, 149-168.

AMIN, Ash (2001): “Moving on: institutionalism in economic geography”, *Environment and planning A*, 33(7), 1237-1241.

AMIN, Ash (Ed.) (2013): *The social economy: International perspectives on economic solidarity*, Zed Books Ltd.

AMIN, Ash & THRIFT, Nigel (1992): “Neo-Marshallian Nodes in Global Networks”, *International Journal of Urban and Regional Research*, 16, 571-587.

AMIN, Ash & THRIFT, Nigel (1995): “Institutional issues for the European regions: from markets and plans to socioeconomy and power of association”, *Economy and Society*, 24(1), 46-61.

ANDRÉ, Isabel., & REGO, Patricia. (2003): “Redes y desarrollo local: la importancia del capital social y de la innovación”, *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, (36), 117-127.

APPADURAI, Arjun (1996): *Modernity at large: cultural dimensions of globalization* (Vol. 1), University of Minnesota Press, Minnesota.

ARIN, Arrate (2017): “Nuevas economías transformadoras”, *Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria-Revista Vasca de Economía Social*, (14), 7-60.

ARRILLAGA, Pablo (2021a): “Ekonomia solidarioko merkatu sozialak, lankidetzeta-sare solidarioen ikuspegitik. Euskal Herriko merkatu sozialaren azterketa”, *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 117, 5-30.

ARRILLAGA, Pablo (2021b): “Mercados sociales e intercooperación en la Economía Social y Solidaria como vía para recuperar soberanías: El caso del Mercado Social de Euskadi”, *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (argitaratzeko onartuta).

ARRILLAGA, Pablo, SOTO, Aratz & ETXEZARRETA, Enekoitz (2021): “Economía Social eta Solidarioko esperientzien sustapena tokiko mailatik”, *GIZAEKOA Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria-Revista Vasca de Economía Social*, (18), (argitaratzeko onartuta).

ASHEIM, Björn (1996): “Industrial districts as ‘learning regions’: a condition for prosperity”, *European planning studies*, 4(4), 379-400.

ASHEIM, Björn (2009): “La política de innovación regional de la próxima generación: cómo combinar los enfoques del impulso por la ciencia y por el usuario en los sistemas regionales de innovación”, *Ekonomiaz Revista Vasca de Economía*, 90, 86-105.

ASKUNZE, Carlos (2013): “Más allá del capitalismo: alternativas desde la Economía Solidaria”, *Documentación social*, (168), 91-116.

AYDALOT, Philippe (1986): *Milieux innovateurs en Europe*, Gremi, Paris.

AZKARRAGA, Joseba, & ALTUNA, Larraitz (2012): “Cooperativismo, economía solidaria y paradigma ecológico. Una aproximación conceptual”, *Ecología política*, (44), 33-42.

BAGNASCO, Arnaldo (1977): *Tre Italia. La Problematica Territoriale dello Sviluppo Economico*, Il Mulino, Bologna.

BAKAIKOA, Baleren, ERRASTI, Anjel, & BEGIRISTAIN, Agurtzane (2004a): “Governance of the Mondragon Corporacion Cooperativa”, *Annals of Public and Cooperative Economics*, 75(1), 61-87.

BAKAIKOA, Baleren, ERRASTI, Anjel, BEGIRISTAIN, Agurtzane & GOIKOETXEA, Gorka (2004b): “Redes e innovación cooperativa”, *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (49), 263-294.

BAKAIKOA, Baleren, AGIRRE, Amaia, ERRASTI, Anjel M., & MARTÍN-COBOS, Manuel (2011): “El modelo Neo-schumpeteriano de desarrollo económico del País Vasco”, *Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria-Revista Vasca de Economía Social*, (4), 111-135.

BAKAIKOA, Baleren y MORANDEIRA, Jon (2012). “El cooperativismo vasco y las políticas públicas”, *Ekonomiaz Revista Vasca de Economía*, 79, 234-263.

BAREA, José (1990): “Concepto y agentes de la Economía Social”, *CIRIEC-España Revista de economía pública, social y cooperativa*, 8, 109-117

BAREA, José, & MONZÓN, José Luis (2006): *Manual para la elaboración de las cuentas satélite de las empresas de La Economía Social: cooperativas y mutuas*, CIRIEC-España, Valencia.

BARTLETT, Will & PRIDHAM, Geoffrey (1991): “Co-operative enterprises in Italy, Portugal and Spain: history, development and prospects”, *Journal of Interdisciplinary Economics*, 4(1), 33-59.

BASER, Heather, & MORGAN, Peter (2008): *Capacity, change and performance: Study report*, Maastricht: European Centre for Development Policy Management, 1-166.

BECATTINI, Giacomo. (1979): *Dal settore industriale al distretto industriale: alla ricerca dell'unità di indagine della economia industriale*, Il Mulino.

BECATTINI, Giacomo. (1991): “Italian industrial districts: problems and perspectives”, *International Studies of Management & Organization*, 21(1), 83-90.

BECATTINI, Giacomo. (2002): “Del distrito industrial marshalliano a la «teoría del distrito» contemporánea: Una breve reconstrucción crítica”, *Investigaciones regionales*, (1), 9-32.

BENGOETXEA, Aitor (2016): “Enplegua euskal Gizarte Ekonomian 2009-2013 artean” In BRETOS, Ignacio & PÉREZ DE URALDE, José María (eds.): *Euskal Gizarte Ekonomia eta Krisialdi Ekonomikoa. 2009 eta 2013 arteko bilakaera sozioekonomikoa*, OVES/GEEB Observatorio Vasco de Economía Social /Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia. Donostia

BENKO, Georges & LIPIETZ, Alain (eds.) (2000): *La richesse des régions: la nouvelle géographie socio-économique*, Presses Universitaires Françaises, Paris.

BEN-NER, Avner eta GUI, Benedetto (ed.) (1993): *The Nonprofit Sector in the Mixed Economy*, Ann Arbor, MI: University of Michigan Press.

BIRCHALL, Johnston & KETILSON, Lou Hammond (2009): *Resilience of the cooperative business model in times of crisis*, International Labour Organisation

BISAGGIO, Claudia L. (2009): “Moneda social”, In Cattani. A., Coraggio, J., & Laville, J. (Org.): *Diccionario de la otra economía*, Altamira, Buenos Aires, 268-273.

BLOCK, Fred (2017): “Introducción”, In Polanyi, K. (1944): *La gran transformación: Los orígenes políticos y económicos de nuestro tiempo*, Fondo de Cultura Económica, Mexico.

BOISIER, Sergio (1999): “Desarrollo (local) ¿de qué estamos hablando?”, *Cuadernos Regionales*, (1), Santiago de Chile.

BOISIER, Sergio (1999b): “El desarrollo territorial a partir de la construcción de capital sinérgico”, *Revista Brasileira de estudos urbanos e regionais*, (2), 39-53.

BOISIER, Sergio (2004): “Desarrollo territorial y descentralización el desarrollo en el lugar y en las manos de la gente”, *Eure (Santiago)*, 30(90), 27-40.

BOISIER, Sergio (2005a): “¿Hay espacio para el desarrollo local en la globalización?” *Revista de la CEPAL*, 86, 47-62.

BOISIER, Sergio (2005b): “Crónica de una muerte frustrada: el territorio en la globalización. La recuperación de las políticas territoriales”, *Gizarte Zientzien Aldizkaria*, 1, 11-25.

BOISIER, Sergio (2009): “Sinergia e innovación local” *Semestre económico*, 12(24), 21-35.

BOISIER, Sergio (2010): “Sociedad civil, participación, conocimiento y gestión territorial”, *Hábitat Urbano: Dimensiones y Perspectivas*, 4, 15-42.

BORZAGA, Carlo, & DEFOURNY, Jacques (Eds.) (2004): *The emergence of social enterprise* (Vol. 4). Routledge, London.

BOUCHARD, Marie (Ed.) (2013): *Innovation and the social economy: The Quebec experience*, University of Toronto Press.

BOUCHARD, Marie & LÉVESQUE, Benoît (2010): “Économie sociale et innovation. L’approche de la régulation, au coeur de la construction québécoise de l’économie sociale”, *Cahiers du Centre de recherche sur les innovations sociales (CRISES)*, Collection Études théoriques - n° ET1103.

BOYER, Robert. (1986): *La Théorie de la Régulation: Une analyse critique*, La Découverte, Paris.

BRACZYK, Hans-Joachim, COOKE, Philip, & HEIDENREICH, Martin (Eds.) (1998): *Regional innovation systems: the role of governances in a globalized world*, Psychology Press.

BRAUDEL, Fernand (1992): *Civilization and capitalism, 15th-18th century, The perspective of the world* (Vol. 3), University of California Press, Berkeley-Los Angeles

BRENNER, Neil (1998): “Between fixity and motion accumulation, territorial organization and the historical geography of spatial scales”, *Environment and planning D Society and space*, 16(4), 459-481.

BRENNER, Neil (1999a): “Globalisation as reterritorialization: the re-scaling of urban governance in the European Union”, *Urban studies*, 36(3), 431-451.

BRENNER, Neil (1999b): “Beyond state-centrism Space, territoriality, and geographical scale in globalization studies”, *Theory and society*, 28(1), 39-78.

BRENNER, Neil. (2003): “Urban Entrepreneurialism and The New Politics Of Uneven Development In Western Europe”, In Peck, J., & Yeung, H. W. C. (Eds.): *Remaking the global economy: Economic-geographical perspectives*, 197-215.

BRENNER, Neil (2004a): “Urban governance and the production of new state spaces in Western Europe, 1960–2000”, *Review of international political economy*, 11(3), 447-488.

BRENNER, Neil (2004b): *New State Spaces Urban Governance and the Rescaling of Statehood*, Oxford University Press

BRENNER, Neil (2009a): “Restructuring, rescaling, and the urban question”, *Critical Planning*, 16(4), 61-79.

BRENNER, Neil (2009b): “A thousand leaves: notes on the geographies of uneven spatial development”, In Roger K. & Rianne M. (Eds): *Leviathan undone*, 27-49.

BRENNER, Neil & THEODORE, Nik (2002): “Cities and the geographies of ‘actually existing neoliberalism’”, *Antipode*, 34(3), 349-379.

BRENNER, Neil & WACHSMUTH, David (2012): “Territorial competitiveness: Lineages, practices, ideologies”, *Planning ideas that matter*, 179-206.

BRUSCO, Sebastiano (1990): The idea of the industrial district its genesis. *Industrial districts and inter-firm co-operation in Italy*, International Institute for Labor Studies, Geneva.

BUENDIA, Inmaculada & LINS, Maria Luiza (2000): “Nuevas ruralidades y cooperativismo: una perspectiva comparada”, *REVESCO*, 70, 31-46.

CABALLERO, Claudia M. (2015): “Reflexiones sobre el desarrollo local: el cooperativismo como uno de sus recursos esenciales”, *Revista de Cooperativismo y Desarrollo*, 46-56.

CALLEJÓN, María & COSTA, María Teresa (1996): “Geografía de la producción. Incidencia de las externalidades en la localización de las actividades industriales en España”, *Información comercial española*, 754, 39-50.

CAMAGNI, Roberto (1991): *Innovation networks: spatial perspectives*, Belhaven-Pinter.

CAMPILLO, Fabiola. (2000): “El trabajo doméstico no remunerado en la economía”, *Nómadas*, 12, 98-115.

CAPELLO, Roberta (2011): “Location, regional growth and local development theories”, *Aestimum*, 58, 1-25.

CASTELLS, Manuel, & HALL, Peter (1994): *Technopoles of the world: The making of 21st century industrial complexes*, Routledge.

CARRASCO, Cristina (Ed.) (2001): *Tiempos, trabajos y género*, (Vol. 10). Edicions Universitat Barcelona.

CARRASCO, Cristina (2009a): “Mujeres, sostenibilidad y deuda social”, *Revista de educación*, (1), 169-191.

CARRASCO, Cristina (2009b): “Tiempos y trabajos desde la experiencia femenina”, *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, 108, 45-54.

CARRASCO, Cristina (2014): “Economía, trabajos y sostenibilidad de la vida”, In REAS Euskadi (ed.): *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y Ecológica*, REAS Euskadi, 28-41.

CEJUDO, Rafael (2007): “Capacidades y libertad: una aproximación a la teoría de Amartya Sen”, *Revista Internacional de Sociología (RIS)*, 47, (9-22).

CEPAL (2014): *Agricultura familiar y circuitos cortos. Nuevos esquemas de producción, comercialización y nutrición*, Memoria del seminario sobre circuitos cortos realizado el 2 y 3 de septiembre de 2013, CEPAL, Series Seminarios y Conferencias N°77, Santiago de Chile. Berreskuratuta: https://repositorio.cepal.org/bitstream/handle/11362/36832/1/S2014307_es.pdf

CEPES, Confederación Empresarial Española de la Economía Social (2018): *Las empresas más relevantes de la economía social 2017-2018*, CEPES. Berreskuratuta: www.cepes.es/files/publicaciones/112.pdf

CERNY, Philip G. (1995): “Globalization and the changing logic of collective action”, *International organization*, 49(4), 595-625.

CHAVES, Rafael (2004): “Gobierno y democracia en la economía social”, *Mediterráneo Económico*, 6, 35-52.

CHAVES, Rafael (2009): “Las políticas públicas de fomento de la Economía Social en España y en Europa”, *Informe para la elaboración de una ley de fomento de la Economía Social en España*, CIRIEC-España, Valencia.

CHAVES, Rafael (2010): “Las actividades de cobertura institucional: infraestructuras de apoyo y políticas públicas de fomento de la economía social”, In Monzón, J.L. (Dir.): *La Economía social en España en el año 2008*, Ed. CIRIEC-España, Valencia, 565-592.

CHAVES, Rafael (2012): “Las políticas públicas y las cooperativas”, *Revista Ekonomiaz*, 79(01), 169-200.

CHAVES, Rafael (2019): “La segunda generación de políticas de fomento de la economía social en España y en la Comunitat Valenciana. Un primer balance”, In Fajardo, y Chaves, (Dir.): *La economía social en la Comunitat Valenciana: regulación y políticas públicas*, CIRIEC-España, Valencia, 19-30.

CHAVES, Rafael, & MONZÓN, José Luis (2001): “Economía social y sector no lucrativo: actualidad científica y perspectivas”, *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, (37), 7-23.

CHAVES, Rafael, & MONZÓN, José Luis (2018): “La economía social ante los paradigmas económicos emergentes: innovación social, economía colaborativa, economía circular, responsabilidad social empresarial, economía del bien común, empresa social y economía solidaria”, *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (93), 5-50.

CHAVES, Rafael & SAJARDO, Antonia (2004): “Economía política de los directivos de las empresas de economía social”, *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 48, 31-52.

CHAVES, Rafael, & SOLER, Francisco (2005): “El comportamiento de Cajas de Ahorros y cooperativas de crédito españolas frente a los fines sociales: La obra benéfico-social y el Fondo de Educación y Promoción Cooperativa”, *Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria-Revista Vasca de Economía Social*, (1), 45-62.

CIRIEC (2000): *The Enterprises and Organizations of the Third System: A strategic challenge for employment*, CIRIEC-Directorate General V of the European Union, Liège. Berreskuratuta: http://www.ciriec.uliege.be/wp-content/uploads/2015/12/dgv_ciriec_fulltext_english.pdf

COELHO, Franklin D. (2004): “Finanzas Solidarias”, In En Cattani A. (Ed.): *La otra economía*, 261-277.

COLEMAN, James, S. (1990): *Foundations of social theory*, Belknap Press, Cambridge.

COOKE Philip (1998): “Introduction”, In BRACZYK H.-J., COOKE P. & HEIDENREICH M. (Eds): *Regional Innovation Systems*, UCL Press, London

COOKE, Philip (2001): “Sistemas de innovación regional: conceptos, análisis y tipología”, In URANGA, M.G. and OLAZARAN, M. (eds): *Sistemas regionales de innovación*, Servicio de Publicaciones UPV/EHU, 73-92.

COOKE, Philip, URANGA, Mikel G., & ETXEBARRIA, Goio. (1997): “Regional innovation systems Institutional and organisational dimensions”, *Research policy*, 26, 475-491.

CORAGGIO, Jose Luis (1972): “Hacia una revisión de la teoría de los polos de desarrollo”, *Revista EURE-Revista de Estudios Urbano Regionales*, 2(4), 25-39.

CORAGGIO, Jose Luis (1998): “La agenda del desarrollo local.”, *Revista Semestral Centro de Investigaciones CIUDAD*, 13, 53-67.

CORAGGIO, José Luis (2000): “La relevancia del desarrollo regional en un mundo globalizado”, Ponencia presentada en el *Seminario Taller Internacional ‘Cultura y desarrollo: la perspectiva regional/local’*, organizado por el Instituto Andino de Artes Populares del Convenio Andrés Bello (IADAP), Quito, 15-17.

CORAGGIO, Jose Luis (2004): *La gente o el capital: desarrollo local y economía del trabajo*, Editorial Abya Yala.

CORAGGIO, José Luis (2007a): “Una perspectiva alternativa para la economía social: de la economía popular a la economía del trabajo”, In Coraggio, J. L. (Org.): *La Economía Social desde la periferia. Contribuciones latinoamericanas*, Altamira, Buenos Aires.

CORAGGIO, Jose Luis (2007b): “Desarrollo regional, espacio local y economía social”, *Seminario Internacional ‘Las regiones del siglo XXI. Entre la globalización y la democracia local’*, México

CORAGGIO, Jose Luis (2008): “La sostenibilidad de los emprendimientos de la economía social y solidaria”, *Otra Economía*, 2(3):41-57.

CORAGGIO, Jose Luis (2009a): “Economía del trabajo”, In Cattani. A., Coraggio, J., & Laville, J. (Org): *Diccionario de la otra economía*, Altamira, Buenos Aires, 133-143.

CORAGGIO, José Luis (2009b): “Polanyi y la Economía Social y Solidaria en América Latina” In Coraggio, J. L. (org.): *¿Qué es lo económico? Materiales para un debate necesario contra el fatalismo*, CICCUS, Buenos Aires.

CORAGGIO, Jose Luis (2010): “Territorio y economías alternativas”, *Revista de ciencias sociales*, 18, 7-30.

CORAGGIO, Jose Luis (2011): *Economía social y solidaria: El trabajo antes que el capital*, Ediciones Abya-Yala. Quito, Ecuador.

COTERA, Alfonso & ORTIZ Humberto (2004): “Comercio justo” In Cattani A. (Ed.): *La otra economía*, 59-78.

COTERA, Alfonso & ORTIZ Humberto (2009): “Comercio justo”, In Cattani A., Coraggio, J. & Laville, J. (Org): *Diccionario de la otra economía*, Altamira, Buenos Aires, 76-86.

COX, Kevin R. (1993): “The local and the global in the new urban politics: a critical view”, *Environment and Planning D: Society and Space*, 11, 433-448.

COX, Robert W. (1987): *Production, power, and world order: Social forces in the making of history* (Vol. 1), Columbia University Press.

CRESPO, Blanca & SABÍN, Fernando (2014): “Los mercados sociales. La economía solidaria en acción transformadora”, *Documentación social*, 174, 95-116.

DA ROS, Giuseppina S. (2007): “Economía solidaria: aspectos teóricos y experiencias”, *Unircoop*, 5(1), 9-27.

DACHEUX, Eric & GOUJON, Daniel (2011): “The solidarity economy: an alternative development strategy?”, *International Social Science Journal*, 62, 205-215.

DEFOURNY, Jacques (1988): “Coopératives de production et entreprises autogérées: une synthèse du débat sur les effets économiques de la participation”, *Mondes en Développement*, (61), 139-153.

DEFOURNY, Jacques (2001): “From third sector to social enterprise”, In Borzaga, C. & Defourny, J. (Eds.), *The Emergence of Social Enterprise*, London and New York, Routledge, 1-18

DEFOURNY, Jacques, & DEVELTERE, Patrick. (1999): “Origines et contours de l'économie sociale au Nord et au Sud”, *L'économie sociale au Nord et au Sud*, 25-50.

DEFOURNY, Jacques; FAVREAU, Louis & LAVILLE, Jean Louis (Eds). (1998): *Inserción y nueva economía social*, CIRIEC-España, Valentzia.

DEFOURNY, Jacques & MONZÓN, José Luis (1992): *Économie sociale (entre économie capitaliste et économie publique). The third sector (cooperatives, mutual and nonprofit organizations)*, De Boeck Université-CIRIEC, Bruxelles.

DEFOURNY, Jacques & NYSSSENS, Marthe (2006): “Defining Social Enterprise”, In Nyssens, M. (Ed.): *Social Enterprise, at the Crossroads of Market, Public Policies and the Civil Society*, Routledge, London, 3-26.

DEFOURNY, Jacques, & NYSSSENS, Marthe (2012): “El enfoque EMES de la empresa social desde una perspectiva comparada”, *CIRIEC-España, Revista de economía pública, social y cooperativa*, (75), 6-34.

DEFOURNY, Jacques & NYSSSENS, Marthe (2013): “Social innovation, social economy and social enterprise: what can the European debate tell us?”, In Moulaert, F., McCallum, D, Mehmood, A & Hamdouch, A (Eds.): *The international handbook on social innovation*, 40-53.

DEFOURNY, Jacques & PESTOFF, Victor (2008): *Images and concepts of the third sector in Europe*, EMES working papers, 08/02.

DE LA FUENTE, Ángel, & DA ROCHA, José María (1998): “Modelos de convergencia/divergencia y un repaso de la evidencia empírica”, In Mella, J.M. (coord.): *Economía y Política Regional en España ante la Europa del siglo XXI*, Ed. Akal Textos, Madrid, 32-59.

DÍAZ, Jose Guillermo (2015): “Economías solidarias y territorio: hacia un análisis desde la complejidad”, *Otra Economía*, 9(17), 123-135.

DÍEZ, Marian (2018): “Ekonomia sozial solidarioa, pribatizatze(a) aitzaki?”, *Burujabetza(k) gorpuzten duten adibideak resumen de las intervenciones del seminario “soberanía(s)”*, Gai monografikoak, Manu Robles-Arangiz Institutua, 29.orrialdea

DICKEN, Peter (2011): *Global Shift Mapping the Changing Contours of the World Economy*, Guilford Press, 6th edition.

DRAPERI, Jean-François (2013): “Économie sociale, économie solidaire, entrepreneuriat social. Des projets politiques et économiques différents”, In Hiez, D. & Lavillunière E. (Dir): *Vers une théorie de l'économie sociale et solidaire*, Collection: Droit & économie sociale et solidaire, 17-32.

DUBOIS, Alfonso (2006): “La dimensión normativa del desarrollo en la globalización: una visión crítica de los Objetivos del Milenio”, *Revista de Dirección y Administración de Empresas* (13), 33-52

DUBOIS, Alfonso. (2008): “El desarrollo humano como propuesta alternativa: Aspectos críticos del enfoque de las capacidades”, *XI Jornadas de Economía Crítica*, Instituto Hegoa, Bilbao.

DUBOIS, Alfonso (2014): *Marco teórico y metodológico del Desarrollo Humano Local*, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Instituto Hegoa.

DUBOIS, Alfonso, GURIDI, Luis, & López, María (2011): *Desarrollo humano local: de la teoría a la práctica*, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Instituto Hegoa.

DUNFORD, Mick (1994): “Winners and losers: the new map of economic inequality in the European Union”, *European Urban and Regional Studies*, 1(2), 95-114.

DURSTON, John (2000): *¿Qué es el capital social comunitario?*, CEPAL, Serie: Políticas Sociales, N°38, División de Desarrollo Social, Santiago de Chile.

EDQUIST, Charles. (1997): *Systems of Innovation: Technologies, Institutions and Organizations*, London: Pinter/Cassell.

EGES, Euskal Gizarte Ekonomiaren Sarea (2018): *Prentsa-oharra: EGESek Gizarte Ekonomiaren azken bosturtekoaren datuak eskaini ditu*, Euskal Gizarte Ekonomiaren Sarea, Bilbo. Berreskuratuta: <https://eges.eus/include/uploads/files/2018.09.21%20Datuak%202017%20EGES%20Euskal%20Gizarte%20Ekonomia%20Sarea.pdf>

EME, Bernard & LAVILLE, Jean-Louis (2004): *Renovación y diversidad de prácticas*, In Laville J.L.(Ed.): *Economía social y solidaria. Una visión europea*, 35-52.

ERAUSKIN, Artizar, ZURBANO, Mikel, & MARTÍNEZ, Elena (2012): “Garapenaren ekonomiari loturiko pentsamendu ekonomikoen bilakaeraren hurbilketa bat”, *Revista de Dirección y Administración de Empresas*, (19), 153-176.

ERRASTI, Anjel. (2015): “Mondragon’s Chinese subsidiaries: Coopitalist multinationals in practice”, *Economic and Industrial Democracy*, 36(3), 479-499.

ERRASTI, Anjel M., ELGOIBAR, Pilar, HERAS, Iñaki, & BEGIRISTAIN, Agurtzane. (2002): “La internacionalización de las cooperativas y su responsabilidad social”, *Revista de Dirección y Administración de Empresas*, (10), 119-145.

ERRASTI, Anjel M, HERAS, Iñaki, BAKAIKOA, Baleren, & ELGOIBAR, Pilar (2003): “The internationalisation of cooperatives: the case of the Mondragon Cooperative Corporation”, *Annals of Public and Cooperative Economics*, 74(4), 553-584.

ESPING-ANDERSEN, Gosta (1990): *The Three Worlds of Welfare Capitalism*, Polity Press.

ESTENSORO, Miren, LARREA, Miren, & ZURBANO, Mikel (2011): “Tokiko ekonomia-gobernantza berrikuntza sozialaren begiradatik”, *Uztaro giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (77), 23-41.

ESTENSORO, Miren & ZURBANO, Mikel (2010): “Innovación social en la gobernanza territorial: Innobasque y las redes comarcales de la Comunidad Autónoma de Euskadi”, *Ekonomiaz Revista vasca de Economía*, 74(2), 131-159.

ETXANO, Iker (2015): *Ekonomia eta iraunkortasuna: oinarriak eta aplikazioak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

ETXEZARRETA, Enekoitz (2011): “Sistemas regionales de innovación y cooperativismo”, *Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria-Revista Vasca de Economía Social*, (1), 205-211.

ETXEZARRETA Enekoitz (2012): *Gizarte ekonomiaren aukera zaintzen krisiaren aurrean Gipuzkoako pertsona nagusien alorra aztergai*, Doctoral dissertation, Ph. D. thesis, University of the Basque Country, UPV-EHU, Donostia.

ETXEZARRETA, Enekoitz, ETXEZARRETA, Aitziber, ZURBANO, Mikel & ESTENSORO, Miren (2015): *Innovación Social, Políticas Públicas y Economía Social y Solidaria*, Papeles de Economía Solidaria, 5, REAS Euskadi.

ETXEZARRETA, Enekoitz & MORANDEIRA, Jon (2012): “Consideraciones conceptuales sobre la Economía Social a la luz de la Ley 52011”, *Revista vasca de economía social= Gizarte ekonomiaren euskal aldizkaria*, (8), 7-36.

ETXEZARRETA, Enekoitz eta MORANDEIRA, Jon (2020): Lurralde burujabeak eta udalgintza eraldatzailea, Koopfabrika, 08 entregagaia. Berreskuratuta: https://koopfabrika.eus/app/uploads/2021/01/Lurralde_burujabeak_eta_udalgintza_eraldatzailea.pdf

ETXEZARRETA, Enekoitz, & PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos (2018): *Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak*, Hegoak zabalduz, zk.7, UPV/EHU.

ETXEZARRETA, Miren (2015): *¿Para qué sirve realmente la economía?*, Paidós, Barcelona.

EUROPEAN COMMISSION (2011): *Adquisiciones sociales: Una guía para considerar aspectos sociales en las contrataciones públicas*, La Europa Social, Luxemburgo. Berreskuratuta: <http://www.prodetur.es/prodetur/AlfrescoFileTransferServlet?action=download&ref=dfafd3637-7c45-47e6-bbb0-cce13b4726d3>

EUROPEAN COMMISSION (2014): *Orientaciones sobre desarrollo local a cargo de las comunidades locales para los agentes locales*, Fondos Estructurales y de Inversión Europeos Orientaciones para los Estados miembros y las Autoridades del Programa Orientaciones para los Beneficiarios, Berreskuratuta: https://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/informat/2014/guidance_clld_local_actors_es.pdf

EUROPEAN UNION (2009): *Libro blanco del comité de las regiones sobre la gobernanza multinivel*, Dictamen de iniciativa del Comité de las Regiones. Berreskuratuta: <https://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2009:211:0001:0027:ES:PDF>

EVERSOLE, Robyn, BARRAKET, Jo, & LUKE, Belinda (2013): “Social enterprises in rural community development”, *Community Development Journal*, 49(2), 245-261

EZQUERRA, Sandra. (2011): “Crisis de los cuidados y crisis sistémica: la reproducción como pilar de la economía llamada real”, *Investigaciones feministas*, 2, 175-194.

EVERS, Adalbert, & LAVILLE, Jean-Louis (Eds.) (2004): *The third sector in Europe*, Edward Elgar Publishing.

FAJARDO, Gemma (2009): “La economía social en las leyes”, *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (66), 5-35.

FAVREAU, Louis (1997): “Desarrollo económico comunitario y economía social: el ejemplo canadiense”, *Revista de debate sobre la economía pública, social y cooperativa*, (25), 43-62.

FELBER, Christian (2012): *La economía del bien común: un modelo económico que supera la dicotomía entre capitalismo y comunismo para maximizar el bienestar de nuestra sociedad*, Deusto, Barcelona.

FERNÁNDEZ, Carlos (1999): *Cooperativismo y desarrollo local*. *REVESCO revista de estudios cooperativos*, (68), 33-46.

FLORIDA, Richard (1995): Toward the learning region. *Futures*, 27(5), 527-536.

FLORIDA, Richard (2003): "Cities and the creative class", *City & community*, 2(1), 3-19.

FONG, Melissa (2010): *Rolling Out the Transformative Social Economy: A Case Study of Organic Intellectualism in Canadian Settlement Houses*, Doctoral dissertation, Ph. D. thesis, University of Toronto.

FRASER, Nancy. (2012): *Escalas de justicia*, Herder Editorial.

FUKUDA-PARR, Sakiko., LOPES, Carlos., & MALIK, Khalid (2002): "Institutional innovations for capacity development", In Fukuda-Parr, S. Lopes, C. & MALIK, K. (eds.): *Capacity for development: New solutions to old problems*, UNDP Earthscan, 1-21.

GAIGER, Luiz Inácio (2004): "Emprendimientos económicos solidarios", In Cattani A. (ed.): *La otra economía*, 229-241.

GAIGER, Luiz Inácio (2007): "La economía solidaria y el capitalismo en la perspectiva de las transiciones históricas", In CORAGGIO, J.L. (coord.): *La Economía Social desde la periferia. Contribuciones latinoamericanas, Colección de lecturas sobre Economía Social*, Altamira, UNGS, Buenos Aires, 79-109.

GAIGER, Luiz I. (2008): "A dimensão empreendedora da economia solidária: notas para um debate necessário", *Otra Economía*, 2(3), 58-72.

GAIGER, Luiz Inácio & DA SILVA, Andressa (2011): "O diferencial do empreendedorismo solidário", *Ciências Sociais Unisinos*, 47(1). 34-43.

GAINZA, Xabier (2008): *Instituciones y territorio: Las Agencias de Desarrollo Local vascas en la promoción económica local*, Doctoral dissertation, Ph. D. thesis, University of the Basque Country, UPV-EHU, Bilbao.

GAINZA, Xabier (2018): "Industrial spaces for grassroots creative production: spatial, social and planning facets", *European Planning Studies*, 26(4), 792-811.

GAINZA, Xabier, & UNCETA, Koldo (2011): "Los factores socio-territoriales y su incidencia en las estrategias locales de desarrollo: El caso de las agencias de desarrollo local en el País Vasco", *Revista de Estudios Regionales*, (92), 113-143

GALINDO, Miguel Ángel (2011): "Crecimiento económico", *Informacion Comercial Espanola-Revista de Economía*, (858), 39-55.

GALLEGO, Juan Ramon (2008): “Economía social y dinámica innovadora en los sistemas territoriales de producción y de innovación. Especial referencia a los sistemas agroalimentarios”, *Ciriec-España, Revista de economía pública, social y cooperativa*, (60), 7-40.

GARMENDIA, Joseba M. (2021): *Tokiko garapen ekonomikorako estrategiak eraikitzeke marko kontzeptuala, arkitektura eta metodologia*, UEMA. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. Berreskuratuta: https://www.uema.eus/wp-content/uploads/2021/07/Tokiko-garapen-ekonomikorako-estrategiak_Joseba-Garmendia-2021.pdf

GASPER, Des & VAN STAVEREN, Irene (2003): “Development as freedom – and as what else?”, *Feminist economics*, 9(2-3), 137-161.

GARAPEN, Garapen Agentzien Euskal Elkartea (2017): *Memoria 2017*. Berreskuratuta: http://www.garapen.net/documentos/ficheros/documentacion_eu/2017ko_Agentzien_Memoria.pdf

GARAPEN, Garapen Agentzien Euskal Elkartea (2019): *2019 Memoria*. Berreskuratuta: www.garapen.net/documentos/ficheros/documentacion_eu/GARAPEN_Infografia_2019_EU.pdf

GARCÍA Andrés (1997): “Cooperativismo y desarrollo rural”, *REVESCO revista de estudios cooperativos*, (63), 63-78.

GARCÍA-JANÉ, Jordi (ed.) (2014): *Guia de economía social y solidaria para la administración local*, Diputació de Barcelona. Berreskuratuta: https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2020/06/Guia_de_economia_social_y_solidaria_para_la_administracion_local.pdf.pdf

GARCÍA-JANÉ, Jordi (2018): “Economía social y solidaria para ser libres”, *Burujabetza(k) gorpuzten duten adibideak resumen de las intervenciones del seminario ‘soberanía(s)’*, Gai monografikoak, Manu Robles-Arangiz Institutua, 15-20.

GATTO, Francisco, & QUINTAR, Aída (1992): *Distritos industriales italianos Experiencias y aportes para el desarrollo de políticas industriales locales*, CEPAL, Buenos Aires.

GLAESER, Edward L., KALLAL, Heidi D., SCHEINKMAN, José A., & SHLEIFER, Andrei (1992): Growth in cities, *Journal of political economy*, 100(6), 1126-1152.

GOMEZ, Jesús M. & FERNÁNDEZ, Josefa E. (2008): “La economía social en el desarrollo económico regional un análisis del subsector de mercado en Castilla y León”, *Estudios de Economía Aplicada*, 26(1), 253-274.

GONZÁLEZ, Sara (2005): “La geografía escalar del capitalismo actual”, *PEGADA-A Revista da Geografia do Trabalho*, 6 (1), 91-112.

GRABHER, Gernot (1993): “Rediscovering the social in the economics of interfirm relations”, In Grabher, G. (ed.): *The embedded firm: On the socioeconomics of industrial networks*, 1-31.

GRANOVETTER, Mark (1985): “Economic action and social structure: The problem of embeddedness”, *American journal of sociology*, 91(3), 481-510.

GUERRA, Pablo (2004): “Economía de la Solidaridad. Una introducción a sus diversas manifestaciones teóricas”, *Serie Cuadernos de Educación* N°1.

GUERRA, Pablo (2010): “La economía solidaria en Latinoamérica”, *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, 110, 67-76.

GUERRERI, G., NAZZARO, O., & ZEVI, A. (1992): *La economía social en Italia. Economía Social, entre economía capitalista y economía pública*, Valencia, CIRIEC-España y Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, 157-198.

GUI, Benedetto (1991): “The economic rationale for the ‘Third Sector’”, *Annals of public and cooperative economics*, 62(4), 551-572.

GURIDI, Luis (2017): *Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak*, Hegoak Zabalduz, 1 zk., UPV-EHU, Bilbo.

GURIDI, Luis, & PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos (2014): *La dimensión económica del desarrollo humano local: la economía social solidaria*, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Instituto Hegoa.

GURIDI, Luis, PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos, IAMETTI, Ana, DEUX, María Victoria, VÁZQUEZ, Gonzalo, & URIBE, Amaia (2011): *Experiencias de Economía Social y Solidaria: compartiendo estrategias y aprendizajes*, Papeles de economía solidaria, 2, 1-77.

HANSMANN, Henry B. (1980): *The Role of Nonprofit Enterprise*, Yale Law Journal.

HARVEY, David (1989a): *The condition of postmodernity. An Enquiry into the Origins of Cultural Change*, Oxford: Blackwell.

HARVEY, D. (1989b): “From managerialism to entrepreneurialism: the transformation of urban governance in late capitalism”, *Geografiska Annaler B*, 71, 3-17.

HARVEY, David (2014): *Diecisiete contradicciones y el fin del capitalismo*, Traficantes de Sueños, Madrid

HASSINK, Robert, & KLAERDING, Claudia (2011): “Evolutionary approaches to local and regional development policy” In Pike, A., Rodríguez-Pose, A. & Tomaney J. (eds.): *Handbook of local and regional development*, 139-148.

HAUSER, Christoph., TAPPEINER, Gottfried., & WALDE, Janette. (2007): “The learning region: the impact of social capital and weak ties on innovation”, *Regional studies*, 41(1), 75-88.

HAUSNER, Jerzy (1995): “Imperative vs. interactive strategy of systemic change in central and Eastern Europe”, *Review of International Political Economy*, 2(2), 249-266.

HELMSING, Bert. (1999): “Teorías de desarrollo industrial regional y políticas de segunda y tercera generación”, *EURE (Santiago)*, 25(75), 5-39.

HERAS, Iñaki (2014): “The ties that bind Exploring the basic principles of worker-owned organizations in practice” *Organization*, 21(5) 645-665.

HERNÁNDEZ, Juan, & RAMIRO, Pedro (2015): *Contra la ‘lex mercatoria’: propuestas y alternativas para desmantelar el poder de las empresas transnacionales*, Icaria, Barcelona.

HERRERO, Yayo. (2013): “Miradas ecofeministas para transitar a un mundo justo y sostenible” *Revista de economía crítica*, 16, 278-307.

HERRERO, Yayo. (2014): “Perspectivas ecofeministas para la construcción de una economía compatible con la vida buena”, In REAS Euskadi (ed.): *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y Ecológica*, REAS Euskadi, 55-67

HIRST, Paul & THOMPSON, Grahame (1995): *Globalization in Question*, Cambridge: Polity

HOLLAND, Stuart (1976): *Regional Problem*, Springer.

IBARRA, Pedro. (2000): “¿Qué son los movimientos sociales?” In Grau E. & Ibarra P. (Coords.), *Anuario movimientos sociales. Una mirada sobre la red*, Icaria, Barcelona.

ICA, International Co-operative Alliance (1995): *The statement on the co-operative identity, International Co-operative Alliance*. Berreskuratua: <http://www.gdrc.org/icm/coop-principles.html>

IGUAL, Juan Francisco & MARTÍ, Elena M. (2008): “Social Economy and the cooperative movement in Europe: contributions to a new vision of agriculture and rural development in the Europe of the 27”, *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (62), 147-172.

IORGULESCU, Maria Cristina, & RĂVAR, Anamaria. S. (2015): “The contribution of social enterprises to the development of tourism: The case of Romania”, *Procedia Economics and Finance*, 32, 672-679.

JAMES, Estelle (1987): “The Nonprofit Sector in Comparative Perspective” In POWELL, W.W. (ed.): *The nonprofit sector: a research handbook*, Yale University Press, New Haven, 397-415.

JEFFERIS, Keith; MASON, Nigel (1990): “The financing of worker cooperatives in the UK. Evidence and implications”, *Annals of public and cooperative economics*, 61(2-3), 213-244.

JESSOP, Bob (1993): “Towards a Schumpeterian workfare state? Preliminary remarks on post-Fordist political economy”, *Studies in political economy*, 40(1), 7-39.

JESSOP, Bob (1995): “The regulation approach, governance and post-Fordism: alternative perspectives on economic and political change?”, *Economy and society*, 24(3), 307-333.

JESSOP, Bob (1997): “Capitalism and its future: remarks on regulation, government and governance”, *Review of International Political Economy*, 4(3), 561–581.

JESSOP, Bob (2001): “Institutional re (turns) and the strategic–relational approach”, *Environment and planning*, 33(7), 1213-1235.

JESSOP, Bob (2002): *The future of the capitalist state*, Cambridge: Polity.

JOHNSON, Peter. A. (2010): “Realizing Rural Community Based Tourism Development: Prospects for Social-Economy Enterprises”, *Journal of Rural and Community Development*, 5(1/2), 150-162.

JUBETO, Yolanda eta LARRAÑAGA, Mertxe (2014a): *El Desarrollo Humano Local desde la equidad de género: un proceso de construcción*, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Instituto Hegoa.

JUBETO, Yolanda, & LARRAÑAGA, Mercedes. (2014b): “La economía será solidaria si es feminista”. In REAS Euskadi (ed.): *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la Economía Solidaria, Feminista y Ecológica*, REAS Euskadi, 13-25.

JUSTE, Juan José, GÓMEZ, Jesús M. & FERNÁNDEZ, Josefa E. (2011): “Economía social y desarrollo local/rural. Un análisis de sus sinergias”, *Estudios de Economía Aplicada*, 29(1), 189-221.

KALDOR, Nicholas (1970): “The case for regional policies”, *Scottish journal of political economy*, 17(3), 337-348.

KANPANDEGI, Aritz & KAREAGA, Arianne (2019): “Ekintzailtza sozial kooperatiboa: KoopFabrika egitasmoaren kasua”, *Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria-Revista Vasca de Economía Social*, (16), 129-147.

KATZ, Claudio (1992): “Critica a la teoría de la regulación”, *Revista En defensa del Marxismo* (3).

KEEBLE, David, LAWSON, Clive, MOORE, Barry, & WILKINSON, Frank (1999): “Collective learning processes, networking and ‘institutional thickness’ in the Cambridge region”, *Regional studies*, 33(4), 319-332.

KLEIN, Juan-Luis (1997): “L’espace local à l’heure de la globalisation: la part de la mobilisation sociale”, *Cahiers de géographie du Québec*, 41(114), 367-377.

KLEIN, Juan-Luis. FONTAN, Jean-Marc, HARRISSON, Denis, & LÉVESQUE, Benoît (2012): “La innovación social como factor de la transformación social: el caso del modelo quebequense”, *La economía social: un paradigma más actual que nunca*, 137-180.

KRASHINSKY, Michael (1986): “Transaction costs and a theory of the nonprofit organizations” In Ackerman R. (ed.): *The economics of nonprofit institutions*, Oxford University Press, New York.

KRUGMAN, Paul (1994): “Competitiveness: a dangerous obsession”, *Foreign Affairs*, 73(2), 28-44.

KRUGMAN, Paul (1995): *Development, Geography and Economic Theory*, MIT Press, Cambridge.

LABORAL KUTXA (2016): *Memoria de Responsabilidad Social Empresarial* Berreskuratuta:

https://corporativa.laboralkutxa.com/src/uploads/2017/06/INFORME_RSE_LK_2016_CAS.pdf

LABORAL KUTXA (2017): *Memoria de Responsabilidad Social Empresarial*, Berreskuratuta: https://corporativa.laboralkutxa.com/src/uploads/2018/04/Memoria-RSE-Laboral-Kutxa-2017_CAS.cleaned.pdf

LARRAÑAGA, Mercedes (2010): “Nazioarteko moneta- eta finantza-harremanak”, In Zurbano, M. (koord.): *Ekonomia globala. Gizarte globalerako oinarri berriak*. Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea.

LARRAÑAGA, Mertxe & JUBETO, Yolanda (2011): *El Desarrollo Humano Local desde la equidad de género*, Cuadernos de trabajo de Hegoa (56).

LARREA, Miren (2000): *Sistemas Productivos Locales en la C.A. del País Vasco*, Servicio Editorial de EJ-GV, Vitoria-Gasteiz.

LARREA, Miren (2003): “Clusters y territorio retos del desarrollo local en la Comunidad Autónoma del País Vasco”, *Ekonomiaz: Revista vasca de economía*, 53, 138- 59.

LATOUCHE, Serge (2007): *Sobrevivir al desarrollo*, Barcelona: Icaria

LAVILLE, Jean-Louis (2003): “A new European socioeconomic perspective”, *Review of Social Economy*, 61(3), 389-405.

LAVILLE, Jean-Louis (2004): *Economía social y solidaria. Una visión europea*, Altamira, Buenos Aires.

LAVILLE, Jean-Louis (2009a): “Definiciones e instituciones de la economía”, In CORAGGIO, J. L. (ed.): *¿Qué es lo económico? Materiales para un debate necesario contra el fatalismo*, Buenos Aires, CICCUS, 47-69.

LAVILLE, Jean-Louis (2009b): “Con Mauss y Polanyi hacia una teoría de la economía plural”, In CORAGGIO, J.L. LAVILLE, J.L. (ed.): *¿Qué es lo económico? Materiales para un debate necesario contra el fatalismo*, Buenos Aires, CICCUS, 89-108.

LAVILLE, Jean-Louis (2013): “Économie sociale et solidaire, capitalisme et changement démocratique”, In Hiez, D. & Lavillunière E. (dir.): *Vers une théorie de l'économie sociale et solidaire*, Collection: Droit & économie sociale et solidaire, Editions Larcier, París, 17-32.

LAVILLE, Jean-Louis (2015): *Asociarse para el bien común: Tercer sector, economía social y economía solidaria*, Icaria.

LAVILLE, Jean-Louis (2016): *La economía social y solidaria frente a las políticas públicas*, In Puig C., (coord.): *Economía Social y Solidaria: conceptos, prácticas y políticas públicas*, UPV-EHU Instituto Hegoa 41-64.

LAVILLE, Jean-Louis, & GARCÍA-JANÉ, Jordi. G. (2009): *Crisis capitalista y economía solidaria. Una economía que emerge como alternativa real*, Icaria, Barcelona.

LAVILLE, Jean-Louis, & NYSSSENS, Marthe (2000): “Solidarity-Based Third Sector Organizations in the ‘Proximity Services’ Field: A European Francophone Perspective”, *Voluntas: International Journal of Voluntary and Nonprofit Organizations*, 11(1), 67-84.

LEFEBVRE, Henri (1976): *The survival of capitalism: reproduction of the relations of production*, St. Martin's Press.

LEFEVRE, Henri (1991): *The production of space. Rethinking Architecture: A Reader Cultural Theory*.

LEFEVRE, Henri (2017): *El derecho a la ciudad*, Capitán Swing, Madrid.

LEMA, Isabel, GARCÍA, Ricardo, & MUÑOZ, Jesús Miguel (2015): “Las iniciativas de consumo responsable como espacios de innovación comunitaria y aprendizaje social”, *Revista de estudios e investigación en psicología y educación*, (14), 29-33.

LESMES, Santiago, & ÁLVAREZ DE AULATE, Leire (2014): *Guía de contratación pública socialmente responsable*, REAS Euskadi, Bilbao. Berreskuratuta: http://www.gizatea.net/uploads/migration_files/Guia%20REAS.pdf

LÉVESQUE, Benoit (2003): “De la economía social a la economía solidaria y plural”, *CRISES - Working Papers N° 0408*.

LÉVESQUE, Benoît (2004): “Una Economía Social y Solidaria por una democracia plural en un contexto de globalización”, *CRISES - Working Papers N° 0409*.

LÉVESQUE, Benoît (2013a): “Social Innovation and Governance in Public Management Systems: Toward a new paradigm?”, In Moulaert, F., McCallum, D, Mehmood, A & Hamdouch, A (Eds.): *The international handbook on social innovation*, 25-40

LEVITT, Theodore (1973): *The Third Sector-New Tactics for a Responsive Society*, Division of American Management Associations, New York.

LAZZERETTI, Luciana (2006): “Distritos industriales clusters y otros: un análisis trespassing entre la economía industrial y la gestión estratégica”, *Economía industrial*, (359), 59-79.

LIPIETZ, Alain (1979): *El capital y su espacio*, Ed. Siglo XXI, México.

LISBOA, Armando M. (2001): *Desordem do trabalho, economia popular e exclusão*, Florianópolis, Cidade Futura.

LUNDVALL, Bengt-Ake (1992): *National innovation system: towards a theory of innovation and interactive learning*, Pinter, London.

LUNDVALL, Bengt-Ake (Ed.) (2010): *National systems of innovation: Toward a theory of innovation and interactive learning* (Vol. 2), Anthem press.

MACCALLUM, Diana, MOULAERT, Frank., HILLIER, Jean & VICARI, Serena (Eds.) (2009): *Social innovation and territorial development*, Ashgate.

MACLEOD, Gordon (2001): “Beyond soft institutionalism: accumulation, regulation, and their geographical fixes”, *Environment and planning*, 33(7), 1145-1167.

MAJEE, Wilson & HOYT, Ann (2011): “Cooperatives and community development: A perspective on the use of cooperatives in development”, *Journal of community practice*, 19(1), 48-61.

MANCE, Euclides A. (2004): “Consumo Solidario”, In Cattani A. (Ed.): *La otra economía*, 79-87.

MANCE, Euclides A. (2008): *La revolución de las redes: la colaboración solidaria como una alternativa pos-capitalista a la globalización actual*.

MANCE, Euclides A. (2009): “Consumo Solidario”, In Cattani A., Coraggio, J. & Laville, J. (Org): *Diccionario de la otra economía*, Altamira, Buenos Aires, 76-86.

MARSHALL, Alfred (1919): *Industry and trade: A study of industrial technique and business organization*, London: Macmillan.

MARSHALL, Alfred. (1920): *Principles of Economics: An Introductory Volume*, 8th Edition. London: Macmillan.

MARTIN, Ron (1999): “The new 'geographical turn' in economics: some critical reflections”, *Cambridge journal of Economics*, 23, 65-91.

MARTIN, Ron & SUNLEY, Peter (1998): “Slow convergence? Post neo-classical endogenous growth theory and regional development”, *Economic Geography* 74(3): 201–227.

MARTIN, Ron, & SUNLEY, Peter (2000): “L'économie géographique de Paul Krugman et ses conséquences pour la théorie du développement régional: une évaluation

critique”, In Benko, G., Lipietz A. (eds): *La richesse des régions. La nouvelle géographie socio-économique*, Economie en Liberté, 33-84.

MARTIN, Ron & SUNLEY, Peter (2006): “Path dependence and regional economic evolution”, *Journal of economic geography*, 6(4), 395-437.

MARTÍNEZ, Jone, ORMAZABAL, Andere & AHEDO, Igor (2019): *Gobernantza eta herritarren partaidetza*, Hegoak zabalduz, zk.12,UPV/EHU- Hegoa institutua

MARTINEZ, Zesar & CASADO, Beatriz (2013): *Acerca de opresiones, luchas y resistencias: movimientos sociales y procesos emancipadores*, Cuadernos de Trabajo Hegoa, (60).

MARX, Karl (1973): *Grundrisse: Foundation of the critique of political economy*. Trans. Martin Nicolaus. Harmondsworth: New York, Penguin Books.

MARX, Karl (1975): *El capital: crítica de la economía política: libro primero*, Siglo Veintiuno.

MAUSS, Marcel (1971): “Sobre los dones y sobre la obligación de hacer regalos”, *Sociología y Antropología*, 155-263.

MOHR, Lois A., WEBB, Deborah J., & HARRIS, Katherine E. (2001): “Do consumers expect companies to be socially responsible? The impact of corporate social responsibility on buying behaviour”, *Journal of Consumer affairs*, 35(1), 45-72.

MONCAYO, Edgard (2001): *Evolución de los paradigmas y modelos interpretativos del desarrollo territorial*, CEPAL, Serie: Políticas Sociales, N°13, Instituto Latinoamericano y del Caribe de Planificación Económica y Social – ILPES, Santiago de Chile.

MONTESINOS, Jaime A., & MONTESINOS, Mercedes A (2014): “La economía social y solidaria como alternativa económica. Bienes comunes y democracia”, *RECERCA. Revista de Pensament y Anàlisi*, (15), 55-75.

MONZÓN, José Luis (1995): “Las cooperativas de trabajo asociado ante la reforma de los principios cooperativos”, *REVESCO: revista de estudios cooperativos*, (61), 47-52.

MONZÓN, José Luis (2003): “El cooperativismo en la historia de la literatura económica”, *CIRIEC-ESPAÑA, Revista de economía pública, social y cooperativa*, (44), 9-32.

MONZÓN, José Luis (2006): “Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector”, *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (56). 9-24.

MONZON, José Luis; BAREA, José (1991): *Libro blanco de la Economía Social en España*, Ministerio del Trabajo, Madrid.

MONZÓN, José Luis & CHAVES Rafael (2012): *La economía social en la Unión Europea*. Comité Económico y Social Europeo. Berreskuratuta: <https://www.eesc.europa.eu/resources/docs/qe-30-12-790-es-c.pdf>

MORANDEIRA, Jon (2013): *El servicio público de fomento de la Economía Social en el País Vasco desde una perspectiva de orientación al mercado. Propuestas y acciones*, Doctoral dissertation, Ph. D. thesis, University of the Basque Country, UPV-EHU, Donostia.

MORGAN, Kevin (1997): “The learning region: institutions, innovation and regional renewal”, *Regional studies*, 41(1), 147-159.

MOSO, Mónica & OLAZARAN, Mikel (2001): “Actores, ideas e instituciones: políticas tecnológicas regionales y creación del sistema I+ D en la Comunidad Autónoma del País Vasco”, In Olazaran M. & Gomez-Uranga M. (eds.): *Sistemas regionales de Innovación*, Servicio de Publicaciones Universidad del País Vasco (UPV/EHU), 405-432.

MOULAERT, Frank (2000): *Globalization and integrated area development in European cities*. OUP Oxford.

MOULAERT, Frank (2008): “Innovación social. Institucionalmente enraizada, territorialmente (re) producida”, In JM Albertos, J. Noguera, MD Pitarch & J. Salom (Coords.): *Globalización económica: amenazas y oportunidades para los territorios*, 9-17.

MOULAERT, Frank, & AILENEI, Oana (2005): “Social economy, third sector and solidarity relations: A conceptual synthesis from history to present”, *Urban studies*, 42(11), 2037-2053

MOULAERT, Frank, MARTINELLI, Flavia, SWYNGEDOUW, Erik y GONZALEZ, Sara (2005). "Towards alternative model(s) of local innovation", *Urban Studies*, 42 (11), 1969-1990.

MOULAERT, Frank, & MEHMOOD, Abid. (2011): "Spaces of social innovation", In Pike, A., Rodríguez-Pose, A. & Tomaney J. (eds.): *Handbook of local and regional development*, 212-225.

MOULAERT, Frank & NUSSBAUMER, Jacques (2005a): "The social region: beyond the territorial dynamics of the learning economy", *European urban and regional studies*, 12(1), 45-64.

MOULAERT, Frank & NUSSBAUMER, Jacques (2005b): "Defining the social economy and its governance at the neighbourhood level A methodological reflection", *Urban Studies*, 42(11), 2071-2088.

MOULAERT, Frank & SEKIA, Fraid. (2001): "¿Región innovadora, región social?: una perspectiva alternativa sobre la innovación regional", In URANGA, M.G. and OLAZARAN, M. (eds): *Sistemas regionales de innovación*, Servicio de Publicaciones UPV/EHU, 185-219.

MOULAERT, Frank & SEKIA, Fraid (2003): "Territorial innovation models a critical survey", *Regional studies*, 37(3), 289-302.

MOZAS, Adoración, & BERNAL, Enrique (2006): "Desarrollo territorial y economía social", *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (55), 125-140.

MUÑIZ, Iván (1998): "Externalidades, localización y crecimiento: una revisión bibliográfica", *Revista de Estudios Regionales*, 3, 155-175.

MUÑOZ, Ruth (2009): "Finanzas Solidarias" In Cattani A., Coraggio, J. & Laville, J. (Org): *Diccionario de la otra economía*, Altamira, Buenos Aires, 217-223.

MYRDAL, Gunnar (1957): *Economic Theory and Underdeveloped Regions*, Duckworth, Londres.

NAREDO, José Manuel (1994): "Fundamentos de la economía ecológica", In Aguilera, F, & Alcántara, V. (Comp.): *De la economía ambiental a la economía ecológica*, Fuhem e Icaria, 373-399.

NAREDO, Jose Manuel (2002): "Economía y sostenibilidad: la economía ecológica en perspectiva", *Polis Revista Latinoamericana*, (2), 1-29.

NELSON, Julie A. (2004): "Freedom, Reason, and More: feminist economics and human development", *Journal of Human Development*, 5(3), 309-333.

NELSON, Richard. (Ed.) (1993): *National innovation systems: a comparative analysis*. Oxford University Press.

NORMARK, Peter (1996): "The internationalization of member-owned firms", *Review of international cooperation*, 89, 53-61

NORTH, Douglas C. (1955): "Location theory and regional economic growth", *Journal of political economy*, 63(3), 243-258.

NORTH, Douglas C. (1986): "The new institutional economics", *Journal of Institutional and Theoretical Economics (JITE)*, 142(1), 230-237.

NORTH, Douglas C. (1993): *Instituciones, cambio institucional y desempeño económico*, Fondo de Cultura Económica, México, D.F.

NÚÑEZ, Orlando (1996): *La economía popular: asociativa y autogestionaria*, Centro para la Promocion, la Investigacion y el Desarrollo Rural y Social, Managua (Nicaragua).

NUSSBAUM, Martha (1999): "Mujeres e igualdad según la tesis de las capacidades", *Revista Internacional del Trabajo*, 118(3), 253-273.

NUSSBAUM, Martha (2000): "Women's capabilities and social justice", *Journal of Human Development*, 1(2), 219-247.

NUSSBAUM, Martha (2001): *Women and human development: The capabilities approach* (Vol. 3). Cambridge University Press.

NYSSSENS, Marthe (1996): "Économie populaire au Sud, économie sociale au Nord: des germes d'économie solidaire?", In Sauvage, P. (Eds.), *Réconcilier l'économique et le social*, Paris, 95-120.

NYSSSENS, Marthe (1997): "El germen de una economía solidaria Otra vision de la economía popular. El caso de Santiago de Chile", *CIRIEC Espana revista de economia publica, social y cooperativa*, (25), 63.

NYSENS, Marthe. (ed.) (2006): *Social Enterprise – At the Crossroads of Market, Public Policies and Civil Society*, London and New York: Routledge.

OLATUKOOP (2019): *Oinarri irekiak: barne araudia*, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen sarea. Berreskuratuta: www.olatukoop.eus/app/uploads/2020/01/olatukoop_barne-araudia_2019_AZKENA-1.pdf

OLATUKOOP & XES, xarxa d'economia solidaria catalunya (2019): *15 neurri udalerrietan Ekonomia Sozial Eraldatzailea sustatzeko*, Olatukoop. Berreskuratuta: https://olatukoop.eus/app/uploads/2019/11/15_neurri.pdf

OHMAE, Kenichi (1995): *The end of the national state*, New York: McKinsey& Company Inc.

OOSTERLYNCK, Stijn, & DEBRUYNE, Pascal (2013): “Going beyond physical urban planning interventions: fostering social innovation through urban renewal in Brugse Poort, Ghent”, In Moulaert, F., MacCallum, D., Mehmood, A. & Hamdouch, A. (Eds.): *The International Handbook on Social Innovation: Collective Action, Social Learning and Transdisciplinary Research*, Edward Elgar Publishing 230-241.

OVES/GEEB (2020): *Dossier territorial de la economía social*, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia (OVES/GEEB), Donostia. Berreskuratuta: http://oves-geeb.eus/app/uploads/2020/11/Dossier_Territorial_ES_VF.pdf

PAZ, Enrique (2005): “Globalización, gobernanza local y democracia participativa”, *Cuadernos constitucionales de la catedra Fadrique Furio Ceriol*, (52), 13-31.

PEARCE, John (ed.) (2003): *Social enterprise in any town*, Calouste Gulbekian Foundation, Londres.

PEIXOTO DE ALBUQUERQUE, Paulo (2004): “Autogestión”, In Cattani A. (ed.) *La otra economía*, 39-47.

PEÑA, Dorleta (2012): “Responsabilidad Social Corporativa” In Hernandez, J., González E. & Ramiro, P. (Eds.): *Diccionario crítico de empresas transnacionales*, Icaria, Barcelona.

PÉREZ, David, SOLER, Marta, & SIMÓN, Xavier (2012): “Economía Ecológica y Ecología Política en el Ámbito de la Educación (Ambiental)”, Asociación de Economía Ecológica en España, 2.

PÉREZ, M^a del Carmen (2011): Economía social y desarrollo territorial, *Universidad de Cádiz*.

PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos (2014): *Debates conceptuales y aspectos organizativos de la economía solidaria: el caso de REAS Euskadi*, Doctoral dissertation, Ph. D. thesis, University of the Basque Country, UPV-EHU.

PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos & ETXEZARRETA, Enekoitz (2014): “Ekonomia sozial eta solidarioa zer da eta nola ulertzen da”, *Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria-Revista Vasca de Economía Social*, (X urteurrena), 13-34.

PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos & ETXEZARRETA, Enekoitz. (2015a): “Sobre el concepto de economía social y solidaria. aproximaciones desde Europa y América Latina”, *Revista de Economía Mundial*, (40), 123-144.

PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos & ETXEZARRETA, Enekoitz. (2015b): “Los debates entorno a la Economía Social y Solidaria”, *Boletín del Centro de Documentación Hegoa*, (42), 1-12.

PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos, ETXEZARRETA, Enekoitz., & GURIDI, Luis. (2009): *Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria diferentes conceptos para un mismo debate*, Papeles de Economía Solidaria, 1, 1-41.

PÉREZ-OROZCO, Amaia (2006): “Amenaza tormenta: la crisis de los cuidados y la reorganización del sistema económico”, *Revista de economía crítica*, 5, 7-37.

PÉREZ-OROZCO, Amaia (2011): “Crisis multidimensional y sostenibilidad de la vida”, *Investigaciones feministas*, (1), 29-53.

PÉREZ-OROZCO, Amaia. (2014): *Subversión feminista de la economía aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Traficantes de Sueños.

PÉREZ-OROZCO, Amaia (2017): *Aprendizajes de las resistencias feministas latinoamericanas a los tratados de comercio e inversión. Del no al ALCA al cuestionamiento del capitalismo patriarcal*. Observatorio de Multinacionales en América Latina (OMAL).

PERROUX, Francois (1955): "A note on the notion of growth pole", *Applied economy*, 1(2), 307-320.

PIKE, Andy, TOMANEY, John, & RODRIGUEZ-POSE, Andrés. (2006): *Local and regional development*, Routledge.

PIORE, Michael & SABEL, Charles (1990): *La segunda ruptura industrial*, Alianza Editorial, Madrid.

POLANYI, Karl (1944): *La gran transformación: Los orígenes políticos y económicos de nuestro tiempo*, Fondo de Cultura Económica, Mexico.

POLANYI, Karl (1994): "Nuestra obsoleta mentalidad de mercado", *Cuadernos de economía*, 14(20), 249-266.

PORTER, Michael (1980): *Competitive strategy. Techniques for analysing industries and competitors*, The Free Press, Nueva York.

PORTER, Michael (1990): *The Competitive Advantage of Nations*. The Free Press. New York.

PORTER, Michael (1998): "Clusters and the new economics of competition", *Harvard Business Review*, 76(6), 77-90.

PORTER, Michael. (2000): "Location, competition, and economic development: Local clusters in a global economy", *Economic development quarterly*, 14(1), 15-34.

POYATO, Luciano (2017): "El emprendimiento social y su implicación en el tercer sector", *Revista Española del Tercer Sector*, Madrid, (35) 73-89

PRAHALAD, Coimbatore K. (2005): *La fortuna en la base de la pirámide: Como crear una vida digna y aumentar las opciones mediante el mercado*, teNeues.

PREBISCH, Raúl (1949): El desarrollo económico de la América Latina y algunos de sus principales problemas. *Trimestre Económico*, El, 16(3), 347-431.

PUTNAM, Robert, D. (1993): *Making democracy work: Civic traditions in modern Italy*, Princeton university press.

PUTNAM, Robert, D. (2001): *Bowling alone: The collapse and revival of American community*, Simon and Schuster.

QUIROGA, Natalia (2009): “Economías feminista, social y solidaria. Respuestas heterodoxas a la crisis de reproducción en América Latina”, *Íconos: revista de Ciencias Sociales*, (33), 77-89.

RAMIRO, Pedro, & PÉREZ, Silvia (2011): “Sector Privado y Cooperación al Desarrollo Empresas, Gobiernos y ONG ante las alianzas público-privadas”, *Boletín del Centro de Documentación Hegoa*, (28), 1-9.

RAZETO, Luis (1984): *Economía de solidaridad y mercado democrático*, Programa de Economía del Trabajo.

RAZETO, Luis (1999): “La economía de solidaridad: concepto, realidad y proyecto”, *Persona y sociedad*, 13(2), 1-19.

RAZETO, Luis (2005): “El concepto Solidaridad. Pensamiento Crítico Latinoamericano”, *Conceptos Fundamentales*, 3, 971-985.

RAZETO, Luis (2017): *Los caminos de la economía solidaria*, Univérsitas nueva civilización, Chile-Colombia.

REAS Euskadi (2016): *Transformando los territorios desde la economía solidaria: Herramientas para el impulso de políticas públicas locales*, REAS Euskadi, Bilbo, 1-117. Berreskuratuta: https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/guia_politicas_publicas_ecoSol.pdf

REAS, Red de redes de economía alternativa y solidaria (2011): Carta de principios de la economía solidaria, Berreskuratuta: https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/2011%20EKONOMIA_SOLIDARIOAREN_GUTUNA_REAS.pdf

REDEL, Red de Entidades para el Desarrollo Local (2014): *Retos y futuro del desarrollo económico local*. Berreskuratuta: <https://asociacionredel.com/wp-content/uploads/2015/03/LibroREDELDEF.pdf>

ROBERTS, James A. (1993): “Sex differences in socially responsible consumers' behavior”, *Psychological Reports*, 73(1), 139-148.

ROBEYNS, Ingrid (2005): “The capability approach: a theoretical survey”, *Journal of human development*, 6(1), 93-117.

RODRÍGUEZ, Juan Carlos., & MOZAS, Adoración (2000): “La economía social: agente de cambio estructural en el ámbito rural”, *Revista de Desarrollo Rural y Cooperativismo Agrario*, (4), 7-18.

ROSAS-BAÑOS, Mara (2012): “Economía ecológica y solidaria: rumbo a una propuesta teórica integrada que visualice las rutas hacia la transición”, *Revista Iberoamericana de Economía Ecológica*, (18), 89-103.

ROSTOW, Walt W. (1959): “The stages of economic growth”, *The Economic History Review*, 12(1), 1-16.

RUIZ DE GALARRETA, Jon & ARRILLAGA, Pablo (2020): “Ekonomia Ekologikoaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko hurbilketa. Agenda bateratu baterako elementuak”, *GIZAEKOA Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria-Revista Vasca de Economía Social*, (17), 35-70.

RUGGIE, John G. (1993): “Territoriality and beyond: problematizing modernity in international relations”, *International organization*, 47(1), 139-174.

SACROISKY, Ariana, & URTURI, Andrea (2014): *Crédito y comunidad: debates, esquemas y experiencias en el campo de las finanzas solidarias*. Centro de Economía y Finanzas para el Desarrollo de la Argentina.

SALAMON, Lester M., & ANHEIER, Helmut K. (1992): “In search of the non-profit sector. I: The question of definitions”, *Voluntas: International Journal of Voluntary and Nonprofit Organizations*, 3(2), 125-151.

SALAMON, Lester M., & ANHEIER, Helmut K. (1997): *Defining the nonprofit sector: a cross-national analysis*, Institute for Policy Studies, The Johns Hopkins University. Manchester

SAJARDO, Antonia, & CHAVES, Rafael (2006): “Balance y tendencias en la investigación sobre Tercer Sector no lucrativo. Especial referencia al caso español”, *CIRIEC-España, Revista de economía pública, social y cooperativa*, (56), 87-116.

SARASUA, Jon, & UDAONDO, Ainara (2004): “Autogestión y globalidad: Situar la autogestión económica en el mundo actual”, *Lankiko Lan Koadernoak*, (1).

SARRIA, Ana Mercedes; TIRIBIA, Lia (2004): Economía popular, In En Cattani A. (ed.): “La otra economía”, 173-186.

SASIA, Pedro M. (2012): “La Banca Ética en Europa el enfoque del crédito como criterio de configuración de un espacio de alternativa”, *CIRIEC-España*, (75), 277-299.

SASSEN, Saskia (1991): *Global city* (Vol. 2). Princeton, NJ: Princeton University Press.

SCHMIDT, Derli, & PERIUS, Vergilio (2004): “Cooperativismo y cooperativa”, In Cattani A. (Ed.): *La otra economía*, 109-123.

SCOTT, Allen J. (1988): “Flexible production systems and regional development: the rise of new industrial spaces in North America and Western Europe”, *International Journal of Urban and Regional Research*, 12(2), 171-186.

SCOTT, Allen J. (2001a): *Global city-regions: trends theory policy*, Oxford University Press.

SCOTT, Allen J. (2001b): “Globalization and the rise of city-regions”, *European planning studies*, 9(7), 813-826.

SEN, Amartya (1992): *Inequality re-examined*, Clarendon Press.

SEN, Amartya (2000): *Desarrollo y Libertad*, Editorial Planeta.

SERVÓS, Carmen, & GIL, M^a Isabel (2008): “Los principios cooperativos facilitadores de la innovación: un modelo teórico”, *REVESCO. Revista de Estudios Cooperativos*, (94), 59-79.

SILVA, Javier A. (2010): “La educación cooperativa como estrategia para el desarrollo de la participación y autogestión”, *Revista Estudios Agrarios*, 69-95.

SFORZI, Fabio (1999): “La teoría marshalliana para explicar el desarrollo local”, In F. Rodríguez F. (ed.): *Manual de desarrollo local*, Trea Ediciones, Oviedo.

SIMMIE, James, & MARTIN, Ron (2010): “The economic resilience of regions: towards an evolutionary approach”, *Cambridge journal of regions, economy and society*, 3(1), 27-43.

SOLOW, Robert M. (1956): “A contribution to the theory of economic growth”, *The quarterly journal of economics*, 70(1), 65-94.

SONNINO, Roberta & GRIGGS, Christopher (2013): “A resilient social economy? Insights from the community food sector in the UK”, *Entrepreneurship & Regional Development*, 25, (3-4), 272-292.

SOTO, Aratz eta MORANDEIRA, Jon (2017): *Euskal Gizarte Ekonomiaren egoera txostena*, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia (OVES/GEEB), Donostia. Berreskuratuta: http://oves-geeb.eus/app/uploads/2018/06/2017_Informe_Situacion_Vfinal_CAS.pdf

SPEAR, Roger (2001): “The Co-operative Advantage”, *Annals of Public and Cooperative Economics*, 71(4), 507-523.

STEINBERG, Richard (2006): “Economic Theories of Nonprofit Organizations”, In POWELL, W.W. & STEINBERG, R. (Eds.): *The Non-Profit Sector: a Research Handbook*, Yale University, 221-243.

STORPER, Michael. (1997): *The regional world: territorial development in a global economy*, Guilford press.

STORPER Michael and SCOTT Allen J. (1988): “The geographical foundations and social regulation of flexible production complexes”, In Wolch J. and Dear M. (Eds): *The Power of Geography*, Allen & Unwin, London.

SUBIRATS, Joan (2014): “Notas sobre cambio de época y economía social. ¿Nuevas políticas de desarrollo local?”, In García-Jané, J. G. (Ed.): *Guia de economía social y solidaria para la administración local*, Diputació de Barcelona, 9-20.

SUBIRATS, Joan; PARÉS, Marc eta BLANCO, Ismael (2009): “Calidad democrática y redes de gobernanza: evaluar la participación desde el Análisis de las Políticas Públicas” In PARÉS, Marc (coord.): *Participación y calidad democrática. Evaluando las nuevas formas de democracia participativa*, Barcelona: Ariel.

SUNLEY, Peter (2000): “Urban and regional growth”, In Sheppard, E. and Barnes T. (Eds.): *A companion to economic geography*, Oxford: Blackwell, 187-201.

SUÑOL, Sandra (2006): “Aspectos teóricos de la competitividad”, *Ciencia y sociedad*, 31(2), 179-198.

SWYNGEDOUW, Erik (1992): “The Mammon quest. ‘Glocalisation’, interspatial competition and the monetary order: the construction of new scales”, In Dunford M. & Kafkalas G. (eds): *Cities and regions in the new Europe*, 39-67.

SWYNGEDOUW, Erik (1997): “Neither global nor local: ‘glocalization’ and the politics of scale”, In Cox, K. R. (Ed.): *Spaces of globalization: Reasserting the power of the local*, Guilford Press 137-166.

SWYNGEDOUW, Eric (2005): “Governance innovation and the citizen: The Janus face of governance beyond- the-state”, *Urban Studies*, 42(11), 1991-2007.

TEIS, Xavi. (2011): *Cómo cambiar el mundo con tu dinero: alternativas a la banca convencional*, Icaria, Barcelona.

TÖDTLING, Franz (2011): “Endogenous approaches to local and regional development policy”, In Pike, A., Rodríguez-Pose, A. & Tomaney J. (eds.): *Handbook of local and regional development*, 333-343.

TOMÁS, Juan Antonio (1997): “The prospects for the social economy in a changing world”, *Annals of public and cooperative economics*, 68(2), 247-279.

TOMÁS, Juan Antonio, & MONZÓN, Jose Luis (1998): *Libro Blanco de la economía social en la Comunidad Valenciana*, Valencia: Ciriec España.

TORRES, Juan. (2010): *La crisis de las hipotecas basura ¿Por qué se cayó todo y no se ha hundido nada?*, Sequitur, Madrid.

UNDP (1990): *Desarrollo humano informe 1990*, United Nations Development Programme. Berreskuratuta: http://hdr.undp.org/sites/default/files/hdr_1990_es_completo_nostats.pdf

UNDP (2000): *Desarrollo humano informe 2000: Derechos humanos y desarrollo humano*, United Nations Development Programme. Berreskuratuta: http://hdr.undp.org/sites/default/files/hdr_2000_es.pdf

UNDP (2010): *Desarrollo humano informe 2010: La verdadera riqueza de las naciones, Caminos al desarrollo humano*, United Nations Development Programme. Berreskuratuta: http://hdr.undp.org/sites/default/files/hdr_2010_es_complete_reprint.pdf

UNDP (2018): *Desarrollo humano informe 2018 (Resumen): Índices e indicadores de desarrollo humano: actualización estadística de 2018*, United Nations Development Programme. Berreskuratuta: http://hdr.undp.org/sites/default/files/2018_summary_human_development_statistical_update_sp.pdf

UNITED NATIONS (2003): *Handbook on Non-profit Institutions in the System of National Accounts* (Vol. 91), United Nations Publications, New York. Berreskuratuta: https://unstats.un.org/unsd/publication/seriesf/seriesf_91e.pdf

URANGA, Mikel. G., & COOKE, Philip (1998): “Dimensiones de un sistema de innovación regional: organizaciones e instituciones”, *Ekonomiaz Revista vasca de economía*, (41), 46-67.

URANGA, Mikel G., & OLAZARÁN, Mikel (2001): *Sistemas regionales de innovación*, Servicio de Publicaciones UPV/EHU.

VAILLANCOURT, Yves (2009): “Social economy in the co-construction of public policy”, *Annals of Public and Cooperative Economics*, 80(2), 275-313.

VAN-STAVEREN, Irene (2000): “A conceptualisation of social capital in economics commitment and spill-over effects”, *ISS Working Paper Series General Series*, 324, 1-27.

VÁZQUEZ, Gonzalo. (2014): “Una perspectiva de economía sustantiva con pluralidad de principios e instituciones”, *RED Sociales*, 1, 118-134.

VÁZQUEZ-BARQUERO, Antonio (1988): *Desarrollo local. Una estrategia de creación de empleo*, Pirámide, Madrid.

VÁZQUEZ-BARQUERO, Antonio (1997a): “Desarrollo endógeno: mecanismos institucionales y culturales”, *Revista valenciana destudis autonòmics*, (21), 71-91.

VÁZQUEZ-BARQUERO, Antonio (1997b): “¿Crecimiento endógeno o desarrollo endógeno?”, *Cuadernos del CLAEH (Centro latinoamericano de economía humana)*, Número extraordinario, 37-58.

VÁZQUEZ-BARQUERO, Antonio (1999a): *Desarrollo, redes e innovación: lecciones sobre desarrollo endógeno*, Madrid: Pirámide.

VÁZQUEZ-BARQUERO, Antonio (1999b): “Sobre las raíces teóricas del desarrollo económico local”, *Cuadernos del CENDES*, (40), 1-20.

VÁZQUEZ-BARQUERO, Antonio (2000): “Desarrollo endógeno y globalización”, *EURE (Santiago)*, 26(79), 47-65.

VÁZQUEZ-BARQUERO, Antonio (2003): *Endogenous development: Networking, innovation, institutions and cities*, Routledge.

VÁZQUEZ-BARQUERO, Antonio (2005): *Las nuevas fuerzas del desarrollo*, Antonio Bosch Editor, Barcelona.

VÁZQUEZ-BARQUERO, Antonio (2007): “Desarrollo endógeno. Teorías y políticas de desarrollo territorial”, *Investigaciones regionales*, (11), 183-210.

VÁZQUEZ-BARQUERO, Antonio (2009): “Desarrollo local, una estrategia para tiempos de crisis”, *Revista Apuntes del CENES*, 28(47), 117-132.

VÁZQUEZ-BARQUERO, Antonio (2018): “Reflexiones teóricas sobre la relación entre desarrollo endógeno y economía social”, *Revista Iberoamericana de Economía Solidaria e Innovación Socioecológica: RIESISE*, (1), 11-22.

VIA, Jordi (2014): “Economía cooperativa: útil transformador para el desarrollo local”, In García-Jané, J. G. (ed.): *Guía de economía social y solidaria para la administración local*, Diputació de Barcelona, 49-60.

VILLALBA, Unai, & PÉREZ DE MENDIGUREN, Juan Carlos (2019): “La economía social y solidaria como vía para el buen vivir”, *Revista Iberoamericana de Estudios de Desarrollo= Iberoamerican Journal of Development Studies*, 8(1), 106-136.

WEBSTER JR, Frederick E. (1975) “Determining the characteristics of the socially conscious consumer”, *Journal of consumer research*, 2(3), 188-196.

WEISBROD, Burton A. (1998): “The nonprofit mission and its financing: Growing links between nonprofits and the rest of the economy”, In Burton (Eds.): *To profit or not to profit: The commercial transformation of the nonprofit sector*, 1-22.

WHITE, Simon, & GASSER, Martin. (2001): *Local economic development: a tool for supporting locally owned and managed development processes that foster the*

global promotion of decent work, Departamento de Creación de Empleo y Desarrollo Empresarial de la OIT, Ginebra.

WILLIAMSON, Oliver E (1981): “The economics of organization: The transaction cost approach”, *American journal of sociology*, 87(3), 548-577.

WISKERKE, Johannes, BOCK, Bettina B., STUIVER, Marian., & RENTING, Han. (2003): “Environmental co-operatives as a new mode of rural governance”, *NJAS-Wageningen Journal of Life Sciences*, 51(1-2), 9-25.

YOUNG, Dennis (1983): *If not for Profit, for What?*, Lexington Mass, Markham.

ZULAIKA, Andoni (2017): “Tokiko Garapen Agentzien eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren gaitasuna Tokiko Giza Garapenaren bidean: Agência de Desenvolupament del Bergueda-ren esperientzia aztergai”, *Revista vasca de economía social= Gizarte ekonomiaren euskal aldizkaria*, (14), 77-102.

ZURBANO, Mikel (2005): “Las regiones como sujetos de la economía global. Euskadi en la gobernanza multidimensional”, *Ekonomiaz Revista vasca de economía*, (58), 196-231.

ZURBANO, Mikel (2008): “Gobernanza e innovación social. El caso de las políticas públicas en materia de ciencia y tecnología en Euskadi”, *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, (60), 73-93.

ZURBANO, Mikel, BIDAURRATZAGA, Eduardo, & MARTINEZ, Elena (2014b): “Las transformaciones de los modelos territoriales de desarrollo en el contexto de la globalización. Aportaciones desde la perspectiva del desarrollo humano local”, *Revista de Estudios Regionales*, (99), 103-133.

ZURBANO, Mikel, GAINZA, Xabier, & BIDAURRATZAGA, Eduardo (2014a): *Interrelación local-global en los procesos de Desarrollo Humano Local*. Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Instituto Hegoa.

ZURBANO, Mikel, MARTINEZ, Elena, GAINZA, Xabier, eta ARRILLAGA, Pablo (2018): *Globalizazioa eta tokiko garapena*, Hegoak Zabalduz, 8 zk., UPV-EHU, Bilbo.

ERANSKINAK:

1. Eranskina: Inkesta

Atariko oharra (abajo en castellano):

Hurrengo galdetegia Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) baitan aurrera eramaten ari den Doktorego Tesi baten ikerketa lanaren zati da. Lan honen helburua **Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) tokiko garapen agentzien eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) arteko harremana ezagutzea da.**

Eskertuko genizuke, tokiko garapen-agentzia gisa, eta, beraz, gure ikerketaren **funtsezko eragile gisa**, galdera hauei erantzutea. Galdetegi hau betetzeko ez dira 10 minutu baino gehiago beharko, eta, oro har, emandako erantzunen artean X batekin (edo bat baino gehiago bere kasuan) aukeratu beharko dira.

Informazio guztiaren tratamenduan **konfidentziasuna bermatzen da.**

Mila esker zure laguntzagatik

Nota preliminar:

El siguiente formulario es parte de un trabajo de investigación de Tesis Doctoral de la

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) que tiene como objetivo **conocer la relación entre las agencias de desarrollo local y comarcal de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) y la Economía Social y Solidaria (ESS).**

Le agradeceríamos que, como agencia de desarrollo local o comarcal, y, por lo tanto, **como actor clave** en nuestra investigación, respondiera a las siguientes preguntas. La cumplimentación de este cuestionario no le llevará más de 10 minutos, y por lo general, las respuestas vendrán dadas teniendo que marcar con una X una (o en su caso varias) respuestas.

Se garantiza la confidencialidad en el tratamiento de toda la información.

Muchas gracias por su colaboración.

BLOQUE 0: DATOS PARA LA IDENTIFICACIÓN DE LA ENTIDAD:

- 1) ¿Cuál es el nombre de su agencia de desarrollo?
- 2) ¿Qué comarca o municipio forma parte del área de influencia de su agencia de desarrollo?
- 3) Esa área de influencia es un/a _____.
 - a. Comarca
 - b. Municipio
 - c. Otra “especifique”
- 4) ¿En qué año se creó su agencia de desarrollo?
- 5) ¿Cuál es la forma jurídica de su agencia de desarrollo?
 - a. Sociedad Anónima
 - b. Sociedad Limitada
 - c. Departamento municipal
 - d. Otra “especifique”
- 6) ¿Qué áreas trabaja su agencia de desarrollo? (*Opción múltiple*)
 - a. Empleo
 - b. Emprendimiento
 - c. Estructura productiva local, redes de empresas y/o competitividad empresarial.
 - d. Comercio local y consumo
 - e. Turismo
 - f. Servicios socioculturales y/o medioambientales
 - g. Otros “especifique”
- 7) ¿Qué servicios ofrece su agencia de desarrollo? (*Opción múltiple*)
 - a. Orientación y/o intermediación laboral
 - b. Información y/o tramitación de ayudas y subvenciones
 - c. Fomento del turismo (Oficina de turismo, actividades turísticas, ferias, fiestas, catálogo de empresas/servicios etc.)
 - d. Fomento y dinamización del comercio local (Oficina de consumo, catálogo comercial, fomento del asociacionismo comercial, iniciativas para promover el comercio local etc.)
 - e. Formación (Gestión empresarial, TICs, digitalización de empresas, otros cursos o sesiones etc.)

- f. Servicios para empresas (Asesoramiento técnico o en gestión, diagnosticos empresariales, formación, programas para la difusión de TICs, mejora de la calidad o fomento de la innovación etc.).
- g. Servicios para emprendedores (Incubadora empresarial, planes de viabilidad, asesoramiento en gestión, formación, tutorización y seguimiento de proyectos etc.)
- h. Diagnósticos y planificación estratégica del territorio y/o sectores económicos.
- i. Fomento de iniciativas culturales y/o medioambientales.
- j. Otros “especifique”

1er BLOQUE: LÍNEAS DE TRABAJO ESTRATÉGICAS:

- 8) De los siguientes, ¿Cuáles crees que son los principales problemas de su comarca o municipio? (*Puntúe del 1 al 7. 1 para el principal problema y 7 para el menor*)
- a. Desempleo
 - b. Calidad del empleo y condiciones laborales
 - c. Escasa actividad económica
 - d. Escasa competitividad empresarial
 - e. Escasa promoción del turismo
 - f. Escaso dinamismo del comercio local
 - g. Falta de oferta sociocultural
- 9) ¿Cuáles son las líneas de trabajo prioritarias en su agencia de desarrollo? (*Opción múltiple*)
- a. Empleo
 - b. Emprendimiento
 - c. Formación
 - d. Servicios a empresas
 - e. Turismo
 - f. Comercio local y consumo
 - g. Medio ambiente
 - h. Servicios socioculturales
 - i. Otros “especifique”
- 10) ¿En vuestra agencia de desarrollo, ¿trabajáis en conjunto con algún otro agente o entidad del territorio?

- a. Si
 - b. No
- 11) ¿Con cuál? (*Opción múltiple*)
- a. Con empresas
 - b. Organizaciones de la sociedad civil
 - c. Con el colegio de empresarios/asociaciones empresariales
 - d. Con grupos cooperativos (si los hubiera)
 - e. Con sindicatos
 - f. Con ONGs
 - g. Con centros de investigación
 - h. Centros de formación
 - i. Con la Universidad
 - j. Otros “especifique”

2º BLOQUE: SOBRE EL CONOCIMIENTO EN TORNO A LA ECONOMÍA SOCIAL Y SOLIDARIA (ESS):

- 12) ¿Habéis recibido formación sobre la Economía Social y Solidaria (ESS) en vuestra agencia de desarrollo?
- a. Si
 - b. No
 - c. Otro “especifique”
- 13) ¿Cuánto dirías que es el conocimiento sobre la ESS en vuestra agencia de desarrollo? (siendo 0 ningún conocimiento y 5 un nivel de conocimiento experto)
- ningún conocimiento 0 1 2 3 4 5 conocimiento experto
- 14) ¿Cuáles de los siguientes vincularías con la Economía Social y Solidaria (ESS)? (*Opción múltiple*)
- a. Empresas que desarrollan la Responsabilidad Social Corporativa
 - b. Cooperativas
 - c. Sociedades laborales
 - d. Empresas de inserción
 - e. Centros especiales de empleo
 - f. Empresas públicas (servicios públicos y/o servicios sociales)
 - g. Asociaciones
 - h. Otros “especifique”

- 15) ¿Cuál de los siguientes explica mejor el objetivo de la Economía Social y Solidaria (ESS)? (*máximo 3 opciones*)
- Creación de empleo
 - Inserción sociolaboral de personas en situación o riesgo de exclusión
 - Democratizar la economía y promover la transformación socioeconómica
 - Incidir en ámbitos en los que el sector público no puede llegar (servicios públicos y/o servicios sociales)
 - Satisfacer las necesidades de los socios y/o de la comunidad
 - Integrar el ámbito económico, social y ambiental de la empresa
 - Otro “especifique”
- 16) ¿Desde vuestra agencia de desarrollo habéis llevado a cabo alguna relación con las federaciones, redes, familias y/o grupos de la Economía Social y Solidaria (ESS)?
- Os habéis puesto en contacto alguna vez
 - Os conocéis
 - Habéis realizado colaboraciones puntuales
 - Habéis trabajado a largo plazo
 - Desarrolláis una colaboración muy fluida y continua
 - No, no hemos desarrollado relaciones
 - Otro “especifique”
- 17) Si ha seleccionado una de las primeras 5 respuestas anteriores, ¿con qué redes o grupos cooperativos habéis desarrollado relaciones? (*Opción múltiple*)
- RED VASCA DE ECONOMÍA SOCIAL (EGES)
 - KONFEKOOP
 - ASLE
 - ELHABE
 - GIZATEA
 - REAS EUSKADI
 - OLATUKOOP
 - RED GORATUZ
 - MONDRAGÓN CORPORACIÓN
 - Otro “especifique”

3º BLOQUE: ECONOMÍA SOCIAL Y SOLIDARIA Y DESARROLLO LOCAL/COMARCAL:

- 18) ¿Cuáles de las siguientes crees que son las principales aportaciones de la ESS al desarrollo local? (*máximo 3 opciones*)
- a. Genera empleo de mayor calidad (condiciones laborales, estabilidad...)
 - b. Logra una distribución más justa de la riqueza generada y garantiza que se quede en el territorio
 - c. Puede adaptarse mejor a las necesidades locales y lograr una economía más sostenible
 - d. Puede aumentar la cohesión social en el territorio
 - e. Fomenta el emprendimiento local
 - f. Facilita la creación de redes de cooperación empresarial
 - g. Es un modelo de empresa más apropiado para cubrir aspectos no económicos del desarrollo (sociales, culturales, políticos, medio ambiente...)
 - h. Democratiza la economía local y posibilita la transformación socioeconómica
 - i. No realiza ninguna aportación específica
 - j. Otro “especifique”
- 19) ¿Lleváis a cabo alguna iniciativa en vuestra agencia de desarrollo para fomentar específicamente la ESS?
- a. Si
 - b. No
 - c. Otro “especifique”
- 20) En caso afirmativo, ¿Podrías explicarla(s) brevemente?

- 21) ¿Cuáles de las siguientes medidas de promoción de la ESS conocéis? (*Opción múltiple*)
- a. Convenios de colaboración con ESS
 - b. Compra pública responsable (cláusulas sociales, reservas de contratos, compras de suministros públicos a la ESS, etc.)

- c. Presupuestos públicos participativos
- d. Cesión de espacios para actividades o iniciativas sociales y comunitarias dentro de la ESS
- e. Cooperativización de servicios sociales y/o públicos
- f. Participar en la creación de empresas de inserción
- g. Crear un plan estratégico de impulso de la ESS en el territorio
- h. Creación de redes de promoción de ESS supramunicipal (por ejemplo, redes de municipios por la ESS)
- i. Fomentar circuitos con financiación ética y alternativa
- j. Promover mercados sociales
- k. Programas de promoción del emprendimiento en ESS
- l. Campañas de sensibilización sobre la ESS
- m. Medidas de fomento de la soberanía alimentaria, energética, residencial

22) ¿Cuáles de los anteriores hacéis o estaríais dispuestos/as a hacer en vuestra agencia de desarrollo? (*Opción múltiple*)

- a. Convenios de colaboración con ESS
- b. Compra pública responsable (cláusulas sociales, reservas de contratos, compras de suministros públicos a la ESS, etc.)
- c. Presupuestos públicos participativos
- d. Cesión de espacios para actividades o iniciativas sociales y comunitarias dentro de la ESS
- e. Cooperativización de servicios sociales y/o públicos
- f. Participar en la creación de empresas de inserción
- g. Crear un plan estratégico de impulso de la ESS en el territorio
- h. Creación de redes de promoción de ESS supramunicipal (por ejemplo, redes de municipios por la ESS)
- i. Fomentar circuitos con financiación ética y alternativa
- j. Promover mercados sociales
- k. Programas de promoción del emprendimiento en ESS
- l. Campañas de sensibilización sobre la ESS
- m. Medidas de fomento de la soberanía alimentaria, energética, residencial

23) En general, ¿estaríais dispuestos a aplicar más medidas para fomentar la ESS?

- a. Si
- b. No

- c. Depende de la situación
 - d. Otro “especifique”
- 24) Un grupo de personas que quisiera poner en marcha una iniciativa de ESS, ¿encontraría menos, iguales o más facilidades que otra iniciativa empresarial para su puesta en marcha por parte de su agencia de desarrollo?
- a. Menos facilidades
 - b. Iguales facilidades
 - c. Mayores facilidades
- 25) ¿Se podría trabajar la ESS de forma transversal en su agencia de desarrollo?
- a. Sí, es aplicable a todos los ámbitos y líneas de trabajo de la agencia de desarrollo
 - b. No, pero se puede considerar como una línea de trabajo más
 - c. No se puede realizar ningún tratamiento especial para la ESS
- 26) ¿Estaríais dispuestos a realizar un trabajo transversal sobre la ESS?
- a. Si
 - b. Sí, pero necesitaríamos ayuda (Redes de ESS, Universidad, Ayuntamientos, Diputación...)
 - c. De momento estamos dispuestos a considerarla como una línea trabajo más de la agencia de desarrollo
 - d. No estamos dispuestos a tomar medidas específicas para promocionar la ESS
 - e. Otro “especifique”
- 27) ¿Dónde encontraríais mayores dificultades para promocionar la ESS? (Opción múltiple))
- a. Falta de conocimiento en torno a la ESS
 - b. Falta de financiación
 - c. Falta de recursos
 - d. Falta de personal
 - e. Falta de voluntad
 - f. Dificultades jurídicas/burocráticas
 - g. Falta de ideas
 - h. Dificultad para aplicar/estabilizar las ideas
 - i. Dificultad para encontrar emprendedores
 - j. Otro “especifique”

2. Eranskina: Sakoneko elkarrizketen gidoiak

2.1 Eranskina: Garapen agentziekin erabilitako gidodia

0 BLOKEA: ESSaren inguruko iritzi orokorra

- Nola ulertzen duzue Ekonomia Sozial eta Solidarioa? Zer da zuentzako ESSa?
- Zeintzuk dira zuentzako ESSaren balioak?
- ESSaren eta tokiko garapenaren helburuak bat egiten dutela sumatzen duzu? Non? Zein onura eskaini diezaioke ESSak lurraldeari?

I. BLOKEA: Gaur egungo testuingurua eta lurraldea:

- Globalizazioaren testuinguruan, autore ugariak lurraldeak eta tokiko eremuak eragile ekonomiko gisa ber-indartu direla argudiatzen dute, ados al zaude baieztapen horrekin?
- Globalizazioa, 2008ko krisiaren ondorioak, Covid-19aren ondorioak, lan merkatuaren prekarizazio orokortua... Zeintzuk dira zure ustez etorkizuneko tokiko garapenaren nondik norakoak? ikusten duzu ESSa tokiko garapenaren etorkizunerako lan ildo horien artean?

II. BLOKEA: Garapen estrategia, ESSa sustatzeko politikak eta harreman instituzionalak:

- Zer eskaintzen dio ESSak tokiko garapenari? ESSa tokiko garapenerako eragile garrantzitsua bezala ikusten duzu?
- Zer egin daiteke garapen agentzietatik ESSa sustatzeko? Egin nahi da zerbait? Egin daiteke gehiago? Zergatik ez da gehiago egiten (finantzazio falta, baliabide falta, pertsonal falta, borondate falta, eragozpen burokratikoak, ezagutza falta, ideiak falta, ideiak aplikatzerakoan egonkortze falta...)?
- Egin behar da zerbait Garapenetik? Zer egin daiteke Garapenetik?

III. BLOKEA: ESSan oinarritutako garapen estrategia baten inguruko hausnarketak

- ESSak tokiko garapenari eskaini diezaiokeena interesgarria ikusten duzu?
- ESSa landu daiteke modu transbertselean garapen agentzietan? Edo lan ildo konkrituak sustatzeko edo sektore konkrituak sustatzeko lanabesa bezala ikusten duzu?
- ESSak potentziala dauka tokiko garapenaren ildo guztiei erantzuna emateko? Zer abantaila eta desabantaila ikusten diozue ESSan oinarritutako tokiko garapenerako estrategia bati?

- Nola egokitu daiteke tokiko garapena gaur egungo testuinguruak ezartzen dituen mugei (ekologikoa, soziala, politikoa eta ekonomikoa)? ESSan oinarritutako tokiko garapena muga horien barnean pertsona guztientzako bizitza bizigarriak lortzeko eraginkorragoa izan daiteke?
- Garapen eredu propioa (behetik gora eta demokratikoa), endogenoa (tokiko baliabide eta indarrak aktibatuz), integrala (esparru ekonomikotik haratago, beste esparruez arduratzen dena) eta autozentratua (lehenik tokiko beharrak asetzerantz bideratuta dagoena) lortzea izan daiteke erronka?
- Interesgarriak izan daitezke eskualdeaz gaindiko sareak eskualde bakoitzean ESSaren inguruan egiten dena beste eskualde batzuetara zabaltzeko (Adibidez, Xarxa de Municipis per l'Economia Social i Solidària)?

2.2 Eranskina: ESSko eragileekin erabilitako gidoia:

I. BLOKEA: Gaur egungo testuingurua, ESSa eta lurraldea:

- Zer paper jokutzen dute ESSko antolakundeak globalizazioaren testuinguruan? Nola eraldatu dira ESSaren antolakundeak globalizazioak dakarren erronkei erantzuteko?
- ¿Zeintzuk dira zure ustez etorkizuneko tokiko garapenaren nondik norakoak? ikusten duzu ESSa tokiko garapenaren etorkizunerako lan ildo horien artean?
- ESSko ehunak lurraldera enpresa kapitalistek baino lotura handiagoa erakusten duela esango zenuke?

II. BLOKEA: Garapen estrategia, ESSa sustatzeko politikak eta harreman instituzionalak:

- Zer eskaintzen dio ESSak tokiko garapenari? ESSa tokiko garapenerako eragile garrantzitsua bezala ikusten duzu?
- Garrantzia daukate garapen agentziek ESSaren sustapenerako? Zer egin daiteke garapen agentzietatik ESSa sustatzeko?
- Kontsideratzen zarete eskualde/udalerrietako eragile aktiboak bezala (Federazio/sare eta antolakunde mailan)? Parte-hartzen duzue lurraldeen gobernantza sisteman?

III. BLOKEA: ESSan oinarritutako garapen estrategia baten inguruko hausnarketak

- ESSa landu daiteke garapen agentzietatik lan ildo estrategiko gisa? Nola izan beharko litzateke lanketa hau, transbertsala, lan ildo bat bezala, proiektu puntualak...?
- ESSak potentziala dauka bakarrik haren aldeko apustua egiteko? ESSa landu daiteke modu transbertsalean garapen agentzietan? Edo lan ildo konkretuak edo sektore konkretuak sustatzeko lanabesa bezala ikusten duzu?
- Zer abantaila eta desabantaila ikusten diozue ESSan oinarritutako tokiko garapenerako estrategia bati? Uste duzue orokorrean EAEko tokiko garapenean badagoela borondaterik ESSa garapen estrategietan barneratzeko? Non egon daitezke zailtasun handienak?
- Tokiko garapenak modu eraginkorrago batean lortu dezake gaur egungo testuinguruak ezartzen dituen mugei egokitzea (ekologikoa, soziala, politikoa eta ekonomikoa) ESSan oinarritzen bada?

- ESSak lagundu dezake garapen eredu propioa (behetik gora eta demokratikoa), endogenoa (tokiko baliabide eta indarrak aktibatuz), integrala (esparru ekonomikotik haratago, beste esparruez arduratzen dena) eta autozentratua (lehenik tokiko beharrak asetzera bideratuta dagoena) lortzeko?
- ESSak burujabetza sektorieletan sakontzeko duen gaitasunari esker, lurralde burujabeagoak lortzen lagundu dezake? Hori izan beharko luke tokiko garapenak esploratu beharreko bidea?
- Interesgarriak izan daitezke eskualdez gaindiko sareak eskualde bakoitzean ESSaren inguruan egiten dena beste eskualde batzuetara zabaltzeko (Adibidez, Xarxa de Municipis per l'Economia Social i Solidària)?

2.3 Eranskina: Adituekin erabilitako gidoia

I. BLOQUE: Contexto actual, ESS y territorio:

- ¿Qué papel juegan las organizaciones de ESS en el contexto de la globalización? ¿Cómo se han transformado las organizaciones de ESS para responder a los retos que genera la globalización?
- ¿Cuáles crees que son los próximos retos y/o líneas de trabajo del desarrollo local? ¿Está o debería estar la ESS entre esas líneas de trabajo?
- ¿Dirías que la ESS muestra una mayor vinculación al territorio que otro tipo de empresas?
- ¿Qué importancia tienen los territorios para dar respuesta a los retos generados por la globalización?

II. BLOQUE: Estrategia de desarrollo, políticas para el fomento de la ESS y relaciones institucionales:

- ¿Qué le ofrece la ESS al desarrollo local? ¿Ves a la ESS como un agente clave para el desarrollo local?
- ¿Tienen importancia las agencias de desarrollo para la promoción de la ESS? ¿Qué se puede hacer desde las agencias de desarrollo para promocionar la ESS?
- ¿Puede ser la ESS un buen instrumento para aglutinar otros agentes sociales de la sociedad civil en torno a una estrategia de desarrollo local más amplia?

III. BLOQUE: Reflexiones sobre una estrategia de desarrollo basada en la ESS:

- ¿Se puede integrar la ESS como línea de trabajo estratégica desde las agencias de desarrollo? ¿Cómo debería ser esta integración, transversal, como una línea de trabajo más, proyectos puntuales...?
- ¿La ESS tiene potencial para dar respuesta a todas las líneas de desarrollo local? ¿Se puede trabajar la ESS de forma transversal en las agencias de desarrollo? ¿O lo ves como una herramienta para impulsar líneas de trabajo concretas o para promover sectores concretos?
- ¿Qué ventajas y desventajas ves en una estrategia de desarrollo local basada en la ESS? ¿Creéis que existe voluntad, en general, en el desarrollo local para incluir a la ESS en sus estrategias? ¿Cuáles pueden ser las mayores dificultades para establecerlo?
- ¿El desarrollo local puede lograr adaptarse a las limitaciones que impone el contexto actual (ecológico, social, político y económico) de una manera más eficaz si se basa en la ESS?

- ¿La ESS puede contribuir a la consecución de un modelo de desarrollo propio (de abajo a arriba y democrático), endógeno (activando recursos y fuerzas locales), integral (más allá del ámbito económico, que se ocupa de otros ámbitos) y auto-equilibrado (orientado a la satisfacción de las necesidades locales)? ¿Son esas las características que debería tener el desarrollo local?
- ¿El desarrollo local debería trabajar de manera más explícita las variables no económicas del desarrollo (social, político, cultural...)? Teniendo en cuenta las diferentes formas que puede adoptar la ESS, ¿crees que se puede hacer cargo de ellas?
- Las herramientas que ofrece la ESS para profundizar en las soberanías sectoriales, ¿pueden contribuir a lograr una mayor soberanía en los territorios? ¿Debería ser también el camino que debe explorar el desarrollo local?
- ¿Pueden ser interesantes las redes supracomarcas para extender a otras comarcas/municipios lo que se realiza en cada comarca/municipio en torno al ESS? (como la Xarxa de Municipis per l'Economia Social i Solidària)
- ¿Hasta qué punto puede ser importante crear una cotidianidad donde la ESS tenga una presencia considerable para transformar las instituciones sociales (formales e informales) de un territorio y desarrollar un capital social basado en valores como la cooperación, la reciprocidad o la ayuda mutua? ¿Cómo se puede llevar a cabo esta transformación, para que pueda enraizar en un territorio sin ser impuesta?

3. Eranskina: Sakoneko elkarrizketetara heltzeko esteka:

<https://drive.google.com/drive/folders/15UIqxL0UL4fxTHOtW9cr9iuFUrvKRzcg?usp=sharing>

Esteka hau tesiaren epaiketa tribunalak entzun nahi izatekotan atxikitzen da bakarrik, eta bere zabalpena debekatuta dago pribatutasun arrazoiengatik. Horregatik, tesia behin ebaluatuta denean, estekan dauden edukiak ezabatuko dira.

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea